

# Bilbo eta Pintura

GUGGENHEIM BILBAO

|   |     |
|---|-----|
| BILBO   HISTORIA .....  | 4   |
| BILBO: HIRIBILDUA ETA ELIZATEAK .....   | 4   |
| PERTSONAIA ITZALTSUAK.....  | 12  |
| BILBO ETA FRANTZIAREN AURKAKO GERRAK: KONBENTZIO-GERRA (1793–95) ETA INDEPENDENTZIA-GERRA (1808–14) ..... | 16  |
| MENDE-ALDAKETA: 1800EKO <i>MILLENNIALAK</i> , FRANTSESTUAK .....  | 23  |
| HERRITAR MOTAK .....  | 26  |
| KARLISMOA .....   | 59  |
| GERRA ARTEKO GARAIA .....   | 72  |
| BIGARREN KARLISTALDITIK AURRERA.....  | 80  |
| AURREIRITZIAK: OLIGARKIA.....   | 85  |
| AURREIRITZIAK: ENDOGAMIA .....  | 94  |
| NAUTIKA ESKOLAK.....  | 102 |
| ONTZIOLAK .....   | 106 |
| STEAM YACHTS — ESKOLA-ONTZIAK .....   | 117 |
| NEGURIKO ETXEAK.....  | 123 |
| KLUBAK.....   | 133 |
| SONDERKLASSE BELAONTZIAK .....  | 146 |
| 15 METRO KLASEKO ONTZIAK .....  | 149 |
| BILBO, INGENIARIEN ETA ARKITEKTOEN HIRIA .....  | 152 |
| HITZATZEA .....   | 184 |
| BILBO   PINTURA.....  | 188 |
| BILBO: MERKATARITZARAKO PORTUA ETA HIRIBILDUA .....   | 188 |
| GUIARD ETA SOCIEDAD BILBAINA ELKARTEA.....  | 191 |
| LOSADA, ZULOAGA, GUINEA ETA KURDING CLUB ELKARTEA .....   | 200 |
| VALENTÍN DE ZUBIAURRE.....  | 209 |
| ARRUE — ESTROPADAK .....  | 212 |
| ARRUE – BILBOKO ATHLETIC CLUB.....  | 223 |
| LOSADA – TRAINERUAK.....  | 229 |
| ESKULTURA: DURRIO.....  | 233 |
| ITSASOA. TELLAECHÉ, MAEZTU, UCÉLAY, ARTETA.....   | 244 |
| ITSASOA. MAEZTU .....   | 248 |
| ITSASOA. RAMÓN DE ZUBIAURRE .....   | 252 |
| ITSASOA. UCÉLAY .....   | 255 |
| ARTETA – GERRAREN TRIPTIKOA.....  | 0   |

|   |    |
|---|----|
| HERRIXKA. GUIARD, ARTETA, ITURRINO, IBARROLA..... | 7  |
| GUIARD – UZTA-GARAIA .....                        | 9  |
| ARTETA – ARRATIAKO EVA.....                       | 14 |
| ITURRINO – LANDAKO FESTA .....                    | 16 |
| IBARROLA – LANABESAK .....                        | 21 |
| INPRESIONISMOA. GUIARD, REGOYOS .....             | 23 |
| EUSKAL DANTZAREN IRUDIKAPENA PINTURAN.....        | 37 |
| LOSADA – DANBOLINTEROA .....                      | 47 |
| ARTETA – ERROMERIA.....                           | 54 |
| ARRUE – ERROMERIA .....                           | 56 |
| OLASAGASTI – SAGARDANTZA .....                    | 63 |
| UCELAY – ZUBEROAKO DANTZAK.....                   | 65 |

# BILBO | HISTORIA

## KOSME DE BARAÑANO

### BILBO: HIRIBILDUA ETA ELIZATEAK

XIX. mendearen hasieran, Bilbo portuko hiribildu komertzial txiki bat zen; mendearen amaierarako, ordea, etorkizunerantz begiratzen zuen hiri industrial bizia bihurtu zen. Nola jazo zen aldaketa hura?

Nola izan zen posible aldaketa hura lehenengo Independentzia Gerrak (1808–14) eta ondoren zenbait Karlismaldik (1833–40 eta 1872–76) eragindako nahasmenduaren erdian? Eta nola iraun zuten bizirik bertako biztanleek (eta bertako energiak) lau kolera-erasoaldiren ostean?

Galdera horientzako erantzunik errazena, honako hau da: alde batetik, Antzinako Erregimena ezabatzeko eta hiri berri zabaldu eta moderno bilakatzeko gaitasuna izan zuelako (zentzu guztietan saneatua: urez eta argindarrez hornitua, ospitale on batekin, erruki-etxe bikain batekin, etab.); beste alde batetik, gai izan zelako portu komertzial txikia eta burdina-meataritza atzean utzi, eta garapen berria sustatuko zuen industriara aldatzeko (siderurgia eta ontzigintza); eta, azkenik, dendarien hiribildu izateari utzi, eta hiriburu finantzario bihurtu zelako.

1775ean, William Bowles (1705–1780) irlandar naturalistak, garaiko espainiar gobernuak hala eskatuta, Espainiako lurra deskribatu zituen *Introducción a la historia natural, y a la geografía física de España*<sup>1</sup> lanean, eta honako hau idatzi zuen:

“Bizkaiko fruta eta barazkien ugaritasuna aipatu dut: Bilbo nabarmentzen da; izan ere, hango inguruetan asko eta ona jasotzeaz gainera, urrutiko beste leku batzuetako onena ekartzen dute. Bilbo erosotasunez eta gustura bizitzeko aukera ematen duen herria da, merkataritza-aukera zabala duelako... zentzuz eginak daudelako bertako lege zibilak eta merkataritzakoak. Horien artean, bada bat esker txarraren aurkakoa, eta delitu hori eginez gero zigorra dakar”.

Urte batzuk geroago, Andrew Leith Hay (1785–1862) eskoziar militar eta arkitektura-kritikariak, James Leith jeneralaren iloba eta frantsesen aurkako gerran haren gudu-zelaiko laguntzaile izan zenak, honela deskribatu zuen hiribildua *A Narrative of the Peninsular War* memoria-liburuan: “Bilbo oso hiri polita da; trazadura erregularra du, kale zabal eta ongi zolatuak, eta eraikin handi eta ederrak. Ingurunean lur landu asko dago, eta pintoreskoa da. Hiria ibarraren atzealdean kokatuta dago, eta oso ingurune askotarikoa du; hurbileko muinoak zuhaitzez beteta daude gailurreraino. Biztanleek itxura alaia eta aktiboa dute, eta hiriari abantaila ematen dio bere kokapen eder eta komertzialki mesedegarriak. Ibaia nabigagarria da hiriraino, eta hiria izan da, hain zuzen ere, Penintsulako iparraldeko kostako merkataritzagune garrantzitsuenaren luzaroan”<sup>2</sup>.

1800. urtean, hiribilduko aberastasunak portuan zuen jatorria, hau da, hainbat produktutan oinarritutako merkataritza-trukean. Gaztelako artilea, bakailao gazitua eta Bizkaiko barnealdean ekoizitako burdina trukatzeko zituzten, besteak beste. Bilbok Europako iparraldearen eta Gaztelako erdialdearen arteko trukea bilatu eta sendotu zuen XVI. mendearen hasieratik, eta XVII. mendearen amaieran, Amerikako koloniekiko trukea. XVII. mendean, Bilbok Kantauri

itsasoko portuetako merkataritza-trafikoaren gero eta parte handiagoa bereganatu zuen, aduana-erregistroek erakusten dutenez, eta argi definitu zuen bere itsas orientazioa herrialdetik kanporantz, Europarantz nahiz Amerikarantz; orientazio hori Espainiako beste edozein portu-hiribildutan baino nabarmenagoa zen, Sevilla eta Cádiz kenduta, eta horietan, bestalde, kontsignatario asko bizkaitarrak edo euskaldunak ziren sortzez.

Datu demografikoek datu soziologiko konplexuagoek baino hobeto irudikatzen eta laburbiltzen dute edozein gizarte-egoera, baita datu ekonomikoek baino hobeto ere. Azter ditzagun Zazpikaleetara mugatuta zegoen hiribilduaren errolda-datuak, non agertzen diren bertan erroldatuta zeuden jabeen izenak. Tokiko korporazioek, hiribildukoek nahiz elizateetakoek, bizilagunen zenbaketak egiten zituzten aldian-aldian, zegozkien zergak ordaindu behar zituzten zergadunen kopurua ziurtatzeko. Zerga horiekin finantzatzen zituzten hiribilduko mantentze-lanetako eta segurtasuneko gastuak, baita Diputazioaren gastuak ere, hura arduratzen baitzen bide eta errepedeen egoeraz, osasunaz, etab.<sup>3</sup>

Datu horiek adierazten digute zer jende bizi zen kale batean eta nola erlazionatzen ziren. Era askotako pertsonen bizikidetzak horrek erabateko zentzua hartzen du Lehen Karlistaldiaren ondoren hiriaren aldaketa eragin zuen sistema sozioekonomikoa aztertzen dugunean. Aldaketa hori jada hasia zen frantsesen inbasioaren urteetan, Bilbon ez baitzituzten zuzenean gaitzetsi Frantziatik iritsitako ideiak.

Antzinako Erregimena ezeztatzeaz gain, Bilbok etorkizunerako bokazioa agertu zuen, eta bokazio hori hiriaren barruan eta inguruetan, hiribilduan eta elizateetan bizi ziren klase sozial guztiek zeukaten.

Azal dezagun labur-labur zer-nolako harremana zuen Bilboko hiribilduak inguruko lurraldearekin eta nola antolatuta zegoen politikoki.

Diego V.a Lopez Harokoak sortze-gutun edo hiri-gutun baten bidez eratu zuen Bilboko hiribildua, 1300. urteko ekainaren 15ean. Pribilegio hauek jaso zituen: Gaztelako merkataritza guztiak bertatik igaro behar zuen nahitaez itsasorako bidean, beraz, Urduñatik Bermeorako bidea<sup>4</sup>, jaurerriko merkataritza-bide garrantzitsuena, Bilbotik pasako zen (San Anton zubitik), libre geratuko ziren salgaien sarrera-irteerak, eta bertan bilduko zen burdinaren garraioa ere; horrek barne hartzen zituen Flandes<sup>5</sup> eta Britainia Handiko portuekiko merkataritza, neurri txikiagoan Frantzia, Portugal eta Italiako portuekikoa, eta garai hartan Gaztelako eta Aragoiko erresumen portu nagusiak ziren Sevilla eta Bartzelonako portuekikoa ere.

Hiribildu batek kokaleku harresidun batean biltzen zuen biztanleria, hau da, kokaleku babestu batean, eta harreman komertzialak ziurtatu eta sustatzen zituzten justizia-arauak eta pribilegioak zituen. Landako bizitzarekin alderatuta, oinarritzko lau abantaila edo pribilegio zeukaten hiribilduek: harresiz inguratuta zeudenez, bertan ez zegoen lapurretarik; justizia bizkorra zuten; biztanleria kontzentratuago zegoen, eta bizimodua erosoagoa zen. Bizkaian 21 hiribildu eratu ziren, Urduñako hiria barne<sup>6</sup>, Gaztelatik zetorren merkataritza-ibilbideko funtsezko igarobidea (barneko portua).

Hiribilduak lur lautik (harresirik gabeko lurraldea) bereizten ziren, hau da, elizate izeneko biztanleguneetatik. Horrelakoetan, oinarria baserria zen (zentzu zabalean: etxebizitza, ukuilua, aletegia, baratzeak eta larreak, etab.); baserria eta hari zegozkion lurak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen-unitatetzat hartuta, biziraupenerako ekonomia gisa. Hiribilduetako biztanleriak ez zuen zerikusirik landako biztanleriarekin, zeina baitzegoen sakabanatua, baserrietan edo eliza nagusi baten inguruko taldeetan antolatua. Hiribilduetan, artisauak eta merkatarik egonkorrak taldekatzen ziren sarri. Hala, hiribilduak izaera hiritarra hartuz joan ziren, landa-eremuko ohiko ogibideen eta

bizimoduen bestelakoak zeuzkan klase sozial batekin. Bizilagunen arteko harremanak ez ziren administratiboak eta udalerrikoak, giza geografiarekin lotuak baizik, eta haien lehen egitura komunala kontzeju irekiarekin edo eliza-ateko bilkurarekin agertu zen; elizen atarietan egiten ziren, eta harrizko mahai handiak daude oraindik horrelakoetan.

Hiribilduak foruagatik<sup>7</sup> bereizten ziren elizateetatik, baita artisauek biltzeko eta egitura komertzialak sortzeko gaitasunagatik ere, merkatu- eta azoka-egunak sortzeko eskubide eta gaitasunagatik, adibidez. Bilbon beste erakunde bat agertu zen 1511n: Kotsulatua, Kontratazio Etxea, Itsasoko eta Lehorreko Negozio Gizonen Epaitegia, baita Bilboko Unibertsitatea ere<sup>8</sup>.

Bilbo hiribildu gisa jaio zen, hau da, haren erdigune historikoak Erdi Aroko trazadura-eredua zuen, bide garrantzitsuen elkargunea zelako, eta zubi bat (historikoa, San Anton zubia), portua (merkataritzarako eta itsasoz bestalderako irekidura) eta itsasadarra (garbiketa-fluxua eta ardatz egituratzailea) zituen. 1375eko eta 1442ko Bilbo irudikatzen duten eskema planimetrokoak<sup>9</sup> dauzkagu, eta batik bat ikuspegi bat, veduta bat, 1575eko Civitatis Orbis Terrarum laneko akuaforre koloreztatuan<sup>10</sup>. Bilbok zazpi kale izan zituen sorreran<sup>11</sup>:

- Barrenkale Barrena (edo Jauregiaren kalea)— Barrenkale (goikoa edo “la Susera”)
- Arategizar (edo Harategi Zahar)
- Belostikale (edo Arrantoki)
- Artekale (erdiko kalea), ondoren “Frankoena” izendatu zutena, edo “bestaldekoena”, kanpotik etorritakoena
- Dendarikale, gremioen jardueragatik hala izendatua, Santiago kalea ere deitua
- Goienkale (goiko kalea), “Somera” edo Cal Somera” (edo “Cimera”, gainekoa)

Ondoren harresitik kanpo sortuz eta moldatuz joan ziren Erronda kalea, Txakur kalea, Pilota kalea, Loteria kalea eta Hiltegi kalea (ondoren Espainiako Bankuaren kalea), baita Bidebarrieta ere, kale berri-berria, berriena. Plaza handiago bat sortu zen harresitik kanpo, Erriberan —itsasadarraren eta Zazpikaleen artean—; gero etorri ziren errebalak, hau da, aurretik dagoeneko baziren auzuneak —Urazurrutia (gaur egungo Bilbo Zaharra) eta Ibeni (edo Atxuri) zein Bolueta<sup>12</sup>—; ondoren, Plaza Barria eta Posta kalea, Kapelagile kalea eta Askao kalea, Areatza, San Nikolaseko zuhaitzia, Estufa eta Sendeja kaleak; eta azkenik, anexionatu egin zituzten elizateetako lurrak, Campo Volantin, Salbe ingurua<sup>13</sup>, Deustu eta Abandoko zabalgunea, Abrara iritsi arte.

Hau da, Bilbo portuko beharren arabera zabalduz joan zen, itsasoraino iritsi arte. Ibaizabal ibaia ertzean sortu zen, ibaia nabigagarria zelako bokaleraino, 15 km aurrerago. Ibaizabal ibaia Bilboko hiribildutik zen nabigagarria; hiribildua korrontearen eskuinean kokatuta zegoen, eta Olabeaga zen ainguratokia. Aurreago, Zorrotza igarota, Cadagua ibaia ezkerretik sartzen zen, eta hortik aurrera —Lutxanako dorreetatik aurrera— Barakaldoko ibarrak, Nuestra Señora del Carmen burdina-lantegia, Galindo ibaia —Trapagatik zetorrena— eta Sestaoko ibarrak zeuden, Portugaleteko hiribildura iritsi arte, eta Santurtzira eta Zierbenara (garai hartan Enkarterri); eta beste aldean, Erandioko ibarrak, Itarburu menditik zetorren Asua ibaia, eta Lamiakoko eta Areetako ibarrak zeuden, baita Gobela ibaia ere, Barrikatik zetorrena Udondo ibaiko urekin.

1801ean, *Los Vascos o Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en Primavera de 1801* lanean, Wilhelm von Humboldt-ek idatzi zuen bidaiariak “Ibaizabalen ertz xarmagarriak” ikusten dituela Bilbotik, eta oin-oharrean jaso zuen “Nerbioirekin bat egiten duen lekutik bakarrik darama[la] izen hori”<sup>14</sup>. 1864an, *Guía Histórico-Descriptiva del Señorío de Vizcaya* lanean, Juan Eustaquio Delmasek idatzi zuen lurraldeko sei ibai garrantzitsuenen artean “lehena [dela] Ibaizabal edo Nerbioi, Delikako iturrian duena jatorria, Urduñako Haitzean...”.

Bere portuari esker, Bilbok segurtasun eta babes handiagoarekin bideratu zuen Gaztelako artilearen merkataritza eta esportazioa, Bizkaiko Jaurerriko burdinoletako industriari bide eman zion, eta inguruko elizateetako merkatua kontrolatu zuen. Horrek berekin ekarri zuen merkataritza eta artisautzari lotutako burgesia agertzea eta gatazka sozialak sortzea hiribilduko eta elizateetako biztanleen artean (Jaurerriko Diputazioaren mendekoak, azken horiek). Bilbok merkataritza-jarduerekin eta itsas jarduerekin izandako lotura funtsezkoa izan zen hiriaren garapenerako, eta Kontsulatua (edo kontsignatario, merkataria eta itsasontzi-kapitainen sindikatua) ere funtsezkoa izan zen, XIX. mendean desegin zen arte; hain izan zen garrantzitsua, ezen udalarekin egoitza partekatzea ere iritsi baitzen<sup>15</sup>. Hortaz, Bilboko hiribildua, bertako lurraldea eta biztanleria, hiru erakunderen artean gobernatzen zuten, eta XIX. mendean (biztanleek pairatutako gerren eta epidemien ostean), hirurek norabide berean egin zuten arraun.

Azken hogeitun urteetan, gure lurraldeko biztanleriari buruzko azterlan demografiko oso onak izan ditugu. Badakigu 1797an zehazki 10.943 biztanle bizi zirela eta kopuru hori 90.000 ingurukoa izatera iritsi zela XIX. mendearen amaierarako; aldiz Madrilek 200.000 biztanle zituen 1820an, eta 539.835, berriz, 1900. urtean<sup>16</sup>.

Nolanahi ere, batzuetan, azterlan horietan jasota dauden iritzi batzuk ez datoz bat erroldek erakusten diguten Bilbo errealekin. Adibidez, Arantza Pareja Alonsok (gainerakoan bikaina den “Bilbao. Demografía en los siglos XIX y XX” lanean) bi iruzkin egin zituen, hiribilduaren hedapena geldiaraziko zuketanak, nolabait; baina hedapen hori gertatu egin zen. Honako hauek dira:

1. “Kontuan hartu behar da industriaurreko gizartea landatarra zela, eta haren ekonomia ere halakoa zen, funtsean; hiriak, aldiz, ez zuen pisu handirik, ez demografikoki, ez sozioekonomikoki. Testuinguru hartan, Bilbo “landarik” gabeko hiri bat zen, eta, hortaz, ez zuen nekazaririk”.
2. “Bilboko historia modernoaren historialariek ongi dakite udal-agintarien obsesio etengabeetako bat zera izan zela, hain zuzen ere, biztanle berriei hiritar-izaera emateko ikaragarritzako mugak jartzea; izaera horrek hiribilduaren barruan eskubide nahiz betebeharrak bete-betean baliatzeko eskubidea ematen zuen”<sup>17</sup>.

Lehenengo puntuari dagokionez, aipatu beharra dago inguruko elizateek elikadura-kalitatea ematen ziotela Bilbori; horregatik anexionatu nahi zituen lur horiek udalerraren etorkizuna taxutzeko. Joaquín Adánek zioen moduan<sup>18</sup>, “ez da industria-kudeatzaile ona izango nekazaritzako azken gorabeherak ezagutzen ez dituen”. Hiribildu komertzial aberatsak portuko eta zamalanetarako kaltetako jardueren bitartez bideratu zuen bere jarduna eta garapena. Garai hartan, Erriberako kaiak (eta merkatua) eta Areatza zeuden, Olabeagako ainguratokiarekin, baina berehala ikusi zuten itsasadarraren kanalizazio hobea eta kanpo-portua behar zituztela, jada ez zeudela harresien barruan, ezta Abandoko ontziola ere, eta Olabeaga eta Zorrotza ere ez, noski. Kontsulatua Erriberako kaietara arduratu zen, eta, horrez gainera, biltegi, garraio eta nabigazioko azpiegiturak mantendu eta zabaldu zituen, bai bi ibaiertzetan, bai itsasadarrak Abraraino egiten zuen bidean, hau da, Bilborekin mugakide ziren hiru elizateekin ez ezik beste batzuekin ere harremanetan. Horrez gainera, portuko lanaren ondorioz langile gehiago behar izan ziren salgaiak mugitzeko, zamalanak egiteko eta portuari lotutako beste arlo batzuetan aritzeko, eta Begoñako nahiz Abandoko jende ugari hasi zen lanean.

Bigarren puntuari dagokionez, errealitatea oso bestelakoa zen, Bilbok berehala onartu baitzituen hiribildura iritsitako indianoak eta atzerritarrak. Bilboko “sistema demografikoa” aztertu behar dugu, XVIII. mendearen amaieratik, eta aurkituko dugu oso biztanleria heterogeneoa, elkarrekin bizi zena anaitasunez, eta ezkontzen bidez erlacionatu eta nahasten zena. Beste kapitulu batean aztertuko dugu hori, aurrerago. XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendeko Bilbo, non garatu ziren gure erakusketako margolariak, ez zen 1575eko Civitates Orbis Terrarum lanean eskainitako veduta edo ikuspegi panoramikoaren oso bestelakoa (ikus gaztelarazko liburukiko 26–27. or.). Ikuspegi hori Miribillako

gainetik egina dago, eta bertan atsedean hartzen edo askaria egiten ageri dira emakume batzuk, txano frigiarrak jantzita, eta behi bat. Akuaforte teknikaz egindako veduta horretan Zazpikaleak ikusten dira, Santiago katedral gotikoa, San Anton eliza eta zubia, eta jada desagertuta dagoen San Frantzisko komentua, besteak beste. Behealdean ezkerretara kokatuta dagoen kartel batean jasota daude hemeretzi eraikin garrantzitsuren izenak<sup>19</sup>. Baina ikuspegi horren begiradaren zerumuga Bilbok XIX. mendean lortu nahi zuena da: Ibaizabal ibaiari jarraituz zabaltzea bokaleraino, non Serantes mendiaren tontorraren ondoan ageri diren La vara de PortoGalete letra larriz idatzita eta bi galeoi (sarrerako nabigazioa oztopatzen zuen hareazko barrari egindako lehen aipamenetako bat). Barra hori betirako desagertu zen portuko obrak, burdinazko kaia (1880–87) eta kontrakaia (1903) egitean. Bilbo Abrara iritsi zen.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

Besterik adierazi ezean, testuan agertzen diren aipuak gaztelaniatik euskarara itzulita daude jatorrizko iturria euskaraz argitaratua ez dagoen kasu guztietan.

1. William Bowles, *Introducción a la historia natural, y a la geografía física de España*, Imprenta de Mena, Madril, 1775, 312. or. Bere behaketen zehaztasuna eta doitasuna tarteko, irlandar biologo eta botanikariak nazioarteko gorespena lortu zuen, eta lana frantsesera itzuli zuen Guillaume Bowlespar Flavigniko bizkondeak (Paris, 1776), eta italiera, aldiz, Francesco Miliziak (Stamperia Reale Bodoni, Parma, 1783). Hauek dira Bilbon 1700–1850 urteen artean agertutako pasealeku eta lorategien ezaugarri komunak: 1) oso lotuta zeuden itsasadarrarekin, zeina baitzen ikuskizunaren parte: Kañu pasealekua itsasadarraren forma geofisikoaren arabera eratua zegoen; Areatzak ibilguaren zati bat lapurtzen zion, eta Campo Volantin pasealekua uraren ibilbide zuzenaren parean zihoan; 2) eremu publiko horiek (dikeak, urak ekartzeko azpiegiturak, industriako instalazioak) jatorri soziolaborala zuten, eta herritarrak horiek beretzen joan ziren, denborak aurrera egin ahala; 3) hiribildurako bi sarrera posible bakarretan kokatuta zeuden: Deustu eta erriberakoa (Volantin) eta Gaztelako errepidekoa (Kañu). [itzuli]
2. Carlos Santacara, “Bilbao visto por los británicos durante la francesada, 1808–1814”, *Bidebarrieta*, 14. zk., Bilbo, 2003, 108. or. Jatorrizko bertsioa: Sir Andrew Leith Hay of Rannes, *A Narrative of the Peninsula War*. Daniel Lizars, Edinburgo/Londres, 1831, 21. or., egileak berak egindako marrazkiak dituzten bi liburuki (berrargitalpena: Franklin Classics, Londres, 2018). [itzuli]
3. Fogerazio horiek —horrela esaten zitzaizen “suen erroldei”, hau da, biztanledun zenbat etxe zeuden eta bakoitzean zenbat lagun bizi ziren jasotzen zuten erregistroei— biztanlegune bakoitzaren bizilagun-kopurua adierazten digute; nabarmentzekoak dira 1493, 1514, 1704, 1745 eta 1796. urteetakoak, 1810eko erroldak eta 1857ko eta 1860ko errolda instituzionalak. Bilboko hiribilduan, korrejidoreak ez ezik, Kontsulatuak ere erreparatzen zion erroldaren egoerari. Kontsulatuak beti aurreikusten zituen biltegitarte-, garraio-, zamalan- eta nabigazio-azpiegiturak mantentzeko edo zabaltzeko beharrak. [itzuli]
4. Gaztelako Fernando IV.ak berretsia Burgosen, 1300. urteko urtarrilaren 4an, Logroñoko Forupean. Hiribildua Erdi Aroan sortutako biztanlegune-mota bat da. Lurralde-oinarri gutxi-asko zabala zuen kontzeju bateko ordezkariak eskatuta, erregeak edo autoritateak (Bizkaiko jaunak, bertako lurraldearen jabea eta jabe juridikozionala zenak) hirigutun edo sortze-gutun bat ematen zuen. Ziurrenik, portutik eratorritako merkataritza-jarduerak babesteko beharrak bultzatuta eratu zen hiribildua 1300. urtean, pribilegioz (hau da, sortze-legedi juridikoarekin) eta harresiekin. [itzuli]
5. XIV. mendetik bertatik, Bilbok harreman komertzialak zeuzkan Flandesko konderri zahararekin (Guillots van Severen-ek argitaratutako *Cartulario de Brujas* lanean jasota dagoenez, 1350erako jada baziren bizkaitar ontziak Europako eskualde hartan). Bilboren harreman komertzial horien erakusle da Bizkaiko Kontratazio Etxea izan zuela Brujasen 1489ra arte, eta ondoren Anberesen. [itzuli]



6. Urduña hiribildua izan zen lehenengo, 1229an, eta ondoren hiri-titulua jaso zuen, Fernando Katolikoaren eskutik 1467an, eta Isabel eta Fernando Errege-erregina Katolikoaren eskutik, 1481ean, Bartzelonan egindako dekretu baten bidez. Bertako bideetatik igarotzeagatik kobratzen zuenetik eta Bilboko portuaren aduana izatetik bizi izan zen Urduña mende luzez. Aduana, gainera, bi noranzkoetan zen: joatean, gurdiak artilez, zerealez, ardoz eta olio beteta joaten ziren; itzuleran, bideko burdinoletan landutako burdina eta altzairua zeramatzen. Bertan eraiki zituen Jesusen Konpainiak Bizkaiko bere lehen tenplua eta eskola. Urduñak Espainia barruko ordokitik zetorren igarobidea kontrolatzen zuen Bilboraino iristen den Nerbioi ibaiaren bailarari esker; Bizkaiko Jaurerriaren eta Gaztelako konderrien arteko muga naturala izan zen, eta paper ekonomiko garrantzitsua lortu zuen. Balmaseda, Urduña, Bermeo eta Otxandioko hiribilduak Bilbo baino lehenagokoak dira. Fernando II.a Aragoiok 1511ko ekainaren 21ean egin zuen Foruen zina; Isabel I.a Gaztelakoak 1483ko irailaren 5ean egin zuen haien zina, eta 1511n “Bilboko Kotsulatua, Kontratazio Etxea eta Itsasoko eta Lehorreko Negozio Gizonen epaitegia” eratzeko ordenantzak onartu ziren. 1602an, Bizkaiko hiriburu izendatu zuten; ordura arte Bermeok izan zuen titulu hori (Bermeori zegokion lehen eserlekua Batzarretan parte hartzen zuten hiribildu guztietako ordezkarien artean). Erdi Aroan, 21 hirigune harresidun sortu ziren Bizkaian (Bizkaiko Forutik bereizten zituzten beren hiri-gutunetan jasotako foru partikularrek): Balmaseda, Bermeo, Bilbo, Durango, Ermua, Gernika, Lanestosa, Lekeitio, Markina, Ondarroa, Otxandio, Portugalete, Plentzia, Mungia, Areatza, Errigoiti, Larrabetzu, Gerrickaitz, Miravalles, Elorrio eta Urduñako hiria. [\[itzuli\]](#)
7. Bilboko sortze-forua erregeak emana zen, Jaurerriko foru-araudi orokorra ez bezala, zeinak baitzuen ohiturazko jatorria. [\[itzuli\]](#)
8. Bilboko merkataritza-talde baten izenean, Juan de Arizek Kotsulatuaren sorrera eskatu zuen, eta baimena eskuratu zuen 1511ko ekainaren 22an Sevillan emandako errege-gutunaren bidez. Burgosen bazen Lehorreko Kotsulatua 1494az geroztik, eta Madrilan askoz geroago sortu zuten, 1632an. Erakunde publiko-pribatu gisa, itsasoko edo lehorreko kotsulatu batek kudeaketa-ahalmena zuen, baita betearazpenerako eta zigor juridikorako ahalmena ere, itsas azpiegiturei (portuak, pilotajea, itsasontzien porturatzea, zamalanak) edo lehorreko azpiegiturei (trafiko komertziala eta merkataritza-legediko eskumenak) zegokienez: “[...] hemendik aurrera merkatariek izango dute jurisdikzioa merkatarien artean izan daitezkeen desadostasun eta eztabaiden berri izateko, eta ezagutu beharko dituzte, eta salgai-tratuaren kideen eta faktoreen berri jakin beharko dute, baita truke eta salerosketen berri ere, eta kanbio eta aseguruen berri, izan dituzten eta dituzten kontu eta konpainien berri, ontziraturako ontzien berri...”. Cádizko 1812ko konstituzioak Kotsulatuen ahalmenak eta jarduerak deuseztatu zituen, 1866an Merkataritza Ganberak sortu ziren arte. [\[itzuli\]](#)
9. Beatriz Arizaga Bolumburu eta Sergio Martínez Martínez, “El espacio público de la villa de Bilbao”, Donostia, 2006, <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/bilbao-el-espacio-publico-de-la-villa-de-bilbao/art-17947/>. Honako hau diote 55. orrialdean: “1913an, Carlos de la Pazak grabatu bat argitaratu zuen, non irudikatuta ageri den 1375eko Bilboren ustezko planoaren zazpi kaleetako hirurekin bakarrik: Goienkale, Artekale eta Dendarikale. Interpretazio horren arabera, pentsatzekoa da harresiak biztanlegunearen ekialdeko zatia bakarrik inguratuko zuela, eta hiribilduaren mendebaldeko babesik gabe egongo zela. Urte batzuk lehenago, 1881ean, Juan E. Delmasek 1442ko Bilbo irudikatzen zuen beste grabatu bat argitaratu zuen, eta bertan ageri ziren zazpi kale bereizgarriak. 1913ko marrazkia Delmasenaren kalko partziala da, ziurrenik. [...] Argitaratu zirenetik behin eta berriro errepikatuta diren bi marrazki horien oinarri dokumentala ezezaguna da, eta ezezaguna da, halaber, zergatik jarri nahi izan zieten data hainbesteko zehaztasunez irudikatu nahi zituzten eboluzio-uneei. XVI. mendearen amaierako bi plano daude, bat Britaniar Museoa eta beste Madrilgo Gerraren Museoa, eta XVII. mendearen erdialdeko beste bi, bi-biak Londresen. [\[itzuli\]](#)
10. Georg Braun-ek (1541–1622), Koloniako artzain protestante eta geografo (Alemania) Frans Hogenberg (1535–1590) grabatzailearekin lan egin zuen. Hogenberg Municheko grabatzaile-sendi bateko semea zen, eta Civitates lanaren plantxa gehienak egin zituen, hala nola Abraham Ortelius flandestar kartografoaren Theatrum Orbis Terrarum (1570) lanerako osagarri bat, zeinerako egin baitzituen, halaber, grabatuak. Sei liburukiak Kolonian inprimatu zituzten, 1572an, 1575ean, 1581ean, 1588an, 1597an—azken hori Frans Hogenbergek grabatua— eta 1617an, hurrenez hurren. 47 edizio baino gehiago argitaratu ziren, hainbat hizkuntzatan (latina, alemana eta frantsesa). Civitates Orbis Terrarum munduko hirien vedute edo ikuspegiaren lehen bilduma izan zen. Lehenengo liburukiak, 1572koak, 59 grabatu zituen, baina urteak joan ahala, 6 liburukiko lan ikaragarria osatu zuten, mundu osoko hirien 546 ikuspegi, bista panoramiko eta mapa biltzen zituena. Braunek, Hogenbergekin eta beste grabatzaile batzuekin

- batera, beste artista batzuek bere esku utzitako paisaia hiritarrak prozesatzen zituen. Ezagunak dira, adibidez, Kieleko ikuspegia egiteko izan zituen harremanak. Ikusi Franz Obermeier “Stadtansichten von Kiel in der Druckgraphik vom 16. bis 18. Jahrhundert” hemen: <http://archiv.ub.uni-heidelberg.de/artdok/233/>. Georg (Joris) Hoefnagel (1542–1600) anberestar artistak ere parte hartu zuen, eta Espainiako zein Italiako hirietarako jatorrizko materialaren zatirik handiena jarri zuen. Braun izan zen lanaren argitaratzaile nagusia: plantxak eskuratu, artistak kontratatu eta testuak idatzi zituen. Laurogeitaka urte zituela hil zen, 1622an, eta jatorrizko taldeko kide bakarra izan zen 1617an VI. liburukia argitaratuta ikusi zuena, gainerakoak hilda baitzeuden. [itzuli]
11. Horiek denak jada aipatuta ageri dira 1463an, Henrike IV.ari hiribildua zabaltzeko egindako lehen eskaerarekin batera (E. J. Labayru: Historia general del Señorío de Bizcaya. Bilbo, 1968, III. lib., 240. or.). [itzuli]
  12. Bolueta Begoñako elizateko lau auzoetako bat zen, Atxuri, Zabalbide eta Galtzadak izenekoekin batera. Ibaizabal ibaiaren eskuineko aldean dago, Zubi Berrirainoko tartean, Bilbo eta Bidebietaren (Basauri) artean. Handik zihoan Pancorborako Errege Bidea, Bizkaiko Diputazioak, Kontsulatuak eta Bilboko Udalak XVIII. mendearen erdialdean sortua. Bolueta berandu anexionatu zuten, 1925ean. [itzuli]
  13. Salbe ingurua ontziolen eta ontzitegien eremua izan zen XVI. mendean. El Guindaste (altzamaia) izeneko gunek bat zegoen bertan (hitz hori gaztelaniazko guindar aditzetik zetorren, zeinak esan nahi baitu itsasontzietan mastadia jartzea), baita La Grúa (garabia) izeneko beste bat ere, ondoren El Siete (zazpia) izena hartu zuena. [itzuli]
  14. Ibaizabal ibaia Durangaldetik dator, Atxondo bailaratik, ipar-mendebalderantz, eta Basaurin bat egiten du Nerbioi ibaiarekin. [itzuli]
  15. 1603an, udaletxe berria inauguratu zuten, eta bertan kokatu zituzten udaletxea bera eta Kontsulatuaren egoitza. Diputazioak ez zuen egoitza finkorik izan Plaza Barria sortu arte; bertan, erlojuaren fatxada hartu zuen, eta Bizkaiko Jaurerriaren armarria ipini zuen bertan. 1900eko uztailaren 31n lekualdatu zen Kale Nagusiko eraikin berrira. [itzuli]
  16. Ikusi, besteak beste, azterlan hauek: José Urruticoechea, “Demografía Vasca en el siglo XVIII”, Historia del País Vasco. (Siglo XVIII), Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1985, 93–128. or.: “1797an, Bilbok 10.943 biztanle eskas zituen; 1865ean, 27.000; 1877an, 32.734, eta 1900ean, 80.000 inguru”; Luis Vicente García Merino, La formación de una ciudad industrial. El despegue urbano de Bilbao, IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1987, 408. or.: “Bilbok 1797an zeuzkan 10.943 biztanleak hirukoiztu egin ziren XIX. mendearen amaierarako; izan ere, 1877an 32.734 biztanlera igo zen Hiribilduko biztanleria”; Arturo Rafael Ortega Berrugete, “La población de Bilbao: 1800–1870”, Vasconia: Cuadernos de historia-geografía, 10. zk., 1988, 47–62. or.: “Bilbok 15.000 inguru zituen 1800. urtean, eta mendearen amaieran 90.000 inguru izatera iritsi zen”; Arantza Pareja Alonso, “Bilbao (Población, demografía siglos XIX y XX)”, Auñamendi Eusko Entziklopedia Digitala, 1. lib., 1–21. or., 2002: “1800–1860: 11.407 biztanle; 1870: 17.923 biztanle; 1890: 55.632 biztanle; 1900–1910: 83.306 biztanle”; Manuel González Portilla, (ed.), La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao, BBVA Fundazioa, Bilbo, 2009, II. lib., 81. or. (“Evolución de la población de Bilbao 1877–1975’ grafikoa): “1877: 39.695 biztanle; 1900: 93.250 biztanle; 1930: 161.987 biztanle. [itzuli]
  17. Arantza Pareja Alonso, “Bilbao (Población, demografía siglos XIX y XX)”, Auñamendi Eusko Entziklopedia Digitala, 1. lib., 1–21. or., 2002, hemen: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/bilbao-demografia-en-los-siglos-XIX-y-XX/ar-5915/> [itzuli]
  18. Joaquín Adán Satué (1892–1936) 1915ean sartu zen Bizkaiko Diputazioan abokatu gisa, eta ondoren, 1921etik aurrera, Echevarria SA enpresako idazkari nagusia izan zen. El Noticiero Bilbaíno, Blanco y Negro eta El Nervión egunkarietan idazten zuen, azken horretan “Argencio” goitzenarekin. 1918an Lan Sariketarako sustatu zituen, Bilboko Erakustazokaren oinarria. Los pecados de la Industria Española (1925) saiakera idatzi zuen, eta Bilbo kosmopolita eta modernoaren alde egin zuen. Aingeru Zaindarien komentuko kartzelan hil zuten, 1936an. [itzuli]
  19. Bilboren ikuspegi panoramikoak, hego-ekialdetik hartua. Civitates Orbis Terrarum lanean jasotako ikuspegietako bat da eta hemen ageri da: De Praecipvis, totivs Vniversi Vrbibvs, Georg Braun. Franciscus Hogenbergius.[...] Simon Novellanus, Coloniae: Auctores, 1575; 2. liburukiko 8. eta 9. or.; koloretako akuaforteak, 373 × 472 mm 40 x 55 cm-ko orri batean. Kolorea eskuz eman zioten, eta inprimatze berantiarrenen kalitate kaxkarragoa ezkutatzeko erabili zen. Ez dakigu ikuspegia Joris Hoefnagel (1542–1600) flandestar margolariak margotu zuen, edo Joannes Muflinck, 1544an, Espainian zebilela Christoffel Plantijn (Saint Avertin, Frantzia, ca. 1520–Anberes, Belgika, 1589) flandestar argitaratzaile entzutetsuaren agente gisa, edo horrek armarria bakarrik egin zuen. Braunek Bilbao, Vulgo, Latinis, Flaviobriga izenburua jarri zion testuari, baina grabatuko legendan uvez idatzita dago bigarren silaba, Bil Vao, Bellum vadum, hots, Bilvao. Lan horiek Bilboren irudi artistikoa baldintzatu zuen 200 urtean baino gehiagoan. Hegoekialdetik hartutako ikuspegia da, Miribilla gainetik eginda dago, eta bertan atsedean hartzen edo askaria egiten

ageri dira emakume batzuk, txano frigierra jantzita, eta behi bat. Zazpikaleak ikusten dira, eta Ibaizabal ibaia, bokaleraino, non Serantes mendiaren ondoan ageri diren La vara de PortoGalete, letra larriz idatzita, eta bi galeoi (sarrerako nabigazioa oztopatzen zuen hareazko barrari egindako lehen aipamenetako bat). Era berean, San Anton zubiaren eta Erriberaren ondoan beste bi galeoi daude. Beheko aldean ezkerrean ageri den kartel batean hemeretzi eraikin garrantzitsuren izenak daude idatzita, Santiago katedral gotikoarena (10), San Anton elizarena (12) edo jada desagertutako San Frantzisko komentua (6), besteak beste. Goian, erdialdean, Bilboko armaria dago, zinta batekin, eta azpian letra etzanez idatzitako latinezko lau lerro ditu: "Bilbao": "En spectator benevole Magnificia Hispaniae civitas Bilbao, alijs quasi Bellum vadum, Bilbao, ...". [itzuli]

## PERTSONAIA ITZALTSUAK

XIX. mendea baino lehenagoko bilbotar entzutetsu asko daude, Espainiako historian toki bat izan dutenak egindakoengatik, eta merkatarien semeak edo Estatuaren zerbitzariak zirenak.

Honako hau XIX. mendearen amaierako Bilboko pinturari buruzko saiakera bat denez, ezin naiz luzaz aritu pertsonaia horien gainean, baina batzuk gogora ekarri nahi nituzke, Bilboko Udalak 1883an proiektatu eta 1892an inauguratutako eraikin berriaren fatxadan egin zuen moduan.

Eraikinak Carrarako marmolez egindako bi estatua ditu apaingarri harmailadian, Legea eta Justizia irudikatzen dituztenak<sup>1</sup>; solairu nagusian lau figura daude: bi heraldoak eta bi mazolari, eraikinaren alboetan<sup>2</sup>. Eta azken solairuan, Bilboko historiako bost pertsonaia nabarmenen erliebedun bost tondo edo busto daude: hiriaren sortzailea izandako Diego Lopez V.a Harokoarena; Antonio Javier Gardoqui kardenalarena; Tristán de Leguizamónena; Juan Martínez de Recalde almirantearena, eta Nicolás de Arriquirar ekonomialariarena<sup>3</sup>.

Hiriaren fundatzailea eta kardinala alde batera utzita, azter ditzagun azken hiru pertsonaiak eta horien garrantzia. Tristán de Leguizamón (1492–1595) bilbotar ospetsu bat izan zen. Haren familia probestu handia izan zen Bilboren sorreran, hau da, monarkari Bizkaiko jaun gisa zegozkion errentak eta errege-eskubideak biltzeaz arduratzen ziren; 1526tik 1529ra bitarte, “Gaztelako Guardia Zaharretako” kapitaina izan zen Italian, zalditeria arin lantadunear. Leguizamónek nobleen ezaugarri guztiak zeuzkan: dorretxea eta lursailak zituen, militarra zen, eta merkataria. Udaletxea kokatuta dagoen orubea, hain justu, San Agustin komentua eraikitzeke laga zuen Tristánek, 1515ean<sup>4</sup>.

Bestalde, Juan Martínez de Recalde (1543–1588) itsasontzi-kontsignatario baten semea zen, eta hiribilduko alkatea izan zen. “Hiriko merkatarien eta itsasontzi-maisuen unibertsitatean” hasi zen, probestu edo zergari gisa, baina, nahiago zuenez jarduera militarra, Armadako almirante izaten amaitu zuen. Recalde Francis Drake kortsarioaren garaikidea izan zen, eta haren erasoetatik babestu zituen Espainiako kostak. Ingalaterrako Jardunaldian parte hartu zuen, Armada Garaiezina deituan, “Bizkaiko eskudraren” buru, Medinasidoniako duke ezgaiak zuzendu zuen espedizioko almirante jeneral eta bigarren buru gisa. Handik itzulita, Coruñan hil zen. Lan hauen egilea da: Informe sobre la fábrica de naos en las costas de Vizcaya, Guipúzcoa y Cuatro Villas (1581) eta Relación de las medidas que han de tener los mástiles y vergas para los galeones de la armada (1584). Recaldek Sendeja kalean zituen etxea eta baratzea.

Hirugarrena, Nicolás de Arriquirar (Bilbo, 1714–Madril, 1775), artile-salerosle baten semea, ekonomialaria zen, eta Nautika Eskolako Matematikako Katedran ikasi zuen. 1741ean, familia-negozioa ireki zuen Madrilen, eta, aldi berean, beste euskal merkatari batzuen ordezkaria zen; horrela egin zen Gardoquiren lagun. 1760an Bilbora itzuli zen, eta bitan izendatu zuten Kontsulatuko buru; gainera Euskalerraren Adiskideen Elkarteko kide egin zen, elkarte sortu eta gutxira. Funtsezko liburu bat idatzi zuen, Recreación política, eta ondorengo urteetan Bilbon indarrean mantendu ziren zenbait ideia aipatu zituen bertan<sup>5</sup>:

1. Industria nekazaritza bezain sektore produktiboa zela, eta lan “probetxugarria” sortzen zuela hark ere.
2. Kontsumoa garrantzitsua zela ekoizpenaren jatorri eta kausa gisa; neurrizko luxuari begirako jarrera positiboa babesten zuen.
3. Irabazi indibidualak eginkizun ekonomiko dinamizatzailea bete behar zuela, edozein negozio garatzeko.

4. Protekzionismo moderatua behar zela kanpo-merkataritzan, eta zerga-sistema aldatu behar zela.
5. Hiribilduan hazkunde-estrategia bat behar zela alderdi guztietan, bizi kalitate hobea lortzeko.

Bere bizitzan ere, Arriquirabarrek Londreseko artile-negozioak handitzearen aldeko apustua egin zuen, eta zalgurdiaren fabrika bat izan zuen, baita zetazko ehunen beste bat ere, eta Euskalariaren Adiskideen Elkarteari proposatu zion gazitze-lantegiak zabaltzea (arraina gazitu, eskabetxatu eta aberasteko), dena kanpoan merkaturatzeko.

Haren jarraitzaileetako bat izan zen Diego María de Gardoqui (Bilbo, 1735–Turin, 1798), Bilbon jaioa, zortzi anai-arrebatan laugarrena (kardinala gazteena izan zen). Merkatari baten semea, Londresera bidali zuten ikastera, eta handik ideia berriak ekarri zituen negoziorako, eta Ingalaterrarekiko eta Massachusettsekiko merkataritzan aritu zen. 1777an, Bilboko Udaleko kontu-erregidore aukeratu zuten, eta Karlos IV.aren ogasun-ministro izatera iritsi zen (1792–96). Espainiak AEBrekiko zituen negozioen arduradun zela, era guztietako ondasun logistikoz eta finantzarioz hornitu zituen iparramerikar matxinatuak haien Independentzia Gerran. 1789ko apirilaren 30ean, Gardoqui New Yorken zegoen, herrialdearen orduko hiriburuan, George Washingtonek kargua hartu zuenean AEBko lehen presidente gisa. Turinen enbaxadore zenean hil zen<sup>6</sup>.

Bilboren garapenerako eta hedapenerako funtsezkoak izan ziren Frantziako Iraultzaren aurreko pertsonaiei buruz ari garela, beste bat ekarri behar dugu gogora, hezur-haragizkoa izan ez arren, aipatu gabe utzi ezin duguna: Bilboko portua, hain zuzen, hura izango baitzen etorkizuneko merkataritzaren eta industriaren oinarria; portua eta kaiak izan ziren hiriko ekonomiaren erdigune topografikoa<sup>7</sup>.

Joaquín Ignacio de Barrenechea (1681–Haga, 1753) ere ekarri behar dugu gogora, Begoñako elizatean jaioa<sup>8</sup>, hiribilduko merkatarien semea. Ogasun-kontseilaria izan zen 1720an. Filipe V.ak Portuko markes titulua eman zion 1741ean, bere zerbitzuen ordainetan. Aipatzen da Francisco de Goyak egin zuen erretratu onenetako bat haren biloba Rita Barrenechearena (1757–1795) dela<sup>9</sup>, zeina baitzen Carpioko kondesa ezkontzaz eta Solanako markesa amaren aldetik. Rita idazle aitortua izan zen bere garaian, emakume ilustratua, Jovellanosen laguna. Rita, begirada indartsu eta adia duela, dantzari baten modura paratuta dago erretratuan, oinak gurutzatuta (baita eskuak ere) eta zapata brodatu dotoreekin; silfide eta aszeta arteko nahasketa dirudi. Margolana nolabaiteko elkarrizketa isila da modeloaren eta margolari ikuslearen artean, zeina baitago liluratuta bilbotarraren fintasunarekin. Hiribilduko emakume guztien antzera, hura ere beltzez janzten zen ia beti.

Begirada indartsu eta malenkoniatsu horren bitartez, XVIII. mendeko Bilbon sar gaitezke orain. Frantziako auzokoekin izandako bi gatazka belikok eman zioten hasiera mendeari: Konbentzioaren Gerrak eta Independentzia Gerrak.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Bernabé Garamendi Zaldívar (Bilbo, 1833–Bilbo, 1898), eskultorea, otxandiar jatorriko familia bateko kidea; lehengusu zuen Edesio de Garamendi (1849–1899), Bilboko udal-arkitektoa. Lantegi bat izan zuen Erribera kalean, eta luzaroan Basterra familiarekin partekatu zuen etxebizitza, Goienkaleko 8. eta 10. zenbakietan. Berak egin da Uribarren eta Aguirrebengoa bankarien Lekeitioko mausoleoa (1886). Serafín de Basterra Eguiluz (1850–1927)

- Garamendiren kidea izan zen. Manuel eta Higinio semeak ere artistak izan ziren. Basterrak egin zuen Santiagoko elizaren dorre nagusia, baita harrizko ate nagusia eta bertako hiru aldareak ere. Vicente Larrea Aldama (1852–1922), modelatu eta marrazketa apaingarriko irakaslea Arte eta Lanbideen Eskolan. Parisen bizi izan zen, eta handik itzultzean Maumejean beirateak ekarri zituen Espainiara. Haren lan publiko garrantzitsuena Samaniegori Guardian egindako monumentua da (1883), burdinan galdatua Santa Ana de Bolueta enpresan, eta Severino Achúcarro arkitektoak diseinatutako kiosko batek apaindua. Harena da, halaber, Deustuko Unibertsitateko patiooko Ama Birjina (1890). Larreak Erribera kaleko 14. eta 15. zenbakietan izan zuen lantegia. [itzuli]
2. Fonsecako harriz egindako heraldoak eta mazolariak Bernabé Garamendi, Serafín Basterra eta Vicente Larrea eskultoreek landu zituzten; bazkideak ziren, eta Erribera kalean zuten lantegia. 35.000 pezeta jaso zituzten. [itzuli]
  3. Diego Lopez Harokoa, Gardoqui kardinala eta Juan Martínez de Recalde irudikatzen dituzten hiru bustoak ere (2.000 pezeta bustoko), fatxadaren goiko aldean erdian kokatuak, Garamendi, Serafín Basterra eta Vicente Larrea eskultoreek egin zituzten. Beste biak, ertzetakoak, Tristán Díez de Leguizamón eta Nicolás de Arriquirar irudikatzen dituztenak, Tomás Fial eskultoreak egin zituen; Kristo kalean zuten lantegia azken horrek. Lan horien epaile artistikoak izan ziren Juan Barroeta, Antonio Plasencia, Anselmo Guinea, Joaquín Rucoba, Edesio Garamendi, Severino Achúcarro, Laureano Jado Santamaría eta Enrique Epalza, eta baztertu egin zituzten honako hauek estatuak egiteko aurkeztutako proiektuak: Alfredo Lucarini y Cía. (Colón de Larreategui kaleko 18. zenbakian zuten lantegia), Anselmo Nogués (Bartzelonakoa) eta Carlos Palau (Zaragozakoa). [itzuli]
  4. Komentua ez zuten amaitu 1664an; 1808an frantsesen aurka agertu ziren frantziskotarrak kanporatu egin zituzten; 1833an, bertan kuarteleratzen utzi zieten karlistei; eta 1863an udalak desjabetu egin zituen, udaletxe berria eraikitzeko. [itzuli]
  5. Recreación política. Reflexiones sobre el Amigo de los Hombres en su tratado de población, considerado con respecto a nuestros intereses, Tomás de Robles y Navarro, Gasteiz, 1779, 2 lib. (J. Astigarragaren eta J. M. Barrenechearen edizioa eta aurretiko azterketa), Euskal Estatistika Erakundea, Bilbo, 1987. [itzuli]
  6. Bilboko ikasketak amaitutakoan, Diego María de Gardoquik (1745–1799) Londresen igaro zituen zazpi urte, ingelesa eta bertako merkataritza-jarduerak ikasten. Gero, familiaren negozioan sartu zen; nazioarteko merkataritzan aritzen ziren, eta merkataritzako ontzidiaz zuten. Gardoqui diplomazialari gisa nabarmendu zen, kontsul nagusia izan baitzen Londresen, eta negozioen arduradun New Yorken. Iparramerikar matxinatuei hornigaiak bidali zizkien, eta lagungarri izan zitzaizkien, Saratogan ingelesak garaitzeko. 1789ko apirilaren 30ean, Diego de Gardoquik George Washingtonek AEBko lehenengo presidente gisa kargua hartzeko egindako ekitaldian parte hartu zuen, New Yorken, herrialdeko hiriburua zena orduan. 1792–94 biurtekoan, Bizkaiko Jaurerriko diputatu nagusia izan zen. Era berean, Karlos IV.aren ministroa eta Ogasun Bulego Unibertsaleko idazkaria izan zen, eta enbaxadore-lanetan aritu zen Holandan, Sardinian eta Turinen. Azken horretan hil zen. Ikusi E. Beerman, “El bilbaino Diego de Gardoqui: El primer embajador español en los Estados Unidos (1784–1789)”, 1990eko martxoaren 20an Amerika Etxean (Madril) emandako hitzaldia. [itzuli]
  7. Udaletxean, non Zabalgunerantz begira ageri diren Recalde eta Arriquirar, atzeko fatxadaren ezkerreko alboan Bilboren altitude ofiziala (itsas mailaren gainetik 8,804 metro) adierazten duen iltze topografikoa dago. Iltze hori oinarritzat hartuta lan egiten du Doitasun Handiko Nibelazio Sareak, Geografia Institutu Nazionalako mapa eta plano topografikoak egitea ahalbidetzen duenak. Lehen, 1797tik aurrera, Hidrografia Zuzendaritza zen, eta horrek erabaki zuen udaletxeak izango zirela hiri batek itsas mailaren gainetik zenbateko altuera duen zehazteko erreferentziako puntuak. [itzuli]
  8. Joaquín Ignacio de Barrenechea (1681–Haga, 1753), Begoñako elizatean jaioa eta hiribilduko merkatarien semea. Quiton egon zen, bertako gobernadore baitzuen osaba, eta militar izatetik diplomazialari izatera igaro zen; ondotik, 1720an, ogasun-kontseilari izatera iritsi zen. Filipe V.ak Portuko markesaren titulua eman zion 1741ean, bere zerbitzuengatik, eta ondoren enbaxadore-lanetan aritu zen Herbehereetan; bertan hil zen. Bilboko portuaren eta bertako merkataritza nahiz industriaren defendatzaile sutsua izan zen, eta Hagatik ekarri zuten haren gorpua, hiribilduan lur emateko. Hark idatzitako gutunak Euskadiko Artxibo Historikoan daude. [itzuli]
  9. 1794ko artelana, olio-pintura mihise gainean, 180 x 120 cm, Louvre museoa. Ritaren silueta fina mamu baten antzera mamitzen da lerrotan egituratutako atzealde liso baten gainean, oso Velázquezen tankerakoa. Baliabide erretorikrik gabeko erretratua da, euskal soiltasunaren irudia, oso kolore gutxirekin eraikia; gonaren beltza eta grisak nabarmentzen dira, eta horiekin kontrastea egiten dute mantelina zuriak eta buruko begizta arrosak. Gona, beltzaren erabileraren maisulana da, eta hiru zuri desberdin daude: mantelina grisaxka gardenarena, alkandoraren

zuri enpastatuagoa eta antxume-laruzko eskularruen zuri hautsia. Haizemaile itxi bat dauka eskuineko eskuan. Oinordeko batek, Socorroko markesak (Madril), Carlos Beisteguiri saldu zion margolana 1912an, eta horrek Louvre museoari laga zion 1942an (eta dohaintzan eman 1953an). José María de Areilzak honela deskribatu zuen garai hura: "Bilboko gainerako emakumeek jantzi ilunak erabiltzen zituzten, oro har. Zetazko gonak, jaka beltza edo zuria eta ilearen zein begien edertasuna nabarmentzen zuen zetazko kapusaia erabiltzen zituzten. Kapusaia naturaltasunez eta dotoreziaz erortzen zitzairen sorbalden gainean. Bilboko emakumeak harrokeriaz ibiltzen dira, eta oinkada dotorea dute. Asko zaintzen dituzte oinetakoak eta galtzerdiak". Hemen: "Bilbao en 1822", Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea, 1. urtea, 1. koaderno, 1945, 62. or. [\[itzuli\]](#)

## BILBO ETA FRANTZIAREN AURKAKO GERRAK: KONBENTZIO-GERRA (1793-95) ETA INDEPENDENTZIA-GERRA (1808-14)

Iraultza garaiko Frantziaren eta Espainiako Erresumaren arteko Konbentzio-gerra, edo Pirinioetako Gerra, Convention Nationale erakundeak deklaratu zion Espainiari. Erakunde hori gobernuan zegoen 1792az geroztik, eta Luis XVI.a exekutatzea erabaki zuen 1793ko urtarrilean. Gerra 1793ko martxoaren 7an hasi zen, Frantziak deklaratuta, eta 1795era arte luzatu zen. Bilbon, Ilustrazioaren ideiek harrera ona izan zuten biztanleriaren zati baten artean, hala nola Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideen artean, baita merkatarien artean ere, etengabe harremanetan baitzeuden Frantziako portuekin. Landaguneko hainbat noblek ez zituzten begi onez ikusten, ordea, ezta kleroak ere, Abandoko frantziskotarrek eta Deustuko kaputxinoek, bereziki.

Frantsesak Pirinioetan sartu ziren nagusiki, eta erasoak Nafarroan eta Gipuzkoan izan zuen eragina, eta saiheska baita Bilbon ere. Baina 1794tik 1795ean Basileako Bakea sinatu zen arte, beste herrialde bateko armadaren presentzia eta agintea izan zuten Euskal Herriko ia hiribildu guztietan. Amédée Willot jenerala 6.000 gizonekin sartu zen Bilbon<sup>1</sup> 1795eko uztailaren 19an, baina lau egun igarota erretiratu egin zen, Basileako Itunaren ondorioz. Pierre-Clément de Laussat frantziar politikaria —ondoren Amerikako Louisianako azken gobernadore frantsesa izan zena— armada frantsesarekin zen une hartan<sup>2</sup>, eta gertakariaren kontakizun garrantza egin zuen. Kasualitatez, Bilbon igaroak zituen gaztaroko bi urte, 1775-76an, “merkataritza ikasten”, amaldeko aitona inportazio-negozio arrakastatsua baitzeukan. Tropa frantsesak inolako erresistentziarik gabe sartu ziren Bilbon, frantsestu ugari zegoelako bertan. Alabaina, egoera horrek zatiketa ekarri zuen Bilboko gobernatzaileen eta elizateetako biztanleen artean, azken horiek mendekotasun handiagoa baitzuten Elizarekiko eta beren errentak arriskuan ikusten zituzten ahaide nagusi batzuekiko. Landako nobleziako kide asko, ordea, ideal berrien aldekoak ziren, Mazarredotarrak, Zabalburutarrak, Palaciotarrak eta Chirapozutarrak, besteak beste<sup>3</sup>.

Julio Caro Barojaren<sup>4</sup> hitzetan, Konbentzio-gerrak “lurraldearen inbasioa ekarri zuen Euskal Herrira... eta familien miseria”. Bestalde, Antonio Elorza historialariak nabarmentzen du tropa frantsesek Espainian inbaditu zuten eskualde bakarra zenez, Euskal Herriak Europako beste eskualde eta herrialde batzuen zorte berbera izan zuela<sup>5</sup>. Nolabait, galiar arrazionalismoak babesten zuen indibidualismoarenganako konfiantza finkatu zen Bilbon, eta, ildo horretan, tirabira sortzen hasi zen merkatarien eta landako nobleziaren artean, gai ekonomikoengatik ez ezik (Estatuarekiko zerga-sistema edo frantsesei ordaindu beharreko zerga), baita ideologia politikoko arrazoengatik ere, eta, zehazki, merkatariek uko egiten ziotelako Elizak kontu administratibo eta politikoetan zuen eraginari. Une horretan, Bilboko burgesia komertziala, gehienez fededuna, ez zegoen eroso fraideen Antzinako Erregimenaren aldeko diskurtsoekin. Desadostasun hori berriro agerian geratu zen Independentzia-gerran (1808-14), eta funtsezkoa izan zen Bilboko liberalek 1835eko eta 1836ko setioetan karlisten aurka agertutako erresistentzian.

Tropa frantsesak 1808tik 1813ra bitarte egon ziren hiribilduan. Bilbok, Bizkaiko Batzarren eraginpean, hiru bider egin zien aurre frantsesei, eta giza galerak nahiz galera ekonomikoak izan zituen<sup>6</sup>. Azkeneko aldian, Merlin de Thionville jeneralak<sup>7</sup> lerro hauek igorri zizkion hiribilduko errejidoreari: “Atsegin handi samarrez ikusi ahal izan dut aurre egin didaten gizajo guztiak laborari ziztrinak besterik ez zirela, eta, hortaz, susmatzen dut Hiribilduko herritar onek ez dutela erabat etsi matxinadaren aurrean. [...]. Inork ez badie aurre hartu nahi erresumako hiri salerosle nagusietako bat hondatuko duten zoritzarrei, nire soldaduen arpilatzeen eta amorruren mende utzi beharko dut”. Setatsuenek, Elizak xaxatuta<sup>8</sup>, uko egin zioten frantsesei sartzen uzteari, eta aurre egin zioten armada frantsesari; alferrik hil ziren 1.000



pertsonatik gora, tartean Luis Power tenientea, gehiegizko abertzaletasunagatik (beste inor baino bilbotarragoa zela frogatzeko-edo)<sup>9</sup>. Recacoechea alkatea ere hil zen, ustekabean, udaletxeko balkoian zegoela zapi zuri batekin. Era berean, erregimentu frantseseko danborrari bat ere hil zuen beste frankotiratzailer batek tiroz. Horren ondorioz, jeneralak hiribildua eta Abando, Deustu eta Begoñako eremuak 24 orduz arpilatzen utzi zien soldaduei; horrek adierazten du kanpotik iritsitakoek Bilboko lurtzat hartzen zituztela hiru elizateak 1808rako.

Frantsesen okupazioak berekin ekarri zituen Euskal Herriarentzako hainbat plan, gutxienez hiru:

- Frantziaren mendeko estatu autonomotzat hartzea, 1794an nahi izan zen moduan;
- Josef Bonapartek Espainiako errege gisa gauzatutako zentralizazioaren barruan aintzat hartzea euskal probintziak;
- Paristik zuzendutako gobernu militarren mende uztea.

Azkenik, 1810eko otsailean, Pierre Thouvenot jeneralaren babespean, Konstituzio berri baten ideia nagusitu zen. Konstituzio hori Baionan idatzi eta sinatu zuten: Baionako Konstituzioa (l'Acte constitutionnel de l'Espagne), Baionako Estatutua edo Charte de Bayonne izenez ere ezaguna. Acte Constitutionnel de l'Espagne du frantseseko izen ofiziala, eta Josef Bonapartek promulgatu zuen Espainiako errege gisa, 1808ko uztailaren 6an, Baiona hirian. Estatu-eredu konstituzional bonapartistan oinarrituta zegoen, eta Mariano Luis de Urquijo bilbotarrak sinatu zuen Estatuko idazkari-ministro gisa. Batzuen ustez, Espainia modernoko lehenengo Konstituziotzat hartu behar da<sup>10</sup>. Batzar hartara 150 diputatu deitu zituzten; 91 joan ziren, eta horietatik 20 euskaldunak ziren. Miguel José de Azanza<sup>11</sup> nafarra izan zen batzarraren buru, eta Urquijoz gain, honako hauek ere bertan izan ziren, besteak beste: José María de Yandiola, Bizkaiko ordezkaria (34 urterekin, lege-arloko doktorea eta Jaurerriko Gobernuako aholkularia zen), Ignacio Muzquiz, Manuel de Lardizábal, José Joaquín Colón de Larreátegui eta Gabriel Benito de Orbegozo, merkatari eta arkitektoa, geroago Bilboko alkatea izango zena, 1823an<sup>12</sup>.

Arturo Pérez-Revertek adierazi duenez, Espainiak Independentzia-gerran izandako jarduna ez zen onena izan herrialdearen etorkizunerako: “Bere garaiko eta gaur egungo espainiarren lotsarako —dirua ez ezik, ahalkea ere jasotzen baita herentzian—, Fernando VII.a ohean hil zen, lasai-lasai. Aurretik utzi zizkigun XIX. mendearen bi heren, aurrerabide industrial, ekonomiko eta politiko eztabaiaezina ekarriko zutenak (orduko Europako herrialde gutxi-asko aurreratu guztien berezko joera), baina oso txarrak izango zirenak Espainiako gertaerei eta egonkortasunari begira, barne-gerren eta, azkenik, kolonietako hondamendiaren ondorioz”<sup>13</sup>.

Fernando VII.arekin absolutismora itzulita, atzerriratu egin zen jende baliotsu ugari, intelektualak eta zientzialariak, Juan Meléndez Valdés, Leandro Fernández de Moratín, Mariano de Urquijo eta baita Francisco de Goya margolaria bera ere, besteak beste. Bordeletik lagun bati bidalitako gutunean, honela zioen Moratínek: “Atzo Goya iritsi zen, zahartuta, trakets eta ahul, eta frantsesez hitz bakar bat ere ez dakiela, eta zerbitzaririk gabe (ez du inork behar berak baino gehiago), baina pozik, mundua ezagutzeko gogoz”<sup>14</sup>. Eta honako hau erantsi zuen Pérez-Revertek Espainiako Historiaren ber-ikuspenean: “Eta orduantxe iritsi zen pertsona buru-argi eta jantzien drama; jakitun zirenena Espainia etsai okerraren aurka altxatu zela, lepoa moztuta hil genituen inbaditzaileak etorkizuna baitziren, eta tronua nahiz aldarea babesten zituzten indar gehientsuenak, berriz, ezjakintasun kitenena eta iragan zaharkituena. Hortaz, kalkulatu pertsona azkarren tragedia: jakitea modernitatea dakarrena zure etsai bihurtu dela eta zure herrikideak kausa oker baten alde borrokatzen direla. Horra hor dilema, eta nahigabea: abertzale edo frantsestu izan aukeratzea. Herrikideen esku lepoa moztuta hiltzera arriskatzea, inbaditu zaituztenei laguntzeko, edo haien ondoan borrokatzea, hobe delako haize kontra ez joatea edo, oso ilustratua izanda ere, inbaditzaile batek bizilaguna hil edo koinata bortxatzen badu ezin zarelako etxean geratu liburuak irakurtzen (...). Eta hala, izen okerra daraman gerra hartan, Independentziarenean

(hemen ez genuen inoiz lortu geure buruagandik independizatzeari), Espainia osoa izugarrizko tranpa bilakatu zen, bai frantsesentzat, baita frantsesek azkenean askatasuna eta argiak ekarriko zituztela uste izan zutenentzat ere —eta hori da horren guztiaren alderdi tristeena—<sup>15</sup>.

Zorionez, Bilbon ez zen izan Espainiako gainerako lekuetako errebantxismoa. Ilustratu askok, Mariano Luis de Urquijo ministroak edo José de Mazarredo almiranteak, adibidez, Josef Bonaparteren kolaboratzaile izandakoek, entzute eta begirune itzela izan zuten hiribilduan aurrerantzean ere. Urquijok honako hau idatzi zuen Paristik: “Gauaren isiltasunean, lorik hartu ezin dudanean, nire bizitza berraztertzen dut; eta ez dut aurkitzen zertaz lotsatu, ez gizon publiko gisa, ez Espainiako hiritar gisa. Kontzientzia-lasaitasun horrek bidegabekeriaren eta proskripzioen gainetik kokatzen nau”<sup>16</sup>.

José Manuel Cifuentesen lan bikain batek<sup>17</sup> Bilbon frantsesekin lan egin zuten pertsona guztien zerrenda luze bat ematen digu, baita jasan behar izan zituzten ondorioena ere, baina horiek zeharo txikiak izan ziren Espainian gertatutakoarekin alderatuta; dena den, zaila da jakitea nor bat egin zuen ilustrazioaren ideologiarekin (ez nahitaez Frantziako Iraultzarenarekin) eta nor mugatu zen okupatzaile frantsesekin lan egitera (hau da, haiek ezarritako administrazioarekin) oportunitatearekin edo beste arrazoirekin batengatik. Haiekin kolaboratu eta Baionako Batzarrean izan zirenetako batzuek, hala nola Juan José Yandiola (Bizkaiko ordezkari gisa) edo Gabriel de Orbegozo (Kontsulatuaren ordezkari gisa), Foruak eta Kontsulatuaren estatutuak babes zitzala eskatu zioten Bonaparteri. Horixe bera egin zuen Antonio Adán de Yarza<sup>18</sup> lekeitiar ilustratuak ere, zeinak Konbentzio-gerran jada lagundu baitzuen frantsesei. Azken horrek Bilbon antzoki bat, hiribilduko lehena, eraikitzeko proiektua sustatu zuen 1796an, eta 1799an inauguratu zuten, Coliseo izenarekin.

Independentzia-gerraren amaiera aldean, 1813an<sup>19</sup>, arestian aipatutakoek eta antzeko ideiak zituzten beste batzuek gobernu “kanpotarrak” irauten bitartean izandako jarrera politikoa buruzko txosten bat egin zuen Bilboko Udalak. Asko beren karguetan berrezarri zituzten, eta askoz gehiagok berriro bete zituzten kargu haiek Hirurteko Liberalean<sup>20</sup>. Zenbait berriro atzerriratu behar izan zuten Hirurteko Liberalaren ostean, hala nola José María Murgak<sup>21</sup>. Beste zenbait beren negozioekin jarraitzen saiatu ziren, adibidez Gómez de la Torre familia, ordurako sukurtsalak irekita zituena Ingalaterran, eta Sarachagatarrek eta beste batzuek Frantziara alde egin zuten<sup>22</sup>.

Herritarrengan argi geratu zena zera izan zen, galera ekonomikoa handia izan zela, tropa frantsesak elikatzeko bidesariengatik ez ezik, baita merkataritzaren etenaldiarekin ere, eta, batik bat, galdutako biziengatik. Herritarrek sentazio mingotsa izan zuten fraideek erakutsitako jarrerarekiko eta herrietako jendearen erabilerarekiko. Jarrera hori gaitzetsi egin zuten sakonki fededunak ziren bilbotar frantsesuek; horren adibide izan zen Gabriel de Orbegozo<sup>23</sup>. Bilbok Espainia osoko beste edozein hiribilduk baino hobeto onartu zituen Frantziako Iraultzaren legezkotasun- eta berdintasun-ideiak, eta ordena zibilekoak, hala nola hiriaren nahiz bertako uren saneamenduari eta arazketari buruzkoak. Irakasbide horri esker, 1833an berehala geldiarazi zuten karlistek erakundeak hartzea, eta aurre egin zieten 1835eko eta 1836ko setioetan.

XIX. mendearen hasieran, frantsesak bertan izan eta berehala, Bilbon bizikidetzaren eredu bat ezarri zen, helburutzat zuena eguneroko bizitza, norbere lana eta guztien oparotasun ekonomikoa bermatuko zituzten arauak bilatzea —herrialdean, oro har, zegoen ziurgabezia politikotik harago—, hiribilduko aurrerabidea osotasunean gauzatu zedin. Kanpo-merkataritzarako beharrezkoak badira kapitala eta konfiantza (salgai oro iritsi egingo dela eta onura ekarriko duela jakitearen segurtasuna), barne-jokoan bizilagunen arteko segurtasuna eta konfiantza dira zaindu beharreko faktoreak. Eta arau horiek funtsezkoak dira Bilbok 1839tik aurrera izan zuen garapena ulertzeko, eta ulertzeko, halaber,

zergatik aurkeztu zuten boluntario beren burua 1874ko setioaren defentsarako merkatari, ingeniari edo enpresari aberatsek, baita Madrilen bizi zirenek ere.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Amédée Willot brigadako jenerala (1755–1823), Granprezeko kondea, De Moncey jeneral buruzagiarekin aritu zen Rosellóko Gerra edo Pirinioetako Gerra delakoan. Bilbon sartu aurretik, Willotek mezuak bidali zizkien biztanleei, ez ziezaieten aurre egin, bai baitzekien burgesia komertziala ez zegoela euren aurka. Espainian, Konbentzio-gerrako jeneral buruzagia Adrien Jeannot de Moncey (1754–1842) jenerala izan zen, Conéglianoko dukea, Convention Nationale erakundearen zerbitzura (Frantziako Lehenengo Errepublikako erakunde nagusia 1793tik 1795era bitarte) eta Napoleonen Kontsulatuaren zerbitzura (1799tik aurrera) zegoen militarra, Inperioko mariskal izendatua 1804an. Badakigu Tomás Goitia-Gardoquik, 1795eko uztailetik abendura bitarte errejidore izan zenak, bere burua eskaini ziela bahi gisa okupazio-indar frantsesei, De Moncey jeneralaren eta hiribilduaren artean izenpetutako neutraltasun-ituna bermatzeko. [itzuli]
2. Pierre Clément de Laussat (1756–1835), politikari frantsesa, Pauen jaioa, Louisianako azken gobernadorea izan zena frantsesen mende zegoenean, eta ondoren Martinikakoa. Amaldeko aitona, Joseph D’Augerot, Bilbon zegoen XVII. mendearen hasieratik, kakaoa eta beste zenbait produktu inportatzen: ‘José Daugerot y Cía.’, eta 1773tik aurrera, ‘Daugerot, Clavería y Cía.’ Ikusi Bilbori buruzko haren erreferentzia hemen: Pierre-Clément de Laussat, *Louisiana, Napoleon and the United States: An Autobiography of Pierre-Clément de Laussat (1756–1835)*. University Press of America, Maryland, 1989; eta hemen: Pierre Clément de Laussat, *Mémoires sur ma vie, à mon fils: pendant les années 1803 et suivantes*, Paue, 1831. [itzuli]
3. José María de Ucelay margolariari buruz ikertu nuenean, ‘Liberté, Fraternité, Egalité’ idazpuru zeraman idazteko papera aurkitu nuen haren etxean; Manuel de Chirapozurenak izandako orriak ziren, edo agian Gaspar de Bulucúarenak, eta margolariak zenbait marrazki egiteko erabili zituen. Ikusi gaztelerazko liburukiko eranskina edo addenda. [itzuli]
4. Julio Caro Baroja, *Introducción a la historia social y económica del Pueblo Vasco*, Donostia, 1980, 70. or. [itzuli]
5. Antonio Elorza, “Los Vascos y la Revolución francesa”, *Revista de Historia das Ideias*, 10, Instituto de Historia e Teoria das Ideias, Faculdade de Letras, Coimbra, 1988, 101. or. [itzuli]
6. Gaiari buruzko bibliografia on dezente dago: Miguel Artola, *Los afrancesados*, Alianza Editorial, Madril, 1989; Jean René Aymes, *La guerra de España contra la Revolución francesa (1793–1795)* [gaztelaniara itzulpena: M.<sup>a</sup> Á. Casado Sánchez, Instituto de Cultura Juan Gil Albert, Alacant, 1991]; Teresa Benito Aguado, “Las elites vascas durante la Guerra de la Independencia: proyecto político y construcción social”, *Congrés Ocupació i Resistencia a la Guerra del Francès (1808–1814)*, Bartzelona, 2005, II. lib., 276 or.; Juan José Sánchez Arreseigor, *Vascos contra Napoleón*, Actas Editorial, Madril, 2010; José María Ortiz de Orruño, “Entre la colaboración y la resistencia. El País Vasco durante la ocupación napoleónica”, Hainbat egile, *Vascos en 1808–1813. Años de guerra y Constitución*, Biblioteca Nueva, Madril, 2010, 71–129. or.; Lartaun de Egibar Urrutia, “Bizkaia en el torbellino jurídico, institucional y político de 1808 a 1814”, *lura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 8. zk., 2011, 461–506. or.; Sergio Delgado Sotelo, “Vizcaya ante la ocupación napoleónica: poder, resistencia y conflicto”, III Congreso de Estudios en Historia, Derecho e Instituciones, *Aequitas* aldizkarian, 2014ko urriaren 27a. [itzuli]
7. 1810ean, Christophe Antoine Merlin de Thionville (1771–1839) jenerala Mercedes Santa-Cruz Montalvorekin (Habana, 1789–Paris, 1852) ezkondu zen, Kubako lehen emakume idazleetako batekin, zeinari “la Belle espagnole” ezizena jarri zion Balzacek. Mercé Joaquín de Santa Cruz Jarucoko kondearen eta Teresa de Montalvoren (1771–1812) alaba zen. Alargundu zenean, Josef Bonaparteren maitalea izan zen Teresa Madrilen, eta lekua kendu zion María Pilar de Acedo Sarriá tolosarrari, Etxauzko kondesa herentziaz, eta Montehermosoko markesa ezkontzaz. Teresa Montalvo O’Farillek, O’Farrill jeneralaren ilobak, politikariz eta intelektualez (Moratín, Meléndez, Quintana,

- Goya, etab.) osatutako taldetxo bat izan zuen, Albako dukesaren antzera. Elizabeth Vassall Hollandeko baronesak, Bonaparteren lagunak, honela definitu zuen *The Spanish Journal* lanean: “habanar ederra, oso atseginzalea” (“Madame de Xaruja [...] Very beautiful, but too large. Extremely voluptuous, and entirely devoted to the passion of love. She was in England some years ago. Her husband is at Veracruz”). Deskribapenak Mercedesekin jarraitzen du: “Her eldest daughter is the most magnificent glowing beauty I ever beheld; the offspring of the Sun”. Elizabeth Lady Holland, *The Spanish Journal of Elizabeth, Lady Holland*. Longman, Green and Longman, Londres, 1850; Earl of Ilchester edizioa, Londres, 1910, 199. or. Christophe Antoine Merlin de Thionville Josef Bonaparteren segizioko kidea zen Napoleosen, eta Espainiako tronua hartzen lagundu zion; berak bidali zuen 1808ko abuztuaren 16an Bilbo arpilatu zuen tropa. Haren izena Parisko Garaipen Arkuaren hegoaldean dago. Mercedes Santa-Cruz Montalvori buruz, ikusi J. L. Prieto Benavent, “Mercedes de Santa Cruz y Montalvo, Condesa de Merlin”. *Revista Hispano-Cubana*, 13 (2002), 83–96. or. Haren memoriak 1836an agertu ziren: *Souvenirs et Mémoires de Madame la Comtesse Merlin, publiées pour elle-même*. Paris, Charpentier, 1836, 2 lib.; edizio oharduna: *Souvenirs et Mémoires de Madame la Comtesse Merlin (1789–1852): Souvenirs d’un Créole*. Preface d’Hector Bianciotti. Introduction et notes de Carmen Vásquez. París, Mercure de France, “Le temps retrouvé” bilduma, 1990. Haren edertasunari buruz, 1832an Mercedesek berak idatzi zuen, *My first twelve years* lanean, 11 urterekin 18 urteko neskatxa bat bezain garatuta zegoela, eta hau erantsi zuen: “My Creole color, my eyes black and lively, my hair so long it was hard to hold, I got a wild look, which was related to my moral dispositions [...] and passionate live-out, envisioned the need for repress my emotions, much less to hide”, Merlingo kondesa, *Mis doce primeros años*, Filadelfia, 1838, 189–90. or. [itzuli]
8. 1808ko abuztuaren 4an, Fernando VII.a errege ezin txarragoaren aldekoek behin betiko urratsak egin zituzten frantsesen aurka matxinatzeko, komentuetako apaizek xaxatuta eta lagunduta; Bizkaiko Gobernu Batzar Gorena sortu zuten, abuztuaren 5eko gauean herri-altxamendua eragin zuena, “frantsesen aurkako gerra aldarrikatuz”. [itzuli]
  9. Luis Power Echevarriak (1769–1808) ama gernikarra, aita bilbotarra eta aitona frantsesa zituen. Bilbon merkataria gisa finkatutako familia batekoa zen. Gezurra dirudi 200 urte igarota oraindik erreazionario eta beligeranteenak goraiatzeko jarraitzea, Fernando VII.aren erregealdi ezin txarragoaren baitan odol-arazorik nahi ez zuen burgesia komertzialaren ginetik. Ikus 2018an webgune batean idatzitako lerro hauek: “Zoritxarrez etenaldi laburrekin, armada frantsesak Bilbo okupatu zuen, biztanleriaren zati finenak haien asmoak babesten zituelako, mehatxuz edo laudorioz menderatuta; izan ere, Napoleonek, berei eskerrak emateko, eskuzabal jokatu, eta Espainia osoan eta bereziki Bilbon sakabanatu zituen nolabaiteko maila zuten pertsonak. Hori eta Bizkaiko diputatuek Karlos Bonaparteren seme nagusi Josef Napoleon baketsuari Espainiako tronua eman zion Baionako eraketa-akta sinatu izana inoiz barkatu ezingo diren gertaerak dira guretzat”. <https://olabeaga.org/2018/02/3557/> [itzuli]
  10. Ignacio Fernández Sarasola, “La primera Constitución Española: el Estatuto de Bayona”, *Revista de Derecho*, 26. zk., Barranquilla, 2006. [itzuli]
  11. Miguel José de Azanza Alegríak (1746–Bordele, 1826) Espainia Berrira bidaiatu zuen 17 urterekin, gaur egungo Mexikora, José Martín de Alegría osaba busturiarrarekin. 1771n, Armadan sartu zen, eta gero diplomazialari bihurtu zen. Espainiak Prusian eta Errusian zuen enbaxadaren negozioen arduraduna izan zen, baita Mexikoko erregeordea, Gerra eta Ogasuneko ministroa, Caracaseko Konpainia Gipuzkoarreko zuzendaria eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen kidea ere. Erbesteratuta hil zen Bordelen, non Francisco de Goya margolariarekin topo egin zuen. [itzuli]
  12. José María Lardizábal Oriar Gipuzkoako ordezkaria izan zen, eta Ortuño María de Aguirre-Zuazo, berriz, Arabakoa. [itzuli]
  13. Arturo Pérez-Reverte, *Una historia de España*, Alfaguara Editorial, Madril, 2019. ABC, 2015eko uztailaren 12a. [itzuli]
  14. Leandro Fernández de Moratín, *Obras póstumas*, III. lib., 8. or. Inprimatzea eta estereotipoak: M. Rivadeneyra, Madril, 1868. Juan Antonio Melón (1758–1843) apaiz eta kimikari ilustratuari bidalitako gutuna, Bordelen sinatua ekainaren 27an. [itzuli]
  15. Arturo Pérez-Reverte, *Una historia de España*, Alfaguara Editorial, Madril, 2019. ABC, 2015eko martxoaren 30a. [itzuli]
  16. Antonio de Beraza, *Elogio de don Mariano Luis de Urquijo, Ministro Secretario de Estado de España*, L. -E. Herhan, Paris, 1820, 74. or. [itzuli]
  17. José Manuel Cifuentes Pazos, “Los afrancesados en Vizcaya: análisis de algunos casos”, *Tiempos Modernos: Revista Electrónica de Historia Moderna*, 2015. Era berean, María Jesús Álvarez-Coca González, “Invasión francesa, Gobierno Intruso. Los fondos de la Guerra de la Independencia en el Archivo Histórico Nacional”, *Cuadernos de Historia Moderna*. Universidad Complutense de Madrid, 37 (2012), 201–55. or. [itzuli]

18. Antonio Adán de Yarza (1761–1835) lekeitiarra, Ispasterreko Zubieta jauregikoa, San Karlos banketxeko akzioduna izan zen 1783tik aurrera, eta baserriak izan zituen jabetzan, baita etxeak ere, Bilbon —Bidebarrieta kalekoa, esaterako, non bizi izan zen 1794tik aurrera— eta Madrilén. Bere erretratua, amarena eta Ramona Barbachano emaztearena agindu zizkion Goyari 1787–88an. 1800. urtean, *Manifiesto Histórico relativo a los servicios prestados por Bilbao durante la Guerra de la Convención* idatzi zuen, José María Murga eta beste batzuekin batera. 1808ko apirilean Gasteizera joan zen, Fernando VII.ari Foruak aitortzizala proposatzera. 1809an, Madrilera joan zen Yandiolaekin, Diputazioaren leialtasuna adieraztera Josef Bonaparteri eta Baionako Estatutuari. Bilboko Udaleko errejidorea izan zen okupazio frantsesak iraun bitartean, eta gero, berriro, Hirurteko Liberalean. Josef I.aren erregealdian Gorteko ordezkari (1809), Bizigaien Batzordeko kide eta Bizkaiko Intendentzia Kontseiluko kide (1812) izendatu zuten. [itzuli]
19. Independentzia Gerraren azken astinduetan, hainbat gudu izan ziren Euskal Herrian: Gasteizkoa, 1813ko ekainaren 21ean; San Martzialekoa, 1813ko abuztuaren 31n, eta Iruñeko, 1813ko urriaren 31n. [itzuli]
20. Antonio de Basagurenek Jaurerriko gobernu-idazkari izaten jarraitu zuen, frantsesekin eta haien ondoren, eta berdin egin zuen Luis de Labayen Jaurerriko diruzainak ere. Ez zuten inolako trabarik izan ez Ramón de Mazarredok, ez José María de Murgak, ez Antonio Adán de Yarzak (poliziaz arduratzen zen probintzia-kontseilaria izan zen, Bizkaiko gobernadore nagusiak izendatuta, eta Josef I.a erregeak Espainiako Errege Ordenaren ohore-domina eman zion), ez José Francisco de Elorriagak, 1808an frantsesekin negoziatzeko eta hiribilduan oldarka sar zitezten ekiditen saiatzeko agindua jaso zuen errejidorea, azken hori. Eta datu baten arabera, José María de Norzagaray ilustratua hainbaten kontra auzitan aritu zen 1814an, “frantsestu” iraina zela eta. [itzuli]
21. José María Murga De La Barrera (Markina, 1770–Bilbo, 1834) noblezia landatarreko kidea zen, Markinako Bidarte Dorreko jauna, eta interes handiak zeuzkan merkataritzan. Euskalerraren Adiskideen Elkartean ikasi zuen, eta hizkuntza klasikoetan espezializatu zen Madrilén. Bilbon bizi zen eta, 1797an, Josefa Zaldúarekin ezkondu zen. Parisen erbesteratuta, bigarren aldiz ezkondu zen, Ceferina Hurtado de Corcuera Alcibarrekin. Euskalerraren Adiskideen Elkarteko betiereko idazkaria izan zen, eta Wilhelm Humboldten anfitrioi. Posta-truke ugaria izan zuen harekin. Diputatu nagusi lehena izan zen 1800. urtean. 1808ko abuztuaren 16an hiribildua arpilatu zutenean, ondare-galera handiak izan zituen, baina, hala ere, frantsesei lagundu zien. Alkate izan zen Hirurteko Liberalean, eta, ondorioz, 1823an Parisera erbesteratu behar izan zuen; 1825ean itzuli zen handik Bilbora. Bilbon hil zen, 1834an, karlisten matxinadan. Haren seme Manuel Murga Zaldúak diputatu nagusiaren kargua bete zuen 1839tik 1841era bitarte; Sociedad Bilbaína elkartearen sortzaileetako bat izan zen, eta José María Murga Mugartegui Bizkaitar Mairuaren aitona. [itzuli]
22. Ventura Gómez de la Torre Jarabeitia (Bilbo, 1720–Londres, 1816), merkataria, kontsulatuko burua (1758, 1772 eta 1781ean), Milizietako erregimentuko tenientea. Aita, Bartolomé, Gorozikan jaioa zuen, eta artilea eta burdina esportatzen zituen Baionara, Amsterdamera, Bristolera eta Londresera, eta bakailaoa inportatzen zuen Ternuatik. Ventura familiako merkataritza-negozioen oinordeko izateko hezi zuten; haren anaia ugariak, aldiz, Administrazioan eta Armadan sartu ziren. María Francisca de Larrinagarekin ezkondu, eta alaba bakarra izan zuen, María Francisca, Juan Rafael de Mazarredo Salazar de Muñatonesekin ezkondu zena. 1770ean, burdina-ontziratzaile nagusietan bigarrena zen, eta bakailao-inportatzaileetan lehena. Haren bilobek, Francisco eta Ramón de Mazarredo Gómez de la Torre, Londresen filial bat ireki zuten 1798an. San Karlos Banketxe Nazionalako, Filipinetako Errege Konpainiako eta Begoñako Andre Mariaren eta San Karlosen Aseguru Konpainiako akzioduna izan zen. 1790ean, jauregi neoklasiko bat eraiki zuen Bilboko Areatzan, San Nikolas elizaren ondoan; Jovellanosen Diarios lanean deskribatu zuen eraikin hura. Londresen hil zen, 1816ko maiatzean, baina haren gorpuzkiak Bilboko San Frantzisko komentuan lurperatu zituzten. Florentino Sarachaga Izarduy (1778–1825) Bilboko alkatea izan zen 1804an eta 1808–09an, eta hiribilduaren aldeko jesapen bat izenpetu zuen Kontsulatuarekin, kantonatuta zeuden tropei aurre egiteko (jesapena ez zioten itzuli 1818ra arte). 1810ean, Josef I.ak Manzanareseko prefektu eta Mantxako intendente izendatu zuen, eta bertan jaio zitzaion semea, Jorge Sarachaga Uría; ondasunak konfiskatu zizkieten, frantsestua izateagatik. Ikusi “Gerra arteko garaia” kapituluko 14. oharra. [itzuli]
23. Gabriel Benito Orbegozo (1770–1830) Bilboko Kontsulatuaren ordezkari izan zen 1808ko Baionako Batzarrean. Rafael Sánchez Mazasek, Orbegozoren herenilobak, honako hau idatzi zuen “Apología de la Historia Civil de Bilbao” lanaren “Los Caballeritos y los Amigos del País” kapituluan: “Ospitale Zibila sortu eta eraiki zuen Gabriel Benito de Orbegozo bilbotarraren testamentuan ikusten da Entziklopediaren hogeita bi liburuki aberatsen bi edizio oso zituela; bata Bilboko etxean, eta bestea Barakaldoko landetxean, non Labe Garaiak eraiki baitziren ondoren. Dena den, oso gizon fededuna eta elizkoi katolikoa zen [...]. Zenbaitek “Santu Beltza” esaten zioten, alde batetik

bitza santua zermalako eta karitate handia agertzen zuelako, baina bestetik bete-betean sartuta zegoelako moda liberal eta ilustratuaren 'belztasunean' [...]. Inbasio frantsesak beste jazarpen bat ekarri zion Bilbori, atzerritar nagusikeriarena, aberriaren zapaltzaile eta, lehen-lehenik, euskal leinuaren nahiz hiribilduaren zapaltzaile. Gabriel Benito de Orbegozo jaunak Baionako Ehun Goretako bat izatea onartu zuen, ez debozio frantsestuagatik eta mirabekeriagatik, baizik eta —nahigabeen bat eginda zeuden— Hiribilduaren eta Jaurerriaren askatasunak babesteko, argi eta garbi erakusten dutenez hark idatzi eta Teófilo Guiardek partzialki argitaratutako gutunek”. Antzeko zerbait gertatu zitzaion XIX. mendearen amaieran José María de Lizanari, oso fededuna hura ere; haren ustez, norbere sinesmenak ez ziren nahasi behar enpresa-jarduerarekin, eta El Basco egunkari kontserbadoreak (1891ko urtarrilaren 12a) “Elizaren aurkako” pertsonatzat jo zuen. [itzuli]

## MENDE-ALDAKETA: 1800EKO MILLENNIALAK, FRANTSESTUAK

XVIII. mendearen amaieran jaiok, badira bi pertsonaia aurkako ideia politikoak ordezkatzeko dituztenak (liberalismoa vs. kontserbadurismoa) eta Bilboko giza geografia osatzen duten bi talde-motetatik datozenak: merkatarien semea bata, eta ingelesez self made esaten zaiona; eta leinuko semea bestea, Bizkaiko noblezia landatarrekoa (lur-jabeak, eta hiribilduan bertan hasieratik etxeak izan zituztenak).

Bi pertsonaiek ezaugarri komun ugari dituzte beren ibilbide politikoan: biak iritsi ziren hiribilduko alkate izatera; biak izan ziren Bizkaiko diputatu eta Probintziako Aita; biak izan ziren Kontsulatuko buru; biei zieten begirunea diruzain bikainak izateagatik, eta biek agertu zuten kezka handia osasun publikoaren inguruan. Izaera desberdina zuten: bat kanporakoa zen, eta hiribilduan jaiok bazen ere, Orozkoko baserrian bizitzea eta euskaraz aritzea atsegin zuen; bestea lotsatia zen, “kabinete-gizona”, eta lur askoren jabea bazen ere, gorroto zuen Barrenkaleko dorretxetik irtetea, eta bertan egon nahi izaten zuen, euskarazko etimologiaren hiztegia idazten.

Beste ezaugarri batzuetan ere bazetozen bat XIX. mendearen erdialdean eratu eta amaieran finkatu zen Bilbo haren espiritua, hots, aztergai ditugun margolari handien Bilbo haren espiritua baldintzatu zuten bi pertsonaiek. Ezaugarri komun horietan lehena da biek erabiltzen zutela euskara eskuarki; bigarrena, biak errespetatzen zituztela ikaragarri beren garaikideek, eta hirugarrena, biek defendatu zutela trena ezinbestekoa zela Bilborako, komunikaziorako bitarteko eta garraio bide gisa.

Manuel María de Aldecoari (1780–1865) eta Pedro Novia de Salcedori (1790–1865) buruz ari naiz. Aldecoa Bizkaiko alderdi liberalaren sustatzaileetako bat izan zen, baina Foruak babestu zituen. Merkatarien seme, Frantziara bidali zuten ikastera, eta bertan bereganatu zuen izaera ilustratu eta frantsestuaren ondorioz, administrazio frantsesarekin lan egin zuen. Saiakera bikain batean, José Manuel Cifuentesek dio asko izan zirela frantsesekin lan egin zuten pertsonak, nagusiki merkatariak, eta nor izan ziren zehazten du<sup>1</sup>.

1815ean, hiribilduko alkate zela, Diputazioaren, Udalaren eta Kontsulatuaren artean zorra kitzeko adostasuna edo Konkordia deitu izan dena lortzen lagundu zuen. Urte hartan bertan, Probintziako Aita izendatu zuten, eta hitza nahiz lehentasunezko eserlekua lortu zituen Batzar Nagusietan. 1819an, Merkataritzako Ikasketen Eskola inauguratu zuen, eta Alberto Lista frantsestua izendatu zuen matematika-irakasle. Karlistaldiaren urteetan, Aldecoa liberalak foruzaletasun liberala bultzatu zuen, eta 1841ean Bizkaiko Osasuneko Goi Batzordeko kidea izan zen. Bilboko Eskola inauguratzean (1819ko martxoaren 1a) esan zituen hitzek ongi laburbiltzen dute haren mundu-ikuskerak: “Ezagutza da ‘herri zibilizatuen’ izaera bereizgarria eratzen duena [...], baita ohorezko ideiak ere, eta ikasteko zein lanerako ahaleginaren ideiak [...], ez baitago beste biderik parekoen estimua merezi izatera heltzeko eta helburu bikainenak erdiesteko”. Aldecoa bere garaiko politikari maiteenetako bat izan zen, akordio-artekari azkarra eta Bilboko etorkizun-ideien biltzailea.

Pedro Novia de Salcedo (1790–1865) leinu-sendi batean jaiok zen. Familiak dorretxe bat zuen Basurtun, baina hiribildura lekualdatu zen, eta dorretxe bat eraiki zuen Barrenkale Barrenan. Bilboko Arte Ederren Museoan ikusgai dago aldeetako tauletan Novia de Salcedoren arbasoen erretratuak dituen Gurutziltzaketaren triptiko bat. Noviak San Frantziskoko Eskola Inperialean ikasi zuen, Bilbon. 1817an, Bilboko alkate hautatu zuten. Lehen Karlistaldiaren aurretiko matxinadan parte hartu zuen, baina, moduekin haserre, aldi baterako Aragoira alde egitea erabaki zuen. Bilbo-

Balmaseda-Burgos lotuko zituen Iparraldeko trenbidearen proiektua aurkeztu zuen 1832an, Liverpool eta Manchester arteko munduko lehen trenbidea inauguratu eta soilik bi urtera. Bilbok harreman estua zuen bi hiri horiekin. 1841–43an, diputatu probintzial izan zen berriro, baita 1846–48 eta 1852–54 aldietan ere. 1852an, Gernikako Batzarrek Herrialdeko Meritu Oneko Seme izendatu zuten. Aisialdian, Diccionario etimológico del idioma vascongado hiztegian lan egiten zuen. Oso tradizionalista zorrotza izan arren, Novia de Salcedok sen onaren alde eta hiribilduaren eta probintziaren interes komunen mesedetan negoziatzen jakin izan zuen beti.

Aldecoa eta Novia de Salcedo ez ziren pertsona itzaltsu bakarrak Lehen Karlistaldiaren aurreko Bilbo hartan, ozta-ozta 12.000 biztanle zituen eta Zazpikaleetara mugatuta zegoen Bilbo hartan. Haiez gain, merkataritzako edo itsasketako jardueri ekin zieten beste hainbat ahaide nagusi bizi ziren hiribilduan, hala nola Juan Echevarría La Llana, Luciano Urizar, Manuel María de Gortázar edo Francisco Zabálburu, zein Armadan edo Itsas Armadan aritutako ahaide nagusiak, Federico Victoria de Lecea edo Mazarredo anaiak, besteak beste. Indietan dirua eginda Bilbora aberastuta itzulitakoak ere bazeuden, Tomás José Epalza edo Sebastián Eguillor, esaterako; hiribilduko bizitza ekonomikoan eta enpresa-arloan sartu ziren horiek. Era berean, Somorrostroko inguruan meatzeak zeuzkatena ere bazeuden, José María Ybarra edo Cosme Zubiría, adibidez; edo nekazarien seme xumeak, hala nola Máximo Aguirre (Galdakaokoa), Francisco de las Rivas (Gordexolakoa), Estanislao Urquijo (Laudiokoa), Eduardo de Aznar (Portugaletekoa) edo Mateo de Murgaren (Nerbioi Garaikoa). Guztiak ere munduko gizonak ziren, hizkuntza ezberdinak ezagutzen zituztenak eta dirua egiteko gogoia zutenak.

Gehienak ilustrazioko gizonak ziren, Aldecoaren hitzen ildotik zihoazenak (“ezagutza da [...] izaera bereizgarria eratzen duena”), eta, hortaz, frantsestuiak, eta ia guztiak Sociedad Bilbaína elkarteak ziren. Bilboren setio bete-betean antolatu zuen elkarte haietako batek, Máximo Aguirrek (1791–1840).

Aguirre XIX. mendean Bilbo hiri handi bihurtu zuten bilbotarren prototipoa zen, hiriaren zabalkundea ahalbidetu zuten oinarriak edo baldintzak ezarri zituenetako bat; hiriaren zabalkundea civisari lotutako alderdi guztietan, hiriak civitasa eskaini ahal izateko, hau da, gure eskubideak, aske izateko aukera eta ongizate komunaren arduradun-izaera bermatu ahal izateko. Aguirre merkataritza baten semea zen, Galdakaotik iritsia eta familia-tradizioko ofizioaren arabera trebatua, hau da, Gaztelarekiko eta atzerriarekiko bitartekaritza-merkatariaren bulego batean. Gero irinetara (El Pontón okindegia) eta ehun-gaietara (itsasontzietarako jutea, iruna eta oihalak) zabaldu zuen negozioa. Gaztetan, Aguirre Londresen eta Parisen bizi izan zen, eta bertan bereganatu zituen ideiei esker bere negozioak dibertsifikatu ahal izan zituen: lurzoru-erosle eta higiezinaren sustatzaile bihurtu zen, baita industria-arloko enpresari ere, eta Bilbon banketxe bat diseinatzeke prozesuaren partaide. Pascual Madozen hitzetan, 1846an Aguirrek 60 ehungailu zeuzkan kotoizko haria ekoizten, eta Santa Ana de Bolueta enpresaren eta Abandoko aingura-burdinolaren parekotzat jo zuen haren enpresa. 1861ean, Aguirre eta Nicolás Olaguíbel ziren Bilboko irin-merkataritza garrantzitsuenak<sup>2</sup>. 1863an, filialak zeuzkatena Espainiako erresuma osoan barrena, eta ordezkariak komertzialak zituzten, halaber, Dundee (Eskozia) eta Londres hirietan. Aguirrek harreman komertzialak izan zituen AEBekin, eta Bilboko kontsul gisa aritu zen 1839an, Lehen Karlistaldia oraindik amaitu gabe zegoela, Aguirrek kutsu ingeleseko klub bat antolatzeko konbentzitu zituen 133 herritar, ozta-ozta 12.000 biztanle zeuzkan Zazpikaleen Bilbo txiki hartan. Aguirre desadostasun politikoen gainera aisialdia eta irakurzaletasuna partekatzeke prest zeuden pertsona zentzudunak osatutako klub baten katalizatzailea izan zen. Horrela jaio zen Sociedad Bilbaína elkarte, 1839ko urriaren 15ean, Plaza Barriko 5. zenbakiko 1. solairuan, zeina baitzen Gortázarren eta Victoria de Lecearen jabetzakoa. Elkarte horretan bildu ziren hiriko izenik nabarmen eta garrantzitsuenak: merkataritza txikiak nahiz ahaide nagusiak; kontsignatarioak nahiz errentadun ilustratuak; abokatu eta artisauek nahiz ingeniari eta kinkila-saltzaile atzerritarrak. Tartean ziren hainbat ideologiatako alkate edo errejidoreak: Aguirre, Azaola, Bayo, Bergé, Briñas, Echevarría, Gaminde, Ibarra, Lequerica, Adán de Yarza, MacMahón, Obieta, Torres, Uhagón, Victoria de Lecea, Vildósola, Zabálburu, Zubirídea, etab.



Sociedad Bilbaína elkartearen sorrera izan zuen ardatz eta oinarri garapenaren Bilbo hark, industriaren, ontziolen, burdinbidearen eta banku-jardueraren Bilbo hark: aurrerabidearenak. Elkarre horren sorrera alemanek Bildung deritzotenaren oinarri etiko eta morala eraiki zuen irudi sinbolikoa da. 1839ko Bilbo indartuta atera zen, jende hark hezkuntza erein zuelako, edo “heziketa”, haien hitzetan. Bildung giza formakuntza da; ez da kontzeptu abstraktu bat, kultura, tradizio eta hezkuntzaren oinarria baizik<sup>3</sup>. 1819an, Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola ireki zuten, eta 1841ean, Bizkaiko Ikastetxe Nagusia, geroago, 1847an, Bizkaiko Institutu ezagun eta aglutinatzailea izango zena<sup>4</sup>.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. José Manuel Cifuentes Pazos, “Los afrancesados en Vizcaya: análisis de algunos casos”, *Tiempos Modernos*, 8. lib., 32. zk., 2016. Haren hitzetan: “artikulu honen helburua hurbilpen bat egitea da, hobeto ezagutzeko zer jatorri sozial eta ibilbide profesional eta publiko zuten konbentzitura nahiz komenigarritasunak, interesak edo izuak bultzatuta okupatzaile frantsesei lagundu zieten bizkaitarrek; dena den, oso kasu gutxitan hitz egin daiteke ‘benetako’ frantsesetz, eta horiek izan ziren, seguru asko, errepresalia handienak jasan zituztenak. Oinarritzat hartu ditugu okupazio frantsesak iraun bitartean Bizkaiko Jaurrerian bete zituzten karguen zerrendak”. [itzuli]
2. Pascual Madoz (Iruñea, 1806–Genova, 1870) ogasun-ministroa izan zen biurteko progresistan. 1855eko Desamortizazio Legeagatik da ezaguna, eta *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar* lanagatik. [itzuli]
3. Bildung greziarren Paideia da, zibilizazioa, kultura, tradizioa, literatura eta hezkuntza biltzen dituen hitza. Menandro poetak honela definitu zuen kontzeptua: “Bada gizakiari inork kendu ezin diezaiokeen ondasun bat, paideia: ‘Paideia gizadi osoaren babeslekua da’”. Sentencias Monólicas: 2 eta 312). [itzuli]
4. Ikusi liburuki honetan Nautika Eskolei eta kapitainei buruz idatzitako kapitulua. [itzuli]

## HERRITAR MOTAK

Era eta jatorri askotako pertsonak osatzen zuten 1800. urtearen inguruan jaiotako belaunaldiaren Bilbo, eta bat eginda aritzen ziren interes komunen alde; aurreraxeago ezagutuko ditugu haien ondorengoak. Talde horrek, 1840ko hamarkadan “esnatu” zenak eta bizitokia Zazpikaleetan zuenak, gizarteko maila hauetako jendea biltzen zuen:

— Hiribilduko merkatariak, bertatik kanpo gehiago saldu nahi zutenak: Barbachano, Villabaso, Gómez de la Torre, Orbegozo, Pérez de Neníñ, Urizar, Larrínaga, etab.

— Hiribildura zurgin, okin, etab. gisa lanera joandako herrixketako jendearen ondorengoak, hala nola de las Rivastarrak (Gordexola), Echevarrietarrak (Ea), Echevarría-Azcoagatarrak (Legutio), Aguirretarrak (Galdakao), Olábarritarrak (Zollo), Zubiriarrak (Barakaldo), Urquijotarrak (Laudio), etab

— Lurrak eta meatzeak izanda, batik bat Enkarterrin, dirua irabazi zutenak eta seme enpresariak izan zituztenak, hala nola Ybarratarrak (Somorrostro), Chávarritarrak (Portugalete), Llanotarrak (Somorrostro), Gandarias-Durañonatarren (Arratzu), etab. Ez zioten utzi herrixketan bizitzeari, baina haien semeak ingeniari edo bestelako profesional bihurtu ziren.

— Antzinako Erregimenetik lur eta baserri ugari zeuzkaten ahaide nagusiak, infantzoiak edo jauntxoak, baina hiribilduan bizi zirenak: Murgatarrak, Allendesalazartarrak, Gortázar-Munibetarrak, Abásolotarrak, Alzolatarrak, Quadra-Salcedotarrak, Madariagatarrak, Loyzagatarrak, etab

— Madrilen edo Cádizen gora egin zutenak (ministroak, funtzionarioak, almiranteak, etab.): Gardoqui, Mazarredo, Alcalá-Galiano, Zabálburu, Urdanegui, Horcasitas, Solano-Adán de Yarza, Eguía, etab.

— Kubatik, Perutik eta beste leku batzuetatik aberastuta itzulitako indianoak (hango independentzia-gerren ondorioz itzuliak): Eguillor Sarachutarrak, Lino Arisquetatarrak, Aldamatarrak, Chirapozutarrak, Palacio-Lanzagotatarrak, Trotiagatarrak, Epalzatarrak, etab.

— Atzerritik merkatari xume gisa iritsi eta berehala bertakotu zirenak (ezkontzen, kirolaren zein politikaren bidez): Uhagón, Smith, Yohn, Horn, Amann, Palme, Rochelt, Wicke...

Oso talde desberdinek osatutako belaunaldi horretako kideek —Zazpikaleetako biztanleak denak— elkar akuilatzen zuten, eta elkarrekin ezkondu ere egiten ziren. Haien ondorengoek beste enpresa-espíritu bat sortu zuten: meatzeak eraztetik (meatzariak) minerala atzerrira bidaltzera (ontzi-enpresak) pasatu ziren, eta idazpena aseguratetik (aseguru-konpainiak) minerala tratatu eta altzairua bertan egitera (siderurgiak, labe garaiak), itsasontziak eraikitzen (ontziolak) eta dirua nahiz finantzaketa kontrolatzera (banku-jarduera), alde batera utzi gabe antzinako zenbait jarduera, artilearen esportazioa

(Gaztelatik) eta bakailoaren inportazioa, esate baterako. Enpresa-kudeaketa (non kontrolatzen zuten ekoizpen-prozesu osoa) integrazio bertikaleko ereduan oinarritu zen.

Testuinguru horretan, ulergarria da XIX. mendearen azken laurdeneko eta XX. mendearen hasierako hurrengo belaunaldiak margolari bikainak eta mural publiko handiak babesteko aukera eta nahia izatea. Mexikon heroia izan zen Ignacio Allende<sup>1</sup> bizkaitarrak idatzita utzi zuenez: “Jaiotzen diren hiriaren edo herriaren tamaina gorabehera, gizon-emakumeak beren egintzaren tamainakoak dira, beren anai-arrebak goratzeko eta aberasteko agertzen duten borondatearen tamainakoak”.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Ignacio Allendek (1769–1811) eta Juan Aldamak (1774–1811) altxamendu baten buru izateko konbentzitu zuten Miguel Hidalgo apaiza 1810. urtearen amaieran, eta Mexikoko independentziaren heroiak izan ziren. Biak jaio ziren San Miguel el Grande hirian (egungo San Miguel de Allende), Guanajuaton, eta Gordexolako Iratzagorria auzoan sortu eta hiri hartan finkatutako merkatarien semeak ziren. [itzuli]

## MERKATARIAK

Bilbo hiribildu bat zen, eta, hortaz, merkataritza eta lanbideak nagusi ziren bertan, hau da, dendak eta “langelak” (gaur egun bulego deritzegunak), baita lantegiak eta manufaktura-fabrikak ere. Normalean, dendek eta langlek familia-egitura zuten oinarri, eta horien hazkundera baldintzatu egiten zuen barne-eskari txikiak, baina kanpo-merkataritzarekin aukerak zabaltzen saiatu ziren. Era berean, hiribilduak atzerritarrek eta elizateetako biztanleak jaso zituen, bai merkatarizarako, bai lanbideetarako, eta horiek berehala nahasi ziren bertako hiritarrek. XVIII. mendearen amaieran, indartuz joan zen merkataritzari lotutako klase ertaina, eta hedatu egin zen. Bilboko 1797ko erroldaren arabera, dendarien, merkatarien eta itsasontzi-artekarien gizarte-taldea 441 pertsonak osatzen zuten, eta Bilboko biztanle guztien % 15,6 ziren<sup>1</sup>.

Erroldek hainbat kategoriatako hiritarrak aipatzen dituzte: merkatariak, burtsako agenteak eta bankariak, artisau-fabrikatzaileak eta -industrialariak, eta profesional liberalak. Azken horiek unibertsitateko fakultateetan edo goi-mailako eskola espezializatuetan ikasketak gaingiduta baino gauzatu ezin diren lanbideak dituztenak dira: ingeniariak, arkitektoak, abokatuak, medikuak, lizentziadun edo doktoreak, katedradunak eta musikariak.

Burgesia komertzialean bi mota bereiz ditzakegu: dendetako negoziatzaileak edo birsaltzaileak, hots, dendariak eta artisauak, batetik, eta bestetik, handizkako merkatariak, hau da, itsasontzi-artekariak eta kontsignatarioak. “Karga-ontziratzaileak” ziren horiek, burgesia esportatzailea eta inportatzailea, nazioarteko salerosketan eta igorpenean aritzen zena (“urrutiko trukea eta igorpena” praktikatzan zituzten).

Euskal burdina eta Gaztelako artilea esportatzen zuten familia-enpresak ziren, eta ontziratze-lanak egiteaz gain, bakailaoa, gantzak, arroza, gatza, azukrea, kakaoa, zurak, lihoa, mundruna eta betun kolonial izenekoak inportatzen zituzten (ontzien itzulerako bidaietan); gerora asegurigintzan hasi ziren<sup>2</sup>. Haietako batzuek Begoñako Andre Mariaren eta San Karlosen Aseguru Konpainia sortu zuten 1783an, itsasontziak aseguratzeko, eta XIX. mendean itsas aseguruen beste konpainia batzuk agertu ziren.

Merkatariekin batera (“karga-ontziratzailleak” edo dendariak), haiekin lanean edo “ekiten” aritzen ziren zenbait ahaide nagusi, noblezia landatar hura (hau da, Bizkaiko Lur Lauko leinuak, hala nola Mazarredotarrena<sup>3</sup> edo Allendesalazarrena, Batzar Nagusietako “Probintziako Aitak”, horietako asko), burgesia komertzial bilakatu nahi zuena.

Noble landatar haiek, “qui ont de la naissance”, jaiotzetik aberatsak zirenak lurrei esker, the gentry, bi motatakoak ziren: lurren errentetatik bizi zirenak (maiorazkoak) eta (bigarrenak) Estatuako funtzionario bihurtu zirenak (gorteko idazkariak, militarrek, almiranteak, etab., eta Indietako merkatarik noblezuak, eta indianoak). Lehenengo taldekoak ziren Loyzagatarrak, Urdaibaytarrak eta Murga Mugártegitarrak; azken leinu horretako kide bat, militarra, bidaiaria eta idazlea, Bizkaiko Mairua ezinez izan zen ezaguna, eta Bizkaiko Jaurerriko diputatu nagusi izendatu zuten 1870ean. Bigarren taldean sartzen ziren Espainiako Estatuarentzat lan eginez aberastu eta Madrilen finkatu ziren guztiak: Mazarredotarrak, Gardoquitarrak, Allendesalazararrak, edo beste Murgatarrak. Interesgarria da aipatzea 1797an Bilboko erroldan 48 maiorazko zeudela<sup>4</sup>. Manuel Basasek dioenez, berrogeita zortzi maiorazko horiekin, XVIII. mendeko Bilbo lur-jabeek gobernatzen zuten oraindik, burgesia komertzialak baino gehiago<sup>5</sup>.

Baina hori ez da erabat egia. XVIII. mendearen amaieran, Bilboko aberastasunak merkataritzari lotutakoak ziren, nagusiki. Jada aipatu dugun saiakera interesgarri batean, Román Basurto irakasleak XVIII. mendean Bilbon merkataritzari lotuta zeuden aberastasunak aztertu zituen, Bilboko merkatarik batek agintari frantsesentzat isilpean egindako txosten bati esker<sup>6</sup>. “XIX. mendearen lehenengo urteetan Euskal Probintzietan buruz osatutako isilpeko txosten bati esker, Napoleonentzat egina, badakigu zein ziren garai hartako itzal handieneko bizkaitar familia aberatsenak, 800.000 erreale baino gehiagoko kapitala zutenak. Familia hauek ziren: Gómez de la Torre, Manzarraga, Ugarte, Bergareche, Duhagon [Uhagón], Goossens, Mezcuta, Gardoqui, Villabaso, Gordia, Lemonauria, Dibiri, Olavaria, Quintana Busturia, Jane Orbegozo, Pérez de Nenin, Trotiaga, Sarachaga eta Mazarredo. Horietako batzuk Bizkaiko sektore ekonomiko, sozial eta politikoko nagusiaren parte izan ziren XIX. mendean zehar, eta haien izenak jasota geratu ziren familia dirudunen zerrendetan, funts-ondasunen jabe izateagatik edo/eta merkataritzan nahiz industrian posizio nabarmena izateagatik”.

Bilbon merkataritzari esker pilatutako bizkaitar aberastasun horiez gain, baziren beste euskal aberastasun batzuk Madrilen, eta baita Cádizen ere, kontsignaren eta itsas merkataritzaren bidez aberastuak, horiek ere. Barbachanoren txosteneko pertsonailetatik gutxienez bi Indietako merkatarik ziren, urtearen zatirik handiena Cádizen igarotzen zutenak: José Trotiaga eta Bartolome Gómez de la Torre. 800.000 errealetik gorako kapitala zuten bilbotarren artean omen zeuden bi-biak. Trotiaga Indietarako burdina-ontziratzaille nagusia izan zen 1790ean, eta metal horren kargamentu guztien % 21,8 monopolizatzerara iritsi zen. Hor agertzen ziren, halaber, Juan Antonio Madariaga (Busturia), ahaide nagusi eta merkataria, eta Matías Landábururen semeetako bi.

Basurtoren azterlanaren arabera, 10 milioi baino gehiago zituzten hiruretako bat zen “Beltrán Douat, Colonillako markesa, Lapurdin jaiotako merkatarik bilbotarra, diruaren Madrilgo elite horretako kidea, 12 milioiko kapitalarekin. Sustrai argiro euskaldunak zeuzkaten Madrilgo beste merkatarik arrakastatsu batzuek (Aguirre, Galarza, Goicoechea, Gorbea, Gardoqui eta ilobak...) 4 milioitik 8 milioira bitarteko kapitalak zeuzkaten. 1798ko Almanak Mercantil dokumentuaren arabera, Madrilgo 33 bankarrietako asko euskal jatorrikoak ziren”<sup>7</sup>.

Laburbilduz, XIX. mendearen lehen urteetan infantzoien, bueltan etorritako indianoen, merkatarik-dendarien eta merkatarik-ontziratzaille (meatzariak edo ontzi-jabeak) familiak nahasi ziren Bilbon; horietako asko hurbileko elizateetako herritarren ondorengoak ziren, ikastea erabaki zutenak, eta bereziki ekitea: Aguirre de Galdácanotarrak;

de las Rivas-Ubieta gordexolarra; horren iloba, Martínez de las Rivas, galdamestarra; Portugaleteko Chávarritarrak; Muskizko De la Sotarrak; Eako Echevarrietarrak, etab.

Horretan guztian zerikusia izan zuen, halaber, Bilboren egitura “politiko-juridiko” onak. Bilbon, hiru erakundek gobernatzen zuten herritarren bizitza: Bizkaiko Jaurerri edo Gobernu Nagusiak; Bilboko Kontzeju edo Udalak, eta Kontsulatuak. Lehen esan dugunaren arabera, eta hiribildu portudunaren ezaugarriak kontuan hartuta, Kontsulatua hiribilduaren eta elizateen arteko harremanaren oinarritzat balio izan zuen banda ongi olioztatua izan zen, pertsona haien bizitzaren joanaren eta ibilbidearen ardatza. Kontsulatuak atsedetik gabe lan egin zuen portua beti aktibo egon zedin, eta hobekuntzak izan zitzaizkien etengabe, itsasontzietarako, zamalanetarako eta beste jarduera batzuetarako azpiegituretan ez ezik, baita hiribildu barruko alderdi juridikoetan ere; baina Kontsulatua izan zen, halaber, behin eta berriz ikusarazi ziona Jaurerriari Gaztelarekiko errepideetako hobekuntzak guztien onurarako zirela. 1829an Merkataritza Kodea argitaratzearekin bat Kontsulatua desagertu zenean, Merkataritzako Auzitegiek eta Merkataritza Batzordeak hartu zuten haren lekua; lehenengoek eskumena izan zuten merkataritza-arloko auzietan, eta bigarrenak, berriz, liskar judizialak ez ziren gainerako gai guztiak bideratu behar zituen. Dena den, ordurako landua zegoen bide komertziala, argia eta bestelakoa, arrazionalismo frantsesaren antzera<sup>8</sup>. Aránzazu Galarzaren azterlan baten arabera, 1850etik 1882ra bitarte Bilbon eratu ziren 268 sozietateetatik 210 konpainia erregular kolektiboaren eredua<sup>2</sup> erabiliz antolatu zituzten; eredu hori “orokorrena eta besteentzako eredugarria” zela zehaztuta zegoen, jada, Bilboko Kontsulatuaren 1737ko Ordenantzetan.

A. Galarzak ikerketa bat egin zuen XIX. mendearen hirugarren laurdenean sozietateak eratzeko erabiltzen zituzten notario-protokolei buruz, sozietate horiek eratu zituzten enpresariei buruz eta sorreran izaten zuten kapital sozialari nahiz gauzatzen zituzten jarduera ekonomikoei buruz, eta ikerketa hori aipatuz, Manuel González Portillak honako hau azpimarratu zuen: “Enpresa-sozietateen sorrera 1850–82 bitarteko aldian Bilbon eta Bizkaian izandako bizitasun ekonomikoaren adierazle ona izan daiteke. Urte horietan, 274 sozietate sortu ziren Bilbon, 138,2 milioi pezetako kapitalarekin. 1.417 pertsona ziren tartean, hau da, 1860ko Bilboko biztanleriaren % 8 (Galarza, 1996); zifra horrek adierazten digu hiribilduko biztanleek parte-hartze nabarmena zutela enpresa-jardueretan”<sup>10</sup>.

Jada aipatu dudanez, Bilboko Zazpikaleetako merkataritza- eta enpresa-arloko burgesia horrek jatorri anitz zituen. Batzuk hiribildua eratu zenean bertan finkatutakoak edo ondoren iritsitakoak ziren, eta hiribilduari zentzia ematen zioten, merkataritza izaki; beste batzuk probintziako herririketako biztanleen ondorengoak ziren, etorkizun hobeari bila etorriak aprendiz edo artisaun gisa, askotan, eta merkataritza bihurtuak; beste batzuk hiribildura beren salgaiak eskaintzera etorri eta betirako bertan geratutako atzerritarrak ziren. Aipatutako lehenek nolabaiteko ospea zuten hiribilduan, antolakuntza-mekanismoak eta pribilegioen erabilera ezagutzen zituztelako; bigarrenak eta hirugarrenak jende xumea ziren, batzuk elizateetakoak, beste batzuk atzerritarrak, baina guztiek egin zuten gora sozialki, lortutako arrakastaren ondorioz, eta horietako askok itsas ustiapenarekin, siderurgia modernoarekin edo itsasontzien eraikuntzarekin lotutako negozioei ekin zieten ondoren.

Cosme Echevarrieta eta Federico Echevarría, beste askoren artean, jatorri xumeko gizonak ziren, ofiziodunak; lehenengoa, Eako zurgin baten semea zen, eta bigarrena, Legutioko latorrigile batena. Bilbon, merkatarien alabekin ezkondu ziren (Lazkurainenarekin eta Rotaechearenarekin, hurrenez hurren). Horiek leinuetako kideak ziren, baina ez ahaide nagusiak, hau da, ez zuten loturarik lurren jabetzarekin eta errentekin. Rotaèche familiak ez zuen maiorazkorik, baina leinua Euskal Herriko lurraldeko iraunkorrenetako bat zen, bostehun urte baino gehiago baitzituen<sup>11</sup>. Hau da, errentarik gabeko jendea zen, dirurik ez zuena, baina herririketako baina mundu handiagoa zuena. Denborarekin, baina, euskal merkataritza horietako askok (Lekeitiokoak, Santurtzikoak, etab., baita Gipuzkoakoak ere, edo Bilbo bertakoak) aliantza komertzial eta ekonomikoak eratu zituzten Espainiatik kanpo; horrek botere handia eman zien, eta

aukera eman zien mailegu-emaile, bankari edo aseguratzaile gisa aritzeko. Bordelen, adibidez, izen hauek aurkituko ditugu: Aguirrebengoa, Balmaseda, Ibarrodo, Uribarren; Parisen: Abaroa, Uribarren; Amsterdamen: Echenique; Hanburgon: Arechaga, Azuela, Urcullu, Urbietta; Londresen: Aguirre-Solarte, Errecarte, Goyeneche, Murrieta. Bizkaitar edo euskaldun horiek Cádizen, Sevillan edo Madrilen finkatu ziren, eta negozioak ezarri zituzten Kuban, Mexikon, Perun, Argentinan, etab. —edo herrialde horiekin negoziatzen hasi ziren, besterik gabe—. Askok etxea edo base bat mantendu zuten Zazpikaleetan, eta beren jatorrizko herriei laguntzen jarraitu zuten. Indianoei buruzko kapituluan aztertuko ditugu xeheetasunez.

Asko politikan sartu ziren, errepublikano edo liberal gisa, ez baitzuten nahi berriro ideia karlistak ezartzea: ez zuten nahi beren jarduera komertzialak eten behar izatea, ez arrazoi dinastikoengatik, ez arrazoi erlijiosoengatik. Máximo Aguirreren (eta 1839ko Sociedad Bilbaína elkartearen) ideien jarraitutasuna hobekien ordezkatzeko duen pertsonaia Cosme Echevarrieta Lascurain (1844-1902) da: aita zurgina zuen, Eakoa, eta ama dendaria zen, eta baxerak eta beirateriak saltzen zituen familia-negozio bat zuen, Erribera kaleko 13. zenbakian zuena biltegia. Cosmek ikasketak egin zituen, eta itsasontzi-kapitain izateko formakuntza jaso zuen. 1865ean, Jacinta Marurirekin ezkondu zen Abandoko elizateko San Bizente Martiriaren elizan. Bi seme-alaba izan zituzten: Amalia (1868) eta Horacio (1870)<sup>12</sup>.

1865eko maiatzaren 5ean, “Solamente la democracia es compatible con los fueros” izenburua zeraman artikulua idatzi zuen Echevarrietak. Hamarkada luzez testu hori erabili zuten foru-kodeen interpretazio errepublikanoa egiteko, bereziki Bizkaian eta oro har Euskal Herrian, kode horiek demokraziarekin eta errepublikazaletasunarekin identifikatuta<sup>13</sup>. 1867an, meatzetako enpresari bihurtu zen, eta, aldi berean, hiriko Zabalgunean jarri zuen arreta, baita Abran portua garatzeko aukeran ere. XIX. mendearen azken hereneko lider errepublikano nagusia izan zen, eta 1869an Eibarko Itun Federala izenpetu zuen, Bizkaiko ordezkari-lanetan. Lotura izan zuen El Eco Bilbaíno egunkariarekin, eta bertan berretsi zuen bere ideologia. Echevarrietak gurtzarako eta kleroarentzako diru-saila ezabatu nahi izan zuen Udalaren aurrekontuetatik, eta uko egin zion Aste Santuko prozesioetan parte hartzeari, udalbatza osoak parte hartzea ohitura bazen ere. 1874ko setioan, Errepublikako Boluntarioen Batailoiko komandante izan zen, eta gero Laguntzaileen Batailoian sartu zen (1874–75). 1882an Bernabé Larrinaga Aransolorekin (1838–1892) elkartu zen, eta 1890ean haren meatokietako burdinaren 145.000 tona baino gehiago ekoitzi zituzten. Haren erkidea Bizkaiko Institutuko laguna zuen, Alde Zaharrean jaioa, udal-medikuaren semea, 1865ean Trinidad Aburtorekin ezkondua. Institutua amaitzean, Larrinagak Filosofia eta Letren ikasketak egin zituen Valladolideko eta Madrilgo unibertsitateetan. 1871n, Bilboko Udaleko kidea izan zen, eta agintari gorena izatera iritsi zen. Bi urte geroago, Gorteetarako diputatu aukeratu zuten, Durangoko barrutiaren ordezkari. Baina 32 urte besterik ez zituela, alde batera utzi zuen politika, eta meatzeak ustiatzen hasi zen; horretarako sozietate bat eratu zuen bere koinatu Juan Aburtorekin eta Echevarrieta lagunarekin, zeinarekin aliatuta egon baitzen Batailoian, karlistei aurre egiteko. Ramón de la Sota nazionalistak, negozio askotan lehiakide izan zuenak, bikainki laburbildu zuen Larrinagaren nortasun umila: “Aparteko gizona, erlojugile amateurra, turuta-jotzailea, errepublikanoa, Bilboko logia masonikoko idazkaria eta kanabera zerabilen arrantzalea...”. Antzeko izaera zuen Echevarrietak ere. Bilbo setiotik babesteko agertu zuen jarreragatik ohore-domina eman zion gobernuak, baina hark uko egin zion, bere printzipio politikoaren aurka zegoelako hori; izan ere, haren ustez, herritar on batek ez du dominarik behar, bere ekintzekin eredu eman baizik. Echevarrietak belan nabigatuz erlaxatzen zen itsas gizona izaten jarraitu zuen, beste enpresa-kapitain askoren antzera eta, bereziki, Horacio semearen antzera.

Sociedad Bilbaína elkartearen sortzaileen ondorengo belaunaldi horretako kideek eremu soilki komertziala gainditu, eta ekoizpen-eremuan ere kokatzen jakin zuten. Lan-, hornidura- eta merkaturatze-sare konplexuak baliatuz, beste osagai batzuk bilatu zituzten, guztiontzako hiribildu hobea lortzeko. Bazekiten merkatuak, baliabideak eskainita, ekoizpen-sistema hobetuko zuela, ekonomia bidezkoa eta gizarte ireki eta askeagoa sortuko zituela; eta apaltasunetik abiatuta egin zuten aldaketa. Bazekiten ez zegoela soilik beraien esku, jende askoren esku baizik. Uste osoa zuten pertsonengan, eta proiektuak pertsonen gauzatzen dituztela sinesten zuten. Askotariko gizarte-maila haiek (eskudirua

zeukaten indiano aberatsak, ahaide nagusiak, aurrera egin nahi zuten ofiziodunak eta negozio-eremua zabaldu nahi zuten merkatariak) inguruan onenak hartzen jakin zuten. Ongi ezagutzen zituzten beren gabeziak, eta dagoeneko bertan zeuden pertsonen laguntzaz estali nahi izaten zituzten, bi kale harago zeuden horien laguntzaz. Horri esker, bizkor handitu, eta arlo askotan (meatzeak, siderurgia, esportazioa, etab.) aritu ahal izan zuten, arrakastaz aritu, gainera.

Esan berri dudana berresten duten hiru adierazle argi daude:

— Máximo Aguirrek ordezkatzan duen sortze-une horretako ezein pertsonaia edo industria-kapitain ez zen aldatu bere bizitzan zehar: Cosme Echevarrietak, Bernabé Larrinagak edo Ramón de la Sotak hasierako kapitain umil eta soilak izaten jarraitu zuten.

— la guztiek hainbat langileburu edo eskudun izan zituzten inguruan, ez beti ideologia politiko berekoak; bizitza osoan zehar mantendu zituzten, eta hurrengo belaunaldira ere pasatu ziren. Leial eutsi zieten nerabezaro eta gaztarako adiskidetasunei, Bizkaiko Institutuko ikasmahaietako ikaskideei. Nagusi handiek zuzendari, ingeniari edo arduradun berak izan zituzten ia bizitza osoan zehar —“Aurreiritziak” kapituluan jaso dudanez—.

— Enpresari-talde horietan ez zen desberdintasun eta etsaitasun handirik izan 1936ko Gerra Zibilera arte; Lehen Karlistalditik eta Cosme Echevarrietaren belaunalditik, argi zuten gauza bat: hiribildua ezin zen jausi ez ezkortasunaren besoetan, ez polarizazio politikoan.

Lan-giro hark (alde batera utzita ideologia pertsonalak) sortu zuen, zalantzarik gabe, lehiakortasun zintzoa. Eta hori islatuta geratu zen margolarien belaunaldietan; ez zegoen taldetxorik, baizik eta guztien arteko ulermena eta elkarlana, baita Gerra Zibilean ere. Cosme Echevarrietaren belaunaldi osoak argi zeukan gure oraindirako garrantzitsua den gauza bat: izaera politikoko gatazkek (edozein joeratakoak, baina bereziki karlismoak) berekin zekartzaten: 1. Ezegonkortasuna; 2. Txirotzeta, eta 3. Zailtasun ekonomiko orokorrak Espainiarentzat.

Bilbok hartutako norabideari eta bertako bizitzari esker, bide guztiekin lotuta egon ahal izan zuten beti, eta horrek merkataritzari atxikitako arrastoa utzi zuen mendeen joanean, gero eta nabarmenago eta ahaltsuago adierazia: ikuspegi argia, erabaki bizkorak eta efizientzia. Merkataritza-arloko burgesia tradizionala, indianoekin eta meatzariekin harremanetan, ekintzaile bihurtu zen, eta hiribildutik harago begiratzen hasi zen. Hala, konpromisoa hartu zuten industria-lantegien, burdinbidearen, ontziolen, irin-erroten eta aseguru-etxeen ekimen berriekin.

1839az geroztik, olgetarako elkarte berrietan (aisialdi eta irakurketakoak, musikakoak, kiroletakoak, etab.) biltzen ziren horiek denak, esaterako Sociedad Bilbaina elkartearen. Ikusi besterik ez dago Itsas Klubaren bazkide-zerrenda zabala, laurehun bazkideetik gorakoa, 1902an.

Juan Pablo Fusik aipatu moduan, “Berrezarkuntzaren garaian (1874–1902), Bilbo liberala izan zen oraindik, merkataritzan eta salerosketan ziharduen hiri txiki bat, oraindik alde zaharrera mugatua, Zazpikaleetara: Neguriko lehenengo txaleta, adibidez, ez zuten 1904 arte eraiki”<sup>14</sup>.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

1. Román Basurto, “Linajes y fortunas mercantiles de Bilbao del siglo XVIII”, *Ixtas Memoria. Revista de estudios Marítimos del País Vasco*, 4. zk., Untzi Museoa, Donostia, 2003, 343–56. or. Basurtoren saiakerak XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako Bilboko kapital komertzialaren egituraren adierazle gisa balio du. [\[itzuli\]](#)
2. Hiribilduan aspalditik finkatutako hainbat familia: Gandasegui, Sarria, Barbachano, Gardoqui, Echevarria, La Llana, etab. Gardoquitarrek onura atera zioten, halaber, Britainia Handiaren eta Ipar Amerikako kolonien arteko gerra-aldiari, eta produktu ingelesak bidali zituzten, kolonoek britainiar salgaien aurka blokeoa ezarri zuten urteetan. Luis Briñasen aitona burdina, irina eta pattarrak esportatzen zituen, eta kakaoa inportatzen zuen Caracasetik eta Guayaquiletik, kolonietako betunak Amerikatik eta espeziak Londresetik (piperbeltza, kanela eta tea). 1835ean Rotabarría izeneko paper-fabrika (1823an sortua) erosi zuen Abusun, trapu zaharrak erabiliz (itsasontzietako telak, nagusiki) papera, kartoia eta kartak egiteko (eta esportatzeko). [\[itzuli\]](#)
3. Guillermo Górtazarrek dioenez, ez ziren ahaide nagusiak. Ikusi “Aurreiritziak: Oligarkia” ataleko oharra. [\[itzuli\]](#)
4. Mercedes Mauleón Isla, *La población de Bilbao en el siglo XVIII*, Valladolid, 1961. [\[itzuli\]](#)
5. Manuel Basas, *Miscelanea histórica bilbaína*, “El cofre del Bilbaíno” bilduma, Bilbo, 1971. [\[itzuli\]](#)
6. Román Basurto, *ibid.* Txostena Barbachanok egin zuen, Bilboko merkataritza garrantzitsua, bera. Ikusi hau ere: Román Basurto, *Comercio y burguesía de Bilbao en la segunda mitad del siglo XVIII*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1983, 242. or. [\[itzuli\]](#)
7. Román Basurto, “Linajes y fortunas mercantiles de Bilbao del siglo XVIII”, *ibid.* [\[itzuli\]](#)
8. Merkataritza Batzordea 1830eko otsailaren 20an eratu zen, eta Bilboko itsas kontuak gobernatzen jarraitu zuen, baina indarra eta garrantzia galduz joan zen, batik bat 1847ko urriko Errege Dekretutik aurrera, soilik kontsultarako erakundetzat hartzen baitzuten bertan; orduan aurrera, merkataritza-ganberak izan ohi dituzten funtzioen antzekoak garatu zituen, eta 1850eko maiatzaren 2an egindako azken aktarekin eman zuen amaitutzat bere jardura. Merkataritza Auzitegia desagertu egin zen, halaber, 1868ko abenduaren 6an Foruak bateratzeko aurkeztu zuten Lege Dekretuaren ondorioz, horrek ezabatu egin baitzituen auzitegi bereziak eta jurisdikzio arruntaren esku utzi baitzituen merkataritza-arloko gaiak. [\[itzuli\]](#)
9. Aránzazu Galarza, *Creación de Sociedades e Inversión de Capital. Bilbao 1850–1882*, Ediciones Beta III Milenio, Bilbo, 1996. [\[itzuli\]](#)
10. Manuel González Portilla, “Inmigración y nueva sociedad. La ría de Bilbao en la primera industrialización”, hemen: *Bilbao a través de su Historia: ciclo de conferencias conmemorativo del 700 Aniversario de la fundación de la villa de Bilbao*, Javier Tusell Gómez (ed.), BBVA Fundazioa, Bilbo, 2004, 156. or. [\[itzuli\]](#)
11. Rotaetze leinua (jatorriz Rotaetze de Aranguren deituak) bostehun urtez baino gehiagoz abizen bat etenik gabe oinetxe bati lotuta mantendu zuen eta egun Euskadin dirauen familia bakanetakoa da. XIII. mendearen amaieran sortu zen, Fernán Ybáñez de Olarterekin, Bizkaiko jaunen ondorengoa. Aipamen berezia egiten zaio Orozkoko Errotaetxe Dorreari: XV. mendearen amaieran eraiki zuten, eta Eusko Jaurlaritzak monumentu historiko-artistiko nazionaltzat izendatu zuen. [\[itzuli\]](#)
12. Espainia laiko, federal eta monarkiarik gabekoaren defendatzailea zen, eta ez zuen kontraesanik ikusten ideia horren eta bere aberastasunaren artean. Francisco Martínez de Rodasen antzera, oso enpresari boteretsua bihurtu zen hamabost urte eskasean. Pneumoniak jota hil zen, 1903ko otsailaren 28an, Deustun zuen txaletean. *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak haren heriotzaren berri eman zuen hurrengo bi egunetan, lehen orrialdearen erdia hartzen zuen eskela bat jarrita, eta *El Liberal* egunkariak, aldiz, orrialde osoa eskaini zion. Haren ondasunek hamaika milioi pezeta baino gehiago balio zuten, eta, hortaz, garai hartan Bizkaian zegoen aberatsik boteretsuenetako bat izatera heldu zen. [\[itzuli\]](#)
13. Echevarrietaren ideologia hobekien aztertu duen saiakera Jon Penche Gonzálezen hau da: “Cosme Echevarrieta (1842–1903): el patriarca del republicanismo bilbaíno”, hemen: *Bidebarrieta*, 21. zk., Bilbo, 2010. [\[itzuli\]](#)
14. Juan Pablo Fusi, “Bilbao en la época de Alfonso XIII”, hemen: *Bilbao a través de su Historia: ciclo de conferencias conmemorativo del 700 Aniversario de la fundación de la villa de Bilbao*, Javier Tusell Gómez (ed.), BBVA Fundazioa, Bilbo, 2004. Neguriko lehen etxea, Lezama-Leguizamón sendiarena, 1902an amaitu zuen José María Basterra arkitektoak, ez 1904an, Fusik esan moduan, eta Manuel María Smithen berritu zuen, 1919an. [\[itzuli\]](#)



## MAIORAZKOAK ETA ESTATUKO FUNTZIONARIOAK

Hiribilduan, biztanle batzuk salerosketan aritzen ziren, eta beste batzuk errentadunak ziren, hau da, etxeak edo lonjak alokatzen zituzten, baina batzuetan parte hartzen zuten negozioetan ere. Hortaz, bi hiritar-mota bereiz ditzakegu: beren artikulua edo lanbideengatik ezarri zirenak bertan, eta noblezia landatarreko kideak, ahaide nagusiak, hiribilduan dorretxeak eraiki zituztenak, etxe-jabeak zirenak, eta landako lurren edo Lur Lauaren errentetatik nahiz etxe eta lonjen alokairuetatik bizi zirenak, edo saltoki horietan zeuzkaten partaidetzetatik<sup>1</sup>. Noblezia landatarraren ondorengoetako askok gora egin zuten Madrilan, Estatuko administrazioan edo gudarosteetan, bereziki Armadan.

Ahaide nagusiak edo infantzoiak gure noblezia landatarra ziren. Noblezia horren aberastasunaren oinarria lur-jabetzan eta errentetan zegoen: jauregiak, baserriak, errotak, gabiak, burdinolak, lursailak, onibarrak eta mendiak zituzten. Haietako batzuek inbidiaz ikusten zuten beren dorretxeetatik nola ari ziren aberasten zenbait hiribildu, hala nola Bermeo, Portugalete eta, bereziki, Bilbo. Beste batzuk hiribilduetara joanak ziren; etxe eta jauregi onenak eraiki, eta errentetan ez ezik, salerosketetan ere parte izan zuten, eta Gaztelako artilearen merkataritzan esku hartu zuten. “Génesis de la sociabilidad moderna en Bilbao (1800–1876)” saiakeran, honela dio Joseba Agirreazkuenaga historialariak: “Hiri hori, merkataritza-hirien artean nagusia, Lur Lauko maiorazko nagusien egoitza soziala ere bazen. 1800. urtean, Bizkaiko maiorazkoen % 20 Bilbon bizi ziren, eta horien artean zeuden, noski, botere politiko eta ekonomiko handienekoak”<sup>2</sup>. Ondoren, ahaide nagusi haietako asko itsas merkataritzan sartzen joan ziren, eta gerora baita industrializazioan, trenbidean, siderurgian eta abarreetan ere.

Komeni da, hortaz, labur-labur azaltzea XIX. mendeko Bilbo hartako soziologia-modu horiek: herritar-motak eta merkataritza-motak, Lur Laua eta elizateak vs. hiribilduak eta horien Foruak.

Lur Laua edo infantzoiaren eremua hiribildu ez ziren Bizkaiko probintziako lurri esaten zitzaizkien, hau da, baserriz edo harresirik gabeko biztanlegune txikiz osatutako lurraldeari, hiribilduekin kontrajarrita, harresi babesgarriak zeuzkaten biztanleguneak baitziren horiek. Bizkaian, hiribildu hauek zeuden, Bilboz gain: Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Urduñako hiria, Plentzia, Portugalete, Balmaseda eta Audio nahiz Aramaio arabar udalerrak, Nerbioi Garaian. Lur Laua deitura, merindadeetan antolatutako elizateek ezarria, Bizkaiko foruaren arabera gobernatuta zegoen Bizkaiko zatiaren izendapen administratiboa zen. Hiribilduek (eta Urduñak), Durangaldeak eta Enkarterrik bestelako foruak zeuzkaten (beste lege batzuekin)<sup>3</sup>.

Leinua pertsona baten jatorria da, hau da, kaparetasunaren eta odol-garbitasunaren froga Antzinako Erregimenean (Ancien régime). Frantziako iraultzaileek horrela deitu zioten, modu gutxiesgarrian, 1789–99ko Frantziako Iraultzaren aurretik ezarrita zegoen gobernu-sistemari. Espainian, Independentzia-gerrara arte iraun zuen Antzinako Erregimenak, 1812an Cádizen Konstituzioa aldarrikatu zuten arte.

Bizkaian, Foruaren ondorioz, kaparetasun unibertsala zegoen, hau da, bizkaitar guztiak ziren kapare. Alfontso X.a Jakituna erregearen Las Partidas laneko definizioaren arabera, “kaparetasuna gizonei leinuz dagokien noblezia da [...], horregatik esaten diegu aitoren seme, zeina baita esatea ongiaren semeak...”. Leinu-dokumentuak (seme-alaba, biloba, birbiloba, ondorengo izatea) odol-garbitasuna frogatzen zuen, antzina-antzinatiko kaparetasuna. Errolda eta zentsuak dagokienez, Gaztelako lehena 1591koa da, eta kapareak eta plebeioak bereizten zituen; azkena Floridablancako kondeak 1787an agindutakoa da (orduan, Espainiak 10.409.879 biztanle zituen, eta horietatik 480.589 kapareak ziren). Kapare gehienak Asturiasen, Kantabrian, Leonen, Burgosen, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako iparraldeko bailaretan bizi ziren; azken horietan, kapareen ehuneko biztanleen % 60tik gorakoa zen. Interesgarria da aipatzea 1797an Bilbon 48 maiorazko zenbatu zituela Godoyren zentsuak. Maiorazkoa zuzenbide zibilarren instituzio bat izan

zen: banaketa-sistema bat, non seme nagusiak (infantzoia, beti ez zena zaharrena izan) ondasun ia guztiak jasotzen zituen herentzian; ondasun horiek ezin ziren ez zatitu ez saldu, beraz, oinordea oinetxe bati eta haren lurrei lotuta geratzen zen<sup>4</sup>. Ondasun lotetsiak ezin ziren ez besterendu, ez herentzian banatu. Maiorazkotik kanpo geratutakoak (Bizkaian) kapare ziren. Era horretara, beti ondare berdina jasotzen zuen oinordekoak, edo handiagoa.

Euskal Herrian, maiorazkoak noblezia landatarra sortu zuen, eta ahaide nagusi esan zieten, infantzoi; hau da, leinu antzinakoena zen, “zintzoen semeena” (*fili bene natorum*). Jaiotza-agirian gurasoak eta aitaldeko aitona-amonak aipatuta eta horiek Portugaleten (edo beste edonon) jaiotuta eta bizi zirela adierazita, frogatuta geratzen zen Foruaren arabeko kaparetasuna justifikatuta zutela. Noblezia hori errentak jasotzetik bizi zen, eta misiotzat zuen ondasun lotetsi gisa jasotako kapitala mantentzea edo handitzea. Bizkaian, maiorazko-sistemak bi ondorio izan zituen: nekazari gisa geratu nahi izan ez zuten “bigarrenek” (hau da, gainerako seme-alaba guztiak) alde egin behar izan zuten lana bilatzera beren jaioketik kanpo, hau da, Armadan, burokrazia zibilean, Indietan edo Elizan; baliabide asko samarreko familien kasuan, diru-kopuru bat ematen zieten bigarrenei, unibertsitateko ikasketak egiteko (Gorteko lanetarako) edo Elizan gora egiteko<sup>5</sup>. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak Bergarako Errege Mintegi Abertzalea sortu zuen, noblezia landatarrarentzako hezkuntza-zentroa, hezkuntza-programa frantsestu eta irekiagoa eskaintzeko erakunde zibila. Horren guztiaren adibideak daude aipatu ditudan Bilboko pertsonaia itzaltsuen historian. Bestalde, Espainiako beste leku batzuetan ez bezala, maiorazkoaren ondorioz, Euskal Herrian ez zen sortu minifundio eta latifundio aristokratikorik.

Jaurerrien abolizioa, edo jaunen erregimenarena, 1812ko Cádizko Konstituzioarekin hasi zen, 1836ko abuztura arte indarrean jarri ez zena. Maiorazkoaren instituzioa 1820ko irailaren 11ko Errege Dekretuak ezabatu zuen —hilabete geroago Lege Lokabetzaile bihurtu zenak—. Ikuspegi liberal berriaren emaitza izan zen Mendizábalen Dekretua (1836ko otsailaren 19a) edo Elizaren jabetzen desamortizazioa, eta ondoren Madoz Legea (1855eko maiatzaren 1a), desamortizazio orokorrea (udalen ondasun komunalak). 1876an Foruak desagertuta, amaitu egin zen maiorazko-erregimena, eta handik aurrera, zuzenbide zibil orokorra hartu zen kontuan familiaren ondarea herentzian banatzeko.

Hona hemen maiorazko-sistema horren funtzionamenduaren bi adibide XIX. mendeko Bilbon:

— Lehenengoa: gazte buruargi batek, ondoren ingeniari eta asmatzaile ospetsua izango zenak, maiorazkoa jaso zuen, eta horrek aukera eman zion Parisen eta Madrilan ikasteko; maiorazkoa izanda ere, liberala zen. Leonardo Torres Quevedo (1852–1936) Bilboko trenbideetan lan egiten zuen bide-ingeniari baten semea zen. Aita bidaian zihorean, bizilagun batzuen etxean uzten zuen semea, Barrenechea ahizpen etxean, Pilota kalean, semeak Bizkaiko Institutuan ikasten jarraitzea nahi baitzuen. 1868an, hil aurretik, Pilar de Barrenecheak Leonardo izendatu zuen oinordeko bakar eta unibertsal, eta bere leinuko edo loturazko jabetzak utzi zizkion: hainbat jauregi (Artunduaga, Abusu, Sondika), dorretxeak (Ariz, Artunduaga, Zangroiz, Susunaga, Murga), baserriak eta haiei zegozkien lurak (50 inguru), gabiak (burdinolak), lursailak eta onibarrak Bizkaia osoan barrena: Begoña, Abando, Barakaldo, Basauri, Galdakao, Lezama, Arrigorriaga, Muxika, Gorozika, Ibarri, Etxebarri, Loiu, Zornotza, Zaratamo, Orozko, Gueñes, Sondika, Erandio, Somorrostro, Zalla, Sopela eta Galdames. 1873an, Leonardo liberalak, maiorazko baten oinordekoak, Madrilgo Bide Ingeniarien Elkargoko Eskola Ofizialeko ikasketak utzi zituen, eta Bilbora itzuli zen, Luis anaiarekin batera izena emateko Laguntzaile Boluntarioen batailoian, Bilbo defendatzeko.

— Bigarrena: noblezia landatarreko bigarren batek, Domingo de Gortázarrek (1670–1743), amari dirua eskatu zion Indietara joateko; aberastuta itzultzean, familia-maiorazkoa bereganatu zuen (anaia nagusia, Alexo, 1741ean hil zen), eta Bilbon finkatu zen. Posta kaleko 8. zenbakian jauregi bat eraiki ziezaioten agindu zuen, eta XVIII. mendean altxatu zuten. Etxebizitza nagusia goiko solairuetan kokatuta zegoen, Gortázar-Arandia sendiaren armariarekin, eta beheko

solairuan merkataritzarako lonjak jarri zizkion, Bordelen eta Parisen ikusitakoari jarraituz. Era berean, Posta, Goienkale eta Dendarikale kaleetan eta Plaza Barrian kokatuta zeuden zortzi etxe erosi zituen<sup>6</sup>.

Domingo de Gortázar 1733an hasi zen eraikitzen Posta kaleko jauregia, eta 1737an amaitu zuen. Azken barrokoko eraikina da, ukitu neoklasikoa duena; harlanduzko lau solairu ditu, eta 1.586 metro koadroko azalera; Gortázar-Arandia familiaren armaria du aurrealdean, eta lorategia, atzealdean. Etxea bere garaiko testuinguruan kokatzeko, kontuan izan behar da Bilbok 7.000 biztanle inguru zeuzkala, eta 1746an 707 etxe bakarrik zeudela Bilbon, Teófilo Guiardek dioenez. Etxea, armari eta guzti, Los gigantes ante la casa de Gortázar izeneko Losadaren pastel batean ageri da<sup>7</sup>.

Hortaz, Gortázartarrak noblezia landatarreko familia bat ziren, Bilbon bizi zirenak, jasotzen zituzten errenten kontura; alde batetik, baserriek eta burdinolek ematen zizkieten errentak, eta bestetik, hiribilduan zeuzkaten jabegoek. Lotura hertsia izan zuten musikaren hedapenarekin, eta Anselmo Guinearen mezenasak izan ziren. Gortázar familiak pinturari eta liburuari begira adierazitako zaletasuna Domingoren semearekin hasi zen, zeinak, Posta kaleko etxea jaraunsteaz gain, Bediakoa eraikiarazi baitzuen (Bediacolea) aitaren jabetzako lurretan<sup>8</sup>.

Badago Gortázartarrekin ahaidetutako ahaide nagusien beste leinu bat: Mazarredotarrena. José Domingo de Mazarredo Gortázar almirantea (Bilbo, 1745–Madril, 1812) XVI. mendeko Mazarredo Jauregian jaio zen; Bidebarrieta kaleko 14. zenbakiko jauregi horretan familiaren armaria dago. Bigarren zenez, hamahiru urterekin Itsas Guardian Errege Konpainian sartu zen, eta Errege Armadako teniente jeneral izatera iritsi zen 1789an. 1774an, bere iloba María Antonia de Moyúa Mazarredo Ozaeta Gortázar (1757–1836) musikari eta konpositorearekin ezkondu zen. Iloba-biloba zuen José Félix Allendesalazar Mazarredoren aita besoetako izan zen, baita Itsas ministro ere. Goyak gaur egun galduta dauden hiru margolanetan erretratatu zuen Mazarredo<sup>9</sup>, eta Jean-François Marie Bellier margolariak ere egin zion erretratu bat, 1800. urtean; azken hori Madrilgo Ontzi Museoan dago. Ikusten dugunez, hortaz, Zazpikaleen Bilbo hartan ahaidetzen joan ziren merkatariek eta ahaide nagusiak, batzuk maiorazkodunak, eta beste batzuk Gorteko kargudunak. Maiorazkoen aktibo ekonomiko nagusia lurrari lotutako ondarea zen, eta ondoren baita hiriko higieziei lotutakoa ere. Nahasten joan ziren heinean, trukea egin zuten: esan daiteke Bizkaiko noblezia landatarra lurrik zeuzkalako zela “aberatsa” eta burgesia komertzialak “aberatsa” zelako zeuzkala lurrik.

1876an Foruak desagertu eta maiorazkoa ezabatuta, herentzia hainbat oinordekoren artean banatzen hasi ziren, eta, ondorioz, desagertuz joan ziren lurrek emandako errentei esker aberatsak ziren hiritarrek. Baina, Guillermo Gortázar historialariak aipatu moduan, leinuaren kontzeptua balioesten jarraitu zuten: “Leinua alderdi biologikotik harago doan kontzeptua da, barne hartzen baitu ondare komun bat, nagusiki espirituala baina euskarri materialak ere badituena, bide genealogikoetatik transmititu eta komunikatzen dena. Nahiz eta gaur egun ia ez den existitzen leinuaren ideia, horrela ulertuta, leinuetako kideek ez dutelako hura mantentzeko nahirik, iragan mendeetan oso-oso bizirik egon zen”<sup>10</sup>. Jaime Vicens Vives historialariak ere aipatu du honako hau: “Espainian, noblezia zentsu ofizialetako kategoria gisa desagertu zen, baina ez zuen galdu herrialdeko egitura sozialean zeukan nagusitasuna; hortaz, errealitate bizitzat hartu behar da, ez haien nekazaritza-aberastasunen multzoagatik bakarrik, baizik eta oso erakargarria izan zelako gainerako gizarte-klaseentzat, zeintzuei inposatu baitzizkieten mito eta sinesmenetako asko”<sup>11</sup>.

Beste gizarte-maila batzuekin (ingeniariak, atzerritarrak, aberats berriak...) nahasita bazen ere, aurrerantzean ere noblezia landatarrak (gure jauntxoek) markatu zituen gizarte onaren soziazitate-ohiturak, Manuel Losadak bere margolanetan irudikatzen zuen Bilbo ilustratuaren portaera-arauak: txistularien protokoloa, mikeleteak edo Foru Guardia kapela luzea jantzita, udaletxearen balkoi azpiko festak, etab. Julio Caro Baroja antropologoaren hitzetan, gentry hark, “gizarte-klase hark ez zuen Gaztelako eta Andaluziako aristokraziaren antzik, zeina baitzen estatu handien jabe, ezta kapare txiroen antzik ere, eta ez zen hertsiki burgesa; Ingalaterran the gentry zeritzotenarekin konpara

zitekeen<sup>12</sup>. Gentry hura lur-jabeak ziren, burdinolak eta errotak zeuzkatena, familien ondasunik preziatuenak, eta Bilbon finkatzea erabaki zutenak, baita beren kapitalak inbertitzea ere, unean uneko aurrerapen guztiak erabiliz beti, eta garaian garaikora moldatuz. Hainbat adibide eman ditut José María de Ucelay margolariari buruzko liburuan. Haren Busturiko etxea, Chirapozutarren oinetxea, hiru familiaren (hiru leinuren) elkargunea izan zen, baita Busturiko zeramikari esker ezaguna egin zen kalitate handiko artisautzaren zuzendaritza-zentroa ere<sup>13</sup>. Beste gentry adibide bat dira Gernikako Allende-Salazartarrak, dorretxea zutenak Bermeon eta “Jaspe etxea” izeneko etxe-jauregia Bilbon, Posta kalean<sup>14</sup>; haien ondorengoetako batek, Juan Allendesalazar historialariak (1882–1938), Prado Museoari utzi zizkion familiaren funts guztiak.

Atal honetan kontuan hartu behar ditugu, halaber, Estatuko mekanismoetan sartu ziren bilbotar eta bizkaitarrak, Administrazioan, indar armatuetan (bereziki Itsas Armadan<sup>15</sup>) edo diplomazian aritu zirenak, gehienek maiorazkoetan baitzuten jatorria; horietako asko noble egin egin zituzten, tituluak emanda<sup>16</sup>. Madrilen nolabait gora egin zutenak dira (ministroak, funtzionarioak, almiranteak, etab.): Gardoquitarrak, Mazarredotarrak, Alcalá-Galianotarrak, Churrucatarrak, Zabálburutarrak, Horcasitastarrak, Solano-Adán de Yarzatarrak, Eguíatarrak, Allende-Salazartarrak, etab. Lehen, Goyaren margolan bikain bat aipatu dut, Rita Barrenechea bilbotarraren erretratua. Adibide gisa balio du orain eta hemen: Estatuko goi-funtzionario baten biloba zen, izan ere, aitonak Portuko markes-titulua jaso zuen (oraindik horrela du izena, haren omenez, Bilbo erdiguneko kale batek), eta, aitari bezalaxe, haren seme-alaba guztiei eman zizkieten tituluak Madrilen<sup>17</sup>.

Hiribilduan bizi ziren jauntxoak eta bertako merkatarien arteko harremanak ez ziren izan oso adeitsuak, lehenengoen, etxeen jabe, oso alokairu garestiak jartzen zituztelako<sup>18</sup>. XVIII. mendean zehar gatazka ugari izan ziren, matxinadak<sup>19</sup>, eta Zamakoladarekin (1804) iritsi ziren gorenera, Abandoko eremuan portu berri bat eraikitzeko saioarekin<sup>20</sup>. Ahaide nagusien eta merkatarien arteko liskarrak alde batera geratu ziren Lehen Karlistaldiaren ondoren, ikusi baitzuten norabide berean arraun egitea guztientzat zela onuragarria, maila sozialak eta leinuak gorabehera.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1934an, oraindik, Bizkaiko landa- nahiz hiri-jabegoen zazpi jabe nagusietako bik lotura zuten ahaide nagusiekin: Lezama-Leguizamónnek eta Zabálburuk; gainerakoak ontzi-jabeak, bankariak eta industrialariak ziren. Jabego gehien zituen Ramón de la Sota Llano zen; bigarren postuan zeuden Gurtubay González de Castejón anaiak (Carmen Gurtubay Alzolaren eta Rosario Silva Gurtubay Albako dukesaren aitak); hirugarrena, Lezama Leguizamónen alarguna zen; laugarrena, Sofía Jaquet; bosgarrena, Dámaso Escauriaza Legórburu; seigarrena, Soledad Anduiza, Chávarriren alarguna, eta zazpigarrena, Pilar Mazarredo, Zabálbururen alarguna. [itzuli]
2. Joseba Agirreazkuenaga, “Génesis de la sociabilidad moderna en Bilbao (1800–1876)”, Bidebarrieta, Bilbo, 1997, 233–52., 234. or. [itzuli]
3. Bizkaiko probintzia 112 udalerrik osatzen zuten, eta horien hiriburuak hainbat kategoriatan sailkatzen ziren: zer baldintza historiko zeuzkaten, elizateak, hiribilduak edo hiriak izan zitezkeen. Busturia, adibidez, elizatea zen, merindade baten hiriburua, eta merindade horrek, aldi berean, sei hiribildu zeuzkan (Bermeo, Gernika, Gerrikaitz, Errigoiti, Lekeitio eta Ondarroa). [itzuli]
4. Hitzaren etimologia *mayoradgo* da, eta “adgo” latindar atzizkiak duintasuna, kargua, titulua, egoera, maila adierazten du. RAEren arabera: maiorazkoa da, halaber, maiorazkoaren jabea, eta oinordekoa, baita maiorazkoari lotuta dauden ondasunen multzoa ere. Maiorazkoa oinordetza-zuzenbideko forma historiko bat zen, helburutzat zuena ondasunak oso-

osorik eta betirako kontserbatzea, oinordetza-arau erregular baten arabera, non fundatzailearen nahia nagusitzen zen doktrina orokor ororen ginetik. [itzuli]

5. Adibide bat: José Ramón de Urrutia y de las Casas jenerala (Zalla, 1739–Madril, 1803), Goyak erretratatu, Avellaneda Dorretxeko Urrutia familiako bigarrena zen. Dorretxea anaia nagusiak jaso zuen herentzian, Antoniok, Avellanedako XI. Urrutia jaunak. José Ramóni Bartzelonako Matematikako Errege Akademia Militarreko ikasketak ordaindu zizkieten; hirugarren anaia, Joaquín, Palentziako katedraleko artxidakonoa izan zen 1794tik 1808ra; laugarrena, Ramón, Oruroko korrejidorea izan zen Bolivian, eta Tarmako jenerala eta gobernadorea Perún (1795–1809); bosgarrena, Nicolás, infanteriako koronela izan zen, eta azkena, Juan Manuel, Kantabriako infanteria-erregimentuko kapitaina. [itzuli]
6. Bilboko alkate, Diputazioko presidente eta Erresumako senatari izandako Manuel María de Gortázarri (Bilbo, 1824–Bedia, 1896) buruzko kontakizun atsegin eta zehatz batean, Guillermo Gortázar historialariak Manuelen herenaitonaren ondarearen berri ematen du: “1706an, Domingo Gortázar Perura joan zen. Espainian lehertua zen Ondorengotza Gerra, eta Filipe V.ak Guaylas edo Huaylaseko korrejidore izendatu zuen 1705ean, Villarrubia de Langreko markes Simón del Campo ordeztuko. Domingo Gortázarrek Perura eraman zuen legez zegokion herentziaren zati bat, amak aurreratu ziona. Domingok baimena zuen bi mirabe eta gehienez lau ezpata eta horien dagak, lau arkabuz eta lau alabarda eramateko. 1714tik 1717ra, gutxienez, Limako Inkisizioko kidea izan zen. 15 urte Indietan igaro ostean, 1721eko urtarrilaren 27an, 50 urte zituela, Domingo Martínek Limatik alde egin zuen, ‘Mexikoko bidetik’, berekin zeramatzala familia, bost esklabo beltz eta hiru zerbitzari.[...] Bidaia gorabeheratsu baten ostean Bilbora iritsita, Domingo Martínek landa- eta hiri-jabegoak erosi zituen, 1.901.112,75 errealetan baloratuak. Guztira 2.420.694 erreal inbertitu zituen ondasun higiezinetan. Jabetzan hartutako lurrek 809.332 estatuko hedadura zuten guztira, hau da, 39.870.935 oin karratu, edo bestela esanda, 309 hektarea; oso azalera handia zen, Bizkaiaren tamaina kontuan hartuta. Hiriko jabetzek sortzen zizkieten errentak ia % 2koak ziren, eta landakoez sortutakoak, berriz, % 1ekoak”. Guillermo Gortázar, “Manuel María de Gortázar y Munibe 1824–1896. Fueros y Concierto: el legado del último Notable vizcaíno”, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen adiskide oso gisa sartzeko lezioa, Madril, Gorteko Ordezkaritza, Los Lujanes Jauregia, 2019ko otsailaren 25a. [https://cdn.websiteeditor.net/ac62651843\\_5a4479baaf81c49579ab22/files/uploaded/Lecci%205C3%25B3n%20520PDF-A.pdf](https://cdn.websiteeditor.net/ac62651843_5a4479baaf81c49579ab22/files/uploaded/Lecci%205C3%25B3n%20520PDF-A.pdf) [itzuli]
7. Manuel Losada Pérez de Nenín margolariak arkatzezko marrazki bat ere egin zuen 1885ean. Losada, 1865ean jaioa eta 1949an hila, Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria eta San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako akademikoa izan zen. Manuel María de Gortázarrek beka bat eman zion 1890ean. Etxea monumentu historiko-artistikoa da 1972az geroztik. [itzuli]
8. Domingoren semearen bildumari buruz, ikusi Agustín Gomezen ikerlan bikaina: “El coleccionismo en el Bilbao de finales del siglo XVIII: el caso de la familia Gortazar”, Bidebarrieta, 2. zk., 1997, 114–24. or.: “Datu soziologiko gisa, XVIII. mendeko Bilboko merkataria handien eta nobleziaren kapitalak eta dirutzak konpara daitezke. Domingo Martín de Gortázarren seme-alaben ezkontza-sariak garai hartako Bilboko handienak izan ziren, baita merkataria dirudunenak baino handiagoak ere. Aurrerago kontatuko den moduan, Gortázarren dirutza hiribilduko handientzat jotzen zuten, mendearen erdialdera arte behintzat. Gortázar familiaren liburutegia 53.083 erreal kuartotan tasatu zuten 1790ean, eta Gómez de la Torre familiarena, aldiz, 4.453 erreal kuartotan, 1767an. Ildo horretan, esan daiteke mendearen lehen erdian sozietate garrantzitsuenek 500.000 erreal kuartotik 1.000.000 erreal kuartora bitarteko kapitala zutela. Mendearen amaieran, sozietateren batek bi milioi errealak gainditu zituen. Kontuan hartzen badugu 1743an Gortázar calatravarrak 2.000.000 erreal kuarto baino gehiago inbertitu zituela higiezinetan eta semeak aitaren ondarea hobetu zuela, bi estamentuek XIX. mendera arte idiosinkrasia desberdina izan zutela ondoriozta dezakegu; XIX. mendean, Antzinako Erregimena amaituta, baldintza ekonomikoak eta sozialak aldatu egin ziren herrialde osoan”, 67. or. [itzuli]
9. Honen arabera: Manuel Basas, Miscelanea histórica bilbaína, “El cofre del Bilbaíno” bilduma, Bilbo, 1974. [itzuli]
10. Guillermo de Gortázar Echeverría - Luis de Gortázar Rotaeché, “Gortazar-Villela-Manurga-Alzusta-Villaro-Bilbao 1.000 años de genealogía e historia vasca”, 2018, hemen: <https://web.archive.org/web/20190815074703/https://cdn.websiteeditor.net/ac626518435a4479baaf81c49579ab22/files/uploaded/1000%2520a%25C3%25B1os%25202018.pdf> [itzuli]
11. Jaime Vicens Vives, *Historia social y económica de España y América. Burguesía, industrialización y obrerismo*. Editorial Teide, 1971. [itzuli]
12. Julio Caro Baroja, *Vasconiana*, Txertoa, Donostia, 1974, 161. or. [itzuli]
13. Kosme de Barañano, *Análisis de la Pintura de José María de Ucelay*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo, 1981. [itzuli]

14. “Etxe bat non bizi den jende ilustratua, Azkoitiko zalduntxoan espirituan heziak lehen unetik. Dagoeneko ikusi dugu Josef de Apraiz Adiskideen Elkartekoa zela eta Bulucúak Oñatiko zentroan ikasi zuela”. Ucelayk 40 baserri eta horiei zegozkien lurrak jaso zituen herentzian Chirapozu familiarengandik, baita Bulucúatarrengandik ere. Bulucúa medikua zen, eta de Uriarte bezala, Armadako fragata-kapitaina. Allende-Salazartarrak Monte Fuerteko kondeak ziren. Noblezia-titulu hori Karlos IV.ak sortu zuen, 1798an, José María Allendesalazar Zubialdearentzat (1757–1805); azken hori Bizkaiko Jaurerriko diputatu nagusi izan zen 1786an eta Bilboko alkate 1788an. Allendesalazar familiarenak ziren Bilboko “Jaspe etxea”, Bermeoko Ertzila Dorretxea, Gernikako “Alegria” etxe margotua (Gerra Zibilean suntsitua) eta Alegria jauregia, gaur egun Euskal Herria Museoaren egoitza dena. 1733an eraikitako jauregi barroko bikain horretan, nabarmentzekoak dira harlanduzko fatxada, burdin hesiz inguratutako balkoi luzeak eta familiaren armarrria. Juan Allende-Salazar Zaragoza (1882–1938) arte-historialaria izan zen; haren aita, Ángel Allende-Salazar Muñoz de Salazar (1854–1885), Madrilgo Unibertsitateko Geografia eta Historiako katedraduna izan zen, eta diplomazialaria eta liburuzalea; eta osaba, Manuel Allende-Salazar Muñoz de Salazar (Gernika, 1856–Madril, 1923), ministroa izan zen hainbatetan, eta Gobernuko presidentea. Guztiak izan ziren Adolfo Guiard margolariaren lagun onak, eta hark denboraldiak igarotzen zituen familiak Muretuan zuen Ganpe etxean. [itzuli]
15. Itsas Armada bizkaitarrez josita zegoen XVIII. mendearen amaieran: Ucelayren aitona, Francisco Javier Uriarte Borja, Armadako kapitaina; José Domingo de Mazarredo, almirantea; José de Solano, Armadako kapitan jenerala; Cosme Churruca, mutrikuarra izatez, zientzialari, itsas gizon eta militar espainiarra, Errege Armadako brigadierra, Trafalgarren hila, Dionisio Alcalá-Galiano bezala, esploratzailea, kartografoa eta Errege Armadako brigadierra, berau, eta Alejandro Malaspínak 1789an Descubierta eta Atrevida korbetekin egin zuen espedizioko kidea. [itzuli]
16. Beste titulu batzuk ogasun-ministroi edo Itsas Armadako almirantei eman zizkieten: 1741ean, Iturbietako markesgoa eman zioten Manuel María de Arizcun Horcasitasi, 1812–13an Madrilgo alkate izandakoari. 1698an, Moriana del Río kondeza eman zioten Juan de Horcasitas Avellaneda artzentalastarrari, ogasun-ministro izandakoari. 1860an, Sierra Bulloneseko markesgoa eman zioten Juan de Zabalari (Lima, 1804–Madril, 1879), Itsas Armadako ministroa. 1846an, Isabel II.a erreginak Balmasedako kondeza eman zion José Santos de la Hera y de la Puenteri, Peruko Independentzia-gerran borrokan aritu eta ondoren Gerra eta Itsas Armadako Auzitegi Gorenko presidente izandakoari. 1790ean, San Cristóbalen kondeza eman zioten Julián San Cristóbal Eguiarretari, Gerra Kontseiluko ministro izandakoari. 1784an, Socorroko markesgoa eman zioten José de Solanori, Espainiako Errege Armadako kapitain jeneral izandakoari; ondoren Solano-Adán de Yarzarrek jaso zuten titulua. 1761ean, Zambranoko markesgoa eman zioten Pedro Gordillo Erresumako goi-funtzionarioari; ondoren, 1814an, Miguel de Ibarrola gerrako ministroak jaso zuen. [itzuli]
17. Joaquín Ignacio Barrenechea (Bilbo, 1681–Haga, 1753), erreginaren maiordomoa, Ogasun Kontseiluko kidea, enbaxadorea Suedian eta Probintzia Batuetan. Filipe V.ak Portuko markes-titulua eman zion 1741ean. 1707an, Juana Novia de Salcedo del Barcorekin ezkondu zen Santiagoko elizan. Hauek izan ziren haien seme-alabak: José Fernando, Isabel Farnese erreginaren Asteko Maiordomoa, Solanako markesa eta Portuko markesgoan oinordekoa; Pablo, Puente Fuerteko markesa, Erregearen atzerriko agentea enbaxadore gisa Danimarkan (1746), Suedian (1753) eta Holandan (1761); eta Teresa, Joaquín de la Garma Novia de Salcedo Pesadillako markesarekin ezkondu zena. [itzuli]
18. Personero del Común zeritzonak—Udaleko “arartekoak”—“Bilboko etxe-kopurua areagotu eta hiribilduaren itxura hobetu” behar zela aipatu zuen 1786an. Nicolás Loredo sindikoak sinatutako hiri-txostenak ahaide nagusiak eta haien alokairuak salatzen zituen: “Jabeek... etxebizitzaren gabezia baliatuta, gabezia horrek ahalbidetzen dizkien legeak ezartzen dizkiete etxetiar gehieni, errentak nabarmenki garestituta”. [itzuli]
19. Matxinada hitza San Martinetik dator, olagizonen patroia. Olagizonak burdinaren manufakturarekin lotutako nekazariak ziren. Hitzak herri-erreboltei egiten die erreferentzia: Gatzaren matxinada, 1631n; Aduanetako matxinada, 1718an; Haragiaren matxinada, 1755ean; Zerealen matxinada, 1766an, eta Zamakolada, 1804an. Ez ziren soilik nekazariak agintearen aurka gauzatutako erreboltak; batzuetan, nekazariak eta noblezia landatarrak merkataritzako burgesiaren aurka egiten zuten: 1718ko matxinadari dagokionez, Sagarmínagak handikien eta merkatarien arteko gatazkak nabarmentzen ditu: “Bilbon inbidia handia zegoen; maiorazkoek bekaizkeria bizia zuten merkatariekiko; merkatariek maiorazkoak baino hobeto bizi zirela eta onura gehiago zituztela, eta hori jasanezina zela”. Fernández Pinedo, *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100–1850)*, Siglo XXI, Madril, 1974, 400. or. [itzuli]
20. Zamakoladak ez zuen ezertarako balio izan, guztiak (bilbotar zein bizkaitar) Espainiako Koroari gehiago ordaindu behar izateko baino ez; horren ondorioz, pixka bat geroago jendeak ez zuen errejidore frantsesaren aurka egin, eta Lehen Karlistaldian jada konturatu ziren liskar oro oso kaltegarria zela merkataritzarako, eta horixe zela, hain zuzen, benetako aberastasun likidoa sortzen zuena, hau da, eskudirua sortzen zuena. Une horretan jaio zen errentetatik bizi nahi ez zuen

gizartea, ekin eta kapital aldakorrez (salgaiak, truke-letrak, betebehar-eskriturak...) osatutako aberastasuna lortu nahi zuen gizartea. [itzuli]

## INDIANOAK

Espainiako Errege Akademiaren hiztegiaren arabera, “indiano” hitzak bi adiera ditu:

1. (adjektibo gisa) Espainiaren Ameriketako koloniek osatutako lurraldeetatik etorritakoa edo lurralde horiekin lotura duena.
2. (izen gisa) Ameriketara aberastasun bila emigratu eta Espainiara aberastuta itzuli zen pertsona.

Bilboko herritarrei buruz ari garela “Ameriketatik aberastuta itzultitako” pertsonen erreferentzia egiteko erabiltzen dugunean indiano hitza, Ameriketara dirua egitera joan zirelako aberastuta itzuli zirenez ari gara, baita Ameriketako lurraldeekin lotutako negozioei esker dirua irabazi zutenez ere.

Gauza jakina da euskaldun askok emigratu zutela kontinente berrira, “Amerikak egitera”, lagunartean esaten den bezala, eta asko han geratu zirela. Beste batzuek, ordea, behin aberastuta Penintsulara itzultzea erabaki zuten; eta beste batzuk ez ziren hara joan, baina aberastu egin ziren Amerikaren eta kontinente zaharraren —bereziki Espainiaren— arteko merkataritzari eta nabigazioari lotutako negozioei esker. Esate baterako, Máximo Aguirreren irin- eta zereal-fabrikako produktuen helmuga nagusietako bat Kuba zen.

XVIII. mendearen amaieran, itsasoaz bestaldeko lurraldeekiko itsas salerosketa eta merkataritza euskal kontsignatario eta armadoreek bideratzen zuten Sevillako eta Cádizko portuetan, baita Jerez de la Fronterakoan ere. Horietako batzuek Madrilan finkatu zuten bizitokia, hobeto kontrolatzeko negozioak eta Estatuko administrazioarekiko harremanak.

XIX. mendearen hasieran, bestalde, independentzia-gerrak hasi ziren herrialde haietan. Badakigu Diego María de Gardoquik laguntza eskaini zela AEBko aberriaren lehen aitei eta George Washington AEBko lehen presidente izendatzeko ekitaldian izan zela, 1789ko apirilaren 30ean. Badakigu, halaber, Simón Bolívarrek (1783–1830) bi egonaldi egin zituela Bilbon, bata laburra (1799ko maiatzaren 8aren inguruan) eta bestea luzea (1801eko martxoaren 20tik 1802ko apirilaren 29ra)<sup>1</sup>.

XIX. mendeko lehen hamarkadetan, bata bestearen ondotik etorri ziren altxamenduak hainbat lurraldetan: 1808tik 1821era bitarte Mexikon; 1814an, Perun, Cuscoko Errebolta; edo 1810etik 1820ra bitarte, Río de la Platako Probintzia Batuetan (egungo Argentinako Errepublika). Altxamendu horietako batzuetan bizkaitarrek parte hartu zuten, hala nola Mexikokoan, non aritu ziren “independentziaren aldeko matxinatu” izenekoak, Ignacio Allende (Gordexolako merkatarri baten semea) eta Juan de Aldama (aita Okondokoa zuena), besteak beste, fusilatu eta burugabetu egin zituztenak, edo José Mariano Abásolo (Okondoko beste merkatarri baten semea), Cádizen espetxeratu zutena<sup>2</sup>.

Matxinatu guztiek ez zuten patu bera izan; aitzitik, herrialde batzuetan, aberastu ere egin ziren. Horixe gertatu zitzaion Manuel Antonio Luzárraga Echezuria mundakarrari: 1814an utzi zuen jaioterra, eta Guayaquilen finkatu zen, merkatarri eta kontsignatario gisa; portuko kapitain izendatu zuten 1820an. Haren langelan biltzen ziren beste euskaldun batzuekin

batera (Llona, Letamendi, Olmedo, Febres-Cordero, Villamil, Urdaneta eta beste batzuk), independentistekin bat egin zuen, eta gizon itzaltsua izan zen Ekuadorreko independentzian, baita nazio horretako lehenengo bankaria ere. 1849an, Banco de Descuento edo Casa de Luzárraga sortu zuen, Ekuadorreko finantza-erakunde zaharrena<sup>3</sup>.

Edonola ere, herrialde horietako independentzia-gerrak hasi zirenean, bizkaitar ekintzaile haietako asko Europara itzuli ziren. 1836an, Espainiak amerikar kontinenteko jabetza guztiei uko egin zien. Batzuk Frantzian edo Ingalaterran geratu ziren, eta beste batzuek Euskal Herrira itzuli, eta Bilbon hartu zuten etxea. Pixka bat geroago, 1846–47an, Madrilera aberriratu ziren ondasun-mailarengatik edo harreman politikoengatik nolabaiteko elite ekonomikoa osatzen zuten indianoak; batzuk Madrilen finkatu zuten bizitokia, eta errentetatik bizi izan ziren. Bilbora etorritako ia guztiak garai hartako abentura komertzial edo industrialetako batean sartu ziren.

Une hartan lau indiano-mota zeuden Bilbon:

– Aurreko mendeetan Ameriketara joan zirenak, hala nola militarrek edo funtzionarioak, eta nobletuta eta aberastuta itzuli zirenak.

– Cádizetik, Jerezetik edo Madriletik Indietarako negozioekin dirua egin zutenak, horietako batzuk ere noble bihurtuak.

– Iraultzen ondorioz itzulita Londresen, Bordelen edo Parisen finkatu zirenak, baina hiribildura etortzen eta bertan inbertitzen jarraitzen zutenak.

– Ameriketara XIX. mendea hasita joan, denbora gutxian aberastu eta bueltan etorri zirenak.

Horiek guztiek, Zazpikaleen Bilbo hartan kokatu zirenek, diru-likidezia handiaz gain, merkataritza-egitura antolatu bat ere ekarri zuten, amaieran aztertuko dudana. XIX. mendean oso indartsua zen indianoen presentzia Bilbon, eta horren erakusle da 1873an, Bigarren Karlistaldian, hiribilduko gobernadore militarra Ignacio María del Castillo brigadierra zela, Mexikoko kriollo bat<sup>4</sup>.

Lehenengo taldeari dagokionez, Bizkaian jaio eta Estatuarekin lotura izan edo Indietan gora egin zuten pertsonen emandako noblezia-titulurak berrikustea da onena. Horrelako kasuak dira, adibidez, Filipe IV.ak 1624an Luis Gaytán de Ayalari (Sevillako Indietako Kontratazio Etxeko presidentea) emandako Villafrancako kondetza, ondoren Cándido Gaytán de Ayalak jaso zuena, zeina ezkondu baitzegoen Tomasa de Jusué bilbotarrarekin, Bizkaiko diputatu nagusiaren alabarekin, eta Mirasoleko kondetza, 1770ean emana Luis Segundo Arísteguiri (1733–1812), zeinaren seme Rafael, ibilbide militar eta politiko nabarmeneko gizona, Bilboren defendatzaileetako bat izan baitzen 1835eko setioan<sup>5</sup>.

Beste batzuek ez zuten noble-titulurik jaso, baina aberastuta itzuli ziren, eta beren baserri zaharrak txukuntzeko eta Bilbon etxebizitza erosteko erabili zuten dirua; horietakoak izan ziren Manuel de Chirapozu eta José de Apraiz busturiarrak, edo Lambarritarrak, Palacio Lanzagortarrak eta Uncetatar batzuk. Badira izen esanguratsuagoak, hala nola Juan Urdanegui urduñarraren leinua, Perun ongi posizionatua; Juan de Urrutia Allende gordexolarra, Espainia Berriko Inkisizioaren Ofizio Santuko Auzitegi Goreneko aguazil nagusia izan zena, Mexikoko indianoa, zeinak Villar de Águilako markesgoa jaso zuen 1689an; edo Luciano Murrieta, Peruk independentzia lortu ostean Londresera joan zena, 1824an, eta finantza-merkatuan hasi zena (haren aita, Francisco, Sopuertako Mercadillo auzokoa, Perun ezkondu eta aberastu zen). Europara itzultzean, bere aberastasuna Londresen utzi bazuen ere, Lucianok militar gisa parte hartu



zuen Lehen Karlistaldian, 1839an, eta Esparteroren laguntzaile hurbila izan zen. Gero, familia-negozioak hedatu zituen, eta Marqués de Murrieta upategi ezaguna sortu zuen; 1872an eman zioten titulua<sup>6</sup>.

Bigarren taldea Indietarako merkataritzari esker aberastu baina Sevillan, Jerezan, Cádizen edo Madrilen kontsignatario gisa (baita beltz-tratulari gisa ere) eta merkatarri gisa finkatuta zeudenek osatzen dute. Pilotos de Altura (1929) lanean, Pío Baroja nobelagileak oso datu errealak eskaini zituen XVIII. eta XIX. mendeetako beltzen salerosketaren gaiari buruz<sup>7</sup>. Madrilen finkatu zirenetatik gutxienez lauk noblezia-titulua jaso zuten<sup>8</sup>.

Madrilen, hain zuzen ere, euskaldun asko zegoen karlistaldien aurretik. Horietako asko Estatuko idazkariak, Estatu Kontseiluko kideak, diplomazialariak edo Armadako kideak ziren. Askok noblezia-tituluak jaso zituzten, nahiz eta baziren izen handiko hainbat pertsonaia ez zutenak inongo titulurik jaso, hala nola Diego María de Gardoqui (Bilbo, 1745–Turin, 1799) edo haren garaikide José de Mazarredo almirantea (1745–1812)<sup>9</sup>. Era berean, merkatarri asko oso aktiboak ziren beren lanbidean, eta ongi aztertu dituzte maila handiko hainbat historialarik, hala nola Estíbaliz Ruiz de Azúak<sup>10</sup>, edo Alfonso Otazuk, zeinak zehazten duen honako hau: “Jarduera komertzial, finantzario eta industrialetan aritzea joera tradizionala izan zen Madrilen bizi ziren euskaldunen artean: 1850ean, Hiribilduan eta Gortean finkatuta zeuden merkatarrien % 15 euskal probintzietan jaioak ziren, eta horietako asko 1840tik 1850erako hamarkadan hiriburuan eratu ziren merkataritza-sozietate nagusietako kide izan ziren”<sup>11</sup>.

Beste euskaldun batzuk (bizkaitarrak, baina baita gipuzkoarrak eta nafarrak ere) itsas hirietan finkatu ziren, Sevillan, Cádizen eta Jerez de la Fronteran, besteak beste, eta maiz joaten ziren Gortera, eta Bilbora, noski<sup>12</sup>. Azter ditzagun, labur-labur, 1839. urtea baino lehen noble bihurtutakoak, Estatuko idazkariak eta merkatarriak, nagusiki<sup>13</sup>:

– Juan de Urdanegui (Urduña, 1619–Lima, 1682) Villafuerteko markesa 1682an<sup>14</sup>.

– Miguel Arizcun Mendieta (Elizondo, 1685–Madril, 1741), Iturbietako markesa 1741ean<sup>15</sup>.— Sebastián de la Cuadra (Muskiz, 1687–Madril, 1766), Villariaseko markesa 1745ean; 1738an, Arte Ederren Errege Akademia (1744) eratzekeo izapideei ekin zien<sup>16</sup>.

– Juan Bautista de Ustáriz (Narbarte, 1728–Jerez de la Frontera, 1810), Reparazeko markesa 1762an, eta bere lehengusua,

– Juan Agustín de Ustáriz (Narbarte, 1720–Cádiz, 1781), Echandiako markesa 1763an<sup>17</sup>.

– Francisco de la Guardia (Lantziego, 1710–Cádiz, 1792), Castillejoseko markesa 1769an.

– José Agustín Llano (Muskiz, 1722–Viena, 1794), Llanoko markesa 1772an.

– Juan Antonio Madariaga (Busturiko Axpe, 1720–Cádiz, 1797) Casa Altako markesa 1775ean.

– Francisco de Llano (Galdames, 1732–Cádiz, 1781), Torre Alegreko kondea 1779an.

– Sebastián de Llano (Muskiz, 1736–Haga, 1793), Santaféko kondea 1780an.

– Matías Landaburu (Durango, 1702–Cádiz, 1792), Biotako bizkondea 1783an<sup>18</sup>.

- Martín José de Murua (Bergara, 1744–Madril, 1799), Valleko kondea 1789an<sup>19</sup>.
- José María Allendesalazar (Bilbo, 1757–Madril, 1805), Montefuerteko kondea 1798an.
- Miguel Arizcun Tilly (Madril, 1800–Madril, 1878), Tillyko kondea 1815az geroztik eta Iturbietako markesa 1855az geroztik<sup>20</sup>.

Aipagarria da euskaldun horietako askok talde indartsua sortu zutela Juan Álvarez Mendizábal (1790–1853) ogasun-ministroaren inguruan (hura ez zen euskalduna; Méndez zuen bigarren abizena, baina berak jarri zion Mendizabal bere buruari). Mendizabalen Desamortizazioa 1836ko otsailaren 19ko eta martxoaren 8ko dekretu-multzo bat izan zen, eta helburutzat zuen jabetza ez-emankorrak eta Elizaren nahiz ordena erlijiosoen mendekoak klase ertainaren edo burgesiaren esku uztea, haiek benetan erabiliko zituen eta herrialdea aberastuko zuen klase baten esku.

Honako hauek osatzen zuten talde hura: Juan Muguiro Iribarren (Parisko bankaria, Nafarroan jaioa baina ama lekeitiarra zuena; Goyak Bordelen erretratatu zuen); Juan Fagoaga Dutari, nafarra; bi karrantzar: Juan de Guardamino de la Tejera eta Martín de los Heros (azken hori Liburutegi Nazionaleko zuzendaria izatera iritsi zen); Domingo Norzagaray Nerbioi Garaiko arabarra (bi alaba zeuzkan bilbotarrekin ezkonduak); edo Mateo eta Antonio Murga anaiak [lehenengoaren semeetako bat José de Murga Reolid (1833–1902) izan zen, Linaresko markesa eta Llantenoiko bizkondea 1873an]<sup>21</sup>. Guztiek zuten antzeko lurralde-jatorria, ekintzaile-sena (burges errentadunaren irudi klasikoari kontrajarria) eta Mendizabalen liberalismo progresistarekiko konpromiso politikoa. Geroago Madrilera iritsitako beste euskaldun batzuek ere lotura horiek baliatu, eta desamortizatutako jabego asko erosi zituzten. Esate baterako, herritar xumeen bi semek, oraindik haur zirela beste senide batzuen dendetan lan egitera bidali zituztenek:

- Francisco de las Rivas (1808–1882), Mudelako markesa, Iratzagorriako San Esteban (Gordexola) utzi eta Granadara abiatu zen 1823an, 15 urte zituela, izeba batzuen dendan lan egitera, Casa Zavala izenekoan; ondoren, 1834an, Madrilera joan, eta bertako euskaldunen komunitate sendoan sartu zen. 25 higiezin desamortizatu baino gehiago erosi zituen Bilbon, eta landa-jabego ugari Espainiako leku guztietan. 1872an, bigarren postuan zegoen lurralde-zergak ordaintzen zituzten Madrilgo probintziako berrogeita hamar zergadun nagusien zerrendan<sup>22</sup>.
- Estanislao de Urquijo Landaluce (1816–1889), Urquijoko markes izendatua 1871n, hamahiru urterekin atera zen Murgatik (Aiaraldea, Nerbioi Garaia), eta Madrilera joan zen, amaldeko osaba zuen Antonio Landalucerekin lan egitera, eta ondoren arreba baten senarraren oihal-dendan aritu zen, Martín Ericeren dendan, Toledo kalean. Osaba nahiz koinatua haren gaitasunaz jabetu ziren, eta Rothschild banketxearen ordezkari Daniel Weisweiler-en langile gisa aurkitu zioten lana. Urquijo finantza-gizon bikaina bihurtu zen, eta arlo guztietan inbertitu zuen (lurrak, trenbidea, industria). Madrilgo alkatetzat lortu zuen 1883an. Hil zenean, Espainiako gizon aberatsenetako bat zen, 50 milioi pezeta baino gehiagorekin<sup>23</sup>.

Bi pertsonaia horiek ex nihilo egin zuten gora ekonomikoki, eta, beren etorkizun-sen bereziari esker, oso garrantzitsuak izan ziren Bilboko enpresa askoren garapenean. Horiez gain, Ameriketatik aberastuta itzulitako batzuek ez zuten errentetatik bizi nahi izan, eta negozio berriak jarri zituzten martxan. Horren adibide da jada aipatutako Luciano Murrieta (Arequipa, Peru, 1822–Logroño, 1911), Murrietako markes izendatua 1872an, Errioxako ardo eta upategiei bidea ireki ziena. 1877an, Murrietak lgray jabego desamortizatua erosi zuen (168 hektarea)<sup>24</sup>.

Hirugarren taldekoak dira iraultzen ondorioz itzulita Londresen, Bordelen edo Parisen finkatu zirenak, baina Bilbora etorri eta bertan esku hartzen jarraitzen zutenak. Baita aurretik finkatutakoak ere, hala nola Joseph Tomás de Errecarte

bilbotarra, itsasontzi-kapitaina izatetik artile-salerosle izatera pasatu zena, Ameriketarako bidea ireki zuena –Cádizko Errege Audentzia eta Kontratazio Etxeko epailea izan zen (1796an bere kaparetasuna izapidetu zuenean)– eta, azkenik, bankari-lanetan aritu zena Londresen<sup>25</sup>.

Bizitokia Espainiatik kanpo finkatu zutenen artean, honako hauek daude: José Javier Uribarren, Ispasterrekoa, ontzi-eta lur-jabe baten semea; Bilbon ikasi zuen, baina gero Mexikora emigratu zuen, eta bertan ezkondu zen. 1852an itzulita, Parisen bizi izan zen, eta bertan sortu zuen J. J. Uribarren y Cía. banketxea, euskal enpresari gehienek askotan erabiltzen zutena, baita Espainiako Gobernuak ere. Pascual Abaroa Uribarren ilobak jarraitu zuen banku-enpresarekin, eta hark eskatu zizkion Paco Durriori Parisko bulegoetarako lau murko handi. Mezenasa eta kultura-eragilea izan zen: “Paristik iritsitako gutun baten arabera, negu honetan kolonia hispanoamerikarra bikain pasatzen ari da hiriburu bikain hartan: asteazkenero biltzen dira José Luis de Abaroa bankari ezagunaren etxean; hark antolatutako dantzaldiak ospetsuak izango dira Parisen”<sup>26</sup>. Edo José Ventura de Aguirre lekeitiarra, Perutik bueltan Londresen geratu zena eta handik Bilborekin salerosketan hasi zena berriro, ardoa eta artilea salerosten, batik bat. Lehenengo Bordelen eta gero Parisen ezarritako Aguirrebengoa, Fils & Uribarren etxearekin inbertitu zuen bere kapitala, eta zor publikoa erosteko eragiketak egin zituen, baita Europako enpresetan kapital-inbertsioak ere, Latinoamerikatik aberriaritutako aberastasun handien funtsei esker; 1833tik aurrera Espainiako zergadun nagusien zerrendan agertu zen.

Mexikon, Perun, Txilen edo Argentinan aberastutako indiano horiek, herrialde horietatik alde egin zutenean independentzia-mugimenduen ondorioz, Europako beste hiri batzuetara itzuli ziren, barne-gerrarik ez zegoen herrialdeetara, hala nola Espainiara, eta merkataritza-bankari bihurtuta, lau jardun-lerro garrantzitsu azpimarratu zituzten Bilbon zeuzkaten ordezkariak:

– Itsasoz bestaldeko merkataritzan parte hartzea, beren kontaktu eta esperientziak erabiliz, Amerika eta Espainiaren artean, eta baita Londresekin ere, artilea, ardoa eta amerikar produktuak (espeziak, tabakoa, etab.) salerosiz.

– Kapitala zor publikoan nahiz enpresa sortu berrietan inbertitzea (trenbideak, altzairu-ontziolak, etab.). Abaroa-Urivarrentarrak, adibidez, 1873an Espainiako Hipoteka Bankua eratu zenean, akziodun fundatzaile izan ziren, eta José María de Abaroak lau milioi franko baino gehiago inbertitu zituen Olotetik Gironarako trenbidean.

– Ameriketara ondareak kitatzea, eta ondoren Europara lekualdatzea beren zerbitzuak eskatu zituzten beste indiano batzuen kapitala. Hiru motatako indianoak ziren horiek: (1) Kuba eta Puerto Ricoko kolonietan sortuak, Frantziako hiriburuan jardun nahi zutenak; (2) Ameriketara aberastutako espainiar indianoak, beren ondasunak Europara bidali nahi zituztenak itzuli aurretik eta ondoren; (3) eta espainiar enpresari jakin batzuk, karlistaldiak tarteko.

– Espainiako banku nazionalaren ordezkariak ezartzea Britainia Handiko edo Frantziako hiriburuetan, baita Banco de Bilbaoren eta beste banketxe berri batzuen ordezkariak ere. Banco de Bilbao eratu eta egun gutxira erakundeak atzerrian izango zituen ordezkariak izendatu zituzten: Murrieta y Cía Londresen eta J. J. Uribarren & Cie Parisen. Urte batzuk geroago bankuak berak ireki zituen sukurtsalak, Parisen, adibidez, 1902an.

Laugarren taldean daude mendearen hasieran Amerikak egitera joan zirenak, hala nola Tomás de Epalza, Eguillor Sarachu familia, edo Aguirretarrak Bilbon eta Satrusteguitarrak Donostian. Azken horien aita, Donostiako miliziano liberala, Londretera erbesteratu zen; seme batek San Frantziskon lan egin zuen, eta besteak Kuban<sup>27</sup>. Edo joan eta, itzuli ez ziren arren, lehengusu eta senideei dirua bidaltzen zietenak. Horren adibide da Domingo Aldama gordexolarra: oso gazte emigratu zuen Kubara, eta uharteko talde esklabista garrantzitsuena sortu zuen, 40 azukre-findegiri eta milaka esklabo zituena. Martín de Aldama familiak Derion duen panteoia Valentín Dueñas eskultoreak egin zuen 1918an<sup>28</sup>.

Tomás Epalza Kubara gazte alde egindako merkatari bat izan zen, eta aberastuta itzuli zenean Bizkaiko lehenengo proiektu siderurgiko handietako batean parte hartu zuen: Santa Ana enpresan, 1841ean; trenbideen arloan eta bankuarenean ere esku hartu zuen; azken horretan, Isabel II.aren Bankuaren ordezkari eskuduna izan zen, eta Banco de Bilbaoren sustatzaile, 1857an<sup>29</sup>.

Sebastián eta Pedro Eguillor Sarachu anaiak Bilbon jaio ziren, baina Barakaldon zuten jatorria. Oso gazte joan ziren Habanara, eta bertan geratu ziren 1852ra arte. Pedro kubatar batekin ezkondu itzuli zen, eta dirutza handi samarrarekin. 1875eko Irurac-Bat argitalpenaren arabera, Sebastián Eguillor Sarachu, etxea Estufa kalean zuena, Bizkaiko berrogeita hamar zergadun nagusietako bat zen<sup>30</sup>.

Aguirre Zubiaga anaiak 1835ean joan ziren Mexikora, eta Tepic hirian finkatu ziren, Jaliscoko probintziako merkataritzaren hiria nagusian. Ontzi-zamen eta itsas garraioaren arloan lan egin zuten, eta ondoren artoaren, indabaren, kotoiaren... laborantzan, irunen eta ehun-gaien arloan, eta azukrearen, melazaren eta pattarren ekoizpenean La Escondida etxaldean. Itzuli zirenean, dirua utzi zuten nekazaritzako eta ongintzako fundazio banarentzat (Fundación Agrícola Aguirre eta Fundación Benéfica Aguirre), baita Deustuko Merkataritzaren Unibertsitatearentzat ere (1916)<sup>31</sup>.

Enrique eta Daniel de Aresti Torre (1852–1946) anaiak 1866an joan ziren Mexikora, eta bi ahizpa kriolloarekin ezkondu ziren bertan. 1885ean Bilbora itzultzean, La Roblako trenbidean inbertitu zuten dirua, eta Papelera del Cadagua paper-fabrika eratu zuten, Enrique izan zuena presidente, 1946an hil zen arte<sup>32</sup>.

Ameriketara berandu joandakoen taldean sar dezakegu Pacho Gaminde, Posta kaleko Au Monde Elégant denda gobernatzen zuena; altzarien eta moda nahiz musikako osagarrien saltokia zen hura, “Paris, Londres eta Vienako berritasunak” eskaintzen zituena. Gamindek zioen gaztetan bizirik atera zela “Mexikorako bi bidai ikaragarritatik — joanekoa eta etorrikoa—, izurriei eta iraultzei aurre eginda”<sup>33</sup>.

Talde horretakoak izan ziren, halaber, une hartako bi kazetari bikainenak: Manuel Aranaz Castellanos<sup>34</sup> eta Jesús de Sarria<sup>35</sup>, Kuban aberastutako euskaldunen semeak. Errentetatik bizi ziren, edo truke eta burtsako agente izatetik; beren buruaz beste egin zuten biek. ABC egunkariak Aranazen heriotzari buruz idatzitako testuak zioen ia milioi erdi pezetako kapitala utzi zuela. Maeztuk, bere ohar nekrologikoan, honako hau esan zuen lehenengoaz:

“Bizkaiko gure mendietako goibeltasunaren artean, Manolo Aranaz Castellanosen itxura kubatarra anana tropikal bat babarrun-eltzekari baten erdian nabarmentzen den antzera gailentzen zen”<sup>36</sup>.

Jesús de Sarria Bilbon izan den kultura-aldizkari onenaren zuzendaria eta editorea izan zen, Hermes aldizkariarena, zeina argitaratu baitzen 1922ra arte, bera hil arte. Aldizkarian kolaboratzen zuten hainbat ideologiatako intelektualek eta literatoek, Pedro Murlane Michelenak, Miguel de Unamunok, Juan de la Encinak, Margarita Nelkenek, Alejandro de la Sotak edo Ramiro de Maeztuk, besteak beste. Bilbon, harreman asko izan zituzten indianoekin, eta ez soilik ekonomikoak. Ciriaco de Menchaca arkitektoak, aita igeltsero zuenak<sup>37</sup>, Olózaga eta beste indiano batzuentzat eraiki zuen, eta José Niceto Urquizu diputatu nagusiaren alabarekin ezkondu zen. Urquizu karlista eta landa-jabea zen, eta diru asko irabazi zuen trenbideekin eta eraikitze lurrekin. Edesio Garamendi<sup>38</sup> Mexikoko emakume indiano aberats batekin ezkondu zegoen, eta haien seme Rafaelek, hori ere arkitektoa, indiano zaharrentzat lan egin zuen.

Beste indiano batzuek ere sustatu zituzten higiezinak Bilboko Zabalgunean, baina ez zuten inbertitu José Olózagak, Santos López de Letonak edo Paulino de la Sota Ortizek<sup>39</sup> bezainbeste, negozio xumeagoak izan zituztelako, kapitala Bilbora aberriratu bazuten ere<sup>40</sup>.

Baina zer ekarpen egin zioten XIX. mendeko Bilbori “munduko bizkaitar” haiek?

XIX. mendean zehar errenta onekin Bilbora itzuli ziren “indiano” haiek trenbideetan edo siderurgia berrietan inbertitzeko oso ongi etorriko zen dirua ekarri zuten, baina, horrez gainera, eta bereziki, nazioarteko merkataritzan eskarmentu handia. Indiano horien kontabilitate-ezagutza, baita Indiekin lan egin zuten kontsignatario, trafikatzailerak edo salerosleena ere —Sevillan, Cádizen edo Jerez de la Fronteran aberastutakoena—, nazioarteko know how iturri garrantzitsua zen hiribilduaren hedapen komertzialerako.

Euskal salerosle haiek, edo haien ondorengo errentadunek, itsas merkataritzaren konplexutasunak eta sotiltasunak irakatsi zituzten. Itsasontziek karga pisutsuak bazeramatzaten Ameriketara, hala nola burdin minerala edo burdin landua (metal horrekin fabrikatutako tresnak: burdin forjatuzko barrak, burdineria, iltze-pila, matxeteak, aitzur luzeak, etab.), lehenik eta behin bazegoen bolumena eranstea pisu gutxiko gauzekin (papera, argizaria, zetak, etab.); gainera, olioak, ardoa, pattarrak edo beste produktu nazional batzuk bidaltzean, aukera zegoen itzuleran azukrea, kakaoa, tabakoa, tindatzeko gaiak (eskarlata, anila eta Campecheko tindu-makila), kobrea, bikuina-artilea edo behi-larrua inportatzeko, Espainiarako ez ezik, baita Europan banatzeko ere; eta hirugarrenik, mota ezberdinetako salgaiak, jatorri nazionalakoak zein atzeritarrekoak izan (ehun-gaiak, kinkila, bakailoa, etab.), desberdin tasatu behar ziren aseguruak egiteko orduan, eta horrek balio erantsia gehitzen zuen zerbitzuen sofistikazioari zegokionez.

Era berean, antolakuntza-sistemari begira oso garrantzitsua zen zerbait ekarri zuten: senideak eta herrikideak erabili zituzten, merkataritza-hiri nagusietan finkatuta zeuden ordezkari eskudunen sistema bat edukitzeko. Eredu pribatuan ezarritako loturak baliagarriak izan ziren negozioetarako.

Harreman-sarea (Mexikotik Kubara, Limatik Buenos Airesera) elkartuta mantendu behar zela konturatu ziren (eta negozioan parte hartzeko aukera eman behar zitzaioela).

Indietako salerosle horiek moldakortasunaren garrantzia ere azpimarratu zuten, hau da, merkataritza-eragiketak egiten zituzten aldi berean, ontzi-jabe gisa (asko ontzien jabeak ziren, eta kapitain euskaldunak zituzten), aseguratzaile gisa eta mailegu-emaila gisa ere jarduten zuten. Eta, horrez gainera, indiano haietako askok beren ondasunen herena eman zuten, ohituraz, ongintzako eta kulturako lanetara bideratzeko.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Bolívar Hiltegi kaleko jauregian bizi izan zen, egungo Espainiako Bankuaren kalean, eta Viktor kalean senideak zeuzkan emakume madrildar batekin maitemindu zen, María Teresa Rodríguez del Toro Alayzarekin. [itzuli]
2. Ikusi liburuki honetako “Herritar motak” kapitulua. [itzuli]
3. Manuel Antonio Luzárraga Echezuria (1796–1855) 1854an itzuli zen jaioterrira, bisitan, eta Cádizen hil zen, 1855ean. Haren anaia gazteak, Juan Luis de Luzarraga Echezuriak (1818–1898), arkitekto-titulua eskuratu zuen San Fernandoko Akademian 1854an, eta arkitekto probintzial eta Bizkaiko errepideetako zuzendari izendatu zuten. [itzuli]
4. La Guerra egunkari liberalak jaso zuen informazio hori, eta aipatu zuen mariskala posta-baporean iritsi zela, azaroaren 11ko goizean. [itzuli]

5. Luis Segundo Arístegui (1733–1812) 1750ean matrikulatu zen ofizialki Cádizko Kontsulatuan. Aitaren moduan, harreman komertzialak izan zituen Uztáriz familiarekin; Pascuala arreba Juan Bautista Uztárizekin ezkondu zenetik, are gehiago sendotu ziren bi familien arteko harreman pertsonal eta profesionalak. Akzioduna izan zen Cádizko Beltzen Konpainian, Afrikaren eta Espainiaren mendeko amerikar kolonien artean esklaboen salerosketan aritzen zen merkataritza-sozietatean. 1763an, Koroak baimena eman zien; bazkideek amerikar kontinenteko zenbait leku beltzez hornitu ahal izatea eskatuz aurkeztutako hirugarren proposamena zen, baina merkataritza hori holandarrek, ingelesen eta portugesez kontrolatu zuten. Rafael semeak Bilboren lehen setioko Boluntarioen Batailoian parte hartu zuen. [itzuli]
6. Luciano Murrieta (Arequipa, Peru, 1822–Logroño, 1911), Murrietako markesa: 1872an eman zioten titulua. Murrietak bere ardoak aurkeztu zituen 1857an, Madrilgo Nekazaritzako Erakusketan, eta 1862an hasi zen produktua esportatzen, Olabeagako upelgileekin eta Ybarra ontzi-enpresarekin batera. Ikusi, halaber, 24. oharra. [itzuli]
7. Esaten denez, lagun bizkaitar batek XIX. mendeko ontzi-kapitain baten (orduan ur handitako pilotu deituak) egunerokoaren eskuizkribua utzi zion Barojari; kapitainak Abaroa zuen abizena, Parisen finkatutako lekeitiar bankariez bezala. Itsasoan eta itsas jendean girotutako XIX. mendeko lehen heren horren deskribapen baten baitan, Abaroarekin eta beltzen salerosketarekin lotuta, Pío Barojak Embil pertsonaia sortu zuen, Chimista izeneko beste pilotu baten pertsoniarekin kontrajarria. [itzuli]
8. Cádizen, Jerezen edo Sevillan kontsignatarioak ziren bizkaitarrei emandako noblezia-titulua:
  - 1762an, Repárazeko kondetza eman zioten Juan Bautista de Ustáriz Gazteluri. Indiekin lan egiten zuten ontzi-jabea zen.
  - 1770ean, Mirasoleko kondetza eman zioten Luis Segundo Arístegui (1733–1812). Negozio-gizona zen, eta saleroslea Cádizen eta Jerez de la Fronteran. Haren seme Rafaelek ibilbide militar eta politiko nabarmena egin zuen: Bilboren defendatzaile izan zen 1835ean, eta Puerto Ricoko gobernadorea, 1843tik 1847ra bitartean.
  - 1775ean, Casa Altako markesgoa eman zioten Juan Antonio de Madariaga Aróstegui. Madariaga Dorretzeko jauna (Busturia, Bizkaia) zen, eta ontzi-jabea Cádizen.
  - 1790ean, Valleko kondetza eman zioten Martín José de Murúa Eulateri. Kontsignataria zen Sevillan, eta Bizkaiko Jaurerriko diputatu nagusia izan zen, Elorrioko bizilagun zelako 1772an ezkondu zenetik.
 Antzeko beste kasu batzuk daude Bilbotik ez oso urrun: Juan Manuel de Manzanedo santoñarra (1803–1882) XIX. mendeko azukre-salerosle, esklabista eta bankari espainiar bat izan zen, Madrilan finkatu zena, eta Manzanedoko markes izendatu zuten 1864an, eta Santoñako duke, 1875ean, Alfontso XII.aren Borboien berrezarkuntzari egindako ekarpenagatiko sari gisa. [itzuli]
9. Ikusi gaztelarazko liburukiko eranskina edo *addenda*: “Títulos”. [itzuli]
10. Estíbaliz Ruiz de Azúa, *La Congregación de San Ignacio: El asociacionismo vasco en Madrid en el umbral del siglo XX*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpenak, Vitoria-Gasteiz, 2018. [itzuli]
11. Alfonso de Otazu, *Los Rothschild y sus socios en España*. O. Hs. Ediciones, Madril, 1987, 313–27. or. [itzuli]
12. Victoria Eugenia Martínez del Cerro, *Una comunidad de comerciantes: navarros y vascos en Cádiz (segunda mitad del siglo XVIII)*, Junta de Andalucía, Sevilla, 2006. Azterlan bikaina, non ageri den Cádizko euskal merkatariei emandako noblezia-titulu guztien taula. [itzuli]
13. Estatuarekin edo Indiekin lotura zuten bizkaitarrei emandako noblezia-titulua:
  - 1624an, Filipe IV.ak Villafrancako kondetza eman zion Luis Gaytán de Ayalari, Sevillako (Indietako) Kontratazio Etxeko presidenteari. Ondoren, Cándido Gaytán de Ayalak jaso zuen titulu hori, Tomasa de Jusuéren senarrak. Tomasa bilbotarra zen sortzez, eta José María de Jusué Bizkaiko diputatu nagusiaren alaba.—1682an, Karlos II.ak Villafuerteko markesgoa eman zion Juan de Urdanegui (Bizkaia, 1619–Lima, 1682); euskal jatorriko familia bat zen, Liman finkatua, salerosketan aritzen zena eta etxalde handien jabe zena. Familia horretako kideek goi-kargu politiko eta militarrek bete zituzten.
  - 1689an, Karlos II.ak Villar del Águilako markesgoa eman zion Juan Antonio de Urrutiari, Espainia Berriko Inkisizioaren Ofizio Santuko Auzitegi Goreneko aguazil nagusiari (Mexiko).—1772an, Filipe V.ak Torre Casako markesgoa eman zion Andrés Manuel de Urbina Landaetari, Armadako kapitaina eta errejidorea Caracasen.—1744an, Casa Jarako markesgoa eman zioten Agustín Jara de la Cerdari (1681–1755), Cuscokoa (Peru); ondoren, 1835ean, Juan Manuel de Berriozábal elorriarrak hartu zuen.
  - 1750ean, Fernando VI.ak Casa Palacioko markesgoa eman zion José de Palacio Lanzagortari; Gordexolan jaioa, Potosiko Errege Kutxen kontularia izan zen, Peruko Erregeordetzan.

—1753an, Fernando VI.ak Casa de Lojako kondetza eman zion Francisco José de Landeta Urtusáusteguiri; erregealfereza eta San Miguel el Grandeko alkatea izan zen Oaxacan. Begoñako Landeta familiakoa zen; Landetatarrek Ameriketara alde egin zuten, eta ondorengoak zituzten Mexikon eta Liman (Peru).

—1748an, Superundako kondetza eman zioten José Antonio Manso de Velascori, zeina izan baitzen teniente jenerala, Peruko erregeordea (1743) eta Txileko kapitain jenerala (1745). Superunda hitzak ‘olatu gainean’ esan nahi du.

—1770ean, Montehermosoko kondetza eman zioten Alonso Manrique de Larari, eta ondoren Juan Manuel de Berriozábal Álvarez de Foronda elorriarrak (1814–1872) jaso zuen. Haren aita Kontseiluko eta Indietako Ganberako ministroa izan zen. Ama María Francisca Álvarez de Foronda zen, Casa Jarako V. markesa, Rocafuerteko IV. markesa, Casa Palmako XII. kondesa eta Vallehermosoko III. kondesa. Noblezia kriolloko familia askoren antzera, gurasoekin etorri zen Espainiara, Peruk independentzia lortu ostean. Gero, amak Casa Jarako markes-titulua utzi zion (1835eko martxoaren 12an).

—1779an, Casa Montalvoko kondetza eman zioten Ignacio Montalvo Ambulodiri, Habanan (Kuba) jaioa, eta ondoren Jesús Montalvok (1868–Madril, 1936an eraila, José María semea bezalaxe) jaso zuen, zeina 1893an Trinidad Oroviorekin ezkondu baitzen Bilbon; Ignacioren alaba izan zen Teresa Montalvo O’Farrill, Jarucoko kondesa, Josef Bonaparteren maitalea Madrilen.

—1779an, Torre Alegreko kondetza eman zioten Francisco Antonio de Llanori; Cádizen finkatutako ontzi-jabe garrantzitsua zen, Espainia eta Buenos Aires (Argentina) artean salerosi zuena, eta Buenos Aireseko zalditeria probintzialeko erregimentuko karabineroen kapitaina izan zen.

—1731n, V. Casa Torreko markesgoa eman zioten Juan José de Ovejasi (1682–1732), Aricako gobernadore eta kapitain jeneralari (Peru); “onurazko” zeritzen tituluetakoa bat zen. Ondoren José María Lizana de la Hormazak (Durango, 1843–Anberes, 1911) jaso zuen, zeina Dolores Chávarri Salazarrekin (Portugaleta, 1858–Santurtzi, 1917) ezkondu baitzen 1889an, Portugaleten.

—1746an, Vallehermosoko kondetza eman zioten Pedro Ortiz de Forondari, Limako alkatea, eta ondoren, 1924an, Alfontso XIII.ak José María de Unceta Berriozábalen (1876–1939) alde birgaitu zuen. Unceta Berriozábalarrak euskal jatorriko familia kriollo garrantzitsua ziren; Cuscon finkatu ziren, eta salerosketan eta meatzaritzan aritzen ziren, hainbat etxalderen jabe izateaz gain. [itzuli]

14. Juan de Urdanegui López de Inoso (Urduña, 1619–1682) bizkaitar jatorriko militar bat izan zen, Villafuerteko lehenengo markesa (hil ostean jasotako titulua). 15 urterekin utzi zuen Urduña, eta gora egin zuen Perun: Hegoaldeko Armadako jenerala eta Callaoko kartzelako gobernadore izatera iritsi zen. Haren seme-alabetako batzuek beste noblezia-titulu batzuk jaso zituzten: José Félix, Villafuerteko markesa; Juana, Cañada Hermosako markesa, eta Josefa, Santa Lucía de Concháneko markesa. Urdanegui Urduñako Jesuiten Ikastetxea eratu zuen, eta bertan hil zen. Haren leinuak Urdanegi jauregian edo Gordexolako jauregian zuen jatorria, Enkarterrin. [itzuli]

15. Miguel Arizcun Beitoenaren biloba. Burdinolak zeuzkan Nafarroan, eta etxeak Madrilen. Gaztetan Madrilera joan zen; bertan, Norberto osabak negozioak zituen jada. Gaztelako artileen errenta orokorren administratzailea izan zen, Itsas Armadako hornitzailea eta Galiziako errenten administratzailea, eta, horrez gainera, burdinolak eta hainbat jatorritako errentak izan zituen. 1729an, Done Jakueren Ordenarako probak egin zituen. Iturbietako markes-titulua —1725ean eskuratu zuen Erasungo burdinolaren izena—1742-XI-22ko Errege Dekretuaren eta 1743-I-19ko Errege Despatxuaren bidez eman zioten. Bi maiorazko eratu zituen, eta horietako lehenengoari atxiki zion jaso berri zuen titulua; Francisco de Arizcun anaiari eman zion. Bigarren maiorazkoa Arozarenako oinetxea mantentzeko konpromisoa hartzen zuen anaiari emango zion. Miguelek “Arizkunenea” jauregia eraiki zuen Elizondon. Finantzetan aditua zen nafar horrek metatutako dirutza itzela Manuel de Arizcun Horcasitasen maiorazkora pasatu zen 1819an. Alfonso Otazu y Llana, Hacendistas navarros en Indias, Bilbo, 1970. [itzuli]

16. Sebastián de la Cuadra Llarena (Muskiz, 1687–Madril, 1766) Villariaseko markes izendatu zuten 1745ean. Estatuko eta Barkamen eta Justizia Bulegoko idazkaria izan zen, eta Estatu Kontseiluko kidea. 1738an Arte Ederren Errege Akademia (1744) eratzeko izapideak abiarazi zituen. Muskizeko familia eta jende asko eraman zuen Madrilera. Garai hartan, Muskiz kontzeju bat zen, Somorrostro Haranaren parte, Enkarterri osatzen zuten hamar errepubliketako bat (Bizkaiko Lur Lauak ez bezalako antolamendua zuen). Entitate hori 1805ean desagertu zen. Ondoren gauza bera egin zuten Murgatarrek, edo Estanislao de Urquijok, Nerbioi Garaiko jendearekin. [itzuli]

17. Uztáriztarrei buruz, ikusi Julián B. Ruiz Rivera, “Rasgos de modernidad en la estrategia comercial de los Uztáriz, 1766–1773”, *Temas Americanistas*, 3. zk., 1983, 32–46. or.; “La Casa Uztáriz, San Ginés y Compañía”, *La Burguesía*

- mercantil gaditana, 1650–1868, Cádiz, 1976, 183–99. or.*; “La Compañía de Uztáriz, las Reales Fábricas de Talavera y el comercio con Indias”, *Anuario de Estudios Americanos*, XXXVI (1979), 209–50. or., 232. orrialdean: “Uztáriz familia, nabigazio-arloko ahaltsuena 1760ko eta 1770ko hamarkadetan”. [itzuli]
18. Matías Landáburu (Durango, 1702–Cádiz, 1792) saleroslea eta mailegu-emailea (idazpenetan eta aseguruetan) izan zen, eta ondoren errentaduna, eta enpresa komertzial bat izan zuen gutxienez 1739tik, 1870eko hamarkadaren amaierara arte iraun zuena; Alzaga familiaren (Durango) oinetxe infanztoa erosi zion Domingo Alzaga koinatari, eta lur horietan maiorazkoa eratu zuen Bartolomé seme nagusiarentzat 1776an. Biota hiribildua eta Bayo landako herrixka ere erosi zituen. Bartolomé eta beste seme-alaba batzuk ere Bizkaira erretiratu ziren, aitak oraindik bizirik zegoenean emandako errentekin. [itzuli]
  19. Martín José de Murua Eulate (Bergara, 1744–Madrid, 1799), Valleko kondea 1789an; gipuzkoarra bazen ere, Bizkaiko Jaurerriko diputatu nagusi izan zen, Elorrión bizi baitzen 1772an ezkondu zenetik. [itzuli]
  20. Miguel Arizcun Tilly (Madril, 1800–Madril, 1878), Tillyko kondea 1815etik eta Iturbietako markesa 1855etik; Heredia-Spinola kondesarekin (1896an Carmen Zabálburuk jaso zuen titulu hori, ezkontza bidez) ezkondu zen. 1878an hil zen, Madrilgo bere etxean, Hortelaza kaleko 87. zenbakian. [itzuli]
  21. Haren aita, Mateo Murga, hainbat negoziorekin aberastu zen Kuban; gainera, amaren familiak saltoki bana zuen Madrilen, Reinosan eta Santanderren, Michelena Hnos. Mateo Murga Sustapen Bankuan sartu zen 1846an, eta dirua inbertitu zuen Bainuetxeetan (El Molarreko bainuak), tipografietan eta alokairuko autoetan, eta jabetza ugari eskuratu zituen desamortizazioan. 1855ean Madrilgo zergadun nagusietako bat zen. Ikusi Mercedes Hurtado de Saracho y Galíndez, *Los Marqueses de Linares, Caja Madrid, Linares Información astekaria, Linares, 2002*. [itzuli]
  22. “Madrilen kokatutako ondasun higieziari zegokienez, 1842an Carrera de San Jerónimo, Fomento eta Minas kaleetako hiru etxe utzi zizkion herentzian aitagarrebarak; ondoren, beste hiru erosi zituzkien partikularrei Olivo, Fomento eta Carrera de San Jerónimo kaleetan; azken horretako 44. zenbakian eraiki zuen bere jauregia. Desamortizazioari esker, Madrilgo higiezinen ondarea handitu zuen beste bi etxerekin, kale garrantzitsuetan kokatuak bi-biak: Caballero de Gracia eta San Bernardo, berehala balioa hartu zuena. Hiri-eskalan, desamortizatutako eraikin gehienak Bilbon erosi zituzten: 25 higiezin. Azkenik, Bizkaian, Araban, Logroñon, Kordoban, Granadan eta Jaénen desamortizatutako landa-jabegoen sorta zabal eta sakabanatuen jabetza eskuratu zuen”, hemen: Angel Bahamonde Magro eta Luis Enrique Otero Carvajal, “La reproducción patrimonial de la elite burguesa madrileña en La Restauración. El caso de Francisco de las Rivas y Ubieta, marqués de Mudela, 1834–1882”, *La sociedad madrileña durante la Restauración. 1876–1931*, Madril, 1989, 534. or. [itzuli]
  23. Ikusi Urquijori buruzko kapitulua. Jabego desamortizatuak erosi zituzten hauek ere: Aguirretarrek (Lamiakoko ibarretan eta Getxon), La Llana familia, Jado Obietatarrek (Alzagako ibarrak, Erandion), etab. [itzuli]
  24. Luciano Murrieta (Arequipa, Peru, 1822–Logroño, 1911) Arequipan jaio zen. Salerosle bilakatutako militar ohi baten eta emakume kriollo aberats baten semea zen, eta Espartero haren bataioaren lekuko izan zen, bertan baitzegoen postuko komandante gisa. Peru independizatzean, Murrieta Londresera joan zen, 1824an, eta ondoren Madriler. Esparterorekin erbesteratu zen Londresera, eta 1847an itzuli zen Madriler, ama bertan bizi baitzen. Murrieta Madrilen bizi izan zen 1891ra arte, eta urte horretan alde egin zuen Logroñoko jabegora. Esparteroren emaztea errioxar emakume aberats bat zen, lurak zeuzkana, desamortizazioari esker lortuak, asko, eta hortik sortu zen Murrietaren eta mahastien arteko lotura. Murrietak 1877an erosi zuen Igay jabegoa (168 hektarea). [itzuli]
  25. Errecartetarrek Errecarte del Río y Cía konpainiarekin Veracruzen (Domingo), Cádizen (José Tomás) eta Londresen (Pedro) finkatuta zeuden hiru anaia ziren. Era guztietako salgaiekin lan egiten zuten, izan artea, irina edo tabakoa. Filadelfiako William Morrisekin eta Maryland, Virginia, Pennsylvania eta New Yorkeko portuekin lan egiten zuten, tabakoa esportatzeko. XVIII. mendearen bigarren erdian, Londresen finkatutako hogeita hiru tabako-salerosle zeuden, artearen negoziorekin lotuak: horietatik hamazazpi euskaldunak ziren, eta bederatzik, zehazki, Bilbokoak: ikusi Alberto Angulo Morales, “Bilbao, Madrid, Londres. Ganaderos, comerciantes y cambistas vascos en los mercados financieros y laneros del Atlántico”, Joaquín Ocampo (zuzendaria), *Empresas y empresarios en el norte de España (siglo XVIII)*, Trea, Gijón, 2012, 183–209. or. Aipatu beharra dago Errecarte Sebastián Martínez Pérez (Treguajantes 1747–Madril, 1800) errioxararen koinatua zela, merkataria, finantza-gizona eta arte-bildumagilea, berau. 1771n, Cádizeko Ontziratzaile Unibertsitatean sartu zen, Indietako erresumetara nabigatzeko eta horiekin ehunak saleroszteko. 1775ean, Felipa Errecarterekin ezkondu zen, eta Jerezko Martínez y Cía. ardo-sozietatea eratu zuen, Ingalaterrara esportatzeko. Han ezarri zuen Mincing Lane (espezien merkatuaren gunea); eta, Casa Martínez & Martínez, Juan Manuel Martínez de la Quadra bilbotarra bazkide zuela. 1791n, hainbat



margolariren hirurehun eta berrogeita hamar margolan zeuzkan: Tiziano, Leonardo, Velázquez, Murillo, Cano, Ribera, Guido Reni, Rubens, Mengs eta Goya. Urte hartan bertan Erresumako Diruzain Nagusi izendatu zuten Madrilen, eta Goyarekin adiskidetasunak egin zituen; 1793an, Cádizeko bere etxera eraman zuen margolaria, atsedean hartzera. Goyak 1792an egin zion erretratua New Yorkeko Metropolitan Museum museoan dago ikusgai. [\[itzuli\]](#)

26. Hemen: La España, 1864ko otsailaren 9a. Europan bankari aritu ziren indianoak:  
 José Javier Uribarren Marcue-Erquiaga (Lekeitio, 1791–Paris, 1861) Ispasterreko ontzi- eta lur-jabe baten semea zen. Bilbon ikasi zuen, baina ondoren Mexikora emigratu, eta José Ignacio Aguirrebengoarentzat lanean hasi zen; horren alabarekin ezkondu, eta 1824an itzuli zen Espainiara. 1852an, J. J. Uribarren y Cía banketxea sortu zuen Parisen, eta Frantziako hiriburuan euskal enpresari gehienek hura erabili zuten, baita Espainiako Gobernuak ere. Pascual Abaroa Uribarren ilobak (Lekeitio, 1826–Menton, Frantzia, 1890), Antonia arrebaren semeak, jarraitu zuen banku-enpresarekin.  
 José Ignacio Aguirrebengoa Aguirrek (Zumarraga, 1765–Paris, 1848) oso gazte emigratu zuen Mexikora, eta bertan, salerosle gisa aritzeaz gain, meatzeen negozioan sartu zen. Independentziaren aldeko mugimenduak hasi zirenean, Europara itzuli zen, eta Bordelen finkatu zuen bizitokia; bertan, banketxe bat ireki zuen suhiarekin, José Javier Uribarrenekin, eta ondoren Parisera eraman zuen. Espainiako Gobernuari emandako laguntza finantzarioei eta itsasoaz bestaldeko negozioetan zeukan esperientziari esker, San Fernandoko Bankuaren ordezkartza eskumenduna eman zioten, eta ondoren Isabel II.aren Bankuarena eta Espainiako Bankuarena Parisen. Murrietarrekin lan egin zuen Londresen.  
 José Ventura de Aguirre-Solarte Iturraspek (Lekeitio, 1793–Paris, 1842) oso gazte alde egin zuen Perura eta Txilera, eta dirutza handi samarra egin zuen bertan. Latinoamerika uztean, Londresen ezarri zen, eta Ceferina Alcibarrekin ezkondu zen. Mexikotik alde egindako zumarragar batekin elkartuta, Aguirrebengoa, Fils & Uribarren firma eratzeke inbertitu zuen kapitala. Lehenengo Bordelen ezarri zuten, eta gero Parisen. Gorteetako prokuradore hautatu zuten 1834an eta 1836an, eta, 1836an, ogasun-ministro izendatu zuten Francisco Javier Istúrizekin, baina handik gutxira uko egin zion karguari, jarduera pribatuekin jarraitzeko. [\[itzuli\]](#)
27. Joaquín Marcos (1817–1886) eta Patricio (1823–1888) Satrústegui Bris anaiak. Lehenengoa Espainiako kontsula izan zen San Frantziskon, 1851n. 1864an, karrerako diplomazialari bihurtu zen, eta Espainiako kontsul gisa lan egin zuen Newcastle, Aljerian, Montrealen, New Yorken eta Londresen. Satrústegui baroiaren titulua jaso zuen 1876an. Patricio anaia, zeinarekin beti izan zuen harreman estua, beti aritu zen negozioen munduan. Comillaseko lehenengo markesa izan zen. Antonio López Lópezekin batera, Compañía Transatlántica Española izeneko ontzi-enpresa sortu zuen 1881ean. Matagordan (Cádiz) hasi ziren, dike lehor batekin, ontzitegi batekin eta kai batekin, konponketak egiten; 1878tik egon ziren martxan, eta 1888an eraikuntza-harmaila bat erantsi zioten. Patricio de Satrústegui transatlantikoa lurren-makinadun itsasontzi bat izan zen, eta aktibo egon zen 1890etik 1926ra bitarte. [\[itzuli\]](#)
28. Domingo Aldama Aréchagak (Gordexola, 1787–New York, 1870) oso gazte emigratu zuen Kubarara, eta Gonzalo Alfonso González (1753–1821) aberats kanariarraren alabarekin ezkondu zen bertan. Harekin sortu zuen Kubako konpainia esklabista garrantzitsuena. 30eko hamarkadarako dirutza handienetako bat zeukan. Haren seme batek bere buruaz beste egin zuen New Yorken, 1845ean, eta bestea, Miguel, Parisen eta Londresen ikasia, independentista bihurtu zen. Gerra Handia deritzona hasi zenean, jabetzak bahitu zizkieten, eta, ondorioz, 1869an, New Yorkera alde egin zuen aita adinduarekin (bertan daude lurperatuta, Brooklyneko Green Wood Cemetery hilerrian). Parisen bidaian zegoela, Miguelek bere esklabo guztiak askatu zituen 1872an. Martín de Aldama familiak Derion duen panteoia Valentín Dueñasek egin zuen 1918an; Echevarría La Llana familiarena, aldiz, Rafael Echevarriak egina izango da, ziurrenik; Dueñasek egina da, halaber, Ricarda Estebanena. [\[itzuli\]](#)
29. Tomás José Epalza Zubarán (Bilbo, 1798–Bilbo, 1873) 1858an ezkondu zen Casilda Iturrizar Urquijorekin (1826–1900), bere karrozainaren alabarekin; ez zuen ondorengorik izan. Casilda Bilboko hirugarren aberastasun handienaren jabe zen, eta filantropian aritu zen: bereziki parkea, Arte Ederren Museoa, Miserikordiaren Etxe Santua eta Basurtuko Ospitalea lagundu zituen diruz. Azken horietan beste indiano batek ere parte hartu zuen, Cristóbal Murrieta bankariak, zeinak milioi erdi erreal eman baitzituen Miserikordia Etxea eraikitzeko. 1862an hasi zen eraikuntza-lana. [\[itzuli\]](#)
30. Sebastián Equillor Sarachu udal-errejidorea izan zen 1861etik 1864ra bitarte, eta haren anaia Pedro, zinegotzia. Pedro Equillor Atteridge semea (1877–1937), abokatu elokuentea, garaiko tertulietako pertsonaietako bat izan zen; 1936an erail zuten. [\[itzuli\]](#)

31. Aguirre Zubiaga anaiak, Juan Antonio (Berango, 1800– Bilbo, 1878), Domingo (Berango, 1812– Tepic, Mexiko, 1871) eta León (Berango, 1815–1883), Mexikora joan ziren 1835ean; lehenengoa gaixotu egin zen 1875ean, eta familiarekin Bilbora itzultzea erabaki zuen (ikus gaztelarazko liburukiko eranskina edo addenda: “Biografías”). Pedro de Icaza Zabálburuk, 2007ko abenduaren 2ko elkarrizketa batean, honako hau aipatu zuen bere arbasoei buruz, Aguirre anaiei buruz: “Beren legatuari esker beren izena betikotzea lortu nahi zuten, baina mende honetan zehar Fundación Vizcaína Aguirre fundazioaren lana isila izan da, beti itzalpean aritu da”. Haien heriotzaren ehungarren urteurrenak “kalte-ordain gisa balio du, haien izena eta legatua nabarmentzen ditu behingoagatik” . [itzuli]
32. Bai Enrique Aresti Torre (1852–1946), bai haren anaia Daniel Artziniegan (Araba) jaio ziren. José Ortiz Campo karrantzarraren bi alabarekin ezkondu ziren; “Vivanco y Ortiz” merkataritza-etxearen jabeetako bat zen hura. Enpresa desegin ostean, 1885ean behin betiko itzuli zen Espainiara, eta Bilbon finkatu zuen bizitokia. José María Abaroa Uribarrenek Parisen zuen banku-etxea erabili zuten, Uribarren y Compañía enpresaren oinordekoa, Mexikon lortutako kapitalen zati bat aberriatzeko. Mexikotik emigratutako beste batzuekin elkartuta sortu zuen lehen enpresetako bat Plomos y Estaños Laminados sozietatea izan zen, eta Sociedad del Ferrocarril Hullero de La Robla konpainiaren eraketan ere parte hartu zuen. Era berean, garai hartan sortu zuen Sociedad Anónima Papelera del Cadagua sozietatea, 1901ean Papelera Española bihurtu zena. Aresti bertako presidente izan zen 45 urtez, 1946an hil zen arte, eta Espasa-Calpe argitaletxe handiaren presidentea ere izan zen. Compañía del F. C. Santander-Bilbao sozietatea eratu zuen, eta Banco de Bilbaoko kontseilaria izan zen, besteak beste. Bizkaiko Diputazio Probintziala osatu zenean, presidente izendatu zuten 1898tik 1902ra bitarte. [itzuli]
33. Francisco Luis de Gaminde Torres-Vildósola (1826–1902). Ikusi Javier Viar, *Pacho Gaminde, la sombra de Sócrates*, Bilbo, 2008. [itzuli]
34. Manuel Aranaz (Habana, 1875–Bilbo, 1925) 1885ean itzuli zen Bilbora, eta Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. 1894tik aurrera, maiz kolaboratu zuen prentsan. 1906an, ideologia errepublikano-sozialista zuen *El Liberal* egunkariko zuzendari izendatu zuten, eta 1912an kargua utzi zuen, Bilboko Merkataritza Artekarrien Elkargoko sindiko-presidente izenda zezaten. Kirolari handia, Bizkaiko Atletismo Federazioaren fundatzailea izan zen, eta Arte Ederretako Zirkuluaren presidentea. Crédito de la Unión Minera finantza-erakundeak 1925ean porrot egin zuenean, bere buruaz beste egin zuen. Haren biografo Carlos Bacigalupek zehazten duenez: “Aranazek truke- eta burtsa-agente gisa lan egiten zuen Crédito de la Unión Minera erakundearentzat, eta, haiekin oso gustura zegoenez, badirudi senideak eta lagunak bankuan inbertitzera animatu zituela. Porrot egin zuenean, dirutzak galdu zituzten, eta bera errudun sentitu zen; horregatik egin zion tiro bere buruari” (elkarrizketa Naiara Bazari, Bilbo egunkaria, 2010eko maiatza). Aranazek ez zuen bere burua hil hondoa jota zegoelako, baizik eta uste zuelako gainerakoei dirua galarazi ziela. [itzuli]
35. Jesús de Sarriak (Habana, 1887–Bilbo, 1922) bere burua hil zuen 1922ko uztailaren 27an, 35 urte zituela; balkoitik behera jauzi egin zuen Bilboko Posta kalean. Zuzenbidea ikasi zuen Londresen, eta bere errentetarako interesgarria zen merkataritzaren adarrean espezializatu zen. Bi liburu argitaratu zituen oso gazte zela: *Las Sociedades Extranjeras en la legislación inglesa* (Madrid, 1909) eta *Las compañías anónimas. Necesidad de reformarlas* (Bilbo, 1916). Donerila etxean bizi bazen ere, Algortako Basagoiti etorbidean, Lion d’Or, Ateneo edo Sociedad Bilbaina elkarteetako tertulietan parte hartu zuen. 1917ko urtarrilean, inoiz izan den kultura-aldizkari onena argitaratzen hasi zen, Hermes, eta 1922ra arte jarraitu zuen, bera hil arte. Aldizkari horretan kolaboratzaileak ziren hainbat ideologiatako intelektualak eta literatoak, hala nola Pedro Murlane Michelena, Miguel de Unamuno, Juan de la Encina, Margarita Nelken, Alejandro de la Sota edo Ramiro de Maeztu. [itzuli]
36. Jon Juaristik, “Emiliano de Arriaga” izeneko hitzaldian (hemen argitaratua: Bidebarrieta urtekaria, 4. zk., Bilbo, 1999), honako hau aipatu zuen: “nire ustez, mendearen azken urteetako Bilboko pertsona interesgarri eta sinpatikoena, zalantzarik gabe: Manolo Aranaz Castellanos. Los cuadros vascos liburuaren egilea, El Liberal egunkariaren zuzendaria eta liberala, gizon osoa. Aranaz Castellanosen nekrologian —Aranaz Castellanosen bere buruaz beste egin baitzuen 1925ean—, Maeztuk honela idatzi zuen: ‘Bizkaiko gure mendietako goibeltasunaren artean, Manolo Aranaz Castellanosen itxura kubatarra anana tropikal bat babarrun-eltzekari baten erdian nabarmentzen den antzera gailentzen zen’”. [itzuli]
37. Ciriaco Menchaca (1841–1906), Bilboko Institutuaren egilea 1861etik 1863ra bitarte. José Olózaga indiano aberatsarentzat lan egin zuen, eta Etxe Arrosa izenez ezaguna den etxea eraiki zion Getxon, 1898an. Olózaga zurgina zen, eta Kubara emigratu zuen, aberasteko; Habanan María Eugenia Velázquez Objío santodomingoarra (Dominikar Errepublika) ezagutu zuen, eta harekin ezkondu zen. Olózaga ongi moldatu zuen Menchacarekin,

- igeltsero baten semea zelako, eta Enkarterriko beste indiano askori gomendatu zien Menchaca, haien etxeak eraikitzeko. [itzuli]
38. Edesio Garamendi (1849–1899), Rosalía Ordeñanarekin ezkondua, Puebla de los Ángelesen (Mexiko) jaiotako emakumea azken hori. Garamendi Bilboko udal-arkitektoa izan zen 1877tik 1896ra bitarte, eta Zabalguneko lehenengo Merkatua eta Concha Jeneralaren kalean kokatutako eskolak eraiki zituen, baina oso eraikin gutxi partikularrentzat. Salbuespen interesgarria da koinatuari, Antonio Plasencia bildumagileari, Getxon egin zion ‘Rosales’ etxe-jauregia. [itzuli]
  39. Paulino de la Sota Ortiz (1831–1927) Sopuertan jaio zen, eta Mexikora emigratuta aberastu egin zen; 1872an itzuli, eta bere lehengusina Ramona de la Sota Helguerarekin (1851–1932) ezkondu zen. Udaleko zinegotzia izan zen 1891–93 aldian. Bilboko Zabalgunean auzo-etxeak eraikitzea sustatu zuen, eta bera izan zen hiribilduko etxe-jabe nagusietako bat. Era berean, La Roblako trenbidearen akzioduna izan zen, eta administrazio-kontseiluko kidea, hasieratik. 1909an Sopuertara joan zen bizitzera, eta ikastetxe publikoa eratu zuen, bertakoei heziketa emateko. Bertan hil zen 1927an. [itzuli]
  40. “Hori izan zen José Santisteban Rodrigoren (1849–1930) kasua. Karrantzan jaioa, Veracruzera (Mexiko) emigratu zuen, bertara joanak baitziren aurretik familiako beste kide batzuk, okindegi-negozioak zituztenak. Hasieran negozio horietan lan egin zuen hizpide dugun pertsonaiak. Denbora igarota, baina, independizatu egin zen, eta La flor de Vizcaya izeneko elikagai-denda baten titularra izan zen”: Maite Paliza, “Los indios y la construcción del Ensanche de Bilbao”, Kobie, 10. zk., 2001–03, 205–24. or. [itzuli]

## MEATZARIAK

XIX. mendearen hasieran, aurrerapen teknikoek eta 1849ko Meatze Lege berriak meatzeen ustiapen intentsiboaren garapena mesedetu zuten. Horrez gainera, Lehen Karlistaldiaren ostean, 1841ean, aduanen sistemak kostetan ezarri zituzten behin betiko, eta goraldia hasi zen era guztietako gaien industria eta esportazioarentzat, burdina-mineralarena barne. Britainia Handia Industria Iraultzan murgilduta zegoen jada, eta lurrun-makinen ekoizpenean eta erabilpenean, eta burdina-minerala behar zuen, altzairua lortzeko.

Burdina forjatua (“burdina gozoa” ere deitua) galdatzerakoan forjatu eta mailukatu daitekeen materiala da, hoztuta gogortzen dena; forjaketa soilaren bidez solda daiteke, eta haren ekoizpena oso hedatua egon zen XIX. mendean. 1856an, Henry Bessemer britainiarrak (1813–1898), siderurgia modernoaren aitzindaria eta altzairua fintzeko izen bereko prozesuaren (“Bessmer prozesua”) asmatzailea izan zenak, altzairua kantitate handietan ekoizteko metodo bat sortu zuen.

Burdinarekin alderatuta, altzairua (burdinaren eta karbonoaren aleazioa) askoz erresistenteagoa da. Carl Wilhelm Siemensek honela definitu zuen: “burdina eta horren erresistentzia areagotzen duen beste substantzia baten konposatua”. Asmakizun horrek altzairuaren metalurgia, siderurgia edo altzairugintza sortu zuen, eta Industria Iraultzaren testuinguruan, altzairuzko ontzi handi eta merkeagoak, zubiak, trenbidea, etab. eraikitzeko aukera ekarri zuen. Hala, fabriketako makinen, burdinbideen, ontziolen eta abarren industria astuna jaio zen Ibaizabalen ertzetan.

Bilbo negozioak egiteko leku ezin hobea bihurtu zen XIX. mendearen azken bi hamarkadetan, burdina-mineral bikaina zegoelako bertan, ingelesek eta alemanek biziki estimatzen zutena sufre eta fosforo gutxi zuelako eta oso egokia zelako Bessemer altzairua fabrikatzeko.

Somorrostroko Haranean meatzeak zeuzkan familiaren patriarka zen José Antonio de Ybarra de los Santos (Muskiz, 1774–Bilbo, 1849). Hiru semeek aitaren bideari jarraitu zioten —Juan María (1809), Gabriel María (1814) eta José María Ybarra Gutiérrez de Caviedes (1816)—, eta alabak, halaber, hiribilduko ekonomian garrantzitsuak izan ziren pertsonaiekin ezkondu ziren: Concha (1802), Francisco Zabálbururekin (1779); Jerónima (1818), José de Murrietarekin, eta Prudencia (1819), Cosme Zubiriarekin. Ybarratarrek beste enpresa batzuei alokatu zizkieten meatzeak. Bestalde, Chávarri anaien familia zegoen (ikusi “Bigarren Karlistalditik aurrera” kapitulua), eta Francisco de las Rivas; azken horrek Madrilen aberastu eta meatzeak erosi zituen, eta José María Martínez de las Rivas ilobaren esku utzi zuen horien kudeaketa.

1882tik 1916ra bitarte, burdina-ekoizpena zazpi ustiatzaile nagusiren artean banatuta zegoen:

- Eremu hartako bi meatzari: De las Rivas familia eta Chávarri familia,
- John Mac Lennan (1820–1882) ingeniariaren semeak, José (1845–1914) eta Francisco (1847–1928) anaiak<sup>1</sup>,
- Sociedad Franco-Belga de Minas de Somorrostro sozietatea (Ybarratarrei alokatutako meatzeak), 1873koa,
- Orconera Iron Ore Company (Dowlais eta Consett britainiarrak, eta Krupp alemaniarra; horiek ere Ybarratarrei eta Zubiriatarrei alokatutako meatzeak),
- Durañona y Gandarias sozietatea, eta
- Echevarrieta y Larrínaga sozietatea.

Hortaz, lur meatzedunak zeuzkaten Enkarterriko familiei atzerriko ingeniariak gehitu zitzaizkien, baita merkatariak ere, epe luzerako errendimendua lortu nahi zutenak, arriskurik gabeko errenta-egituraren inbertsio babestutik kanpo. Echevarrieta, Larrinaga eta Bilboko beste merkatari batzuk ez ezik, beste hiri batzuetan aberastutako euskaldunak ere bai. Horren adibide da Francisco de las Rivas: Madrilen finkatuta zuen aberastasuna, eta enpresari gisa hasi zen burdinoletan eta interes siderurgikoetan. Haren iloba, José Martínez de las Rivas, hasieran Franciscoren inbertsioen administratzailea besterik ez zena, Bizkaiko burdina-meatzaritzako enpresari nagusietako bat izatera iritsi zen, eta ontziolen sorrerarekin beti adi egon zen errentagarriak izan zitezkeen abentura ekonomikoei ekiteko.

Meatzaritzako enpresari horien behin betiko hedapena, Ollarganetik Trianoko mendietara, 1868tik 1874rako Seiurteko Demokratikoaren ondoren gertatu zen, eta Bigarren Karlistaldiaren amaiera aldera izan zuen eskala handiko proiektzioa, 1876an. Inguruko ingeniariak biltzen zituzten tokiko meatzaritza-enpresez eta altzairutegiez gain, enpresa britainiarrak ere bazeuden, eta horietako ingeniariak Portugaleten edo Santurtzin geratu ziren bizitzen. Meatzeetarako trenbideak eraiki zituzten, minerala bizkor esportatzeko, eta handik gutxira tokiko siderurgiaren oinarriak finkatzen hasi ziren: Vizcaya sozietateak kokezko zenbait labe garai ireki zituen Sestaon, 1880an; 1890ean, Iberia konpainia jaio zen, burdina zuria ekoizten zuena; Compañía Basconia etxeak altzairu-fabrika handi bat ireki zuen Basaurin, 1892an. Horiek guztiek Altos Hornos de Vizcaya edo Bizkaiko Labe Garaiak enpresan bat egin zuten, 1902an, eta Bilbo industria-metropoli handi bihurtu zen, banku-arloko metropoli izateaz gain; portu handia, Burdinazko kaia eta guzti, 1887an inauguratu zuten, eta 1.096 metroko kontrakaia, 1903an.

Pixkana-pixkana, meatze eta lehegailuetatik siderurgiara eta trenbidera igaro ziren, mineralaren itsaso bidezko garraiora; hortik, banku-jardunetara eta itsasontzien eraikuntzara; eta mendea aldatzearekin batera, energia elektrikoaren ekoizpena. Industriaburu haiek lana, teknologia eta know how delakoa kontrolatzen zuten, eta eragin politikoa zuten gainera.

XIX. mendearen erdialdean, erroten eta burdinolen presak edo urtegiak energia elektrikoa sortzeko erabili zituzten; ondoren, lehenengo energia-enpresak eratu zituzten, eta hiriaren nahiz era guztietako lantegien hornidurarekin zentral hidroelektrikoak sortu zituzten. Espainiako ibaien indarraren gaineko lagapen-eskubideei emandako berme instituzionalei esker, negozio-aukera berriak agertu ziren, baina horiek aurrera eraman ahal izateko muga handiak gairatu behar ziren hasieran, bai finantzarioak, bai teknikoak. Baina aurreko hamarkadetan Bizkaian pilatutako kapitala mesedegarria izan zen sektore elektrikoan sartu ahal izateko eta, ondoren, XX. mendean, urtegi handiak eraikitzeke.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. José eta Francisco Mac Lennan White anaiak Galdamesko meatze-trenbidean lan egitera etorritako britainiar ingeniari baten semeak ziren, eta txaleta zuten Mamarigan. Franciscoren semeek, Eduardok eta Enriquek, Athletic Cluben jokatu zuten. Futbol-taldeak jokalaria atzerritarak izan zituen lehenengo urteetan. Atzerritar gisa aipatzen dituzte, baina Mac Lennan anaiak Trapagan jaiok ziren. Athleticeen lehen argazkian, 1901ean, Eduardo ageri da, atezaina. [itzuli]

## ATZERRITARRAK

XVIII. mendean, merkataritza agertu ziren hiribilduan, Erresumatik kanpo etorriak. 1721ean, adibidez, bertan erroldatuta agertzen da jada Juan Bautista Power<sup>1</sup>, irlandarra jatorriz, baina Bordeleatik etorria: jutezko zakuak eta ehunak egiten zituen itsasontzietako salgaietarako, baina ontzi-enpresetan eta metalgintzan jardungo zuen geroago, inbertitzaile gisa. Smith anaiek<sup>2</sup> —Rathfarnham, Irlanda)— larrugin gisa lan egin zuten 1732an; mende bat geroago, 1830ean, Curtidos de Juan Smith en el Camino de la Isla lantegiaren jabe ziren, Abusu auzoan. Smithtarrek, beharrezko instalazioak eraikitzeke lanetan inbertitzeaz gain, lan handia egin zuten langile-inportatzaile gisa ere, hainbat lantegi-maisu eta langile espezializatu ekarraz baitzituzten sorterritik. Zurrategiak animalien larruak zurratzeko —hots, ontzeko, prestatzeko— lantegiak dira. Zurratze-prozesu horretan, lau etapa bereizten dira: garbiketa, zurraketa, bigarren zurraketa eta akabera. Bilbo bereziki nabarmendu zen produktu horiek (Gaztelatik ekarriak) lantzeko eta esportatzeko jardueran.

Aurrerago, Therence Mac-Mahon Mac Curtain (1730–1766) eta Patrick Mac-Mahon Mac Curtain (1741–1806) anaiak etorri ziren, Newcastle hiribildutik (Cork, Irlanda)<sup>3</sup>, ontzi-kontsignatario gisa jardutera; 1762. urteko erroldan agertzen dira lehen aldiz haien izenak. Beste adibide bat Henry O’Shea da, Limerick hirikoa (Irlanda)<sup>4</sup>; Espainiako Independentzia-gerran etorri zen, britainiar militar gisa. Irlandar katolikoentzat erraza zen Bizkaira etortzea; izan ere, 1668ko otsailaren 3an Karlos II.ak errege-zedula eman zuenez geroztik —eta 1724an Felipe V.ak hedatu—, bertarako sarbide-eskubidea zuten. Frantziatik ere merkataritza asko ailegatu ziren. Baita Flandriatik ere bakar batzuk, hala nola

artile-salerosketan jardun zuen Enrique Cornelio Goossens; etorri ez ezik, bertan finkatu zen betiko<sup>5</sup>. Ipar Euskal Herritik, 1763an, Bertrand Douat (1742–1816) etorri zen, Ziburuko merkatarri baten semea, zeina gerora Antonia Power Echévarri auzokidearekin ezkondu baitzen. Haren aitona balea-arrantzalea izana zen, eta hark ireki zion bidea Ternuako bakailoaren esportazioari. 1789an, Karlos IV.aren erregealdian, Douatek —gizon aberatsa ordurako— Colonillako markes titulua erosi zion Santa Cruzeko markesari. Douat, era berean, Médoc-eko Château Margaux upategi eta mahastien jabe izan zen<sup>6</sup>; eta San Carlos Banketxeko ordezkaria, Bilbon (1782–1793) —José Gardoqui eta haren semeak izan ziren bezalaxe (1782 eta 1794–1808)—. Adiskidetasun handia (eta posta-truke ugaria) izan zuen Francisco de Cabarrús finantzariarekin eta Jean-François de Bourgoing diplomatiko eta idazlearekin. Azken hori Frantzia Iraultzaileko enbaxadore izan zen Espainian, 1791 eta 1793 artean, eta Konbentzio-gerrari amaiera eman zion Basileako Bakearen negoziatzailea, 1795ean. Idazle gisa egindako lanen artean, aipagarria da haren *Tableau de l'Espagne Moderne*, XVIII. mendearen amaierako Espainiako errealitate konplexuari buruzko lan zorrotz eta esanguratsuenetako bat. Douat alokairuan bizi izan zen Gómez de la Torre familiaren etxeko goiko solairuan, non solasaldi ilustratuak gidatzen zituen.

Bestalde, arrantzaren negozioak —Ipar Atlantikoko eta Ternuako uretako bakailao-arrantzarenak batez ere— euskaldunen eta norvegiarren arteko merkataritza-garapena bultzatu zuen. Norvegiar haietako batzuk hona etorri ziren bizitzera. Hilario Lund dugu horietako bat, Bergen hiritik etorria; izan ere, haren familia-negozioak harreman estua izan zuen Bilboko portuarekin. Lund Erripako kaian kokatu zen, Uribitarteko arrapaletan. Han, bakailoaren banaketa-negoziaren ondoren, zura inportatzen hasi zen, eta Lund y Clausen<sup>7</sup> zur-konpainia sortu zuen —egun Guggenheim Bilbao Museoa dagoen orubean—, penintsulako lehen zerra mekaniko elektrikoa izan zuena. Lunden hereniloba bat Joaquín Achúcarro piano-jotzailea da.

Beste atzerritar multzo handi bat Bohemiatik etorri zen (garai hartan, Austria-Hungariako Inperioaren barruan zegoen Bohemia), hala nola, Amann<sup>8</sup>, Andersch, Horn, Rochelt<sup>9</sup>, Yanke, Yohn edo Yerschick familiak, aleman-hiztunak, eta ia denak kinkila-, beira- eta ispilu-saltzaileak. Kinkila-dendatan (frantsesezko *quincaille* hitzetik dator izena) metalezko tresna, ontzi eta tramankuluak saltzen ziren. Aurrerago, bestelako salgai batzuk ere eskaintzen hasi ziren: imitaziozko bitxiak, eskuilak, jostailuak, lanparak, toskazko ontziak, aterkiak, eguzkitakoak, etab. Burgesia berria, baina, produktu gehiago eskatzen hasi zen: era guztietako zapiak, dolu-oihalak, beloak, perkala, galtzak, kamisoiak, forradurak, tafeta, kasakak, artehunak, botoiak, galtzerdiak, muselina, xingolak, belusa, eskularruak, mantalak, oinetakoak eta abar. Hala, Juan Colau Labadie “frantses produktuen inportatzaileak”, Cándida Monasterio Larrearekin ezkondu, eta mertzeria, kinkila- eta lurrin-denda bat ireki zuen Barrenkale Barrenako 17.ean, “zubi zintzilikariaren aurrean” (San Frantzisko zubia). Hor dugu ere Gaston Poirier, urte batzuk geroago etorria Frantziatik bere osaba Domingo de Blanchard ehungintza-enpresariarentzat lan egitera (Blanchard, baionarra sortzez, Ybarra familiaren ohiko hornitzailea zen). 1876an, bere establezimendua ireki zuen, Daniela Bolívar Icaza emaztearekin batera: “Novedades Gaston y Daniela, Sobrinos de Blanchard”, alfonbra, errezel eta tapizerietan espezializatua. Establezimendu hori euskal eta madrildar burgesien hornitzaile nagusia izan zen urte askoan. Haien alaba, Elisa Poirier, Wilhelm Wakonigg Bilboko kontsul austriarrarekin ezkondu zen, eta oinordekoek multinazional bihurtu zuten enpresa. Jende hori guztia ez zen hiri etsai eta ezezagun batera iritsi; lana gutxi gorabehera ziurtatuta zuela etorri zen, Bilboko burgesia bide berriak urratzen hasia baitzen ordurako.

Iritsi berrien artean baziren frantsesak ere: esate baterako, Barbiertarrak<sup>10</sup> (likoregileak), eta Mestayertarrak<sup>11</sup> eta Uhaqóntarrak<sup>12</sup> (funtzionarioak biak ere). Beste batzuk lan jakin batzuk egitera etorri eta bertan gelditu ziren bizitzen, esaterako Jean Marie Abadie Dilhan ur-ingeniaria, Bilbon bizi izan zena 1882an bertan hil zen arte. Mendearen erdialdera, ingeniari atzerritar asko iritsi ziren, meategiek erakarrita. Haietako batzuk, ugazaba bihurtutik, bertan gelditu ziren bizitzen, hala nola Julio C. eta Luis Levisson Block anaiak<sup>13</sup> eta McLennandarrak<sup>14</sup> —futbola eta hipika bezalako kirolak ekarri zituztenak—, edo Teodoro Seebold Bruckman. Urte batzuk geroago, eskala handiko siderurgia hasi

zenean, beste ingeniari frantses batzuk etorri ziren: Chalbaud<sup>15</sup> eta Delclaux<sup>16</sup> familiak, adibidez. Beste batzuk, hirian gelditutako artisauen semeak ziren: Ernesto Hoffmeyer ingeniaria, adibidez, erlojugile baten semea zen. 1876an, Hoffmeyerrek Bilboko Zabalgunearen Plan berria prestatu zuen, Altzola eta Achúcarroekin batera; 1879 eta 1886 artean, Bilboko ur-horniduraren zuzendaria izan zen, eta, ondoren, 1905 eta 1908 artean, Bizkaiko Herri Lanetako burua<sup>17</sup>.

XIX. mendearen azken herenean, eskulangile eta dendari sofistikatuagoak ere hartu zituen Bilbok. Okinetatik hasi eta ehun-dendetaraino. Bernardo Pedro Franconi eta Francesco Matossi suitzarrek (Gisoniakoak biak) Café Suizo y Pastelería, de Matossi y compañía gozotegia ireki zuten, 1813an, Posta kaleko 2. zenbakian. 1830ean, eraikinaren atzeko aldean zegoen —eta Plaza Barrira ematen zuen— kafetegi batekin konektatu zuten gozotegia. Haiek izan ziren gurin-opila, erditik irekitako eta gurin-kremazko geruza batez betetako brioche modukoa, Bilboko gozo tipiko bihurtu zutenak.

Baziren abizen atzerritar gehiago Bilbon, XIX. mendearen amaiera edo XX. hasiera aldera, beste herrialde batzuetatik etorritako ingeniariak edo makineria-enpresetako ordezkariak: Boehm, Bunge, Dubois, Earle, Erhardt, Krutwig, Lipperheide, Nolte, Thate, Ramsden, Wakonigg, Wicke, eta abar.

Argi dago atzerritar horiek berehala egin zituztela lagunak hiriko biztanleen artean, eta batzuk bertako emakumeekin ezkondu ziren, MacMahondarrak, kasurako. Baina lagunak egiteaz gainera, erantzukizunak ere hartu zituzten beren gain: Luis Power, adibidez, hiriburuaren defentsan hil zen, 1808an, Frantziako armadaren erasopean; 1838an, Manuel María Uhagón zen udaletxeko errejidorerik aktiboena; 1839an, Pedro Uhagón, errejidore izateaz gain, Sociedad Bilbaina elkartearen bazkide sortzaileetako bat izan zen; 1863an, Ricardo Rochelt Palme-k (1836–1925) Sociedad de Crédito Vasco sozietatea sortu zuen, eta erakunde horren presidente kargua ere hartu zuen lehen urte horretan. Mende amaierarako, kanpotik etorritako haien biloba batzuk alkate izatera ere iritsi ziren: Francisco MacMahón, 1872–1874 bitartean; Felipe Uhagón, 1874–1877 bitartean. XX. mendean, José Horn alkate izan zen 1909an, diputatu hogeita hamarreko hamarkadan, eta EAJko presidente 1932an. Ricardo Power Zabala 1915ean izan zen alkate. Francisco MacMahón Bizkaiko gobernadore zibila izatera iritsi zen 1875ean, eta haren anaia Manuel María, Merkataritza Ganbera Ofizialeko kidea. Merkataritza atzerritar horiek Hiri Kontseiluaren erabakietan ere parte hartzen hasi ziren, eta hiriko bizitza aktiboan integratu ziren, ez ezkontza bidez bakarrik. Hor dugu, adibidez, Manuel Castellanos Jacquet ingeniaria, 1900ean Bilbao FC (Football Club) taldeko lehen presidentea izan zena; edo Emiliano Amann, 1909an Areetako Abrako Itsas Kluba eraikitzeko lehiaketa irabazi zuena; edo María Mestayer Jacquet, bere La cocina completa (1933) liburuari esker —Espainian argitaratutako errezeta-liburu osoena eta garrantzitsuenaren— sukaldaritzakoliteraturaren aitzindaria izan zena.

Pentsa dezagun Merkataritza Auzitegiak —1829an Bilboko Kontsulatuaren eskumen judizialak oinordeturik— auzi asko eta askotarikoak zituela —atzerriko ontziekin, produktuaren merkaturatzeari zein kalifikazio teknikoari lotuak— eta Bilboko Merkataritza Ganbera ez zela 1886ra arte eratu. Atzerritarrekiko harremana etengabea izanik eta bertako merkataritza batzuek zenbait hizkuntza menderatzen zituztenez, gehiengoaren konfiantza bereganatua zuten familia-aliantzen esku utzi ziren merkataritza-harremanak.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

1. Power. Juan Bautista Power Dubernet—Bordelekoa, irlandarra jatorriz—, itsasontzietako salgaiak gordetzeko erabiltzen ziren jutezko zaku eta ehunen fabrikatzaile gisa erroldatua agertzen da 1721ean. Aurrerago, ontzi-enpresetan eta metalgintzan jardun zuen, inbertitzaile gisa. Hiru aldiz ezkondu zen. Haren ondorengoen artean, bi nabarmentzen dira: Federico Power Larrea, Banco de San Carlos banketxeko akziodunetako bat; eta Ricardo Power Zabala, Bilboko alkate eta Banco de Bilbao banketxeko kontseilari izandakoa. [\[itzuli\]](#)
2. Smith. John Smith Fitzsummons, Rathfarnham-en jaioa (Irlanda). Bilbon kokatu zen 1732an, zurratzaile gisa. Haren ondorengoek larrua zurratzeko fabrika bat jarri zuten martxan Alde Zaharrean. Aurrerago, haien oinordeko batzuek Bilboren arkitektura-irudian parte hartu zuten: Manuel María Smith Ybarra, adibidez, Getxoko jauregi askoren arkitekto izan zen, baita Leioako Artaza jauregiaren eta 1913an inauguratutako San Mames futbol-zelaiaren arkitekto ere. Haren anaia txikia ere, Ignacio, arkitektoa zen, eta San Mamesko harmaila nagusia handitzeko lanak diseinatu zituen. Beste anaia bat, Alejandro, Kopako txapelduna izan zen Athleticekin 1911n. [\[itzuli\]](#)
3. Mac-Mahon. Patrick eta Therence Mac-Mahon Mac Curtain anaiak 1767an ageri dira lehen aldiz Bilboko erroldan. Anaia txikia, Therence, Zarazola Artetxetar batekin ezkondu zen, eta laster hasi ziren besteak beste Briñas, Salazar, Chávarri eta Ybarratarrekin harremanetan. Andra Maria kalean bizi ziren, bosgarren zenbakian, Luis Briñas bizi zen etxe berean. Birbilobetako bat, Pedro Mac-Mahón Agirre (1861–1930), ontzigintzan eta Banco de Vizcaya banketxean lanean ibili zena, Mac-Mahóngo markes izendatu zuten, 1920an. Haren alaba, Sofia, Ramón de la Sota Aburto (Getxo, 1887–Miarritze, 1978) abertzalearekin ezkondu zen. [\[itzuli\]](#)
4. O’Shea. Henry O’Shea, Limerick-en jaioa (Irlanda), Espainiako Independentzia-gerran etorri zen, britainiar militar gisa. Valentzian finkatu zen aurrena, eta Madrilen ondoren, Enrique O’Shea y Cía inportazio-enpresaren buru. Ondoren, zerga-errentari gisa jardun zuen, eta, 1839an, armadaren mailegu-emaile gisa (armadak armak erosteko beharra zuen, Karlistaldiari aurre egiteko). 1852tik aurrera, Isabel II.aren kanala egiteko lanen esleipendun nagusia izen zen. Haren ondorengoetako bat, José O’Shea Sebastián de Erice Labe Garaietako meategi-ingeniaria, Gervasio de Artiñano ingeniariaren alaba Asunciónekin ezkondu zen. [\[itzuli\]](#)
5. Goossensdarrak, Anbereseoak, Deustun kokatu ziren, XVII. mende amaieran. Pedro Francisco Goossens del Mazo-k (1702-1775) familia-jauregia eraiki zuen Deustun; Versaillesen bizi izan zen 1734tik 1762ra, eta Madrilen 1766tik 1770era. Merkataritzan aritu zen lehendabizi, eta Ogasun kontseilari eta erregearen diruzain izan zen ondoren. Osasun-arrazoiengatik itzuli zen etxera, eta Deustun hil zen (etxea, gero, Nautika Eskola bihurtu zuten, eta, egun, Hezkuntza Zientzien Institutua da). XVIII. mendearen erdialdean, 1745 eta 1746. urteetako etxe-erroldetan, kristala saltzen zuten hiru atzerritar ageri ziren. 1842ko erroldan, Bilboko Txakur, Dorre, Andra Maria eta Barrenkale kaleetan, hainbat dira atzerritar familiak: Amann, Delmas, Guiard, Horn, Yohn, Palme, Yanke, Yerschik... Bilbon finkatutako familia atzerritarrei buruzko bibliografia kalitate handikoa da; hiru adibide baino ez ditut aipatuko: Pilar Feijóo Castillo, “Guerra de la Convención y Guerra de la Independencia”, hemen: Zenbaiten artean, Vizcaya. 1789–1814, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1989; Aingeru Zabala Uriarte, Mundo urbano y actividad mercantil en Bilbao, 1700–1810, Euskal Historiaren Liburutegia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo, 1994; eta Jon Garay Belategui eta Rubén Esteban López Pérez, “Los extranjeros en el señorío de Vizcaya y en la villa de Bilbao a finales del Antiguo Régimen: entre la aceptación y el rechazo”, Estudios humanísticos. Historia, 6. zk. Leongo Unibertsitatea, Leon, 2006. [\[itzuli\]](#)
6. Beltran Douaten hiru semeek Château Margaux domaine edo mahasti-etxaldea saldu zioten 1863an Alexandre María Aguado (1784–1842) Las Marismas del Guadalquivirreko markes, militar, bankari eta arte bildumagileari, Louis Combes arkitekto frantsesak 1810–12an neopalladianismo estiloan eraikitako etxe handi horren apaindurak errespetatuz. Ikus Frank J. Prial, “Wine. House Hunting”, hemen: The New York Times Magazine, 1988ko apirilaren 24a: “Palladianismo estiloan egindako eraikin bikain hau, Chateau Margaux izenez ezaguna izen bereko mahastilurretan dagoelako, Bordeleko ardogintza eskualdeko maisulan arkitektonikoa da. Louis Combes arkitektoak 1810–1812 artean eraikia eta jabe berriek azken hamarkadan goitik behera eraberrituta, Frantziako altxor arkitektoniko handienetako bat da. [...] Margaux honen eraikitzailea (beste zenbait etxe egon ziren aurretik) Beltran Douat izan zen, La Colonillako markesa, Espainian banketxeen alorrean eta beste negozio batzuetan dirutza egindako frantziar bat”. Douati buruz, ikus Miguel Lasso de la Vega y López de Tejada (Saltilloko markesa), Un comerciante bilbaíno del siglo XVIII, el marqués de la Colonilla 1742–1816, Ed. Maestre, Madril, 1932. [\[itzuli\]](#)
7. Clausen. Peter Clausen Hausen, Norvegiakoa, bakailao-inportatzaile gisa finkatu zen Bilbon. Hilario Lund-en alaba batekin ezkondu ondoren, zerrategi bat sortu zuen, 1848an, bere aitagarrebarekin. Hango zura (Eskandinaviatik



- ekarria) Zabalguneko jauretxe berrien eraikuntzan erabili zen. Hasieran, zerrategiko instalazioak Ripan zeuden, baina Uribitartera lekuz aldatuak izan ziren. [\[itzuli\]](#)
8. Amann. Jean Amann Audebert Bordelen jaio zen. Aita alemaniarra zuen. 1815ean ezarri zen Bilbon, makinak, mihiseak, ehunak eta zura inportatzeko. Matilde Palme Armingaud bilbotarrarekin ezkondu zen (bohemiar jatorriko familia bateko kidea zen Matilde). Aurrerago, itsasontzi-jabe bilakatu zen. Haren bilobetako bat, Emiliano Amann, Sociedad Bilbaina elkartearen arkitektoa izan zen. [\[itzuli\]](#)
  9. Rochelt. José Rochelt Gotscher, Heyde-koa (Bohemia), Bilbon ezarri zen Gotscher etxerako kinkila-salerosle gisa aritzeko. 1816an, Celestina Palme bilbotarrarekin ezkondu zen. Latorri-fabrika bat ireki zuen Deustun. Haren semeetako bat, Oscar, Banco de Bilbao banketxeko lehen kontseilarietako bat izan zen; beste bat, Ricardo, Sociedad de Crédito Vasco entitatearen bazkide sortzailea izan zen, eta zuzendaria 1863an; Tubos Forjados eta Basconia enpresak ere sortu zituen, 1892an. [\[itzuli\]](#)
  10. Barbier. Santiago eta Pedro de Barbier-Davancase anaiak, Akitaniakoak, Lekeition kokatu ziren, 1814an. Abaroa eta Barinaga familietako alabekin ezkondu ziren. Lekeitiotik Gernikara aldatu ziren aurrena, eta Gernikatik Bilbora ondoren. Bilbon, Valentín Barbier Ybáñezek txakolina oinarri zuen koñak bat merkaturatu zuen, 1900ean Parisko Erakusketa Unibertsalean saritua izan zutena. [\[itzuli\]](#)
  11. Mestayer. Eugenio Mestayer Demelia, Poitierskoa, Frantziako konsulatuaeren kudeatzaile gisa etorri zen Bilbora. 1877an, Carlos Hipólito Jacquet Saint Mars bankariaren alaba Ana Jacquet Lasalle-rekin ezkondu zen, San Nikolas parrokian. Bilbon, Banca C. Jacquet sortu zuen (gerora Banco de Vizcayak eresia), eta bere herrialdeko kontsul izendatu zuten. Bien alaba, María Mestayer (1877–1949), Ramón Echagüe Churruca abokatuarekin ezkondu zen; gastronomoa eta idazlea izan zen, Marquesa de Parabere ezizenez ezaguna. [\[itzuli\]](#)
  12. Uhagón. Asparreneko Guillermo Uhagón (1740–1813) izan zen lehena iristen. Haren seme Guillermo Uhagón Oleak, 1822an Bilboko Konsulatuko priore aukeratuak, partaidetza aktiboa izan zuen Bilboko politika liberalean, Hirurteko Liberalean. Milizia Nazionaleko tenienteorde eta Udaletxeko errejidore aukeratu zuten. Gainera, Sociedad Bilbaina elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Beste seme bat, Pedro Pascual, Jaurerriko Ahaldu Nagusi izan zen 1833–35 biurtekoan, eta Gorteetako diputatu. Hirugarren bat, Manuel Antonio, militarra izan zen, eta Lord Byronekin egon zen Greziako independentzia-gerran. Manuel María Uhagón, berriz, El Bilbaino egunkariaren erredaktore izan zen, 1838an. Gerora, haien bilobek eta birbilobek kargu garrantzitsuak bete dituzte hirian. [\[itzuli\]](#)
  13. Levisson. Mirinbillako eta Trianoko burdin meategiei lotutako abizena da. Julio C. eta Luis Levisson Block anaiak hainbat meategiren jabe izan ziren, eta haien seme-alabak inguruko herritarrekin ezkondu ziren. Augusto Levisson, adibidez, hipikaren sustatzaileetako bat izan zen Bizkaian, eta Negurin etxea egin eta hara bizitzera joan ziren lehenengoetakoa (1905). Bilobetako bat Rafael Gómez Jordana (Francisco Gómez Jordana jeneral eta Jordanako Kondearen anaia) hegazkinlariarekin ezkondu zen, 1934an, Negurin. [\[itzuli\]](#)
  14. Mac Lennan. Burdin meategiei lotutako abizena da. Joseph John Mac Lennan (1820–1882) ingeniari eskoziar bat zen, 1863an Tuterako trenbidean eta gero Galdameskoan lan egitera etorria. Ondoren, burdinaren ustiapenean eta esportazioan jardun zuen. 1868an, José Mac Lennan de Minas konpainia sortu zuen. Haren seme ingeniariak —José (1845–1914), 1900etik Zabalgunean biziko zena, eta Francisco (1847–1928)— filantropo garrantzitsuak izan ziren, eta Enrique Epalzak 1899an Mamarigan (Santurtzi) eraikitako etxe batean bizi ziren. Bilobetako bat Athletic Clubeko atezaina izan zen, 1901ean. [\[itzuli\]](#)
  15. Chalbaud. Esprit Etienne Chalbaud Arnaud, Bordelen jaioa, arrazoi politikoengatik iritsi zen Bilbora (erregeen aurkako jarrera hartu zuen). Haren seme Facundo Chalbaud Cardonak Santa Águeda de Castrajena fabrika sortu zuen, 1862an, eta Unión Española de Explosivos enpresaren sorreran hartu zuen parte, 1872an. Biloba, Pedro Chalbaud Errazquin, diputatu eta senatari izan zen, baita Bilboko Ganberako presidente eta La Gaceta del Norte egunkariaren sortzaileetako bat ere. [\[itzuli\]](#)
  16. Delclaux. Louis Pierre Delclaux Maqueel, Aubin-en jaioa (Frantzia), 1840an iritsi zen Bilbora, Boluetako Santa Ana fabrikako (1841) egur-ikatzeko lehen labe garaiaren ingeniari gisa. Ibarzabalдар batekin ezkondu zen. Haien seme Isidoro Delclauxek (1894–1984) Londresen ikasi zuen beirategintzan jardun zuen siderurgiaren sektorea alde batera utzita. [\[itzuli\]](#)
  17. Ernesto Hoffmeyer Zubeldia (1844–1919), ingeniaria, Zubeldiatar batekin ezkonduetako erlojugile baten semea. Madrilen, errege-jauregiko erloju-konpontzaile gisa jardun zuen. Lucía Arisqueta de la Quintana bilbotarrarekin

ezkondu zen. Haren presentzia teknikoa garrantzi handikoa izan zen mende bukaerako Bilbon: zubiak eta era guztietako herri-lan garrantzitsuak egin zituen. [\[itzuli\]](#)

XIX. mendeko Bilbo nolakoa zen azaltzeko, lehenik eta behin XIX. mendeko Espainiaren egoera soziopolitikoan kokatu behar da hiria. Kontuan izan behar da, XIX. mendean, Bilbon, hiru gatazka armatu izan zirela gutxienez: lehena, 1808–14 urteetan, Napoleonen armadaren inbasioa eta Espainiako Independentzia-gerra. Ondoren, Karlistaldiak etorri ziren, 1833–40 eta 1872–76 bitarteko urteetan. Gudu politiko horietaz gain, hiriak beste hainbat arazori egin behar izan zion aurre, hala nola mendean zehar izan ziren kolera-agerraldiei. Borrokak eta izurriteak gorabehera, hiriak aurrea egitea lortu zuen, Euskal Herriko eta Espainiako ekonomiaren erdigunea bilakatu arte. Bilbok parez pare ireki zizkien ateak orduko ekonomia-eragile nagusiei: trenbidea (1857), banketxeak (Banco de Bilbao, 1857), eta, mendearen amaieran, Bilboko Burtsa (1890), ontziolak eta Bizkaiko Labe Garaiak (1902).

Bilbok hiru setio militar jasan zituen:

Lehen Karlistaldian (1833–40), hiribilduak bi setio jasan zituen: bata, 1835eko ekainaren 13tik uztailaren 1era bitartean (hartan Zumalakarregi zauritu zuten bertan, Begoñan, eta egun batzuk geroago hil zen, ekainaren 24an); eta bestea, 1836ko urriaren 23tik abenduaren 24ra, Lutxanako gudua bitartean.

Bigarren Karlistaldian (1872–76), hirugarren setio bat izan zen, 1874ko otsailaren 21etik maiatzaren 2ra bitartean, zeinak 8.000 hildako baino gehiago utzi baitzituen Somorrostroko guduan.

Batzuek hiru Karlistaldi izan zirela diote, eta bigarrena, beraz, 1846–49 bitartean —batez ere Katalunian— gertatutakoa izango litzateke. Dena dela, altxamendu karlista gehiago ere izan ziren, 1855ean, 1869an eta 1870ean<sup>1</sup>. Azken horrek, 1870eko abuztukoak, eragina izan zuen Euskal Herrian, baina berehala zapaldu zuen Baskongadetako eta Nafarroako kapitain nagusi José Allende-Salazar Mazarredok (1802–1893) —Bizkaiko Batzarretako diputatu izana zen, eta, gainera, oso ondo ezagutzen zuen lurraldea—<sup>2</sup>.

Zer da karlismoa eta nola sortu zen? Karlismoa bi monarkia-eredu desberdinen arteko borroka da: alde batetik, monarkia absolutu baten aldekoak zeuden —tradizionalistak edo legitimistak, Antzinako Erregimenera bueltatu nahi zutenak, zeinek Karlos Maria Isidroren alde egin baitzuten, haren anaia Fernando VII.a erregea hiltzean—, eta, bestetik, monarkia konstituzional baten aldekoak —Lege Nagusi baten eta botere-banaketa hirukoitza duen estatu baten mende dagoen errege bat, orduko Isabel infanta eta politikari liberalak—. Ideia politiko desberdinen arteko borroka horrek gutxienez bi gerra zibil luze eta krudel eragin zituen. Lehena 1833 eta 1840 artean gertatu zen, eta bigarrena, 1872 eta 1876 artean. Azken hori konplikatua izan zen, karlistek ondoz ondo etorritako hiru gobernu (Amadeo I.a Savoiakoarena, I. Errepublikarena eta Alfontso XII.a Borboikoarena) izan baitzituzten aurrez aurre.

Batetik, karlismoa gatazka dinastiko bat izan zen; baina baita, bestetik, ideia soziopolitikoaren arteko konfrontazio bat eta ideia erlijiosoaren eta ekonomikoaren arteko norgehiagoka bat ere. Hori dela eta, 1830eko Zehapen Pragmatikoa deiturikoa onartua izan ondoren —haren bidez Fernando VII.ak bere ondorengo emakumezkoen bere oinordeko izateko aukera ematen zien—, Karlosen aldekoek Bilboko hiribildua hartzea erabaki zuten, dirua han zegoelako eta dirua eskuratzea lehentasuna zelako Madrilera edo Gasteiz hartzera jo aurretik. Bilbo baliabide metalurgiko handiak zituen hiria zen, eta horrek Karlismoaren helburu militar nagusi bihurtzen zuen, baina, batez ere, eskudiru asko erabiltzen zuen hiria zen, bai bere eguneroko merkataritza-jarduerari esker, bai Bizkaiko Batzar Nagusiek bildutako errentei esker.

Fernando VII.a erregea hila zelako berria 1833ko urriaren 2an iritsi zen Bilbora (irailaren 29an hil zen), eta biharamunean altxamendu karlista bat izan Korrejidorearen eta Diputazioaren aurka, hainbat hiritarren gidaritzapean: Pedro Novia de Salcedo, Antonio Gómez de la Torre, Francisco Javier de Batiz, Manuel José Epalza, eta bereziki Manuel Gómez Negrete frantziskotarra. Juan Modesto de la Mota korrejidoreak eta Pedro Pascual de Uhagón diputatuak teilatutik ihes egin behar izan zuten; eta Francisco Javier de Eléxpuru sindikoa eta Casimiro de Loizaga biziarteko lehen aholkularia ezkutatu egin behar izan zituzten. Hildako bakarra egon zen, Cándido Aréchaga, Uhagón diputatuaren koinatua. Matxinatu karlistek bilera bat deitu zuten Probintziako aita batzuekin (José Ramón Urquijo, Pedro Antonio Ventades eta José María Jusué) eta Herritar Armatuak erakundeko buruekin (Ignacio Unceta eta Antonio Gómez de la Torre), eta José María Orbe (Irun, 1776–Bordele, 1850) Valdespinako markesa izendatu zuten korrejidore. Ermuan zuen jauregian bizi zen markesa, eta “Orbe, el Manchuelo” (besamotza) zuen ezizena, beso bat baitzuen galdua 1813an, Irungo San Martzialen, frantsesen aurkako guduan.

Hiribildua bi hilabete baino gutxiago egon zen karlisten esku, tropa liberalak iritsi ziren arte, hain zuzen. Sarsfield jeneralak azaroaren 25ean okupatu zuen hiria, karlista apur haiei eta Herritar Armatuetako hiru batailoiei (elizateetako herritarrez osatuak) hiritik aurreko gauean alde egiten utzi ondoren. Karlisten okupazioak, baina, ontzi-enpresetako jarduera asko murriztea eta diru-kutxak arpilatuak izatea ekarri zuen —eta ontzi-enpresak ziren hiriaren aberastasun-iturri nagusia. Baina, batez ere, burgesia komertzialak, artisauek eta ontzi-jabeek karlismoarekin zerikusia zuen guztia erabat gaitzestea ekarri zuen. Bilbo hiribilduak ez zuen inoiz karlismoaren alde egin XIX. mendeko arazo soziopolitikoei irtenbidea emateko orduan<sup>3</sup>—.

Baina agintari karlistek begiz jota zeukaten hiribildua, eta setioan ezarri zuten 1835eko ekainean, kosta ala kosta bereganatu nahirik. Horretara bultzatu zituen arrazoi nagusietako bat hiriaren pisu ekonomikoa eta estrategikoa zen; izan ere, Bilboko herritarren, Kotsulatuaren eta nazioarteko mailegu-emaileen baliabide ekonomikoez jabetzea izan zuten asmo. Baina agintari karlistek kontuan hartu ez zutena zen hirian merkataria frantsesak eta ingelesak ere bizi zirela, eta bi herrialdeek kotsulak zituztela bertan; eta Vienak eta San Petersburgok ere zeinek bere ordezkaria zuela. Aitzitik, gobernuak karlistei aurre egitera bidali zuen militarrik, Mirasolgo kondeak (Rafael Arístegui brigadierra, Cádizen eta Jerez de la Fronteran dirua egina zuen euskaldun baten semea, eta geroago Puerto Ricoko gobernadore izango zena), ondo asmatu zuen atzerritarren presentzia hori bere alde erabiltzen: izan ere, Frantziako eta Britainia Handiko ordezkarien babesa bereganatzen jakin zuen.

Gauza bera gertatu zen bigarren setioan ere, 1836ko amaieran. Bilboko burgesiak, berriz ere, aurre egin zion ideologia karlistari, ez arrazoi dinastiko edo erlijiosoengatik, baizik eta lege liberalak babesteagatik, nahiz eta, bestalde, foru zaharren berezitasuna ere defendatu. Bilbotar burges horiek —merkatariaik, ontzi-jabeak, armadoreak—, hiribilduan bizi ziren ahaide nagusiak begirunez errespetatzen zituzten arren, bestelako gizarte bat nahi zuten eratu, gizarte moderno eta irekiagoa, eta, helburu horrekin, Milizia Nazionalan hartu zuten parte, eta bertan paper heroikoa jokatu. Hala, gauza izan ziren, bonba-erasoen artean, Sociedad Bilbaina elkarteak izango zena sortzeko; eta soldadu anglosaxoiarentzako gida bat ateratzeko, ingelesez idatzia, hirian zer eta non edan azalduz.

1837ko urtarriletik aurrera, eta, nolabait, Sociedad Bilbaina (1839) elkartearen espiritu horretan oinarri hartuta, hortik sortu zen benetako Bilbo modernoa, etorkizun hobea (bai Zabalgunean bertan, bai merkataritza, industria eta itsas alorretan ere) eraikitzearen alde apustu egiten zuena, epe laburreko planteamenduei uko egiten ziena eta ikuspegi zabal eta inklusiboa zuena.

Altxamendu karlistak gorabehera, Bilbok garrantzi handiko hainbat eraikuntza egin zituen urte horietan: 1834an, Hiribilduko Antzokia (Juan Bautista de Escondrillas arkitektoaren aginduetara eraikia), eta 1835ean, Atxuriko Ospitalea

(Gabriel de Orbegozo, Agustín de Humarán eta, gero, Silvestre Pérez arkitektoen aginduetara eraikia), ekimen pribatuak sustatuta eta Aldundiak, Merkataritza Batzordeak (Kontsulatu ohiak) eta Udalak diruz lagunduta eraikiak biak. 1846ko urrian, Pedro Belaunzaránnek eraikia, Bizkaiko Institutu Nagusia ireki zen —1851ko irailean Bizkaiko Ikastetxe Nagusia deitua—, Merkataritza Eskola, Nautika Eskola, Museo historiko-artistikoa eta Liburutegia barne hartu zituen (1836–37an komentuetatik espoliatutako koadro eta liburu guztiak Liburutegi horretan gorde zituen Aldundiak). Ehun eta berrogeita hamar bat barneko ikaslerentzako eta beste hainbeste eguneko ikaslerentzako tokia zuen, eta doakoa zen. Bilbotik kanpoko eskoletara ere joaten ziren batzuk: Bergarako Errege Mintegira (Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak 1765ean sortua), Loiolako Noblean Ikastetxera (1823–40), 1874tik aurrera Urduñako Jesusen Lagundiaren Ikastetxera (Valladolideko Unibertsitatearen mendekoa), edo, 1898tik aurrera, Lekarozko Kaputxinoen barnetegira (Baztan, Nafarroa). Baina Institutua hiri moderno eta ireki baten hezkuntza-gune handia izan zen, eta han elkartu ziren hurrengo hamarkadetako Bilbo industrial eta metropolitarraren gehien nabarmendu zirenetako asko. Nolanahi ere, Bizkaiko Institutua izan zen inguruko hiri moderno eta irekiena bihurtzeko bidean zen Bilbo hartako hezkuntza-gune nagusia; hurrengo hamarkadetan Bilbo industrialari eta metropolitarrari bizitasuna eman zioten pertsona gehienak handik igarotakoak ziren.

Urquijok zuzen adierazitakoaren arabera, “egoera erabat aldatu zen 1837ko urtarrilean. Bilbo liberalismoaren, karlismoaren aurkako erresistentziaren eta heroitasunaren sinbolo zen, moderatuen eta aurrerakoen jarrerak elkarrengana hurbiltzen zituena. Setioa balentria guztien artean bikainena izatera pasatu zen, Numantziarekin, Saguntorekin eta Maiatzaren biko Madrilekin batera aipatzen zena. Omenaldiak, diru-bilketak, literatura-lanak, oroimen-plakak... guztiak ere ez ziren aski izango handik aurrera bere Oso Noblea eta Oso Leiala tituluari Garaitu Gabea ere gehituko zion hiri haren bikaintasuna ospatzeko. Izan ere, ekarpen militarra garrantzitsua izan zen erresistentzia-lanean, baina herritarrek eta, bereziki, Milizia Nazionalak jokatutako papera ere azpimarratzen zuten behatzaile guztiek”<sup>4</sup>.

Bergarako besarkadak edo Bergarako hitzarmenak —Espanyero jeneral isabeldarrak eta Karlismoaren hamahiru ordezkariak sinatua— eman zion amaiera gerrari<sup>5</sup>. Egun batzuk geroago, Bilboko Udalak idazki bat bidali zuen Diputatuen Kongresura, honako hau adieraziz: “Bi bide daude gerra zibilak amaitzeko: garaipenarena, gudu-zelaian, eta lehiakideen arteko akordioarena. Gorabeheratsua eta badaezpadakoa da lehena, eta errazagoa eta onuragarriagoa, bigarrena”<sup>6</sup>. Beste behin ere, merkataritza-akordio baten alde egin zuten apustu. Bilbo askoz gizarte batuagoa zen, eta, batez ere, parekideagoa botere-kontzentrazioari zegokionez. Kontrol-mekanismoak Udalaren, Bizkaiko Batzarren eta Kontsulatuaren artean banatuta zeuden. Hiriak garbi zeukan ez zuela buruzagi heroikorik edo abenturazale karlistarik behar, ezta norberaren kontu pertsonala zen erlijioa egunerokotasunarekin nahastu behar ere.

XIX. mende erdialdeko Bilboko burgesia horrek—elkartuz joan ziren jatorri desberdineko adarrak zituenak— oso garbi zeuzkan gauzak. Batetik, etorkizunerako anbizioa, merkataritzan eta merkatuan oinarritua; eta, bestetik, bere interes ekonomikoen eta bere aukera-baldintzen defentsa.

Illo horretan, Bilbok bere probetxurako erabili zituen Erresumako hainbat lege:

— 1826an, Errege Muga-zerga Orokorra (urtarrilaren 1ekoa): atzerriko fruituak, ehunak eta hatuak sartzeari buruzkoa, 600 artikulua baino gehiago inportatzea debekatzen zuena eta bandera-eskubidea indarrean jartzen zuena. Nabarmenezkoa da Kataluniako industrialarietako protekzionismora jo zutela, ingelesaren lehian ondorioz beren ehungintza-produktuak arriskuan ikusirik. Zerga hori liberalizatu egin zuten 1841ean, Espanyeroaren aginduz, eta erabakiak euskal arrantza-ontzidi osoa mobilizatu zuen.

— 1849an, Meatzeen Legea (apirilaren 11koa): meatze-ustiapena liberalizatzen zuena. — 1855ean, Burdin Bideen Lege Orokorra (ekainaren 5koa).

— 1856an, Jaulkipen Bankuen (urtarrilaren 28koa).

Merkatari eta ekintzaile horiek karlismoaren aurka sortutako indar ekonomiko eta sozial berriak ziren. Ez zuten berriro pobretu nahi, ez eta ezegonkortasunagatik eta etengabeko gatazka politikoengatik Espainiak zituen zailtasun ekonomikoak berriro ezagutu nahi ere. (Kontuan izan behar da, karlismoa, nolabait, aldaketa ororen aurka zegoela, eta landa-eremuetan eta baserri-giroan baino ez zuela babesik). Hori dela eta, Bilbok Batzorde Delegatu bat antolatu zuen hiriko armamentua eta defentsa sustatzeko. Bilbok, 1873an, 4.000 gizon armatu zituen —soldatu profesionalak eta auzoetako boluntarioak—, eta 40 kanoi, Ignacio Castillo jeneralaren agindupean. Jenerala ingeniariaren armakoa zen, eta, beraz, setiatutako tokiak antolatzen eta gotortzen espezializatuta. Bestalde, Batzar Nagusietako edo Aldundietako aulkiak tradizionalistentzat ez, baizik eta agintari bakegileagoentzat eta liberalagoentzat izan zitezten ahalegindu ziren: hala nola Fermín Lasala Gipuzkoan, Mariano Zabálburu Bizkaian eta Estanislao de Urquijo Araban.

Espainian, 1866ko finantza-krisiari elikagai-krisi larria gehitu zitzaion 1867an eta 1868an, urte horietako uzta txarren ondorioz. Kaltetuak ez ziren izan negozio-gizonak edo politikariak, finantza-krisian bezala, herri xehea baizik, oinarriko produktuak (ogia, adibidez) eskas eta garesti zirelako. Horrela iritsi zen Seiurteko Demokratikoa, 1868ko iraileko iraultzaren garaipenetik 1874ko abenduko jazarraldia (monarkia berrezartzea eta, beraz, Alfontso XII.a printzea errege izendatzea ekarri zuena) gertatu arte luzatu zena. Horrela hasi zen “Borboien berrezarkuntza” deritzon etapa, 1931ko apirilean Bigarren Errepublika aldarrikatzean amaitu zena.

Berrezarkuntzaren unean, Bigarren Karlistaldiak okerrera egin zuen Bilbo aldean, eta beste setio bat hasi zen, hirugarrena.

Karlisten eraso-saioen aurrean, karlista ez zirenek hiritar milizia bat sortu zuten, Askatasunaren Boluntarioen Batailoia (Gobernazio Ministerioaren Dekretua, 1868ko azaroaren 18koa), 1869tik 1872ra bitartean indarrean egon zena<sup>7</sup>, eta Boluntario Laguntzaileen Batailoia, 1874ko urtarrilaren 8tik 1875eko martxoaren 31ra bitartean<sup>8</sup>. Boluntario Laguntzaileen Batailoia herritarrez osatutako milizia bat izan zen, Bilbo karlisten erasoetatik defendatzeko sortua —Milizia Nazionalak sortutako eredu liberalari jarraituz— 1874ko urtarrilaren 24an Cosme Echevarrieta hiriko Armamentu eta Defentsa Batzordeko kide izendatu zutenean. Ia hamar urte lehenago, Echevarrietak kolaborazio bat idatzi zuen 1865eko maiatzaren 5eko El Eco Bilbaíno egunkarian, Baionako Batzarreko euskaldunen ildotik, esanez Foruak bateragarriak zirela errepublikarekin, eta bai Elizaren aldeko tradizionalistak, bai liberal aurrerakoiak, mehatxu bat zirela foruentzat, pribilegio arkaikotzat zeuzkatelako biek ala biek. Echevarrieta liberalei zuzentzen zitzaientzen, karlistak aintzat ere hartu gabe: “Bestalde, oposizioan dauden aurrerakoi batzuek (zorionez, gaur egun alderdiz aldatuak) printzipio liberal aurreratuen alde eta, aldi berean, gure probintzietako askatasunen aurka eginez agerian utzi duten kontraesan harrigarriak sekulako eragina izan du gure probintzia honetako seme-alaba xume batzuen artean, hainbestearainokoa non herritar horiek errezeloz begiratzen dioten orain alderdi liberal aurreratuari, foru-askatasunen etsaitzat jotzen dutenez gero, bai oker jo ere”.

Hiriko buruzagi horiek, enpresaburu horiek (Cosme Echevarrieta, Bernabe Larrínaga, eta beste asko XIX. mendearen bigarren herenean) ez ziren besteak kontrolpean eduki nahi zituzten buruzagi erromantikoak, baizik eta helburu komun bat —bizimodu hobea— lortzeko bidean borrokan ari ziren pertsona arruntak. Liberalek monumentu bat eraikiarazi zuten, Laguntzaileen edo Askatasunaren Heroien Panteoia izenekoa, 1870ean, hiritarren betebeharra zein zen azaltzen zuen epitafio honekin: “Ez negarrik egin, haiek bezala jokatu!”<sup>9</sup>. Urte hartan berean, Kapelagile kalean, “Biblioteca de

Instrucción y Caridad” delakoa ireki zen, Sociead Bilbaina elkarteko kideak gehiengoa ziren talde baten ekimenez eta prestakuntza eta Bildung delakoa bultzatzearen aldeko ideien ildotik, gizarte hobea eta askeago bat helburu.

Ez da kasualitatea haietako ia guztiak, milizietan izena emanda, Bigarren Karlistaldian Bilbo defendatzeko prest agertzea, ez eta beste asko hirira bueltan etortzea ere, Madrilgo edo bizi ziren tokiko erosotasuna utzita. Azken horietakoak ditugu, adibidez, Leonardo Torres-Quevedo ingeniari eta asmatzailea<sup>10</sup>, edota ordurako adinean sartua zegoen Marcoartu ingeniaria ere<sup>11</sup>, Madrildik hiribildua defendatzera etorriak. Ahaide nagusiak ere agertu ziren, haietako batzuk izen handikoak, hala nola, José María Murga Mugartegi, “Bizkaitar mairua” ezizenez ezaguna, militarra eta 1870ean Diputatu Nagusi izandakoa. Gazteagoa zuen anaia Manuelekin batera sartu zen Bilbo liberala defendatzeko milizian<sup>12</sup>. Haien arreba Joaquinak Diario del sitio (Setioko egunkaria) idatzi zuen nebezatzat<sup>13</sup>.

Hiribilduari 1874ko otsailaren 21etik maiatzaren 1era ezarri zioten setioa. Hirurogeita hamar egun horietatik hogeita hemeretzi izan zen bonbardatua. Ignacio María del Castillo komandante militarrek, bertako biztanleek lagundurik, setioari eustea lortu zuen, eta, 1887an, Bilboko konde izendatu zuten ordainetan. Bilboko Udalak hala eskatuta, haren gorpuzkiak Bilbora ekarri zituzten 1895ean, eta Mallonako hilerrian lurperatu zituzten. Geroztik, maiatzaren 2a festa-eguna izan zen Bilbon, 1936ko Gerra Zibilera arte. Daniel Vierge artista frantses-euskaldunak dokumentatu zuen grafikoki gerra hori<sup>14</sup>.

El Sitio elkarteak 1876an sortu zuten, “Bilboko hiribilduari ‘gairaiezin’ titulua izateko balio izan dioten gertaera loriatsuak oroitzeko zentro liberal” gisa, bai eta “heziketa eta aisialdirako zirkulu” gisa ere<sup>15</sup>. 1917. urte inguruan, Ramón de Basterra idazleak<sup>16</sup> adierazi zuen Bilboko aberastasunak une horretan zuela bere jatorria, printzipio liberalak defendatu ziren horretan, hain zuzen: “Ez dago oso azkarra izan beharrik egun zer garen galderari hau erantzuteko: setioaren ondorengo Bilbo aberats eta emankorra gara. Eman dezagun, gure ‘laguntzaileek’ Mallonako hilerrian egiten zituzten guardia-tarte haietako batean, aitona haietako bat, besoak fusilean bermatuta —denok dakigunez, gutxitan erabili behar izan zituzten arma haiek—, Bilbo aberats eta jendetsu bat imajinatzen hasten dela denbora-pasa: landa-eremuarekin komunikatuko zuten tren alaiek zeharkatua, portu zoragarri eta zabal batekin (hirigunearekin trenbidez eta errepidez lotua), eta, lehenago muino-malda belartsuak edo hareazko dunak besterik ez ziren tokietan, eraikin eta herrigune berriez esmaltatua; eta horren guztiaren erdian, aberastasun joria, ongizate paregabekoa. Behin oparotasunez beteriko proiektu hura amaituta, begiak igurtziko zituen gure aitona, fusilaren kontra jarrita ametsetan egon zelakoan. Baina gauzak nola diren: buru horrek, begitadun txapelean sartuta, modu profetikoa aurreikusia zuen nolakoa izango zen berrogei urte geroagoko Bilbo hura”<sup>17</sup>.

1874tik aurrera, errealitatea ulertzeko gaitasuna eta hura aldatzeko beharrezko baliabideak mobilizatzeko ahalmena zuten pertsona berezien esku utzi zuen hiriak bere gaineko ardura. Kontsulaturako edo errejidore-kargurako hautatzen zituzten pertsonak ez ziren beren nortasunarengatik hautatuak (ezaguna da Chávarriren umore txarra edota haren anaia Beningoren alkohol-zaletasuna), beren gizarte-portaeratik baizik: egokitzeko gaitasuna (unean uneko errealitatera egokitzeko ahalmena), malgutasuna (errealitate horren arabera jarduteko trebetasuna) eta etorkizun-sena (etorkizun ezezagunaren aukerei antzemateko sena) ziren aintzat hartuko.

Echevarrietak, Gandariasek, Olabarrak eta abarrek bazekiten inguruabarrak ez zetozeela bat egin beharrekoari buruzko beren ideia pertsonalekin, baina argi zeukaten, baita ere, enpresa- eta gizarte-hobekuntzak lortzeko, beren konpromisoak eta errealitate-azterketak eskutik joan behar zutelako. Bat zetoen taldearen ikaskuntza-garapena hobetu behar zelakoan (hortik Bizkaiko Institutua, etab.), aniztasuna baloratu eta gatazkak modu konstruktiboan aztertu behar zirelako helburuan. Ziurgabetasunari, segurtasun-faltari eta desorientazioari aurre egiteko, ekintza positiboak bultzatu

behar ziren, eta herritarrak mobilizatu, etorkizun-aukerak “zabaltzeko”. Lehenago itsasoa izan bazen aukera hori, portua kanpora eraman behar zen orain, eta baliabide guztiak mobilizatu, aukera berrien bila.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Matinerren gerra (“matiner” hitzak goiztiarra esan nahi du katalanez), Bigarren Karlistaldia edo Ekinaldi Montemolinista deiturikoa, 1846ko irailaren eta 1849ko maiatzaren artean gertatu zen, eta Katalunian batez ere izan zuen eragina. [itzuli]
2. Allende-Salazar, Bizkaiko ahaide nagusien familietako batekoa, militarra zen, Esparteroren laguna, baina zeregin zibiletan jardun zuen hainbatetan, bere negozioetan sartua, trenbidearen garapenaren alde eginez. 1857an, Tuteran-Bilbo trenbidearen 150.000 pezetako akzio sorta baten jabea zen. Liberala eta foruzalea zen, eta 1844an jeneral izendatu zuten, haren lehengusu eta gerra-ministro Manuel Mazarredok hala eskatuta. 1853 eta 1854ko hauteskunde orokorretan, Bizkaiko diputatu hautatu zuten. Udalaren ziurtagiri baten arabera, José Allende-Salazar eta Rita de Gacitua senar-emazteen urteko errentak 12.000 errealetik gorakoak ziren. Gernikako jauregi-etxeaz gainera, Allende-Salazarrek landa-etxe bat zuen Abandoko elizatean, baita hiru baserri ere, 200 peoi baino gehiagorekin. 1860an eta 1875ean, Bizkaiko berrogeita hamar aberastasun handien artean agertzen zen. Ikus hemen: [http://humanidades.cchs.csic.es/ih/paginas/jrug/diccionario/biograf/bio\\_allende.htm](http://humanidades.cchs.csic.es/ih/paginas/jrug/diccionario/biograf/bio_allende.htm) [itzuli]
3. Ikus José Ramón de Urquijo Goitiaren azterlan bikain hau: *Los sitios de Bilbao*, <http://hedatuz.euskomedia.org/359/1/10009036.pdf>. Urquijok dioenez, Uhagónek —ihesari eman behar izan zion ahaldun nagusiak— gertaeren kontakizun bat idatzi zuen, 1834ko maiatzaren 28an sinatua: “Gertakari hauek berreraikitzeke iturri interesgarri bat garai hartan Bizkaiko diputatu nagusi zen Pedro Pascual Uhagónek 1834ko maiatzaren 28an egindako kontakizuna da. Horren kopia bat Historiaren Errege Akademiaren Artxiboan dago: Piral bilduma,9/6798, 2. karp., Pedro Pascual Uhagón jaunak 1833ko urriaren 3ko zoritzarreko altxamenduan gertatu ziren krimenei buruz egindako txostenaren eskuizkribua; 33. fol. Geroago, argitaratua izan zen: Bilbo: Hijos de R. Marti y Cortazar inpr., 1871”. Halaber, Urquijoren arabera, hurrengo urtean “1834ko otsailaren hasieran, salaketa batek agerian utzi zuen sarea, non 70 bat pertsona zeuden nahasita, erdiak apaizak eta erlijiosoak”. [itzuli]
4. José Ramón Urquijo Goitia, *Los sitios de Bilbao*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1994, 157. or., [https://digital.csic.es/bitstream/10261/34801/1/UrquijoGoitia\\_JR\\_SitiosBilbao\\_MuseoZumalacarregui.pdf](https://digital.csic.es/bitstream/10261/34801/1/UrquijoGoitia_JR_SitiosBilbao_MuseoZumalacarregui.pdf) [itzuli]
5. Bergarako Besarkada edo Hitzarmena: Espartero jeneral isabeldarrak eta Maroto jeneral karlistaren hamahiru ordezkari Oñatin (Gipuzkoa), 1839ko abuztuaren 31n, sinatutako hitzarmena da, Lehen Karlistaldiari (1833–1840) amaiera eman ziona. [itzuli]
6. 1839ko irailaren 2an, Manuel María Uhagón errejidoreak honela argudiatu zuen bere iritzia: “Arrazoi politikoek eta komenentzia publikoek baskongadoei beren foruak ez kentzea gomendatzen dute”. Bilboko Udalak idazki bat onartu zuen (irailak 4) eta Diputatuen Kongresura bidali zuen. Honela zioen: “Bi bide daude gerra zibilak amaitzeko: garaipenarena, gudu-zelaian, eta lehiakideen arteko akordioarena. Gorabeheratsua eta badaezpadakoa da lehena, eta errazagoa eta onuragarriagoa, bigarrena. Borroka honetan ez zegoen aukerarik interes dinastikoen arteko akordiorako; bai, ordea, matxinatu armatuekin, haien lege zaharrak gurtzen eta mantentzen zituzten probintziakin egiteko modukorik. Hala iritzi dio armadako jeneral-buru Garaipenaren Dukeak eta irizpen sendo horren ondorio da Oñatin indar etsaien buru nagusi Rafael Maroto jeneralarekin sinatu den hitzarmena, Gaztelako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batailoien mendetasuna lortzeko adostutako akordioak barne hartzen dituen. Bere lehenengo artikuluan, azken probintzia hauen bakerako oinarri gisa, antzinako foruen, frankotasunaren eta askatasunen kontserbazioa ezartzen da, eta xedapen horrek Nazioko Gorteen onespina behar du [...] Ez dagokio Bilboko Udalar, jatorri konstituzionala baitu, Bizkaiko Jaurerriko foruen legeko defentsan hastea [...], baina bai jakinaraztea arrazoi boteretsuak daudela, bai politikoak, bai komenentziazkoak, aipatu foruen kontserbazioaren alde egiteko [...] Komenentzia publikoak foruak kontserbatzea eskatzen du. Foruak ez daude Espainiaren oparotasunaren aurka [...],



- foruen galerak baskongadoen etsipena ekarriko luke [...] nazioa zorretan dago Bilborekin: Erregaiaren ahaleginek hirutan jo dute gure Hiribildu Garaitu Gabe honen horma gotorra, eta Bilboren erresistentzia izan da, beharbada, kausa nazionalaren salbazioa”. Bilboko Udalak eskerrak eman zizkion Erreginari (irailak 22) foruak berrestea ahalbidetzen zuen lege-proiektuagatik. Egun horretan bertan, batzorde bat izendatu zuen, Diputazioarekin eta Merkataritzako Errege Batzordearekin batera eta horren harira ospakizun batzuk egiteko. Irailaren 25ean, gizarte-ekimeneko beste dokumentu bat bidali zen Gortetara, 565 bilbotarrek (“hiri garaiezinararen biztanle leialak denak”) sinatuta, Diputatuen Kongresuak Foru Erregimena berrezartzea onar zezan. [itzuli]
7. “Errepublikako Boluntarioak” Askatasunaren Aldeko Boluntarioen Batailoia —alkate konstituzionalisten agindupean dauden pelotoiz, konpainiaz eta batailoiz osatutako boluntario-milizia bat— probintzia-hiriburuetan eta 10.000 biztanletik gorako hirietan baino ezin zen osatu, eta zeregin hauek zituen: hiri-polizia, ordena publikoaren prebentzioa, eta zenbait eraikin publikoren zaintza. Javier Fernández Sebastián, “Republicanos vascos en vísperas de la revolución de 1868: federales y fueristas”, *Cuadernos de Alzate: Revista vasca de la cultura y las ideas*, 9, 1988, 16–30 or. [itzuli]
  8. Hirurteko Liberalean (1820–1823) penintsula barruan absolutismoaren aldeko altxamendu-mugimendu guztien aurka jardun zuen Miliziaren kopia bat zen. Laguntzaileen Batailoia 1872ko apirilean sortu zen, Bidebarrieta kaleko 15. zenbakiko lehen solairuan, lehen altxamendu karlista hastean, Udalaren agindupean, alkatea bera batailoiko buru zela. Urte hartan, sei alkate izan ziren Bilbon. 1874an, 776 boluntario izan ziren urtarrilean, eta 1.125 apirilean. Laguntzaileen Batailoia 1876ko apirilaren 11n desegin zen, gerra amaitzean. Ikus Jon Penche González, *Republicanos en Bilbao (1868–1937)*, Bilbo, UPV/EHU, 2010, eta Jon Penche González, “La Republica Foral: los republicanos ante la cuestión vasca”, *Memoria y Civilización*, 12. zk., 2009, 193–215 or. Batailoiak Bilboko gizartearen osaera islatzen zuen: gehienak (% 66) bizkaitarrak ziren; gainerakoak Espainiako beste probintzia batekoak edo Ameriketako kolonietakoak ziren, eta % 0,5, atzerritarrak. Laguntzaileen jarduerak garrantzi handia hartu zuen 1874ko setioan. 1874ko apirilaren 1ean hiria defendatzen jardun zuten 5.494 pertsonetatik 1.074 laguntzaileak ziren, defendatzaile guztien ia % 20. 1874ko urtarrilaren 24tik aurrera, 19:00etatik 7:00etara laguntzailez osatuta egon ziren hiriko ia garnizio guztiak. “El Sitio” elkarteak hala eskatuta, 1925eko martxoaren 11n, Primo de Riveraren diktaduraren gobernuak baimena eman zuen Institutuko plazatxoan Laguntzaileen Plaza deitua izan zedin, 1873ko Karlistaldian, hiria setiotik babesteko—1874ko maiatzaren 2an Concha jenerala Bilbon sartu eta setioa amaitu zen arte—, “Laguntzaile Konpainietan” antolatu ziren bilbotar liberal ausarten oroimenez. [itzuli]
  9. Monumentu hori, Laguntzaileen Panteoia, Mallonako hilerrian eraiki zen, Bilboko setioan hildako guztien omenez. Bilbok 31 hildako eta 130 zauritu izan zituen lehen setioan, eta 250 hildako eta 2.000 zauritu bigarrenetan, harik eta Esparterok Lutxanako guduaren ostean hiria askatu zuen arte. Benito Pérez Galdós idazleak Luchana eleberrian jaso zuen gertaera. Panteoian, Ereñoko harriz egindako basamentu gotor baten gainean, emakumezko baten irudi handia nabarmentzen zen, hiriaren sinbolo gisa, esku banatan erramu-koroak altxatuz. Basamentuaren lau izkinetan lehoi bana zegoen zaindari. Irudiak eskuetan zeramatzan loreak garaileentzat eta garaituentzat ziren, gerra hiri bereko herritarren artekoa izan baitzen. José Bellver Collazos (Ávila, 1824–Madril, 1869) eskultura-tradizio handiko familia bateko kideak egin zuen monumentua, eta Marcos Ordozgoiti Murua (1824–1875) gasteiztar artistak jardun zuen kontratista. Laguntzaileen Panteoia —Askatasunaren Martiriei eta Hiriaren Defendatzaileei eskainia— Bilboko udalak inauguratu zuen, 1870eko maiatzaren 24an. Honela zioen epitafioak: “Ez negarrik egin, haiek bezala jokatu!”. Frankistek suntsitu zuten, 1937an. [itzuli]
  10. Ikusi gaztelarazko liburukiko eranskina edo addenda: “Biografías”. [itzuli]
  11. Arturo de Marcoartu (1827–1904), bide-ingeniaria, telegrafiaren mundu-mailako aitzindaria; 1869–70ean, Ingalaterra-Bilbo arteko telefono-kablearen konexioa egiteko baimena eman zioten, baita Bilboko portutik Bartzelonara telegrafo-linea bat ezartzeko ere. Pilota kalean bizi izan zen. Haren aita, Agustín de Marcoartu (1796–1859), liberala bera ere, Madrilgo Goi Batzorde Iraultzailean egon zen, Espoz y Minarekin eta Torrijosekin batera, eta Bordelera erbesteratu behar izan zuen. Berrogeita hamar urte inguru zituela, Madrildik etorri zen espresuki, miliziano gisa, hiria karlisten hirugarren setiotik defendatzera. [itzuli]
  12. José María Murga Mugartegui (Bilbo, 1827 – Cádiz, 1876) zalditeriako kapitaina zen jada 1849an. 1853an, Krimeako Gerrarako boluntario aurkeztu zuen bere burua. Gero, hainbat bidaia egin zituen Marokora, 1863–1865 bitartean aurrena, eta 1873an, bigarrenez. Oso ondo moldatzen omen zen arabieraz. Bere bizitzako oroitzapenak idatzita utzi zituen *Recuerdos marroquíes del moro vizcaíno* liburuan (1868, Bilbo). 1870ean, korrejidoreak Bizkaiko Ahaldu Nagusi izendatu zuen, eta Foru Guardia (karlisten soldadu-partidei aurre egiteko talde armatu autonomo bat) sortu

- zuen. 1874an, Bilbon gaixorik zegoela hartu zuen gerrak. Haren arreba Joaquinak egunkari batean jaso zuen gaixotasunaren bilakaera. Behin osatuta, oturuntza bat antolatu zuen, frantsesez idatzitako menu eta guzti, jateko zegoen apurraekin. Joaquinak zerbait pertsonala bezala idatzi zuen egunkaria anaientzat. José María Murga de La Barrera (Markina, 1770–Bilbo, 1834) zuen aitona, Markinako Bidarte dorretxekoa, merkataritzan interes handiak zituen. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko idazkari betierekoa izan zen, eta Willhelm Humboldten anfitrioi, zeinarekin gutun-truke joria izan zuen. Aita, berriz, Manuel María Murga Zaldúa (Bilbo, 1800–Markina, 1852), politikari liberal bilbotarra izan zen. Ikus gaztelerazko liburukiko eranskina edo addenda: “Biografías”. [\[itzuli\]](#)
13. Atal batzuk argitalpen honetan daude jasota: *Antología de periódicos íntimos*, Labor argitaletxea, Bartzelona, 1962: “Joaquina N. N. Diario de una mujer (Bombardeo de Bilbao, 1874)”. [\[itzuli\]](#)
  14. Daniel Urrabieta Vierge, edo, besterik gabe, Daniel Vierge (bigarren abizenarekin sinatzen zituen beti bere lanak), margolari, marrazkilaria eta ilustratzaile espainiarra izan zen (Madril, 1851–Boulogne-sur-Seine, Frantzia, 1904), Parisen gaztetandik finkatua. Vicente Urrabieta Ortiz marrazkilaria semea zen. Karlistaldiaren berriemaile grafiko nagusietako bat izan zen, eta besteak beste honako marrazkia egin zuen: Mañariako gudua, Bilbotik gertu (*Le Monde Illustré*, 1872ko maiatzaren 14a). [\[itzuli\]](#)
  15. Sabino Aranak gogor eraso zion beti maiatzaren 2ko jaiari, “sasiko loriak eta jaiak” zirela esanez (José Miguel de Azaola, Bilbo egunkaria, 17. zk., 1989ko apirila). [\[itzuli\]](#)
  16. Ramón Bastera Zabala (Bilbo, 1888–Madril, 1928). Bilboko San Antonio ikastetxean eta Urduñako Jesuiten ikastetxean egin zituen lehen ikasketak. Han, Estanislao María Agirre eta Juan Larrea poeta izan zituen ikaskide. Gero, zuzenbide-ikasketak egin zituen Valladolideko, Oviedoko eta Salamancako unibertsitateetan. Karrera osoa matrikula librean egina zuenez, denbora asko eman zuen Bilbon. Han, abentura literario labur batean parte hartu zuen, El Coitao astekari satirikoan, Gustavo de Maeztu, Juan de la Encina eta José Arruerekin batera. Lyon D’Or kafetegiko solasaldietan ere parte hartzen zuen, Pedro Eguillorren gidaritzapean. Han, Pedro Mourlane Michelena, Manuel Ramírez Escudero, Joaquín Adán, Juan de la Encina, José Félix de Lequerica, Esteban Calle Iturrino, Fernando de la Cuadra Salcedo eta Joaquín de Zuazagoitia ezagutu zituen, besteak beste. [\[itzuli\]](#)
  17. Ramón de Bastera, “El poder de Bilbao” (1917), Jesús de Sarriá Hermes aldizkariaren editoreari eskainia, hemen: *Papeles inéditos y dispersos de Ramón de Bastera*, Guillermo Díaz-Plajaren (ed.), Madril, 1970. [\[itzuli\]](#)

## KOLERA

Bilbok hainbat kolera-izurri pairatu zituen XIX. mendean. Hesteetako eritasun larri eta kutsakorra da kolera, eta izurri haiek hainbat heriotza eragin zituzten<sup>1</sup>. Orduan, kolera morboa deitzen zitaion, eta Indiatik zetorrela uste zen, espezia-kargamentuak zeramatzen itsasontziek ekarria. Estatuko lehen agerraldia 1833an izan zen, Vigoko portuan. Bilbon, lau aldiz jo zuen epidemiak:

- 1834an, dozenaka pertsona eta familia beren etxebizitzetan hilzorian jarri zituena<sup>2</sup>;
- 1854. urtearen amaieran, berragertze are gogorragoa izan zuena bost hilabeteren buruan, 1855eko udan<sup>3</sup>. Gainera, izurrite horren aurretik, 1854ko uda eta udazken ostean, elikagaien garestitze handia izan zen Espainia osoan, Krimeako Gerrak eraginda. Urruneko gerra horrek esportazioen igoera eta, ondorioz, elikagaien garestitzea ekarri zuen. Azaroan, “ogjaren sektoreko artisauen matxinada” gertatu zen, koleraren beste agerraldi batekin batera
- 1884ko udan, 1885eko azarora arte amaitu ez zena;— 1893ko udan: jende askok joan zen hiritik, baita agintari-klasekoak ere, Víctor Chávarri izan ezik, zeina langileekin geratu baitzen, La Vizcaya izeneko bere enpresan lanean.

Hiriko bizimodua arriskuan jartzen zuten mehatxu berri horiei azkar erantzun zieten agintariek edo errejidoreek. Heriotzaz gain, kutsatze masiboak eragin zituen kolerak, eta beldurra zabaldu zuen. Etxean bakartuta geratzeko eta berrogeialdia betetzeko eskatu zitzairen herritarrei<sup>4</sup>. Koronabirusak egun eragindakoaren oso antzekoa zen, beraz, egoera. Kotsulatuko jendeak<sup>5</sup>, beste herrialde batzuekin harreman handiagoa izanik, eta, beraz, gaixotasunen eta haien tratamenduaren ezagutza handiagoa izanik, osasun-zerbitzuak hobetzeko neurriak hartzeko eskatu zien XVIII. mendearen erdialdetik aurrera udalari eta inguruko elizateei. Merkataritza-botere hori (deszentralizatua edo ez-ofiziala) oso onuragarria izan zen, ez bakarrik Bilboko ekonomiarentzat, baita populazio-gune osoaren garapen zibikoarentzat ere; hau da, bizikidetzarako eta etorkizun hobea bilatzeko.

1661az geroztik, Joan Santuen Ospitalea zegoen, gaixoak sendatzeko “ospitale klinikoa”: behartsuak Miserikordia Etxean egoten ziren, eta marinel gaixoak, San Nikolas elizaren ondoko lokal batean, San Lazaro Ospitalean. 1835ean Atxuriko Ospitalea eraikita zegoen arren, kolapsatu ez zedin, kolerak jotako lehen gaixoak Olabeagako lazaretora eraman zituzten. Hantxe ikuskatzen zituzten itsasontziak ere, iritsi berritan, eta berrogeialdia agintzen zieten susmagarri ziren marinel guztiei. Aurrerago, lazareto hori Algortako Punta Begoñako gotorlekura aldatu zuten (Cosme Echevarrietak erosi zuen gero, bertan etxea eraikitzeko). Bi lazaretoak Joan Santuen Ospitale Zibilaren araudiaren pean zeuden, eta araudi horren arabera debekatua zegoen epidemia-garaietan gaixo infektiosorik hartzea.

1855eko pandemian, gaixoak artatzeko bi barrakoi eraiki ziren, bata Abandoko San Frantzisko komentuan, eta bestea, San Roke edo Larrinagako Ospitalea deitua, Begoñan. Bilboko Udaleko zinegotzi eta mediku Agustín de Obieta<sup>6</sup> doktoreak —Arte Ederren Museoaren mezenas izango zen Laureando de Jadoren ahaidea— hala eskatuta eraiki ziren ospitale horiek. Gainera, haren aholkuz, “gorpuen ikuskatzaile” plaza bat sortu zen (hau da, Osasun Larrialdiak Koordinatzeko zuzendari bat), eta hilotz-biltegi handi bat ere jarri zen Mallonako hilerrian. Pandemia hori 1854ko udaren amaieran lehertu zen, Londresko West End-eko Soho auzoan, eta hiriaren historian izan den kolera-agerraldirik hilgarriena eragin zuen<sup>7</sup>; hurrengo urtean izurriteak Bilbo jo zuen indar berberaz. Pandemiari buruz ditugun lehen berriak Antzinako Greziaren garaikoak dira: K.a. 430. urtean, izurrite handi bat zabaldu zen Atenasen (tifusaren eta baztangaren arteko zerbait, birrikak blokeatzen zituena), hiriak orduan zituen 75.000 biztanleetatik laurdena hil zuena. Tuzididesen arabera (Thucci II, 48), Etiopiatik etorri zen gaitza, Egipton zehar<sup>8</sup>.

1884an, zabaltzen ari zen beste kolera-epidemia baten berri izatean —mende hartan Bilbora iritsi zen hirugarrena—, agintariak, hau da, Gobernu Zibila (Kotsulatua desagertua zen), Aldundia eta Udala, martxan jarri, eta hari aurre egiteko neurriak hartu zituzten. Urte hartako uztailan, zenbait barrakoi eraikitzea erabaki zuten: batzuk kontrolgune eta desinfekzio-tokietarako, beste batzuk lazaretoetarako, eta beste batzuk, berrogeialdia bete behar zutenen etxebizitzetarako. Menako Epidemia Ospitaleko barrakoi horiek kolera-izurritea Bilbora iritsi baino lehen eraiki ziren. 1904an, Bizkaiko Karitate Elkarrekin bere gain hartu zituen pabiloi horiek, eta, handik gutxira, behartsuentzako babes-etxea ireki zuen bertan.

1785ean, Joaquín Colón de Larreátegui<sup>9</sup> korrejidorearen ekimenez, Ignacio de Alviz eta Juan de Iturburu maisu hidraulikoek ur-hornidurako hodi asko (3,5 kilometro inguru) instalatu zituzten, Luis Paret y Alcázar margolariari enkargatutako iturrien bidez errematatuak (urte hartako abenduaren 24an inauguratu ziren iturriak). Paret Bilbon erbesteratua egon zen 1779 eta 1787 artean, eta hiriko arkitektura- eta dekorazio-munduan esku hartzeko aprobeztatu zuen denbora: hala, veduta eder bat utzi zigun opari Areatzan. 1840an, Bilbok edateko uretarako hamalau iturri zituen, burdinazko tutuz hornituak; eta beste bost, zaharragoak, kaleak garbitzeko eta suteak itzaltzeko erabiltzen zirenak, zurezko ubideak (barrutik hustutako enborrak eta burdinazko enbor-uztarriak) erabiltzen zituztenak. 1849an, Jean Marie Abadie ingeniari frantses-euskaldunak ur-hornikuntzarako hainbat iturri berri proiektatu zituen, eta 1857an amaitu zituen lanok, Bolintxuko 3.300 m<sup>3</sup>-ko ur-biltegia eraikita.

Bestalde, 1863an, Modesto Echanizek hodi bat ekarri zuen ibaiaren beste aldetik. Irizpide horiek oinarri hartuta, udalak, 1878an, Ernesto Hoffmeyer ingeniariaren esku utzi zuen hiria urez hornitzeko proiektua (bi sare desberdin ziren, bata iturri-urez hornitua eta bestea ibai-urez hornitua) eta ura herriguneko, zabalguneko eta Volantin pasealekuko denda, etxe eta etxebizitzetara banatzeko plana. 1894an, bi presa eraiki ziren Bolintxu ibaiaren erdiko ibilguan, eta bertan bildutako ura harkaitzean zulatutako eta harlanduz itxitako biltegi batera eramaten zen. Bai ur-biltegi hori bai Larraskitukoa (1908) ere erabilgarri egon dira XX. mendearen amaierara arte. Dena dela, esan beharra dago Bilbok bi ur-eroanbide zituela jada 1558an: bata iturriak hornitzeko eta bestea hiriko Erronda garbitzeko. Kontsulatuak, ibaiaren nabigagarritasuna eta kaien egoera zaintzeaz gain, bideen eta errepideen hobekuntza-lanak eta edateko ura herritar guztiengana iristeko zerbitzua ere kontrolatzen zituen.

Baina Bilbotar askok itsasadarretik bertatik hartzen zuen ura, hiriko ur beltzak eta deskarga-kaietako zikinkeria bertara isurtzen ziren arren. Horregatik, 1891n, udalak saneamendu-aurreproiektuen lehiaketa bat deitu zuen: Recaredo de Uhagón (1848–1912) bide-ingeniariak irabazi zuen lehiaketa, 100.000 biztanleko Bilbo baterako pentsatuta zegoen “Mens sana in corpore sano” proiektuarekin. Bilbo izan zen, beraz, saneamendu-sare modernoa (1894–99 bitartean eraikia) izan zuen estatuko lehen hiri handia. Uhagónek, gauza berri bezala, hormigoi armatua erabili zuen bulkada-hodian, baita bakteriolisi bidezko arazketa-teknika bat ere, eta hori eredu gisa erabili zen geroago Valladolid, Sevilla eta beste hiri batzuetako saneamendu-sareen eraikuntzan. Uhagónek berak Parisko Clichy-ko urak Acheres-eko nekazaritza-parkera eramateko egindako lanen ereduari jarraituz proiektatu eta eraiki zuen 1898–99 urteetan Elorrieta (Bilbo) eta Galea (Getxo) arteko 10.000 metroko bultzada-hoditeria. Koleraren krisi historiko horrek, setio karlistek eragindako ondorioez gain (zaurituak eta hilak), aldaketa sakonak eragin zituen hiriaren antolaketan eta beharretan, oinarrizkoenetatik hasita: ur higienikoak hornitzeko lineak, hondakinak eta estolderia kudeatzeko sistemak, ospitale- eta ehorzketa-zerbitzuak, etab.

1893an, beste kolera-agerraldi bat izan zen, eta hurrengo urtean elgorria gehitu zitzaion kolerari. Elgorriaren erasoak heriotza asko eragin baitzituen haurren artean, kausak aztertzeko eta haurren heriotza-tasa murrizteko beharrezkotzat jotzen ziren neurriak proposatzeko batzorde bat sortu zuten, zinegotziek eta Tokiko Osasun Batzordeko kideek osatua. Eredutzat hartu zuten Léon Dufour frantsesak Pierre Budin pediatarren ideien laguntzarekin 1892an martxan jarritako Goutte de lait (esne-tanta) erakundea. Ereditu hori Europa osora ari zen zabaltzen Parisko Karitateko Ospitalearen bidez. Bilbon 1904an inauguratu zen Esne Tanta, Federico Echevarría Rotaèche industrialariak 1903an Etxaniz Suhiltzailearen plazan eraikitako txalet batean<sup>10</sup>.

Hiriko ospitaleak eta hilerriak egokitzeko ekimen hori, arestian esan bezala, 1835eko lehen kolera-agerraldiaren eta Lehen Karlistaldiak hainbeste zauritu eta hildako utzi izanaren ondorio izan zen. Garbi ikusi zen orduan ospitalea eta hilerria hirigune zaharretik atera eta kanpora eramateko beharra. Atxuriko Ospitale zaharra txikia eta zaharkitua geratu zela ere ikusi zen Bigarren Karlistaldian. Osasun Zentro horrek nolako arazo larriak zituen ikusita, Gregorio de la Revilla buru zuen Karitate Batzordeak irtenbide bat bilatu nahi izan zuen Bilboko zabalgunean bertan. Horrela sortu zen Basurtuko Ospitalea, ekimen pribatuak finantzatua, familia ezagunen ekarpenekin. Familia-deitura horien arabera izendatu ziren ospitaleko hamabost pabiloiak (Allende, Iturrizar, Careaga, Gandarias, Gurtubay, Revilla, Jado, etab.), bakoitza gaitz batean espezializatua<sup>11</sup>. Ospitalea Enrique Epalza udal arkitektoak diseinatu zuen eta 1908ko azaroaren 13an inauguratu zen.

Gauza bera gertatu zen hilerriekin. Frantsesen inbasioaren garaian jada ez zen ehorzketarik egiten Santiago elizako eta elizpeko harlauzen azpian. San Frantziskoko fraideek barazketarako zituzten lursail batzuetara lekualdatu ziren ehorzketak<sup>12</sup>. Estatuko gainerako lurraldeetan, hilerriak hirien erdigunean zeuden, batzuetan ospitaleetatik gertu, baina elizetan ere egiten ziren ehorzketak. Hilerriak hirigunetik kanpoaldera lekualdatu ziren, hain zuzen ere, biztanleria

ugaritzearekin batera, hildakoen kopuruak ere gora egin zuelako. Mallonako hilerri berria 1828 eta 1830 bitartean ireki zen<sup>13</sup>. Hilerriak forma eliptikoa zuen, baina, gerora, eraberritu eta aldatu egin zen, eta futbol-zelai izatera ere iritsi zen. Han inauguratu zen, solemnitare handiz, 1870eko maiatzaren 24an, Bilboko hiriak Lehen Karlistaldian (1835–36) “eroritako guztiei” eskainitako mausoleo edo panteoia. Bestalde, inguruko elizateek zeinek bere hilerria zuten: Elexabarrikoa (Abandon), Begoñakoa eta Deustukoa. Bien bitartean, hiribilduak hazten jarraitu zuen, eta hildakoak lurperatzeko eta bisitatzeko lurren beharra ere neurri berean hazi zen. Oroitzapenezko leku diren heinean, hilerriek inguru lasaiak eta zabalak izan behar dute, “ibiltzeko eta pentsatzeko toki bat, normalean oharkabean pasatzen zaizkigun edo ahaztuta dauzkagun gauzez ohartzeko toki bat”. Horregatik, Udalak lehiaketa bat deitu zuen hilerri berri bat eraikitzeko beharrezko lursailak erosteko. 1891n, Bilbo-Lezama trenbidearen sustatzaileek lursail batzuk eskaini zituzten Derion hilerria egiteko eta bagoi berezi bat hildakoak Mallonako galtzadetako geltokitik hilerrira eramateko, baita kapera bat ere, geltokian bertan. 1902an, Derioko hilerria ireki zen, Vista Alegre izenekoa, bertatik paseoa ibiltzeko eta hango mausoleo-jauregi berrien artean paseoa ibiltzeko moduko eremu zabala, gerorago Getxoko Galea hilerrikoa izango zena bezalako.

Ilustratu frantsesen ideia higienistek oso harrera ona izan zuten Bilboko gizarteko buruzagien artean, batez ere kanpoan ikasitakoen artean. Modan jarri zituzten bainuetxeak, hala nola Kortezubikoa (1848an inauguratua) eta Zaldibarkoa (1851), eta, aurrerago, Areetakoa (1868) eta Portugaletekoa (1875), itsaso-bainuetxeak biak. Higienea lantegietara ere iritsi zen, bai ogi-fabriketara, baita hiltegi berrietara ere. 1850ean, arkitekto bat izendatu zuten Osasun eta Higiene Publikoaren Arretarako buru, eta beste bat Suhiltzaileen Konpainiako buru. Colón de Larreátegui korrejidorearen garaian hasi eta XIX. mende osoan zehar, “osasun publikoa” lehentasunezkoa zen, eta hala zeritzen —hiribilduko zein Diputazioko— agintariak gaixotasunak saihesteko eta herritarrak babesteko antolatzen zituzten jarduerak; higienean eta sistema sanitarioan (urak, ospitalea, hilerriak...) oinarritutako neurriak ziren. Hiribilduko mediku berriek Rudolf Virchow (1821–1902) sendagile alemaniarren ideiak jarraitzen zituzten: “medikuntza gizarte-zientzia da eta politika ez da eskala zabalagoan egindako medikuntza besterik”. 1878an Tiboliko udal-hiltegiaren eraikuntza-lanak hasi ziren, 1653az geroztik hiltegi nagusia egon bazegoen ere. Agintariak haragi-salmentetan egiten zuten kalitate- eta osasun-kontrolerako gunea, “Haragitarako ohola” izenez ezaguna, beren beregi Harategi izena zuen kalean egon zen (gerora Arategizar deitu zen, hiltegia instalatu ondoren), Zamudioko Atetik hurbil (garai hartako Hiltegi kalea), bata bestearen aurrean zeuden bi eraikinetan: Hiltegiaren eta Haragi-gazitegiaren etxea batetik, eta aurrez aurre, Harategi Berria (1885az geroztik eta gaur egun arte Espainiako Bankua deitua, urte hartan Espainiako Bankuak erosi egin baitzuen une hartan Harategia zen eraikina). Berlinen, aldiz, ez zen hiltegi-nagusirik edo Zentralvieh- un Schlachthof deritzonik egon 1881era arte (Christian Kassung, Fleisch. Die Geschichte einer Industrialisierung, Ferdinand Schöningh Verlag, Paderborn, 2020).

Bilboko osasun-egoera hobekien aztertu duen Juan Gondar adituak behin baino gehiagotan idatzi du hiriko osasun-baldintzei buruz, onenak ez zirela esanez. Haren ikerketek, baina, XX. mendearen hasierako Bilbo superpopulatuari egiten diote erreferentzia bereziki. Hala ere, esan dezakegu XIX. mendearen erdialdeko Bilbok ongi jakin zuela kudeatzen bai ospitale arloan zituen beharrak, bai hilerri arloan zituenak —areago pandemia garian, COVID-19arekin ikusten ari garen bezala—, bai hiriko uren eta sareamendu orokorraren arloan zituenak ere.

Bilbok atzean utzi nahi zuen hiri goibelaren planta: infekzioen beldur izateari utzi, eta ur garbia eta gauerako argia zeuzkan hiria izan nahi zuen. Hiribildura bizitzera zetozen baserritarrek alde batera uzten zuten beren naretasun bukolikoa hiritar bihurtzeko, eta gizabanakoen arteko hurbiltasuna, aukerak, jendetasuna eskatzen zizkioten hiriari, baita segurtasuna eta plazerak ere. Hiria berritzailea eta garbia zen, herriak baino gehiago. Bonbardaketak eta infekzioak jasan arren, aurrera egiteko gaitasuna du hiriak, begiak etorkizunean jarrita egin ere, hau da, merkataritzan. Bere jatorria merkataria erakartzean datza, baina baita kontsumitzaileak sortzean ere. Multzokatzeak hezkuntzarako eta

entretanimendurako bidea ematen du, kafetegiak barne. Nolabait, finantza-merkataritza eta aseguruaren arloa kafetegietatik eratorri ziren.

Hiribilduak badu nolabaiteko hiri-magnetismo bat (urban magnetism), eta social network delakoa da bere horretan. Bilbok Amsterdam, Hanburgo, Lübeck... bezalako hirien ereduari jarraitzen zion merkataritzaren, salgai-trukearen gune (hub) izateko, baserriarren merkatu xume izatetik nazioarteko merkatu izatera igarotzeko.

Horrenbestez, berriz esan dezakegu XX. mendearen hasieran Bilboko hiribilduak bazuela uren saneamendu- eta arazketa-azpiegitura, Recaredo Uhagónek proiektatua (1895–1902), bazuela Derioko hilerria (1902) eta bazuela Basurtuko Ospitalea (1908) ere, eta gaur egun martxan segitzen dutela hirurek.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Gaixotasunaren baziloak desidratazio larria eta diarrea eragiten ditu, eta Filippo Pacinik aurkitu zuen, 1854an; Jaume Ferrán Clúak prestatu zuen lehen txertoa, 1885ean, baina 1919 arte ez zuten onartu. E. Angolotty Cárdenas, “Datos para la historia del cólera en España”, Revista Sanidad e Higiene Pública, 1970. Gaixotasunak eta ondoko agerraldiek 300.000 hildako eragin zituzten 1833–34 artean, 236.000 hildako 1854–55 artean, 120.000 inguru 1865ean, eta beste 120.000 inguru 1885ean. [itzuli]
2. Ura zuzenean menditik hartzen zuten iturri batzuetan zegoen infekzio-fokua, baina karlismoaren aldeko fraide propagandistek kutsatzen ote zuten ere zabaldu zen. [itzuli]
3. Bilbotarrek “hirurogei eguneko kolera” eta “ehun eguneko kolera” izendatu zituzten. Ikus: Juan Gondra, “El cólera de sesenta días”, Bilbao, 2017ko urtarrila. [itzuli]
4. 1830eko udazkenean, Alexander Pushkin (1799–1837) kolera-izurrite batengatik konfinatuta geratu zen Boldino herrian, Errusiako hego-ekialdeko probintzia batean, haren aitak zuen etxe batean. Moskura joan ezin zuelako etsita (ezkontzera joan behar zuen), honela idatzi zion emaztegaiari: “Bost berrogeialdi eremu daude hemendik Moskura bitartean, eta 14 egun eman beharko nituzke bakoitzean. Atera kontuak eta imajinatu nola nagoen, burua galtzeko zorian”. Pushkinek ezin izan zuen joan Moskura, baina hainbat kontakizun labur, poesia eta hitz lauuko poema idatzi zituen, baita Eugene Onegin liburuko bi kapitulu ere, konfinatuta egon zen hiru hilabete horietan. [itzuli]
5. 1511n sortu zenetik, Bilboko Kontsulatuak aholkuak ematen zituen horrelako gaietan, XIX. mendean desegin zen arte. Handik aurrera, Bizkaiko Osasun Batzorde Nagusiak kontrolatu zituen alderdi horiek guztiak, kolera-epidemiek ez zezaten alarma sozialik sor —Madrilen gertatu zen, adibidez—, eta gaitzak ez zezan merkataritza-jarduera erabat geldiaraz. [itzuli]
6. Agustín María Obieta (Bilbo, 1814–Bilbo, 1896): Laureano Jadoren osaba zen. Mediku gisa, aktiboki parte hartu zuen Bilbon izan ziren izurriteetan aurkako borrokan, eta bere gain hartu zuen Osasun Batzordearen zuzendaritza. Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiak, 1895ean sortuak, borroka horretan egindako lana aitortu zion, eta ohorezko lehendakari izendatu zuen. Hainbat lan idatzi zituen medikuntzaren alorrean, hala nola: “Influjo de los astros en el curso de las enfermedades” edo “Tratamiento de la neumonía basada en la observación práctica”. [itzuli]
7. XIX. mendearen erdialdean, Londres Victoriarra izan zen Europako metropolirik oparoena eta planetako populatuena (2,4 milioi biztanle). The Ghost Map: The Story of London’s Most Terrifying Epidemic—And How It Changed Science, Cities, and the Modern World lanean (Londres, 2006. Gaztelerazko itzulpena: Cristina Mbarichi Lumu, *El mapa fantasma*, Capitán Swing, 2006), Steven Johnson-ek XIX. mendearen lehen erdiko Londresen deskribapen liluragarria eta zehatza egin du, eta aurrez aurre aurkezten dizkio irakurleari Golden Square inguruko kale txiki eta estuak, hango etxebizitzak (asko ukuilu bihurtuak) eta negozioen heterogeneotasun bitxia: hormaz horma okindegi bat duen kapela-fabrika, pub bat detonagailu-tailer baten ondoan... “The river is almost black, and

- is covered with black barges; above the black housetops [...] rises a dusky wilderness of masts” John Gapper-ek aipatua, hemen: “The enduring attraction of cities”, *Financial Times*, irailak 29, 2020. [itzuli]
8. Ikus Monica Centanni, “Paralos: La città è una nave, la nave è la città”, Engramma, 174. zk., 2020ko uztaila-abuztua. [itzuli]
  9. Joaquín Colón de Larreátegui (1746–1821). Bizkaiko Jaurerriko korrejidore nabarmena izan zen (1782–85), eta garrantzi handiko herri-lanak eginarazi zituen: errepideak, iturriak, ur-ekartzeak. 1785eko abenduaren 24an, hainbat iturri inauguratu ziren Bilbon: Done Jakue plazatzokoa, itsasadarreko kaiaren gaineko plazakoa, eta San Anton zubikoa. Era berean, berak proposatu zuen hirian kale-argiak jartzea eta hiltegi bat eraikitzea. Larreátegui adiskidetasun estua izan zuen Gaspar de Jovellanosekin. Horrek bere egunkarietan aipatzen zuen Larreátegui, esanez “erudizio handiko gizona” zela, eta “filosofo erretiratu baten moduan bizi da, lagun gutxi batzuekin duela tratua, asko irakurriz eta ondo pasatuz. Liburutegi bikaina dauka”, Gaspar Melchor Jovellanos, *Diarios*, Ángel del Río-ren aurretiazko azterketa, Julio Somozaren edizioa, Oviedo, Asturiar Ikasketen Institutua, 1953, I. liburukia, 215. or. [itzuli]
  10. Handik gutxira, 1912an, San Antonio Sehaska Etxea eraiki zen, Urazurrutia kalean, Ricardo Bastida arkitektoaren proiektu baten arabera (1939an beste solairu bat gehituz eraberritua). [itzuli]
  11. Hil hurren zeuden gaixoen pabiloia Ampuero familiak ordaindu zuen; hortik Bilbon hain arrunta den esapide hori: “a cascarla a Ampuero” (“Zoaz Ampuero hiltzera!”). [itzuli]
  12. Bilbon, tenplu batetik kanpo ezarritako lehen hilerria izan zen. Agustin Humaranek 1815ean egin zuen topografia-planoan, San Frantzisko komentuko baratze hori hiriko behin-behineko hilerri gisa dago jasota. [itzuli]
  13. Juan Bautista de Belaunzarán (1769–1849) andoaindar arkitektoarena da diseinua. 1927an itxi zuten ofizialki. [itzuli]

## GERRA ARTEKO GARAIA

Behin Máximo Aguirreren ibilbidea aztertu ondoren, ez hainbeste merkatari edo enpresari gisa egindako ibilbidea, baizik eta, Bilboko une jakin bateko katalizatzaile gisa, Bildung-aren alde, prestakuntzaren eta heziketaren alde, herritar guztien (zentzu ilustratu garbienean) batasunaren alde eta Bilboko biztanle guztien (guk, lan honetan, Aldecoa eta Nova de Salcedo alkateen bidez polarizatu ditugun kontrako ideologiako guztien) bizi-baldintzak hobetzearen alde egindakoa aztertu ondoren, XVIII. mendean jaiotako belaunaldi bat —guk ezagutzen dugun Bilbo moderno horren sortzaile direnena— aztertzeke unea dugu orain.

Gaztelarazko liburukiko addenda edo eranskinean, horietako berrogeita hamar baino gehiagoren biografia laburra eskaintzen dut, baina, XIX. mendeko Bilboko ibilbide honetarako, hamar bat izen hartu ditut erreferentzia gisa; izan ere, XIX. mendeko Bilbo hori bultzatzeko erabakia hartu eta bertan aberasbidea aurkitu zuten herritar horiek ez ziren oligarkia bat, askotariko jende multzo bat baizik. Horietatik oso gutxi ziren Bilbon jaiotakoak, gehienak Bizkaiko elizateetakoak ziren, batzuk baserritarrak, beste batzuk jauntxoak, arabar batzuk ere bai tartean, Nerbioi Garaia aldekoak, hala nola Urquijotarrak edo Urrutiatarrek, beren aterabide naturalari segituz Bilbora etorriak<sup>1</sup>.

Alde batetik, Lehen Karlistaldiaren aurretik jaiotakoak daude, gerra bizi eta sufritu zutenak, eta, bestetik, artean jaiotakoak edo haurrak zirenak, baina jarduera komertzialaren eta industrialaren agintea beren gain hartu zutenak.

Lehen talde horretan, Madrilgo aberatsenak izatera iritsi ziren eta gaur —aurreiritziagatik, ezjakintasunagatik, edo biengatik— erdeinua jasotzen duten bi daude, eta horietaz arituko naiz. Baserritarren semeak biak, eta Madrilen aberastu ziren arren, funtsezkoak izan ziren gure industriaren, trenbide-sarearen eta banketxeen garapenean: Francisco de las Rivas eta Estanislao Urquijo. Horiekin batera Simón Gurtubayren eta Juan Echevarría La Llanaren semeak ere sartu ziren industrian, baina gurasoek lortutako kapitalarekin egin zuten azken horiek.

Bigarren taldean, María Mestayer Parabereko (sasi) markesa —hala sinatzen zituen bere sukaldaritza-liburuak— aztertuz emango diot amaiera biografien atalari. María Mestayerrek ziklo bat ixten du, atzeritar familia askok bertan beren aberria aurkitu zuten Bilbo liberalarena. Haren aita Bilbon bizi zen merkatari eta diplomatiko frantziar bat zen, eta ama, berriz, bankari frantziar baten alaba zen (gerora Banco de Vizcayak erosiko zuen Jacquet Banketxekoa), Bilbon finkatua hura ere. María Mestayerren pertsonaiak oso ondo laburbiltzen du, beraz, garai hau; izan ere, bere abizenek agerian uzten dute XIX. mendeko Bilboren kosmopolitismoa, eta, gainera, txikitatik ezagutu zuen gastronomia aberatsa dokumentatu zuen.

Bigarren ziklo honi buruz, ondoren, bi etapa aipatuko ditut (XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera), eta lau enpresaburu handi, gure margolariei laguntzen eta ordaintzen dietenak. Lehenengo etapan, José María Martínez de las Rivas eta Víctor Chávarri izango ditugu aipagai, eta bigarrenean, XX. mendean sartuta jada, Ramón de la Sota abertzalea eta Horacio Echevarrieta errepublikazalea alderatuko ditugu.

Bigarren Karlistaldia hasi aurretik, baditugu bi bizkaitar Espainiako aberatsenen artean: Madrilen bizi ziren biak, baina Bilboko enpresa- eta garapen-ekimen ia guztietan zeuden sartuta: Francisco de las Rivas eta Estanislao Urquijo.



Ezerezetik sortutako bi pertsonaia horiei buruz hitz egin aurretik, arestian aipatu ditudan berezitasun soziologiko ia guztiak bere gain dituen pertsona bati buruzko aipamen labur bat egin nahi dut: Tomas José Epalza Zubarán (Bilbo, 1798–Bilbo, 1873) dugu pertsona hori. Epalza XIX. mendea hasi baino bi urte lehenago jaio zen, eta etorkiz Orozkokoa izan arren, hiriburuko hormetatik barrura jaio zen<sup>2</sup>. Hau da, Bilbon jaioa zen, baina Orozkoko landa-nobleziako familia batean zuen jatorria. Indietako karrera egin zuen eta trenbideen akzioduna izan zen. Gainera, 1857an, Banco de Bilbao banketxea sortzeko lehen urratsak egin zituen (akziodun handienetako bat izan zen), bere lehenengo emaztearengandik banatzeko paperak ere egiten zebilela (María de Lequerica, hiriburuko merkatarri garrantzitsu batzuen alaba zuen emaztea)<sup>3</sup>. Behin Auzitegi Gorenak ezkontza baliogabetzea lortu ondoren, bere zalgurdi-gidariaren alaba Casilda Iturrizar Urquijorekin (1826–1900) ezkondu zen<sup>4</sup>. Ezkontzak (1859ko maiatzean) zalaparta handia sortu zuen hirian, eztei-gurdia mandoek —ez zaldiek— tiratuta zihoalako, Casildaren aita etxeko zamaltzaina zela erakusteko. Epalzarrek arrasto nabarmena utzia dute Bilboko eta Bizkaiko historian zehar: familiaren Orozkoko oinetxea 1555. urtean dokumentatuta dago; osaba zahar bat, Martin Tomas Epalza Olarte, Madrilgo Nobleen Apaiztegian hezia<sup>5</sup>, Bilboko errejidore izan zen 1742an eta Jaurerriko Diputatu Nagusi 1746tik 1748ra.

Francisco de las Rivas Ubieta (1809–1882) baserritarren semea zen, Gordexolako Irtzagorria auzoan jaioa. Hamabost urterekin Granadara joan zen, izeba batzuen dendan (Casa Zavala) lan egitera, eta 1834an, Madrilera. Han, harreman estua izan zuen euskaldunen komunitatearekin. Amaren aldetik, osaba indiano bat zuen, Manuel Ubieta, bere arreba guztiei diruz laguntzen saiatu zena. Izaera liberaleko gizona zen, eta desamortizatutako ondasunak erosiz aberastu zen. Lehenengo, Mantxako ardoetan inbertitu zuen, eta, horregatik, Mudelako markes izendatu zuten, 1867an. Diputatuen Kongresurako hautatu zuten Bilboko barrutitik, 1846tik 1851ko hauteskundeak arte. Ez zuen errentetatik bizi nahi izan, eta trenbideetan, finantzetan eta zerbitzuetan inbertitu zuen, baita merkatu nazionalen eta nazioartekoan ere (Latinoamerikan, Londresen eta Europako beste zenbait hiriburutan). 1872an, bigarren aberastasunik handiena izan zen Madrilgo lurralde-kontribuzioan. Kausa liberalari leial beti, aurrerakoien artean lerrokatu zen. 1879an, San Francisco del Desierto galdaketa-lantegia erosi zuen (La Mudela izenez ezaguna), eta egin beharreko inbertsioak eta berrikuntzak egin ondoren, Bilboko Labe Garaiekin eta La Vizcayarekin lehiatzeko moduko siderurgia bihurtu zuen lantegia. Bien bitartean, altzairua fabrikatzeko beste prozesu bat joan zen nagusitzen, “Bessemer prozesua”, Somorrostroko burdin mea hartarako egokiagoa zelako. Ordurako, Franciscoren iloba José Martínez de las Rivas negozioan oso sartua zegoen artekari moduan; aipatu dudan moduan, enpresaren administratzaile egin zen, eta, ondoren, Bizkaiko enpresaburu nagusietako bat bihurtu zen.

Francisco de las Rivas apoplexiak jota hil zen, Madrilen, zezenketa bat ikusten ari zela. 1882ko maiatzaren 9ko El Imparcial egunkariak informazio hau zekarren hari buruz: “Mudelako markes jaunak utzitako dirutza berrehun milioikoa dela kalkulatu da. Inoiz ez zuen kontraturik egin Estatuarekin, eta negozio partikularren bidez metatu zuen kapital handi hori. Bere kontrata garrantzitsuenetako bat Mr. Krupp kanoi-fabrikatzailearen etxearekin egindakoa izan zen”<sup>6</sup>. De las Rivasek saneatutako aberastasuna utzi zuen, ondarearen eta diru-sarreraren dibertsifikazioan oinarritua, likidezia on-onekoa eta etorkizunerako errentagarritasuna bermatuta zuela. Angel Bahamonde historialariak honela dio “La reproducción patrimonial de la elite burguesa madrileña en La Restauración. El caso de Francisco de las Rivas y Ubieta, marqués de Mudela, 1834–1882” saiakera-lan bikainean: “Hil zenean, hirurogeita hamar milioi errealeko dirutza zuen, Madrilgo handienetako bat. Garaiko Madrilgo burgesiaren artean, ondare horrek ez zuen parekorik, bere osaera askotarikoa zela eta. Bere ondarea Zor Publikoaren eta nekazaritza- eta hiri-errenten babespean ugalarazi zuen errentatzailearen kasuan ez bezala, Francisco de las Rivasen balore-zorroan bere enpresa-jarduera zen nagusi. Rivas, funtsean, burges enpresari bat zen, garaiko Madrilgo gizartean eta ekonomian, kuantitatiboki eta kualitatiboki, nagusi ziren burges errentatzaileen beste muturrekoa. Horregatik da berezia. Mahastizaintzaren eta ardogintzaren arloko enpresaburua Mantxan, eta siderurgiaren arloko enpresaburua Bizkaian, horiek izan ziren, hurrenez hurren, haren aberasbide printzipala eta ibilbide ekonomikoaren gailurra”<sup>7</sup>.

Baserritarren semea dugu ere —Nerbioi Garaikoa, Francisco de las Rivesen garaikidea eta antzeko ibillbide biografikoa— Estanislao Urquijo Landaluce (Murga, 1816–Madril, 1889). Laudioko eskolan egin zituen lehen ikasketak. Gero, hamahiru urterekin, Madriler a bidali zuten lan egitera, amaren anaia Antonio Landalucerekin aurrena, eta arrebaren senar Martín Ericerekin ondoren, Toledo kaleko oihal-denda batera. Osabak eta koinatuak, mutil prestua zela ikusirik, Rothschild banketxeko agentea zen Daniel Weisweiler-en enplegatu bezala jarri zuten lanean. 1848an, burtsaren eta higiezinaren arloan hasi zen lanean, inbertitzaile gisa, jada bere kabuz. 1855ean Espainiako Bankuko kontseilari izendatu zuten, eta 1883an, Madrilgo alkate. Halaber, Gorteetako diputatu, Arabako Ahaldu Nagusi eta, hainbat urtetan, senatari izan zen. Urquijok aberastasun handia pilatu zuen, eta zerikusi eta zeresan handia izan zuen Espainiako trenbidearen arloan, XIX. mendeko Espainian. 1871n, Urquijoko markes izendatu zuten. Ezkongabe hil zen, Montera kaleko 22. zenbakian. Areneros kalea zenari haren izena eman zioten: Urquijoko Markesaren kalea. Haren iloba Juan Manuel Urquijo eta Matilde Erice Urquijo (Francisco Cubas madrildar arkitekto gaztearekin ezkondua) izan ziren oinordekoak.

Bai De las Rivas, bai Urquijo, baserritarren semeak ziren biak, eta merkatarik gisa hasi zuten bidea negozioen munduan, baina urteen joanean inbertsiogile eta enpresari handi izatera iritsi ziren. Ezerezetik hasi eta aberastasun handiak pilatu zituzten biek, estatuarekin kontratuak egiteari eta postu ofizialei uko eginda ere (Urquijori bitan eskaini zioten Ogasun Ministerioa —Narvaezek eta gero Primek—, baina ez zuen onartu nahi izan). Eta biak Madrilen bizi arren, harreman estua izan zuten bilbotar ekintzaileekin, Bilbori etorkizun oparagoa ematearen alde lanean zihardutenekin. Kultura eta ongintza sustatzen ere lagundu zuten, sutuki egin ere. Ez bata ez bestea ez ziren errentatik bizi zaleak izan, herritarren etorkizun hobe baten alde apustu egin zuten langile nekazariak baizik. Ez zieten ohiko kapitalizazio-ereduei jarraitu, eta hiria modernitatera eramatea izan zuten helburu<sup>8</sup>.

Urquijok diru kopurua handiak utzi zituen testamentuan Arabako eta Madrilgo eskoletarako, jardunean ari ziren zein jada erretiroa hartuta zeuden maisu-maistren soldatetarako. Beste hainbat laguntza ere eman zituen, Arabako Instrukzio Publikoko Batzorde Probintzialaren kudeaketaren esku utzi zituenak<sup>9</sup>.

Nire lan-fitxak eguneratzean, tristura handia eragin didaten zenbait dokumentu topatu ditut tartean. Urquijo —baserritarren semea, 13 urte zituenetik lanean jardunez Espainiako gizonik aberatsenetako bat bihurtu zena, era guztietako kargu politikoak arbuatu zituen, bere herriaren ordezkari izatearena izan ezik, eta bitartekorik ez zuten haurrak (bere herrikoak bereziki) eskolatzeko dirutza handiak eman zituen— bere herriko hizkuntzalari eta etnografo ustezko baten aldetik hain begirune gutxirekin tratatua ikusteak sortu dit tristura<sup>10</sup>. Urquijori buruz esan izan da bere bataio-agiria erazi zuela Murgako parrokiako erregistro-liburutik bere baserritar jatorria ezkutatzearren, eta bere testamentuan erakutsi zuen eskuzabaltasuna bere bizitzan hainbeste diru irabazi izanaren kontzientzia txarraren ondorio izan zela. Hori dio, behintzat, gaur egungo historiografiak.

Bi gauzatxo baino ez asmo gaiztoko iruzkin horiei buruz: 1886an senatari izendatu zutenean, Urquijok bere bataio-agiriaren kopia ziurtatua aurkeztu behar izan zuen. Hortaz, nola eraziko zuen bere bataio-agiria, bera izan bazen aurkeztu zuena? Bestalde, Urquijok ez zuen inoiz ezkutatu bere jatorri apala. Irakurri, bestela, Ricardo Becerro de Bengoa arabar errepublikazale eta foruzaleak 1889ko maiatzaren 2ko El Imparcial egunkarian argitaratu zuen artikulua: Becerro de Bengoaren arabera, Urquijok beti esan zuen oso haurtzaro pobrea izan zuela, oinez joan behar izaten zuela egunero Murgatik Laudioko eskolara, eta Espainian desagerrarazi beharreko gauza zela hori. Gainera, herritarrak adineko pertsonak zaintzearen garrantziaz kontzientziaztearen aldekoa zen. Horrek ez du zerikusirik aipatu webgunean ematen den bertsio sinplista eta mingarriarekin. Urquijo, de las Rivas bezala, herritar ia kalbinisten ildo horretan dago, Máximo Aguirreren izaeratik gertuago, hau da, herritar zintzo eta ondraduak izateko kalitatezko hezkuntza eskaintzea

ezinbestekoa ikusten zuten horien ildoan. Areago, Urquijok ez zituen inoiz ahaztu Murgatik Laudioko eskolarako ibilaldi haiek, horregatik saiatu zen bere herrikideen seme-alabek halakorik egin beharrik izan ez zezaten.

Antzeko iritziak ikusi izan ditut Francisco Martínez de Rodasi buruz ere. Ondan jaioa, Castelloko probintzian, baina Huescako familia batekoa jatorriz, Martínez de Rodas militarra 24 urte zituela iritsi zen Bilbora, hiribildua defendatzera, Bigarren Karlistaldian. Teniente gaztea Eloisa Arana sestaoarrarekin maitemindu eta ezkondu zen, 1877an. Armada utzi ondoren, Rodas (hala deitzen zioten) meatzaritza arloko enpresaria bihurtu zen, gero lau ontzi-enpresa sortu zituen, Ontzi Jabeen Elkarteko lehendakari izan zen, eta Bizkaiko Itsas Ligako presidente. 1902an, Seguros Aurora aseguru-konpainia sortu zuen. Hil zenean (Portugaletako “El Saltillo” etxean hil zen), haren hileta —Ramón de la Sota bera buru zela— gertaera handia izan zen. Haren alaba bakarra mediku handi batekin ezkondu zen: Enrique Areilza (1860–1926), Bilboko aberatsen eta Trianoko eta Zugaztietako meatzarien medikua, eta Gorlizko Itsas Sendategiaren (1911) sortzaileetako bat<sup>11</sup>. Bada, Rodasi buruz, gure enpresaburu handienetako bati buruz, bizitzaren erdia baino gehiago Portugaleten eman zuen gizonari buruz, hau besterik ez da esaten: “Aurora’ aseguru-etxearen burua Francisco Martínez Rodas izan zen, Huescako militar bat, Hirugarren Karlistaldian Bilbora etorri eta bertako ontzi-jabe nabarmenetako bat bihurtu zena”<sup>12</sup>.

Herrixketan jaio eta, enpresa- eta finantza-arloan, Madrilen hazi ziren bi enpresaburu horien aurrean, Bilbon Lehen eta Bigarren Karlistaldien artean aberastu ziren beste bi gizon aipa ditzakegu: Simón Gurtubay, batetik, eta Juan Echevarría La Llana, bestetik. Simón Gurtubay Zubero (1800–1872), Igorren jaioa, zapatari gisa etorri zen Bilbora, larrugin aritu zen gero (ontzietan olioak eta ardoak garraiatzeko zahagietarako larruak ontzen), eta, azkenik, bakailaoketari jardun zuen. Nahasmen baten ondorioz aberastu zen, karlisten lehen setioa baino pixka bat lehenago milaka bakailao gazitu erostean. Gurtubayk —Gurtubay e Hijos elkartearen bitartez— hainbat enpresatan inbertitu zuen dirua, baina batez ere Bilbo-Tutera trenbidearen sorreran eta Banco de Bilbao banketxearen jaiotzan (kontseilari izendatu zuten 1866an). Era berean, petrolioa fintzeko lantegi bat ireki zuen, Fourcade & Gurtubay, 1868an. Bilboko Zazpikaleetatik kanpora joatea erabki, eta jauregi bat eraiki zuen Campo Volantinen, Posta kalea utzita. Haren semeek beren gain hartu zituzten negozioak, eta haietako batzuk Madrilgo nobleziarekin ahaidetu ziren, edo beste auzokide batzuekin, Zabalgunearen proiektua diseinatu zuen Pablo Alzola ingeniariaren alabarekin, adibidez. Bakailaoketari hau Albako dukesa Cayetanaren herenaitona dugu, eta Yurreta eta Ganboako markesa Blanca Alzolaren birraitona.

Bakailaoaren inportazioari lotutako beste pertsona bat Juan Echevarría La Llana da (Bilbo, 1803–Bilbo, 1881). Landa-nobleziakoa jatorriz, Bilbon jaio zen, eta hainbat lursail oinordetu zituen Abandon eta Begoñan, bai eta Burtzeña, San Bizente, Landaburu eta Erretortu auzoetan ere. Ez zuen errentetatik bakarrik bizi nahi izan; aitzitik, inguruko txakolin-ekoizle nagusietako bat bihurtu zen. Bilboko alkate izan zen 1843an eta 1845–47 bitartean. Aldundiko buru ere izan zen, eta Madril-Irun trenbidea Bilbotik igaroarazteko Proiektua bultzatu zuen. 1873an, Echevarriak hamabi milioi erreal inguruko kapital indibiduala zuen, Banco de Bilbao banketxeak eta Epalzaren alargunak zeukatenaren antzekoa. Haren semeak —Alfredo Echevarría, Villagodioko markesa Concepción Bengoarekin ezkondua— zezen-plaza eraiki zuen Indautxun, eta zezen-ganadutegi bat izan zuen, Bilboko zezenzaleen arabera, zezen “ahulak” zituena; hortik Bilboko txuletoi ezagunek (aurreko azpizun-piezek) bere izena hartu izana.

Horra, beraz, gerra arteko Bilbo hura egituratu zuten lau aberastasun-iturriren errepaso laburra. Bilbo hark industriarako eta modernitaterako bidea hartu zuen jada, baina artean baziren beste garai batzuetako pertsonaiak ere. Garai hartako gertaera aipagarri bat Jorge Sarachaga Urriaren bigarren seme Alejo Sarachagaren bataioa izan zen, San Nikolas elizan<sup>13</sup>. Izan ere, Jorge Sarachaga Errusiako enperatrizaren ganberazain izandako Catalina Lobanoff de Rostoff printzesarekin ezkondu zen, 1840ko azaroan. Sarachagatarrak —Gueñesko leinu zahar bat— Bilbon finkatuta zeuden<sup>14</sup>. Bataiatutako mutilaren aitona alkate izana zen, 1804an eta 1808–09 bitartean, eta 1810ean, Manzanaresko prefektu eta

Mantxako intendente izendatu zuen José Bonapartek; hau da, frantsestu bat zen, orduko “gobernu arrotzaren” kide bat<sup>15</sup>. Haren emazte María Uría, hiriko emakumerik ederrenetako bat omen zena<sup>16</sup>, Badengo Dukerri Handira erbesteratu zen Napoleonen aldeko jeneral batekin<sup>17</sup>. Bataio ondoko festa Gómez de la Torre-Mazarredotarren jauregi-etxean ospatu zen (aitona bezala, frantsestuak haiek ere). Jorge Sarachaga, emazte “errusiarra” zuena, hiru urte geroago hil zen, Alemanian, pistola-duelu batean<sup>18</sup>.

Bilbo txiki baina handizalea dugu 1841ekoa, kosta ahala kosta hazteko irrikaz dagoena: Abandoko zabalgunea, Olabeagatik eta Deustutik beherako kaiak, Abraren erabateko kontrola, Areatzako lorategia, erriberan zeharreko gas-argiztapena, trenbideak, eta, jakina, jada aipatua dugun guztia, hau da, Labe Garaiak, banketxeak, burtsa eta lurruntziak eraikitzeak ontziolak. Merkatariek eurek ere, tokiko ogi- eta bakailao-azoketatik harago zabaldu nahi zituzten beren produktuak, Burgostik barrena Gaztelarantz, Zaragozatik barrena Aragoirantz, baita beste hiri eta herrialde urrunago batzuetara ere, hala nola Liverpoolera (Ingalaterra). Zalantzarik gabe, Bilbon bazegoen anbizioz eta dinamismoz beteriko enpresari-talde oparo bat. Edozer ikusten zuten negozio-iturri: ogia, ardoa, sokagintza, gatza, aingurak, artekaritza... Sektore orotan zeuden aukerak, eta horiek ustiatzeko prest zeuden, baita haien balio erantsia ere, horien guztien aseguru bidez.

Bestela, ezin da ulertu XX. mende hasierarako Bilbon kapitalismoa horren indartsu egotea, ekonomiako ekoizpen-sektore guztietan egon ere, eta hainbeste aberats itzaltsu egotea, ezberdintasun politikoak gorabehera, gai zirenak, beren aitonek egin zuten bezalaxe, desberdintasun horiek alde batera uzteko komunitatearen onura eta euren oparotasun etengabea lortze aldera.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Ikus liburuki honetako kapitulu hau: “Aurreiritziak: oligarkia”. [itzuli]
2. Epalza Bizkaiko antzinako leinu bat da, Asuatarren eta Basurtotarren filiala, eta, horregatik, Salcedo etxearen eta Aragoiko eta Nafarroako Don Vela infantearen ondorengoa. Bi infantzoi-oinetxe ezagutzen dira, eta horietako bat Orozkoko haranean dago, 1555ean dokumentatua. [itzuli]
3. María Concepción Lequerica Bergareche (1800–1857) Epalzarekin ezkondu zen, 1817an; Enrique Lequericaren eta José Félix de Lequerica enbaxadorearen izeba zaharra zen. Enrique Pilar Careaga alkatesarekin ezkondu zen, eta José Félix, Epalzaren antzera, familiaren esneketariarekin, 1942an, Parisen. [itzuli]
4. Tomás José de Epalza eta María de Lequerica senar-emazteen ezkontza deuseztatzea, Artxibo Historiko Nazionala, Estatua, 7489. paper sorta, 153. exp. Lehen Konkordatua sinatu aurreko prozedura zenez, azken agiria Auzitegi Gorenean bideratu zen, hura zelako une hartan Espainiako jurisdikzio kanonikoan instantzia gorena. Auzitegi Gorenaren epaiak Tomás José de Epalzari eman zion arrazoia, eta prozesu-kostuak ordaintzera kondenatu zuen María Lequerica. [itzuli]
5. Nobleen seminarioa, 1725ean Felipe V.a erregeak noble gazteen heziketarako sortua, Jesusen Lagundiaren aiten ardurapean egon zen, Printzesa kaleko eraikin batean. [itzuli]
6. *El Imparcial* egunkaria, 1882ko maiatzaren 9a, 582. or. [itzuli]
7. Angel Bahamonde Magro eta Luis Enrique Otero Carvajal: “La reproducción patrimonial de la elite burguesa madrileña en La Restauración. El caso de Francisco de las Rivas y Ubieta, Marques de Mudela, 1834–1882”, *La sociedad madrileña durante la Restauración, 1876–1931*, Madril, 1989, 524. or. [itzuli]
8. Egoki adierazia dute hori Luis Castellsek eta Antonio Riverak Notables e intrusos. Elites y poder en el País Vasco (1876–1923) lanean: “Garai hartako bi enpresaburu enblematikoenek ez zituzten ohiko kapitalizazio-arauak bete:

- Estanislao Urquijo Landaluce (Urquijoko lehen markesa) eta Francisco de las Rivas y Ubieta (Mudelako lehen markesa) enpresariez ari gara. Handik gutxira, Madrileria emigratu zuten —Franciscok, hamabost urterekin; Estanislao, hamahiru urterekin—, eta biak ahaideen etxeetan bizi izan ziren. Hori, azken finean, funtsezkoa izan zen haien karrera arrakastaz hasteko. Biak senideen saltokietan hasi ziren lanean, han ikasi zituzten ekonomia-jardueraren hastapenak, eta haietan oinarri hartuta ekin zieten gero enpresa handiagoei”. [itzuli]
9. José Carlos Rueda, “Préstamo y finanzas durante la segunda mitad del siglo XIX: una aproximación a la figura de los Urquijo”, *Historia Contemporánea*, 13–14, 1996, 297–322. or. [itzuli]
  10. *El arca de no sé*, Felix Mugurutzaren bloga Deia egunkarian: <https://blogs.deia.eus/arca-de-no-se/tag/marques-de-urquijo/> (azken ikustaldia: maiatzak 1, 2020): “Haren bataio-agiria, modu misteriosuan, Murgako parrokiako erregistro-liburutik erauzia dago. Haren jatorri apal eta baserritarra ezkutatzeko asmoarekin lotu izan da beti gertaera hori, lotsagarri-edo zitzaion iragan batekin hausteko keinu bat izan litekeena. [...] Estanislao sinesmen handiko gizona zen, eta, urteetan aurrera egin ahala, gero eta deserosoago sentituko zen bere buruarekin, kontzientzian mailuka ariko zitzaizkion zalantza horienegatik, [...] deigarria egiten zaigu eskualdeko nekazariak eta abeltzainak laguntzeko, sustatzeko eta ekonomikoki saritzeko bere testamentu-mandatuak. Horra errealitate beraren bi aldeen arteko berrelkartzea, agian: aristokrazia harroaren aurrean ezkutatzeko saiatu zena ezin Jainkoaren aurrean ezkutatu. Irtenbide post mortem bat emango zien horrela hain astun zitzaizkion arrangurei”. [itzuli]
  11. Areilzaren heriotzaren kariak, hainbat heriotza-ohar argitaratu zituzten: Ramiro de Maeztuk *El Sol*-en, Indalecio Prietok *El Liberal*-en, Manuel de La Sotak *Excelsior*-en eta Juan de La Cruzek eta José Felix de Lequerikak *El Pueblo Vasco*-n. Vicente Blasco Ibañez-en *El Intruso* (1904) eleberriko Luis Aresti doktoreaaren pertsonaia Enrique Areilza bera da. [itzuli]
  12. Koldo Somokueto Pérez (1981) historialariaren “Compañías de Seguros de Bilbao” artikulua: <https://communityofinsurance.es/2020/01/05/companias-de-seguros-de-bilbao/>. Eskerrak beste biografia batzuk partzialagoak diren: “jaiotzez portugaletarra ez izan arren, bertan eraman zuen aurrera bere familia-, ekonomia- eta politika-bizitza”. (Portugalete en la Revolución Industrial (1850–1936). Biografías. Egileak: Martínez Huerta, Inmaculada; Iturbe Zulaika, Mercedes; Suárez Carro, Begoña <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/lankidetzan/12/12001091.pdf>) [itzuli]
  13. Jorge Sarachaga Uría-Nafarrondo: Manzanarezen jaio zen, Ciudad Realen, 1810ean, eta Bordelen hil zen, 1845ean. Manzanarezen jaio zen, haren aita, Florentino Sarachaga, Mantxako intendente zelako, José Bonapartek izendatua. 1837an ezkondu zen, Errusian, Catalina Lobanoff de Rostoff Kucheleff-ekin (San Petersburgo, 1815–Florentzia, 1847), eta bi seme-alaba izan zituzten: Esperanza Sarachaga Lobanoff (1839–1918), Friedrich Truchsess von Wetzhausen kondearekin ezkondua (1862an); eta Alejo (1840–1918), Bilbon jaioa. Sarachaga (Freiherr Georg von Sarachaga-Uría) 1843ko abenduaren 14an hil zen, Oggersheim-en, Worms-etik gertu, Moritz von Haber bankariarekin (1798–1874) izandako pistola-duelu batean. Duelua garaiko prentsan jasota dago, albiste da *Kemptner Zeitung*: 1843 egunkarian. Dannheimer, 1843. 1885ean, Esperanza eta bere anaia Alexis umezurtz geratu berri ziren bi ahaideren tutore bihurtu ziren: Ricardo Sarachaga Arribalzaga eta Gloria Sarachaga Arribalzaga. Esperanza 1914ko urtarrilaren 28an hil zen, Cannesen, Frantzia, eta Munichen lurperatuta dago, senarraren ondoan. Hermitage Museoko artxiboetan bada S. L. Levitsky argazkilaria 1858an atera zion erretratu bat. Haren amaren aldeko aitona-amonen erretratu bat, Alexei Lobanov-Rostovsky printzea eta haren emaztea, Kucheleff kondesa (1814, olio-pintura mihise gainean, 133 x 116 cm), Errusiar Museoan dago, San Petersburgon. Gloria Sarachaga Arribalzaga 1952ko urriaren 6an hil zen, 74 urterekin, Forest-en, Guernsey irlan. Gaur Stephanie Sarachaga-Bilbaok du titulua. Gloria Sarachaga Arribalzaga 1952ko urriaren 6an hil zen, 74 urterekin, Forest-en, Guernsey-n. Egun, Stephanie Sarachaga-Bilbaok du titulua. Haren neba Mariano von Uría-k (Valentzia, 1812–Karlsruhe, 1876) zuzenbide-ikasketak egin zituen Heidelbergeko Unibertsitatean, eta Badengo Dukerri Handiko goi-funtzionario bat izan zen. Ama, María Micaela Uría, bigarren aldiz ezkontzean (1826), Badengo Carl von Lassolaye (1784–1863) alemaniar ofizialaren semeorde bilakatu zen. 1844an, Mannheimeko Behe Rhin barrutiko gobernu-kontseilari izan zen. Haren alaba, María, Prusiako baroi eta teniente jeneral Franz Freiherr Neubronn von Eisenburg-ekin ezkondu zen, 1871n. [itzuli]
  14. Florentino Sarachaga Izarduy (1778–1824): Bilboko alkate izan zen 1804an eta 1808–09 bitartean. Manzanareko prefektu eta Mantxako intendente izendatu zuten 1810ean, eta han jaio zen bere seme Jorge Sarachaga Uría. Ondasunak konfiskatu zituzten, frantsesek izateagatik. Hiru seme-alaba izan zituzten —Jorge (1810–1843), Mariano (1812–1876) eta María Leopoldina (Karlsruhe, 1815–1815)— María Micaela Uríarekin (1792–1853), José Ramón

- Urrutia jeneralaren iloba eta oinordeko unibertsala izan zenarekin. María Uría Alcedo [Fernando VII.a] jaunari, Karlsruhe, martxoak 8, 1816, Artxibo Historiko Nazionala, E, 5333. paper sorta, 109. zk.: Espainiara itzultzeko baimena eskatzen du, eta azken sei urteetan Sarachagaren aldetik tratatu txarrak jaso dituela adierazten du. Sarachagak Almagron emandako denboraz, ikus AHN, Inkisizioa, 4499. paper sorta, 20. esp.; eta Juan Blázquez Miguel eta beste: Historia de Almagro: Ponencias/Premios Ciudad de Almagro, Ciudad Real, 151. or., Almagroko Udal Artxibo Historikoa aipatuz, 176. paper sorta, 4804. dok. [itzuli]
15. Badengo Dukerri Handia (alemanez, Großherzogtum Baden) Alemaniako hego-mendebaldeko estatu historiko bat izan zen 1806tik 1918ra. Karlsruhe zuen hiriburua. Hango margavea bandoz aldatu zen 1805ean, eta Napoleonen alde jarrita, eta, Presburgoko bakearen bitartez, Badengo Duke Handia bilakatzea lortu zuen. [itzuli]
16. Camilo de Villavaso (Bilbo, 1838–Bilbo, 1889): idazle, kazetari eta politikari foruzalea. Gorteetarako diputatua izan zen Berrezarkuntza garaian. Bilboko Udaleko eta Merkataritza Ganberako idazkari izan zen. Bilbainos ilustres liburuan (Euskal-Erria: revista vascongada, 1881), hau idatzi zuen: “María Micaela Uría y Alcedo andrea, zeinaren egiazko sinadura ezartzen baitugu hemen, Jose Bonaparte erregearen gorteko damarik ezagunenetako bat izan zen, bere edertasunagatik, bere grazia eta azkartasunagatik, eta bere adeitasun aristokratikoagatik. Noble-jatorrikoa bera, Florentino Sarachaga Bizkaiko herrialdeko etxe zahar eta nagusienetako bateko ordezkariarekin ezkondu zen. Florentino Sarachaga horrek —Urquijo ministro ospetsuaren lagun min eta hurbileko ahaide zenak— frantsestuen alde egin zuen, eta Mantxako intendente kargua izan zuen, Jose I.a erregearen agindupean. Haren emaztea, gorte arrotz hartako konstelazio distiratsuenetako bat bezala nabarmendu ondoren, bigarrenez ezkondu zen inperioaren zerbitzura zegoen koronel alemaniar batekin. Gizon hori teniente jeneral eta baroi izatera iritsi zen Badeneko Dukerri Handian”. [itzuli]
17. Carl von Lassolaye (1784–1863): militar alemaniarra. Badengo Dukerri Handiaren eta Napoleonen zerbitzura jardun zuen, eta, Espainiako kanpainan parte hartu zuen. Artilleriako jeneral izatera iritsi zen. Deutsche Division delakoaren tropetan borrokatu zen (1809ko uztailaren 29tik aurrera, Napoleonen aginduz, Rheinische Bundesdivision deiturikoan). María Uríaz maiteminduta (1808), alaba bat izan zuen harekin, 1815ean, Karlsruhe-n, baina jaio eta hilabetera hil zen haurra. 1826an ezkondu zen Mariarekin, hura alargun geratu ondoren. 1848an, Rastatt gotorlekuko gobernadorea izan zen. Karlsruhen hil zen, 1863ko urriaren 31n. Ikus Ettlingen-eko Karl Franz von Holzling (1787–1839) ofizial gaztearen memoriak, Unter Napoleon in Spanien: Denkwürdigkeiten eines badischen Rheinbundoffiziers (1787–1839) (Max Dufner-Greif-en edizioa, Hans von Hugo, Verlag, Berlin, 1936, 40–41. or.). Bertan, Lassolaye kapitainak Mariarekin Florentinoren etxean izandako topaketa kontatzen da, haien arteko maitasun-harremana eta ezkontza-deuseztapenaren saiakera (1814): “Um jenem Morgen knüpfte sich das Schicksal an, das über ganz Europa hin bekannt und besprochen wurde”. 1808ko azaroren 4an izan zen topaketa. Mariak seme bat zuen ordurako. <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/applet/libros/JPG//313073/313073.pdf> Testu horri buruz, Hiltrud Friedricke Stegmann-ek dio (hemen: “Memorias de alemanes en España durante la Guerra de la Independencia. La estancia de Philipp Schwein en la isla de Cabrera”, Espacio, Tiempo y Forma, IV. saila, 16. libk., 2003, 359-90 or.) Karl Franz von Holzlingen liburua bere editorearen eleberri bat dela beste ezer baino gehiago. Genealogia eta Heraldika Zientzien XV. Nazioarteko Biltzarrean (Madril, 1982/09/23–25, Madril, 1983. 2. libk., 350. or.), esaten da seme-alabak Lassolayerenak ere badirela. Berdin hemen: Wilhelm Friedrich Karl Stricker, Die Deutschen in Spanien und Portugal und den spanischen und portugiesischen Ländern von America, 73. or. [itzuli]
18. Alejo Sarachaga (1840–1918): Bilbon jaioa, Sarachagoffeko Baroia 1862tik (Alexandro III.a Errusiakoa tsarrarengandik jasotako titulua), Zuricheko Politeknikoan egin zituen ikasketak, Estatu Ministerioan eskaini zituen bere zerbitzuak, agregatu diplomatikoa izan zen Parisen, Espainiako Enbaxadan, baita, geroago, San Petersburgon ere. Etxeko atean hotzez hildako haur bat topatzeak bizitza aldatu zion. Víctor Drevon jesuita ezagutu zuen 1873an, eta Hiéron du Val d’Or elkarte esoterikoa sortu zuen, baita Musée du Hiéron ere, 2015eko abenduaren 21etik monumentu historiko bezala katalogatua, arte sakratuko museo bat Paray-le-Monial-en, Borgoinako hegoaldean. Museoko bilduma nagusia Eukaristiaren inguruko artelanez, pinturez eta eskulturez osatuta dago. Berrogeita bost urtez bizi izan zen han. 1903an, Eugénie Championekin ezkondu zen. Karlos III.aren Gurutze Handia jaso zuen. Zientzia- eta arkeologia-ikerketako 28 liburuki argitaratu zituen bere Ezagutza Unibertsala proiektuaren barruan. Ikus G. Noaillat eta F. de Rosnay-ren liburu hau: In Memoriam: le Baron Alexis Sarachaga, Paris, 1918. [itzuli]



## BIGARREN KARLISTALDITIK AURRERA

Aurreko mendeko ohiko merkataritza-jardunbideei asmo handiagoko beste batzuk gehitzeko erabakia hartuta atera zen Lehen Karlistalditik Bilboko hiria. Zazpikaleetan era askotako giza taldeak bizi ziren elkarrekin —ahaide nagusiak, indianoak, merkataria eta dendarien seme-alaba gazteak (Frantziara, Belgikara edo Ingalaterrara ikastera joaten zirenak)—, eta horrek aukera berriak bilatzeko giroa sustatzen zuen: hiria fisikoki “zabaltzeko” ez ezik (Areatzako proiektua, Zabalgunekoa, Abrako kanpoko portukoa, trenbide komunikazio eta garraiorako proiektua, etab.) komertzialki ere “hedatzeko” nahia (mea-esportazioa, atzerabidezko inportazioa eta igorpen-merkataritza).

Bigarren Karlistaldiaren ondoren, oligarkia horrek —ez zen, berez, oligarkia bat, ez baitziren bost edo zortzi familia soilik, askoz gehiago baizik— politika nazionalen parte hartzea erabaki zuen<sup>1</sup>.

Hori bi ikuspegi ezberdinetatik azter daiteke —eta aztertu da dagoeneko—, baina, funtsean, analisia berbera da:

1. “Bizkaiko ekonomia eta politika ‘zortzi edo hamar familiak’ kontrolatuta zegoen, eta familia horiek erakunde demokratikoen lotsagabeko ustelkeriarengatik eusten zioten beren nagusitasunari. Boterearen monopolio hori eta boterea erabiltzeko modu hori funtsezko elementuak izan ziren jauntxo (sozialista, errepublikano zein nazionalista) horien aurkako politikak izan zuten hedapen azkarra ulertzeko”, Javier Corcuera historialariak adierazi duenez<sup>2</sup>.
2. “Pertsona horiek garbi ikusi zuten politikaren laguntza beharko zutela, Bizkaiko industria handitzeko asmoa aurrera eramango bazuten. Beraz, Bizkaiko hautesleak —batez ere Bizkaikoak— bereganatzea erabaki zuten, behin herriko ordezkariak kontrolpean edukita, haiek beren gogara erabiltzeko —udal korporazioetan eta nazioko Gorteetan— eta beren proiektu patriotikoaren zerbitzura jartzeko. Une politikoa oso egokia zen: irrika foruzaleak indarra galdu zuenez, aukera ezin hobea zen Bizkaiko ontzia, lema-kolpe bat emanda, asmo handiagoko helburuetara bidean jartzeko”, Francoren lehen urteetan meatzari haien bilobetako batek, Javier de Ybarrak, laburbildu zuen bezala<sup>3</sup>.

Alde batetik edo bestetik begiratuta, lehenengo “industriaren kapitain” horien jatorria, lan egiteko modua eta funtzionamendua oso antzekoak ziren beren koordenatu ekonomiko eta politikoetan. Baina ez da egia, bi testuek diotenaren kontra, zortzi edo hamar familiak baino ez zutelako parte hartu industria-garapen horretan; askoz gehiago izan ziren, nahiz eta “kapitainak” oso gutxi izan, eta ideologia kontrajarrietakoak: izan ere, ezin dira zaku berean sartu Cosme Echevarrieta eta Eduardo Víctor de Lecea, edota, geroago, Ramón de la Sota eta Horacio Echevarrieta, edo Juan Tomás Gandarias eta Pedro Eguillor.

Nork bere nortasuna zuen, ordea, besteetatik desberdina, baita ideia politiko kontserbadore berdinak zituzten eta Batasun Liberala —“La Piña” deitua (1897)— erakundeko kide zirenek eurek ere (izatez, monarkiko kontserbadoreak). Dena dela, probintziako erregezale guztiek ez zituzten ontzat hartu haiek erabilitako prozedurak eta egindako hauteskunde-iruzurrak<sup>4</sup>.

Politikan sartu ziren enpresaburu berri horien bi adibide —eta ez ziren sartu kastako politikariak zirelako, ekonomia eta lurraldea kudeatzeko modu jakin bat defendatu nahi zutelako baizik— Bilbon jaio ez baina bertan bizi izan ziren bi pertsona dira: José María Martínez de las Rivas (1848–1913), diputatu 1891tik, eta Víctor Chávarri (1854–1900),



diputatu 1886tik. Biak ziren monarkikoak eta kontserbadoreak, biek errefusatu zuten erregeak eskainitako noblezia-titulua, biek zuten itsasorako eta estropadetarako zaletasuna, eta biak izan ziren La Piña delakoaren kide sortzaileak, baina, hori bai, proiektuak abian jartzeko eta aurrera eramateko modu zeharo desberdinak zituzten biek.

Lehena diputatu kontserbadore bat zen, Galdames familiakoa<sup>5</sup>, Batasun Liberala (Bizkaiko industrialari monarkiko kontserbadoreen batasun politikoa, “La Piña” deitua) erakundearen kide sortzailea, Víctor Chávarri bezala. Talde horretan, goian aipatutakoez gain, Chávarriren alderdiko kideak aurkituko ditugu, hala nola José María Linaza, baina baita Federico Solaegui bezalako errepublikanoak ere<sup>6</sup>.

Martínez de las Rivasek Londresen egin zituen ikasketak, eta handik bueltan, hogeita hiru urte eskasekin, amaren aldeko osaba Francisco de las Rivas Ubietaren negozioen ardura hartu zuen. Osabak —Mudelako lehen Markesak— San Frantzisko burdina-fabrika sortua zuen Sestaoko Basamortuan, Karmeldarren komentu izandakoren lurretan. Itxura denez, komentu hartan (non fraideek ur gaziko ureztatze-sistema bat zeukaten baratzea erregadiatzeko) egon zen konfinatuta garai batean Félix María Sánchez de Samaniego alegiagilea. San Frantzisko fabrikaren ondoan Astilleros del Nervión ontziolak eraiki zituen gero. 1874an, Laguntzaileen Batailoiaren hartu zuen parte, karlistek ezarritako setioaren aurkako borrokan.

Martínez de las Rivas XIX. mendearen azken laurdeneko “industriaren kapitain” haietako bat izan zen, eta arlo guztiak landu zituen: meatzaritzan eta burdingintzan jardun ondoren, hirugarren urrats bat egin zuen, erabakigarria bere enpresa-sarea sendotzeko, eta ontzi-jabe bihurtu zen (bi bapore erosi zizkion 1876an Somorrostro Iron Ore konpainiari); laugarren urratsa Banco de Bilbao eta Banco de Comercio banketxeetan parte hartzea izan zen; eta bosgarrena, oso urrats ausarta, ontzigintzan ere jardutea (korazatuak egin zituen itsas armadarako). Martínez de las Rivas itsasgizon petoa eta ur-kirol zale amorratu izan zen. Haren seme Santiago ere nabigatzaile ospetsua izan zen<sup>7</sup>. Abrako ontzirik onenak izan eta gobernatu zituen, eta ontzioletan lanean zituen arotz zaharrek alemaniarren eta ingelesaren diseinua berdintzeko gai izan zitezkeela pentsatzen zuen. Gizon diskretua izan zen, zorrotza bere buruarekin eta bere seme-alabekin, eta ez zuen onartu ez omenaldirik ez titulurik.

Enpresari berezia izan zen, Máximo Aguirrek Bilborako nahi izan zuen Bildung haren oinordekoa. Martínez de las Rivas langileen alde atera zen hainbatetan: 1890eko meatzarien greban, lehena izan zen derrigorrezko barrakoiak ezeztatzen; 1910ekoan, lehena izan zen langileen lanaldia murrizten, eta Ugazaben Elkartetik kanporatu zuten horregatik<sup>8</sup>; Bizkaian 1911n egin zen greban, aberastasunaren zati handiena langileei zor ziela adierazi zuen. Handik urte batzuetara, 1918ko meatzarien greban, bere langileen lanaldia murriztu zuen. Bilbo, Londres eta Madril artean bizi izan zen, eta azken hiri horretan hil zen, Espainiako gizonik aberatsenetako bat bihurtua ordurako.

Hona ekarri nahi dudana bigarren pertsonaia Víctor Chávarri da (1854–1900), Portugaletekoa, El Leon izenez ezaguna. Hitz gutxiko gizona izan zen, politikoki liberal-kontserbadorea, bere ideia guztiak atzerapenik gabe gauzatzen zituena. 1900eko apirilaren 7ko *La lucha de clases* astekari sozialistak honela idatzi zuen haren hil-oharra: “Langileentzat benetako tiranoa izan da Chávarri jauna, bihotzik gabeko esplotatzaile bat... Gizon gisa, gorroto zaitugu; industrialari gisa, miresten”. Sabino Aranak Víctor I.a Bizkaikoa deitzen zion. Enrique Areilza medikuak, Trianoko meategietako langileak artatu zituenak, Chávarri enpresari gogorraren bertsio dibertigarriagoa utzi zigun: “Uste duzue Jainkoa Chávarri bezalakoa dela, goizean idazmahaian eseri, eta, paperak begiratu bitartean, zera esaten diola mendekoari: gaur euria bota dezala, Maurizio Belostikalekoari loteria egokitu dakiola, Ollerietako emakume potolo hori hil dadila eta jo dezala baztangak kale-garbitzaile begibakarra”<sup>9</sup>.

Chávarrik ingeniaritza-ikasketak egin zituen Liejan, eta, handik bueltan, Bigarren Karlistaldia amaituta, oinordetzan jasotako meategiak berraktibatzeari ekin zion, bere anaia Benigno, Leo eta Felixekin batera. La Vizcaya (Bizkaiko Labe Garaien aurrekaria) sortu ondoren, siderurgia mota guztiak ekoiztu zituen, hala nola, galdaketa, ijeketa, trenbideko makineria eta materialen, itsasontzien eta osagarri mekanikoen eraikuntza. 1886ko apirilean, inportazio eta esportazio legeen aurka borrokatzeko, politikara bete-betean jauzi egitea erabaki zuen.

Laurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera, Zabalguneko urbanizazio-proiektuetan jardun zuen buru belarri. Bere jabetzapeko lehen etxea —Portugaletoko jaiotetxea alde batera utzita— Plaza Eliptikokoa izan zen (gaur egun Gobernu Zibilaren egoitza dena)<sup>10</sup>. Langileek Bilbon egin zuten lehen manifestazioan, lanaren nazioarteko egunaren kariaz, Kale Nagusian zehar desfilatu zuten, Chávarriren etxearen aurrean egon zirenean protesta eginez<sup>11</sup>.

1890. urtea amaitu baino lehen, Chávarrik beste ekimen bat jarri zuen martxan: Papelera del Cadagua paper-fabrika. Denbora hartu zuen, baita ere, Sociedad de Fomento de la Cría Caballar Vizcaína (Bizkaiko Zaldi Haztegia Sustatzeko Elkarte) sortzeko, bestelako jarduera batzuetan ere kide izan zituen beste enpresari batzuekin batera: Murrietarrak, Aguirretarrak eta Arellanotarrak. Era berean, nabigatzaile ona izan zen, Martínez de las Rivas bezala: Bilboko itsasadarreko XIX. mendeko ontzirik onenak izan zituzten biek<sup>12</sup>.

Bitxia bada ere, bi pertsonaia horiek behin baino gehiagotan egin zioten aurre elkarri. Martínez de las Rivasek 1891ko urtarrilean egin zuen jauzi politikara, eta Chávarrirekin (1886az geroztik diputatua) lehiatu zen Gorteetarako hauteskundeetan, bai eta hura garaitu ere<sup>13</sup>. Chávarrik azkar erreakzionatu zuen: hilabete geroago, otsailean, bere burua Senaturako hautagai aurkeztu zuen, eta Pablo Alzola ingeniaria garaitu zuen<sup>14</sup>. Baina are jokaldi hobea izan zen, haren aldetik, Martínez de las Rivas eta beste enpresari batzuk konbentzitzea enpresaburuen interesak defendatzeko patronal bat eratzeke beharraz eta nazionalistengandik eta sozialistengandik —baita Madrilgo politika protekzionisten ondorioz ezarritako muga-zergetatik— babestuko zituen talde politiko bat osatzeko premia. Hala sortu ziren, 1894an, Bizkaiko Ekoizleen Liga<sup>15</sup>, eta 1897an, Batasun Liberala<sup>16</sup> (“La Piña” deitzen zutena).

Ligak eta La Piña delakoak Bizkaiko meatzarien patronalaren buru bihurtu zituzten Chávarri eta Martínez de las Rivas. Biak ala biak meatzaritzatik siderometalurgiara, trenbideetara eta era guztietako enpresetara igaro ziren. Prestakuntza tekniko handia eskuratua zuten biek atzerrian, eta prestakuntza hori erabakigarria gertatu zitzaizen enpresa-ekimen horiek guztiak aurrera eraman ahal izateko. Biak ziren ezkerraldeko elizateetako nekazarien bilobak, batetik, eta hiribilduko merkatarien bilobak, bestetik; biek jakin zuten uztartzen lana familiatik jasotako herentziarekin, ez bakarrik herentzia materialarekin (dirua edo meatokiak), baita espiritualarekin ere (akordioak lortzeko gaitasuna, merkataritza ororen oinarria)<sup>17</sup>. Biek ere uko egin zioten zegokien noblezia-tituluari<sup>18</sup>. Chávarrik zioen aski zuela on Víctor deitzea, besterik gabe.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Ikus liburuki honetako “Oligarkia” kapitulua. [itzuli]
2. Javier Corcuera Atienza, *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco, 1876–1904*, Siglo XXI argitaletxea, Madril, 1979, 142–43. or. [itzuli]

3. Javier de Ybarra Bergé, *Política nacional en Vizcaya*. Instituto de Estudios Políticos, Madril, 1948, 104–05. or. [\[itzuli\]](#)
4. Eduardo J. Alonso Olea, *Víctor Chávarri (1854–1900). Una biografía*, Eusko Ikaskuntza eta Portugaleteko Udala, Donostia, 2005. [\[itzuli\]](#)
5. Martínez de Lejarzatarak Gueñesko Lejarza auzokoak ziren jatorriz. José María, Santiago Martínez de Lejarza Escarzagaren semea (1815–1888), Lejarza jauregian jaio zen, Larrea-Galdamesen. 1853an, jauregi bat eraiki zuen Portugaleteko El Cuervo bidean, Saltoko hondartzaren gaineko malkarraren eta Santurtzirako errepidearen artean. Jauregiak hondartzara jaisteko bide pribatu bat zuen, labarrean behera. Lursail hori udalerrinari laga zitzaion XX. mendean, parkea handitzeko. Esan ohi denaren kontra, José María Martínez de las Rivasek (1848–1913) ez zuen bere osaba Francisco ospetsuaren itzalaren eraginez hartu Martínez de las Rivas abizena, jatorrizkoa utzita; izan ere, Galdamesen, Martínez de las Rivas bezala agertzen da jaiotza-agirian (1848ko irailaren 29an). Diputatu (1891n) eta Erresumako senatari izan zen, eta Itsas Merituaren Gurutze Handia eman zioten. Aitzitik, uko egin zion noblezia tituluari. Manuel Aznarrek oker egotzi zion liburu baten egiletza *Un siglo en la vida del Banco de Bilbao* (Espasa Calpe, Madril, 1957) lanean: “eta bizkaitarra zenbateraino zen noblea neurtzeko, ikus dezagun zer dioen Martínez de las Rivasek bere Mando en la chimenea ahaztuan: —Bizkaitarra al da? —Izenak berak salatzen du. Bilbon bertan jaioa da. Oso noblea ote? — Alajaina! Badakizu ondoak ere noble jaiotzen direla Bizkaian”. Francisco Martínez de la Rosarekin eta El marido en la chimenea lanarekin nahastu zen Aznar. [\[itzuli\]](#)
6. Batasun Liberalaren eskutik, José María Martínez de las Rivas diputatu hautatu zuten Balmasedan 1891, 1896, 1897 eta 1898. urteetan, eta senatari 1899, 1901, 1903 eta 1905ean; Víctor Chavari, senatari hautatu zuten Bizkaian, 1891, 1896 eta 1899. urteetan; haren koinatua, José María Lizana, diputatu hautatu zuten Durangon, 1891, 1893, 1896, 1899, 1901, 1903, 1905, 1907 eta 1910. urteetan, eta senatari 1898an; Eduardo Víctor de Lecea, senatari 1889an, eta diputatu 1891n; Federico de Solaequi (errepublikanoa, 1862an Garibaldiren aldeko manifestu bat sinatu zuen, Bilboko beste gazte liberal batzuekin batera), diputatu 1891, 1893 eta 1905. urteetan; Luis de Landecho, diputatu 1885 eta 1891n, eta senatari 1900, 1903, 1904, 1905, 1907, 1908, 1909 eta 1910. urteetan, Gernikan; Federico de Echevarría, 1989an; Juan Tomás Gandarias, 1898, 1899, 1901, 1903, 1905, 1907 eta 1911. urteetan; Ybarra lehengusuak, 1898, 1899 eta 1900ean. [\[itzuli\]](#)
7. Honela deskribatu zen, 1906ko otsailaren 30eko *La Vida Marítima* argitalpenean, haren seme Santiagoren hileta, Vista Alegreko hilerri berrian: “Erruki Etxe Santuko berrogei hurrek, hirurehun langilek baino gehiagok eta hildakoaren familiaren menpeko meategietako eta industria-establezimenduetako langile askok zuziak zeramatzen piztuta. Errespetuzkoak, jaun hauek zeramatzen: Galíndez, Laiseca, Birclienall, Franc (Portugaleteko Marina Laguntzailea), Tomás de Zubiri, Plácido Allende, Benigno Chávarri, Alzaga, San Pelayo, Goyoaga, Orendain, Borda, Espada, Julio Urquijo jauna eta Fernando M. de Ibarra jauna. Aldundiko lehendakari Urquijo jaunaren auto partikularrak ixten zuen segizioa”. [\[itzuli\]](#)
8. 1910eko irailaren 10eko La correspondencia de España egunkarian, lehen orrian agertzen da Martínez de las Rivas (“enpesari eskirol” bat, Indalecio Prietok gogorazten duenez) kanporatua izan zelako berria. [\[itzuli\]](#)
9. *Enrique Areilza, Epistolario*, El Tilo argitaletxea, Bilbo, 1999. [\[itzuli\]](#)
10. Haren seme Víctorrek El Pinar finka eraiki zuen Areetan (1902), eta Artaza jauregia (Manuel María Smithek 1918an diseinatu) Leioa eta Getxo artean, nola bata hala bestea aitak erositako lursailetan. [\[itzuli\]](#)
11. 1890eko maiatzaren 4an egin zen protesta, Parisko lehen nazioarteko deialdiaren ondoren: “Kale Nagusian gora desfilatu zuten, eta Plaza Eliptikoaren erdian, Víctor Chávarri meatze-ugazabaren etxearen balkoiaren azpian, burgesiaren heriotza aldarrikatu zuten”. Ikus garai hartako prentsa: El Noticiero Bilbaíno, 1980ko maiatzaren 6 eta 7a, eta El Socialista, 1890eko maiatzaren 23a. [\[itzuli\]](#)
12. Ikus “Steam Yachts” kapitulua. [\[itzuli\]](#)
13. Martínez de las Rivas kontserbadoreak 4.326 boto jaso zituen, Chávarri liberalak 4.004, eta Bizakio sozialismoaren sortzaileak, Facundo Perezagua toledoarrak, 215. [\[itzuli\]](#)
14. Bizkaitik Víctor Chavari eta Rafael Mazarredo hautatu zituzten senatari, Juan Ibargoitziari eta Pablo Alzolari aurrea hartuz. [\[itzuli\]](#)
15. Meatzarien Zirkuluaren (1894) ondoren, Bizkaiko Ekoizleen Liga izan zen Bizkaian eraturako ugazaba-elkarteen artean bigarrena. Geroago, 1898an, Bizkaiko Industria Zentroa (CIV) sortu zuten, ugazabak langileen eskaeretatik defendatzeko, eta 1900ean, Bilboko Ontzi-jabeen Elkarte. Bizkaiko Ekoizleen Ligak kolpe handia

- hartu zuen 1899an, Ekoizleen Liga Nazionala desegin zenean, baina 1903–04 bitartean berriro suspertu zen, Alzolarekin, eta 1909an, Federico Echevarriarekin, merkatu nazionalaren babesa eta industria nazionalaren sustapena bilatzea helburu zuela. [\[itzuli\]](#)
16. 1903an, José María Urquijo Ybarraren hautagaitza katolikoak La Piñako liberalak (Pablo Alzolarekin) eta sozialistak (Pablo Igleziasekin) garaitu zituen. La Piña, nolabait, berriz jaio zen 1919an, Liga de Acción Monárquica alderdian, eskuin autoritario baten esanetara. [\[itzuli\]](#)
  17. Chávarriren biografiarik onena Eduardo Alonso Olea historialariarena da: *Víctor Chávarri (1854–1900)*, 34. zk., Lankidetzan, Donostia, 2005. Honela dio pasarte batean: “Nahiz eta, aitaren aldetik, Gueñesko laborari-familia batetik etorri (dena dela, familia hori berehala lotu zitzaion meatzaritzako negozioei, eta horrek gauza asko azalduko ditu, aurrerago ikusiko dugunez), amaren aldetik Bizkaiko nobleziarik hautenaren eta Bilboko merkatarri-familia baten ondorengoa zen. Víctorrek kapitalismo hutsa eta gogorra ezaugarritzat zuen eskema berri batean bateratu zituen alderdiok, bi mundu horiek, etxe bakoitzetik onena hartuta. Neurri batean, bere egoera, talde horretan, bitartekaritza-merkataritzara emanak ziren hiribilduetako (Portugalet, Bilbo) merkataritza-tradizioen antzekoa da, merkataritza-jarduerek eta familia-jarduerek lotuta dauden taldeen antzekoa, merkataritza-itunak familia-itunetan gauzatzen diren heinean;[...] Baina aitak, ondasun materialez gainera, bestelako ondare bat ere utzi zion Chávarriri, berak gero oso ondo baliatzen jakin zuena: prestakuntza on bat, kontaktu onak, eta familia- eta negozio-harreman onak”, 34–35. or. [\[itzuli\]](#)
  18. Urte batzuk geroago, 1914an, haren anaia Benignok bai onartu zuen Chávarriko markes titulua, eta, 1920an, haren izen bereko semeak, Chávarri Anduizak, baita Trianoko markes titulua ere. [\[itzuli\]](#)

## AURREIRITZIAK: OLIGARKIA

XIX. mendeko Bilboz dauden bi aurreiritziz mintzatu nahi nuke, nolabait ere elkarri lotuta daudelako edo elkar elikatu dutelako. Batetik, oligarkia bat zegoela eta, bestetik, hura errazten edo eskatzen zuen endogamia bat zegoela. Lehenengoa XIX. mendekoa da, alor militar, administratibo eta ekonomikoko Bizkaiko pertsona gailen batzuei Alfonso XIII.ak noblezia-tituluak eman zizkienekoa. Miguel de Unamuno filosofoak metalurgiaren kondeen oligarkia deituko ziona. Baina behin XX. mendean sartuta, hirurogeita hamarreko hamarkadan zehazki, oso kalitate oneko unibertsitate-historiografiak errepikatu egin zuen, Neguri termino topografikoari atxikita egin ere (han bizi izan baita, tradizioz, euskal burgesia), une horri zegokion eskemari (edo Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo urteetakoari) jarraiki; eredu horrek, baina, ez du XIX. menderako balio. Ondorioz, nahastu egin zen oligarkiaren gaia bilbotar elite txiki eta endogamikoaren gaiarekin.

Ezin da ez endogamiaz ez oligarkiaz modu gutxiesgarrian hitz egin XIX. mendeko Bilboz ari garela, XX. mendeko bigarren erdialdeko ideietatik XIX. mendeko historiografiara egindako transposizio faltsua balitzateke. Beste hitz batzuetan: iragana orainaldiko balioekin epaitzeak arriskuak ditu beti.

Lehenik, garapen ekonomikoko figura edo pertsona horiek ez dira gutxi. Oligarkiak kopuru txiki bat esan nahi du, eta hemen enpresa-kapitain kopuru handia zegoen, baita kanpoko jendea ere, nola ziren Francisco Martínez de Rodas hueskarra, Romualdo Arellano nafarra, edo Estanislao Urquijo arabarra, eta baita atzerritar batzuk ere, Uhagóndarrak; talde horrek merkatariak, industrialariak, bankariak, negozio-gizonak eta politikariak biltzen zituen bere baitan:

- horietako asko Bilbora iritsitako baserritarrak ziren: bazituzten, jakina, zenbait ondasun (labore-lurrak, mahastiak, etxeak eta tresnak,azienda, kredituak eta bestelakoak), baina euren lanarekin eraiki zuten beren etorkizuna; esaterako, Federico Echevarría;
- beste batzuk, berriz, itsas pilotu trebeak ziren, Indietako zamaketari edo kontsignatario bihurtuak gero;
- edo gizarte maila erosoko merkatariek, elite burgeseko dirudun bihurtuko zirenak, grande bourgeoisie des affaires delakoa; haien balio-zorroa orekatuta egoten zen babes-inbertsioaren eta enpresa-bide berriak urratzearen artean;
- meatze lurretan jaio eta meategiak eta haien etekinak ustiatzen jakin zutenak;
- Madrileko elitean sartu zen talde soziala halaber jatorri apaletik etorrita. Bidea beren kabuz urratutako burgesak ziren, zeinek, oinarri hauskor batetik abiatuak, lortu baitzuten maila ekonomiko ona, beren garaikideen aitortza eta, batzuetan, noblezia-titulu bat.

la guztiak bat etorri ziren beren merkataritza edo enpresa jardueretatik eratorritako soberakinak erabiltzeko orduan; alegia, lehenik, seme-alabei goi-mailako ikasketak eman zizkieten, eta, bigarrenik, burdinbideen akziodun egin ziren eta hiri-ondasunak erosi zituzten. Hau da, Bilboko Zabalgunearen aldeko apustua egin zuten.

### **Metalurgiaren kondeak**

Siderurgiaren edo metalurgiaren oligarkia esapidea, arestian esan dugun bezala, Miguel de Unamuno filosofoak sortu zuen XIX. mendeko Bilboz ari zela, Bilboko ibaiaren eta bertako jendearen eraldaketa fisikoak nabarmentzeko. Honela idatzi zuen Unamunok: “Ibaizabal ibaiaren bi bazterretan tximinia ketsuak altxatzen ikusi ditugunok, hain zuzen P. Henaoren garaian haritzak hazten ziren leku beretan [...]”.

Bilbo merkatari hura, merkataritzako langelak, artekariak, dendariak zituen Bilbo, liberala zen eta maila ertaineko burgesia txikia zuen. Fabriketako Bilbok, Bilbo industrialak, metalurgiaren konde berrien plutokraziarekin, langileen agitazioa, sozialismo proletarioa, ekarri zituen, eta une batez bazirudien liberalismo zibiko zahar eta noblea arriskuan zegoela”. Halaxe idatzi zuen “Del Bilbao mercantil al industrial” izenburutzat duen artikuluan, El Liberal egunkariko lehenengo orrialdean (1924ko urtarrilaren 1ean). Urte batzuk lehenago, 1895ean, Unamunok idatzi zuen aristokraziaren eta burgesiaren arteko borroka zela Bilboren borroka garaikidearen ardatza, edo, haren hitz literarioetan esanda, “jauntxo feudal zaharren eta konkistatzaile moderno basatien arteko gerra”[1].

“Metalurgiaren kondeen” topiko hori gure egunetaraino errepikatzen da. Adibidez, Maria Jesús Cavak honakoa dio “Nobles vizcaínos. La modernidad y los condes metalúrgicos” (Bilbao aldizkarian, 2018ko apirila) artikuluan: “Kontua hau da, Raymond Carr britainiar historialaria parafraseatuz: ‘1900etik aurrera Espainiako benetako aberatsak, salbuespen gutxiarekin, euskaldunak ziren’. Eta ia den-denak Neguri klanekoak ziren. Epika industrialetik harago, haren inpaktu sozialak zerbait seinalatzea eskatzen du: elite familiarrek eta euskal garapen ekonomikoarekin izan zituzten loturek bidea ematen dutela haiek jarduten zuteneko kultura ekonomikoaz gogoeta egiteko”.

Ez da guztiz egia: lehenik, Berrezarkuntzaren garaian meritokrazia enpresariari lotutako nobletzea ez zelako izan Isabel II.aren aurretikakoa baino handiagoa; eta, bigarrenik, metalurgiaren konde horiek ez zirelako oraindik Negurikoak; Neguri auzo gisa ez zen oraindik existitzen. Elite horiek Alde Zaharretik, Posta kaletik, Epalza kaletik zetozen; eta are batzuk Bizkaiko Jaurerriko elizateetatik edo hiribilduetatik, eta industrializazioaren aurretik dirutu ziren.

Luis Castells eta Antonio Rivera historialariek “Notables e intrusos. Elites y poder en el País Vasco (1876–1923)” saiakera bikainean Unamunoren testu hori erabili zuten, baita Blasco Ibáñezek beste testu bat ere, haren 1904ko El intruso nobelakoa, ohar hau egiteko: “Bilbotar idazleak debate historiografiko bat aurreratzen zuen, gaur egun zeharo indarrean dagoena, Antzinako Erregimenetik gizarte liberal burgeserako igarotzearen arauari buruz eta gertatu ziren segidei eta aldaketei buruz. Eztabaida horretan, elite tradizionalak jokatu zuten rola da gai nagusietako bat, bai eta elite horiek garapen ekonomikoaren harian sortuz joan ziren talde berri eta gorantz zetozenekin izan zuten erlazioa, eta talde horien artean izan zen sinbiosia edo talka”. Aurrerago hau diote: “debate horretan sartzeko balioko digu, zeinari aurre egingo bazaio, onartu beharko baitira hala haren konplexutasuna nola formula sinple eta arketipikoei ihes egingo dieten ñabardurak sartzeko premia”. Nire saiakera honek elementu berriak ekarri nahi dizkio enpresari berrien eta Bilbok askoz lehenago izan zuen garapenaren mataza konplexu eta korapilatsu horri.

Izan ere, lehenik eta behin, Bilboko metalurgiaren konde edo, gero, Neguriko oligarkia deitu izan dena akats historikoa da, baita aurreiritzia ere, ez baitzen oligarkia izan: Bilbo merkatari eta enpresari sare zabalari esker altxatu zen, gaztelarazko liburukiko Addenda edo eranskinean egiazta daitekeen bezala. Bigarrenik, haietako asko ezerezetik zetozen. Hirugarrenik, haien ambizioa ez zegoen noblezia-tituluak lortzeko nahiarekin lotua. Noblezia-titulu gehiago zegoen Bizkaian Borboitarren Berrezarkuntzaren aurretik ondoren baino[2], eta gogora dezagun enpresa-kapitain horietako batzuek uko egin ziotela ezin titulu motari; eta hori guztia Neguri auzo gisa existitu baino lehen.

Azken horretatik has gaituzen. Neguri neologismo bat da[3], Resurreccion Maria Azkuek Sociedad de Terrenos de Neguri elkartearen enkarguz proposatua; elkarte hori 1904an sortu zen, eta Aiboako otadietako lur asko erosi zituen,

Desamortizazio garaian salgai jarritako lur komunalak baitziren[4]. XX. mendearen hasieran, bilbotar burgesia jakin batek Getxo aukeratu zuen bizilekutzat (Solturatarrek eta Isasitarrek jadanik egina zuten bezala) eta etxe berriak eraikitzen hasi ziren Areetako kaian, Zugatzarten, Aiboa izeneko otadi-mendian eta Arriluzeko muinoan, Atxekolandeta izenekoan. Negurin, aitzitik, ez ziren eraikitzen hasiko Algortako kontrakaia bukatu zen arte, 1902–03an, eta leku hark ez zuen goraldirik izan Lehen Mundu Gerra ondoren arte.

Getxoko hilerria bera da dokumenturik onena[5], hango pabiloi bikainekin: Gáldiz Hormaecheatarrena, 1909koa, Aurelio Artetak Mario Camiñaren arkitekturarekin egina[6], edo Echevarrietatarrena eta De la Sotatarrena, Paco Durriok eta Ricardo Bastida arkitektoak egina, 1925ekoa[7]. Baina XIX. mendeko Bilboko lurperatzeak Derion egin ziren, Vista Alegren[8].

Bestalde, bilbotar aberats asko ezerezetik sortu ziren: Cosme Echevarrieta, Francisco Martínez de Rodas, Federico Echevarría, Aresti anaiak, Gandariastarrak, edo Estanislao de Urquijo bera. Beste batzuk, berriz, meategidun lurrak zeuzkaten familietatik zetozen, baina ez ziren hasieratik aberatsak; Ybarratar guztiak, adibidez. Beste batzuk merkatarien seme-alabak ziren, hala nola Aguirretarrak, Costetarrak, edo dendari gisa Bilbon bizilekua hartu zuten hainbat atzerritar (Amann, Rochelt, etab.), edo funtzionarioen seme-alabak, medikuak, etab. (Larrínaga, Areilza...).

Merkatari, kontsignatario edo enpresari gailen bilakatutako bilbotar horietako asko inguruko herrietatik zetozen: Chávarritarrak, meategiak zituzten arren, Gueñesko nekazarien bilobak ziren; José Antonio de Ybarra y de los Santos, berriz, Muskizkoa zen, Somorrostro haranekoa; Olabarritarrak, Zallokoak; Gómez de la Torretarrak, Gorozikakoak; Máximo Aguirre, Galdakaokoa, etab. Gutxi ziren jaiotzaz aberatsak, eta ia beti ahaide nagusien seme-alabak izaten ziren edo Indietatik diruz josiak itzuli zirenak, baina, aldi berean, baserritar familietakoak zirenak, baserritar edo petxero ez izateko emigratu behar izan zutenak.

## **Noblezia-tituluak**

Uste dut aipatu dudala “metalurgiaren konde” horiek noblezia-tituluen anbizioa zutela esaten denean egiten den hutsegitea. Badaude bi alderdi argi eta garbi bereizi beharrekoak: bata da organo politikoetan boterea izan nahia; bestea, oso desberdina, tituluak eduki nahia da. Lehenengoa egia da; bigarrena, ez.

Aberats berriek, negoziotan gailendu ziren merkatariek, aginte-organoean parte hartu nahi zuten, dela hiriko udalean dela Bizkaiko Batzarretan, ez hainbeste aitoren sozial gisa, politika egiteko baizik, baina ez alderdi politika, ideien politika baizik, beren enpresen hedapena errazteko, eta, hartara, Bilboren hedapena.

Baina noblezia-tituluak dagokienez, baldin eta Bizkaiko herritarrenekin konparatzen baditugu, izan bizilekua Bilbon edo izan Madrilen, XIX. mendean gutxi izan ziren noblezia-tituluak lortu zituztenak, eta seik gutxienez —arestian esan dudana bezala— uko egin zieten.

Felipe III.aren garaitik, 1599tik, 1874ko Borboitarren Berrezarkuntza baino lehen arte, 56 izan ziren, gutxi gorabehera, mota desberdineko bizkaitarrei emandako noblezia-tituluak, horietako batzuk Bilbon etxea zuten edo Bizkaian bizi ziren enpresari berriei emanak[9]; Berrezarkuntzatik 1931n monarkia desegin zen arte, berriz, 34 laguni eman zitzaizkien tituluak[10]. Ez dira hamarrera iristen Francok bizkaitarrentzat sortu zituenak.

Berrezarkuntzaren aurretik emandako markesgoak edo kondetzak jende mota honi eman zitzaizkien:

- militarrek edo fragata-kapitainak (Solano, Eguía);
- ministroak edo Madrilgo funtzionarioak (Arizcun, Horcasitas, de la Cuadra, Allendesalazar);
- “Indietako Karrera” egin zutenak (Urrutia, Palacio, Lanzagorta, Velasco-Superunda, etc.), alegia, jendeak indiano deitu zituenak;
- edo Indietako jardunari lotutako negozioak zituztenak (Murúa Sevillan, Ustáriz Jerez de la Fronteran, etab.).

Aipatzea merezi du ezen bizkaitar noble horien hainbat ondorengo erlazionatuta egon zirela hala historiarekin nola arteekin. Adibidez, Sebastián de la Cuadra (Muskiz, 1687–Madril, 1766) San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako sortzailekidea izan zen; Barrenecheatarrak, Solanotarrak eta Adán de Yarzatarrek Goyak erretratatu zituen, eta haietako bat Bilboko lehenengo antzokiaren sustatzailea izan zen (Coliseo, 1799an); Francisco Rafael Uhagón Historiako Errege Akademiaren lehendakaria izan zen; Ángel Allendesalazar, berriz, Madrilgo Unibertsitateko Geografia eta Historiako katedraduna izan zen, baita bibliofiloa ere; eta Juan Allendesalazar eruditu handiak funts guztiak Prado Museoari eman zizkion gerora[11].

Alde kualitatiboa dago “metalurgiaren konde” horien eta alde aurreko merkatari belaunaldien noblezia bilaketaren artean, edo Bizkaiko Jaurerriko ahaide nagusien familietakoak ziren estatu-zerbitzarien artean[12]. XVIII. mendearen amaieran, Gorteko bizkaitar horiek guztiak ez ziren asebate kaparetasunaren mailarekin, aitzitik noblezia-tituluak eskuratzen saiatu ziren, batik bat erosketaren bitartez (zuzenean beste konde batzuei erosiz edo Erresumaren mesedeari esker, ordainduz) edo ezkontza-harremanen bitartez. Cádizeko eta Madrilgo merkatari nafar eta euskaldun askok titulu horiek eskuratu zituzten, eta,aldi berean, oinetxeak erosi zituzten beren jaioterrietan, batzuetan baita alde aurretik beren familienak izandakoak ere, eta lotura eta maiorazko berriak sortu zituzten. XIX. mendeko Bizkaian Antzinako Erregimena lurperatuta geratu zen eta tituluak apaingarriak edo errege laztanak ziren soil-soilik.

Gogora dezagun maiorazkoaren sistemak armadan, gerrako itsas armadan edo ordena erlijiosoetan bizimodua bilatzera behartu zituela bigarrenak eta gainontzeko anai-arrebak, bizkaitar kapareak baitziren. Itsas armadak prestakuntza osoagoa zekarren, zientifikoagoa alegia, nabigatzeak jakintza gehiago eskatzen baitzuen. Itsas armada garai berrietara egokituago zegoen, eta han mutil gazteek munduaren ikuspegi globalagoa berenganatzen zuten, itsasoak, merkataritzak bezala, adimenak irekitzen eta aukerak zabaltzen baitzituen. Hori izango da Alcalá-Galianotarren edo Mazarredoren kasua. Azken batean, maiorazkoaren sistema horrek euskaldun askotxo bultzatu zituen hala armadetara, nola koroaren ministerioetara, magistraturara eta goi mailako funtzionarioetara. XIX. mendearen hasieran leinu euskaldun asko zeuden estatuaren engranajean Madrilan, Julio Muñoz Rodríguezek “zerbitzuko noblezia” gisa definitutako horretan[13]. Noblezia euskaldun horrek, frantsestuagoa berez, bultzada handia izan zuen Borboitarrek etorri zirenean. Batzuetan, gainera, foruen kontrako gertatu zen, eta aldatu egin behar izan ziren euskal toponimoen gainean emandako tituluak esleitutako izenak (Rocaverde, Monterrón, del Socorro, del Real Aprecio, Superunda, etab.).

Goi mailako funtzionarioak aipatu ditut, hala nola Joaquín Ignacio de Barrenechea (1681–1753), Begoñako elizatean jaioa[14], gurasoak Bilboko merkatariak zituena eta Quiton egona, hango gobernadorea baitzuen osaba. Militarra izan zen eta diplomazialaria gero, eta Ogasuneko kontseilari izatera iritsi zen 1720an. Felipe V.ak Portuko markes tituluekin saritu zizkion 1741ean bere zerbitzu etengabeak. Haren hiru seme-alaba ere markesak izan ziren: de la Solanako markesa eta Portuko markesa, Puente Fuerteko markesa, eta Pesadillako markesa.



Ahaide nagusi batzuk tituluak jaso zituzten baita gure mugetatik kanpo ere: adibidez, Sarachagatarrak[15], jatorria Gueñesen dutenak, non baitago Sarachaga jauregia (La Quadra Salcedoko jauregia, edo Arrieta-Mascarúa). Jorge de Sarachaga (1810–1843) Catalina Lobanoff de Rostoff printzesarekin ezkondu zen, zeina Errusiako enperatrizaren ganberaria baitzen. Haren alaba, Esperanza de Sarachaga Lobanoff (1839–1918), Luis II. Bavariakoaren zale amorratua, Friedrich Truchsess von Wetzhausen kondearekin ezkondu zen 1862an; eta haren seme Alejo (1840–1918), Bilbon jaioa, Sarachagoffeko baroi izendatu zuten 1862an, Alejandro III.a Errusiako Tsarak emandako titulua, alegia. Haren iloba Maria, anaia Marianoren alaba, Franz Freiherr Neubronn von Eisenburg baroiarekin ezkondu zen 1871n. Beste iloba txiki bat, Gloria de Sarachaga Arribalzaga del Río (Bilbo, 1878–Bilbo, 1952) Maurice Greindl (1886–1937) Greindleko kondearekin ezkondu zen 1902an. Beste Sarachagatar batzuk Txilera eta Argentinara joan ziren, eta independentisten ahaideekin ezkondu ziren, Belgrano jeneralarekin, adibidez, eta beste batzuk, berriz, Mexikora; azken horiek dute gaur egun leinua.

Goi mailako funtzionario horiek asko lagunduko zieten aberats berri indianoei beren leinu-liburuak lortzen, baina ez zen izan, Madrilen edo beste leku batzuetan bezala, nobleze sisteman sartzeko anbiziorik, hau da, diru eta titulu salerosketa horretan. Goi mailako funtzionario horiek efikazagoak izango ziren Desamortizazioaren garaian, kapitala (errentena edo Indietako trafikoa) zeukaten beste euskaldun batzuekin elkarlanean aritu baitziren elizako lurak eta jabegoak erosten, ez ordea noblezia-tituluak erosten.

XIX. mendeko Bilbon noblezia-kategorien zamak, indarrean jarraitzen bazuen ere, ez zuen inolako traszendentziarik. Inork ez zuen pentsatzen hura bezalako garai batean titulu bat izatea benetako aldea zenik titulurik ez zuenarekiko. Ángel Bahamondek ondo aztertu du ondasunen berrantolamendua garai horretan. Haren ondorioek ideia batera garamatzate, alegia ezin zitekeela hitz egin Berrezarkuntzan noblezia-izendatze prozesu sinple bat zegoenik, “Erregimen Zaharreko eliteak, etenik gabe, errepikatuko zituenak”[16].

Bazeuden “noble” sortu berri batzuk —Mudela, Murrieta edo Luzarraga etxea alde batera utzita—, teoriarik Goi Ibaizabal eskualdekoak zirenak, Arabako probintzian (Amurrion, Laudion, edo Murgan jaioak[17], baina Bilbora joaten zirenak, Gasteizera baino gehiago, haien artean Estanislao de Urquijo, Andrés Isasi edo Juan de Urrutia[18].

## Tituluen ukoa

Hala eta guztiz ere, Bilboko aberats berri horien artean bazeuden sei lagun noblezia-tituluari uko egin ziotenak, soil-soilik kontu hura herritar ilustratuen beren izaerarekin bat ez zetorrelako, nahiz batzuk monarkikoak ere izan. Alderdi monarkikoko eta politikari kontserbadore horiek José María Martínez de las Rivas, Juan Tomás Gandarias eta Víctor Chávarri ziren. Hor zegoen Federico Echevarría Rotaecha ere bai, zeina latorrigile baten semea baitzen eta ijeketaren industrialari handi bihurtu baitzen; liberalei atxikia zegoen, eta uko egin zion Castresanako markesgoari. Eta handik urte batzuetara gauza bera egin zuten Horacio Echevarrieta errepublikanoak eta Ramón de la Sota nazionalistak[19]. Seiak oso atxikita zeuden Alfonso XIII.a erregeari, bereziki itsasoari eta estropadei zien maitasunagatik.

Martínez de la Rivasek, 1891. urteaz gero diputatua zenak, esan zuen familian titulu bat edukita —haren osaba Francisco Mudelako markesa zen 1867. urteaz gero— ez zela gehiago behar. Víctor Chávarrik, 1866. urteaz gero diputatua zenak, erantzun zuen jendeak on Víctor gisa ezagutzen zuela dagoeneko eta ez zuela beste merezimendurik behar; hala ere, haren anaia Benignok eta haren seme Víctorek Chávarriko eta Trianoko markes tituluak onartu zituzten handik urte batzuetara. Juan Tomás Gandarias Arrazuako errementari baten biloba zen eta Batasun Liberaleko sortzezko kidea, eta hark ere uko egin zion tituluari. Gandarias Indalecio Prieto sozialistaren adiskidea izan zen, zeina bere enplegatua izan baitzen. Prietok espetxeratu izatetik salbatu zuen Gandarias Gerra Zibilean. Gero, XX. mendean sarturik, Gabriel

María Ybarra de la Revillak, Ybarra familia industrial eragin handiko eta aberatseko kideak —1910ean, El Pueblo Vasco egunkaria sortu zuen familia— uko egin zion baita ere markesgoari[20].

Haien aurretik ez dugu beste titulu ukoen berririk. 1879an Luciano Urízarek[21], zeina baitzen merkataria eta enpresaria, baina baita ere Gernikan sustraitutako landa nobleziako kidea eta Bizkaiko probintziako diputatua, uko egin zion Isabel Katolikoaren Ordenako Enkomienda Osoari, nahiz eman egin zitzaion, “ez zettorrelako bat korporazio tradizionalak ordezkatzuz Bizkaiari inposatutako antolamendu administratibo berriarekin”. Eta ia mende bat lehenago, 1799an, José Ramón de Urrutia kapitain jeneralak[22], zeina Zallan jaioa baitzen, uko egin zion Carlos IV.ari “Gaztelako titulu bat eta Espainiako Handigoa beraren eta bere ondorengoen aintza osorako”.

Hala, aitzitik, mota honetako zama astun akritikoak jasotzen dira gaur egungo historiografian: “Gizabanako horiek berak eta haien oinordekoak izan ziren XX. mendearen lehenengo laurdeneko ekimen handien protagonistak, eta haiek taxutu zuten, hamarkada askoan zehar, euskal egitura enpresariala. Oligarkia hark aberastasunak eta boterea izan zituen, baina ez bakarrik diruak ematen zien boterea, botere politikoa baita ere, erakundeen lehendakaritzen jabe egin baitziren: Aldundia, udalak, Merkataritza Ganbera, Portuko Lan Batzordea, etab. Baina horrekin ere ez ziren konformatu eta nahi izan zuten ‘Espainiako Handien klubekoak’ izan, eta, hartara, noblezia-tituluak erosi zituzten markesgoen edota kondetzen tankeran, eta huraxe izan zen Urquijoko markesen kasua, Trianoko markesarena (Chávarritarrentzat), Zubiríako kondearena, Cadaguako kondearena, etab. eta haiek eratu zuten ‘bilbotar monarkismo’ gisa ezagutu zena [...] Enpresari saga horretako beteranoen artean nabarmendu behar dira, lehenik, Ybarra taldea; eta ‘etorri berriak’ diren baina merkataritzako jardueran halakoxe tradizio bat dutenen artean, berriz, aipa daitezke Martínez Rivas, Chávarri, De la Sota, Aznar eta Echevarrieta bezalako jendeak altxatu zituzten konglomeratu industrialak”[23].

Bi hutsegite garbi daude testu horretan: Urquijoko markes titulua 1871koa da, hau da, Berrezarkuntza eta aipatzen dituen beste guztiak baino lehenagokoa, XX. mendekoak direnez, eta “etorri berrizat” kalifikatzen ditu Martínez Rivas edo Chávarri, nahiz lehenengo bi enpresa-kapitainak ziren, atzerrian goi-mailako ikasketak eginak eta Ybarratarrak bezain zaharrak. Baina horrelako analisi motek duten okerrena oinarritzat dauzkaten aurreiritziak dira (jende zapaltzaile eta tituluen anbizioz joak), ahazturik hiru monarkiko garrantzitsuk uko egiten ziotela tituluari, Sotaren eta Echevarrietaren ukoez gainera, eta haiek guztiek sortu zutela Bilbo indartsu, moderno, ahaldun eta mundura ireki bat, non asko jaio baikara, eta ikasi eta lan egin baitugu. Eta etorriko ziren belaunaldien onerako beste batzuek sortu zutenari esker eman zaizkigu guri aukerak. Eta guztiek diot: monarkikoak, errepublikanoak eta nazionalistak.

Horregatik, gure pintoreak Parisera, Liejara edo Bruselara zihoazenean, Martínez de las Rivas-Chávarri anaiak arestian aipatutako bikoteak egindakoari ekiten ari zitzaizkion jadanik; “enpresa-kapitain” itzelak ziren biak, eta haietako inor ez zen “siderurgiako kondea”, baina ez ziren bakarrak. Haiengandik ez urrun zeuden Ybarratarrak, Olabarritarrak, Gandariastarrak, Zubiríatarrak... historiografia jakin batek oligarkia izendatuko dituenak. Historiografia hori ahazten ari da ezen, une horretan, mende bukaera baino lehenago, Francisco de las Rivas eta Estanislao Urquijo direla pertsonarik aberatsenak, zeinek Madrildik baitzeramatzen beren negozioak, eta ahazten ari zaio, baita ere, badaudela beste batzuk barnerakoiagoak, baina haien pareko aberastasuna pilotuta daukatenak, hala nola Cosme Echevarrieta edo Gurtubayren semeak.

Bide berriak urratzen ari ziren baita ere ontzi onak eta negozio onak egiten haien ordezeko izango ziren bi pertsona: Ramón de la Sota eta Horacio Echevarrieta. Bestalde, antzinako ahaide nagusiak, lotan egon ez zirenak, nola diren Lezama Leguizamóntarrak, Zabálburutarrak, edo Juan Echevarría la Llana, presente egon ziren inbertsio indartsu eta zuzenekin zabaldutako lerro guztietan. Indianoak ere ez ziren beren kontuetan oharkabetu, ez Epalzatarrak, ezta Murrietatarrak eta Murgatarrak ere, eta izugarri aberatsak izaten jarraitu zuten; beste batzuk, berriz, diskretuagoak

ziren, adibidez, Careagatarrak, batik bat Enrique britisha, belaontzietan nabigatzeari emana, eta Alfonso XIII.aren finantza aholkularia izango zena; ez ziren ezta ere beren inbertsioez arduragabetu ez Aresti anaiak, ez Arteche anaiak, ez Eguillor anaiak; eta, gainera, bazegoen beste jende mota bat bere bizitza partikularrari eta arteari emana, beren etxeetako isiltasunean eta Burtsan milioiak egiten, hala nola, Antonio Plasencia (“Rosales” izango zen Getxoko eraikinik onena eta diskretuena), Andrés Isasi edo Soltura Longatarrak; edo beste batzuk, hala nola, Aznartarrak, Larrínagatarrak, Costetarrak, Arellanotarrak edo Aguirretarrak. Ez gara ari, beraz, zortzi edo hamar izeneko oligarkia batez, hogeita hamarretik gorako familia sare zabal batez baizik, guzti-guztiak milioi askoko inbertsioak zeuzkatena, eta Zazpikaleetatik edo Ibaizabalen ertzetatik etorriak.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. *La Lucha de Clases* egunkarian, 1895eko azaroaren 9an. *El bochito* agerkarian jasoa (azken berrargitalpena: 1998), 208. or. [itzuli]
2. Ikus gaztelerazko liburukiko eranskina edo *addenda*: “Títulos”. [itzuli]
3. Neguri hitza euskaratik dagorren neologismo bat da: neguko uria. Neologismoak euskal oligarkia izendatzeko balio izan du Gerra Zibilaz geroztik: “Neguri esatea batik bat euskal oligarkia esatea bezainbatekoa zen. Neguri esateak aipamen geografikoa, lokalista, saihesten du, sektore sozial bat bere gustuetan, bere sentimenduetan eta bere ohituretan adieraztea bezainbatekoa da. Salbuespenak salbuespen”. Gregorio Morán, *Los españoles que dejaron de serlo*, Editorial Planeta, Bartzelona, 1982. [itzuli]
4. Ikus Pablo Díaz Morlánen saiakera, “La evolución de la oligarquía vizcaína, 1872–1936. Un intento de interpretación y síntesis”, *Ekonomiaz*, 54. zk., 3. lauhilekoa, 2003. [itzuli]
5. “Nuestra Señora del Carmen hilerria”, Bostgarrena deitzen den lekuan, 1908ko udaberrian inauguratu zen. [itzuli]
6. Camiñak, hala ere, Bilboko Vista Alegre hilerrian egin zituen bere familiaren eta Chávarri familiaren kaperak. [itzuli]
7. Echevarrieta Kriptaz, badaude Getxoko Udal Artxiboan hartarako eginiko plano batzuen kopiak, Ricardo Bastidak 1925ean sinatuak. [itzuli]
8. José M<sup>a</sup> Gutiérrez Landaburu eta Jesús Muñoz Petralanda, “El arte funerario entre la tradición y la vanguardia: el cementerio de Nuestra Señora del Carmen de Getxo”, *Ondare*, 23, 2004, 411–26. or. [itzuli]
9. Baldin eta Berrezarkuntza aurreko azken lauzpabost tituluei begiratzen badiegu (pertsonek berak bi jasotzen), lau euskaldunak dira, bi baseritarren semeak eta bi indianoenak; denek negozioak egin zituzten Madrilera eta ardoan interesa zuten, eta bik horretan jardungo zuten, bodegak sortuz. Isasik Barambio koñaka sortu zuen, Murrietak, berriz, bodegak Errioxan; Urquijok dirua utzi zuen testamentuan Ostiral Santuan nekazaritzako eta abeltzantzako feria bat egiteko Laudion, eta Murga ezaguna zen Madrilgo Linares jauregian frantses ardoarekin egiten zituen festengatik. [itzuli]
10. Espainiako Isabel II.a, (Madril, 1830–Paris, 1904) “la de los Tristes Destinos” (Patu Tristeduna) edo “la Reina Castiza” (Erregina peto-pettoa) izenez ere ezaguna, eta Espainiako erregina izan zen 1833 eta 1868 bitartean. 1868ko Iraultza (La Gloriosa gisa ezaguna) aldarrikatu zenean, Espainiatik alde egin zuen, Donostian trena harturik, han baitzegoen uda pasa. Isabel II.a Frantziara erbesteratu zuen, eta han Napoleon III.aren eta Eugenia de Montijoren babesarekin izan zuen; Parisko Castilla Jauregian hartu zuen bizilekua 1904an hil zen arte, tartean ikusi zituelarik igarotzen Amadeo I.aren erregealdia, Lehenengo Errepublikak, Alfonso II.a bere semearen erregealdia eta heriotza (agintaldia: 1874–85), bere errain María Cristina Habsburgo-Lorenakoaren erreinaldia, eta bere biloba Alfonso XIII.aren erregealdi pertsonalaren hasiera. [itzuli]
11. Juan Allendesalazar Zaragoza (1882–1938); *Allgemeines Lexikon der Bildenden Künstler* (artisten hiztegi unibertsala) liburuaren 1929ko argitalpenean berak idatzi zituen XIX. mendea baino lehenagoko artista espainiarrei zegozkien artikuluak eta Espainiari zegozkion beste biografia guztiak ere berraztertu zituen. [itzuli]

12. “Aipatu beharra dago Alachako kondetza eman zenetik (Espainiako titulurik zaharrenetakoa da, 1466koa XVIII. mendearen hasierara arte 40 noblezia-titulu eskas eman zitzaizkiela euskal herritarrei. 32 abizen euskaldunek jaso zituzten. Epe berean, 170 noblezia-titulu “andaluziar” eman zituzten. Bizkaian are nabarmenagoa izan zen, dozena bat eskas bizkaitarrek jaso baitzuten noblezia-titulurik XVIII. mendera arte”, Guillermo Gortazaren saiakera bikaineko 67–68. or. Gortazarek dio orri berean Mazarredotarrek ez zutela maiorazkorik: “Hala ere, Mazarredotarrak ez ziren ahaide nagusi familia bat, eta, gainera, baldintzatu egin zituen Gómez de la Torretarrekiko ezkontzak; izan ere, esandako legez, Bilboko merkatarri nagusiak izan ziren XVIII. mendean, eta jatorri kaparekoak ziren. Baina bai izan zuten Lorenza Antonia de Salazar Muñatones anderearen aldetik, hari bai egokitu baizitzaizkion goiko maiorazkoak. Lorenza andrea Cosme de Mazarredo Arbulo jaunarekin ezkondu zen, Calatravako Ordenako zalduna, eta ezkontza horri esker igaro zen Somorrostroko San Martin dorretxea Mazarredotarren eskura; hortik dator egun erabiltzen den Salazar-Mazarredo dorretxearen izena”. Hemen: Carlos de la Plaza y Salazar, *Por Bilbao! Brindis*, Bilbo, 1900. [itzuli]
13. Julio D. Muñoz Rodríguez, “Tantas cortes como ciudades, negociación, beneficio y lealtad en la Corona de Castilla (1667–1714)”, *Entre Clío y Casandra. Poder y sociedad en la Monarquía hispánica durante la Edad Moderna*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia, 2005, 290–91. or.
14. Joaquín Ignacio de Barrenechea (Bilbo, 1681–Haga, 1753) 1707an ezkondu zen Santiago elizan Juana Novia de Salcedo y del Barcorekin. Ezkontza horretatik seme-alaba hauek jaio ziren: José Fernando, Isabel Farnesiokoa erreginaren Asteko Maiordomoa, Solanako markesa eta ondorengoa Portuko markesgoan; Pablo, Puente Fuerteko markesa, erregearen agentea atzerrian enbaxadore gisa Danimarkan (1746), Suedian (1753) eta Holandan (1761), eta Teresa, Joaquín de la Garma Novia de Salcedo, Pesadillako markesarekin ezkondu zena. [itzuli]
15. Sarachagarrek Zubialdea jauregia (zubiaren ondoan), edo Gueñes dorrea, Bilboko hiribildua sortu baino lehenago eraiki zuten, eta Sarachaga edo Bilbo Zaharra izenekin izendatu zituzten beren buruak lehenagokoak zirela garbi gera zedin. Gero Zubialdea dorrea eraiki zuten, Artekale eta Erribera kaleen izkinan (1866ko ekainaren 10ean eraitsia), zeinak hiru armarri baitzeuzkan fatxadan: erdikoa handiagoa, Espainiako armarriekin, eta bi txiki alboetan, Bizkaiko eta Bilboko armarriekin, bi idazkun etzan zeuzkatela ondoan, errege-erregina han egon izana oroitarazten zutenak. [itzuli]
16. José Miguel Hernández Barral, *Grandes de España: distinción y cambio social, 1914–1931*. Madril, 2012, 12. or.: “Isabel II.aren erreinaldian 411 titulu eman zituzten; Amadeo Savoiakoaren eta Berrezarkuntzaren artean kopurua 289koa izan zen. Alfontso XIII.aren erregealdian 228 izan ziren emandako tituluak, eta horiei birgaitutako beste 322 gehitu behar zaizkie. 1931n 2.176 titulu bazeuden indarrean, argi dago noblezia azken mendeko kontua zela Espainiako Historiako beste garai batzuetakoa bezainbeste”, 14. or. Moreno de Guerraren arabera, bere *Guía de la Grandeza* liburuan adierazten duenez, 1925ean 361 Handigo zeuden 266 pertsona desberdinentzat. [itzuli]
17. Aialako harana, Amurrio eta Audio bereziki, oso konektatuta egon zen beti Bilboko hiribilduarekin; azken batean Urduña hiriarekiko lotura baita, Bizkaiko barne-portuarekikoa, alegia; Bizkairako joera duen kokaleku geografikoa, beraz. Gainera, Altube ibaiko urek Ibaizabalekin bat egiten dute Aretan. Bertan elkartzen dira, orobat, Gasteiztik datozen bideak, Baranbiotik eta Orozkotik iraganez, eta Urduñatik datorrena. Kokaleku pribilegiatu horri esker, Aretan jarri zuten Bilboren eta Urduñaren artean hasieran ezarri ziren lau tren geltokietatik bat; Audiok, aldiz, geraleku bat izan zuen. Aretako geltokia 1863ko martxoaren 1ean inauguratu zen, Tuteratik Bilborako burdinbideko—1857an sortua— Bilbo-Urduña tarte zabaldu zenean. Alkoholen eta pattarren industrialari askori, hala izan ziren nire aitona, Bilboko hiribilduan sartuta zeudenez jadanik olioaren, ardoaren eta likoreen merkataritzan, gertaera horrek lur zaharrak berreskurarazi zituzten fabrika berriak sortzeko, eta Orozkoko bizilagun bati, José Arrue pintoreari, enkargatu zitzaizkion merkaturatzeko etiketak. [itzuli]
18. Adibidez: Estanislao de Urquijo Landaluce, 1816an Murgan jaioa, edo Juan Urrutia Zulueta, 1866an Urduñan jaioa, baina Amurrian hazia. Haietako asko Bilbon bizi ziren edo etxea zeukaten hiribilduan amaren aldetik, adibidez: Estanislao de Urquijo, iloba txikia (eta Urquijoko III. markesa) Pilar de Landecheo Allendesalazar bilbotarrarekin ezkondu zen, Cábregako VIII. markesarekin, alegia; edo Francisco de Cubas Erice (1868–1937), Fontalbako III. markesa, I. dukea eta Cubaseko II. markesa (azken hori pontifikala), Itsas Klubean balandroan ibili ohi zena, emakume bilbotar baten semea zen, Matilde Ericerena, eta Encarna Urquijorekin ezkondu zen, zeinari Alfonso XIII.ak 1912an Almodenako kondesa titulua eman baitzion. Haietako batzuek, adibidez Juan Urrutiak, Bizkaiko Institutuan ere ikasi zuten; Andrés Isasi, Barambioko markesa, eta Marqués de Barambio koñakaren egilea, arabar udalerrri horretan jaio zen. [itzuli]

19. Nahiz Sotak Llanoko markesa dei ziezaioten uzten zuen, Muskizeko San Julianeko bere arbasoetako baten titulu bat errebindikatuz. Zehazki, José Agustín Llano de la Cuadra (Muskiz, 1722–Viena, 1794) izan zen Llanoko lehenengo markesa. Diplomazialaria izan zen eta Villarías markesaren iloba, eta Vienan enbaxadore zela hil zen. Haren semea, Fernando Llano y Parreño, Parman (Italia) jaioa, 1843an hil zen, ondorengorik gabe. Haren ahalduna Ramónén aitita izan zen, Félix de la Sota y Llano (1755–1827), Mexikon merkataritza kolonialarekin aberastu zena, eta 1797an itzuli zen Portugaletera. [itzuli]
20. Haren anaiak, Fernando Ybarak, Arriluzeko markesgoa onartuko zuen 1918an. [itzuli]
21. Luciano Urizar Echevarría (1823–1882); ikusi biografia gaztelerazko *addenda* edo eranskinean. [itzuli]
22. José Ramón de Urrutia y de las Casas (Zalla, 1739–Madril, 1803); ikusi Jorge Sarachagaren biografia gaztelerako liburukiko *addenda* edo eranskinean. [itzuli]
23. Ismael Arnaiz Markaida, “La Ría del Nervión, motor de la Industrialización”, *Barakaldo ayer*, 1. zk., 2015. urtea. [itzuli]

## AURREIRITZIAK: ENDOGAMIA

Gezuratu nahi dudan beste topiko bat zera da, Bilboko elitearen endogamia gaizki ulertuarena. Endogamia modu naturalean gertatzen zen Zazpikaleetako familien artean, gertutasun hutsez, besterik gabe. 12.000 biztanle eskas zituen Bilbo hartan, etxeek izaten zituzten lau solairuetan, ezinbestean maila sozial desberdinak nahasten ziren:

- gertutasun fisikoko arrazoi begien bistakoengatik;
- Bizkaian ez zegoelako Antzinako Erregimeneko zatiketarik pribilegiatuen mailaren (noblezia eta apaizak) eta Hirugarren Estatuaren edo herri xehearen artean (nekazariak eta merkatariak edo eskulangileak);
- XIX. mendean, hiru gerra eta lau kolera-izurri jasan zituztenez, ulertzekoa zelako gizarteak bat egitea zorigaitzaren aurrean.

Hiribilduko gune txikian, XIX. mendearen erdialdera, ezkon harremanak izan ziren arlo sozial desberdinetatik zetozen aberastasunen eta negozioen kontzentrazioa areagotu zuen azpiegitura. Ez dago nobleen edo aristokraten elite bat (ahaide nagusien landako noblezia hori alde batera utzita), jatorrien nahasketa bat baizik, eta horrek eragingo zuen, batetik, jarrera eta portaera irekiagoak, eta, bestetik, askotariko jendearen integrazioa, bere burua alor ekonomikoan eta sozialean sendotzeko eta indartzeko bat eginik. Bilbon gurutzatze asko izan ziren bilbotar burgesia komertzialaren eta landako jauntxoaren artean, haiek baitziren nagusi foru aldundietan eta legebiltzarreko ordezkaritzan, eta, halaber, indianoen eta atzerritar herritartuen artean.

Horregatik esan dezakegu endogamia ez zela bilatua, naturalki gertatzen zela baizik.

1. Bilboko erroldari errepasso bat eman diezaiokegu eta ikusiko dugu nola etxe berean familia desberdinak bizi diren, azkenean harremanak izango dituztenak, eta ez duela, beraz, zentzurik, esan izan den bezala, hori haietako batzuen kapitalaren status quo mantentzeko dela esateak, kontrakoa delako, hain zuzen.
2. Ikusiko dugu nola meategien industriari lotutako familietan, ia beti familia ugariak zirenak, bestalde, pertsonen arteko harremanak gertatzen ziren: bi anaia bi ahizpekin, etab.
3. Ikusiko dugu nola Batxilergoko Institutuko harremanetan geroztikako erlazioak izaten diren.
4. Ikusiko dugu nola enpresa beretan leialtasun bat gertatzen den goi mailako enplegatuen artean.

XIX. mendeko biografietan Tomás de Epalzarekin hasi gara, zeina seme-alabarik gabe hil baitzen. Baina Epalzatarren gainerako ahaideek Bilboko bitartez: Palaciotarrak, de la Quadra-Salcedotarrak, Olabarritarrak, Escuzatarrak, Lerenatarrak, Sagarmínagatarrak; edo erbestean, 1936–39ko Gerra Zibilaren ondoren, Aranzaditarrekin, edo Solanotarrekin, etab. Beste pertsonaia bitxi bat, Luciano de Urizar, merkatarien semea, baina hura ere Gernikako landa nobleziakoa, antzerki enpresaria eta sustatzailea, Julián Gayarre tenorearen adiskidea, zeinak haren hiletan kantatu

baitzuen, nor izango eta Luciano Zubiría gorteetako diputatuaren, Luis Zubiría Urizaren (Yanduriko markesa), Mercedes Churrucaren (Motrikuko kondesa) eta Teresa Zubiriaren (Abrako kondesa) aitona zen.

Bestalde, Cosme Zubiría Echeandía (Barakaldo, 1808—Bilbo, 1880), merkatarien eta Bilbon kokatutako itsasontzien kontsignatario familia bateko semea, Prudencia Ybarrarekin ezkondu zen 1844an; emakume hori meategietako negozioen aitalehenaren alaba zen, eta Juan eta Gabriel bere koinatuekin lan egin zuen gero. Haiengandik guztiengandik seme-alaba asko sortu ziren denboran zehar luzatuko zen katean; adibidez, haien semeak Tomás eta Pedro Zubiría Ybarra, edo haren anaia Salustiano eta haren seme Luis, Luciano Urízaren arreba batekin eta alaba batekin ezkonduak, hurrenez hurren. Zubiriatarrek ez ziren bakarrik Ybarra familiarekin eta Urizar familiarekin konektatu, baita ere Churrucatarrekin, Yohntarrekin, MacMahontarrekin, Arana-Ybarratarrekin, etab.

Martínez de las Rivastarrak; José María aitalehena bi emakume ingelesekin ezkondu zen arren (Cecilie Tracy-Toole, 1847–1879, eta Maria Richardson, 1875–1955), haren bederatzi seme-alabak familia ezagun batzuekin ahaidetuz joan ziren: Aburtotarrak, Amanntarrak, Aranatarrek, Bayotarrak, Bordatarrek, Monasteriotarrak, Ocharantarrak, Olabarrítarrak, Urquijotarrak,...

Familia arteko gurutzatze asko zeuden; familia emankor asko egoteaz gainera, Ybarratarrek bezala, seme-alaba gutxiago zituzten familiekin, De las Rivas Ubietatarrek, adibidez, beste familia batzuekin nahasiko zituzten azkenean beren ondorengoak: Ocharantarrak, Amanntarrak, Aburtotarrak, Aranatarrek, Bayotarrak, Bordatarrek, Mazastarrak, edo Monasteriotarrak. Estanislao Urquijo, Urquijoko I. markesaren lerroa ere, zeina ezkongai hil baitzen eta bere bi ilobak izendatu baitzituen oinordeko (Juan Manuel Urquijo Urrutia eta Matilde Erice Urquijo, Francisco Cubas madrildar arkitektoarekin ezkondua), Bilboko Zazpikaleetako beste familia batzuekin nahasi zen, besteak beste, Aldamatarrekin, Allendesalazarrekin, Landechotarrekin, Ybarratarrekin, etab.

Siderurgiako oligarkia esaten zaion horren abizenetatik ateratzen bagara, gauza bera gertatzen da. Errepara diezaiozun Leonardo Torres Quevedo ingeniari-asmatzailearen familiari: haren aitita Torres-Vildósola Mexikon bizilekua hartutako indianoen (Vildósola, Arteakoa) eta militarren semea eta biloba zen, Urquijotar batekin ezkondu zena. Antonio Cirilo de Vildósola Labayen (1793–1835) Bilboko hiribilduko errejidore bat zen, Luchana nobelan agertu zena, Benito Pérez Galdósen Episodios Nacionales kontakizunetako batean, alegia; beste ahaide bat Emilio Muruaga Vildósola (1830–1909) zen, Espainiako enbaxadorea Mexikon (1875–82), eta gero Anberesen eta Vienan; hirugarren bat Antonio de Vildósola Mier (1829–1893) zen, kazetari ospetsu bat, Ybarra y Mier elkartearen partaidetza zituen eta Eduardo Coste Vildósolaren kidea, zeina baitzegoen Doloresekin ezkondua, Máximo Aguirreraren alabarekin, hain zuzen; edo, baita ere, Álvaro Alcalá-Galiano Vildósola (1873–1936) pintorea, Real Aprecioko kondea. Leonardoren iloba, Anita Torres-Quevedo Allsop, José Cabrero y Mons pintorearekin ezkondu zen, Francisco Iturrino pintorearen lagunarekin, alegia. Alde Zaharreko hainbat familia aurkitzen ditugu berriz hemen, jatorri desberdinekoak, ahaidetuak: Torres-Vildósola-Mier-Muruaga-Ybarra-Aguirre.

Alde Zaharrean bizi zen jende nahasketa bat zen Bilbo, gauza asko elkarrekin jasan zituzten familien nahaste bat: gerretako setioak eta kolera-izurriak. Errepasa ditzagun, 1875eko erroldarekin<sup>1</sup>, XIX. mendeko Bilbo hartako bi kale desberdin: Posta kalea eta Gurutzeta kalea: ikusiko dugu zer jende bizi zen haietan eta egiaztatuko dugu sistema demografikoa arestian aipatutakoa zela eta erlazio asko auzokideen artean egiten zirela. Ez zegoen mailakako gizarterik egunerokotasunean, komunitate irekien gizarte bat baizik, non lana baitzen bizitzeko estiloa. Ez zegoen soziabilitate eskusibista bat sustatuko zuen klase aristokratiko bat, burgesia maila desberdinak baizik, ahaleginez, kemenez, ilusioz eta grinaz bizi-maila hobeto baten bila. Elite burges horrek itsasoan bainatzeko zaletasuna eta uraren kultura osasun-iturritzat aurkituko zituenean, tranbiak bainuetxeetara eta hondartzara hurbilduko zituen gainerako guztiak<sup>2</sup>.

Posta kalea XVI. mendean eratu zen, Santiago eliza Areatzarekin elkartuz, eta Santiago kalea deitu zen. 1821ean estatuaren posta zerbitzua han ezarri zenean hasi zen Posta kalea deitzen. Ia XX. mendea arte zenbaketa basilikan hasi eta Areatzan amaitzen zen (gaur egungoaren alderantziz)<sup>3</sup>. Kaleak armarridun eraikin-jauregi asko zituen, ahaide nagusienak, hala nola Ampuero tarrena, Allende Salazartarrena (Posta 14 edo Jaspe Etxea, Ereñoko haren harriagatik horrela deitua), Gortáztarrak edo Ampuero tarrenak, etxetzar zabalak guztiak eta oso ondo eraikiak. Baina familia horiez gainera, arestian aipatu dudana nahaste hori aurkitzen dugu.

Areatzatik sartuta, alde batean hotela zegoen eta bestean, berriz, Ampuero etxearen behealdean, Café Suizo y Pastelería, de Matossi y Compañía gozotegia zegoen. 24. zenbakian, Gortazartarren jauregia. 26an, Eduardo de Aznar y Sota ontzigilea bere seme-alabekin eta —ezkondu zen arte— haren lehengusua, gero enpresari handia, Ramón de la Sota. 28. zenbakian Au Monde Elégant denda zegoen, Pacho Gaminderena, eta 30ean, berriz, Ángela de Gortazar Munibe bizi zen, Manuel Gortazaren arreba eta Torres Vildósola ingeniariaren alarguna. 15. zenbakian, Briñasen alarguna, filantropoarena, alegia, Bizkaiko Institutuko katedratiko bi bizilagun zituela: Naverán anaiak. 16an Nicolás Delmasen liburu denda eta inprimategia zegoen; ondoan kabinete fotografiko bat zeukan Alfonso Guiard optikoak, bere zortzi seme-alabekin: bat pintorea izango zen eta bestea, berriz, hiribilduko artxibozaina-historialaria. 13. zenbakian, Palmetarrak eta beren oihal denda, bai eta Zuricaldayarren txokolate biltegia, eta solairu nagusian, Dolores Chirapozu haren senar Gabriel Lambarrirekin, jabea hura, biak Indietako diruarekin; Chirapozutarrak Busturiako zeramika fabrikaren jabeak ziren eta ahaideak bai Ucelay pintorearenak eta bai Unamunorenak. 11. zenbakian bizi ziren Juan Echevarría la Llana, jabea eta ahaldun nagusia, eta haren emaztea Tomasa de Arriaga, alaba batekin eta hiru neskamerekin; hirugarren solairuan, Manuel María de Gortazar (haren emaztee Susana Mansorekin, zortzi seme-alabekin eta bost morroirekin). 7. eta 8. zenbakietan ezin zen bizi sabaia, paretak eta habeak hondatuta zeudelako bonbardaketaren ondorioz. 10ean, Echevarría-Rotaechetarrak bizi ziren, bi seme-alabekin; enpresari bihurtutako latortzigilearen semea zen Rotaechete.

4. zenbakian Luis Zubiría Ybarra bizi zen bere familiarekin. Baita ere Sopuertako enkarteritar bat, Kuban aberastu zena, Patricio del Castaño, bere emazte kubatarren eta bere bi seme-alabekin bizi zena: Adela eta Nicolás. 5. zenbakian, Gerrikogin kalearen izkinan, Gastón y Daniela alfonbra eta tapiz denda, eta Adelia Iváñez turroi denda, 1827an Juan Bautista Belaunzaránek 1827an eraikitako eraikinean. 3. zenbakian Zuricalday familia zabala, arestian aipatua: gozogileak.

Jarrai genezake Alde Zahar barneko beste kale batzuetako demografia aztertzen, adibidez, zer jende bizi ote zen Gurutzeta kalean, kale motz batean, alegia. Mutur batean Zamudioko Atariarekin zuen muga, zeina urte haietan Puerta del Sol moduko bat baitzen, Tenderia, Artekale eta Somera hiru kale nagusietarako sarbide gune aktibo bat, alegia. Beste muturrean, kalea Institutuko plaza txikian amaitzen zen, zeina baitzen Bizkaiko Ikastetxearen eta Bizkaiko Institutuaren egoitza, eta hara ematen zuen Iturribide kaleak eta handik ateratzen ziren Mallonako hilerrira eta Begoñako elizara zeramatzen galtzadak.

7. zenbakiko lehenengo solairuan Telesforo de Aranzadiren —botanikako katedraduna Bartzelonan eta gero antropologiakoa— gurasoak bizi ziren, eta beheko solairuan kokatuta zegoen gozo-denda bat zeukaten; han bizi ziren, baita ere, Unamuno haren ama alargunarekin, Unamunoren osaba-izenak, eta Moreno Aranzaditarrak ere bai, Athleticeko jokalaria ospetsuaren gurasoak, alegia, eta atikoan Antonio María de Lecuona pintorearen estudioa zegoen. Handik ez urrun, Erronda kaleko 16. Zenbakian (harresia inguratzen zuenean), Arriaga musikaria bizi izan zen, Unamuno bera jaio zen eta biziko ziren lau Arruetar pintoreak.



Zazpikaleko eta San Anton elizatik gertuko Erriberako portuko Bilbo hori lekualdatuz joan zen ibaiko beste ertzetik (Abandoko elizatea) Martzanako, Erripako eta Uribitarteko kaltetara, eta eskuineko aldetik, berriz, Areatzarantz. XVIII. mendearen hasieran, Areatza horrek ontziak atrakatzeko eta ainguratzeko baldintzen zerbitzua ematen zuen, ontziak San Antoneraino igotzerik ez zutenez.

1791. urtean eramanak zituzten jadanik Estufako etxea (ontziak bikeztatze) eta Iditegia (karga garraiatze) Campo Volantinera eta Olabeagara materialak arriskutsuak zirelako; udal egoitzak Campo Volantinera eramatea 235.000 errealekin kostatu zen kobrezko txanponetan. Horrela eratu zen San Nikolaseko errebala, Askao-Ltxaropen-Sendeja kaleen lerroari jarraituz Ybarras hariztiraino iritsi arte (gaur egun Campo Volantin deitua), San Agustin komentua (eta gaur egun udaletxea) egon zen lekuraino, alegia. Areatzako zelaiak eta ihitegiak espazio eraiki bilakatu ziren, eta itxura berri eta kosmopolita eman zioten, hala, hiribilduari. Juan Iturburu obra-maisuak San Nikolas elizarekin lerrokatutako etxe-ilara berri baten planoak egin zituen; ilara hori Sendejaraino joango zen, non baitzeuden Bilbo Begoñatik bereizten zuten harrizko bolardoak. Horrela jaio ziren Estufa kalea, aurretik, (lehen Areatzetako pasealekua eta 1900. urteaz gero Epalzaren Alarguna kalea) eta Ltxaropena, atzetik, 1790ean.

Nor bizi zen kale berri eta ibaiko aireari Zazpikaleak baino irekiago horretan? Ikusiko dugu nahaste soziala lehenengo bera zela. 1879ko erroldaren arabera, Ventura Gómez de la Torreren jauregia zen lehenengo etxea, zeinak 1790an San Nikolas eliza eta Udaletxe ondoko lurra erosi baitzituen; hor egin zen 1840an Jorge de Sarachagak errusiar printzesa batekin izan zuen semearen bataioa.

2. zenbakian bizi ziren alkate ohi bat, Joaquín de la Quintana; abokatu bat, Lázaro Careaga; Berangoko bi errentadun, Pedro Aguirre eta Pedro Icaza; eta laugarren solairuan, Hoffmeyer ingeniaria, Lucía Arisquetarekin ezkondua eta hiru alaba zituen. Atzerritarrek goiko solairuak aukeratu zituzten: hurrengo zenbakiko laugarren solairuan Hilario Lund Know biziko zen, bakailao eta egur salerosketan aritua, eta 4. zenbakiko hirugarren solairuan, berriz, Teodoro Seebold Bruckmann ingeniari alemana bizi zen. Bosgarren solairuan, txapitelean, Pedro Abásolo izeneko zurgin bat, bere emaztearekin eta semearekin, neskame batekin eta bi zurgin aprendizekin. Ikusten dugu, beraz, eraikin berean alkate ohiak, ingeniariak, enpresariak, merkatariek eta zurginak daudela.

Kale bereko 3. zenbakian Juan Olabari Aldamaren (1788–1863) alarguna bizi zen; merkataria hura lehenik Epalzatar batekin ezkondu zen eta gero Magdalena Massino Lerarekin (1811n jaioa), zeina baitzen Bilbon bizilekua hartutako italiar merkataria batzuen alaba. Alargun hori bere semearekin bizi zen, zeina baitzen enpresa-kapitain handi horietako bat, José María (1849–1924) eta haren emaztearekin, Manuela Zubiría Ybarra, eta urtebeteko alaba batekin; han bizi ziren, baita ere, Magdalenaren ahizpak, Lucía eta Juana, bi neskame eta inude bat<sup>4</sup>.

Estufa kaleko 5. zenbakian, lehenengo solairuan, Eguillortarrak bizi ziren, haiek ere Indietako diruekin aberastuak; laugarren solairuan, Ángel del Palacio bizi zen, Gordexolakoa, alarguna, bere sei seme-alabekin (Cosme, 1858an jaioa, probintziako diputatua izan zen eta indar handia eman zien bere aitak sortutako Arabako Errioxako Palacio bodegei), saltzaile batekin eta hiru neskamerekin, eta lehengusu arkitektoarekin, Alberto de Palacio, gero Zubi Etekiaren eragilea izan zena.

6. zenbakian Ganatarrak bizi ziren, Saturnino, alarguna, Tomás Ganaren semea, merkataria eta itsasgizona, frantsesetua, Boluntarioen Milizia Nazionaleko komandantea izana eta Bilboko bigarren alkatea 1812ko abendutik 1815 urtea arte. 1820an ontzi alfereza zen, 1821ean Bilboko Behin Behineko Gerra Batzordeko kidea izan zen eta 1823an, berriz, Bilboko alkatea. Saturnino bere seme ingeniariarekin bizi zen, Enrique de Gana Suárez, zeinak 1892an Tubos Forjados fabrika

sortuko baitzuen Olabarri bizilagunarekin batera. Eta haien gainean Lino Arisqueta Achúcarroren alarguna bizi zen, zeinak negozioak egin baitzituen Mexikon (jabea zen, hiru seme-alabekin eta hiru morroirekin).

7 eta 8 zenbakietan, bi eraikinetako bigarren solairuan, González de Careagatarrak bizi ziren; aita, Miguel, 1830eko maiatzaren 3an jaio zen Lanestosan eta dirutu egin zen Mexikon. Evelina Bishopekin bigarren aldiz ezkondua, bere amaginarrebarekin eta sei seme-alabekin eta bost neskamerekin bizi zen; neskameetariko batzuk frantsesak ziren.

Haren semeetako bat, Enrique (1872–1936) Athleticeko lehendakaria izan zen 1903tik 1906ra, eta garai hartako nabigatzailerik onenetako bat zen eta Alfonso XIII.a erregearen finantza aholkularia. Enrique hori, Pedro, Cadaguako kondearen eta Adolfo Careaga Urquijo, 1937an erailaren osaba zen. 14. zenbakian (Zabálburutarrak zituen jabe) Juan José Araquistain eta Salustiano Zubiríaren familiak bizi ziren; bigarren solairuan, Orueta bizi zen, udal arkitektoa, eta Ramiro de Orbegozo itsas artekaria; goian, Orbegozo Lequericatarrak, eta laugarrenean, Rochelttarrak eta Palmetarrak, atzerriko bi familia, baina jadanik zeharo bilbotartuak.

Endogamia esan izan zaion horren beste giltzarri bat Bizkaiko Institutuko ikasleen arteko laguntasun harremanak ziren edo Urduñako jesuiten barnetegian zeudenenen artekoak, edo XX. mendean jadanik, Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo Ikastegian sortu zirenak, fraide kaputxinoek 1888an Baztanen sortutako barnetegian, alegia<sup>5</sup>.

Urduñako jesuitetan batera aritu ziren Ramón de Basterra poeta eta diplomazialaria eta Estanislao María de Aguirre, eta elkari lagundu zioten idazle gisa. Sabino Arana politikariak bere ideia nazionalistetan leial jarraituko zioten beste batzuekin batera ikasi zuen han: Gregorio Ibarreche (PNVko lehenengo alkatea), Alfredo Acebal y Gordon (Balmasedakoa), Euskalduna frontoiaren arkitektoa 1895ean eta Periko Chalbaud, Sociedad Española de la Dinamita enpresako ingeniaria eta ahaldu nagusia izango zena, eta zeinak Luis Chalbaud bere anaia jesuitarekin Deustuko Unibertsitate Komertzialak martxan jarri zuen Fundación Vizcaína Aguirreko patronatuko kide izango zena. Lekarozen, berriz, batxilergo eta merkataritza ikasketak 1898an hasi ziren, eta bizkaitar askok ikasiko zuten han, bai eta harremanak egin haien artean, erbestean ere iraungo zutenak.

Harremanik sendoenak Bizkaiko Institutuan ezarri ziren; ikastetxe hura 1846an sortu zen, eta Bizkaiko Aldundiaren mende zegoen. Cosme Echevarrietak Bernabé Larrínaga, udal sendagilearen semea, ezagutu zuen institutuan eta Echevarrieta y Larrínaga (1884) meategiak ustiatzeko enpresa sortuko zuen harekin, hitzeko tratuz errentan zeukatena. Bernabé hil zenean, haren seme Isidorok Horacioren esku utziko zituen haren negozio guztiak; Horazio Cosmeren semea zen, eta kontraturik egin behar izan gabe utzi zizkion. Víctor Chávarrik Bizkaiko Institutuan ikasi zuen eta ikaskide izan zituen han, bere anaia Benignoz gainera —Víctorengandik sekula bereizten ez zena— Ramón de la Sota, Tomás de Zubiría, Ángel eta Manuel Allende Salazar, eta José Tartiere, beste ingeniari bat, gero Santa Barbara de Lugonesko markesa izango zena dinamitarekin egindako esperientziengatik. Madrileko politikan ezaguna izan zen Chávarriren hitzaldien eta mintzaldien laburra eta, baita ere, Allende-Salazarek esaldiak ez bukatzeko zuen modua. Pedro Eguilloren (1877–1937) ikaskideak izan ziren Camiña anaiak, bata arkitektoa, Raimundu Berazaz eta Leonardo Rucabadoz gainera, horiek ere arkitektoak, Gabriel Ybarra eta Teófilo Guiard. Adolfo Guiardek izen txikigarriz deitzen ziotela esaten zuten, Pedrito, katalajua alderantziz jarrita begiratzen ziotelako. Hango ikaslea izan zen, baita ere, José Félix de Lequerica, Atzerriko Ministroa Francorekin eta Pedro Guimón eta Tomás Bilbao arkitektoen ikaskidea.

Enpresa taldeak ere elkarren arteko erlazio profesional eta konfiantzazkoen beste adibide bat izan ziren. Ia enpresa-kapitain horiek guztiek zuzendaritza talde oso elkartuak eratu zituzten, sarritan ideia politikoetan bat ez etorri arren. Pertsonen arteko erlazioak eta laneko erlazioak ideia politikoekin gaintek zeuden. Echevarrietak pertsona beren esku utzi zuen hamarraldi askoan bere negozioen egunerokoa: José Madaleno Zárraga bere koinatua, Juan Antonio

Aldecoa Arias itsas ingeniaria eta Luis Aranguren, gerora Mexikora erbesteratuko zena<sup>6</sup>. Negozioen ardua hartzerakoan, bera leiala izan zitzaion bere aitaren ahaldunei: Miguel Iturrino Aguirrebeña ingeniariari, Vicente Salvidegoitia ontzi kapitainari, Miguel Iturrino Aguirrebeña ingeniariari, edo Gaspar Leguina ontzien artekari interprete eta zamatzeko tokien eraikitzaileari (haren ideia errepublikanoekin bat egiten zuen bakarra)<sup>7</sup>, edo Manuel Unzurrunzaga eta Gumersindo de Azcárate abokatuei. Ramón de la Sotaren kasuan gauza bera gertatu zen: Eduardo Landeta y Aburto (1867–1957) bere lehengusua izan zen bere eskuineko eskua, Eduardo Landeta artistaren aita zena, baina era berean lan egin zuten harekin Ignacio Rotaechek, Domingo Epalzak, etab.

Endogamia enpresariala ez zen ezkontza bidezkoa bakarrik izan, baita adiskidetasunezko harremanena ere, ideia politikoetatik harago. Cosme Echevarrieta errepublikanoa Bernabé Larrínaga, udaleko sendagilearen adiskide mina zen; Bernabé Aburtotar batekin ezkontuta zegoen, Ramón de la Sota nazionalistaren emaztearen izebarekin, alegia. Itsas enpresak elkarren lehian ari baziren ere, atzerrian lehiatu behar zirenean, ordea, elkar hartzen zuten aukera komunak bilatzeko.

Batzuetan familia harreman horiek zubi gisa balio izan zuten desadostasun politikoetan. Victor Chávarri berandu sartu zen politikan, eta, bereziki, bere interes enpresarialak defendatzeko, “diputatu profesionalek” defendatzen ez zituztela esaten zuelako. Baina politika familian zegoen: haren aita zinegotzia izan zen Portugaleten, haren aitona Batzar Nagusietako kidea, eta haren osaba eta tutorea, Benigno de Salazar, berriz, Ahaldun Nagusia eta gero Bizkaiko Aldundiko lehendakaria izan zen 1880tik 1884ra bitartean. Haren aitagarreba, Atanasio Anduiza, berriz, Alzola buru zuen Batzorde Liberaleko kidea izan zen 1884an, eta batzorde horretako idazkaria zen berebat Manuel Goyarrola, bere anaia Benignoren emaztearen osaba, Aldecoa Goyarrolatar batekin ezkontuta zegoena. Gainera, Benignoren alaba bat Álvaro Alcalá Galianorekin ezkondu zen, eta Víctoren alaba bat José María Olabari Massinorekin, eta haien semea, Víctor, Trianoko markesa 1920an, Povedatar batekin. Aldez aurretik, bien arreba, Dolores, José María Lizana, Casa Torreko markesarekin ezkondu zen. Hemen ikusten dira baita ere Portugaleteko eta Bilboko familien arteko erlazioak: Chávarri–Salazar–Aldecoa–Anduiza–Goyarrola–Olabari–Alcalá–Galiano–Poveda–De la Sota–Arteche–Zubiría–Villabaso. Hau da, denbora gutxin, bi belaunalditan hamabi abizen nahasi ziren, eta gero bir-konbinatu egingo ziren. Baina horrek ez zuen zerikusirik interes ekonomikoetan oinarrituriko oligarkia batekin, aitzitik, hiriak ez zuen gehiagorako ematen; horregatik integratu ziren hain azkar mende hasierako atzerritar merkataria haiek guztiak.

Labirinto genealogikoa korapilatu egin zen XX. mende amaierarekin, non abizen batzuk antzekoak baitziren, baina ez zuten jatorri bera. Adibidez, konpara ditzagun Urquijo abizeneko bi dirudun familia handi: Adolfo Gabriel de Urquijo Ybarra (Urquijoko konde pontifikala 1907an) eta Estanislao de Urquijo Ussía, Urquijoko hirugarren markesa.

Adolfo Gabriel de Urquijo Ybarra (1866–1933) Bilbon jaio zen; hona haren neba-arrebak: Luisa (Aingeru Zaindarien kongregazioko ama nagusia), Julio (euskararen alorrean garrantzi handia izan zuena) eta José María (abokatu eta propagandista katolikoa, 1901ean La Gaceta del Norte egunkaria sortu zuena, eta 1936an fusilatua). Urquijoren aita ez zetorren Laudioko markesaren lerrotik, aitzitik, hiribilduko eskribaua eta notarioa zen, meategietako Ybarra batekin ezkontua. Adolfo Gabriel, berriz, Mariarekin ezkondu zen, José Martínez de las Rivas enpresari siderurgikoaren alaba nagusiarekin; Rivas hori Francisco Martínez de las Rivas, Mudelako markesaren iloba propioa zen.

Estanislao de Urquijo Ussía (1872–1948,), berriz, Urquijoko hirugarren markesa, Madrilen jaioa, Espainiako Handia 1918. urteaz gero, Pilar Landecho Allende-Salazar gernikarrarekin (1877–1939) ezkondu zen 1898an. Estanislao Banco Urquijoko eta Compañía Telefónica Nacional de Españako zuzendaria izan zen (lehendakaria izango zen 1924tik 1944ra); senar-emazteak Madrilen eta Laudioko Lamuza jauregiaren artean bizi ziren, non festak egiten baitzituzten pertsonaia bikainekin, nola diren Sorolla pintorea, Terán piano-jotzailea, Costa biolin-jotzailea, eta hara joaten ziren

Alfonso XIII.a eta Victoria Eugenia errege-erregina, urte batzuk lehenago Zabalburuko etxera joanak ziren bezala Bilbora etortzen zirenean. Diputatua izan zen Amurriotik legealdi askotan eta sekula ez zuen ez kargu politikorik ez ezein ministeriorik bere borondatez izan. Adolfok ez zuen seme-alabarik izan eta bere jenio txarragatik eta bere intriga politikoengatik ezaguna izan zen; Estanislak, berriz, hamabost seme-alaba izan zituen eta bere festengatik izan zen ezaguna. Biak bihotzeko gaixotasunez hil ziren beren landa-etxeetan, bata Churruca-enean, Ategorrietan, eta bestea, berriz, Lamuzako jauregian, Laudion.

Endogamia, beraz, naturalki gertatu zen Zazpikaleetara mugatutako hiribildu hartan. Ez zen familia barruan hartutako ondarea eta boterea gordetzeko bitarteko bat, ezkontza bidez atxikia geratzeko moduan. Portaera horrek ez zion alde aurretik ezarritako ez estrategia bati ez politika bati erantzun, aitzitik, naturaltasun baten fruitua izan zen; hala, Mungiatik zetozen Orbegozotarrak, Bilbon bizilekua hartzean Jugotarrekin, Lequericatarrekin, Zubiríatarrekin eta Mazastarrekin (Sánchez-Mazas) elkartu ziren. Klase sozial batzuek besteekin bat egin zuten. Desberdin samarra izango zen endogamia Negurin Gerra Zibilaren ondoren, denborak aurrera egin ahala jarduera hori gero eta gehiago hedatu baitzen, harik eta zirkulu familiar bat eratu zuen arte, zirkulu neurri batean itxia, alegia, bere idiosinkrasia propioa zuena.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Erroldei eta haien datuei buruz badaude haien berri ematen duten blog bikainak, Estornes Lasarena, besteak beste. [\[itzuli\]](#)
2. Badakigu ezen 1898. urtean zehar Bilbo-Areeta tranbia elektrikoak 1.700.000 lagun garraiatu zituela. [\[itzuli\]](#)
3. Postazko harremana ezinbestekoa izan zen Bilbo bezalako hiri komertzial batean; Kontsulatuak eta Kontratatzio Etxeak beren posta eta mezulari zerbitzu propioa ezartzeko pribilegioa izan zuten; gutunak San Anton parrokiari atxikitako eraikin batean uzten ziren eta Bilboko Postari Nagusiak eta Postetako Maisuak kontrolatzen zuten, zeina 1577an Íñigo de Aperribay baitzen, 1648an Pedro Ibáñez de la Rentería eta 1691an, berriz, Juan Barrenechea. 1716an Felipe V.ak agindu zuen posta zerbitzua estatuaren erantzukizuna eta administrazioa izan zedila aurrerantzean eta esku pribatuetan egoteari utz ziezaiola, eta Posta eta Zamariak sortu zuen. 1762an lehenengo postontziak ipini ziren, 1756an postarien kidegoa eratu zen eta 1850ean zigilua erabili zen “alde aurretiko ordainketa” gisa; 1855ean telegrafoa sartu zen eta 1884an, berriz, telefono zerbitzu publikoa. Bilbon, zerbitzuaren lehenengo bulegoa 1821ekoa zen. César Estornesen blogean emandako informazio ordainezinei jarraitzen diet hemen <https://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com/2017/04/los-vecinos-de-la-calle-la-estufapadron.html>). Badaude beste blog garrantzitsu batzuk Getxoz, Portugalete edo Santurtziz, non ez baita berez historia egiten, baina era guztietako materialak hurbiltzen dizkiote irakurleari, oso material interesgarriak, alegia, nahiz batzuetan aurreiritziren bat suertatzen den tartean: <https://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com/2017/04/los-vecinos-de-la-calle-la-estufapadron.html>; <http://mareometro.blogspot.com/2015/11/conferencia-de-goio-banales-en.html>; <http://bibliotecadigitalportugaluja.blogspot.com/p/contacto.html> [\[itzuli\]](#)
4. Bestalde, Olabari Massinok bazuen aitaren aldetik amona bat Aldanatarra zena, bere aitaren lehenengo emaztea Epalzatar bat izan arren. Manuela Zubiría e Ybarrarekin ezkondu zen (1855–1921), Cosme Zubiría Echeandíaren eta Prudencia Ybarra y Gutiérrez de Cabiedesen alabarekin, alegia, eta bildu zituen, hala, meategi gehien zituzten familietatik bi, eta bost seme-alaba izan zituzten: María (1878–1964), Magdalena (1882–1969), Julio de Artech Villavaso, Artecheko kondearekin ezkondua; José María (1891–1947), María de los Ángeles Chávarri Anduizarekin ezkondua —Víctor Chávarriren eta Soledad Anduizaren alaba— 1891ko azaroaren 11n Bilbon, Arbolantxa kaleko 12. zenbakian; Tomás, zeina ezkongabe geratu baitzen; eta Luis María, Begoña de la Sota Aburtorekin ezkondua, Ramón de la Sotaren eta Catalina de Aburtoren alabarekin, hain zuzen. [\[itzuli\]](#)

5. Batxilergo eta Merkataritza ikasketak 1898an hasi ziren. Hortik igaro ziren Ucelay pintorea, Jorge Oteiza eskultorea, Nicanor Zabaleta harpa-jotzailea, Jesús María de Leizaola, 1979 arte erbesteko Euskal Gobernuaren lehendakaria zena, edo Alfonso Marqués de Portago kirolaria. Kaputxinoak izan ziren Hilario Olazarán, Dámaso de Elizondo, José Antonio Donostia eta Jorge Riezu musikariak, eta hor bisitatu zituen 1927an Maurice Ravelek. 1916 arte George Washingtonen, Estatu Batuetako lehendabiziko lehendakari konstituzionalaren erretratua egon zen hor, Charles Eilson Pealek pintatua. [\[itzuli\]](#)
6. Gonzalo Dúo, “Las memorias del racionalista Luis Aranguren, entre las trascendentes de Unamuno y las divertidas de Orueta”, Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao, 19. zk., 2008, 203–22. or. [\[itzuli\]](#)
7. Gaspar Leguina kazetaria ere izan zen. *Irurac-Bat* egunkariko zuzendaria izan zen 1879ko azarotik 1881eko abendura, Cosme Echevarrietarekin batera erosi baitzuen, Federico Solaeguiaren laguntza finantzarioarekin egunkari demokratiko bihurtzeko. 1881eko abenduaren 10ean El Norte egunkaria sortu zuen, Martínez de las Rivasen eta Aburtoren laguntza ekonomikoari esker, eta haren zuzendaria izan zen baita ere 1890ean egunkaria desagertu zen arte. Horaciok bakarrik izan zituen arazoak Julián Olaverekin, zeinak Cosmerekin lan egin baitzuen 1867–80an eta berriz ere 1895ean. [\[itzuli\]](#)

Bilbok 1739. urteaz gero zuen Nautika Eskola, eta 1819. urteaz gero Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola. Bi alorrok, itsasoa eta merkataritza, oso elkartuta egongo ziren hiribilduko herritarren mentalitatean. Nautika Eskola Aldundiaren, Bilboko hiribilduaren eta haren Kontsulatuaren ekimenez sortu zen, 1739ko urriaren 31ko dekretu baten bitartez. Bilboko Kontsulatu Txit Goreneneko Unibertsitate eta Kontratazio Etxeko 1737ko Ordenantzek, itsas pilotuen ofizioari dagokionez, hau zioten 24. kapituluan, 3. zenbakian: “[...] Ezein ere ezingo da aurrerantzean Kapitaintzat, Maisutzat edo Patroitzat hartu, ez badu aurrez sei urtez nabigatu, lau marinel gisa, eta bi pilotu gisa, eta Ontzirik gobernatu aurretik, gerta daiteke ezen marinel bat ari izana Pilotatzearen Artea ikasten eta hartan jarduten, dagokion titulua gabe, Marinelaren titulu soilarekin baizik, eta agintzen zaie, bada, halakoei, Kapitainen eta Pilotuen Agiri bidez egiazta dezaten eraman izana bidaia batzuetan norabideen eguneroko egokia eta zehatza bi urtez, eta guztira sei urtez nabigatu izana [...]”.

Ontziak gidatzeko profesionaltasun tekniko hori zela eta, 1778an Ameriketako Portuekiko Merkataritza Librearen araudia promulgatu zenean, pilotuen premia agertu zen Espainiako portu guztietan, eta Bilbo izan zen haien hornitzaile nagusia. 1783ko Errege Ordenari esker, Pilotuen Zuzendariak eta Itsas Eskoletako Maisuek lehen eta bigarren mailako Pilotin eta Pilotu azterketak egin ziezazkieketen itsas ofizioan eta ontzi gidarienean aritu nahi zutenei. Bilbok indar handia hartu zuen sektore liberalizatu hartan, punta-puntako nautika eskola zuenez. Era berean handik urte batzuetara, Bilboko jende hori Meategien Legeaz, Burdinbidearen Legeaz edo Kostako Aduanen Legeaz baliatuko zen. XVIII. mendearen amaieratik bazegoen halako “eupeismo” bat, esan nahi baita hitz horrekin gizarteak modernizazio prozesu bat eskatzen zuela eta legegizonen, ekonomialarien edo ontzi-kapitainen prestakuntza behar zela.

Eskola horretatik hiru pilotu mota ateratzen ziren (belaontziez ari gara, beraz ez zegoen makina-ofizialik): lehenengo mailakoak, bigarren mailakoak eta laguntzaileak edo pilotinak. Kapitaina, maisua edo ontziko patroia esaten zitzaion ontziaren jabe izanik eskaintzen zitzaizkion bidaietan hura agintzen eta gobernatzen zuen pertsonari, edo, jabe izan gabe, kroskoaren eta aparailuaren jabe ziren beste batzuek maisutzat, kapitaintzat edo patroitzat aukeratzen eta izendatzen zutenari, haien izenean goberna eta agindu zezan ontzia, ontzia eta haren aparailua erabiltzeko ahalmenaz, bera jabea balitz bezala. Cosme Echevarrietaren esaldietako bat zen, jadanik enpresari handi bihurtuta zegoenean, ontziko kapitain handi bat ez zela soilik helmugarako norabidea kontrolatzen zuena, bere eskifaia bere onenak ateratzen zizkiona baizik<sup>1</sup>. Gero ikusiko dugun bezala, “enpresa kapitain” berri horietako asko eta asko, Echevarrieta bezalakoak, hala nola, Sotatarak, Martínez Rivastarrak edo Chávarritarrak, laguntzaile fidel eta leialez inguratuta egongo ziren beren bizitzan zehar<sup>2</sup>.

Bilbokoa ez zen izan gure lurraldeko eskola bakarra; Bilbo inguruan bazeuden beste aukera batzuk: Algortan, Bermeon, Lekeition, Mundakan, Plentzian, Portugaleten edo Santurtzin, adibidez. Haietako asko atzerrira joan eta aberastu zirenek sustatuak ziren, hain zuzen, beren herriak gora egitea nahi zutenek eta beren herritarrei aukera hobek eman nahi zizkietenek. 1857ko urriaren 13ko data duen gutunean, Cristóbal Murrietak eskatu zion Bizkaiko Jaurerriko Aldundi Nagusiari baimena Santurtzin nautika eskola bat sortzeko eta Madrilgo gobernuaren aurrean bitartekari izan zedila hori lortzeko<sup>3</sup>. 1862ko urtearen amaieran eskola martxan zegoen jadanik<sup>4</sup>. José Javier Uribarren bankariak gauza bera egin zuen bere jaioterrian, Lekeition. Esan dezakegun Espainiatik kanpo bizi ziren bizkaitar lau bankari hauek bederen — Murrietatarak Londresen, Aguirre-Solartetarak Bordelen eta Parisen, edo Uribarrendarrak eta Abaroatarrak Parisen<sup>5</sup>— zein bere herriko ongile handiak izan zirela, batez ere hezkuntza eta prestakuntza lanetan (eskolak,

ospitaleak, ur ekartzeak, kaiak hobetzea, hilerria hobetzea, etab. eta nautika eskolak), eta ongilea izango zen orobat Laudioerekiko Estanislao Urquijo, Madrilen bizi zena<sup>6</sup>.

Ofizioaren maila horiek 1890 arte mantendu ziren, orduan ezarri baitziren Merkataritza Onditziko Nabigazioko eta Merkataritza Nabigazioko Pilotua izendapenak<sup>7</sup>. Bestalde, Bilbo hasia zen lurrun makinak irakasten, eta mende aldaketarako ez zen jadanik apareilu eskolarik ematen; beste eskoletan, berriz, belatik lurrunerako trantsizioa ez zen 1915 arte behin betiko itxiko<sup>8</sup>.

1924an Primo de Riveraren gobernuak promulgatu zuen ezen nautika eskolak —bai eta Merkataritza Nabigazioari zegozkion irakaskuntza guztiak— Nabigazio eta Itsas Arrantzako Zuzendaritza Nagusian integratuta gera zitezela, eta laura murriztu zituen eskolak: Bilbo, Cadiz, Bartzelona eta Santa Cruz Tenerifekoa<sup>9</sup>. Bizkaiko diputatuek gobernuarekin izan zuten liskar handi baten ondoren lortu zen, hala ere, Bermeoko, Lekeitioko, Plentziako eta Santurtziko (eta San Telmoko Sevillan) eskola partikularren baimena. Bizkaiak bost eskola zituen Espainiako bederatzietatik<sup>10</sup>. Orduan hasi zuen Bilboko Eskola Nautikoak —1739. urteaz geroztik Alde Zaharrean zegoena— bere lekualdaketa Deustura, Bilboko ibaiaren ertzean, Botika Zaharrean, 1925ean, eta orduan izendatu zuten Nautikako Eskola Ofiziala<sup>11</sup>.

Gogora dezagun baita ere ezen ontzi kapitain horietako asko lehorreko ofizio batean ere ariko zirela: “ontzien artekari interpretazioan” edo “itsas artekaritzan” (ship brokers). Funtsezko zeregina izan zuten merkataritzan eta garraioan, artekaritza bitartekaritza zerbitzu bat baitzen pleitamendu-kontratuetan<sup>12</sup> itsasontzietako armadoreen eta zamaketarien eta garraiolarien artean. Espainiako Merkataritza Kodeak, Bilboko Kontsulatuaren Ordenantzei jarraituz, eskatzen zuen lanbide horretan aritzeko karga eta deskarga ezagutzea eta atzerriko bi hizkuntza ere jakitea<sup>13</sup>. Portura iristen ziren ontzietako kapitainen eta gainkarguen interprete eta laguntzaile aritu behar zuten, eta haiek laguntzen zuten atrakatzeko edo kairatzeko posizioan. Garraioaren merkatuan egiten zuten bitartekaritza lanak itsas negozioan funtsezkoa zen zera ezin baliotsuago bat eman zien: kargamentuei, norakoei eta prezioei buruzko informazioa. 1880ko hamarkadan askok egin zuten salto artekaritzatik ontzidi propioa zuten itsas konpainiak sortzera. Garai hartan Bilbok 22 ontzien artekari interprete zituen<sup>14</sup>.

Beste pilotu ohi batzuk piloto lemanak izan ziren, hau da, beren zerbitzuak eskaintzen zituztenak (konkurrentzia libreak, edo tratuan) ontziak ibaian barrena sartzeko, oso ondo ezagutzen zituztenez ibaiko kalatua eta korronteak; XVIII. mendetik zeuden pilotutza-tarifak<sup>15</sup>. Pilotu lemanak portuko gidarien aitzindariak ziren. Bazekiten Abrako (adibidez, Portugaleteren mailan dagoen hondar barra beldurgarria) eta ibaiko arriskuak nola saihestu, eta beren ontziekin zetozen kapitainek haien lagunartea bilatzen zuten<sup>16</sup>.

Laburbilduz, lehenengo nautika eskola 1739an sortu zenetik, Bizkaiko nautika eskolak herritarren ekimenez sortu ziren, eta teknikoki ondo prestatutako merkataritza-itsasgizonak eskaintzea lortu zuten. Haietako batzuek, edo merkataritzarekin aberastutako beste pertsona batzuek, eskola horiek sortu eta iraunarazi zituzten zeinek bere herrian beren herritarren garapenerako eta prestakuntzarako. Eta ontzi kapitain horiek (asko elizatatetik etorriak) Bilboko merkataritza munduan txertatu zuten sen ekintzaile hori, muga zabalagoak bilatzeko, nahiz Bilbok mende asko zeramatzan itsas nabigazioari atxikia.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

1. Cosme Echevarrietaren esaldia kirolean erabilia ikusi dut gero. Chicagoko Bulls-en entrenatzaileak, Phil Jacksonek, kontatzen du nola behin Jordan bazter batera eraman zuen eta Red Auerbach Celticseko teknikari mitikoaren esaldi ospetsu bat gogorazi zion: “Izar baten benetako zigilua bere taldekideak hobetuko dituen maila da”. Bullseko mitoarean erantzuna ezin izan zen laburragoa izan: “Ondo da. Eskerrik asko”. [\[itzuli\]](#)
2. Ikus liburuki honetako “Gerra arteko garaia” kapitulua. [\[itzuli\]](#)
3. Ikus *Villa de Bilbao* egunkaria, 1858ko urriak 3. Cristóbal Murrietak zituen asmoak kontatzen zituen. Murrieta abizenaren hainbat saga zeuden Sopuertan eta Santurtzin: Francisco Luciano Murrieta Ortiz-Tallado Mercadillon (Sopuerta) jaio zen 1794an. Kolonietako merkataritza aritu zen. Haren semea Luciano (Arequipa, 1822–Logroño, 1911) Londretera joan zen 1824an, Peruren independentziaren ondoren, eta finantza merkaturatu zen. Militar gisa parte hartu zuen Gerra Karlistan 1840an, eta Esparteroaren laguntzaile estua izan zen. Gero familiaren negozioak zabaldu zituen, eta Marqués de Murrieta bodega ospetsua sortu zuen; Amadeo Savoia-koak eman zion 1872an titulua. Cristóbal Murrieta Santurtzin jaio zen 1790ean, eta bazituen arbasoak Santurtzin, Zierbanan edo Trapagaranen. Ybarratarren kontsignataria izan zen Londresen eta hainbat negoziotan parte hartu zuen haiekin, besteak beste, Guriezoko fabrika (1848) eta Ybarra Hnos. enpresan gero. 1860an Barakaldoko El Carmen fabrika sortu zuen beste bankari garrantzitsu eta Parisen bizilekua hartutako batekin, José Javier de Uribarrenekin, alegia, garai batean Bizkaiko beste fabrika siderurgiko handiko (Bolueta Santa Ana) jatorrizko bazkideetako bat izandakoarekin. Murrietak negozioak Londresen egiten bazituen ere, ez zion horregatik bere jaioterriarekin harremanak izateari utzi. 1852an jadanik, Francisco Luciano Murrietarekin batera, San Jorge parrokiako ordulariari eta udaleko ordulariari zegokien diru kopurua eman zuen. Cristóbal Murrieta Londresen hil zen 1868ko azaroaren 17an. Haren gorpua 1869ko abuztuaren 26ra itzuli zen bere herrira. Xehetasunak jakiteko, ikus Eduardo J. Alonso Olearen saiakera bikaina, “Las fundaciones Murrieta de Santurce, siglos XIX y XX”, *Memoria y Civilización*, 15. zk.(2012), 91–111. or. [\[itzuli\]](#)
4. 1862ko ekainean egin zen Nautikako Eskolako katedradun postuak betetzeko deialdia. Lehenengo berriak garaiko prentsan agertu ziren, 1858ko irailean eta urrian. 1861ean eraikina ia amaituta zegoen, eta 1862ko ekainaren eta irailaren artean, garaiko prentsan araka daiteke irakasleak hautatzeko prozesua. [\[itzuli\]](#)
5. Ikus liburuki honetako “Indianoak” kapituluko oharra. [\[itzuli\]](#)
6. Ikus gaztelarazko liburukiko eranskina edo addenda. [\[itzuli\]](#)
7. 1890eko maiatzaren 20ko Errege Agindua. [\[itzuli\]](#)
8. 1913ko dekretu batek berrantolatu zituen irakaskuntza nautikoak eta sartu zuen makinaren ikasketa irakaskuntza nautiko zibilean: Zubi saila, Makinen saila, Telegrafia saila 1904tik aurrera (1997 arte), ontzietan irrati-telegrafia estazio bat eramateko betebeharra ezarri baitzen. 1887an irrati uhinak aurkitu izaren eta 1899an irrati-telegrafiako transmisoreak garatu izanaren ondorioa zen. Irrati-telegrafistak lan baldintza bikainean matendu behar zituen ekipo irrati-elektrokoak eta bateriak beti gehieneko kargan egotea zaindu behar zuen. [\[itzuli\]](#)
9. Baimena eman zien, hala ere, Bermeoko, Lekeitioko, Plentziako, Santurtziko eta Sevillako San Telmoko eskola partikularrei, zeinek hiru hilabeteko epea baitzuten 1924ko otsailaren 1eko Legeak eskatutako irakasle kopurua eta irakaskuntza-materiala bazutela justifikatzeko. Hauek ziren, Bilbokoarekin batera, hasierako hamabost eskolak: Alacant, Bartzelona, Bermeo, Cádiz, Gijón, A Coruña, Lekeitio, Málaga, Palma Mallorcakoa, Plentzia, Santa Cruz Tenerifekoa, Santander, Santoña, Santurtzi eta Valentzia. [\[itzuli\]](#)
10. Bazeuden, halaber, beste eskola ez nazional batzuk, nola den, adibidez, Algortakoa (Portu Zaharra), San Nikolaseko Ermita zaharrean kokatuta egon zena eta 1650–60 hamarkadan eraikia izan zena. 1863ko uztailaren 2an jendearentzat itxi zenean, Itsasturien Kofradiak baimena eskatu zion apezpikuari ermita eskola bihurtzeko, eta bai hark baimena eman ere 1868ko urtarrilaren 4an, eta, hala, udalaren jabetza izan zen 1879ko azaroaren 10ean. [\[itzuli\]](#)
11. Joseph Vicente Ybáñez de la Rentería lekeitiar fragata-kapitaina izan zen lehenengo zuzendaria, Explicación del Círculo Náutico Astronómico Universal (Baiona, 1738) idazlana argitaratu zuena. Haren izendapena behin-behinekoa izan zen, 1739tik 1742ra bitartekoa, eta urte hartan Miguel Archer (1689–1752) bilbotarra izendatu zuten zuzendari, zeinaren Lecciones Náuticas idazlana bera hil ondoren argitaratu baitziren, 1756an. XX. mendearen hasieran, Leopoldo Boado Suances izango zen Santurtziko Nautika Eskolako zuzendaria (1909–19), eta gero Bilboko eskolakoa (1919tik 1937ra); Leopoldo Boado Montes, itsas armadako almirantearen eta erregearen laguntzailearen semea zen; 1910ean hartu zuen erretiroa Abrako estropadetan ibili ohi zen gizon hura. 1925ean Nautikoko ikasketak bi adarretan banatu ziren: Nautikakoa eta Makinetakoa. Bilboko Nautika Eskola Bilboko



- Bigarren Hezkuntzako Probintzia Institutuari lotuta zegoen. 1968an Portugaleten kokatu zen, eta 1977an Nabigazio Zibilaren Goi Mailako Eskola bihurtu zen. [\[itzuli\]](#)
12. Fletamendua (gaztelaniaz “fletamento”): “hala deritzo hobari edo sari baten truke pertsona batek beste bati bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko ontzi bat, dela zatika, dela osorik, akuran emateko adostasunezko kontratu aldekoari”, Merkataritza Kodeak 37. orrialdean ematen duen definizioa: José Montero y Vidal, *La bolsa, el comercio y las sociedades mercantiles*, Tipografía del Asilo de Huérfanos del S. C. de Jesús, Madril, 1883. [\[itzuli\]](#)
13. XVIII. mendearen amaieraz geroztik hizkuntzak ezagutzeak goraldia izan zuen Bilbon; XIX. mendearen hasieran asko ziren Parisera edo Londresera hizkuntza ikastera joan ziren merkatarien semeak, eta gerora askok ingeniarietza ikasiko zuten Espainiatik kanpo. Eduardo Aznar de la Sotak kanpora bidali zituen bere seme guztiak: Eduardo, zaharrena, Bizkaiko Institutuan batxilergoa egin ondoren, 12 urterekin Ingalaterrara bidali zuten; Luisek Zuzenbide ikasketak Madrilen egin zituen, baina Ingalaterra bizi izan zen bolada batean; Alberto, zeinak 1908an negozioaren gidaritzat hartu baitzuen haren anaia Eduardo 48 urterekin hil zenean, Madrileko eskolako ingeniaria zen, baina aldez aurretik Londresera bidali zuten hura ere. [\[itzuli\]](#)
14. “Bilbo da Ontzien Interprete kopuru handi xamarra duen portu bakarra” (1883an), hemen: José Montero y Vidal, *La bolsa, el comercio y las sociedades mercantiles*, Tipografía del Asilo de Huérfanos del S. C. de Jesús, Madril, 1883, 36. or. [\[itzuli\]](#)
15. Pilotutza esan izan zaio itsasontziek portuko gidari bat erabiltzeko ordaintzen duten eskubideari. Lan hori Algortako eta Santurtziko itsasgizonek egiten zuten, harik eta 1830ean Marinako Komandantzia ezarri zen arte. Gaur egun pilotutza jarduerak edo itsasontziak Bilboko Kanpoko Portura sartzeko eta Portutik irteteko portuko gidaritzat zerbitzua Portugaletetik egiten dira. [\[itzuli\]](#)
16. 1900ean sortu zen Bilboko portua eraberritzeko eta portuko gidaritzako Batzordea, 1900eko martxoaren 10eko El Mundo Naval Ilustradok argitaratutakoaren arabera, eta urte hartako apirileko lehenengo egunetan amaitu zituen bere lanak (El Mundo Naval Ilustrado, 1900eko apirilak 20), haietan parte hartu zutelarik Bilboko portuko gidariak, San José eta Urizar, Portuko Gidari Nagusiarekin batera, zeina kargu sortu berri bat baitzen. Hartutako erabakiak:
- ibaiko barran igarotzeko modukoak ziren kalatuen informazioa sistema hobetzea, 25 minuturoko zunden adierazle grafiko baten bitartez;
  - semaforo bat instalatzea barrako igarotzeko moduko ubidean trafikoa kontrolatzeko;
  - Pilotu Nagusiaren kargua kentzea, ordu arte hura baitzen portuko gidarien eta barrako trafikoaren nagusia, eta Portuko Gidari Nagusiaren kargu sortu berria jartzea haren ordez;
  - portuko gidari guztiak nahitaez Kapitain, Merkataritzako Nabigazioko Pilotu edo Itsas Armadako ofizial izan beharra;
  - ibaiko portuko gidariak bi taldetan banatzea: barrukoak eta kanpokoak, lehenengo taldean adin handiagoko portuko gidariak sartuko zirelarik; eta
  - portuko gidaritzat zerbitzuaren tarifa eguneratzea, 1808. urteaz gero bere horretan baitzegoen. Era berean, bi urteko epea eman zuten pilotu lemanen ontziak berritzeko, zeinak oraindik XIX. mendearen hasierako antolamenduan zirauten, eta operatibo bat planifikatu zen ibaiko kai guztietan trafikoa eta atrakatzea antolatzeko, era hartara ibaia 16 tartetan zatitua geratzen zelarik, eta tarte bakoitzari amarratzaila bat izendatu zitzaion, portuko gidariek ontzia emango ziotena, bera ardura zedin ontzia kokatzeaz, haren segurtasunaz eta, zegokion kaian, poliziaz, eta horregatik amarratzaila hori Portuko Kapitainaren mendekotzat joko zen, lagundu egingo zuelako haren aginduak betetzen. [\[itzuli\]](#)

## ONTZIOLAK

Bilbok, hiribildua zenez, ez zituen soilik merkatariak eta merkatarien agenteak, bazituen, baita ere, ontzi kapitainak eta armadoreak, eta, gainera, ontziak eraikitze eta konpontzeko ontziolak.

Itsas merkataritzak esan nahi zuen materialak biltegitratzea eta ontziak eta estiba mantentzea, baina halaber hizkuntzak ezagutzea eta beste herrialde batzuetako merkataritza legeen berri ere izatea; orobat ordainketa sistema azkar bat erabiltzea atzerriko bankuen bitartez eta segurtasuna izatea egokitze-kontratuetan (ontzi baten armadoreak edo garraiolariak kargaren jabeari ordaindu beharreko balioa, karga helmugara iristen ez zenean edo hondatuta iristen zenean).

Egitura konplexu hori guztia oso ondo koipeztatuta zegoen Bilbo burdina esportatzen hasi zenean (ezkerraldeko meategikoa) eta gerora siderurgia eskala handian. Burdinaren eta altzairutegien munduak ontziolen mundua ere aldatuko zuen, ordu arte itsas zurgintzan oinarritua egon baitzen. Gai horri buruzko liburu garrantzitsuenetako bat hau da: *La arquitectura naval española (en madera). Bosquejo de sus condiciones y rasgos de su evolución* (1920); altzairua iritsi arteko ontzien eraikuntzari buruzko liburu gailenetako hori Gervasio de Artiñano (1873–1938) bilbotar ingeniariak idatzi zuen<sup>1</sup>.

Ontzioletan bi eratako zurginak zeuden: “ibaiertzeko zurginak” batetik (dinastia familiarak eratzen zituztenak) eta “zuriko zurginak”, bestetik, ontziaren hodia esaten zaionaren barruko lan guztiak egiten zituztenak: kamaroteak, altzariak, holtzak, ateak, barandak, etab. Haien inguruan ziharduten mastagileek, iltzegileek, motoneroek, sokagileek, ainguragileek, belagileek, arraungileek, etab. Estufa kalearen izenak berak adierazten duen bezala, ibaiaren ertzean zeuden baita ere bikeztatzaileak, zeinak baitziren egurren giltzadurak itzupaz eta breaz ixten zituztenak ura sar ez zedin, eta horretarako berotu egin behar izaten hala itzupa nola brea; eta langile horiez guztiez gainera, itzainak, idiekiko gurdiz garraioaz arduratzen zirenak, zeinek ere espazioa okupatzen baitzuten eta ezinbestekoak baitziren kaien erabileraren azkartasunean eta antolamenduan.

Bilbok ontziolak zituen bere ibaiertzetan eta, batez ere, elizateetakoetan, zeinak XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran anexionatu egin baitzituen. Deskribapenik zehatzena Teófilo Guiardena da, zeina baitzen Hiribilduko Artxibozaina eta Adolfo Guiard pintorearen anaia: “Bilbotik itsasora, ibaiaren bi ertzetan sakabanatuta zeuden ontzi ola era askotakoak multzo handi bat eratzen zuten XV. mendeko garai horretan. Industria haren oinarria ez zegoen aldi baterako ekimenen diru-gosean funtsatua: premia benetako bat egoteak eman zion bultzada handia, premia hori zen urruneko esportaziorako ontziena, bere porturako ontziena —atoirakoak eta lemanak eta gabarrak—, eta kostako garraiorako eta arrantzarako ontziena. [...] nola bai baitzegoen material nahikoen eta kalitatezkoen proportzioa, burdina eta basoak, dirua eta suspergarriak, ontzi industria emaitza handiekin garatu zen. Hasi ziren esaten Jaurerriko ontzioletan egindako ontziez oso onak zirela eta egokiak guztiz: XVI. mendean sartuta, harro zeuden beren ontziak eredugarri eraikiak zirelako, ezin bikainago landuak, itxura handikoak, eta ur sarrera eta irteera onekoak, zindoak eta zahartzaro sendokoak. [...] Esan zitekeen bi itsasertzeetako luzera osoa itsasoraino guztia ontziola zela, aipatutako lekuetan eta kostaldeko elizateetan eraikuntzak egoteak horren berri ematen duenez”. Nolabait ere, Portugalete eta Bilbo Gaztelako ontziola handiak ziren<sup>2</sup>.

Bilboko ibaiertzeetan era guztietako merkataritza ontziak eraiki ziren (bergantinak, clipperak, korbetak, pailebotak, bonboak, patatxak eta ketxemarinak). XIX. mendearen hasierako garaia oso dokumentatuta dago: adibidez, 1851. urtean bi korbeta, bi goleta, 1.300 tonako hamaika bergantin eta 2.503 tonako hamahiru bergantin eraiki ziren. Ibaiertzeko zurginen eta armadoreen zerrenda zehatza daukagu<sup>3</sup>. 1850 eta 1864 urteen artean soil-soilik 410 itsasontzi eraiki zituzten Kantauriko kostaldetik atera ziren 775etatik<sup>4</sup>.

Itsas zurgintzaren ospe hori aspalditik zetorren eta XVII. mendean jadanik estatuak ontziola bat eraiki zuen han: “Bertako ibaiertzeko zurginen ospea, 1511n jadanik Kontsulatua eta Hiribilduko Kontratazio Etxea han kokatzea lortu zuen merkataritza burgesia indartsu batekin bat eginik, berretsia izan zen

XVII. mendearen hasieran (1615) Zorroako Errege Armategia sortzearekin: ontziola handi bat zen hura, eta bazituen bi harmaila, fragatak eta posta-ontziak armatzeko, eta bi solairuko estalpe handi-handi bat, 400 metrotik gora luze zena, non 200 gizonek lanean ziharduten kalamua iruten eta ontzietarako soka multzoa txirikordatzen. Harrizko horma batek hesitzen zuen lekua, eta bertara goian erlaitza eta hiru pinakulu zeuzkan harlanduzko arku handi bat zeharkatuz sartzen zen<sup>5</sup>.

Agustín de Cortadiren egurrezko ontziolako harmailetan, Deustuan, eraiki zen 1860an lehenengo gabarra metalikoa. Kalaturik ezak gabarrak erabili beharra ekarri zuen, hau da, propulsiorik gabeko ontziak, baina gobernudunak, mea garraiatzen zutenak eta atoi-ontziek gidatuak. Oro har, Bilboraino ibaian nabigatzen zuten ontziak ez ziren 1.200 tonakoak baino zama handiagokoak, eta, ibaira sartzeko, marea bizien zain egon behar izaten zuten Portugaleteko hondar barra zeharkatzeko. 1872an Portuko Obra Batzordea sortu zen, eta 1878an Evaristo de Churruca iritsi zen Bilbora obren ardura hartzeko. Churrucak oso proiektu anbiziotsua egin zuen: lehenik, Portugaleteko barra kentzea hondarren bultzadari eutsiko zion kai batekin; ibai bideratzeko eta dragatzeko moduak ere diseinatu zituen, bai eta atrakatzeko kai berriak eraiki ere, argidunak zirenez (hasieren gasez eta gero elektrizitatez) eguneko ordu guztiez baliatzeko aukera ematen zutenak.

Portugaleteko Burdinazko Kaiko lanak 1880–81ean eta Areetan haitz multzo bat ipintzeak asko hobetu zuen barrako pasabidea. Hondarrezko barra izugarri horrek mendez mende tratu zuen Ibaizabalen bokalea, eta hildako asko eragin ditu historian zehar. 1883an mareometro bat jarri zen kaiaren amaieran; mareometroa ubidearen sakonera neurtzen duen tresna nautiko bat da, mareen eraginez uren maila zenbat igotzen eta jaisten den erregistratzen duena (Parisen eraikia eta Portuko Obretako Batzordeak ipinia). Informazio horrek ibaian barneratzea egokia ote zen jakitea errazten zien kapitainei; gaur egun Burdinazko Kaira ematen duen lekukotasunezko elementu bat da<sup>6</sup>. 1888an Maria Cristina erreginaordea Portugaleteko Burdinazko Kaia inauguratzera —kai hark barra desagerrarazten zuen— eta kanpoko portua egiteko lanak bultzatzera etorri zen.

Urte hartan bertan Churrucak kanpoko portuko obrei ekin zien Santurtzin olatu-horma erraldoi bat eraikiz (1902ko irailaren 7an inauguratua) eta kontradike bat Algortan (1903ko urriak 22)<sup>7</sup>. Harrezkero, Bizkaiko hiriburuko portua, dagoeneko Abran kokatua —eta ez bakarrik hiribilduko ibaiertzetan— hiru atal ondo definitutan egituratu zen: a. merkataritza portu bat biltegi handiekin, ibaiaren goialdean kokatua, Olabeagatik San Antoneraino, edo Abusutik Zorrozaraino; b. portu industrial bat, ibaiaren beheko erdialdean, non instalatu baitziren itsas industria osagarriak, biltegiak, ontziralekuak eta dikeak, bai eta industria mekanikoak, siderurgiakoak eta mea kargatzeko lekuak; eta c. kanpoko portu bat Abran, ontzi handientzat eta era guztietako biltegiak edukitzeko diseinatutako kaiekin<sup>8</sup>.

Iraultza Industrial eta lurrun makinak etorri zirenean, zurezko belaontzien eskaria desagertuz joan zen eta haiekin zurgintzako ontziola horiek. Ontzi-enpresak lurrunezko ontzia erabiltzen hasi ziren salgaiak garraiatzeko, belaontziak

erabili ordez<sup>9</sup>. Burdin-mea esportatu beharrak ekarri zuen Bilbora lurruna, lurrun makinek belaontziek baino azkarrago eta eraginkorrago esportatzen baitzuten (zaman, bizkortasunean eta autonomian). Hamarkada batzuetan belaontzien eta lurrunontzien nahasketa bat egon zen halaber: motobelaontziak edo bela osagarriak zituzten lurrunontziak, popako mastarik gabeak, ardatz propulsoare bat zutelako. Bertako lehenengo lurrunontzia 1861eko abuztuan uretaratu zen, baina zurezkoa zuen kroskoa. Frantses batek eraiki zuen makina; Armand Legorgeu zuen izena, Nantesekoa zen, eta 1856. urteaz geroztik Bilbon bizi zen, eta motorrak eta txakolitarako prentsak galdatzen zituen. Nantesekek komunikazio bikaina zuen Orleanekin lurrunontzien bitartez; 1828an jadanik lineako hamabost ontzi zituen. Hamarkada askoan itsasoa ulertzeko bi erak elkarrekin bizi izan ziren Bilboko ibaian: belarena eta zurarena eta burdinarena eta lurrun makinena. Lurrunak hiribilduko merkataritzaren gaitasuna eraldatu zuen, baina baita ere eskola nautikoena, ikusi dugun bezala, eta kaietako azpiegiturena ere bai. Mastak egiteko eta belak konpontzeko lanbide osagarri guztiak desagertuz joan ziren, eta beste lan batzuk agertu ziren haien ordeztan, hala nola burdinazko kableak eta altzairuzko tenkagailuak ekoiztea, besteak beste. Ontzi ingelesak eta estatubatuarak iritsi ziren lehenik, gero frantsesak, harik eta euskal enpresariak berek altzairuzko ontzioletarako eta oin berriko itsas eraikuntzarako jauzia egin zuten arte. Arrantzaren mundua ere galdarak eta tximinia zuten ontzi berrietara egokitu zen. Zurgintzako eta belagintzako tradizioa itsas kiroletarako balandroak eraikitzeke gelditu zen.

Lurrunaren nagusitasuna hiribilduak Liverpooleen kokatutako bizkaitar ontzi-jabeekin zuen harremanetik ere etorri zen; adibidez, Olano, Larrinaga & Compañía ontzi-enpresa, José Antonio Olanok, Ramón de Larrinagak eta Juan Bautista Longa kapitainak 1862an sortua<sup>10</sup>. Enpresaren egoitza Liverpool baldin bazen ere, hiru bazkideak han bizi zirenez, haien ontzi guztiak Bilbon matrikulatuta egon ziren 1898 arte, orduan Espainiaren eta Estatu Batuen arteko gerrak bandera aldatzea aholkatu baitzuen. Enpresa honek hasiera-hasieratik landu zuen ozeanoan zeharreko merkataritza, eta, hala, elkartu zituen Liverpool eta Amerika (Kuba eta Puerto Rico) eta Asia (Bartzelona-Manila posta-linea). Lehenik belaontzien bidez egin zuten eta gero lurrunontziekin (1885ean bederatzi lurrunontziko ontzidi moderno bat zeukaten), eta ia beti Busturialdeako edo Mundakako kapitain euskaldunekin. 1886an Eduardo Yeves Aranaz hil zenean, ia ontzi-jabe horiek guztiak “helizedun burdinazko lurrun-makinak” zeukaten beren ontzietan.

1909an Ramón de la Sotak berak Ingalaterrako euskaldun horien, “itsas-enpresa anglo-bilbotar” horien garrantziaren on-gaitzak aztertu zituen: “Liverpooleen, Manilan, La Habanan eta beste hainbat lekutan kokatutako bizkaitarrek lurrunontziekin ordezkatu zituzten belaontzi zaharrak, eta garrantzi handiko ontzidi bat sortu zuten denbora gutxian, joan den mendeko azken urteetan garapen handia ere izan zuena”<sup>11</sup>.

Bilboko enpresarien —batzuk meatzaritzari lotuak, beste batzuk Liverpooleen kokatutako ontzi-jabeak— eta kapital handiekin hiribildura itzulitako indianoen arteko sinkronizazio horri esker hedatu egin zen itsas trafikoa eta ontziola berrien mundua. Honela dio Jesús María Valdaliso lan bikain batean: “Bizkaiko merkataritza ontzidian hipoteka-maileguaren bitartez inbertitutako atzerriko kapitalen kopurua guztira ez zen gutxiesgarria izan. 1860 eta 1890 artean 62 ontzi erosi ziren bitarteko horrekin, 56.790 tonako erregistro gordina zutenak, eta haietatik 53.000 baino gehiago lurrunontzietan zegoen. Azken kopuru hori 1890ean Bizkaian zeuden lurrunontzien matrikularen ehuneko 39 zen, edo urte horietan Bilbok inportatutako lurrunezko merkataritza-ontzi tonaren ehuneko 69. Kapital horren gehiena, ehuneko 98 Erresuma Batutik etorri zen, Liverpooletik batez ere (gainerakoa Baionan eta Bordelen bizi ziren frantses merkatariek jarri zuten)”<sup>12</sup>.

1868an Sociedad Empresa Diques Secos enpresa eratu zen, ez hainbeste lurrunontziak eraikitzeke nola Ingalaterratik iristen zirenak konpontzeko eta mantentzeko (karenatzea eta garbiketa). Juan Abaituak, Santiago Aranak, Gregorio Praderak, Eduardo Coste y Vildósolak eta José Antonio Urigüenek sortu zuten; haietako batzuk zurezko ontziolen jabeak ziren. Olabeagako harmailetan bi dike ezarri zituzten, eta haiak izan ziren Espainiako iparraldeko lehenengo dike

lehorrak. Hurrengo urtean, Jose María Martínez de las Rivasena<sup>13</sup> bezalako adimen bizkor batek —Londresen hezia izan zen eta 23 urterekin zuzendaria izan zen— sortu zituen San Franciscoko burdinazko fabrikaren ondoan, Basamortuan, ontziola batzuk, ingeles bazkide batekin (Martínez Rivas, Palmer y Cía.) Itsas Armadak proiektatutako gerraontzi berrien eraikuntza lortzeko (1887ko abenduaren 28ko lehiaketa). Martínez de las Rivas meatzaritzako geraldiko urte haietako “industria-kapitain” horietako bat izan zen, zeinak jakin baitzuen burdinazko mea eraldatzen eta ontzigintzara bideratzen XIX. mendeko azken urteetan. Martínez de las Rivasek ez bakarrik osabaren dirutza erabiltzen zuen, oso ondo ezagutzen zituen orobat Londresen kokatutako kapital euskaldunak.

Gogora dezaun ezen Londresen mailegu-etxe (banku) eta merkataritza etxe batzuk kapital euskaldunekoak zirela, hala nola Cristóbal de Murrietarena edo Mildred Goyenecherena. 1840ko hamarraldian Londresen zeuden jadanik, eta Ingalaterraren, Espainiaren eta haren kolonien arteko merkataritza finantzatzen zuten, bai eta beste jarduera industrial batzuk, hala Ingalaterran nola Espainian. Murrietatarrek, bizkaitar ontzi-jabe batzuei beren ontzien erosketa finantzatzeko maileguak emateaz gainera, hainbat ontzi erosi zituzten, eta Santurtziko Nautika Eskolari ere diruz lagundu zioten. Olanotarrekin eta Larrinagatarrekin batera, Eduardo Yeves Aranaz izan zen bilbotar armadorerik garrantzitsuena, zeina lurrunera igaro baitzen hirurogeita hamarrekota hamarkadan, eta hil baino urtebete lehenago, 1886an, Espainiako hogeitazentzako enpresa handien zerrendan baitzegoen. Juan Narciso Olano Eulalia Abaituarekin ezkondu, eta Bilbora erretiratu zen, eta han Pinuaren Jauregia esaten zaion ingeles estiloko jauregitxo eraiki zuen, Begoñan. Eulalia Abaitua Euskal Herriko lehenengoetako emakume argazkilaria izan zen. Agustín Soltura medikua, Ereagako Bel Respiro etxekoa, Longa Larrínagatar batekin ezkondu zen, zeina itsas-enpresaren oinordekoa baitzen<sup>14</sup>. Haren kideek ere, Juan Bautista Longa eta Florentino Larrínaga, Liverpool utzi, eta Bizkaian kokatu ziren berriz ere, non itsas, banka eta meategien negozio askotan inbertitu baitzuten<sup>15</sup>.

Astilleros del Nervión enpresa krisian sartu zen Kubako gerratik eta Espainiak nazioarteko egoeran galdutako botereagatik. 1900ean berriz ireki ziren, eta itsas zurgintzako know howa aisiarako yateak eta belaontziak eraikitzeko berrerabili zuten. Martínez de las Rivasek, zeinak steam yacht onenetariko bat izan baitzuen, Lily, bi mastako goleta bat, gogoan izan zuen, De la Sotak eta Echevarrietak gerora bezala, Antoine de Saint-Exupéryren esaldi apokrifoa hura: “Itsasontzi bat eraiki nahi duzunean, ez hasi zura biltzen, xaflak ebakitzen eta lana banatzen, aitzitik, piztu gizakiengan itsaso libre eta zabalaren irrika”<sup>16</sup>. Itsasoaren irrika merkataritzaren irrika da, beste zerumuga batera irtetearena, ekinaldiarena. Martínez de las Rivas *The Influence of Sea Power upon History, 1660–1783* (Influencia del Poder Naval en la Historia, 1890) obraren irakurle ona izan zen; liburu hori Alfred Mahan (1840–1914) historialariak idatzi zuen, zeina Newporteko Itsas Gerrako Elkargoaren lehendakaria izan baitzen, Rhode Islanden. Honela dio Mahanek: “Itsas boterea nazio baten itsas interesak ezartzeko eta defendatzeko gaitasuna da, eta itsasoa norberaren etekinerako erabiltzean eta ontzi boterean oinarrituta dago; eta bereizi behar dira funtsezko bi osagaiak, itsas interesak eta haiek defendatzeko ontzi boterea. Nabarmendu behar da nola ekoizpenak eta kontzeptuak ontzi armatuen babesaren premia duen itsas trafiko bat behar duen; merkataritza, merkataritza ontzien trafikoa, itsas geltokia eta ontzidi militarra dira itsas herrialdeen aberastasunaren armazoiak”.

Martínez de las Rivasek ontzi berriak eraikitzeko konbentzitu zituen itsas armadako ministroak, baina De la Sotak eta Echevarrietak gerora bezala, bazekien itsasoaren arloa eta ontziena, antzekoak badira ere, ezin direla berdintzat jo, zeren eta lehenengoa alderdi ekonomiko eta sozialei baitagokio oro har, eta ontzien arloa, berriz, aurrekoaren osagarria dena, alderdi bete-betean politikoago eta militaragoetan oinarrituta baitago. Bilbok beti izan du, hala herriarengan nola agintariengan, itsas kontzientzia sendoa. Gure planetaren bi heren baino gehiago itsasoa da, eta hura izan da gure arbasoen zerumuga aurrera egiteko eta baliabideak eskuratzeko. Aurrerabiderako bide ekonomikoa izan da itsasoa, Sir Walter Raleighen esaera horri jarraituz: “Itsasoan agintzen duenak merkataritzan agintzen du; merkataritzan agintzen duenak munduko aberastasunak dauzka, eta, beraz, mundu osoaren jabe da”.

1889ko maiatzean, Ramón de la Sota, orduan 29 urte zituela, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren sorreran parte hartu zuten 504 laguneren artean ageri zen, eta bera aukeratu zuten erakunde haren lehenengo idazkari, zeinaren lehentasunezko eginahalen artean nabarmena baitzen Evaristo de Churrucak proiektatu eta gauzaturako kanpoko portua, Abraren lehenengo itxitura eginez (Santurtziko olatu-horma eta Algortako kontradikea). Ibaian 5.000 tonako ontziak ibil zitezkeen orduan, eta horrek gogoberotu egin zuen De la Sota, haren bazkide eta lehengusu Eduardo Aznarekin, Compañía Euskalduna izeneko ontziolak 1900an sortzera; 1902an Recaredo Uhagón ingeniariak zabaldu egin zituen, karga handiagoa hartu ahal izan zezan. Euskaldunak Diques Secos enpresa erosi zuen, haren burdinazko eta brontzezko fundizio lantegiak, bost sutezko forja, haizegailuarekin eta lurrinezko mailuarekin, eta galdaragintzako lantegia. Han, lehenengo dikean eraiki egiten zen eta bigarrenean, berriz, edozein pieza konpontzen zen, handia izan arren<sup>17</sup>. Diques Secos enpresa klase burges ekintzaile hark sortu zuen, baina haren ondotik belaunaldi gazteago bat etorri zen, eta hark inauguratu zuen mende berria, non konpainia berriak Ramón de la Sota baitzuen gidari 1900eko maiatzaren 18az gero.

Bilboko ibaia izan zen itsas eklosio horren gertaleku nagusia: Erripa, Deustu, Olabeaga, Zorrotza..., eta Sociedad Española de Construcción Naval (la Naval) Sestaon 1915ean. Ontziolen eta ontzi-jabe eta armadore horiek hartu zuten boterearen segida gisa, bi aseguru-etxe handi sortu ziren halaber: Aurora (1900) eta La Polar (1901), Martínez Rivasek eta De la Sotak hurrenez hurren sortuak. Konpainia horiek sortu ziren, lehenik, beren ontzidien asegurua egiteko eta, bigarrenik, Londresko aseguru-etxeen portzentaje oso altuei ihes egiteko, haiek ontzi galera handiei aurre egin behar baitzieten. Bilboko armadoreek ibilbide oso sendotuak eta efizienteak zituzten beren alderdi guztietan, kargan batik bat, eta oso ontzi gutxi zituzten istripuak izandakoak edo desagertuak. Beraz, merkataritza aseguratzuz hasi zen zikloak meatzaritza eta ontzigintza aseguratzuz jarraitu zuen, eta orduan iritsi zen aseguru-etxe propioak sortzeraino, agente sare bat erabiliz (sektore guztietan) Espainiako beste leku batzuetan, bai eta Europan eta Ameriketako ere<sup>18</sup>.

“Enpresa-kapitain” haiek orobat hartu zituzten aintzat beste negozio batzuk, nola, adibidez, atoiontziena, hala ontziak sartzeari nola ibaitik gabarrak sartzeari zegokionez. Palekiko gurgildun atoiontzi horietako batzuk (paddle tug) Adolfo Guiarden koadroetan agertzen dira<sup>19</sup>. Mende amaieran bi enpresa ari ziren elkarren lehia ibaiko trafikoa egituratzen: Remolcadores del Cantábrico (Aznar eta Astigarragarena) eta Compañía de Remolcadores Bilbaínos (Francisco Martínez Rodasena); eta 1906an jadanik, Compañía de Remolcadores Ibaizabal (Eduardo Aznarena). Bilbon branka lodi eta mamitsu bat diseinatuko zen atoiontzientzat, zeinak flotazio-lerrotik gertu bolumen handia eta, beraz, flotagarritasuna eskaintzen baitzuen<sup>20</sup>.

Jesús María Valdalisok adierazi duen bezala: “XIX. mendearen azken urteetan Bizkaiko merkataritza ontzidiak hazkunde ikusgarria izan zuen, eta Espainiako merkataritza-ontzidien buru jarri zen. 1900 inguruan, Bilbon kontzentratuta zegoen Espainiako lurrunezko merkataritza ontzien tona kopuruaren eta ontzi-enpresen erdia. [...] Itsas boom hari atxikia, itsas garraioarekin erlazio estua zuten sektore batzuk hedatu eta garatu egin ziren, hala nola ontzien artekaritza eta agentzia, kontsignazioa, aseguruak eta, baita ere, itsas eraikuntza eta konponketa”<sup>21</sup>.

Edo Manuel Monteroren hitzetan: “Itsas enpresen garapena deskribatutakoa baino askoz ikusgarriagoa izan zen, zeren eta itsas-enpresa guztiak ez baitziren burdinaren garraioan espezializatzen. Bizkaiko ontzidi modernoak pleiten nazioarteko merkatuan lehiatu zen. XIX. mendeko azken hamarkadan Bilboren itsas modernizazioa gertatu zen, nahiz bazuen mendetako tradizio sendo bat, zeren eta nabigazioa izan baitzen, Erdi Aroaren amaieratik, Bilboren oparotasunaren jatorrietako bat. [...] 1890ean, 120 belaontzik eta 103 lurrunontzik osatzen zuten Bizkaiko merkataritza ontzidia, baina 1900ean erabateko aldaketa gertatu zen. Belaontzien matrikula 6 ontzira gutxitu zen eta lurrunontziena, berriz, 171 ontzira handitu”<sup>22</sup>.

“Enpresa-kapitain” horiek ez ziren ontzioletan eta nabigazioan bakarrik aritu, beste bizilagun batzuek ere eskala txikiagoko abenturari ekin zioten, nola adibidez, Francisco Aldecoa Uriarte eta Tomás Urquijo Aguirre algortarrak, 1899an Compañía Anónima de Navegación sortu zutenak, gero Compañía Marítima del Nervión izango zena, ozeanoaz haraindiko lehiak, eta 1986 arte iraun zuena.

Erreginaordeak 1888an Portugaleteko Burdinazko Kaia inauguratzeko egin zuen bisitaren ondoren, 1902an Alfonso XIII.a agertu zen Abrako kontrakaia amaitzeko 100 tona hormigoizko azken blokea finkatzeko ekitaldira. La Vida marítima (1902ko irailak 20) aldizkariak eman zuen antolatu ziren festen berri: estropadak eta Abra argitua, edo itsas desfilea, zortzi baleontzirekin, bi galererekin eta Kontsulatuaren ontziarekin. Baina garrantzitsuena da ikustea nola Bilboko enpresari horiek ez zuten erregearen bisitan denbora galdu eta politika komertzial, industrial eta finantzarioko mezu zuzen bat bidali zioten. Rodaseko kondea, Bilboko Ontzi-jabeen Elkartearen lehendakaria zena artean, hitz hauekin mintzatu zitzaion erregeari: “Merkataritza ontzidiaz da, jauna, nazioaren aberastasun iturri bat, babesaz eta gerizaz umezurtzena eta horien premia handiena duena. Umezurtza, zeren ez baitu bere alde legean ezein xedapenik haren garapena sustatuko duenik; eta babes premia du, zeren eta Espainiako Ogasunak haren gain ezartzen dituen zerga ugari eta gehiegizkoek eta haren mugimenduak korapilatzen dituzten traba handiek ez baitiote uzten nolabaiteko arrakastaz merkatu unibertsean lehiatzen...”. Azaldu zion Merkataritza Ontzidiaren eta itsas industriaren kontuak estatuko sei ministeriotan sakabanatuta zeudela: Gobernazioa, Heziketa publikoa, Obrak, Ogasuna eta Marina... gehi inoren banderapean jartzeko eskubideen eragozpena, zeinak eragiten baitzuen haietako askok beste herrialde batzuetako banderapean jartzea beren ontziak. Pentsa dezagun ezen Francisco Martínez de Rodas, Rodasko I kondea, Bilbon Rodas gisa soil-soilik ezaguna zena, ez zela ez merkatarari baten ez ontzi kapitain baten semea<sup>23</sup>. Rodas armadako teniente bat zen, 1872an Bilbora iritsi zena hiria karlistengandik babesteko eta 1877an Eloísa Aranarekin ezkondu zena, zeinaren etxean hartua baitzuen ostatu. Rodas armadatik erretiratu zen meatzaritzaren negozioan aritzeko, lehenik, eta ontzigintzan, gero. Bere Portugaleteko El Salto etxaldean hil zenean, haren hileta sekulako gertaera izan zen, eta lehen ilaran Ramón de la Sota nazionalista zegoen.

Hemen argi hitz egiten bazitzaion ere, erregea oso sarritan etorriko zen Bilbora, ez bakarrik ontzigintza sustatzeko, baita ere estropadetan parte hartzeko, zeinak Bilboren indar enpresariala eta antolatzailea Europa osoan iragartzeko balio baitzuten. Bisita horiek jarraituak izango ziren Lehen Mundu Gerra arte eta baita ere hogeiko urteak arte ere.

Eduardo Aznar de la Sota munduko lehen 15 armadoreen artean zegoen mende aldatetaren garaian, hark sortutako nabigazio enpresa guztiak elkartuz gero. Gerrak aberasteko urrezko aukera ekarri zien Bilboko nabigazio etxe gehieni, itsas garraioaren pleitak izan zuten goraldi ikaragarriari esker. Adibidez, Echevarrieta y Larrinaga nabigazio-enpresa, 28.171 tonako erregistro gordinarekin, bosgarren lekuan zegoen Espainiako merkataritza ontzidiaren artean, Transatlántica, Sota y Aznar, Pinillos e Ybarra y Cía., enpresaren atzetik, baina tarte handiarekin, eta Compañía Valenciana de Vapores de Correos de África<sup>24</sup> enpresarekin ia-ia berdinduta.

Nabigazio-enpresari eta ingeniari horietako askok noblezia-tituluak jasoko zituzten: Berrizko Markesgoa, Rodaseko Kondetza, Lamiako Markesgoa, Motrikuko Kondetza, Abasoloko kondetza, Mac-Mahóneko Markesgoa, Zuiako Markesgoa<sup>25</sup>; beste batzuek, aldiz, uko egin zieten adeitasun handiz, hala nola José María Martínez de las Rivasek, Ramón de la Sotak eta Horacio Echevarrietak<sup>26</sup>.

Lehen Mundu Gerraren ondoren, enpresari horiek guztiek oso ondo ezagutzen zuten nazioarteko itsas merkataritza. Bilboko portua ere oso ondo prestatuta zegoen. 1915etik 1925era bitarteko itsasbideek adierazten duten bezala, Bilboko portuak ia dena bermatzen zuen: sarbide erraza, barrarik gabe dagoeneko, maniobrak egiteko erraztasuna, ainguratzeta, atrakatzea eta babesa ekaitzaldietan, eta era guztietako ontzientzat.

Batzuek abentura berriei ekin zieten. Echevarrieta y Larrinaga nabigazio-enpresak, 1905ean lau ontzirekin sortuak (haietako batzuk Honduraseko edo Uruguayko banderapean), bederatzi ontzi zituen Lehen Mundu Gerraren hasieran, eta haietatik hiru galdu egin zituen, bi torpedoengatik eta bat istripuz. 1917an saldu egin zituen geratzen zitzaizkionak, bost Sociedad Anónima de Navegación Palma enpresari eta bat Bizkaiko Labe Garaiei, eta ontzidirik gabe geratu zen. Urte hartan bertan Cadizeko Astilleros Veá Murguía ontziola erosi zuen.

1908an Casa Echevarrieta y Larrinaga Marokon meategi erregistro gehien zeuzkan Espainiako talde enpresariala bilakatu zen, orobat zeukan mea garraiatzeko ontzi kopururik handiena. Gerra ondoren, kapital metatze handia gertatu zen gerraren egoera bereziak eragindako irabazi ohiz kanpokoan ondorioz<sup>27</sup>, eta, beraz, Horacio jatorri heterogeneoko negozio berrietan hasi zen, hala nola: hidroelektrikoa, urbanistikoa, airekoa (Saltos del Duero; Portland zementua, Iberia enpresa, Líneas Aéreas de España; Bartzelonako metroko 1 linea; Madrileko Gran Vía; Casa de la Prensa). Eta, baita ere, Cadizeko Ontziolen sorreran parte hartu zuen, eta han eraiki zuen Juan Sebastián Elcano eskola-ontzia, eta itsaspeko bat, halaber<sup>28</sup>. Echevarrietak berme teknikoa bilatu zuen lehenik eta behin (kapitalez eta merkatuez gainera), eta saiatu zen Espainiako Estatuaren arduradunak konbentzitzen ezen, teknologia militarreko kontuetan, alemanen aukera eskainitako britainiarrena baino hobea zela.

Echevarrieta erne zegoen beti ontzigintzako hobekuntzei, eta bere ontzietara ekartzen eta han saiitzen zituen. Pertsona anbiziotsuak beti ari dira zerbaitetan pentsatzen. Hogeiko eta hogeita hamarreko urteetako yateek, adibidez, aldatu egin zuten koilarako arku esaten zaiona (Löffelbug). Branka aurreko konkorrak, zamaontziek eta gurutzaontziek izaten dutena, bitxia zirudien; baina sudur horrek, branka erreboildun horrek, eragin onuragarria zuen ontziaren uhin-patroian, gainjartzen baitzion bigarrena, brankako uhin erreala, kroskoaren koskor tankerako hedaduraren aurrealdearen bitartez. Beraz, uraren erresistentzia murrizten zuen eta erregaia aurrezten. Echevarrieta beti egon zen adi diseinatzaile alemanen ikerketari, eta, ikusiko dugun bezala, Gillermo II.a enperadorearen Sonderklasse ontzia erosi zuen, eta harekin irabazi zuen Plymoutheko estropada<sup>29</sup>.

Yate eraikitzaileei ematen zitzairen sormen askatasun handiaz baliatzen —forma neurritsu eta era berean dotore eta funtzionalekin— jakin zuen Gervasio de Artiñanok, zeina baitzen bertako ingeniaria, kontu horietan jakitun zena, lehenago jakin izan zuten bezala Rodasek, edo haren bizilagun José Martínez de las Rivasek, edo Chávarri anaiak, Aznartarrek edo Zubiríatarrek; ia denak atzerrian ikasitako ingeniariak ziren<sup>30</sup>.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Gervasio de Artiñano (1873–1938) ingeniari industrialari Aristides de Artiñano historialariaren semea zen. Materialen Erresistentziako katedraduna izan zen Madrileko Ingeñari Industrialen Eskola Zentralean, eta haren anaia Pedro Miguel, berriz, Motor Termikoen eta Makinen Eraikuntzako katedraduna izan zen. Gervasio Gerra Zibilean hil zen, Madrileko Txileko enbaxadan aterpetua. Haren obra, *La arquitectura naval española (en madera). Bosquejo de sus condiciones y rasgos de su evolución*, 1920an argitaratua Erdi Aroko eta Austriako Etxearen garaiko ontzi, galera eta nao mota desberdinen deskribapena egin zuen lehenik; bigarren zatian, berriz, Borboi Etxeak Espainian erreinatu zuen lehenengo ehun eta berrogeita hamar urteetan ontziek izan zuten bilakaera eta haien eraikuntza zehaztua landu zuen. Artiñanoren liburua: <https://library.si.edu/digital-library/book/arquitecturanav00arti> [itzuli]



2. Teófilo Guiard, *La industria naval vizcaína (anotaciones históricas y estadísticas)*, Bilbaína de Artes Gráficas – J. J. Rochelt, Bilbo, 1917. Ikus, halaber, Mariano Ciriquiain-Gaiztarro, *Los puertos marítimos del País Vasco*, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen liburutegia, Donostia, 1951; eta Lourdes Odriozola Oyarbide, *La construcción naval en el País Vasco, siglos XVI al XIX: evolución y análisis comparativo*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002. *Un siglo en la vida del Banco de Bilbao* liburuak (Espasa Calpe, Madril, 1957), honakoa esaten da: “1300. urtean fundatu zenetik, hiribildu txikia hasia zen erakusten, Portugaleterekin batera, kanalaren luze-zabalean, zer-nolako garrantzia zuen Gaztelako ontziola handia zen heinean. Gaur egun, sinesgaitza dirudi gailentasun hura lortu izana, ikusita nolako aldea zegoen lortutako garrantziaren eta biztanle kopuru txikiaren artean. ‘Gailena gutxienekoarekin’ izan zitekeen Bilbok historiaren joanean zehar eskuratu dituen ikurrizetako bat”. [itzuli]
3. 1856. urtea: Armadoreen eta bakoitzaren ontziolen zerrenda:
  - i. Nicolás de Olaguibel, Erripako ontziolak
  - ii. Manuel Bergé, Erripako ontziolak Nicolás de Olaguibel, Salbeko ontziolak
  - iii. Juan León Mundaca, Deustuko ontziolak Serafín Abaitua, Erripako ontziolak Coste y Vildósola hermanos, Erripako ontziolak
  - iv. Juan Abaitua, eta seme nagusia, Erripako ontziolak
  - v. Viuda de Iturriaga, Deustuko ontziolak Iturriaga y Ansótegui, Deustuko ontziolak
  - vi. José Práxedes Uriarte, Salbeko ontziolak
  - vii. Alejandro de Hormaza, Erripako ontziolak
  - viii. Manuel Bergé, Dique ontziolak
  - ix. Roque Rivero, Salbeko ontziolak
  - x. Ezequiel Urigüen, Erripako ontziolak
  - xi. Casto V. de Ibarra, Deustuko ontziolak
  - xii. Juan Marroquín, Erripako ontziolak
  - xiii. Manuel Bergé, Salbeko ontziolak
  - xiv. Sallés Masferrol y Compañía, Deustuko ontziolak
  - xv. Achúcarro y Compañía, Erripako ontziolak
  - xvi. Ibarra, Hermanos y Compañía, Dique ontziolak [itzuli]
4. Maite Ibáñez, M<sup>a</sup> José Torrecilla, Marta Zabala, “El patrimonio naval vizcaíno”, *Itsas Memoria Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, Ontzi Museoa, Donostia, 1998, 417–30. or., 418. orrialdean. [itzuli]
5. Ibid. 418. or. [itzuli]
6. Alikanteko mareografoa edo mareometroa Espainian behin-betiko instalatutako lehen mareografoa izan zen, 1874an, eta, beraz, hangoa da itsas mailaren Espainiako datu zerrendarik luzeena; horregatik erabiltzen da Itsasoaren Batez Besteko Maila Alacanten [Nivel Medio del Mar en Alicante (NMMA)], portu horretako itsasoaren mailaren datuetan oinarriturik ateratakoa. 1881. urteaz geroztik, urte hartan eratu baitzen lehenengo Naufragoak Salbatzeko Batzordea (Junta de Salvamento de Náufragos), 40 ontzitik gora hondoratu dira Abran, 83 hildakoen arrastoa utzirik, Manuel Torres Goirik hemen bildutako datuen arabera: *Historia del Salvamento de Náufragos en el Puerto de Bilbao*, Getxo, 1992. Ikus halaber: Ramón Ojeda, *Naufragios en la entrada del puerto de Bilbao (1841-1878)*, Castro Urdiales, 2003; eta Ana M.<sup>a</sup> Benito y Javier Mazpule, *Naufragios en la costa vasca 1976-2016*, Bilbo, 2017. [itzuli]
7. Egin dezagun konparazio azkar bat: Castroko olatu-horma 550 metroko luzerara iritsi gabe amaitu zen; Santurtzikoak, Bilboko kanpoko portuan, 1.450 zituen; kontradiketa, Ocharan Mazas kaitik abiatzen zena, 350 metroko luzerarekin bukatu zen, eta Algortakoak, berriz, 1.100 metro zituen; Castro Urdialeseko bokaleak, bi dikeen artean, 350 metro zituen, eta Bilbokoak, berriz, 600; eta Castroko badiako eremu babestu horren 224.000 metro koadroaren aurrean Bilboko kanpoko portuak 287 hektarea zituen, ibaian ur gorako beste eremu batzuk kontuan hartu gabe. [itzuli]
8. 2017ko itsas trafikoa konparatzen badugu, 500 tonatik gorako erregistroko 3.000 ontzi porturatu ziren; hemen: El Correo (2018ko urtarrilak 28). [itzuli]
9. 1817an Espainiako gurgpilekiko lehenen lurrunezko ontzia, Real Fernando, Trianako los Remedios ontzian eraiki zen, Sevillan, Sevillatik Cadizera nabigatzeko. 1834an Valencia lurrunezko goletak Bartzelona-Palma

- Mallorkakoa linea egiten zuen. Espainiar itsas armadako gurpilekiko lehen ontzia Isabel II izan zen, 1850ean, (Royal William 1834an bezala izan zen). [itzuli]
10. Konpainiako banderak —hiru esku gorri elkartuak atzealde txuri batean— (Larrinaga etxeak mantendu egin zuen bandera), enpresako hiru bazkideak irudikatzen zituen; haien ontzietako bat Irurac-Bat izan zen, eta Chávarritarrek Laurac Bat deitu zioten beren yateari. Larrinagatarrak eta Longatarrak ez ziren izan bizkaitar bakarrak Liverpoolen. Han bizi izan ziren Arrotegui & Soberon busturiarra, Eduardo Yeves Aranaz bilbotarra, Dionisio Eizaga bilbotarra (Mundakako emakume batekin ezkondua), J.F. Zarza, (azken hirurak ship chandlers eta armadoreak izan ziren), Juan B. de Abaitua (ontzigintza), Fidel de Oleaga & Co. (burdin merkataria), Domingo Ybarrondo (merkataria, oro har). Haiekin batera beste langintza batzuetako langile batzuek lan egiten zuten: okinak, jostunak, etab. Ikus Helen Forresteren nobela, *The Liverpool Basque*, Harper Collins, Londres, 1993. [itzuli]
  11. Revista Bilbao aldizkarian, 1909ko otsailaren 6an. “Anglo-bilbotar” hitza Rafael González Echegarayk esana da, zeina izan baitzen gertaera horri buruz ohartarazi zuen lehena; hemen: *La Marina Cántabra. III. Desde el vapor*, Diputación Provincial de Santander, 1968, 36–39. or. Rafael Ossa Echaburuk ere, *El Bilbao del Novecientos. Riqueza y poder de la ría (1900–1923)* obran, Villar, Bilbo, 1969, 187–90. or., hitz hori erabiltzen du, baina González Echegaray aipatzera mugatzen da. Geroztik, Jesús María Valdalisok sakon aztertu ditu konpainia horien finantziario-mekanismoak eta zer trafikotan erabiltzen ziren; hemen: *Los navieros vascos y la marina mercante en España, 1860–1935. Una historia económica*, IVAP, Bilbo, 1991, 203– 13. or.; eta hemen: “La flota mercante española y el tráfico con América en la segunda mitad del siglo XIX”, *Revista de Historia y Cultura Naval*, XIII, 49, 1995, 7–37. or. Autore horrek dioenez, 1883 inguruan Liverpoolen bazeuden “gutxienez bederatzita enpresa bizkaitar ontzien merkataritzan, kontsignazioan, agentzian eta artekaritzan aritzen zirenak”. [itzuli]
  12. “Bandera y colonias españolas, navieros y marinos vizcaínos, y capital y comercio británicos. Las navieras anglo-bilbaínas en el último tercio del siglo XIX”, Congreso VII Centenario de la Villa de Bilbao, Bilbon egina, 2000ko urrian. [itzuli]
  13. José María Martínez de las Rivas (1848–1913) Santiago Martínez de Lejarza Escarzagaren (1815–1888) semea zen eta Francisco de las Rivas Ubietaren iloba, amaren aldetik; de las Rivas Mudelako lehen markesa zen eta San Franciscoko burdinolaren sortzailea, Basamortuan, Sestaon, Basamortu edo Karmeldarren Komentukoa izandako lurretan, non egon baitzen konfinatuta Félix María Sánchez de Samaniego eta non fraideek ur gaziarekin eginiko ureztatze sistema batekin lantzen baitzituzten beren ortuak. San Franciscoko fabrikaren ondoan Astilleros del Nervión sortu zuen. 1874an Laguntzaileen Batailoiko (Batallón de Auxiliares) partaide gisa agertu zen Bizkaiko hiriburuaren setioaren garaian, Bidebarrietako kaleko 15. zenbakiko lehenengo solairuan bizi zelarik. Meategietako enpresaria izan zen, baita siderurgiako eta ontzigintzako industrialaria ere, eta gogotik hartu zuen parte Banco de Bilbaon eta Banco del Comercio banketxeetan. Politikari kontserbadorea, Gorteetako diputatua eta erreinuko senataria izan zen. Joera politiko horretakoa izan arren, bera izango zen lehena nahitaezko barrakoiak eraisten (1890eko greba), 1911ko greban langileen aldeko jarrera izaten eta 1918ko meategietako greban lanaldia gutxitzen eta bere kideei bere urratsei jarraitzea akuilatzen. Circulo Minero delakoak errieta egin zion horregatik, eta “enpresari eskirola” goitizena ezarri zitzaion, Prietok gogoratzen zuen bezala. Bilbon, Londresen eta Madrilen bizi izan ondoren, Madrilen hil zen, Espainiako gizon aberatsenetako bat zelarik. [itzuli]
  14. Ikus Maite Jiménez Ochoa de Alda, *La fotógrafa Eulalia Abaitua*, Temas Vizcaínos—BBK. Bilbo, 2010. Juan Narciso Olano (1851–1909) 1871n ezkondu zen, ordurako makinaren ingeniaria zela, Eulalia Abaitua bizkaitar argazkilariarekin (1853–1943), zeina Liverpoolen ere hazi baitzen. [itzuli]
  15. Juan Bautista Longa Compañía Bilbaína de Navegación-en (Eduardo Aznar zuzendari zuela) eta haren seme León Longa Larrínaga Compañía Marítima Uniónen, bai eta Banco de Comercio ere. La inbertsio guztietan Florentino Larrínagarekin bat egin zuen, hura ere La Polar de Seguros-en bazkide sortzailea eta Consejo de Administración del Banco de Bilbaoko Administrazio Kontseiluko kidea izan zen. [itzuli]
  16. “Quand tu veux construire un bateau, ne commence pas par rassembler du bois, couper des planches et distribuer du travail, mais réveille au sein des hommes le désir de la mer grande et belle”. “If you want to build a ship, don’t drum up the men to gather wood, divide the work and give orders. Instead, teach them to yearn for the vast and endless sea”. [itzuli]

17. Eraikuntzarako lehenengo dikea: 1. dikea (luzera 105 m, zabalera 14 m) eta 2. dikea, konponketetarako (luzera 101 m, zabalera 28 m). [itzuli]
18. Bi aseguru-etxeak bakarrean elkartuko ziren XX. mendean, bi bankuak bezala, Bilbao eta Vizcaya, BBVA siglan bat eginik. Pentsa dezagun ontzi istripuak oso ugariak zirela garai hartan; ikus dezagun hondoratze kopurua 1905ean: “Ontzia erabat suntsitzea eragin duten hondorapenen eta istripuen kopurua handia izan zen urte horretan: 1.293 guztira, 726 lurruntzi eta 567 belaontzi. 1904an, aldiz, 627 izan ziren baporeak eta 539 belaontziak, 1.166 guztira. Joan berri zaigun urteko urteko galera horietan, kontuan hartu behar dira, baita ere, desagertutako 55 ontzi, hau da, portutik atera zirenetik berriro haien berri izan gabeko ontziak; horien kasuan ezin jakin ezbeharrak zerk eragin duen. Desagertutakoen artean badago bi zenbakidun gure banderarik, Oleta eta Altamira ontziak, biak ere Bilboko matrikula dutenak, Estatu Batuetako kostaldetik abiatutakoak aiez eta egurrez kargatuta. Ontzi-galeren inguruan emandako guztirako kopuruak barne hartzen ditu, baita ere, Errusia eta Japoniaren artean izandako gerran istripuak izan dituzten itsasontziakn”, *La Vida Marítima* (1906ko otsailak 20). [itzuli]
19. *Paddle tug* lurrunezko atoiotzi bat da, lurrun makina batek bultzatua, alboko paleta batzuen gurpilak mugitzen baititu ontzia uretan ibilarazteko. [itzuli]
20. Mota horretako brankak uzten dio atoiotziari itsasoko uretan lasaiago atsedean hartzen. Olatuen goraldietako eta beheraldietako igotze eta jaiste deseroso eta iraunkorrak jasagarria egin behar luke ontziko lana eta abiadura handiagoak ahalbidetu Bilboko Abra ekaitztsuan. Lan ontziak urte osoan eta edozein kliman aritzen dira martxan. Branka mamitsuak handiagotu egiten du itsasoa; ontziaren eragiketa ekonomikoan lagundu behar du, igeriketako jarrera lasaiari esker. [itzuli]
21. Jesús María Valdaliso, “Nacimiento y desarrollo de la industria naval del hierro y el acero en el País Vasco: el caso de Vizcaya (c. 1889–1979)”, 310. or.; 10. oharrean horri buruzko bibliografia zabala ematen du. [itzuli]
22. Manuel Montero, “Modernización económica y desarrollo empresarial en Vizcaya 1890–1905”, *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, 9–10- zk., Bilbo, 1988. [itzuli]
23. Francisco Martínez Rodas (1847–1909), militarra, Huescan jaioa, teniente gisa iritsi zen Bilbora 1872an hiribildua defendatzeko, eta 1877an Eloísa Aranarekin ezkondu zen. Meataritzan hasi zen, Sociedad Minas y Ferrocarril de Cala enpresan. Gero lau ontziola sortu zituen: Compañía Marítima Rodas, Compañía Marítima Unión, Sociedad Marítima Cantábrica eta Compañía de Remolcadores Bilbaínos, bai eta Banco Franco-Español del Comercio y de la Industria, eta Bilbotik Lezamarako burdinbidea, eta Seguros Aurorako kidea zen. Ontzi-jabeen Elkarteko lehendakaria izan zen eta Liga Marítima elkarteko lehendakaria (1910. urtearen amaieran, Liga Marítima Españolak 16.000 bazkidetik gora izan zituen, banakakoak eta kolektiboak, eta 39 batzar probintzial). Gorteetako diputatua izan zen 1893an Markinako barrutitik eta 1896an, berriz, senatari. Portugaleteko El salto bere etxaldean hil zenean (1890ean eraikia Mazarredotarren lurretan) haren hileta sekulako gertaera izan zen, eta Ramón de la Sota lehenengo lerroan egon zen. Haren alaba bakarra mediku handi batekin ezkondu zen, Enrique Areilza. [itzuli]
24. Espainiako nabigazio enpresa handien zerrendarako, ikus Jesús María Valdaliso, Los navieros vascos y la marina mercante en España, 1860–1935. *Una historia económica*. I.V.A.P., Bilbo, 1991, 383–84. or., 2. ap. [itzuli]
25. Berrizko Markesgoa (1900) Eduardo de Aznar de la Sota industrialaren eta ontzi-jabearen alde, eta Zuiako Markesgoa (1920), haren seme Alberto de Aznar Tutoren alde; Rodaseko Kondetza (1901) Francisco Martínez de Rodasen alde, zeinak lau ontzi-enpresa sortu baitzituen; Lamiako Markesgoa (1902) Eduardo Costeren alde, zeina Bilboko Obra Publikoen Batzordeko lehendakaria baitzen; Motrikuko Kondetza (1908) Evaristo de Churruca portuko ingeniariaren alde; Abásoloko Kondetza (1919) Félix de Abásoloren alde, zeinak Compañía Naviera Vascongada y Sociedad Marítima de Vizcaya enpresa sortu baitzuen eta haren zuzendari kudeatzailea izan baitzen 28 urterekin; Mac-Mahóneko Markesgoa (1920) Pedro Mac-Mahónen alde, zeina Bilboko Constructura Naval enpresako kontseilaria baitzen. [itzuli]
26. Ikus liburuki honetako “Aurreiritziak: Oligarkia” kapitulua. [itzuli]
27. Ikus Pablo Díaz Morlán, La evolución de las alianzas extranjeras de los grupos empresariales vizcaínos (1812–1936), 2005, 17. or.: “Bizkaiko oligarkiaren eta haren nazioarteko itunen panorama argiago zegoen 1936 ingururako, bai, bederen, 1914ko egoerarekin alderatuta eta, are gehiago, 1920ko hamarkadakoan aldean”. [itzuli]

28. Ikus Pablo Díaz Morlánen saiakera, "El último magnate", eta José Antonio Herguetaren dokumentala, El último magnate, 2011koa (80 min.), haren bi seme-alabak elkarrizketatzen dituen: José María, 106 urtekoa, eta Amalia, 95ekoa, emakumezko tenisaren txapeldun nazional ohia. [itzuli]
29. Uraren gainean igotzen zen beherantz kurba baxu bat eginez. Horrek zutikako ontziaren flotazio-marraren desabantaila gainditu zuen, urte haietan estropadetan zeuden eraikuntza-arauek mugatua baitzegoen. Zeren eta txalupa martxan dagoen orduko, flotazio-lerroa hedatu egiten baita neurritik hain zuzen ere luzeena deneraino. Hori lagungarria zen mota espezialeko barrualdearen erosotasunerako: Sonderklasse. [itzuli]
30. Adibide bat: 1879an, Eduardo Aznar eta Ramón de la Sota lehengusuek beren karrera meteorikoari hasiera eman zioten, lehenik, meatzaritzan eta burdinazko mearen merkataritzan, geroxeago itsas garraioan, eta, gero, haiekin zerikusia zuten beste hainbat negoziotan (aseguruak, ontziolak, bankuak); Bizkaian eta Santanderren zeuzkaten meatzaritzako negozioez gainera, meatzaritzako negozioak zabaldu zituzten Teruelen (Sierra Menera) eta Almerian (Alhambilla) eta konplexu siderurgiko bat Saguntan: Compañía Siderúrgica del Mediterráneo. Biek Ingalaterrara ikastera bidali zituzten beren semeak: Eduardo Aznar Tutor hamabi urtez egon zen, eta haren anaia Luis Iron and Steel Institutetako kidea izango zen 1897. urteaz gero, Ramón de la Sotarekin batera; institutu hura britainiarrek, amerikarrek eta suediarrek osatuta zegoen. [itzuli]

Enpresari berri horietako batzuk Zazpikaleetatik atera, eta etxe handiak eraikiko zituzten Campo Volantinen, Deustuan edo Zabalgunean, eta, aldi berean, punta-puntako laketontziak erosiko edo eginaraziko zituzten. Mende aldaketarekin batera, Bilboko ibaira Abratik sartzeak erakutsiko zituen bi aldeetan, hala Santurtziko eta Portugaleteko ertzean, nola Areetakoan eta Punta Begoñakoan, villa partikular itzel eta eder-ederrak, eraikuntza berriko “hotelak”, Bizkaiko Institutuan negozio-gizon boteretsu horien ikaskide izandako arkitektoek eginak. Garai hartantxe hasi ziren agertzen orobat Bilboko klub nautiko berriak.

Geldiune bat egin beharra dago zurezko zurginen ontziolak altzairuzko ontzioletan nola eraldatu ziren aztertzeko, nautika eskolen hainbat etapei begiratzeko eta XIX. mendeko bilbotar itzaltsu haien biografiari so egiteko, bela kluben sorrera ulertu nahi bada.

Badaude Ucelayren marrazki batzuk, 1928koak, XIX. mende erdialdeko portuko eszenak erakusten dituztenak, non alboko gurgpilekiko steamer-ak goletekin eta clipper-ekin nahasten baitira, eta non pertsonaien jantziak 1854ko modakoak baitira. Ucelayk The London Illustrated Newseko grabatuak oroitarazten dizkigu; haren amaren osabak, Gabriel Lambarrik, gordea zeukan argitalpen hori, 30etik gora liburuki koadernatuetan. Emakumeen soinekoen aberastasun lerro-makurrari portuko dikeen, egurrezko pasabideen eta ontzien aparailuen kontraste lineala kontrajartzen dio. Haren Bermeoko muralean, ikusten ditugu portuko eraikinak, arrainontzi porturatuak, eta eraikitzen ari diren ontzien oskolak, egurrezko zuakerrak agerian dituztela. Bermeoko muralak marinel-herri bat laburbiltzen du, non egurrezko ontziola eta lurrenontziak nahasten baitira.

Burdinazko eta altzairuzko ontziak eraikiko zituen lehen ontziola José María Martínez de las Rivasen ekimenez sortu zen. Gizon horrek ikusi zuen estatuak gerraontzi berriak eraikitzeke premia zuela (1888an hiru gurutzontzi enkargatu zizkioten bere eskudra berrirako) eta britainiar itsas eraikitzaile bat konbentzitu zuen, Charles Palmer, 1889an Martínez Rivas-Palmer elkarte kolektiboa sortzeko, alegia, ontziola handi batzuk, artilleriako, makineriako eta fundizioko tailerrekin. Garai hartan agertuko zen baita ere Bilboko ibaian, lehenengo laketontzi bikaina, José María Martínez de las Rivasen Lily, steam yacht bat, hau da, bi mastako goleta bat bezala tresnatutako lurrenontzia, gehi zutoineko bi masta eta maspreza zeuzkana. Ingalaterran hezia, De las Rivas, amaren aldeko osabaren negozioak gobernatzeaz gainera, bere belaunaldiko enpresaririk ausartenetako bat izan zen eta Astilleros del Nerviión enpresaren sortzailea. Bi aldiz ezkondu zen ingeles emakumeekin, eta, gainera, itsasozale amorratua zen: Lily (bere lehen emazte, Cecilierengatik) ibaiko lehen yate handia izango zen. Yate moderno horretatik gozatuko zituen Alfonso XIII.a erregeak lurralde nazionalen egin ziren lehen estropadak.

Beste ontzi garrantzitsu bat schooner goleta zen, haren anaia Franciscorena, ezizenez Carita, eta 1881ean Albert Edward printzearena izan zena<sup>1</sup>.

Bi mastako goleta bat zen, guairo baten modura tresnatua (hau da, labana-belak jasotzen dituzten ontzien “brankapopa aparailua”), eta aurtza astun bat zeukana<sup>2</sup>. Franciscok 1900ean erosi, eta Carita izena jarri zion, bere alaba Caridadengatik; alaba beste yachtman handi batekin ezkonduko zen, Santiago Martínez de las Rivas Tracy (1877–1906) bere lehengusuarekin. Gizon hura, bere bizitza laburrean, hiru aldiz izango zen Sportingeko lehendakaria eta estropadaririk onenetako bat<sup>3</sup>. Santiagok Carita II eta Carita III eraikiko zituen Astilleros del Nerviión ontzian, biak

bi tona baino gutxiagokoak. Santiago Errege Koparen txapelduna izan zen 1904an Carita Ilrekin, bera patroiz zela, eta 1905ean Kieleko estropadetan parte hartu zuen, Enrique Careagaren Princesa de Asturias balandroarekin. Santiagok bi gauza handi egingo zituen belaren munduagatik: bere aitaren izena zuen saria eraikuntza nazionalerako ontzien estropadarako, eta beren jabeak, eta ez beste inor, patroiz zituzten ontzientzako saria.

Enpresarien arteko beste itsasgizon handi bat Cosme Echevarrieta Lascurain zen, bere belaontzian Abran zehar nabigatzera ateratzen zena bere pentsamenduak argitzeko. Echevarrietak ez zuen sekula ahaztu ontziko kapitain gisa izan zuen hasiera. Haren anbizioa beti egon zen lotuta itsasoarekin zerikusia zuen guztiaren gurtzari: arriskua eta zehaztasuna, hauskortasunaren eta dinamismoaren nahasketa hori, harridura sortu eta zalantza eragiten duena, eta helmugako hodeiertzaren bista, zeru gangaren kapritxoekin lagundua beti. Echevarrietak bere seme Horacio entrenatu zuen, eta hark bere eskifaia entrenatu zituen. Kapitainaren eta itsasgizonaren arteko nahasketa horrek beste nabigatzaile batzuk, bai eta adiskide eta etsai batzuk ere, liluratu zituen. 1887an *Laurac Bat* ontzia zebilen ibaian (lau Chávarri anaien aipamenez), Víctor Chávarriena, 30 metroko luzera zuena<sup>4</sup>. Benigno Chávarrik 1926an emango zion ontzia Bilboko Nautikako Eskola Ofizialari. Tissotek, Guiardek, eta abarrek pintatutako ontzi mota zen, pailebote motakoa, alegia [Pilot's boat (pilotuaren txalupa) ingeleseko hitzetik hartua]: goleta txikiak, gabiarik gabeak, motorizatuak eta arrasean eta bizkor nabigatzen dutenak. Víctor Chávarri 1900ean hil zen, Cosme Echevarrieta 1903an eta José María Martínez de las Rivas 1913an: hiru enpresari eta nabigatzaileek 13 milioi pezetatik gorako dirutzak utzi zituzten. Ordurako, ibaiko jendea harritu zezakeen ontzi bakarra *Giraldá* zen, Hugh McCalmont jeneral, politikari eta kirolari britainiarrek 1894an eraikia (95 metroko luzera, 1.609 tona desplazamendu), eta orain Alfonso XIII.aren errege yatea zena<sup>5</sup>.

Mende hasieran, belaunaldi berriko bi pertsona ospetsuak, Ramón de la Sota nazionalistak eta Horacio Echevarrieta errepublikanoak, nabigazioaren bi harribitxi matrikulatuko zituzten Bilboko portuan. Echevarrietak steam yacht bat erosi zuen 1910ean, 70 metro luze eta 9 zabal, eta Cosme y Jacinta jarri zion izena, bere gurasoen omenez<sup>6</sup>. 715 tona mugitzen zituen eta haren eskifaia kapitain batek, pilotu batek, makinista batek eta 27 gizonen osatzen zuten — marinelar, sukina eta ostalaritzako langileak—. Ontzia 1896an diseinatu zuen Sir Donald Currie ontzi-jabearentzat. Handik gutxira, 1914an, Gillermo II.a enperadore alemanaren estropada-yatea ere erosi zuen, Meteor IV, geroago aipatuko duguna.

Itsasoa izan zuen beti Horaciok lekuri gustukoena. Aitarengandik heredatu zuen grina hura. Beti bilatzen zituen belaontzi maneigarriagoak bere estropadetarako. Plymouth-Santander Belako Yatchen Nazioarteko Estropadan lortu zuen 1925ean bere lehen saria, María del Carmen Ana ontziarekin, sei orduren aldea atera ziolarik bigarrenari; hala ere, Cosme y Jacinta iruditu zitzaion beti bere ontzirik onena. Bulegoetatik eta fabriketatik urrun, itsas zabalean egoten zen beti ahal zuen guztietan. Bere etxe berria eraikitzeko, Echevarrietak leku seinalatu bat hautatu zuen Neguriko luxuzko etxeen artean, Punta Begoña, gotorleku militar bat eta gero lazareto bat egon ziren lekua, hain zuzen. Mareen gaineko behatoki bat zen. Hango egongelatik ez zitzaion ezer itzurtzen haren begiei: ezker aldean bere meategiak eta ibaian, berriz, bere merkataritza-ontzidiaren joan-etorria. Era berean, Santurtzin, non Abra kontrolatzen baitzuen beste gotorleku baten hondakinen gainean eraikitako txalet batetik.

Echevarrietak oso ondo aztertzen zituen bere ontzi guztiak: kroskoaren marrazkia, masten antolamendua, belen sekzioak, etab. Juan Antonio Aldecoa bilbotar ingeniaria izan zuen “nabigazioan eta ikerketan” kide; bere ahaldun leialetako bat zen eta Cadizeko ontziolaren zuzendaria 1921 eta 1931 artean. Solaskide leiala zen, baita ere, abiazioaren arloan<sup>7</sup>. Echevarrietak ez zituen alderdi ekonomikoak bakarrik gainbegiratu, aitzitik, berrikuntza teknikoak eta estilo-xehetasunak, batez ere: “ontziak eraikitzea emanda gaude, eta eginahal bizian nabil gure ontzi ondo administratua onenak bezain onak direla frogatzeko... Damu dut nire herrikideek nire ereduari ez jarraitu izana”. Haren gaitasunari,

kemenari eta elkartasun senari esker bere eskifaiei errespeturik sutsuena irabazi zuen. Gauza bera esan liteke Ramón de la Sotaz, zeinak 1920an Goizeko Izarra erosi baitzuen (izen bereko bosgarren yatea zen)<sup>8</sup>, 1.266 tona desplazamendukoa eta 86,7 metro luze, George L. Watsonek 1904an diseinatu; Watson ontzi arkitekto ospetsu bat zen, 1873an yateak diseinatzeko munduko lehenengo bulegoa sortu zuen eta beste yate ospetsu asko ere diseinatu zituen, America's Cupeko Thistle, Valkyrie II, Valkyrie III, Shamrock II erronkariak eta Britannia gogoangarria.

De la Sota Gerra Zibilaren hasieran hil zen, Lerteguiko bere etxean. Haren seme Ramón de la Sota Aburtok Gurutze Gorriaren esku jarri zuen Goizeko Izarra, zeina biztanle zibilak ebakutzeko erabili zen, haien artean hezurretako tuberkulosiak jotako eta Gorlizko Erietxetan ospitaleratutako 270 ume, Euskadiko Gobernuak portu frantsesetara eraman zituenak. Horrela amaitu zen Abran bizi izan ziren schooner haien ez elezaharra, errealitatea baizik.

Berebat esan behar dugu ezen azken bi enpresari horiei, Ramón de la Sotari eta Horacio Echevarrietari, zor zaiela azken bi goleten eraikuntza, XX. mendean jadanik. Goleta —schooner hitza Ipar Ameriketako ekialdean erabili zen lehenbizikoz 1700. urtearen hasieran— oso erabilia izan zen ozeano Atlantikoaren bi aldeetan XIX. mendearen amaieran. Goleta kabotajeko ontzi gisa XIX. mendean desagertu zen, eta lurrunontziak ordezkatu zuen, baina kiroletarako ontzi gisa berreskuratu zen, hala nola Ramón de la Sotaren *Ama Begoñakoa* fragata 1902an edo haren ontzi-enpresako eskola-ontzia edo Juan Sebastián de Elcano, bergantin-goleta bat, 1927an Espainiako Itsas Armadako eskola-ontzi bihurtuko zena.

*Ama Begoñakoa* 1902ko uztailean uretaratu zen, A. McMillan & Sonsen ontzioletan, Dumbartonen, Compañía de Navegación Sota y Aznar enpresarentzat, altzairuzko kroskoa zeukan belazko eskola-ontzi gisara<sup>9</sup>. Montevideon erregistratu zuten, zeren eta Uruguaiako banderak matrikulazio-eskubideak eta beste zerga batzuk saihesten baitzituen garai hartan. Altzairuz eraikia zegoen, 91 metro zituen luze, 13 zabal eta 4.000 tona desplazamendu; koadro txuriz eta zerrenda beltzez pintatua egon zen, fragata zaharren zama-zuloak edo alboetako irekiguneak gogoraraziz. Aparailua bere garaikoen arteko handienetako bat zuen: lau masta, horietariko hiru gurutzatuak, altuera berekoak eta gurutzatze berekoak. Ganberak zeuzkan popan kapitainarentzat eta ofizialentzat, eta ikasgelak popako masta nagusiaren eta mesanakoaren artean. Tomas Undabarrena zuen ontziak kapitaina, eta 52 laguneko eskifaia zuen.

Ontzi-enpresa gutxi esan zezaketen eskola-ontzi propio bat zeukatela eta aurreko hamarkadetan bezala irakasten zutela oraindik nabigatzen. Ontziak Begoñako Ama Birjinaren irudia zeukan brankan, hark ematen baitzion izena ontziari.

Bestalde, Horacio de Echevarrieta arduratu zen oraindik ere gure eskola-ontzia dena, Juan Sebastián Elcano, 1927an uretaratua, Cadizeko Echevarrieta y Larrinaga ontzioletan eraikitzeaz. Ontzi horren diseinua Juan Antonio Aldecoa itsas ingeniariarena zen, bera izan baitzen ontziolako zuzendaria 1921etik 1923ra bitartean; 113,1 metro zen luze (94,13 maspreza gabe), 13,1 zabal eta 6,68 metro garai; lau masta zituen<sup>10</sup>. Handik urte batzuetara Esmeralda, Txileko Itsas Armadako eskola-ontzia, Elcanoren antzera eraikiko zen<sup>11</sup>. Beste ontzi txikiago batzuk ere eraiki zituen, Santa María karabelaren erreprodukzioa, adibidez, Sevillako erakusketa iberoamerikarraren kariatara, 1929an. Echevarrieta gizon polifazetikoa zen, inondik ere; berdin eraikiko zituen belazko aparailuko goletak eta itsaspekoak, nola, adibidez, E-1, Wilhelm Canaris garai hartan kapitaina zenarekin elkarlanean diseinatu; Canaris Abwehren burua izan zen Bigarren Mundu Gerran<sup>12</sup>.

*Elcanok* emakume irudi bat zeukan brankan, Minerbaren irudi bat, Federico Sáez bilbotar eskultorearena, Durrioren lagun ona zenarena<sup>13</sup>. Irudiak brankako ezproia koroatzen zuen, txanbergaren azpian. Ontziaren albo altzairuz eginari oso ondo finkatuta zegoen: xaflen lotura bikain soldatua zegoen, irudi osoa xafla bakarrean galdatua izateko eran.

Elcanoren zur berarekin Echevarrietak Marichu eraiki zuen berarentzat, 13 metro luze zen belaontzi bat, *Gipsy* izenez gaur egun oraindik nabigatzen duena.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. *Carita* 13,68 metro luze, 2,36 metro zabal eta 216 tona desplazamenduko schooner bat zen. Benjamin Nicholonek diseinatu zuen goleta hori 1860an eta Camper ontzioletan eraiki zen, Gosporten (Hampshire). National Maritime Museum de Cornwalleren arabera, Camperen eraiki, baina Captain C. S. A. Thellusonek diseinatu zuen. [itzuli]
2. Ikus hemen: *Endeavour Quay History*: "In 1842 Benjamin Nicholson had been apprenticed to Camper and by 1855 he was clearly responsible for much of the yard's design work and management. In 1860 he launched the 216 ton schooner ALINE which was probably his greatest creation as she outclassed all the opposition and set the standard for schooners for many years". <http://www.endeavourquay.co.uk/about-endeavour-quay/endeavour-quay-history/>. Batzuetan, Caritaren aipamena egiten denean, esaten da Charles Sibbickek diseinatu zuela Albert Yard ontzioletan, Thetis Road, Cowes, Isle of Wight, eta 1892an erregistratu Donostian, eta aldez aurretik Aline zuela izena (edo baita ere LINE. 1898. 2 Tonner for France. Never delivered. Sold to Spain as 24 Footer). Charles Sibbickek 300 ontzitik gora diseinatu eta eraiki zituen 1888 eta 1912 artean, urte hartan hil baitzen. [itzuli]
3. Santiago Martínez de las Rivas Tracy (1877–1906) Caridad Martínez de las Rivas (1881–1924) bere lehengusinarekin ezkondu zen, eta 1906ko otsailaren 6an suizidatu zen, 29 urterekin, Madrilen, seme bat utzirik, Santiago Martínez de las Rivas y Martínez de las Rivas (1904–1937), Mudelako laugarren markesa, zeren eta aurreko markesak, Francisco de Losada y Rivasek, ez zuen seme-alabarik izan María del Carmen Fernández de Córdovarekin, zeina Medinaceliko duke-dukaren alaba baitzen; Losada Carmenen semea zen, Valdelagrana kondesarena, zeina bigarren markesaren arreba baitzen, Francisco de las Rivas Urriaga, eta biak lehenengo markesaren seme-alabak, Francisco de las Rivas y Ubieta jaunarenak, alegia. Santiago nazionalen alderdira igaro nahian hil zen 1937an. Santiagoren ontziak Carita zuen izena, eta Franciscorenak, berriz, Carmen y Tuiga (azken hau haren koinatuaren izenean matrikulatua: Medinaceliko kondea). [itzuli]
4. Laurac Bat Esterel izan zen, 1887an Richard Strakey Glasgowkoari erosi; 30 metro luze zen eta 4,30 metro zabal. Benigno Chávarrik Bilboko Nautikako Eskola Ofizialari eman zion 1926an eta Marqués de Chávarri berrizendatu zuten ontzia. Eskola-ontzia izan zen, harik eta haren ordeztu El Saltillo erabili zuten arte, Peru Galíndezek 1948an Juan Borboikoari oparitu, alegia. [itzuli]
5. Giralda Espainiako Itsas Armadak erosi zuen gerraontzi mezulari gisa erabilia izateko Espainiaren eta Estatu Batuen arteko gerra baino lehen. Aurrerago, Alfonso XIII.ak errege yate gisa erabili zuen. 1906ko uztailean Donostiatik, non Victoria Eugenia erreginak uda igaro baitzuen, Cowesera itsasoratu zen, Wighteko uhartera, alegia, estropadetan parte hartzeko, eta gauza bera egin zuen 1911ko ekainaren 1ean, baina oraingoan Santanderetik itsasoratu ondoren. [itzuli]
6. Cosme y Jacinta 1896an diseinatu zuten, lolaire (arranoa izendatzeko hitz gaelikoa) izena jarri zioten, eta Leith-en eraiki zuen Ramage & Ferguson etxeak; 222 oineko luzera zuen eta 28 oineko zabalera, eta Sir Donald Currierentzat egina zen, zeina baitzen Castle Shipping Line linearen sortzailea. 1902an Curriek izen bereko yate berri batekin ordezkatu zuen (eta horrek nahasmenak sortu izan ditu), eta Solomon Barnett Joeli saldu zion, diamanteen handi-mandi hegoafrikarrari, zeinak Doris jarri baitzion izena eta 1910 arte mantendu baitzuen; orduan Echevarrietari saldu zion, eta hark Cosme y Jacinta izena jarri zion. 1938an Portsmouth-eko Philip E. Shephardi saldu zioten eta hark Marioni jarri zion izena; eta, azkenik, 1946an desegin zuten. [itzuli]
7. Juan Antonio Aldecoa (1870–1950) Felisa Lacomberekin ezkondu zen; hainbat gauza asmatu zituen, hala nola ornitopteroa: arrantzarako gailu artikulatu bat, itsasoaren beraren energiak mugitua (Espainiako 64.997



zenbakidun patentea), “bere burua propulstatzeko eta erabilera industrialetarako energia elektrikoa sortzeko” pentsatua. Aldecoaren Hidrotrena esaten zioten asmakizunari: “[...] XIX. mende amaieran, espainiar ingeniari batek olatuen indarra aprobetxatzeko gailu bat asmatu eta eraiki zuen, baita Donostiako Zurriolan probatzen saiatu ere; gailua, baina, desagertu egin zen, itsasoaren indarrak berak eraman eta suntsitu baitzuen. Orain, Aldecoa jaunak asmatutako sistema arazo berari aurre egiten saiatuko da, itxaropen are sendoagoz [...] Flotagailu artikulatuz osatutako kate bat da, biela bitartez mugituzten diren ura konprimatzeko ponpa sorta baten bidez ontziginari lotzen zaiona. Multzoak ontzi-krosko artikulatua sortzen du, zeina une oro itsasoaren gainaldeko forma kizkurrari egokitzen saiatzen den; era horretara, mugimenduan jartzen ditu ura konprimatzeko ponpak, horiek turbinari eragiten diote eta horrek, azkenik, ontzia propulstazten duen helizeari helarazten dio indarra. Gainera, gasolina-motor osagarria du, portuko sartu-irtenetan edo itsaso bareegia dagoenean propulstioa eduki ahal izateko”, aldizkari honetan: Nuevo Mundo, 1918ko abuztuaren 2ko edizioa. Aldecoak interesa izan zuen halaber, Alberto de Palaciok bezala, hegazkingintzan, eta haren iloba, Manuel Zubiaga Aldecoa (1893–1986), Isabel Aldecoa Ariasen semea, izan zen Ingalaterran pilotu-titulua lortu zuen Espainiako lehenengo hegazkinlaria, 1913an (ikus [http://www.circuloaeronautico.com/data/archivos/revistas/79\\_41.PionerosdelaAviacionEspanola.pdf](http://www.circuloaeronautico.com/data/archivos/revistas/79_41.PionerosdelaAviacionEspanola.pdf)).

Zubiaga izan zen lehenengoa Espainian eta seigarrena munduan “Looping the Loop” egiten, hots, “kizkurra kizkurtzen”, Liverpoolen gainean, bere jabetzako hegazkin batekin. Bizkaiko Errege Aeroklubaren sortzailea eta lehenengo lehendakaria izan zen 1950eko maiatzaren 1ean. [itzuli]

8. Goizeko Izarra (aldeztatik Warrior) Alfred G. Vanderbilt estatubatuar milioidunak enkargatu zion 1904an Ailsa Ailsa Shipbuilding ontziolari, Troonen, Eskozian. Warrior GL Watson & Co.ren 424 diseinu-zenbakia izan zen 1903an; hedadura hirukoitzeko lau zilindroko bi motor zituen, A. & J. Inglisenak, Pointhouse, Glasgow. 1915ean saldu zioten Alexander S. Cochran (New York Yacht Clubekoa hura ere), eta 1917ko otsailetik 1918ko abendura Admiraltyk konfiskatu egin zuen gerrarako. Sotak 1920an erosi zuen. 1938an Rex M. Hoyesi saldu zitzaion, Southamptonen, eta Admiraltyk berriz konfiskatu zuen 1939an. Dunquerque ebakutzeko erabili zuten eta azkenean hegazkin alemanek hondoratu zuten 1940an Mantxako Ubidean, Portland Billetik 10 miliara. Ikus liburu hau: G.L. Watson -*The Art and Science of Yacht Design*, Peggy Bawn Press 2011, bai eta bideo hau: <https://peggybawn.wordpress.com/2013/03/10/the-weekend-watson-warrior/>. [itzuli]
9. Ikus <https://vidamaritima.com/2008/05/ama-begonakoa/>. Halaber, kontsulta daiteke *La Vida Marítima* aldizkaria, II. urtea, 67 zk., 1903ko azaroak 10: fragata hori 300 oin ingeles luze, 43 zabal eta 34 garai zen. 1910eko ekainean Devitt & Mooreri saldu zitzaion, Londresen, eta Medway izena jarri. 1908ko martxoaren 10eko La Vida Marítima aldizkarian, 12. orrialdean, ontzia saltzeko arrazoia aipatzen da: “Memorian azpimarratzen den legez, Pazifikotik Europarako pleiten merkatua nabarmen nahasi da, eta sumatzen da hautagaiak eta pilotuak ez daudela bidaia luzeei ekiteko prest; horrenbestez, Konpainiak erabaki du Ama Begoñakoa fragata saltzea eta eskola bere lurruntzietako batera lekualdatzea”. “Sota y Aznar ontzi-enpresak Euskalduna ontzigintza eta konponketa konpainiak eraiki berria duen Ganekogorta-mendi lurruntzira eraman du Ama Begoñakoa ontzian zuen Pilotu eta Agregatu Eskola; ontzi berriak 4.600 tonako karga du, eta portu honetatik Rotterdamekorantz abiatu da ikasketa gehigarriak ontzian bertan egin behar dituzten zortzi ikaslerekin”. Halaber, ikus 1903ko otsailaren 15eko San Francisco Chronicle agerkeriko artikulua, eta Medway izeneko argazkiak Wikipedian; hemen: [http://en.wikipedia.org/wiki/Medway\\_\(1902\)](http://en.wikipedia.org/wiki/Medway_(1902)). [itzuli]
10. Honela zuten izena lau mastek: Asturias (brankako masta nagusia), Almansa (brankako masta nagusia), Blanca (trinket masta) eta Nautilus (mesanako masta). Ikus: José Cervera y Rafael Estrada, Juan Sebastián de Elcano: embajador y navegante, Lunwerg Editores, Madril, 2002, 43. or. Eskola-ontzi hori 1927ko martxoaren 5ean uretaratu zen. Munduko hamar eskola-ontzi handien zerrendan dago. Ikus: <https://sectormaritimo.es/los-diez-mayores-buques-escuela-mas-grandes-del-mundo> [itzuli]
11. Txileko Itsas Armadako Esmeralda eskola-ontzia (Juan Sebastián Elcano ontziaren bikia) prestakuntza-ontzia zen; 113,1 luze (94,13 maspreza gabe) zen, eta Cadizeko Echevarrieta y Larrinaga ontziolan eraikia zegoen. 1946an hasi ziren eraikitzen, Juan Antonio Aldecoaren planoei jarraiki. 1947an ontziola suntsitu egin zen Espainiko Urpeko Defentsen Basea lehertu ondoren eta ontzia eraikitzeko lanak geldituta geratu ziren aldi baterako. Txilerekiko zorra kitatzeko, Espainiak ontzi bukatu gabea eman zion ordaintzat, eta 1951n ontzia eraikitzen jarraitu zuten. [itzuli]
12. 1930eko urrian itsasoratu zuten, eta eskifaia alemanarekin amaitu zuen Turkian. [itzuli]

13. 1924ko maiatzaren 7an bidalitako gutun batean, Echevarrietak honakoa esan zion bere Cádizeko ontziolako zuzendari Juan Antonio Aldecoa Ariasi: "Federico adiskideak Minerva bat egingo digu". Minerva zen eskola-ontziaren jatorrizko izena, baina Echevarrietak Madrilekoak konbentzitu zituen Juan Sebastián Elcano deitzeko. Amerikar zedrotan zizelkatutako Minervaren irudi horrek Espainiako armarrria zuen oinean. 2009an zaharberritu zuen Rafael Ruiz Liébana irudigileak Malagako Nereo ontziolarekin lankidetzan estuan. [\[itzuli\]](#)

## NEGURIKO ETXEAK

Bilboko irteera ibaiko estuariorantz, Abrarantz, XIX. mendearen bigarren erdialdean gertatu zen jadanik. Lehenik, merkataritzaren eta ontzien kargaren kontua zegoen: kaiak gainezka zeuden, eta ontziolak eta atarazanak Olabeagarantz lekualdatuz joan ziren. Eta, gero, Abrako portu handiaren ideia zegoen. Eta, azkenik, herritarrek etxe hobeak eta handiagoak nahi zituzten, eta Erriberan, Estufan eta Sendejan zehar mugituz joan ziren Deustuko elizaterantz, eta, denborarekin, Abrarantz.

Alde zaharreko etxea utzi, eta jauregitxoak eraikitzen hasi ziren, lehenik Campo Volantinen, gero Abandoko zabalgunean eta, azkenik, Areetan eta Getxon. Etxe berri haiek, beren estilo desberdinekin, estatus ekonomiko berriaren sinbolo ziren, alde batetik, eta, bestetik, hiribildua Erdi Aroko bere hormetatik harago gainditzeko irrika hedatzailearen frogaz ezin gezurtatuzkoa ziren. Alde Zaharrean zeukan kokalekua utzi zuen lehenengoetako erakundeetako bat udala izan zen. 1880erako udal agintariek lortu zuten estatuak behin betiko utz zitzala San Agustin komentu zaharreko lurrak. 1883ko martxoan, berriki izendatutako udal arkitektoak, Joaquín de Rucobak (1844–1919), eraikin berriaren proiektuari hasiera eman zion, eta eraikina 1892an inauguratu zen.

Hamarkada horretan, Cosme Echevarrietak bere egoitza aldatu zuen Bilboko Erriberako kaletik Deustuko elizateko Madariaga Hiribideko jauregitxo batera. Ez zen bakarra; han zeuden, besteak beste: 1700. urteaz gero Bilbon kokatutako Goossens eta Mazo flandestar merkatarien jauregia; “Kontsularen etxea” esaten zitzaion txaleta; Bidarte jauregia, Ramón Ybarra Arreguirena (Severino Achúcarrok 1897an eraikia); Zubiriatarren María Luisa villa, zeinek, mendean sarturik, Goi-Eder eraikiko baitzuten gaur egun Sarriko gisa ezagutzen dugun lursailean —Zientzia Ekonomikoen Fakultatearen egoitza dago bertan—.

Beste batzuk, berriz, gaur egun Zabalgunea esaten zaion lekura aldatu ziren, Abandora, alegia: Chávarri anaiek 1894an eraiki zuten beren jauregitxo plaza Eliptikoan; Ramón de la Sotak agindu zuen, lehenik, Villa María (gaur egungo Marinako Komandantzia) bere etxea eraikitzea eta, gero, Ibaigane jauregitxo (gaur egun Bilboko Athletic Cluben egoitza)<sup>1</sup>. Aurrerago, 1918an, Víctor Chávarri Getxora aldatu zen hasieran, Pinar izeneko etxera, eta gero bere Artaza villara; eta Ramón de la Sota, berriz, Lerteguiria, Areetan, eta han hil zen.

Britainiar eragina, baina baita ere Hanburgo eta Bremen hiri hanseatikoena, garbi ikusi zen handikiek hartutako erabakian: erdialdeko merkataritza gunea eta hiribilduko zarata uztea eta aldiri pribilegiatuetara joatea, han egoitza hobeak eraiki zitezkeelako, atzerrian ikusitako hôtels particuliers direlakoan tankerakoak. Hasieran, arestian aipatu dudan bezala, Campo Volantinen eta Zabalgunean hartu zuten bizilekua, baina gero itsasertza lehenetsiz joan ziren. Ibaieren amaieran kokatutako badia handia da Abra, Santurtziren eta Algortaren, Portugaleteren eta Areetaren arteko bokale handia, eta izena galizismo bat da, frantseseko havre hitzetik datorrena, “itsas portua”, eta hura, berriz, holanderatik dator, havene hitzetik, “portua” (eta handik dator ingelesezko haven hitza). Havre Sene ibaiko estuarioan kokatutako hiri bat da; Pariseko portuaren zeregina du, eta Honfleur hiritik, pintore inpresionistena, eta Deauvilleko hipodromotik gertu dago. Bilbok duen bokazio komertzialari zor zaizkio eragin horiek, batik batik, kanpoko merkataritzarako zaletasunari, hau da, beste herrialdeekiko kontakturako eta erlazioetarako joerari. Ingalaterra, moda xalo eta eroso baten aldekoa, eta Frantzia, Paris zuelarik joeren fokua, ziren eragin handieneko bi zentro nagusiak. Frantses kulturaren eragina aspaldikoa zen, frantses portuekiko harreman komertzialen ondorioz. Handik zetozen modan, prentsan, kafetegietan, pasealekuetan eta abarretan egindako aldaketak. Londrestik eta Liverpooletik zetozen, aldiz, klub pribatuen ideia, liburutegiekin eta billarekin, kirolak eta etxe partikularretara bisita egiteko erritual gisako

ohitura. Uda bainuetxetan eta hondartzetan igarotzeko zaletasuna, bainua eta uraren kultura osasun iturri gisa, Alemaniako iparraldetik zetozen, bai eta Sonderklassen belaontziak eta bela arautua ere. XIX. mendeko une horretako (goi mailako) burgesia berriak ez zuen izan soziabilitate eskusibista eta elitista sustatzeko joera, aitzitik, irakurketa, paseoak, dantza eta musika beste klaseen aisialdiaren parte ere izatea nahi izan zuen.

Abrako bi ibaiertzek garapen handia izango zuten, bai urbanoa eta bai erresidentziala. Hasieran Santurtziko labarretako eremua izan zen, baina 1895etik aurrera, Getxo izango zen garapen urbanoaren eremua, non bizilekua hartua baitzuten jadanik espekulazioan hainbeste interesik ez zuten burges batzuek, hala nola Soltura familiak edo Isasi familiak.

Aguirre anaiei Areetan bainuetxe bat zabaltzea bururatu zitzaion, 1868an, Establecimiento de Baños de Mar Bilbaínos zeritzana, Frantziako bainu hirien tankeran, udaldia kostan igarotzeko ohitura sustatzearren<sup>2</sup>. 1844erako Peñafloída konde ilustratuak abian jarria zuen Zaldibarreko bainuetxea. Aguirre y Compañía enpresa 1868an sortu zen ostata, olgetarako aretoak eta lorategiak izango zituen bainuetxe bat zabaltzeko, eta enpresa horretako akziodun izan ziren halaber Bilboko beste merkatarik batzuk, Bernabé Larrínaga, adibidez. Ibaiaren beste aldean, Portugaleten, Balneario El Salto bainuetxea zegoen (Hoffmeyer ingeniariak egina, 1875ean), eta Santurtzin, berriz, Casa de Baños bainuetxea inauguratu zen 1887an. XIX. mendean hamabi bainuetxe egon ziren martxan Bizkaian, eta haietako asko Madrilén argitaratzen ziren bidaiarientzako gida irudiztatuetan iragartzen ziren<sup>3</sup>.

Abrako bi aldean garapenaren giltzarria tranbia lineak ezartzea izan zen (lehenengo abere trakziokoak, orduan odolekoak deituak, hau da, zaldiek tiratuak): Bilbo-Areeta eta Bilbo-Algorta, 1876an (1897an elektrifikatutako lineak) eta Bilbo-Santurtzi, 1882an

(1896an elektrifikatua); eta, geroztik, Bilbo-Areeta burdinbidea, 1887an (Errege familiak 1887ko uztailearen 1ean inauguratua) eta Bilbo-Portugalete, 1888an. Badakigu 1898an Bilbo-Areeta tranbia elektrikoak 1.700.000 lagun garraiatu zituela<sup>4</sup>.

Desamortizazioaren ondoren, 1856tik 1868ra bitartean, Aguirretarrek hainbat lursail komunal erosi zituzten Getxoko elizateari; lursail horiek hedadura handikoak ziren, eta "landugabeko hareatza"tzat izendatuta zeuden, hala nola Lamiakoko ibarra eta hain zuzen ere Areeta izeneko eremua. Aguirrek Gobelas eta Udondo ibaiak bideratu zituen, hala nekazaritza eta abeltzaintzako etxalde bat jartzeko nola ingeles tankerako kirol gune bat ezartzeko, futbol zelaiak, polo zelaiak, hipodromoa eta tiro zelaiak edukiko zituen. Bultzada urbanizatzaileak "Bilboko hondartza" sortzeko ideia eraman zituen, bainuetxe gune edo udako egoitzako gune gisara ulertua. Alonso Oleak egokiro adierazi duen bezala: "Burdinbidez Areetara eroso eta azkar iritsi ahal izateak hiribilduko hondartza bihurtuko zuen hondartza hori, eta Bilbo, berriz, bainu portu. Burdinbideak Bilboko bisitariak erakarriko zituen, zeinek aukeran izango zuten hiribilduan geratzea eta bainuetara erregulariki burdinbidez joatea edo bainuetxe gunean bertan kokatzea. Era berean, beren negozioenatik hirian gelditzera behartuta zeuden bilbotarrak erregulariki joan ahal izango ziren bainuetara. Hortik sasoiko egoitza aldiria definizioa urrats txiki bat besterik ez zen falta"<sup>5</sup>.

Trianoko meategietatik zetozen burges berri eta enpresari batzuek Santurtziko kostaldean eraiki zituzten beren etxe berriak, arrantza portuaren eta Portugaleteko hiribilduaren mugen artean. Ia denak labarretan ertzean eraikita zeuden, Abrako bistaz, itsasoko brisaz eta ontzien joan-etorriaz gozatu ahal izateko. Murrietatarrak izan ziren lehenak, 1877. urteaz gero Santurtziko markesak zirenak, alegia; Mamarigako bidean eraiki zuten beren etxea, zeinaren lorategi mardul zuhaitz exotikoz betea ertzeraino iristen baitzen, arroken ondora, Lo Liso zeritzan lekura, arrantza portu zaharren ezkerrean. Leku hura itsasoko bainuetarako (badaude garai hartako argazkiak, etxola tipikoekin) eta jendea paseatzeko erabili zen, eta gerora La Llanarekiko pasealekua eratu zen han. José Sanginés eta Encarnación Balparda senar-

emazteek 1878an eraiki zuten beren etxea. Gero, José María de Lizanak, 1886. urteaz gero Casa Torreko markesa zenak, bere amaren familiaren jauregia izandakoa zaharberitu zuen, Hormazatarrena, alegia, Santurtziko udako egoitza gisa, San Jorge Elizatik gertu<sup>6</sup>. Mamariga auzoaren erdian, Francisco Mac Lennan meategi-jabe eta ingeniariak 1899an eraiki zuen bere egoitza, zeinak, bere kokaleku apartagatik, Abrako bistarik onenak baititu<sup>7</sup>.

Santurtzitik Portugaleterantz jaitsiz agertuko zen 1901ean Quintana Murrietarren egoitza, Villa Casilda deitua, 1901ekoa, eta Amézagatarrena, Olasotarrena, Oraátarrena, Palaciotarrena, Taramonatarrena, Vicuñatarrena, Zunzuneguitarrena, etabarrena, harik eta Campo Grandeko kostako bateria zaharrera, edo Santa Barbara gotorlekura, iritsi arte, zeinaren eraikuntza 1639–41koa baitzen eta zeina 1827–28an zaharberitu zuten. Hor eraiki zuen Diego Mazasek, 1882an, labarraren eta bateriaren kanpoko hormen gainean, bere Peñota jauregitxoa (gaur egun Cristóbal Murrieta hiribidea da leku hura). Bestalde, Lucas Urquijok 1906an jaso zuen bere etxea, gaur egun Palacio de Oriol hotela dagoen lekuan. Eta gotorlekuko zimenduen gainean, esparruak jatorrian eduki zuen oinaren oroimenez forma pentagonala duen harlanduzko plataformaren gainean, Amezti txaleta egon zen duela gutxi arte. Gero Villa Leode zetorren, Juan Pagazaurtunduarena<sup>8</sup>.

Atzean, zubi transbordadorerantz, El Saltillo (1879an eraikia), oraindik gordetzen dena, eta El Salto, desagertutako jauregiko dorrea zeuden (1890ean eraikia)<sup>9</sup>. Bestalde, horien azpian, kai berriaren ondoan, Juan Tomás Gandariasen etxe-jauregi handia jaso zen, Txurrukako Kaien, kai berriaren erremate bikaina zeharo eraldatu zuena<sup>10</sup>.

Mazastarren Peñota etxea, labarren eta Campo grandeko bateria zaharren gainean, Echevarrietatarrena bezalakoa zen, baina beste ertzean kokatuta zegoen, Begoñako gotorlekuko aztarnen eta Arriluzeko labarraren gainean. Mazastarrek hondartzarako sarbide zuzena zuten, hesian irekitako atea zeharkatu, eta arroka artean hondartzaraino eta hango Casa de Baños ospetsuraino jaisten zen bidea hartu ondoren, eta halaxe egiten zuten Rodastarrek ere, El Salto zeritzan Portugaleteko hondartzara jaitsiz, edo Echevarrietatarrek edo Solturatarrek, Ereagako hondartzara jaitsiz.

Hala ere, portu handiaren eta kaien eta kontrakaien proiektu berria egiteak aldaketak ekarriko zituen paisaia geografikoan eta trazaketa urbanoaren ezaugarrietan. Kontrakaia eraikitzeak itsas korronteak aldatu zituen eta itsasbazerreko paisaia ere aldatu zuen, 1900erako desagerrarazi egin baitzuen punta hartatik ibaiaren bokalerainoko hondartza zabala. Beraz, kai eta babes errepide moduko bat eraiki behar izan zen Algortako portutik Areetaraino, hala finkatu ahal izateko lurrak, Zugazarte urbanizazioa, atzealdean, eta aurrealdean, Punta Begoñatik Cristina Etxearaino (Alberto del Palacioren etxea) eta Evaristo Churrucaren monumentua<sup>11</sup>.

Portugalete eta Santurtzi artean kosta betetzeko lanak 1906–08an eta gerora arrantza portu berria eraikitzeak jarduera turistikoa eta bainuetakoa bertan behera uztea ekarri zuen, eta, baita ere, enpresari horietako askok beren etxe berriak uztea eta bizilekua Getxon hartzea. Martínez de las Rivasek goialdean eraiki zuen Santa Clara<sup>12</sup> jauregitxoa, udaletxetik hurbil; Antonio Plasencia arte bildumagileak eta finantzariak Portuko pasealekuko 20. zenbakian eraiki zuen Rosales etxea, ingeles estiloan, oinalde handi baten gisako plataforma baten gainean<sup>13</sup>; eta Víctor Chávarrik, berriz, Artaza jauregia, Avanzadako errepidean.

Olatu-hormako lanek eta Santurtziko kaiak ere korronteak eta olatuen norabidea mugiarazi zituzten, eta Areetako hondartza hondeatu eta murriztu egin zuten, eta mareako lerrotik gertueneko eraikinak mehatxatu. 1893 inguruan, Areetakoa ez zen bainatzeko hondartza erraza, eta Ereagakoa izango zen bisitatzeko eta gozatzeko hondartza, eta han kokatuko zen la Perlako Bainuetxea, denborale baten ondoren bota egin behar izan zutena eta 1912an lgeretxe deitu zitzaionak ordezkatu. Areetako eta Arriluzeko aurrealdearen artean babes horma bat eraiki zen, eta bainuetxea izan zena Marítimo del Abra bihurtu zen, belaontziak zuzenean porturatzeako klub bat, alegia.

Getxoko labarrera, zerumugara zuzen-zuzen begiratuz, atera zen lehenengoetariko bat Andrés Isasi Zulueta izan zen (1823–1918), Barambioko lehenengo markesa, Andrés Isasi<sup>14</sup> musikariaren aitona. Isasi errentadun aktibo bat zen, bere amak jaioterri zuen Arabako herri hartakoa eta non lursail eta mahasti asko baitzeuzkan. Haren arbasoak eta haren lehengusu Zulueta Kubako aberatsak ziren, dirutza, hein batean, beltzen salerosketan egin zutena. Isasik 1866an eraiki zuen Itsaso Alde zeritzan jauregitxo soil hura, itsas ondoan; badago Juan de Barroetaren koadro eder bat, 1886koa, hôtel particulier hori agertzen denekoa, bakartia oraindik, Abrari begira. Isasi itsas aurrean bizi zen, baina hiribilduko negozioekin jarraitu zuen; bera izango zen Bilboko Merkataritza Burtsaren (1889) sustatzaileetariko bat eta Bilboko Sociedad Nuevo Teatro enpresaren idazkaria. Bere jaioterrian ere aritu zen, Berguendan, non ardo eta pattar fabrika bat zabaldu baitzuen 1896an, eta ospetsu bihurtu zuen marqués de Barambio koñaka.

Solturak ere XIX. mendearen amaieran eraiki zuen Bel Respiro<sup>15</sup>, Punta Begoñatik hurbilago. Solturatarrak hiru anaia ziren: José María, intelektuala, Unamunoren maisua izango zen<sup>16</sup>; beste biak, berriz, Filomeno eta Agustín mediku ospetsuak izango ziren, haien aita izan zen bezala<sup>17</sup>. Bel Respiro ere hôtel particulier bat zen, xaloa baina ondo orientatua; haren atzean agertuko ziren geroztikako luxuzko etxe handi guztiak. Bel Respiro Ingalaterrako gorri kolorez pintatuta zegoen, hau da, burdinbideko lokomotorren gurpilek izaten zuten bermiloi industrial horrez. Pintura hark, korrosiotik babesteaz gainera, gehiegi berotzen ziren lekuak eta pitzadurak agerian uzteko funtzioa zuen, eta baita ere nekeagatik arrakalak ez hedatzekoa, zeren eta pitzaduretan metatzen ziren koipe iluneko hondakinak argi eta garbi nabarmentzen baitziren gorri distiratsuan. Familiaren oinordeko bakarrak, Regina Solturak, Longatarren eta Liverpooleko Larrinagatarren oinordekoa ere bazenak, esan zuen gorri hura bere aitak Liverpooleko Medikuntza Unibertsitateari zion miresmenetik zetorrela, fatxada adreilu gorrikoa baitzeukan. Etxeak behatoki poligonal nabarmenak zeuzkan, inguruko ikuspegi zabala zutenak, eta, bere garaian, hondartzarako sarbide pribatua izan zuen. Lorategi barruan lursaileko eraikin osagarri bat zegoen: Atxekolandeta etxea izan zena eta Buena Vista Ostata izan zenaren etxea, non hartu izan baitzuten ostatu, besteak beste, Anselmo Guineak eta Adolfo Guiardek.

Atxekolandeta toponimoak —“haitzeko landeta”, alegia— eman zion izena Arriluzeko erlaitz hari, eta XIX. mendearen amaiera arte leku erabat landatar eta jende gabe haren ezaugarrien berri ematen digu<sup>18</sup>. XX. mendea hasi zenean bilbotar burgesiak Getxo aukeratu zuen egoitzatzat (Solturatarrek eta Isasitarrek jadanik egin zuten bezala) eta etxe berriak eraikitzen hasi ziren Areetako kaian, Zugazarten eta Aiboa izeneko otadi-mendian, Neguri neologismoaz ezagutuko zena<sup>19</sup>.

Abra inguruko jauregitxo berriei dagokionez, ez zegoen elite bateko partaide izateko bilaketa edo asmorik, Madrilgo aberats berriek izan zuten bezala, nobleziarekin edo madrildar gortearrekin kide izateko irrikaz, edo onarpenaren atea zeharkatzekoaz, orain dirutza handiaren jabe zen etorri berriari debekatuak zitzaizkion zirkulu jakin batzuetan. XIX. mendeko Madrilgo gizartearen jauregia irudikapen sozialaren elementu paradigmaticoa zen arrazoi hauengatik:

1. jauregia da, berez, hartutako maila ekonomikoaren zeinua;
2. sustatzailearen eta jabearen igoera sozialaren froga da;
3. bere hormen eta bere fatxadaren sendotasunaren bitartez eraikinak iritsitako maila sinbolizatzen du: goratze ekonomiko eta sozialaren prozesuaren goren maila da<sup>20</sup>.

Abraren inguruan eraikitako jauregitxoek ez zuten ezer frogatu nahi gortearren erdian, aire garbia bilatzen zuten, aitzitik, Bilboko hiriguneko kaleetako estutasuna beharrean. Erosotasun berezi bat sendotzen zuten horrela, hiribildutik eta hango zirkulu ekonomikoetatik ez urrun, eta Europako Erdialdeko burgesia kalbinistagoaren hôtel particulier

kontzeptuari erantzuten zioten, familiaren erosotasuna en plain air bilatzen zuen horrena, itsasoari begira; kasu honetan, Zazpikaleetako murrue barruan etxe itzaltsuek zekarten itomenetik urruti.

Arriluzeko tontor gainean eraikiz zihoazen etxeena da irudirik garbiena, Echevarrietaren Etxebarri izenekotik Lezama-Leguizamóntarreneraino, hura izan baitzen 1902an eraiki zen lehena<sup>21</sup>. Hainbat gorputz artikulatuko eraikin konplexu bat zen: etxebizitza, dorrea, liburutegia; baina bisualki dorrearen mendean zeuden denak, zeina baitzen bloke sendo bat, Bizkai osoan dauden Erdi Aroko dorretxeetakoa bezalakoa. Lezama Leguizamón jauregiaren bistak Abrako badia orientatuta zeuden, han itsasoratzen baita Bilboko ibaia, amaitzen ari zenari begiratzen zion, alegia; Echevarrietarenak, aldiz, portura eta itsasora begiratzen zuen, oraindik iritsi eta konkistatu gabe zegoen horrantz.

Lezamatarren jauregiaren azpian, Areetako errepidean, Aranatarrek Cisco etxea eraiki zuten (Zugazarteko 61. zenbakian). Iparraldekoen motako jauregitxo bat zen<sup>22</sup>, bere ontziaren izen bera zuena. Errepide zuzen hura familiako jauregitxo betez joango zen, harik eta haietako lehenengoraino heldu arte, Antonio de Palacio pasealeku haren hasieran 1894an eraikitako Cristina etxeoraino, hain zuzen<sup>23</sup>, zeina baitzen, gainera, Transbordadore zubiaren (1887–93) eta Fernando Zabálbururen 1889ko Kai Gane etxearen sortzailea<sup>24</sup>.

Arriluzeko tontorrean etxe multzo bat kontzentratu zen XX. mendearen hasieran, 1903an kontrakaia eta itsasargia eraiki eta handik gutxira; itsasargia zuriz margotua zegoen eta harlanduzkoa zen, eta sendo, merke eta soil eraikitakoa zen<sup>25</sup>. 1906an “kontrakaiko txalupentzako nasa”ren proiektuari ekin zitzaion<sup>26</sup>, Algortako “Portu Zaharra” esango zitzaiona zaharkituta utzirik. Nasa horretan zegoen “Naufragoen Etxea” esaten zitzaiona, 1912an eraikia (gaur Itsasoko Gurutze Gorriaren egoitza dena), uraren gainean aldez eraikia: laguntzarako eraikin sozial ederra, itsasargi baten sinbolismoa ere bazeukana<sup>27</sup>.

Denbora gutxin etxe ederrez beteko zen tontorra: Lezamatarrena, Ampuero tarrena, Guzmántarrena, Aitzgoyen (Ybarratarrena), Arriluce (1910, beste Ybarra batentzat eraikia), hondartzara ematen duen izkinaraino, non garai batean babeserako gotorleku baten aztarnak baitzeuden, Begoñako gotorlekua, labar gainean kokatua eta 1888. urtea arte existitu zena, orduan desegin baitzuten kanpoko kontrakaia han egiteko. Han eraiki zuten Echevarrietak arestian aipatutako Etxebarri 1910ean<sup>28</sup>. Kokaleku pribilegiatu horretatik inguruan gertatzen den guztia ikus eta kontrola dezake edonork, baina ikusia eta kontrolatua ere izan daiteke. Leku enblematikoa eta, aldi berean, estrategikoa da, oharkabean geratzen ez dena, ez fisikoki eta ez ordezkariaren ikuspegitik. Echevarrietak, euste horma soil bat eraiki ordez, zeuden egiturez baliatzea erabaki zuen zerbait sinboliko eta aldi berean anbiziotsua eraikitzeko han: Nizako frantses rivieraren estiloko promenade bat. Kostako geografiara egokitutako galeria bikoitz bat zen, zutabeduna eta terraza balaustradun batek estalia. Punta Begoñako Galeriak euste horma bat ziren, olgetarako leku eta behatoki gisa aprobeztatuko zirenak. Ricardo Bastidak diseinatu eta eraiki zuen 1918an. Hura luxu handiko etxea izanagatik, Horacio Echevarrieta ez zen han hil, arrebarengandik Barakaldon heredatu zuen etxean baizik, Munoa jabetzan. Juan Echevarría La Llanak, Bilboko alkatea bi aldiz izan zenak, 1860ean eraiki zuen villa hura. Ibaizabal ibaiarekin bat egin aurretik Kadagua ibaiak eratzen duen bista erakusten duen gain batean kokatuta zegoen, lorategidun espazio handi batean, Gurutzeta, Burceña, Llano eta Lutxana auzoak elkartzen ziren lekuan; 60.000tik gora metro koadro zituen eta 600etik gora zuhaitz, jauregiko fatxada aurrean. Echevarria Horacioren arreba bakarrarekin ezkondu zen, Amalia Echevarrieta Marurirekin (Bilbo, 1868– Barakaldo, 1955); hura hil zenean Horacioren eskuetan geratu zen villa. Haiena izan zen, baita ere, Malagako La Concepción jabetza, non Francisco Iturrinok bere paisaiarik fauveenak pintatu baitzituen<sup>29</sup>.

Etxe horiek guztiak arestian aipatu ditugun lehenengo steam yacht horien garai berekoak dira: 1887an ibaian zehar nabigatzen zuten: Laurac Bat (Iau Chávarri anaien aipamena eginez), Víctor Chávarriena, 30 metro luze zena; Lily, José María Martínez de las Rivasena, steam yacht zena, alegia, bi mastako goleta bat bezala tresnatutako lurruntzia,

hau da, zutoineko bi mastarekin eta masprezarekin; haren anaia Franciscoren schooner goleta, Carita zeritzana, alegia, bi mastadun goleta, labanako belekin tresnatua). 1910ean 70 metroko luzerako steam yacht bat erosi zuen, eta Cosme y Jacinta jarri zion izena, bere gurasoen omenez; handik gutxira, Ramón de la Sota Goizeko Izarra erosi zuen, 87 metroko luzera zuena. Yateen eta jauregien, yatchen eta hotelen arteko elkarrekotasun horren sinbolismorik onena baliteke izatea Félix Chávarrik, Chávarri anaien artean nabegazioan gutxien aritu zenak, Anduiza arkitektoari 1901ean enkargatu zion etxea: Casa Barco, Campos Elíseos kalean (gaur Arkotxa), Algortan<sup>30</sup>. Casa Barco, Aiboako goialdean kokatua, ontzi baten aginte-zubia gogora dakarren etxebizitza da (etxe-terraza deitu zioten proiektuan), idi-begi tankerako leihoak eta Portugaletera, haren jaioterrira, zuzenean begiratzen zuen aginte-zubi bat barne.

Hemen komeni da berriz gogoratzea nola Zazpikaleetako Bilbo txiki hori, Erriberako kai estuak zituena, Abrarantzat zabaldu zen. Zentzu guztietan zabaldu zen Bilbo: kaiak eta salgaiak, industria eta nabigazioa, yateak eta etxeak. Baliteke lirikoena eta zehatzena Venezuelako erbestean zegoen errepublikano batek idatzi zuena izatea, Luis Aranguren, Cosme Echevarrietaren ahaldun leialetako batek, gerora haren seme Horacioren ahaldun ere izango zenak, eta Gonzalo Dúok testuinguru honetan ipinia: “Ahalegin txiki bat egin behar da Zazpikaleak imajinatzeko Abandoko Zabalgunearen erreferentzia erabatekoa gabe. Ibaizabal zen muga naturala, eta bi adar zituen, Bilbo Zahar likitsa, San Anton zubiak elkartua, eta Geltokiko auzo berria, Konkordiatik eta Plaza Zirkularretik igotzen zena, Hurtado de Amézaga kaleko burdinbidearen aldetik Menako jauregirantz igotzen zena (Zabalburu)<sup>31</sup>, eta zabaldi berritik Plaza Eliptikorantz eta Chávarriren jauregirantz, mendebaldean, Perla iparraldean. [...] Kiebra komertziala suizidioarekin amaitzen zen, eta hala izan zen José Luis Abaroa bankariaren kasua, Parisen [...] Liejan, jesuitekin, edo Hochschulen, laikoak, edo Manheimen diplomatutako ingeniari gazteak [...] Erromatik eta Paristik itzultzen ziren artistak...”<sup>32</sup>.

Areatzako zubia Abandorantz zeharkatzea odisea bat baldin bazen XIX. mendeko laurogeiko urteetako ume haientzat, pentsa dezagun zer esan nahiko zuen Abrara igarotzeak, lurrunontziak ibaian zebiltzala, bainuetxeetako terrazak agerian, eta itsas aurreko hondartza garbien gozamina. Hori da Adolfo Guiarden koadroek beren baitan daukaten, gordetzen eta adierazten duten oroitzapena.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Gregorio de Ibarreche arkitektoa (1864–1933, 1892an tituluduna) Sabino Aranaren ikaskidea izan zen Urduñako jesuiten ikastetxean, eta, denborarekin, Bilboko lehenengo alkate nazionalista izango zen; proiektua 1897koa da. [itzuli]
2. Aguirretarren kapitala bitartekaritzako merkataritzari eta irin industriari lotuta dago (ogigintza, alea, egurtegia eta El Pontóneko errota); laboreak Gaztelatik ere ekartzen zituzten, eta haien langintzaren helmuga, hiribilduko kontsumoaz gainera, Kubarako edo Ingalaterrarako esportazioa zen. Aguirretarrak beste jardura batzuetan dibertsifikatuz joan ziren beren etekinak, hala nola etxe salerosketa, aisia eta garraioa, eta Areetako bainuetxearekin eta burdinbidearen eraikuntzarekin osatu zituzten; baina sekula ez esklusibotasunarekin, haietan denetan aldi berean jardunez baizik. Máximo Aguirre izango zen Bilboko hiribilduaren “garapen zibilizatuaren” eta europeistaren adimena: aisia eta negozioa, eta ondasun komuna. Establecimiento de Baños de Mar Bilbaínos 1868an ireki zen eta Amadeo erregearen bisita bat izan zuen 1872ko abuztuaren 11n; hor kokatuko zen Areetako kasinoa, gero, 1880an, Galería Balnearia de Las Arenas, eta, 1883an, Gran Hotel Bilbaíno izango zen, Areetan, harik eta 1891n enkantean atera zuten arte. Balneario El Salto, Portugaleten, Hoffmeyer ingeniariak 1875ean egina, 1913an itxi eta botako zuten. [itzuli]



3. 1844ko urtean, José María de Munibek (Francisco Xabier de Munibe, Peñafloredako kondearen eta 1763an Errege Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sortzailea izan zenaren biloba) abian jarri zuen lehen bainuetxe eraikina, eta zabaldu egingo zuten, 1851n haren ondorengoak, Víctor de Munibek, eta, 1880an, Manuel María de Cortázarrek, sortzailearen iloba eta oinordekoak. Bainuen denboraldia ekainaren 1etik irailaren 30a bitartekoa zen. 1882. urtean 1.414 lagunek erabili zituzten instalazio haiek. Ikus Balendin Lasuen Solozabal, Zaldibarko bainuetxeak—Balnearios de Zaldibar, Zaldibarko elizateko udaletxea; hemen aipatua: Itxaso Martelo García de Garayo, Sonia Polo Escobes, Enrique G. Arza, “Pinturas de Juan de Aranoa para la capilla neorrománica del Hospital Zaldibar”, *Norte de salud mental*, 2013, XI. liburukia, 45. zk., 87–104. or. Bidaiariaren gidei dagokionez, ikus: *Itinerarios de Madrid a Bilbao, de Miranda a Logroño, de Bilbao a Durango y viceversa*, Librería de Don Guío, Madril, 1883, 56 orrialde. Azalean gidaren edukia agertzen da: “Bidaiarientzako ezinbesteko ezagutzak eta albisteak. Madril eta Bilbo, Miranda eta Logroño, eta Bilbo eta Durango arteko ibilbide deskriptiboak. Linea horietako geltokietatik joateko moduko bainuetxeak eta itsas bainuak. Herrien zerrenda alfabetikoa. Bidaiariak joan ohi diren establezimenduei buruzko albisteak. Iragarkiak”. Korte Zubiko bainuetxea 1848an zabaldu zen Terlegizko iturburu bateko ur kloratu sufretsua ustiatzeko, eta Txatxarramendikoa, Sukarrietan, 1894an, eta hotela 1896tik 1947ra egon zen irekita. [\[itzuli\]](#)
4. Ezequiel Aguirrek 1883ko maiatzaren 14an lortu zuen Areetarako burdinbidearen kontzesioa. Aguirre-Coste familiak ziren akziodun nagusiak. 1895–1905etik aurrera, Getxoko alde hura eraldatuz joan zen: bainuetxe estazio bat zena bizitegi-aldiria bihurtu zen, zeinaren biztanleria gero eta egonkortuagoa zegoen, eta bainuetxearen eraikina leku hartako itsas kluba bilakatu zen. Areetatik Plentziarako burdinbidea, Bilbo-Areetakoaren jarraipen gisa, 1893an zabaldu zitzaion ustiapenari; metroa, Norman Fosterena, berriz, 1995ean. [\[itzuli\]](#)
5. José M<sup>a</sup> Beascochea, “Bilbao. Población de Baños”, Bidebarrieta aldizkaria, 14. zk., 2003. [\[itzuli\]](#)
6. José María de Lizana y Hormazak—Casa Torreko VI. markesa 1886. urteaz gero, Durangon 1843an jaioa eta Anberesen 1911n hila—, zaharberritu zuen Hormaza etxea, XVIII. mendeko eraikina. Lizana Lola Chávarriekin ezkondu zegoen, Víctor Chávarriren arreba zaharrenarekin, alegia. Casa Torreko markesak bizitza politiko zabal bat izan zuen (Bilboko alkatea izan zen 1890ean eta diputatua Durangotik), alkate ona izan zen eta sutsu defendatu zituen Bilboren interesak Madril. [\[itzuli\]](#)
7. Enrique Epalza Chanfreau arkitektoak en 1899an proiektatutako etxea. [\[itzuli\]](#)
8. Juan Pagazaurtundua indiano bat zen, eta Santos Zunzunegui arkitektoari enkargatu zion bere etxearen proiektua. [\[itzuli\]](#)
9. El Salto Francisco Martínez Rodasek eta haren emazteak, Eloísa Arana, eraiki zuten 1889–94an, lurrak Mazarredo familiari erosi ondoren. Haien alaba bakarra Enrique Areilza medikuarekin ezkondu zen. Eloísaen arreba batek, Prisca Arana zeritzana, Juan Vallejorekin ezkondu, El Saltillo jauregitxo enkargatu zion 1894an Francisco Berriozábal; Leonardo Rucabadok 1901–07an zaharberritu zuen, eta, 1950ean, Pedro J. Galíndezek Adingabeak Tutelatzeko Auzitegiari eman zion. [\[itzuli\]](#)
10. Han hil zen Juan Tomás Gandarias Durañoa, 1940an, eta era berean hilko zen, beste ibaiertzean, Ramón de la Sota, Lerteguín, 1937an. Biek uko egin zieten noblezia-tituluari. 1909an Itsas Laguntzarako Biltegia eta Marinako Komandantziaren egoitza (gero Portuko Kapitaintza) zen etxearen ondoan eraikitako etxe tzarra, 1917an eraikia, hirurogeiko urteetan bota zuten etxebizitza-blokeak eraikitzeko; hondartza izan zenera jaisteko eskailera ederrak baizik ez dira geratzen. [\[itzuli\]](#)
11. Monumentu hori, 1939ko urriaren 25ean ofizialki inauguratua, Ignacio María Smith arkitektoak diseinatutako dorre-itsasargi batek eta Miguel García de Salazarek brontzez egindako eskultura multzo batek osatzen dute. Eskulturak elementu hauek zituen: Evaristo de Churruca omenduaren brontzezko estatua eseri bat; alboetan kokatutako bi estatua, batak “Industria” eta besteak, berriz, “Nabigazioa” irudikatzen zutenak; eta, aurrealdean, Bilbo irudikatzen zuten bi figura Neptunorekin borrokan, eta haien artean uharri puska handi bat. Bizkaiko eta Gipuzkoako armariak zituen harri berean zizelkatuak eta Bilbokoa, berriz, behe-erliebean brontzez egina. Bilboren garaipena irudikatzen zuen obrak, garaitu baitzuen bai itsaso zakarra Abran, bai Portugaleteren mailan sarbidea oztopatzen zuen hondar-barra eta bai ibaiko korrontea; arazo horiek guztiei Churruca ingeniariaren talentuak eman zion irtenbidea. [\[itzuli\]](#)
12. José María Basterrak 1902 proiektatu zuen eta, gero, Manuel María Smithek eraberritu zuen. [\[itzuli\]](#)

13. Antonio Plasencia Bohigas (1845–1936), burtsa artekaria, Bilboko Burtsaren sustatzaileetako bat, Garamenditar batekin ezkondua, Edesio Garamendi udal arkitektoaren arrebarekin, hain zuzen. Arte bildumagile handia izan zen orobat, Bilboko Arte Ederren Museoari 1908an sortu zenetik oso atxikia, eta museo horri eman zion bere bildumaren zatirik garrantzitsuenak. Rosales etxea Rafael de Garamendi arkitektoak, Plasenciaren ilobak, proiektatu zuen 1917–20an. Rosales zen, Artazarekin eta Santa Clarekin batera, une hartako villarik handienetariko bat; ikus Maite Paliza Monduate, *El arquitecto Rafael de Garamendi y la residencia "Rosales"*. Seguros Bilbao, Bilbo, 1989. [itzuli]
14. Andrés Isasi (1891–1940), piano-jotzailea eta konpositorea; aitarengandik heredatu zituen titulua eta etxea, nahiz uko egin zion beti tratamendu horri. 1904an batxilergoa amaitu ondoren, Berlinera joan, eta han arrakasta handia izan zuen. 1914an, Alemaniara itzuli zenean, Isasi Algortan kokatu zen, Itsaso Alde etxean, eta han bizi izan zen hil arte. [itzuli]
15. Hala, Bel Respiro deitu zion baita ere Coco Chanelek 1920an Garchesen, Parisko aldirietan, zeukan etxeari; zuhaitz oneko eta lorategi zabaleko lekua zen hura, eta Chanelek bere kolore maiteenekin pintarazi zuen, paretak beixez eta kontraleihoak beltzez: erabateko nabarmenkeria bertakoentzat. Paul Iribe euskalduna, garai hartan adiskide zuena, izan zuen jostunak aholkulari: “Gure etxeak gure espetxeak dira: jakin dezagun gure etxeak apaintzeko eran geure askatasuna berreskuratzen”. [itzuli]
16. Jose María Soltura Urrutia (Bilbo, 1861–Madril, 1927) eragin handiko intelektuala izan zen Bilboko eta Madrileko tertulietan, eta maiz joaten zen Bilboko “El sitio” elkartera eta Madrilgo “El Gato Negro” izenekora. Miguel de Unamunoren mentorea izan zen, eta Paz en la Guerra (1897) liburuaren edizioa ordaindu zion. Sociedad Bilbainako liburuzaina izan zen 1893–96 hirurtekoan, eta hark ekarri zuen Nietzscheren eta Kafkaren obra Espainiara. Ramón Carandek haren erretratua utzi zuen *Galería de raros y olvidados* (Madril, 1982) liburuan. Arte eta Lanbideen eskolaren, Bilboko Ospitale Zibilaren eta Donostiako San Telmo Museoaren funtsezko patronoa izan zen. Gutunak eta postalek —Regina Solturaren etxean— ematen dute Solturak zekizkien hizkuntzen berri: gaztelania, euskara, frantsesa, ingelesa eta alemana. Unamunok, bere “Elogio de la haragenería” saiakeran, elkarrizketa hau nabarmentzen du José María Solturaz ari dela: “Badut lagun bat aski kulturaduna, gustu dotoreak dituena, leuna eta gozoa, bizitza bidaian, irakurketan, musika-entzunean, museotan, eta abarretan ematen duena; eta norbaitek, ustezko emankortasun gabezia ez hori aurpegiaratu, ahakar egiten dionean esanaz:
- i. —Eta zuk, zer ekoizten duzu?
  - ii. —Erantzuten dio, asaldakaiz:
  - iii. —Nik? Nik ez dut ekoizten, kontsumitzen baizik.
  - iv. —Eta idazten ote duen galdetzen dionean, erantzuten dio:
  - v. —Ez, nik ez dut idazten, ongi idazten dutenak miresten ditut; nire ofizioa mireslearena da edo, nahiago izanez gero, irakurlearena.
- Eta gizon horrek jardunean jarri ditu besteak, eta bati baino gehiagori eman dizkio aholkuak. Haren elkarrizketak liluragarriak eta kitzikagarriak dira. Nik neuk, behintzat, asko zor diot”. [itzuli]
17. Filomeno Soltura Urrutia (Bilbo, 1855–1925), mediku; 1876ko abenduaren 6an aurkeztu zuen bere doktore tesia Madrileko Unibertsitate Zentralean. Bilboko Udaleko zinegotzia izan zen. 1894an Sabino Arana salatu zuen San Inazio egunean festa bat emateagatik Posta etxeko 1. zenbakiko lehen solairuan, Soltura laugarren solairuan bizi zelarik, eta Aranari gobernadoreak bostehun pezetako isuna jarri zion “abesteagatik, danbolina jotzeagatik eta zoruari ostikoka aritzeagatik”. Iñaki Anasagastik deskribapen labur bat eskaini zion 2014ko abuztaren 29an: <https://www.diariocritico.com/noticia/461362/opinion/vuelve-filomeno-soltura.html>): “Eta orduan argitaratu zuen Sabino Aranak, Bizkaitarra aldizkariko 14. zenbakian, lehenengoz gartzelara eramanean eta egunkaria ixtea eragin zuen Naskaldija hura. Idazkian, Aranak ‘maketozale fina’ izatea egotzi zion, eta gogora ekarri zuen ‘zuhaitzekiko erakutsi zuen gorrotoa, zinegotzi zela Hiribilduko zuhaitzik mardulenak mozteko aldikadak eman zionean’. Soltura delako hark salatu egin zuen, adosteko egintza bat egin zuten, eta, hartan, Sabinok esan zion ez zeukala zuzentzeko ezer; iraindua sentitzen bazen auzitara eramatea zeukala, baina kontua konpondu nahi bazuen berak kendu beharko zuela salaketa. Ez zen hala gertatu, eta Sabino espetxeratu egin zuten 1895ko abuztuaren 28an, hilabete eta hamaika eguneko kondena betetzeko. Isuna ere jarri zioten: 125 pezeta eta epaiketaren kostuak ordaintzea”. [itzuli]

18. Getxoko udala saiatu zen leku hura Algortako 1891ko Eraikuntza Proiektu Orokorrean sartzen, Laureano Gómez de Santa María ingeniaria zelarik, baina ez zen gauzatzera iritsi. [itzuli]
19. Neguri hitza neguko uria esapidetik datorren neologismoa da, eta Resurrección María de Azkuek proposatu zuen Sociedad de Terrenos de Neguri elkartearen enkarguz, zeinak Aiboako otadietako lursail asko erosi baitzituen, Desamortizazioak salgai jarritako lur komunalak zirenak, hain zuzen. Neologismoak balio izan du Gerra Zibilearen ondoren euskal oligarkia izendatzeko: “[...] Neguri aipatzea euskal oligarkia nagusia aipatzearen parekoa zen. Neguri esatean saihetsi egiten da erreferentzia geografikoa, tokikoa; hura aipatzea gizarte-sektore baten gustuak, sentimenduak eta ohiturak adieraztearen parekoa da. Salbuespenak salbuespen”, Gregorio Moránen arabera, *Los españoles que dejaron de serlo*, Editorial Planeta, Bartzelona, 1982. [itzuli]
20. Hala diote “La reproducción patrimonial de la elite burguesa madrileña en la Restauración” izenburuko saiakera bikain batean Ángel Bahamonde Magrok eta Luis Enrique Otero Carvajalek: “El caso de Francisco de las Rivas y Ubieta, marqués de Mudela 1834–1882”, *La sociedad madrileña durante la Restauración, 1876–1931*, Madril, 1989. Madrilen bere jauregiaren eraikuntza goiztiarraz ari direla esaten dute hori; jauregia Carrera de San Jerónimo kaleko 44. zenbakian zegoen, eta 1846–50 urteetan eraiki zen, eta han Francisco de las Rivasek lau milioi eta erditik gorako inbertsio bat egin zuen. Moja Bernardotarren komentua izandako orube batean enkargatu zion 1846an Rivasek bere egoitza berria José Alejandro y Álvarez arkitektoari. Eraikin klasiko bat zen, beheko oina eta hiru solairu simetriko zituena; José María Guallartek eraiki zuen, zeinak kariatide biluzi batzuk ipini baitzizkion, eta, horregatik, “Lizunkeriaren etxea” deituko zitzaion; Francisco de las Rivasen oinordekoen egoitza izan zen 1951 arte, eta 1998an Diputatuen Kongresuko egoitza berria bilakatu zen. Gauza bera gertatuko zen handik urte batzuetara Zabálburuko jauregiarekin (Marqués de Duero eta Salustiano Olózaga kaleen artean), José Segundo de Lema arkitektoak 1872an proiektatu zuen eta Luis de Landeok eraldatu 1900an eta 1917an; eta gauza bera, orobat, 1917an Horacio Echevarrietarekin (Claudio Coello kaleko 117. zenbakian, Madril), eta haietako ezin ez izan “ordezkaritza sozialaren” ikur, Murgako jauregia (orain Linares jauregia) edo Villa Bilbao, Julio Sarazibarena, izan ziren bezala, erosotasun pertsonalaren isla baizik. Gerra Zibilean Zabálburu jauregia Intelektual Antifaxisten Itunaren egoitza izan zen, eta handik igaro ziren, besteak beste, Capa, Hemingway, Huidobro, Dos Passos, Langston Hughes, Vallejo, etab. Han beilatu zuen Capak Gerda Taroren hilotza, tanke batek El Escorialetik gertu azpian harrapatu ondoren. Giltzariaren apartamentuan bizi izan ziren Rafael Alberti, erakundeko idazkaria, eta María Teresa León, zeinak bere Memoria de la Melancolía lanean hau idatzi baitzuen: “Konfiskatutako etxea itsusia zen. Kexuka, karraska, negarrez, dar-dar entzun genuen, baina pixkanaka maitatzen hasi ginen. Inork ez zuen ezer tokiz aldatu. Jatekoa edo edatekoa ez zen oro errespetatu genuen. Egongela handi eta ilun haiek, gure barreak gorabehera beren belztasuna gordetzen zuten altzariz beteak, agertoki izan genituen hiru urtez. Gure gaztetasunaren alaitasuna ez zuen ezerk lainotzen, ezta bonbardaketetan satora babes hartzera jaitsi beharrak ere”. [itzuli]
21. José María Basterra arkitektoak 1902an amaitu zuen eta Manuel María Smithek 1919an eraberritu. [itzuli]
22. Manuel María Smithek 1909–11n egindako proiektua izan zen. [itzuli]
23. Etxe honetan, Cristina Etxean, hil zen Alberto de Palacio, zeinak Madriletik ihes egin baitzuen Gerra Zibilean, non suntsitu egin baitzioten Villaverdeko bere estudioa. Gauzak zer diren, hil zenean, haren gorpuak txalupan zeharkatu behar izan zuen ibaia beste alderantz, Portugaleteko hilerrirantz, zubia suntsitu egin baitzuten. [itzuli]
24. Severino Achúcarrok 1887–89an egindako proiektua izan zen. [itzuli]
25. Obra Bilboko Ibaiko Kanpoko Portuaren proiektuaren barruan zegoen, zeina bi zatitan banatua egon zen, Horma-olatua eta Kontrakaia, biak Evaristo de Churrucak idatziak, zeina Bilboko Portuko Obren Batzordeko zuzendari baitzen 1877. Urteaz gero. Titan garbia 1896an hasi zen lanean, eta 1903an amaitu zuen kontrakaiaren eraikuntza, 1.148 metro luze zena. Kontrakaiak amaieran zeukan itsasargia, eta eskuineko ertzean hura zen portuko sarreraren eta Bilboko ibaiaren buru, enbor konikoko harlanduzko dorre txuriz margotu baten gainean. [itzuli]
26. Barneko angeluan hasia, Arriluzeko itsasargiarekiko paralelo, babes kai bat zen, 200 metro luze eta 50 metro zabal barrualdean. Harrezkero, Algortako portu tradizionalari, dikeen babesetik kanpo geratzen zenari, “Portu zaharra” esaten zaio. [itzuli]
27. La Avanzadako itsasargia Naufragoen Etxearen parte da; diseinua 1912koa du eta 1920an amaitu zen, Ignacio María Smithen proiektuaren arabera. Kontrakaiaren abiaburutik gertu dago (gaur Itsasoko Gurutze Gorriaren egoitza). Eraikin bitxi hori euskal baserriaren eta dorre-itsasargiaren nahasketa polita bat da. Naufragoak

- Salbatzeko Batzordea 1881etik existitzen zen; data harrezkero 40tik gora ontzi hondoratu dira Abran. 1906an Ramón de la Sotak ontziak salbatzeko enpresa bat sortu zuen: Remolcadores Ibaizabal. [itzuli]
28. Gregorio de Ibarreche arkitektoak diseinatu zuen, ikus gaztelerazko liburukiko eranskina edo addenda: “Arquitectos”. Ibarrehek egin zituen Ramón de la Sotarentzat hala Ibaigane jauregia Zabalgunean (gaur Athleticen egoitza), nola Lertegi jauregiko —Areetako landetxea— lanen zuzendaritza (Chatterton eta Couch ingeles arkitektoen proiektuan, gaur SENER ingeniarietza). [itzuli]
29. Munoa jauregia Amalia Echevarrietaren senar Rafael Echevarría Azcáratek (1873–1926) erosi zion bere osaba Alfredo Echevarría Arriagari, Villagodioko markes alargunari, 1916ko urriaren 28an, eta senar-emazteen ohiko egoitza izan zen Malagako La Concepción-ekin batera; Amaliak 1911n erosi zuen jabetza hura, eta han zeuden Paco Durrioren eta Valentín Dueñasen obra batzuk eta 1915ean barnetegiko bidalketa gisa egin zituen emakumezko bi estatuetatik bat, La ninfa izenez ezagutzen zena. Munoa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren egoitza izan zen Espainiako Gerra Zibila bitartean, eta, geroztik, Horacio Echevarrietaren etxea, harik eta 1963an hil zen arte. Hauek izan ziren haren seme-alabak: Juan Antonio (1901), Horacio (1903), Cosme (1905), José M<sup>a</sup> (1907), Rafael (1909), María del Carmen Ana (1911) eta Amalia Echevarrieta Madaleno (1916). Amalia Echevarrieta Madaleno, Munoa azken oinordekoa, hil ondoren, Barakaldoko Udala egin zen etxearen jabe. [itzuli]
30. Atanasio de Anduiza y Uríbarri, Portugaleteko udalaren (1883) eta Chávarriren jauregiaren (1894) egilea, Bilboko Plaza Eliptikoan. Félix Chávarri 1907an hil ondoren, Benigno Chávarri bizi izan zen han, eta Casa Barco delakoan hil zen 1933ko urriaren 27an, 77 urte zituela. Benigno hil ondoren, Medinacelliko duke-dukesaren udako egoitza izan zen. 1974an bota zuten. [itzuli]
31. Vida aristocrática aldizkariaren urte hartako lehe alean, 1921eko urtarrilaren 15ekoan, Villa Menari buruzko erreportaje bat agertu zen; eraikin hura Heredia Spínola konde-kondesaren egoitza zen Bilbon. Zabálburu familiak hainbat unetan izango zuen Vega Floridako kondetza, Felipe V.a erregeak 1706ko otsailaren 9an Nicolás de la Rossa, Errege Itsas Armadako ontzi kapitainaren alde sortutako titulua, alegia (1916an Jaime de Martos Zabálbururentzat birgaitua), bai eta Heredia-Spínola kondetza ere, Fernando VII.ak 1827ko maiatzaren 12an emandako espainiar noblezia-titulua (Alonso Martos y Arizcún, Iturbietako VII. markesa Carmen Zabálburu Mazarredorekin ezkondu zenean). [itzuli]
32. Luis Aranguren (Avila 1870–Mexiko, 1959), Cosme Echevarrietaren ahalduna, kudeatzaile eta enpresagizon errepublikanoak, liburu hau argitaratu zuen: Memorias de un exilado (Editorial Vasca, México, 1955; Bilboko Udalaren berrargitalpena, 2010). Aranguren Bilboko Udaleko Lehen Alkateordea izan zen 1914an eta probintziako diputatu handik bi urtera. Aipamena Gonzalo Dúorena da: “Las memorias del racionalista Luis Aranguren, entre las trascendentes de Unamuno y las divertidas de Orueta”, *Bidebarrieta*, 19. zk., Bilbo, 2008; baita ere hemen: Gonzalo Dúo, *José Javier de Uribarren y Lequeitio en el siglo XIX*, Donostia, 2006, 36. or. [itzuli]

## KLUBAK

Baldin eta Adolfo Guiarden koadroa Abrako itsasoaren aurreko hondartzaren oroitzapena bada, bainuetxetik ikusia, José Arrueren koadroak, berriz, itsas barreneko estropaden, yachting delakoaren —hala deitzen zitzaion orduan belari— notario-akta dira; ingeniari eta merkatari berri haientzat bela sport elementu bat zen, gorputza suspertzekoa, eta, era berean, jolas irakasgarria eta atsegingarria. Bestalde, belaren bitartez itsasertzaz eta itsasoko uraz eta hango iodoaz baliatzen ziren, eta, aldi berean, itsasoak gure arbasoei sortu zizkien arriskuekiko lotura egiten zuten. Eta orobat zen birkonkistatze enpresarialaren irudia eta sinboloa (ez jadanik zurezkoa, altzairuzkoa baizik), hala alor militarrean nola ekonomikoan. Bilbok hiru klub nautiko izan ditu, eta haietako bi XIX. mendean jaio ziren: Club Náutico (1881), Sporting Club (1898, 1901ean Real Sporting Club bihurtu zena) eta Club Marítimo del Abra (1902)<sup>1</sup>.

Haietako lehena Zazpikaleetako jendearekin jaio zen, baina Zabalgunean kokatu zen. 1881ean bere egoitza ireki zuen Mazas etxea zeritzan eraikinaren behealdean, Geltoki kalean (gaur Nafarroa) edo Pasaiako etxean<sup>2</sup>, zeina izan baitzen Abandon eraikitako lehendabiziko etxe urbanoa. Gero, 1889an, Arriaga Antzokiko lehenengo solairura aldatu zen, eta han balkoi korritu handi bat zuen, Areatzara ematen zuena, Mario Camiñak 1919an burdinaz eraikia<sup>3</sup>.

Florencio Schmidt Ansuátegui izan zen lehenengo lehendakaria (1881etik 1887ra), ontzi interpretea zen<sup>4</sup>, jatorri alemaneko merkatari baten semea, bere ontziari Chirla deitu ziona. El Globo egunkari errepublikanoak (1883ko irailaren 17an) eman zuen albistea, kalitate handiko grabatuekin betiere: bilbotarrak Miarritzen irabazi zuen, Chirla bere balandroarekin, eta Donostiako estropadan ere aritu zen, eta bai denei irabazi ere, txapelketatik kanpo bazen ere. Schmidten eskifaia gogoangarria da, hauek izan baitzituen kide balandroan: Ramón de la Sota (1857–1936; gero Club Marítimoko lehen lehendakaria izango zena), Angel Gorbeña (1857–1939; Club Náuticoko lehendakaria 1888–90ean) eta Ramón Hurtado Gaminde (1857–1917; gero Club Marítimoko lehendakaria ere bai). Chirla 15 tonako belaontzi bat zen, eta beheragoko mailako estropada horietan, 3 tonatik beheragokoetan, alegia, Algortako, Portugaleteko eta Santurtziko lemanaje-txalupek ere izena ematen zuten<sup>5</sup>.

Luis Briñas filantropoa eta kirolaria ere —zahartzarora arte bizikletazalea— Club Náuticoko kidea eta lehendakariordea izan zen; Pedro MacMahón izan zen lehenengo idazkaria. Memorias de un Bilbaínon, Oruetak hau kontatzen digu: “Gure belaualdiaren ondorengo zuzenek, Urigüenes, Mac-Mahón, Briñas, Costes, Jáuregui, Ibarra, Zubirías, Aznar, etab., urte batzuk Ingalaterrara joateko bideari jarraitu zioten, ingeles ohituretan eta ikasketetan han ikasteko eta beren idaztegiatara itzultzeko. Denek asmatu egin zuten, eta nekez egongo zen aurrera egin ez zuenik, bere etxea eta negozioa aurrerazi ez zuenik. Areago, bilbotar mota bat eratu zuten: bikaina, sportmanaren eta txirene kutsuko bilbotarraren nahastura, baina denak atseginak, irekiak eta, batez ere, ekintza zuhur baina erabakigarriko gizonak. [...] Ehiztari apartak izan dira bizitza osoan, hala nola Luis Briñas, Perico Mac-Mahón, Tomás Urquijo eta Pepe Urigüen”). Lekukotasunik onena *Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* (Cazadores en la Estación del Norte) deritzan Adolfo Guiarden koadroa da.

Hau da, Club Náutico Mazas etxean kokatua zegoen, Sociedad Bilbainak 1913an bere eraikin sozial berria jaso zuen lurren aurrean, eta bi elkarteok ingeles kulturaren inportazio bat ziren. Tertuliako eta berri trukeko klub bat zen merkatari, kontsignatario eta ontzi-jabe horientzat, zeinak halaber beren aisialdian itsas jarduerekin liluratuta baitzeuden. XVII. mendean loratzen hasi ziren inperioetatik bik, holandarrak eta ingelesak, ulertu zuten ontzidiaz eta merkataritza eskutik helduta zihoazela. Hala, holandar merkatari eta burges batzuek beren “jaght” delakoez gozatzen zuten, “nabigatzeko plazer” hutsez; hitz hori “yacht” bihurtuko zen ingelesez eta “yate” euskaraz. Holandako bere

deserrian, Karlos Estuardo, Galesko Printzea eta Karlos II.a izango zena, kirol horrekin zaletu zen, bere herrira eraman, eta zabaldu egin zuen.

Klubean, itsaso eta enpresa kapitain eta ontziko interprete horiez gainera, beste batzuk lur lautik etorriak ziren, hala nola Manuel de Murga<sup>6</sup>, Markinan jaioa, ahaide nagusien familia boteretsu baina liberal batekoa, Madrilen gehiago bizi zena, baina klubeko lehendakaria izan zena (1909–11); edo atzerritik etorriak, hala nola José Enrique de Olano, zeina 1882an La Vizcayako sortzaileetako bat eta ingeniari zuzendaria izan baitzen eta Bilbon ezkondu baitzen, baina Bartzelonara joan, eta han Estropaden Kluba sortu zuen 1884an<sup>7</sup>.

1898an Sporting Club sortu zen, hiribildutik kanpo, kanpoko portuan, eta egoitza txanel edo ur gaineko etxe batean zeukan, gerora “Las viejas tablas” izenez ezaguna izango zena. Gabarra baten gaineko etxola bat zen, Astilleros del Nerviónen eraikia, 25 metro luze eta 10 metro zabal eta gutxi gorabehera metro bateko sakonerakoa, zeinari 1909an 9 metroko luzapena egin baitzitzaion eta atrakatzeko baltsa bat erantsi popan<sup>8</sup>. Biltegi bat zeukan iolak edo piraguak gordetzeko, soto bat ere bai, eta, 1904. urteaz gero, sukalde bat; bi ontzigain eta sentina bat zeuzkan. Abran zegoen, Portugaleteren mailan, udan, eta negua Axpe-Erandioko dartsenan igarotzen zuen. Club Sportingera txalupaz edo “gasolino” deritzan ontzi batez joaten zen, eskuarki Portugaletetik edo Areetatik.

1901ean Sportingek “Errege” titulua eskuratu zuen, Alfonso XIII.a Bilbora etorri zenean portuko obren amaiera handikiro ospatzera. 1902an, erregearen adin nagusitasuna eta horren ondoren Espainiako errege gisa konstituzioaren zina zela eta, hainbat kirol ekitaldi egin ziren<sup>9</sup>. Handik bi urtera, 1904an, erregeak iola bat oparitu zion klubari, eta, baita ere, urrezko aingura botoi bat eman eta kideek uniforme berezi bat jantzi ahal izateko pribilegioa, itsas armadako galako uniforme gisako bat, alegia<sup>10</sup>. José Arrueren koadroak (gaztelerazko liburukiko 184–85. or.) laguntzen du han ageri diren pertsonak bakoitza bere uniformearen arabera bereizten.

Bilboko hirugarren kluba, Club Marítimo del Abra, 1902an jaio zen. Ramón de la Sota Llanori, lehenengo lehendakariari, bururatu zitzaion kluba sortzea eta Areetako hondartzako Establecimiento de Baños de Maren egoitza hartzea, kiebrak jota baitzegoen. Sortzaileek klubaren ideia familiarrago bat zuten, ez soil-soilik gauzak uzteko gabarra batena. Hobekuntzak egin ziren bainuetxeko instalazioetan eta ontzireleku propio bat muntatu zen. Máximo eta Ezequiel Aguirre izan ziren bainuetxearen sustatzaileak, eta areatza haiek Bilboko hondartza bihurtu nahi izan zituzten, eta bai lortu ere Amadeo Savoiakoak hura bisitatzea 1872an. Kanpoko portua irekitzeak, ordea, zeharo aldatu zituen bai mareak eta bai hondartza txikia. Sotak, Ondategi urbanizazioa eraikitzeako asmoa zuenez —zerbitzu guztiez hornitutako hogei bat txalet udarako Lertegi onibar zabalaren inguruan—, ikusi zuen klub osatuago eta zerbitzu gehiagoko bat eratzeko aukera, era hartara ez bakarrik balio zezan sport nautikorako, baita familien olgetarako ere. Club Marítimokoak izango ziren Sportingeko bazkide gehienak. 1900ean zituen 125 bazkideetatik 1907an zituen 231 bazkideetara eta 13 bazkidegaira igaro zen, Club Marítimok zazpiehun bazkide zituelarik urte hartan. Eduardo J. Alonso historialariak emana da bereizkuntzaren definiziorik onena: “Club Marítimo del Abra beste gauza bat izan zen, inondik ere, Sportingekin elementu komun begien bistakoak bazituen ere, baina gehiago izan zen mende aldaketaren Bizkaiko pazientzia gutxiko burgesia horren gunea, harremanerako eta jarduera sozialetarako espazioa. Hasteko, lau urte beranduago jaio zen, 1902an”<sup>11</sup>.

Sporting eta Marítimo agertu zirenean, historialari askorentzat Náutico desagertu egin zen, Arriagan kokatutako kluba, alegia, baina hori ere datu faltsu bat da. Náuticok martxan jarraitzen zuen, eta Federazioaren klub zerrendan zegoen oraindik; baina 1910 eta 1920 artean izan zituen lehendakarien izenak errepatatzeak esaten digu, besterik gabe, ia lehendakari guztiak Abrako klubetako estropadalariak zirela<sup>12</sup>.

Marítimok ez zuen Sportingek bezainbat oihartzun mende hasierako estropaden munduan, haren helburua ez baitzen hainbeste belako lehiaketa nola olgeta nautikoa eta bizitza soziala. Hala ere, saikeren lekua izan zen, adibidez, Leonardo Torres Quevedo ingeniariak torpedoen norabidearen teknikari egin zion ekarpena. 1905eko azaroaren 7an, beren asmakizuna, Telekine, muntatu zuen zortzi pertsona zeuzkan txalupa baten gainean eta berak aginduak klubeko terrazatik eman zituen<sup>13</sup>.

Bilboko hiru klubez gainera, Santanderreko Real Club de Regatas gogoratu behar dugu gure inguru hauetan, Espainiako zaharrena baita, gainera, (1870ekoa), eta izugarrizko egoitza duena Casa Pomboko markesaren jauregian<sup>14</sup>. 1896an Donostiako Club Náutico sortu zen, Donostia baitzen orduan erreginaordearen udako egoitza<sup>15</sup>. Haren lehenengo instalazioak Kontxako badian ainguratutako gabarroi handi batean egon ziren. 1905ean arrain-haztegi bat erosi zuten Kontxako Pasealekuan bertan, José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labayen arkitektoek 1928-29an eraikitako eraikina dagoen lekuan, alegia, Fernando Arzadunek Bermeon eraikitako Kikunbera ontzi-etxearen garai berean, eta Atanasio de Anduizak 1914an Algortan eraiki zuen Chávarritarren Casa Barkoz geroztik<sup>16</sup>.

Belaontzi-estropadak XX. mendearen hasieran, Bilboko Abrako estropadek garrantzia izugarria izan zuten Espainiako kirol nautikoan, batetik, baina, bestetik, Bilbok europar hiri gisa zuen irudiarentzat. Sportingek garrantzi handi-handiko zeregina izan zuen horretan guztian: Espainiako estropadarik zaharrena antolatzen zuen, Ijito Kopa, zeregin garrantzitsua zuen Erregearen Kopan eta Klub Nautikoen Federazioaren eraketan, baina, batez ere, munduan hogeita hamarreko hamarkada arte nagusituko ziren belaontzien eta yateen diseinu berri guztien probalekua izan zen.

Estropadak Britainia Handian hasi ziren XIX. mendearen hasieran. Cowesen, Wight uhartean, bi eguneko estropada bat egin zen 1826an, eta, hurrengo urtean, Jorge IV.a erregeak, erronka-kopa bat eskaini zuen klubeko yateek urtero nabiga zezaten bere urtebetetzean, abuztuaren 12an. Kopak 100 gineako balioa zuen, eta pitxer handi bat zen, erregearen armaria eta taparen barruan erregearen bustoa zeukana. 1838an egin zen Victoria Erreginaren lehenengo Kopa, mota guztietako yateentzat zen, eta denbora-tona erlazio arau bat zuen: lasterketaren hasieran 3 minutuko denbora kentzen zitzaion 10 tonako alde bakoitzeko. 1851n egin zen, Wiltoneko kondearen (Earl of Wilton) ekimenez, Coweseko Royal Yacht Squadron klubeko komodoro gisa, eta New York Yacht Clubeko (1844an sortua) America goletak irabazi zuen garaikurra. Gertaera hura, eta koparen geroztikako historia, ezaguna da jadanik. Cowesen eraiki zuen Victoria erreginak udako bere egoitza, Osborne House, 1845 eta 1851 artean, eta han hil zen. Haren seme Eduardo VII.ak estatuari eman zion etxea museo eta unibertsitate gisa, eta Royal Naval College Osborne gisa ezagutu zen. Eduardo VII.a Victoria de Battenbergen, Alfonso XIII.aren emaztearen, eta baita ere Gillermo II.a kaiserraren (bere arreba zaharrenaren semea) iloba zen. Gillermo II.ak 1888tik 1918ra gobernatu zuen inperio alemana. Nabigatzaile sutua izan zen, hainbat yate izan zituen, eta lasterketez gozatzen zuen, eta bai parte hartu hala Alemanian nola Erresuma Batuan ere; Meteor izeneko bost bela-yate izan zituen, eta haietako bat Horacio Echevarrietak erosi zuen.

Gillermo II.ak animatu eta bezeroak eraman zizkion Max Oertz (1871-1929) ingeniariari. Hark goleta ospetsuak eraiki zituen, adibidez Germania, Gustav Krupp enpresariarentzat, eta Meteor IV kaiserentzat berarentzat<sup>17</sup>. Haren belaontziak beren lastertasunagatik eta dotoretasunagatik ziren ospetsuak, eta ontzi barruko erosotasuna ere aintzat hartzekoa zen. Oertz perfektionista sutua izan zen, yate baten eraikuntzako xehetasun bakoitza zaintzen zuena. Abiazio zale amorratua ere izan zen. Arraste-arrantza ere irauli zuen guraize-ohola kurboekin, zeinak askoz urrunago hedatzen baitzituzten sareak atoi-indar berarekin: Scherbretter-Oertz; estandarra dira oraindik ere gaur egungo arrantzan.

Belaontzi estropada horiek eta klub nautikoak Ingalaterrako kostetan hasi, eta Frantziara, eta batez ere Alemaniara, igaro ziren gero. *Le Cercle de la voile de Paris* (CVP) zuen izena Parisen 1858an sortu zen klub nautikoak. Zale askok Sena ibaiertzeko arraun klubetan igaroko zituzten asteburuak eta kostako estropadetan udak. 1875ean 37 erakunde zeuden Frantzian kirolari emanak. Hamarraldi horretan bertan, pintore inpresionistak olatuak eta haien argiak pintatzen hasi ziren; hala Monet Le Havreko portuan; Monet eta Caillebotte Argenteuilen; edo Signac Saint-Tropezeko portuan. 1874an Manetek Claude Monet bere estudio-ontzian margotzen (Claude Monet peignant dans son atelier bateau) koadro ederra pintatu zuen (Municheko Neue Pinakoheken dago); bertan ikusten denez, Monetek, Daubigny-ren estiluan, etxe-estudio-ontzi bat eraiki baitzuen Argenteuilen, zeina Paristik oso gertu geratu baitzen 1851ean eraikitako trenbidearekin<sup>18</sup>. Monetek koadro asko pintatu zituen han, nabarmenenak: Estropada Argenteuilen (Régate à Argenteuil) 1872koa, eta Caillebottek ere Estropadak Argenteuilen (Régates à Argenteuil, 1893) pintatu zuen<sup>19</sup>. Caillebottek 1878an erosi zuen bere lehen txapelketa-yatea, eta bihurtu zen, ez bakarrik estropadetako txapeldun, baita belaontzien diseinatzaile ospetsu ere, bai eta belako nabigazioko aldizkari garrantzitsuen finantza babesle eta Parisko Cercle de la Voile bela klubeko lehendakarikide ere, non sartu baitzuen 1892an bazkide gisa bere adiskide Paul Signac. 1901ean Alemanian 60 klub nautiko eta 100 lurrun eta bela yate zeuden, eta ia 7.000 bazkide. Lehiatzeko zaletasunak mugetatik at jauzi egin zuen, eta, horren ondorioz, 1906ko urtarilean Conference on Yacht Measurement (Yateen Neurriei buruzko Nazioarteko Biltzarra) egin zen Londresen, eta han garatuko zen “Metre Rule” delakoa (Neurrien araua: a common code of yacht racing rules), britainiar arauetatik harago joan nahi zuena<sup>20</sup>. Batzarkideek Yate Lasterketen Nazioarteko Batasuna (International Yacht Racing Union, IYRU) eratu zuten<sup>21</sup>, zeinaren kide baitziren Alemania, Austria-Hungaria, Danimarka, Frantzia, Finlandia, Britainia Handia, Holanda eta Belgika, Italia, Norvegia, Suedia, Suitza eta Espainia.

Britainiar diseinatzaile nagusiek (Fife, Watson eta Nicholson), YRARI 1892an bidalitako gutun batean, adierazi zuten gurutzaldi eta lehiaketako yate mota bat eraikitzeko arau bat nahi zutela, zeinak ontzien bizitza laburra saihestea ahalbidetuko baitzuen, eta, aldi berean, lehiaketan abiatzerako orduan neurrien eta pisuen halakoxe parekatze bat ezarriko. 1906an hasi ziren arautegia finkatzen: alde batetik, “eskasia” arau bat (kroskoaren egiturazko elementu guztietarako gutxieneko tamainak eta pisuak finkatuko zituen), eta sailkatze arau bat (yateen eta haien plataformen forma oinarri komun baten arabera neurtzeko). Orobat pentsatu zuten ontzi horiek denbora guztian ibili behar zutela, ez bakarrik estropada egunean, eta, hala, eduki behar zuten, alde batetik, ostatu hartzeko halakoxe erosotasun bat, eta, bestetik, eskifaiko kide kopuru gehienezko bat, estropadetarako 14 lagunetan ezarri zena. Jabe batzuk yate horietan bizi izan ziren<sup>22</sup>.

Bai Eduardo VII.ak, bai Jorge V.ak eta bai Guillermo II.a kaiserrak zeregin garrantzitsua izan zuten klub nautiko ospetsuen sorreran eta nazioarteko estropadak bultzatzean, eta horretan saiatuko zen Espainian Alfonso XIII.a ere. Eduardo VII.ak modako elite zereginik gabea gorpuztu zuen, baina bere herriaren enbaxadore ona izan zen; mende berri baten hasierarekin batera erreinatu zuen eta aldaketa esanguratsuak iragarri zituen teknologian eta gizartean, besteak beste, lurrun-turbina bidezko propulsihoa eta sozialismoaren sorrera. Bake gizona izan zen, eragina izan zuen ontzidiaz modernizatzen eta hedatu egin zuen errege-erreginaren familiaren harreman giroko pertsonen maila. Alfonso XIII.ak kopiatu egin nahi izan zuen hori, ez bakarrik Coweseko estropadetan parte hartuz, baita ere Espainian kirol nautikoa eta, batez ere, ontzigintza sustatuz.

1900ean Bilboko Sportingek, Donostiako Klub Nautikorekin eta Santanderreko Club de Regatasekin batera, Kantauriko Klub Nautikoen Federazioa eratu zuten, eta erakunde hark sustatu zuen Kantauriko Kopa zeritzan estropada eta saria. Estropada hori eta hiru klubek sustatutako guztiak arautegi bakar batez uniformizatu ziren, 1902an argitaratu eta 1906 arte indarrean egon zena, orduan onartu baitzen Nazioarteko Arautegia. Sportingen faluan sortu zen 1906an Federación Española de Clubs Náuticos delakoa, Kantauriko Federazioaren zuzendaritza bera zeukana. Espainiako Federazio horrek parte hartu zuen IYRUren sorreran, eta, horrekin batera, nazioarteko formulaz<sup>23</sup>. Bilbok



abian jarria zuen sailkako Kiel sistema, desplazamendu-tonakoaren orde. Tomás de Zubirák irabazi zuen lehen aldiz 1907an Kantauriko Kopa, hiru klub sortzaileetako kideentzat bakarrik zena.

Kantauriko Kopaz gainera, Sportingek txapelketa hauek antolatu zituen, beste batzuekin batera: Ijito Kopa, Itsas Ligaren Kopa, Errege Kopa, eta Bilboko Belaren Astea, Cowesen estilora Britainia Handian edo Kielekora Alemanian.

### Ijito Kopa – Ligaren Kopa – Errege Kopa – Castro Kopa

1903an bi nabigaitzaile berezi porturatu ziren Bilboko Abran: Aníbal Morillo, Cartagenako kondea<sup>24</sup> eta José María Quiñones<sup>25</sup>; biak diplomazialari trebeak eta filantropoak izango ziren, Leonardo Torres-Quevedo bilbotar ingeniari eta Madrileko katedradunaren adiskide minak. Haien ontzia, Gitana zeritzana, goleta historiko bat zen, Georg Hansenek Coweseko ontzioletan 1840an schooner bat bezala eraikia, eta bela aparailu eder eta konplexu bat zeukan<sup>26</sup>.

Porturatu zirenean Sportingeko kideek eman zieten tratu eta abegi onaren esker onez, Cartagenako kondeak hurrengo urteko estropadarako sari bat sortzea erabaki zuen, eta bere yatearen izena eman zion, eta horrela jaiotzen zen “Copa Gitana” (euskaraz Ijito Kopa deitua)<sup>27</sup>, Espainiako nazioarteko estropaden aitzindaria. Victoriano López Dóriga kantauriarra Sportingeko kide egin zen parte hartu ahal izateko, eta, Mariposa bere ontzian nabigatuz, irabaztea lortu zuen<sup>28</sup>.

1904ko urte horretan bertan, Liga Marítimak, Espainian kirol nautikorako zaletasuna sustatu eta yateen eraikuntza nazionala akuilatu nahian, kopa bat sortu zuen Sonderklasse zerizten ontzien estropaden saritzat. Liga Marítima Española (LME)<sup>29</sup> Antonio Maura politikoko kontserbadorearen ekimenez sortu zen 1900eko abenduan marina eta itsas sektore guztiak biltzeko eta ordezkatzeko asmoz, arrantzatik gerrako marinara, sindikatuetatik elkarte patronaletara. Asociación de Navieros de Bilbao<sup>30</sup>, hura ere 1900eko martxoan sortua, Francisco Martínez Rodas lehendakari zuela, Bilboko ibaiko ontzi industriaren bultzatzaileetarikoa bat, alegia, ez zen oso ados egon Ligaren postulatuekin. Sari horren baldintza nagusia ontziak Espainiako ontzioletan eraikiak izatea zen<sup>31</sup>.

1905ean Sportingek lehenengo Errege Kopa antolatu zuen Alfonso XIII.arenaren omenez, Bilboko Bela Astea zeritzanaren barruan, arestian aipatutako lehiaketen antzera, Cowesen, Britainia Handiko erregearen babesarekin, edo Kielen, Alemaniako enperadorearenekin. Hau zioen La Vida Marítima aldizkariak (1904ko abuztuak 30): “Kopa bat sortu du Erregeak, urtero Bilbon egingo dena, balandroen estropadetarako, nazioarteko izaeraz<sup>32</sup>, hartan parte ahal izango dutelarik bakoitzari dagokion nazioan eraikitako balandroek”. Oraindik sailkako parte hartzea zegoen indarrean, balandroen tona-kopuruaren arabera<sup>33</sup>. Eta hau eransten zuen informazioak: “Estropada hori espainiar Klubetako bazkide guztientzat da, atzerriko nazionalitatekoak badira ere, eta badago kontu bitxi bat, berria delako, eta da ontzi guztiak ainguratuta eta beren buiei lotuta egon behar dutela, aparailua bilduta, eta estropada beren jabeek gidatuko dutela, marinelik gabe, eta kornetaren joaz abiatuko dira”. Hau da, benetako nabigatzaileentzako, itsasgizonentzako, estropada, ez aberats soilentzako.

Alegia, Liga Marítimaren eta erregearen beraren ideien artean garatzen ari zen Espainiako itsas industria eta diseinua. Ikusiko dugu hemen ezen erregearen yatea, Hispania<sup>34</sup>, Pasaiko Karrpard ontzioletan eraikia zegoela, eta Tonino, berriz, William Fiferen diseinuz, Astilleros del Nervión ontziolan.

Kantauriko Kopa Castro Kopa bilakatu zen, espainiar bela klub batek antolatutako lehen estropada-gurutza gisa (zeharkaldian). Real Sporting Clubek 1907an sortu zuen, eta Bilboko Abraren eta Castro Urdiales hiribilduaren artean zuen ibilbidea. Lehenengo edizioa urte hartako irailaren 4rako deitu zen, baina bertan behera utzi behar izan zen

Marinako Komandantziaren inposaketaz, denborale abisu bat egon zenez. Estropada handik egun batzuetara egin zen azkenean, baina ez zen irabazlearen izena gelditu etorkizunerako. Castro Urdialeseko herriak, herritarren artean harpidetzaz bildutako diruaz, emandako garaikur bat zen, Plymouthekoa bezalakoa, non 1825ean estropada bat egin baitzen, baina funtsak eta sariak herriko jendeak ordaindu zituen. Eladio Laredok diseinatu zuen kopa, hiru gorputzeko zilar trinkozko garaikur gisa: lehena, oinarria edo plinto zirkularra; bigarrena, marinel baten irudia hirugarren gorputzari eusten: kopa astun bat, buia bat eta amarratzeko soka bezalakoa, non agertzen baita Castro Urdialeseko armarría, eta balandro estropada bat itsas kizkurrean. Juan Manuel Zubiríak Real Sporting Club bere liburuan kontatzen duenez: “Zilar puska ikaragarria da, garaiko garaikur peto-petoa”.

## Ondorioak

Abran estropadetarako gogobetea izugarri hazi zen hurrengo hamarkadetan. Estropadak ez zituzten soilik jarraitzen klubetako kideek eta haien familiek beren enpresen atoiontzietan, marinela eta kostako jendea ere estropaden ikusleak izaten ziren, hala Algortakoak nola Portugaletekoak, arrantza-ontzietan edo arraunontzietan, eta baita beste herri arrantzale batzuetako jendea ere, Zierbanatik Plentziara.

Alfonso XIII.a erregeak Bilbotik bultzatu zituen Espainiako ontziolak, Erresuma Batuko ontzi industriaren metodoak eta teknikak bereganatuz, punta-puntakoa baitzen orduan, eta industria haren garapen itzela lortu zuen Errepublika aldarrikatu aurretik. Indalecio Prieto sozialistak –Club Marítimoko Arrueren koadroan estropadari begira ez dagoen hiru pertsonaietako bat, artean bertako egunkari bateko zuzendaria zena, El Liberal, gero bere jabetzakoa izango zena— kontatzen du bere oroimen-liburuan<sup>35</sup> nola erregeak bere lehen hitzaldia inprobisatu zuen Sportingen 1907an eginiko bankete batean<sup>36</sup>.

Bilbok zeregin nabarmena izan zuen Europako eta nazioarteko bela nabigazioan XX. mendeko lehenengo hamar urte haietan. Gure nabigatzaileak IYRUren sorreran egon ziren, eta El Havreko, Coweseko eta Kieleko aste nautikoetan parte hartu zuten.

1905ean, aurreko urtean Kielen egin ziren Nazioarteko Estropadetan, Mouriscot (Ferrer eta Jácome, Giraldako ofizialak patroi zituela) eta Santi (Bilboko Real Sporting Clubekoa, Enrique Careagak, José Antonio de Aranak eta Antonio Mendigurenek gidatua) espainiar balandroek parte hartu zuten. Bi ontziak, Giraldillarekin batera, Extremadura gurutzontziak alde aurretik garraiatu zituen, eta hantxe itzuliko ziren atzera balandroak Bilbora, abuztuan (1906) beste nazioarteko lehiaketa bat egingo baitzen. Lehiaketa hartarako iragarri zen kaiserren balandroren batek eta Erregearen bi balandrok (Mouriscot eta Reina X) parte hartuko zutela, Espainiako Marinako ofizialek gidatuak. 1908an Sporting Cluben sari banaketa egiteko erregina ama, María Cristina, iritsi zen Donostiatik, abuztuaren 23an, eta hantxe bazkaldu zuen erregearekin, Luis Fernando de Orleáns infantearekin, Antonio Maura, Espainiako Ministroen Kontseiluko lehendakariarekin (Madriletik iritsi zena), Sportingeko lehendakari, José Antonio de Aranarekin eta haren emaztearekin eta beste pertsona batzuekin. Erregeak estropadetan parte hartu zuten hiru balandrazale atzerritarren aipamena egin zuen eta eskertu zuen, Real Sporting Clubeko eta Federación Náutica del Cantábricoko ohorezko lehendakaria zenez, bere ama han egotea.

*La Vida Marítima*<sup>37</sup> aldizkarian 1909an sailka matrikulatutako balandro kopurua agertu zen. Esan dezakegu erdia baino gehiago euskaldunak zirela, Bilboko klubetan matrikulatuak, eta batzuk baita beste portu batzuetan ere: Sonderklase, 30; 6 metroko saila, 36; 8 metroko saila, 28; 10 metroko saila, 13; 15 metroko saila, 4. Erregistratutako balandroak guztira: 111. Ontzien arloko enpresari indartsuenak, gehien inbertitzen eta nabigatzen zutenak, Espainiatik kanpo ikasi zuten berak ziren, hala nola Víctor Chávarri bera, Martínez de las Rivastarrak, Tomás Zubiría edo Enrique Careaga.

Nabigatzaile horietako asko ingeniari ospetsuak ere izan ziren, adibidez, Chávarri anaiak edo Tomás Zubiría, eta ingeniariak ziren berebat Abrako estropada haietara ontzirik onenak ekartzen zituzten atzerritar parte-hartzaile asko, esate baterako, Arthur K. Stothert<sup>38</sup>, Mariskaren eta Mariquitaren jabea, zeina garabietan espezializatutako portu-ingeniaria baitzen; William Yates<sup>39</sup>, ingeniaria eta arte bildumagilea; Francis Lewis Clark<sup>40</sup> estatubatuarra, ingeniari industriala, Spokanearen jabea, zeina, haren heriotza arraroaren ondoren, Eduardo Ubaok erosi baitzuen; edo Carlos Wertheim<sup>41</sup> ingeniari alemana, Bartzelonan kokatua.

Bestalde, aldi bakoitzeko yate berriek ideia eta efektu berriak ekarri zituzten, atsegin hutsezko helburua zuten ontziak perfektionatzeko berehala aplikatu zirenak. “Tona kopuruka” egindako neurketak ezeztatu eta haien ordez sailkakoa ezarri izanak eragin zuen gurutzaldiko yateek ere zentzuzko proportzioak izatea, eta era berean estropadetako tresneria bereganatzea<sup>42</sup>. Horrela, antzeko ontzien estropadak egin zitezkeen, nazioartekoak ere izan zitezkeenak, non nabigatzailearen trebetasuna gailentzen baitzen eta ez ontziak jabearen dirutzari zor zion kalitatea. Kirol epikoa bilatu zen, itsas zabalean nabigatzearena, non nabigatzailearen espirituak agintzen baitzuen, jockeyak zaldi odolgarbiaren gainean agintzen duen bezala; non kirola gaitasun fisikoa baitzen, baina baita adimena ere lekuetako egoera irakurtzeko: bareguneak eta brisak, mareak, korronteak, etab. Probatu eta huts egiteko hamarraldi bat izan zen, belaontziei buruzko ezagutza zaharrak konbinazio berri batera ekarri izanarena, orain kirol apustua eta lastertasuna baitzen nagusi, estropadetan bezala, helburua ez baitzen jadanik arrain sarda batera lehenengo iristea edo ontzi batera iristea haren ibai sarrera gidatzeko (lemanajea), aitzitik lehiaketa bera zen xedea, lehenengo iristea.

Yateak, balandroak, belaontziak, estropadak, estropada-gurutzaldiak, XIX. mendearen aurreko mundu batekoa izatearen ikurrak ziren, halako elite sozial baten pribilegioa, baina ez da bidezkoa jarduera hori negozioetan inbertitu duen klaseari bakarrik atxikitzea (Rothschildtarrak, Pérignonarrak, Meniertarrak, Breguettarrak, Draeger anaiak: finantzariak); badaude, baita ere, jarduera horren hurbileko beste zirkulu batzuk (idazleak —Verne, Maupassant—, eruditoak —Charcot—, pintoreak —Caillebotte, Monet, Bonnard—, etab.). Jarduera horiek gizabanakoaren balio jakin batzuk sendotzen dituzte: kemena, sasoa, asmamena, nork bere burua gaintzea, baina, batez ere, inizatiba hartzea eta konpromisoa. Gertutasuna eta urruntasuna eskatzen du aldi berean: materia barne-barnetik ezagutzea eta, hala eta guztiz ere, garrantzia zerk duen urrutitik ikusteko gaitasuna. Eta arriskuaren kontzeptuari eta norberak itsasoaren eta haizearen aurrean duen borrokari atxikimendu ezin hautsizkoa.

## Kritika

Euskal Herriko gaur egungo historiografiaren barruan, klub horiek eta beren jarduerak kritikatuak izan dira, eta komeniko litzateke kritika horiek aztertzea. Adibidez, gainerakoan aparta den saiakera batean, Eduardo Alonso Oleak hau dio abiapuntu gisa: “Aurkezten dugun komunikazioan soziabilizazio-espazio argi eta garbi elitista batzuk landuko ditugu, nola izan ziren —eta, beharbada, hala izaten jarraituko dute bat egin ondoren— Club Marítimo del Abra eta Bilboko Real Sporting Club. Bata 1902an eta bestea 1898an sortuak, haiak izan ziren hamarkada askoan, Sociedad Bilbaina, Club Náutico, Real Club Jolaseta edo Club de Golf elkarteekin batera, harreman, olgeta, aisialdi, dibertimendu eta kirol jarduerako Bizkaiko zentrorik eksklusiboan”<sup>43</sup>.

Lehenik, ahaztu egin zaizkio Alonsori arraun klubak eta futbol klubak (beharbada, elitistagoak une hartan), baina, batez ere, bere datuekin kontraesanean dago. Club Marítimo 421 bazkideekin zabaldu zen, eta, berak dioen bezala, 1907rako ia 700 bazkide zituen. Ezin da izan elitista oraindik 80.000 biztanlera iritsi ez den hiribildu bateko kluba.

Aurreraxeago beste aurreiritzi batekin jarraitzen du, bazkide batzuen monarkismoa gainerako guztiei zabaltzen dienean: “Orain axaleko samarra iruditu dakiguke, baina berez bakailao-denda batean edo kinkila-denda batean

aritzetik belaunaldi bateko edo biko aldea ez zuten pertsonak gortearekin harremanak izatera igarotzea zerotik infinitura igarotzea zen. Esparrua, lekua, tokoa Sporting zen. Sporting, baita ere, ez da harrizkoa izango, bizkaitar monarkismoaren zentro bat zen; 'Real' ('erregearen', euskaraz) hori ez zen ohorezkoa bakarrik. Izan ere, Errepublikara garaian Alfonso XIII.a ezkutuan ohoratzen jarraitu zuten. Leku txikia zenez, gabarra bat azken finean, eta egoera politikoaren karietara, klubak udako bere atrakaleku tradizionala utzi, Portugaleteko burdinazko portua, eta Arriluzera etorri zen. Eskuinaldea Ezkerraldea baino abegi hobeagokoa zen urte haietan”<sup>44</sup>.

lritzi bera agertu zen urte batzuk lehenago Castells eta Rivera irakasleen beste lan baita ere bikain batean: “Kirola bitarteko bat izan zitekeen hala aisiaz gozatzeko nola harreman sozial estuak izateko. Horregatik sortu zituzten klub pribatuak eta sarbide ikaragarri murriztukoak. Alor horretan balandro lehiaketak nagusitu ziren, bilbotar kapitalista handiak zeharo zaletuta zeuzkatenak. Alfonso XIII.a Bilbon egiten ziren estropadetara etortzea aukera bikaina izan zen, magnate industrialek alferrik galdu ez zutena, erregearekin harremanak estutzeko eta bide batez beren gailentasun soziala areagotzeko”<sup>45</sup>.

Sportingeko bazkide guztiak ez ziren monarkikoak, Alfonso XIII.a erregea sarritan hartu bazuten ere. Ez ziren monarkikoak ez Aranatarrak, ez Aguirre, ez Aldecoa, ez Maruri, ez MacLennatarrak, ez Yohntarrak, ezta gutxiago ere Ramón de la Sota (Marítimo sortuko zuena), Sabino Aranaren nazionalismoaren euskarri sendoa zenez. Eta, hain zuzen ere, bazeuden haien artean bakailao-merkatariak, hala nola Miguel de Azaola, Klub Náutico eta Abrako Marítimo bazkidea izan zena (86 zenbakiarekin), Laguntzaileen Batailoiaren borrokatua zen liberala, alegia. Sporting ez zen izan soilik monarkikoen klub bat, era askotako bazkideak izan zituen. Eta are gutxiago Club Marítimo, sortu zenetik hain bazkide kopuru handia (421) izan baitzuen. Klub horretan era askotako jendea zegoen, 1907ko estropada irabazi zutengandik hasi eta José Arruek Alfonso XIII.arenarekin erretratu zituenak, Yohn anaiak, Alde Zaharrea burdindenda bat zeuzkatenak, José Antonio Aguirre lehendakariaren aitagarrebarenganaino, nabigatzea gustatzen zitzaion ontzi kapitain bat, Constantino Zabala<sup>46</sup>. Estropadetara lehiatzera etorri zirenen artean ere ez zegoen soil-soilik nobleziako jendea, baziren orobat atzerriko ingeniariak, beren eginahalez dirutu zirenak, hala nola Francis Lewis Clark estatubatuarra edo Carlos Wertheim, Bartzelonan kokatutako alemana.

Klub horiek guztiak Sociedad Bilbaina 1839an sortu zuen espiritu beraren ondorioa ziren<sup>47</sup>. Izan ere, lehenengo kirol jardueren sustatzailea Máximo Aguirre bera zen. Bera izan zen 1868an Areetako Sociedad de Baños de Mar Bilbaño elkartearen eta Lamiakoko zelaietan programatutako hainbat kirol ikuskizunen sustatzailea; Lamiakon hipodromo bat, polo-zelai bat, futbol-zelai bat eta usakume-tiro leku bat ipini ere zituzten.

Kirol bat baldin bazegoen, Athleticen futbola bizkaitarren zaletasun gisa nagusitu aurretik, era askotako jendea biltzen zuena, hura bela zen. Beste kontu bat da ezen XX. mendean sartuta, hurrengo belaunaldiak, Horacio Echevarrietarenak eta Ramón de la Sotarenak, beste gehigarri bat erantsi izana beren ontzietan: haien belaontziak eta haien goletak “tresna diplomatikoa” ere izan ziren. Baina ez da ezta ere egia Luis Castellsek eta Antonio Riverak ateratzen duten ondorioa: “Baina, inondik ere, bizkaitar industrial handien goraldiaren elementurik enblematikoa yate ikusgarriak erosi izana izan zen; yate haiek ez zuten parekorik, beren neurri eta ezaugarriengatik, Espainiako gainerako lekuetan. Chávarritarrek, Sotatarrek, Martínez Rivasek, Horacio Echevarrietak... beren lakentziak zeuzkaten, eta Sotaren kasuan halakoxe maiztasunez berritu zituen. Gizarte burgesa jabetzaren gainean oinarritzen zen; eta aberatsenak gogotik arduratu ziren jabetza hura nabarmentzen eta mundu guztiaren aurrean agerian jartzen”<sup>48</sup>.

Lehenik, ez zelako Ramón de la Sota izan ontziz gehien aldatu zuena<sup>49</sup>. Eta, bigarrenik, nabigatzea eta lehiatzea gustatzen zitzaielako erabili zituztelako horiek guztiak ontziak. Horacio Echevarrietak kaiserren Meteor IV erosi zuen lastertasuna nahi zuelako eta, bere aitari bezala, nabigatzeak lasaitzen eta pentsatzen laguntzen ziolako. Horixe bera

egin zuten aldez aurretik Víctor Chávarrik edo José María Martínez de las Rivasek: saiatu ziren lehiatuz kirola egiten, beren eguneroko bizitzan bezala. Beste kontu bat da ezen Lehen Mundu Gerraren ondoren hala Sota nola Echevarrieta konturatzea yatearen erabilerak beren maila soziala indartzen zuela, jende jakin bat erakartzen zuela eta kontaktuak egiteko balio zuela, hala nola Echevarrieta bere Cosme y Jacintan Abd-elKrimekin negoziatzera joan zenean bezala.

Baina hasieran, eta Arruek kontrakai betean eta itasargiaren azpian Yohn anaien garaipena estropadan izoztu zigun unean, belaontziak eta estropadak kulturizazio eta sozializazio prozesu baten parte ziren, biztanleria osoarentzako hezkuntza-tresna bat, non konpromisoak eta erabakitasunak, non gaitasunak eta arriskuak, non merezimenduak eta ausardiak ematen zizuten saria.

Mendearen hasieraren eta Lehen Mundu Gerraren artean garai hartako bela munduaren onenek Bilboko Abran zuten hitzordua: ez bakarrik kirolariek, baita ere ontzi diseinatzaileek eta itsas ingeniariak. Zehazki, klub nautikoetako jendea bi belaontzi motak definitu zuen azkenerako: Sonderklase balandroak (hiru laguneko eskifaia batekin) eta yachtak, 15 metrokoak deituak. Bilboko Abrak bi kategoria horietako onenak ikusteko aukera izango zuen.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Sportingek Real Club de Regatas izena hartu zuen 1939an. 1972an Real Sporting Clubek Club Marítimo del Abrearekin bat egin zuenean sortu zen gaur egungo Club Marítimo del Abra y Real Sporting Club. [itzuli]
2. Joaquín Mazasek 1860an eraikitako etxeari “pasaikoa” deitzen zioten, han atrakutzen zuelako Areatzako jendea Erripako kaira zeharkatzen zuen txalupak, alegia, Bilboko hiribildutik Abandoko elizatera. [itzuli]
3. 1900eko balkoi korritu bikain hura 1982an ezin adierazizko eran bota zuten, multzo historiko artistiko gisa babestuta egon arren (BOE 1972-11-28). Ikus Kosme de Barañano eta Javier González de Durana, “El mirador del teatro Arriaga”, Deia egunkaria, 1982ko otsailak 3, eta López de Subijana arkitektoari emandako erantzuna, Deia, 1982ko martxoak 3. Camiñako behatokia Boluetako Santa Anan galdatutako burdinaz egina zegoen, eta ukazina zen elementu erantsi gisa, Joaquín Rucobaren 1889ko eraikina sendotzen baitzuen. [itzuli]
4. Florencio Schmidt “ontziko artekari interprete” gisa agertzen zen Bilboko 22en artean: hemen 184. or. gehigarria, José Montero y Vidal, *La bolsa, el comercio y las sociedades mercantiles*, Tipografía del Asilo de Huérfanos del S. C. de Jesús, Madril, 1883. [itzuli]
5. 1886. urtea: Arratsaldeko hiruretan, “El Sitio” atoi ontziko ontzigainetik eman zitzaion irteera; estropada belaontziarena zen; izena emandako olgeta-ontziak 3tik 15 tona bitartekoak ziren; ibilbidea 6 miliakoa zen; 15 tonako ontzien artean izena eman zuten Chirla balandroak, Bilbon matrikulatuak, Cucok eta Anitak, Santanderrekoak, eta Iturburuk, Bilbokoak. <http://getxosarri.blogspot.com/2015/03/la-naciente-poblacion-de-banos-v.html> [itzuli]
6. Manuel Murga Mugartegui (Markina 1846–Madril, 1919), 1875ean Ana Arana Manso de Zúñigarekin ezkondua (1847–1907), Manuel María Murga Zaldúa (Bilbo 1800–Markina 1852), politikari liberalaren eta Ahaldun Nagusiaren (1839–41) semea zen. 1823ko absolutismoaren garaian Parisen erbesteratu zen, eta gero itzuli; denek aintzat hartzen zuten gizon hura, Bilboko negozio komertzialetan inbertitu zuten ahaide nagusi haietako bat izan zena. Sociedad Bilbainaren sortzaileetarikoa bat izan zen; haren anaia, José María Murga Mugartegui (Bilbo, 1827–Cádiz, 1876) militarra eta bidaiaria izan zen, eta *Recuerdos marroquíes del moro vizcaíno* idatzi zuen, 1868an inprimatua. Bizkaiko Ahaldun Nagusia ere izan zen eta Foru Guardiaren sortzailea; gorputz armatu autonomo hark talde karlistei aurre egiteko zeregina zuen. [itzuli]

7. José Enrique de Olano Loyzaga (Liverpool, 1858 –Bartzelona, 1934), 1909an Frgolseko konde izendatua, jesuiten Stonyhurst Collegen ikasi ondoren, meategietako ingeniartzan lizentziatu zen Lovainan. 1880an Bartzelonan hartu zuen bizilekua, non hiriko portua banatzeko proiektu bat argitaratu baitzuen, zeina saritua izan baitzen Veneziako Nazioarteko Geografia Kongresuan, 1881ean. 1882an La Vizcayako —Labe Garaien ernamuina— sortzaileetariko bat eta ingeniari zuzendaria izan zen. Bilbon ezkondu zen, San Nikolas parrokian, 1892an, Natalia Barandiaránek. 1884an Bartzelonako Real Club de Regatas sortu, eta haren lehendakaria izan zen, zeina 1902an Real Yacht Clubekin bat egin zuen eta Bartzelonako Real Club sortu. [\[itzuli\]](#)
8. Jose María Martínez de las Rivasek finantzatu zuen gabarraren eraikuntza, nahiz bertsio batek dioen Antonio Menchacak Ingalaterratik ekarri zuela. Cecilio de Goytia arkitektoak diseinatu zuen, Portugaleteko El Salto hondartzara ematen zuen Martínez Rivastarren Lexarda etxearen arkitektoak; 1900eko maiatzean egin zuten Goytia ohorezko bazkidea. 1980ko neguan egoitza historiko hura hondoratu egin zen. [\[itzuli\]](#)
9. Sportingeko lehen Zuzendaritza Batzorde dokumentatua 1902koa da; Enrique Careaga zuen lehendakari, eta José de Zayas lehendakariorde eta Eduardo Ubao, José Amann, Jaime Selby eta Ramón Real de Asúa bokal. Manuel Elorduy zen idazkaria. [\[itzuli\]](#)
10. “Muturra itsas armadako gala-uniformearen aldaera txiki bat da —eztabaida dago Espainiakoarena ala Royal Navy armadakoarena ote den—; zenbait hamarkadaz bertan behera utzita izan ondoren, berreskuratu berri du Marítimok”. Ikus Eduardo Alonso Olea, *Historia del Club RCMA-RSC. Real Club Marítimo del Abra*. Real Sporting Club (1898–2002). [\[itzuli\]](#)
11. Eduardo Alonso Olea, “Del yachting a la vela, de los caballitos a la piscina. La sociabilidad de las élites y sus espacios: Club Marítimo del Abra - Real Sporting Club de Bilbao,” *Vasconia*, 33, 2003, 172. or. [\[itzuli\]](#)
12. Náuticoko lehendakariak eta Sportingen edo Marítimontzia zeukatenak: Eduardo Aznar: 1895–97, Domingo de Arana: 1897–99, Miguel de Ayala: 1899–01, Victoriano Gáldiz: 1901–03, Adolfo G. de Urquijo: 1903–05, Benigno de Chávarri: 1905–07, Plácido Allende: 1907–09, Manuel de Murga: 1909–11, Antonio de Artech: 1911–13, Pedro de Orúe: 1913–16, Enrique G. de Careaga: 1916–20. [\[itzuli\]](#)
13. 1903ko uztailean, Leonardo Torres Quevedok ohar bat aurkeztu zuen Parisko Zientzia Akademian, tresna batzuekin batera: “[Tresna horiek] Telekine deitzen dudana sistema bat osatzen dute, helburu duena makina baten maniobra urrutitik gidatzea telegrafoaren bidez, gidariekin zein gabe”. Lehenengo saioa Sorbonako Mekanikako Laborategian izan zen, eta *Electrón* (225. zk., 1903ko irailak 30) aldizkari espezializatuak aipamen labur bat argitaratu zuen. Asmakizuna (irriti bidezko lehen agintea) 1905eko martxoan probatuko zen Espainian, Bilboko Beti-Jai frontoiko kantxan eta gero, urrian, Madrileko Casa de Campon. 1905eko azaroaren 7an, Abrako Club Marítimont. Berriz ere, 1906ko irailaren 6an, Alfonso XIII.a erregea bertan zela eta jendetza handi baten aurrean, Telekineren erakustaldi bat egin zuen Bilboko portuan. IEEEk 2006an ingeniartzaren historiako Mugarri (Milestone) izatea aitortu zion Telekineari. [\[itzuli\]](#)
14. Lehenik, Casa Pomboko markesak bere etxea utzi zuen; gero klubak erosi egin zuen 1899an. Santanderreko Real Club de Regatas elkarteak (“Real” 1893az geroztik) liburutegi pribatu bat zeukan bazkideek erabil zezaten; liburutegiak 8.000 ale eta 18 aldizkako argitalpen zeuzkan, hau da, Sociedad Bilbainaren tankerako klub bat zen. 1873an Real Club Mediterráneo eratu zen Málaga. 1927an Santanderreko Real Club Marítimo sortu zen, Real Club de Regatasekiko hausturaren ondorioz. 1928an New York-Santander nazioarteko estropada handia antolatu zen, arrakasta handiz, eta haren ondoren beste asko etorriko ziren, hala nola Santander-Cowes, Plymouth-Santander edo Asturiaseko Printzearen Kopa. [\[itzuli\]](#)
15. Miramar Jauregia 1893an inauguratu zen, eta María Cristina erreginak berriz igaro zuen han uda ia etenik gabe 1929an hil zen arte. [\[itzuli\]](#)
16. Chávarritarren txikienaren Casa Barcok, Atanasio de Anduiza arkitektoari enkargatuak —1901–14an eraikia eta 1974an eraitsia— itsasoko arkitektura ikusteko era espresionista bat itxuratzen zuen bere idi-begiek. Kikunbera etxeak arrazionalismoaren estiloari jarraitzen zion, erreferentzia nautikoko mintzaira plastiko baten bidez, etxearen eta itsasontziaren arteko antzekotasunez, zeinaren erdiko pasillo brankako espazio zirkularrean amaitzen baitzen. Itsas estetikak —aginte zubia Bermeoko portu gainean, belaontzi baten masta, lurrunezko tximinia baten proportzioko eskailera, baranda soilak eta zur nobleen erabilera— muino-talaian kai-muturraren aurrean hondartutako itsasontzi bat bezala tankeratzen zuen eraikina. [\[itzuli\]](#)
17. Germania soil-soilik sei hilabetetan eraiki zuten, 1908an. Hura izan zen lehenengo yatea diseinatzaile aleman batek diseinatutakoa, ontziola aleman batean eraikitakoa eta material eta ekipo alemanekin tresnatutakoa eta

- talde alemanek estropadetan arrakastaz nabigatutakoa. Kroskoa erabateko berrikuntza izan zen: altzairu herdoilgaitzez egina. Hurrengo urratsa Meteor IV izan zen, kaiserrentzat, 1909an. Badago Ulrich Hübner pintorearen olio bat, Meteor IV in Travemünde (1910), Museums für Kunst und Kulturgeschichte der Hansestadt Lübeck; ikus katalogoa: *Ulrich Hübner, 1872–1932*. [itzuli]
18. Argenteuilen bizi izan ziren Monet (1871tik 1878ra bizi izan zen han), Caillebotte, Renoir edo Sisley; hemen jaiotzen Georges Braque (1882–1963). [itzuli]
  19. Caillebottek hogeita hamabi ontzi eduki zituen, bere anaia Marcekin batera, eta hogeita bi belaontzien planoak diseinatu zituen 1882 eta 1893 artean. Estropadako hamalau belaontzi eduki zituen, batzuk izen kaustikokoak. Condor belaontziak, hala zuen izena 1880an ontziak, bi silabatan ahoskatuak (cone-d'or), ez du zerikusirik batere Andeetako txori mitikoarekin, baginari dagokion itsas arrunkeria bat da, aitzitik. Caillebottek ez zuen belan txori bat marraztu, katu bat baizik; beste ontzi bat Cul-Blanc (Ipurdi zuri) bataiatu zuen 1883an. [itzuli]
  20. 1881an, Alberto Eduardo, oraindik Galesko Printzea zena (gero Eduardo VII.a 1901ean) Royal Thames Yacht Clubeko eta Royal Yacht Squadroneko komodoroa zen; bi klubek Yacht Racing Associationekin bat egin zuten, New Thames Yacht Clubekin batera, eta britainiar uretako estropadetarako arau multzo bat garatu zuten. [itzuli]
  21. International Yacht Racing Union, gero International Sailing Federation (ISAF) deituko zena, 1996an, eta 2015ean, berriz, World Sailing (WS). [itzuli]
  22. Arauak “kabinako gutxieneko altuera” eskatzen zuen, zolatik plataformako behealderaino (plataformako habeei jaramonik egin gabe), 6,23 oinekoa (1,90 m), “zolarek arnasaldi gutxiagoko bat”, kroskoaren alde batetik kroskoaren beste aldera, 4,65 oinekoa (1,40 m), lau trenkada gutxienez, 0,59 oineko lodierakoak (15 mm), lau ohatze, lotarako, eta lotarako bost “leku” (eskifaiarentzat edo haietako batzuentzat), armairuei eta komunei buruzko beste xehetasun batzuek gainera. Eskifaia-kide kopurua estropadan: 14 lagun. Ikus [https://en.wikipedia.org/wiki/15-metre\\_class](https://en.wikipedia.org/wiki/15-metre_class) [itzuli]
  23. Euskal klubak Federación Española de Clubs Náuticoseko (1908an sortua) kide izan ziren 1936 arte. Federazio horretako lehenengo zuzendaritza batzordean euskal ordezkariak zeuden, hala nola Enrique Pardiñas eta Luis Pradera (Donostia), Enrique G. de Careaga, Juan de Zabala, Heredia-Spínolako kondea, Víctor Chávarri eta Eduardo de Ubaio (Bilbo). Federación Española de Clubs Náuticos Federación Española de Vela bihurtu zen 1966an, eta Real Federación Española de Vela, berriz, 1987an. Lehenengo lehendakaria Victoriano López Dóriga izan zen, 1906tik 1938ra, eta 1968 arte hiru lehendakari bilbotar izan zituen: Luis Arana, Peru Galíndez eta Juan Alonso-Allende. Federación Española de Clubs Náuticosek bazkide hauek zituen 1913ko apirilaren 1ean: Real Club Náutico, Donostia; Real Sporting Club, Bilbo; Club Marítimo del Abra, Bilbo; Club Náutico, Bilbo; Real Club de Regatas, Santander; Real Club Astur de Regatas, Gijón; Real Club de Regatas, Villagarcía; Sporting Club, Vigo; Real Club Marítimo, Bartzelona; Real Club Náutico, Bartzelona; Sailing Yacht Club, Bartzelona; Golden Lyon Racing Club, Bartzelona; Real Club Náutico, Valentzia; Real Club de Regatas, Alacant; Real Club de Regatas, Cartagena; Real Club Mediterráneo, Málaga; Real Club Náutico, Cádiz; Real Club Náutico, Las Palmas (Kanaria Handia). [itzuli]
  24. Aníbal Morillo y Pérez del Villar, Cartagenako IV. kondea (Madril, 1865–Lausana, 1929) diplomatikaria eta filantropoa izan zen. Ezkongai, fortuna handi batean jabea, jokabidez diskretua eta eskuzabala; Alfonso XIII.ak Venezuelarekin harremanak berregitea utzi zuen bere gain, eta gero enbaxadore izan zen San Petersburgon. Cartagena deitzen zioten; erakunde zientifikoei, patronatu artistikoei edo ongintzako establezimenduei utzi zien bere fortuna pertsonal osoa, eta agindu zuen, halaber, bere jantzi pertsonalak eta bitxiak errematean ateratzea behartsuen babes-etxeei laguntzeko; bere koadroak Prado Museoari eman zizkion. [itzuli]
  25. José María Quiñones de León y de Francisco-Martín (1873–1957) Espainiako enbaxadore izan zen Frantzia eta Espainiaren ordezkari Nazioen Elkartearen. [itzuli]
  26. Batzuetan nahasi egiten dira Cartagenako kondearen goleta (25 metro luze, 3,37 zabal eta 162 tona desplazamendu) Gitana ere deitzen zen balandroarekin, zeina José María de Aristeguietarena baitzen, zein nabigatzen baitzuen José Ignacio de Figueroa Mendieta, Tovareko markesarekin; balandroa 1900ean erosi zuen eta Joseph Guedonek Bordelen eraikia zen. [itzuli]

27. Ontziek bost pezeta ordaintzen zuten Ijito Kopak zeuzkan bost probetako bakoitzean izena emateagatik. 1905ean Julio Artechek irabazi zuen, 1906an, berriz, Tomás Zubiriak, eta 1991n, berriz, Alfonso XIII.ak Giralda II ontzian. [itzuli]
28. Victoriano López-Dóriga (1855–1938) korbetako kapitaina izan zen; 1902an erretiratu egin zen negozio familiarretan aritzeko, besteak beste, Banco de Santander, eta Bizkaiko beste enpresa batzuk. Compañía Vasco-Cantábrica de Navegacióneko eta Asociación de Navieros Españoleseko lehendakaria izan zen, eta Liga Marítimaren sortzailea. Kirol belaren eta balandroen estropaden aitzindaria izan zen. 1907an International Yacht Racing Union elkartearen sorreran egon zen, Parisen, Enrique Careagarekin batera. [itzuli]
29. 1901eko ekainaren 6an inauguratu zen Congreso Marítimo Nacional zeritzana, Liga Marítimak antolatua; ekitaldia Universidad Centraleko Paraninfoan egin zen (Madril); haiek argitaratu zuten *La Vida Marítima* aldizkaria, Lehen Mundu Gerra arte informazio zerbitzu on samar bat eman zuena. [itzuli]
30. Asociación de Navieros de Bilbao (ANB), gaur egungo Asociación de Navieros Vascoaren aitzindaria, Bilbon sortu zen, 1900eko martxoan. Elkarte horrek Francisco Martínez Rodas izan zuen lehendakari, itsas industriaren bultzatzaileetako bat Bilboko ibaian. ANB zen armadoreen patroik elkarerik garrantzitsuen alde handiarekin, eta ez zuen LMEn sartu nahi izan, nahiz sartu zen, ez arazorik gabe, 1901ean, eta utzi egin zuen 1902an, kide batzuek 1908an sartu zirelarik. [itzuli]
31. Itsas Ligaren Kopako lehen txapelketa Donostian egin zen (Alfonso XIII.a erregea portu hartan egon zen artean) eta Donostiako Klub Nautikoak antolatu zuen. Ikus *La Vida Marítima*, 94. zk., 1904ko abuztuak 10. Lehiaketako ibilbidea triangeluarra izango zela zehaztu zen eta distantzia ez zela 10 miliatik gorakoa izango. Hurrengo urteetan, klub irabazleak antolatu beharko zuten hurrengo urteko lehiaketa. [itzuli]
32. Bazegoen lehendik Errege Kopa nazional bat: 1903an Sportingek Errege Kopa (nazionala) irabazi zuen Bilbon, Erregina Kopa (nazioartekoa) Donostian eta Kantauriko Kopa (eskualdekoa); ikus *La Vida Marítima*, 1903ko ekainak 10. [itzuli]
33. “Nazioarteko multzokako estrupada: Lehenengo multzoa: 0–2 tona. Bigarren multzoa: 2–5 tona. Hirugarren multzoa: 5–10 tona. Ibilbidea: 9 milia”. [itzuli]
34. Luis Touron, *Los barcos de Alfonso XIII. Las regatas de una época (1902–1931)*, Náutica Robinson, Madril, 2017. Touronek dioenez, Alfonso XIII.ak hogeita zazpi ontzi eduki zituen eta ez sei bakarrik, Juan Carlos I.ak uste zuen bezala. Tourónek kontatzeun duenez, Tonino izan zen “Errege-familiaren ontzi gogokoena”. [itzuli]
35. Garaikurra 1973an desagertu zen, Real Club Marítimo del Abraren egoitzak su hartu zuenean. [itzuli]
36. Indalecio Prieto, *De mi vida: recuerdos, estampas, siluetas, sombras...* 2. ed. Oasis, México, 1968, II. liburukia, 161–62. or. Eduardo Alonso Olea, *Historia del Club RCMA-RSC. Real Club Marítimo del Abra. Real Sporting Club (1898–2002)*: “Badakigu txanelaren bizkarrean, oturuntza eder bati amaiera emanez, erregeak bere lehen diskurtsoa inprobisatu zuela; hau da, Gobernuko presidentearen (une hartan, Maura) oniritziarik jaso gabe eman zuen lehena. Prietori eskatu omen zioten idazkari lanaz arduratzeko eta, erregeak hitz egin ahala, takigrafia-oharrak hartzeko. Kopia horixe helarazi omen zuen Indalecio Prietok Gobernuko Presidentziara, bere egunkarira (Heraldo de Madrid) igorri ondoren.” [itzuli]
37. *La Vida Marítima*, 1907ko irailak 10: “[Erregeak] poza hartu zuen aurten Amerikako hiru bailandra eta Alemaniako bat etorri direlako estropadan parte hartzera, eta esan zuen Bilbo hiribururik ospetsuenetako bat izateko bidean dela estropadei esker, eta adierazi zuen hurrengo urtean bere Queen X bailandra Arcachonera bidaltzeko asmoa duela hiri hartan egiten diren estropadetan parte hartzera, horrela Arcachongo yatchmenek beren bailandrak Bilbora bidaliko dituzten esperantzan. Azkenik, aipatu zuen prest zegoela Abran egiten diren proba guztietan pertsonalki parte hartzeko, eta gehitu zuen Sporting [klubaren] ondoan ainguratuta zituenez gain, Osborne eta Dios salve á la Reina balandrak ere Giralda ontzian zeuzkala”. [itzuli]
38. *La Vida Marítima*, 277. zk., 1909ko irailak 10. [itzuli]
39. William Yates (1861–1912), ingeniaria eta Yates & Thom enpresaren jabea, Shepperton-on-Thamesen bizi izan zen, Berkshire, eta Thames Yacht Clubeko kidea izan zen. Nabigatzaile sutsua eta arte bildumagilea, Joseph W. Turnerren (1775–1851) West Cowes, Wight uhartera (West Cowes, Isle of Wight) (1827) izeneko koadroaren jabea izan zen. Itsasoak beti liluratu izan zuen Turner; Errege Akademian 1796an lehen aldiz egin zuen aurkezpena Arrantzaleak itsasoan (Fishermen at Sea) lanarekin izan zen. Georgek, Egremonteko kondeak (1751–1837) the great sea-painter (itsasoaren pintore handia) izendatu zuen. Turnerek Wight uhartera egin zuen bigarren bisita 1826ko udan izan zen, Coweseko lehenengo estropadaren urtean. Hurrengo urtean,



- uztailean eta abuztuan, hara itzuli zen John Nash arkitektoak gonbidatuta. 1827ko estropada hartan estropadaren berrogeitik gora marrazki egin zuen (Cowes Regatta Sketchbook, Turner Bequest, Tate Britain) eta bi olio pintura, Royal Academyn 1828an erakutsiak. [itzuli]
40. Ikus liburuki honetako “Sonderklasse belaontziak” kapitulua. [itzuli]
41. Id. [itzuli]
42. Nabigazioaren munduan “gurutzaldia”ren eta “estropada”ren arteko haustura gero eta handiagoa da, hau da, “paseo” batean joateko diseinatutako barkuen, alegia, gurutzontzi bat, eta lasterka joateko eta estropadak irabazten saiatzeko berariaz diseinatutakoen artean. Gaur egun ez dago jadanik alderik, dena bereganatzen baita laketontzietan, Amerika Kopako ontziak alde batera utzita, non diseinatzaileak beren asmamen guztiaz baliatzen baitira azkartasuna eta ezarritako arauen ahulguneak bilatzen. [itzuli]
43. Eduardo Alonso Olea, “Del yachting a la vela, de los caballitos a la piscina. La sociabilidad de las élites y sus espacios: Club Marítimo del Abra - Real Sporting Club de Bilbao,” *Vasconia*, 33, 2003, 159–190. or., 160. Halaber, ikus Eduardo Alonso Olea, *Historia del Club RCMA-RSC. Real Club Marítimo del Abra*. Real Sporting Club (1898–2002). Real Club Marítimo del Abra. Real Sporting Club, Bilbo, 2002. Beste klubak geroztikakoak dira Golf (1912. urteaz gero) edo Jolaseta (1930. urteaz gero). [itzuli]
44. Ibid. 170. or. [itzuli]
45. Luis Castells y Antonio Rivera Blanco, “Notables e intrusos. Elites y poder en el País Vasco (1876-1923)”, *Nuevos estudios sobre las elites, Historia Contemporánea*, 23. zk., Bilbo, 2001, 658. or. [itzuli]
46. Ikus gaztelerazko liburukiko eranskina edo *addenda*: “Navegantes”. [itzuli]
47. Hala Náuticok nola Sportingek bilera asko egin zituzten neguan Sociedad Bilbainako aretoetan. [itzuli]
48. Castells eta Rivera, 657. or. [itzuli]
49. Ikusi liburuki honetako “15 metro klaseko ontziak” kapitulua eta gaztelerazko liburukiko eranskina edo *addenda*: “Balandras”. [itzuli]

## SONDERKLASSE BELAONTZIAK

Sonderklasse belaontzi seriea Alemaniako hiru itsas klubek —Lübecker Yacht-Club, Norddeutscher Regatta Verein eta Kieler Yacht-Club— diseinatutako itsasketa klase bat da, 1898an Gilen II.a kaisarrak hala eskatuta gauzatu zena. Klase hori 1900ean sartu zen lehen aldiz Kieleko Bela Astearen egitarauan. Nazioarteko maila jaso zuen lehen klasea izan zen, eta hainbat herrialdetan praktikatu zen, adostutako araudi bateratu baten arabera. Eskifaiako hiru kideek ontzia eraiki zen herrialdean jaiotako “marinelak” izan behar zuten. Gainerako erregulazioek honakoak mugatzen zituzten: ontziaren prezioa, belaren tamaina, gutxieneko desplazamendua, taularen lodiera edo eserlekuaren luzera. Sonderklasse deitu zitzaizen —hau da, klase berezia—, nabigatzeko azkarrak eta, aldi berean, barrutik erosoak zirelako<sup>1</sup>. 23 metro pasatzeko luzera zuten gehienek.

Urte batzuk geroago, 1906an, Kiel Yacht Club-ek eta Marblehead-eko (Bostn) Eastern Yacht Club-ek hitzarmen bat egin zuten Sonderklasse ontzien arteko estropada bat jokatzeko AEBetako ekialdeko kostaldean, herrialde bateko eta beste ontziak norgehiagoka jartzeko. 1910ean, Luis Aranak<sup>2</sup> aurkeztu zuen bere burua Marblehead-eko itsas klubak antolatutako estropada horretan, Eduardo de Astigarraga eta Juan Zavala eskifaia-kideekin batera, Sonderklasse motako Chonta ontziarekin. Hil berria zuen anaia Jose Antonio omentzeko modu bat izan zen hori: izan ere, anaia, Sporting Clubeko presidente izandakoak, betidanik izan zuen estropada horretan parte hartzeko asmoa. Hala, estropadaren ondoren, Marblehead jarri zioten izena ontziari<sup>3</sup>.

1914rako mota horretako berrehun belaontzi inguru zeuden Alemanian, Belgikan, Espainian, Frantzia, AEBetan eta Erresuma Batuan<sup>4</sup>. Lehen Mundu Gerrak etenaldia ekarri zuen klase horretako ontzien estropadetan eta eraikuntzan. Klase berezia alde batera utzia izan zen; izan ere, Joko Olimpikoetako bela-estropadetan, metro klaseko ontziak bakarrik onartu ziren. Sonderklasse ontziek, zeramaten banderaren herrian bertan eraikiak izateko derrigortasun horrekin, tokiko ontziolak suspertu zituzten. Nerbioiko Ontziolak, adibidez, 1898ko hondamendiarekin behea jotzeko zorian egon ondoren, 1900ean berriz hasi ziren bete-betean lanean, atoiotzi eta arrantza-ontzi txikiak eraikiz. Estropadetarako bailandrak egiteko lantegi bat ere zabaldu zuten, bikaina, beste enkargu mota batzuk ere erakari zituen. Alfontso XIII.a erregeak berak ontziola horietan eginarazi zituen Giralda II, III, IV eta V yate ospetsuak eta Tonino 6 Metro klaseko ontzia; eta Karlos infanteak, Barandil I eta Barandil II, baita Meckfoub izeneko beste bat ere. José Luis Bayoren Gerineldo (6 Metro klasekoa), Jose Luis Aznarren Pichín edo Pedro Galíndezek Farruca ere ontziola horietan eraiki ziren.

Gero, Bilbon izan ziren horietako asko. Beren edertasun klasiko dotorea eta arintasuna zirela eta, desira- eta kultu-objektu bihurtu ziren klase bereziko belaontzi horiek. 1909an, Espainian erregistratutako 29 Sonderklasse bailandretatik 19 bilbotarrenak ziren, *La Vida Marítima* aldizkariaren arabera (1909/IX/10)<sup>5</sup>.

Abrako Itsas Klubean dauden Arrueren margolanek Rafael eta Jose Maria Yohn anaiek 1907an lortutako garaipena irudikatzen dute: haien ontzia Francis Lewis Clark ingeniari amerikarraren Spokane-ren aurretik sartu zen helmugan<sup>6</sup>. Margolanetako batean, garaileen atzean, Galeako lurmuturrerantz doan 15 Metro bat ageri da. Sociedad Billbaina elkartearen egoitzan dagoen triptikoko paneletako bat sei Sonderklasse belaontzik hartzen dute oso-osorik, sei ikono balira bezala.

Sonderklase klaseko estropadetan maiz parte hartzen zuen beste pertsonaia nabarmen bat Carlos Wertheim alemaniarra —baina bartzelonarra bizitez— zen<sup>7</sup>. Haren ontzia: Ilse II, Max Oertz-ek eraikia Hanburgon<sup>8</sup>. Beste Sonderklase aipagarri batzuk Francis Lewis Clark amerikarraren Spokane eta Arthur K. Stothert eskoziarraren Mariska izan ziren<sup>9</sup>.

Itsasontzien izenek eskifaia-kideen bizitzaren berri ere ematen digute. Horacio Echevarrietak gurasoen izena jarri zion ontzi bati, Cosme y Jacinta, eta gazterik hildako alaba batena, María del Carmen, beste hainbati, hala nola Marichu izenarekin bataiatutako belaontzi ospetsu bati. Cubasko markesak Encarnita jarri zion beste bati, alabarengatik; Francisco Martínez Rivasek Carita izena jartzen zien bere ontzietan, alabaren omenez; Cristóbal de la Quintanak Maguita, emaztearengatik; eta Esparteroren biloba Victoriako dukeak Luchana, aitona Barakaldon irabazitako guduaren omenez. Erregearen Mouriscot bailandrak Biarritzeko Villa Mouriscot etxeari zor dio izena. Bilboko Itsas Klubeko lehen presidente Florencio Schmidt Ansuátegui merkataria, berriz, itsas molusku baten izena jarri zion bere itsasontziari: Chirla. Eta Aranatarrek Amazonasko zur bikaineko zuhaitz baten izenarekin bataiatu zuten beren Sonderklase ontzia: Chonta.

Batzuek euskal hitzak erabili zituzten izenak jartzen orduan. Chávarrik Chirta deitu zion bere bailandrari (bere ezpurutasunagatik baztertua zen burdin meari deitzen zitzaion hala, txirta, baina 1895etik aurrera, mineral purua eskastean, berriro hasi ziren baliatzen hura). Haren anaia Benignok Narria deitu zion bere bailandrari: gurrupilik gabeko gurdi moduko bat da berez narra, gauza astunak herrestan eramateko erabiltzen dena; portuan, adibidez, sareak edo arrainak garraiatzeko erabiltzen da. Andriako dukeak (Pablo Alzolaren eta Juan Gurtubayren alargunaren alaba Blanca Alzolarekin ezkondua) Sirimiri<sup>10</sup> izena ipini zion bere belaontziari, eta Juan Gurubayk berak Baira —euskarazko bairatutik— izeneko bi ontzi izan zituen: Baira I (8 Metro klaseko ontzia) eta Baira II (Sonderklase bat). Zubiriak bizkaierazko hitz bat, Sogalinda —hau da, “sugandila”— hautatu zuen bere ontziaren izentzat. Ramon de la Sota ez zen bakarra izan Goizeko Izarra eta gisako izenak jartzen bere belaontzietan. 1905ean, Itsas Klubean ainguratuta zeuden ontzien artean ez ziren gutxi euskal deituez bataiatutakoak: *Chipli-chapla*, *Gorrix*, *Erramonchu*, *Chirriscla*. 1899an, Victor Chavarrik *Laurac Bat* izena ipini zion bere yateari.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Gaur egun ez bezala; izan ere, New Yorkeko Sparkman & Stephens itsasontzi-enpresa ospetsuaren buru egiten duen Bill Langan jaunak dioen moduan: “ia yate guztiak, handiak zein txikiak, egun argiko marinela dira”. Industriak itsasontzi nekagaitzak eraikitzen ditu oraindik ere, Hornos lurmuturrerainoko joan-etorria egiteko ere apropos askoak, baina kontua da portutik goizean atera eta bueltan direla jada arratsaldean, jabeak hitzorduren bat izaten duelako gauean lehorrean. [itzuli]
2. Luis Arana Urigüen (1874–1951), Dolores Ybarrarekin ezkondua, kirolari petoa izan zen, Athletic Clubeko atezaina (goalkeeper); 1902ko maiatzaren 13an egin zuen debuta, Vizcaya taldearekin. Estropadalari bezala, Errege Kopa irabazi zuen 1912an, Gijonen egindako estropadan, Tonino ontziarekin; 7 Metro klasean, 1913ko Kopa irabazi zuen, José María de Chavarriren Narria ontziarekin, erregearen Giralda III ontziaren aurretik sartuta. 1928ko Amsterdameko Joko Olinpikoetan ere lehiatu zen. Ontzi gogokoena 6 Metro klaseko bat zuen, Cisco izeneko. Izena ontzi-jabearen seme nagusiarenetik zetorkion, FranCISCO-tik —Francisco Javier Arana Ybarra zuen izena, eta txikitik “Cisco” deitzen zioten—, eta ez, askotan ikusi dugun bezala, gaztelaniazko “cisco”-tik (gaztelaniaz, egur-ikatza da “cisco”, eta liburu guztietan agertzen da oker hori, agian haren

- Sonderklase ontziak Chonta izena zuelako, hau da, Amazonako zur mota bat). Familiaren etxeari Casa Cisco (Zugazarte, 61) deitzen zioten: eskandinaviar erako jauregitxo bat da, Manuel Maria Smithek (1909–11) egina. Etxea orube txiki batean estu sartuta dago, baina kokapen ezin hobea du. Gainera, etxe lerro berean dauden eraikinak (Cisco II eta Cisco III, Eugenio de Aguinagak 1948an diseinatuak) hartan inspiratuta daude. [itzuli]
3. Honela eman zuen horren berri garaiko prentsak: “Santanderreko eta Donostiako ordezkariak joan den uztailaren 30ean ontziratu ziren, Cadizko portuan, Montevideo transatlantiko espainiarrean. Ontzi berean joan ziren haien belaontziak—Chonta, Papoose eta Mosquito II—eta haien garbitzeaz eta zaintzeaz arduratzen diren marinelak ere. Espainiako Konpainia Transatlantikoak (Comillaseko markesa da jabea) ez du ezer kobratu nahi izan hiru bailandren garraioagatik. Abuztuaren 10ean iritsi ziren New Yorkera. Marbleheadeko Eastern Yatch Clubeko ordezkariak zain zeuzkaten kaian. Hauek, gero, Metropoli handia ikustera eraman zituzten automobileren herrikideak. Luis Arana, Eduardo Astigarragakoa eta Juan Zavalaz gain, Eduardo Ubao batzordekide eta idazkaria ere izan zen Bostonen. Estropada. 1910eko abuztuaren 17a”. [itzuli]
  4. Gaur egun, 32 yate ditugu zenbatuta. [itzuli]
  5. Hauek dira 1909. urtean Bilbon erregistratuta zeuden Sonderklase ontziak: Baira II, Juan Gurtubayrena; Cabo Noval, Enrique Careagarena; Cerceta, José María Olávarrirena; Chirta, Víctor Chávarerena; Chirtilla, José María Chavarrirrena; Chonta, José A. Aranarena; Churlita, Manuel Aras-Jáuregiren; Dick, José Villalbarena; Kili Kili, Galarza, Ortiz eta Berazatarrena; Luchana, Victoriako dukearena (Esparteroren iloba); Mi Suegra, Juan M. Zabalarena; Spokane, Ubao jaunarena (Manuel Castellanosena gero); Marblehead, Gabriel G. Dueñas eta Luis Aranarena; Papoose, Echeguren Ibarretarren; Princesa de Asturias, Careaga eta Levisontarren; Sirimiri, Andriako dukearena (Blanca Alzolaren senarra); Dios salve a la Reina, erregearena; Ena, erregearena; Santi, erregearena; Mouriscot, erregearena. [itzuli]
  6. Francis Lewis Clark (Bangor, Maine, 1861 – Santa Barbaran desagertua, 1914). Harvardeko ingeniari industrial bat izan zen. Arrakasta handia izan zuen Washingtingo estatuan, non errota handiak, burdin meatzeak eta altzairu lantegiak izan zituen. Spokane-n bizi zen, eta hortik itsasontziaren izena. Santa Barbaran desagertu zen, Kalifornian, emaztea tren geltokian utzi ondoren. America’s Cup estropadaren mezenasetako bat izan zen. Bilbon eta Kielen egin zituen estropadak, Spokane ontziarekin. Aurrerago, Eduardo Ubao (1869–1952) urkiolariak erosi zuen ontzia, eta, gaztetan, zenbait estropadan hartu zuen parte. 1889an, Sporting Clubaren sortzaileetako bat izan zen, eta klubeko idazkaria, urte askoan. Klubeko idazkaria izan zen urte askoan. Abrako Nazioarteko Estropaden antolakuntzan parte hartu zuen sorreratik bertatik (1900). 1938an utzi zuen kluba, haserre, erregearen erretratuaren ordezkari jarria zuten Francoren erretratu kentzeko bere ahaleginak alferrikakoak zirela ikustean. [itzuli]
  7. Carlos Wertheim (1868–1945), gerora Carlos Vallin i Ballin, 1888an etorri zen Bartzelonara, bere aitaren “Wertheim Rápida” josteko makinak Espainian zabaltzera. Horacio Echevarrietaren lagun handia izan zen, baita arte-bildumagilea ere. [itzuli]
  8. Oertzek 60 bat Sonderklase eraiki zituen 1912. urtera arte. Oraindik erabiltzen diren ontzi mota horien heren bat hark eraikiak dira. [itzuli]
  9. Arthur K. Stothert (1862-1929). Glasgowko ingeniari bat izan zen. Glasgowko portuan zuen basea, baina Bedford Gardensen bizi zen (Kensington, Londres). Portuko industrian egin zuen lan: garabiak etab. Konfiantza osoa izan zuen beti William Fife III-k diseinatutako ontzietan, eta ia dena irabazi zuen, 1894tik aurrera Mariska ontziarekin (1908). Hiru denboralditan, 1908-1910 bitarteko urteetan, 44 garaipen lortu zituen, eta 35 aldiz igo zen podiumera. Mariskaren kroskoa garai hartan erabiltzen ziren material konposatuekin eraiki zen: altzairu gozo eta zumar zurizkoak zituen nerbioak (metalezko xafren gainean jarriak); haritezkoa gila; Oregoneko pinu zurezkoa azpiko masta (bere dentsitate handia dela eta, zur hori izeia baina gogorragoa eta zurrunago da, eta horregatik egin zen haren aldeko hautua); Afrikako kaobazko egur kontraxapatuzkoak saihestak. Desplazamendua: 35 tona. Gilan, 20 tona berun zeramatzan. [itzuli]
  10. Juan Carlos I.a erregearen lehen belaontzia Sirimiri izeneko bat izan zen, Udondo ontzioletan eraikitako belaontzi txiki bat, Bilboko erregeale talde batek haren aitari opari emandakoa; ez da Andriako dukearen Sirimiri bera. [itzuli]

## 15 METRO KLASEKO ONTZIAK

Esan bezala, 1907an, Nazioarteko Lehen Araudia sortu zen, Parisen. Frantziak, Parisko Bela Klubaren bidez, eragin handia izan zuen araudi horren idazketan, eta horrela sortu ziren Metro klaseak, XX. mendearen lehen erdian Europan hain arrakasta handia izan zutenak.

Tokiko edo nazioko sistemen ordez Europa osorako kalifikazio sistema bateratu bat ezartzea zen araudiaren oinarritzko ideia. Sistema horren bidez, irizpideak modu unibertsalean bateratzen saiatzen den neurketa-sistema baten arabera eraikitzen dira estropada-ontziak. 15 Metro (Fifteen Meter) klasea ontzigintza modu bat da. Horrek ez du esan nahi belaontzi guztiak berdinak izan behar dutenik, baizik eta estandarizazio egoki bat lortzeko diseinatutako formula espezifiko bat bete behar dutela neurriei dagokienez, lehiaketetan rating delakoa (konpentsazio-faktorea) kalkulatzeko erabiltzen zen formula bat. 15 Metro klaseko ontzien kasuan, “metro” hitzak ez du adierazten —beste klase batzuetan bezala— ontziaren luzera; izan ere, 22 eta 30 metro (98 oin) bitarteko luzerakoak izaten dira ia denak. 1907 eta 1917 artean mota horretako hogeitazera eraiki ziren, eta horietatik lau iritsi dira gaur egunera arte. Ia guztiek nabigatu zuten Bilboko uretan, edo estropadaren batean parte hartu zuten bertan<sup>1</sup>.

15 Metro klaseko ontzien urrezko aroa 1907tik Lehen Mundu Gerrara bitartekoa izan zen<sup>2</sup>. Gerrak aurrera egin ahala, belaontzi horietako asko Suedian eta Norvegia herrialde neutraletara erbesteratu ziren, eta, gero, hango nabigatzaileek erosi zituzten.

Hasieran, britainiar ontzi-arkitektoak gailendu ziren lanbide horretan (lehen aipatu ditugun Fife eta Nicholson, edota Anker, Mylne eta abar), baina frantsesak —Joseph Guedon, Maurice Chevreux— eta alemaniarrek —Max Oertz— ere nabarmendu ziren.

Ontzi horietako gehienak ibili ziren Abrako uretan, bai britainiarrek eta frantsesek diseinatutakoak (horietako bat, Anémone II, C. Maurice Chevreuxek diseinatua eta Cannesen eraikia), bai alemaniarrek diseinatutakoak ere (Senta, adibidez, Max Oertzek diseinatua). Horren eraginez, euskal ontziolak ere (Nerbioiko Ontziolak, kasurako) zeregin horretara jarri ziren, eta Pasaian, Karpard ontziola sortu zuten<sup>3</sup>, onenen artean ibili ziren bi ontzi eraiki zituenak: Hispania eta Encarnita.

1909ko Lloyd's Yacht Register delakoan, “15 Metro kategorian (Wood Sailing Vessel Cutter)”, bederatzita alta daude erregistratuta, horietako hiru espainiarrak<sup>4</sup>: Hispania, Espainiako erregearena, Giralderen bigarren komandante Claudio Alvargonzález edo Enrique Careaga zituela patroia; Tuiga, Francisco Losada de las Rivasena (ehiztari amorratua, Tuiga jarri zion izena ontziari, hau da, “jirafa”, swahili hizkuntzan); eta Encarnita, Francisco Cubas Ericerena.

Azken ontzi hori Joséph Guenon frantziar ingeniariaren diseinuaren arabera eraiki zen<sup>5</sup>. Francisco Cubasen alaba baten omenez (Encarna Cubas eta Urquijo, gazterik hila) zuen Encarnita izena ontziak. Eraikuntza mistokoa zen (haritz-zurezkoa gila, altzairu eta amerikar zumar-zurezkoa armazoia); ontzi-gaineko oholetarako, berriz, Kanadako pinua erabili zuten. Bere garaiko belaontzirik azkarrenetako bat izan zen, eta, 1915ean, bere alabaren heriotzaren laugarren urteurrenaren kariaz, Cubasek Espainiako Itsas Armadari eman zion opari, Itsasketa Eskolako ikasleen ontzi-eskola gisa erabil zezaten<sup>6</sup>.

1910ean, mota horretako beste belaontzi bat ibili zen Abran: Slec (1907ko Shimna), Comillaseko markesak eresia; eta 1914n, María del Carmen Ana izenekoa (kaisarraren Meteor izandakoa), patroia Horacio Echevarrieta zuela<sup>7</sup>.

Echevarrietak beti izan zituen gustukoak alemaniarren ontzi-diseinuak. Interes handia izan zuen itsaspeko batean<sup>8</sup>, eta, oro har, Alemaniatik zetorren ororekiko, haren inguruko beste intelektual bilbotar batzuek bezala: José María Soltura, Juan de la Encina —Hanburgon ikasia zena—, Estanislao María de Aguirre kritikaria, etab. Hala, Gilen II.a kaisarraren Meteor IV zaharra erostea lortu zuen: luzeran ia 50 metro eta 1.371 m<sup>2</sup>-ko haize-oihala zituen belaontzi bat. Metero IV horrek eraberritu egin zituen schooner kategoriako ontziak: bela irristakor banaz hornitutako bi mastako (edo gehiagoko) belaontziak ziren, masta nagusia burualdekoa baino baxuagoa eta bela mota desberdinez osatutako aparailua zutenak.

1923ko abenduan, Virginie Hériot-ek<sup>9</sup> —Grands Magasins du Louvreko oinordekoa— erosi zuen Meteor IV hura. Urtean hamar hilabetez, haren etxebizitza eta lantokia bihurtu zen goleta alemaniarra, orain L’Ailée izendatua. 1924an, ontzi horrekin, Alfontso XIII.aren Urrezko Kopa irabazi zuen Donostian (baita 1929an ere, L’Ailée VI ontziarekin). 1928an, Errege Kopan parte hartu zuen, eta Horacio Echevarrietak ontzia erosi zion. Heriot nabigatzaile mitiko bat izan zen, eta belako urrezko domina irabazi zuen Amsterdameko Joko Olinpikoetan, 1928an. Rabindranath Tagore poetak “Madame la Mer” deitzen zion<sup>10</sup>.

1928ko maiatzean, Echevarrietak Bilbora ekarri zuen ontzia, eta Maria del Carmen Ana izena ipini zion. Hurrengo urteko ekainean, Plymouth eta Santander arteko lehen estropada irabazi zuen, hainbat ordutako aldearekin. Echevarrietak bazuen ordurako garaiko belaontzi azkarrenetako bat, Marichu izenekoa, Cadizko Echevarrieta eta Larrinaga ontzioletan eraikia (gero, 1934an, Gipsy izena ipini zioten<sup>11</sup>, eta izen horrekin nabigatzen du oraindik ere). Espainiako Itsas Armadaren ontzia —Juan Sebastián Elcano fragata— egiteko erabilitako zur mota berarekin egin zen hura ere.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1907an uretaratu ziren lehenak (Ma’oona eta Shimna), eta 1917an azkena (Neptuno). Belaontzi gehienak gaff cutters motakoak ziren, brigantin-belaz hornitutako bailandrak. [itzuli]
2. Oraindik ere lau daude jardunean, behar bezala zaharberriak izan ondoren: *Mariska* (Fife, 1908), *Hispania* (Fife, 1909), *Tuiga* (Fife, 1909) eta *The Lady Anne* (Fife, 1912). [itzuli]
3. Karrpard ontziolak (1905–1914) León Carrasco (artilleriako kapitaina) eta Enrique Pardiñas-en ekimenez sortu ziren, Pasai San Pedroko antzinako errege-ontziolaren inguruan, Portuko Sozietatearen ontzitegiak errentan hartuta. Enpresaren izena bi fundatzaileen abizen zatien elkarketaz sortu zen. Kirol-bailandrak edo laketontziak (6 eta 20 metro arteko luzerakoak) egiten espezializatu ziren. Handik atera ziren, adibidez, Alfontso XIII.aren *Hispania*, 40 tonako desplazamendua zuena, eta Cubasko markesaren *Encarnita*. [itzuli]
4. Egiaz, lau ziren: *Hispania*, Espainiako erregearena, William Fife III-k diseinatua; *Tuiga*, Medinacelliko dukearena, William Fife III-k diseinatua eta Eskozian eraikia (Tuiga, berez, dukearen koinatak gidatzen zuen, Francisco Losada de las Rivasek. 1989an, Monakoko Alberto printzeak erosi zuen, Monakoko Yate Klubaren ontzi intsignia gisa); *Encarnita*, Cubasko markesarena (haren alaba Encarnación Cubas y Urquijoren omenez darama izena, oso gazterik hil baitzen, 18 urte baino ez zituela, 1911ko apirilean), Joseph Guedon eta Delanoy-k diseinatua eta Karrpard ontzioletan eraikia, Pasaian (1909ko *Le Journal de la Marine* aldizkarian agertzen da); *Slec* (aurrerrago, Shimna), Comillasko markesarena, William Fife III-k

- diseinatua eta Alexander Robertson & Sons ontzioletan (Sandbank, Eskozia) eraikia enpresako lehen armadore William Yates ingeniari eta arte-bildumarentzat. [itzuli]
5. Joseph Guedon y Delanoy-k ospe handia lortu zuen bere Trident ontziekin: cutter yacht motako ontziak ziren, 20 metroko luzerakoak. 1892an uretaratu zituzten, Lormont-en (Frantzia). [itzuli]
  6. 1915eko apirilaren 29ko Errege Agindua: “Berorren Gorentasunak, Armadako Itsasketa Eskola honetako ikasleen heziketan laguntzeko, dohaintzan emandako yate eder hau, Encarnita, ezin egokiagoa da gure Armadako etorkizuneko ofizialengan ezinbesteko itsas zaletasuna handitzen laguntzeko. Hori dela eta, Erregeak agindua eman du berorren dohaintza onartua izan dadin, eta, bete beharreko ordenantzak bete ondoren, Itsas Armadak yatea konfiskatu eta Armadako Itsasketa Eskolaren esku utz dezan, bai eta beraren izenean eskerrik beroenak eman dakizkion berorri egindako dohaintza eskuzabal honengatik. Eskerronaren osagarri, Itsas Merituaren Gurutze Handia eman zitzaion aristokratari, 1915eko ekainaren 30eko dekretu bidez”. *Gaceta de Madrid* aldizkarian argitaratua, 1915/VII/15. [itzuli]
  7. Max Oertzek diseinatua eta 1909an eraikia, Kieleko Fr Krupp AG taldearen Germaniawerft ontzioletan, *Meteor IV* lasterketa-goletak 47,14 metroko luzera du; 1914an, *Meteor V* ontziak eman zion segida. Gerra amaitzen, Engelbert Marie Arembergeko dukeak erosi zion kaisarrari, eta *Aar* izena ipini. [itzuli]
  8. 1920 hamarkadan, Horacio Echevarrieta harremanetan ibili zen Alemaniako industriarekin, itsaspeko bat egiteko asmoz. Itsaspeko hori, E-1 (Echevarrieta-1) deitua, gauzatu gabeko beste proiektu batean (Pu-111 modeloa, 1918koa) oinarritu zen. 1926an, Reichsmarine-ko korbeta-kapitain Wilhelm Canaris-ek Echevarrietari eskaini zion proiektu hari segida emateko aukera, Bilbon finkatuta zegoen Guillermo Pasch (1890-1985) ingeniariaren bitartekaritza. Proiektua Turkiaren esku geratu zen azkenean: TCG Gür itsaspekoa. [itzuli]
  9. Virginie Hériot (1890-1932). Gazterik hil zen, bere errautsak Bretoniako kostaldean haizatzeko nahia espresuki adierazita. Haren amak ez zuen halakorik egin nahi izan, baina semeak, handik urtetara, amaren azken nahia bete zuen: 1948ko ekainaren 28an, Itsasketa Eskolako Basque destruktoreak, Virginieri eskainitako azken omenaldi gisa, Brest aldean urperatu zuen haren hilkutxa. [itzuli]
  10. Hériotek, halaber, poema-liburu bat idatzi zuen itsasontzi horren inguruan: *Goélette Ailée, Les Gémeaux* argitaletxea, Paris, 1927. [itzuli]
  11. Gipsy ontzia itsasoan dabil oraindik eta ginebra ezagun bati ematen dio izena. Gehiago jakiteko: <https://gipsy1927>. [itzuli]

## BILBO, INGENIARIEN ETA ARKITEKTOEN HIRIA

Bilbo beti izan da ezaguna bere ingeniariengatik edo Ingeniaritza Goi Eskolagatik. Erakunde horrek (gaur egun ere punta-puntakoa Espainian) 1899an ireki zituen atea, eta lehen promozioak 1904an amaitu zituen ikasketak; Meatzetako Langileburu eta Eskumenekoen Eskola 1913an sortu zen. Dena den, XIX. mendearen hasieratik oso ugaria zen hirian bizi ziren ingeniarien kopurua. 1799an sortu zen Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien zerbitzu zibila, eta ordura arte, Espainiako monarkiak erakunde bakarra izan zuen obra publikoko proiektuak bideratu eta egikaritzeko, hots, Artilleriako Ingeniari Militarren Kidegoa (1711koa), eta Itsas Armadako Ingeniariena (1770), eskumenak zituena portu eta ontzitegi-tako proiektu eta obretan<sup>1</sup>.

Gure historiako pertsonaia ahaztuetako bat ingeniari militar bat da, hain zuzen ere: José Ramón de Urrutia (1739–1803), Zallan jaioa eta Goyak egindako erretratu bikain bat duena Prado Museoa<sup>2</sup>. Urrutia Avellaneda etxeko bigarrena zen<sup>3</sup>; Espainiako Armadako ingeniari nagusi izatera iritsi zen 1797an, eta 1799ko urriaren 28ko Errege Agindu baten bidez, Ingeniari Militarren Errege Kidegoko talde teknikoak (ingeniariak eta artillariak) egituratzeko zeregina esleitu zioten<sup>4</sup>. Francesco Sabatini italiar arkitektoa<sup>5</sup> ordeztu zuen Armadetako ingeniari nagusi gisa. Luis Bermúdez de Castrok honela azaldu zuen Urrutiaren ekarpena: “Bitxiena zera zen, ingeniari gisa egindako bide osoan lagun izan zituela bere erregimentuko indarrak, eta horien artetik atera zituen topografiako laguntzaileak, peoiak, mira-eramaileak eta langile trebeak tresna zientifikoaren erabileran; orduan ez zegoenez ingeniari militarren troparik, esan daiteke lehenak, ez izenez baina bai ekintzaz, Amerikako infanteria-erregimentukoak izan zirela, eta lehen ingeniari militarra (egun horrela ezagutzen duguna) infanteriako ofizial hau izan zen, zeinak bere ibilbide bikain osoan ez baitzuen inoiz utzi tropen agintea; haiekin altxatzen zituen planoak, haiekin eraikitzen gotorlekuak eta errepedeak, haiekin sortzen zituen kuartelak, haiekin egiten zituen azpianak edo lan egiten zuen palaz, behararen arabera, eta hain lan anizkoitza osatzeko, ingeniari hidrauliko gisa ere lan egin zuen... infanteriako ofizial bat eta haren Amerikako erregimentua, ingeniari-erregimentu bilakatua”<sup>6</sup>. 1784an, Urrutiak Gaztelako Kanalaren lanak zuzendu zituen, eta hark egindako Espainia Berriko presondegia militarren marrazki eta planoak Londresko British Museum museoan daude gaur egun.

Bestalde, ulertzekoa da Bilbon era guztietako ingeniariak egotea, Ibaizabalen ezkerreko meatzeengatik ez ezik, baita XIX. mendearen hasieran Madrilen bide, ubide eta portuen arloan bi euskaldun nabarmendu zirelako ere. Bata Mendaroko eraikitzaile maisu baten semea zen, eta bestea, Mañariko arkitekto baten semea.

Lehenengoa José Agustín de Larramendi Muguruza (1769–1848) gipuzkoarra zen, 1799an Koroaren Bide eta Ubideen Ikuskaritzan lanean hasi zena Madrilen. Larramendi José Agustín de Betancourt (1758–1824) ilustratuaren ikasle kuttunena izan zen; Betancourtek eginkizun erabakigarria izan zuen Espainiako obra publikoen teknifikazioan, eta Errusiara joan zen lanera. Larramendi Madrilgo Bide Ingeniarien Eskolako lehen zuzendaria izan zen 1821ean, Hirurteko Liberalean, eta Fernando VII.a hil ostean, berriro aritu zen postu horretan, 1834an, Aduana Zaharrean, La Leña plazatxoan. Larramendiri eta Felipe Bauzá balear itsasgizonari zor zaie Espainiaren banaketa probintzian.

Bestea Francisco Antonio Echánove Echánove (1798–1895) zen. Bide, Ubide eta Portuetako ingeniarien lehen promozioiko kidea izan zen, 1804ko promozioa, Bertancourtena, bost ikasle izan zituena. Larramendiren antzera, Echánove ere zigortu egin zuten liberala izateagatik, baina Bizkaiko Aldundiak “laborantza esperimentaleko” zuzendari izendatu zuen 1829an, burdinoletan hobekuntzak aztertu eta proposa zituan. 1852ko desamortizazioaren ostean, Echánovek San Isidro de Dueñasko beneditar monasterioa eskuratu zuen enkantean, eta nekazaritzan jardun zuen, ia ehun urterekin hil zen arte<sup>7</sup>.



Bi pertsonaia gailen horiez gainera, beste bide-ingeniari garrantzitsu batzuk ere joan ziren Madrilera, hala nola Francisco Echánove Guinea, aurrekoaren lehengusua; Manuel María Chávarri nafarra (1784–1846); eta zenbait bilbotar, Betancourten ikasle Joaquín Monasterio (1778–1835)<sup>8</sup> eta Joaquín de Abaitua (1778–1840), besteak beste, edo Toribio de Areitio Arrugaeta (1807–1868). Itzal handiko beste nafar bat izan zen Francisco Javier de Mariategui (1775–1844), zeinaren arreba Concepción ezkondu baitzegoen Mariano Goyarekin, margolariaren iloba eta Ingeniarien Errege Kidegoko kapitaina, Madrilgo udal-arkitektoa edo arkitekto nagusia izan zena. Eta bere izaeragatik, bereziki nabarmentzen da Agustín Marcoartu Amantegui (1796–1859): Abandoko elizatean jaioa, 1817rako arkitekto-titulua eskuratu zuen San Fernando Akademian, eta Ingeniarien Errege Kidegoko kapitain militarra izan zen. Marcoartu Madrilgo Goi Batzorde Iraultzaileko kide izan zen, Espoz y Minarekin eta Torrijosekin batera. 1831ko huts egindako altxamendu militarrean zirikusia zuenez, Bordelera erbesteratu zen. Haren semea, Arturo Marcoartu, Bilbok izandako ingeniari entzutetsuenetakoa bat izan zen, Leonardo Torres Quevedorekin batera. Azken horren aita Luis Torres-Vildósolaren moduan, Marcoartu aita oso gutxi motibatzen zuen lan burokratikoak, baina interes handia izan zuen proiektu berriei ekiteko, eta bataz zein besteak horixe transmititu zieten semeei, asmatzaile handiak izan baitziren.

Marc Ferri Ramírezek, *El ejército de la paz: Los ingenieros de caminos en la instauración del liberalismo en España (1833–1868)* izeneko doktorego-tesian<sup>9</sup>, honako hau adierazi zuen, zuzen adierazi ere: “Bide Ingeniarien Kidegoa funtsezko korporazioa izan zen, XIX. mendeko Espainian Estatu liberal modernoaren ezarpena ulertzeko. 1833tik aurrerako berrezarpena eta garapena liberalismoaren garapenetik bereizezinak dira, politikari liberalek erdigunean jarri baitzuten obra publikoen garapena”.

Esan dezakegu 1833an Fernando VII.a hil zenetik 1840an Lehen Karlistaldia amaitu zen arte Espainiako bide-ingeniaritzaren historiarako funtsezko hiru gertaera jazo zirela: lehenik eta behin, Bideen Zuzendaritza Nagusia eratu zen 1833ko urrian; bigarrenik, Bide Ingeniarien Eskola sortu zen 1834ko urtarrilean, eta azkenik, Kidegoaren Erregelamendua aldarrikatu zen 1836ko apirilean, eta horren ondorioz Bide, Ubide eta Portuetako Aholku Batzordea agertu zen. Aldaketa horien bultzatzaile nagusia José Agustín de Larramendi izan zen, eta Kidegoko zuzendari nagusiaz gainera, Ingeniari Eskolako lehen zuzendaria ere izan zen (orduan La Leña plazatxoan kokatuta zegoen eskola).

Gogora dezagun 1804-10ean Napoleonek berrantolatu zuela ingeniari-kidegoa (Corps Imperiale de Ponts et Chaussées eta Corps des Mines). Talde hori obra publikoen arduradun nagusi bilakatu zen. Dena den, ingeniarien prestakuntza martxan zegoen 1747an Zubi eta Bideen Eskola sortu zenetik, eta haien egitekoa zen ibaiak bideratzea, ubideak eraikitzea eta portuetako obrak kontrolatzea<sup>10</sup>. Betancourtek eredu hori inportatu zuen Madrilerako, eta ondoren hori bera nagusitu zen Zientzia Fakultatearen barruan, zientzia-eredu alemanari jarraituz ingeniari-zikasketen antolamenduan, ingeniaritza zibileko institutu bereziekin (mekanikoa, hidraulikoa, itsas ingeniaritza, eta ondoren elektrikoa, telegrafikoa, etab.).

Meatzeetako prospekzioez eta lanez gain, eta merkataritza mesedetzeko Bizkaiko bideen berrikuntzaz gain, itsasadarra bideratzeko eta kaiak eraikitzeke lanak hasi ziren, batik bat 1841etik aurrera (aduanak kostara lekualdatzeko Legearekin). 1843an Santa Ana de Bolueta lantegian lehen labe garaiak ireki ziren, eta 1849ko Meatzeen Legeak burdina-mineralaren ustiapen masiboa sustatu zuen; bi faktore horiek ingeniari gehiagoren beharra ekarri zuten. Horri erantsi behar diogu meatzaritzako burdinbideak eta ontziralekuak ere behar zirela, eta pixka bat geroago, 1855eko Burdinbideen Lege Orokor berriarekin, hainbat burdinbide eraiki behar izan zirela, tunel eta zubiekin, eta ondoren ingeniariak behar izan zituztela, halaber, ontziola berrietan, eta energia elektrikoaren beharra ere sortu zela, bai kontsumo hiritarrerako, bai lantegietako kontsumorako.

1812an frantsesek alde egin ostean, Bilboko eta Bizkaiko Aldundiko gizon handiek argi zuten hobetu egin behar zirela Gaztelarekiko bide eta errepideak, baita Bizkaiko hiriburuko portuko instalazioak ere. Jada 1840an, nabigaziorako arriskutsuak ziren banku edo sakonera txikiko puntuak saihestuz itsasadarraren nabigagarritasuna hobetu ahal izateko egin beharreko lanen azterlan partzial bat eskatu zioten Francisco Echánove ingeniariari. Handik urte gutxira, Bilboko itsasadarraren, barraren eta abraren ikuskapen bat egiaztatzeko agindu zioten Agustín de Marcoarturi, orduan Bide Ingeniarien Kidegoko ikuskari nagusia zenari (Sustapen Ministerioaren 1847ko Errege Agindua). Ondoren, 1854an, beste azterlan bat eskatu zioten Luis Torres Vildósolari. Azkenik, 1877an, Bilboko Portuko Obren Batzordeko zuzendari izendatu zuten Evaristo de Churrua, Bilboko portu handiaren proiektua gauzatzeko.

Hona hemen Bilboko beste ingeniari batzuk, edo bilbotarren semeak, XIX. mendearen hogeiko edo hogeita hamarreko hamarkadan jaio zirenak eta garrantzi handia izan zutenak Bizkaiaren garapenean edo Madrilgo estudio eta bulegoetan:

Luis Torres-Vildósola Urquijo bilbotarra (1818–1891) indianoen biloba zen. Bizkaiko Humanitate Eskolan aritu zen, eta 1835ean Bide Ingeniaritza ikasi zuen, Larramendirekin batera. 1867tik 1872ra bitarte Bilbora itzuli zen, Tuteratik Bilborako burdinbidearen zuzendari kudeatzaile izateko. Posta kalean bizi zen, Gortázar Jauregian; bizilagun zuen Manuel María Gortázar, Bizkaiko foru-diputatua. Leonardo Torres-Quevedo semea ere bide-ingeniaria izan zen Parisen eta Madrilen.

Félix Uhagón Aguirrek (1824–1878) kono-enbor formako dorre batez osatutako Matxitxakoko itsasargiaren eraikuntza proiektatu eta zuzendu zuen 1852an. Ondoren beste bat egin zuten: 1908ko urtarilaren 14an hasi zituzten lanak, oinarritzat hartuta beste bide-ingeniari baten proiektua, José Clemente de Ucelay Isasi bermeotarrarena (1868–1951), Ucelay margolariaren aita. Uhagón mende bat lehenago Bilbora iritsitako merkataria frantses batzuen ondorengoa zen. Haren iloba ere, Recaredo Uhagón Vedia (1848–1912), bide-ingeniaria izan zen, eta 1894–1903 bitartean Bilboko ur-saneamenduaren proiektu garrantzitsuari ekin zion, Elorrietan makina jasotzaileen estazio handi bat instalatuz, Algortan hondakin-urak husteko. 1898an ohorezko diploma bat eman zioten Demografia eta Higieneko Nazioarteko Erakusketan. 1906an, Gaztelako Kanaleko zuzendari izatera iritsi zen.

Guillermo Goytia Olaeta (1824–1899) Bilboko abokatu komertzial baten semea zen. Ingeniaritza ikasi zuen Parisko L'École Centrale des Arts et Manufactures eskolan, eta ondoren, Madrilgo Errege Institutu Industrialia ezarri zenean (1850-67), ikasketak baliozkotu zituen, eta 1856ko lehen promozioako hamabi ingeniarietako bat izan zen. 1899az geroztik Campo Volantinen bizi izan zen, Severino de Achúcarrok 1895ean proiektatutako jauregitxo batean, eta udako etxea ere bazuen Portugaleten, El Ojillo. Cecilio Goytia arkitektoaren aita zen.

Arturo de Marcoartu (1827–1904) bide-ingeniaria eta telegrafiaren aitzindaria izan zen; 1869-70ean, Ingalaterra eta Bilboren arteko kable telefonikoaren konexioa eman zioten, eta Bilboko portutik Bartzelonarako linea telegrafiko bat. 1870ean, Uruguaiako Burdinbide Nagusiaren eraikuntzan parte hartu zuen (Montevideotik abiatzen zen). Bakearen Nobel sarirako izendatuta egon zen. Etxea eduki zuen Pilota kalean, eta ia berrogeita hamar urte zituela, Madriletik Bilbora etorri zen, miliziano gisa ideia liberalak babestera hiribilduaren hirugarren setioan, Leonardo Torres Quevedo (1852–1936) asmatzaile ospetsuak egin zuen moduan; azken horrek Madrilgo Bide Ingeniarien Eskola Ofizialean egiten ari zen ikasketak utzi zituen 1873an, eta Luis anaiarekin batera izena eman zuen Bilbo babesteko laguntzaile boluntarioen batailoian<sup>11</sup>.

Adolfo Ibarreta Ferrer (1829–1893) bide-ingeniaria zen, eta 1871z geroztik Euskal Probintzietako ingeniari nagusia izan zen. Areatzako zubia eta Lutxana zein Udondoko zubiak berreraiki zituen. Bilbotik Durangorako trenbidea proiektatu eta eraiki zuen, 1882an ustiatzen hasi zirena. Haren semea, Pedro Enrique de Ibarreta Uhagón (1859–1898), ingeniari lur-neurtzailea izan zen, eta milizia liberalaren kapitaina Bilbon, eta ondoren esploratzailea Argentinan —pertsonea bat, Bizkaitar Mairuaren antzera—; bertan hil zen. Iloba zuen Recaredo Uhagon (1848–1912) bide-ingeniaria.

Amado Lázaro (1831–1902) Lekeitioko itsasargia eraiki zuen 1859an, eta urte hartan bertan itsasadarreko nabigazioa hobetzeko aurreproiektu bat aurkeztu zuen; hobekuntzen artean zegoen Bilbo eta Tuterako arteko trenbidearekin lotutako dartsena handi bat eraikitzea San Mamesen. 1862an Memoria descriptiva sobre Proyecto de Ensanche de la Villa de Bilbao idatzi zuen, hirigintzari buruzko lehen testuetako bat. Lázaro kai eta errepide bilakatu zuen itsasadarren eskuinaldeko zirga-bidea, Areatzatik Campo Volantin eta Deusturakoa.

José Echegaray Eizaguirrek (1832–1916) sustrai euskaldunak zeuzkan, baina Madrilén hezia zen, eta Sustapeneko ministro izan zen. 1904an Literaturako Nobela jaso ostean, Echegaray Tabacalera enpresako presidente izan zen berriro, eta bere lehen bokazioari berrekin zion: Fisika Matematikoko doktorego-eskolei heldu zien Madrilgo Unibertsitatean.

Carlos Orduña Muñoz (Málaga, 1836–Paris, 1903) bide-ingeniaria zen, eta Espainiako komisario nagusia izan zen 1881ean Parisen egindako Elektrizitatearen Nazioarteko Erakusketan; Hortensia arreba Emilio Campuzano ingeniariarekin (Arte eta Ofizioen Eskolako zuzendaria) ezkondu zenean, Bilboko hiriko sare telefonikoen ustiapena antolatu zuen.

Berrogeita hamarrek hamarkadan, Madrilgo Errege Institutu Industrialak ezarri zen, 1867an ireki zuten Madrilgo Industria Ingeniarien Goi Eskola Teknikoaren erakunde aitzindaria. Gaur egun existitzen ez den Trinidad Calzada komentuen behe- solairuan kokatuta zegoen (1835–37an desamortizatu zuten komentua), Atocha kalean, eta Sustapen Ministerioak hartzen zuen eraikinaren gainerako zatia. Handik igaro ziren bilbotar dezente, Paris, Brusela, Lieja edo Londresko ingeniari-eskoletan ikasitakoak, eta bertan baliozkotu zituztenak beren tituluak Madrilén. XX. mendearen hasieran, batzuk Alemaniako ingeniari-erakunde berrietara joan ziren, Fachhochschule eskoletara; horrelakoak eratu zituzten Bremen (1894), Hanburgo (1896) edo Mannheim (1898), baina guztietan lehena Friderician izan zen, Karlsruhe sortua 1825ean. Unibertsitate-eredu alemana, zientzia tekniko aplikatuko institutuekin, eredu arrakastatsutzat hartu zuten Bilbon, “esportazio-arrakastatzat” eta “Alemaniako hezkuntza-panoramaren altxortzat”.

“Una inversión, estudiar en el extranjero: ingenieros españoles del siglo XIX” lan sakonean<sup>12</sup>, honako hau dio Aingeru Zabalak: “Espainian, ingeniari-erakundeak bilakaera zehatza izan zuten. Ikasle-kopurua 1830etik aurrera hasi zen garatzen, eta goranzko joera izan zuen mendearen azken hamarkadara arte. Baina planteamendu orokor horren atzean, planteamendu zuzena, 1830ean kontzeptu guztietan (militarrak eta itsasokoak barne) 13 tituludun izatetik 167 izatera pasatu baitzen 1890ean, mendeko urte oparoena, koituntura zehatzak daude ezkutatuta”.

Berrogeiko hamarkadan jaiotako beste hainbat ingeniari garrantzitsu ere badaude:

Ricardo de Arellano Arróspide (1840–1916), industria-ingeniaria Liejan, Bilboko alkatea izan zen 1872an, eta Sociedad Bilbainako presidentea, 1878an. Haren bizitza Santa Ana de Bolueta fabrikarekin lotuta egon zen,

lehenengo bertako ingeniari eta ondoren presidente izan baitzen; alaba Cecilio Goytia arkitektoarekin ezkondu zitzaion.

Evaristo de Churruca (1841–1917), bide-ingeniaria Madrilen, Mutrikuko lehen kondea izan zen; bertan sortua zen<sup>13</sup>. Trafalgarko guduan heroi izandako Cosme Damián Churruca itsasgizonaren ahaidea zen, eta Bergarako Errege Mintegian ikasi zuen; haren lehen proiektuetako bat Gernikako itsasadarraren kanalizazioa izan zen, 1865ean, baina Bilboko Kanpo Portua eraikitzeagatik da ezaguna, nagusiki.

Pablo de Alzola Minondo (1841–1912), bide-ingeniaria Madrilen, Bilboko alkatea izan zen 1877an, eta Aldundiko burua, 1890ean. 1876an, Zabalgunearen proiektua osatu zuen, Hoffmeyer ingeniariarekin eta Achúcarro arkitektoarekin batera. Diziplina anitzetan aritutako gizona izan zen: poligrafoa, matematikaria, finantzaria, epigrafista eta numismatikaria. 1863an, kalifikazio onekin graduatu zen, 22 urte zituela, eta 21 kideko promozioan seigarren geratu zen; promozioko kideen artean zegoen Evaristo Churruca. Bilbo eta Portugalete arteko burdinbidean parte hartu zuen, Cadagua ibaiaren gaineko zubi handi bat erantsiz, eta Trianoko burdinbidearen amaierako lanetan ere esku hartu zuen. 1892an, *El arte industrial en España* argitaratu zuen, Leopoldo Alas “Clarín” idazlearen laudorioak jaso zituen liburua. Blanca alaba (1889–1962) Juan Gurtubayrekin ezkondu zitzaion.

Mariano Zuaznavar Arrazcaeta (1841–1916), meatze-ingeniaria Madrilen, La Vizcaya enpresako gerentea izan zen, eta “Compañía del Ferrocarril Hullero de La Robla a Valmaseda” konpainiaren sustatzaile nagusia; 1890ean, sozietate horrek bere gain hartu zuen La Robla eta Balmaseda arteko linearen lehen 284 kilometroen eraikuntza, inolako dirulaguntzarik gabe. Atapuerca aurkitu zuen 1868an<sup>14</sup>.

Ernesto Hoffmeyer Zubeldia (1844–1913), bide-ingeniaria Madrilen, erregearen erlojugilearen semea zen. Zabalgunearen proiektua egin zuen 1876an, Alzolarekin eta Achúcarro arkitektoarekin batera, eta Bilboren ur-horniduraz arduratu zen (1879–86).

Torcuato de Barandica Mendieta (1841–1899), meatze-ingeniaria Liejan, Santa Ana de Bolueta lantegiko zuzendaria izan zen. Anaia zuen Manuel Barandica, Bilboko Bankuko zuzendaria (1864–81), baita Bilboko zezen-plazaren eraikuntzaz arduratuko zen batzordekoa ere; hortik ateratako etekinak hiriko ongintzazko aterpeen mantentze-gastuak estaltzeko erabili zituzten.

Gehienak Bilboko merkatari edo eskribauen semeak ziren arren, ingeniarien artean baziren, halaber, ahaide nagusien semeak, hala nola Ramón Adán de Yarza lekeitiarra (1848–1917), meatze-ingeniaria eta geologo bikaina<sup>15</sup>, edo José Manuel Allende-Salazar gernikarra (1856–1923), ingeniari agronomoa<sup>16</sup>.

Eta berrogeita hamarreko hamarkadan XX. mendea markatuko zuen belaunaldia jaiotzen. XX. mendean, meatze-ingeniaritzak edo bide, ubide eta portuetako ingeniartzak Bizkaiko industriaren abangoardia izateari utzi zioten, eta beste batzuk nagusitu ziren, hala nola siderurgiara eta labe garaietara aplikatutako ingeniaritza, edo ontzigitzara aplikatutakoa, edo ingeniaritza berriena, elektrikoa, negoziotzat ulertua, horri esker Espainiako Estatuko ekoizpen hidroelektrikoaren zati handi bat kontrolatu baitzuen Bilbok. Arlo horietako ingeniarien artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

Emilio de Campuzano y Abad de Caula (1850–1938) ingeniari militarra izan zen. Santiago de Compostelan jaiotako geometria-irakaslea zen, eta Karlistaldiaren ostean lizentziatu zen Armadan, eta Bilbon geratu zen,

Francisco Martínez de Rodasen moduan. 1880an ezkondu zen Hortensiarekin, Carlos Orduña bide-ingeniariaren arrebarekin (Carlos Orduñak Orduña y Compañía enpresa sortu zuen 1887an, eta Federico eta José Echevarría Rotaecherekin batera hiriko telefono-sarea instalatu zuen ezker aldean, Barakaldon eta Portugaleten). Campuzano izan zen Bilboko lehen telefono-instalazio horren zuzendaria. 1889an, Bilboko telefono-sarea bihurtu zen, eta Cosme Palacio eta Zuricalday anaiak ere batu zitzaizkien, Echevarriatarrez gain. 1901ean, 50 urte zituela, Bilboko Arte eta Ofizioen Eskolako zuzendari izendatu zuten (1901–32), eta bertan aritu zen 32 urtez; erretiroa hartuta ere soldata osoa ordaindu zioten, egindako lan bikainagatik eskertuz. Campuzano zuzendari izendatu zuten zuzenerako, jada igaroak ziren eskolatik Francisco Durrio, Federico Sáenz, Mateo Inurria, Quintín de Torre, Nemesio Mogrobojo edo Alberto Arr<sup>17</sup>. Campuzano Itsas Klubeko lehen bazkideetako bat izan zen, eta haren seme Manuel, bailandra-gidarietako bat.

Leonardo Torres Quevedo (1852–1936) Torres Vildósola ingeniariaren semea zen, eta Bizkaiko Institutuan ikasi zuen batxilergoa. 1868an, Parisera alde egin zuen, bi ikasturtez ikasketak osatzera (1868–69 eta 1869–70) College Chaptal eskolan, Batignolles bulebarrean; bertan ezagutu zuen Valentín Gorbeña, eta harekin egin zituen, ondoren, bide-ingeniaritzako ikasketak Madrilan. Aitzindaria izan zen automatikaren, zibernetikaren, kalkulagailu analogiko eta digitalen eta irrati-frekuentzia bidezko urrutiko kontrolaren arloetan: Telekine izan zen irrati bidezko urrutiko lehen agintea, hau da, irrati-frekuentzia bidezko urrutiko kontrolerako lehen gailua, 1903an aurkeztu zutena Parisko Zientzia Akademian. 1907an, pertsonak garraiatzeko balio zuen lehen transbordadorea eraiki zuen Donostiako Uliamendian<sup>18</sup>.

Valentín Gorbeña Ayarragaray (1855–1923), ingeniaria Parisen eta Madrilgo Bide Eskolan. Burdinbideen proiektugilea eta eraikitzailea izan zen (Cadagua, Santander-Bilbo, Matiko-Azbarren, euskal-asturiarra), eta Evaristo de Churrucaren ondorengoa izan zen Bilboko portuaren zuzendaritzan (1909–15). Bizkaiko Institututik lagun zuen Leonardo Torres, eta harekin bat egin zuen Parisen eta Madrilan; elkarrekin eratu zuten, jada XX. mendean, Sociedad de Estudios y Obras de Ingeniería sozietatea<sup>19</sup>, aireko transbordadore bat instalatzeko Niagarako ur-jauzien gainean; transbordadorea Bilbon eraiki zuen, 1916an, The Niágara Spanish Aerocar Co. konpainiak. Era berean, Gorbeñak Bilbo-Santander tren-linearako Concordia geltokia proiektatu zuen Severino de Achúcarro arkitektoarekin<sup>20</sup>, 1902an. Halaber, Gorbeñak bultzada eta babes eskaini zizkien energia hidroelektrikoaren arloan sartutako ingeniari berriei, hala nola José Orbegozori (Saltos del Duero konpainia, ondoren Iberduero izango zena) eta Juan Urrutiari (Hidroeléctrica Ibérica, ondoren Hidroeléctrica Española, Hidrola)<sup>21</sup>.

Berrogeita hamarreko hamarkadan jaiotako belaunaldi horretako askok Liejan ikasi zuten<sup>22</sup>; horien artean Víctor eta Benigno Chávarri anaiak, 1878an titulatuak, eta José Tariere kantabriarrak, Bizkaiko Institutuan Víctor Chávarriren ikaskide izandakoak, eta handik gutxira Tomás de Zubirak<sup>23</sup>, eta haien aurretik, Liejan ingeniari zebilen Casimiro Olazábal Ariz gernikarrak (1850–1929) eta Ramón de Aguinaga Arrechea lesakarrak (1854–1933)<sup>24</sup>, Eliodoro de Otadui portugaletetarrak edo Francisco de Ugarte bilbotarrak, aldiz, Bruselan ikasi zuten ingeniariak. Liejan lizentziatu zen, halaber, urte batzuk geroago, Horacio Echevarrieta. Guztiak izan ziren enpresa-kapitain garrantzitsuak, batik bat Trianoko mendietako meatzaritzarekin eta siderurgia-enprekin lotura izan zutenak. Baina, esan bezala, mendearen amaieran beste enpresa batzuekiko interesa zuen belaunaldi berri bat agertu zen, eta horiek guztiek babes eman zioten, Gorbeñak eta Echevarrietak, bereziki. Bi adibide bakarrik emango ditut:

Juan Urrutia Zulueta (1866 –1925) meatze-ingeniaria zen Madrilan; nekazarien biloba eta Urduñako errementariaren semea, Bizkaiko Institutuan ikasi zuen, Bilbon. 1901ean, Eduardo Aznarrek eta José Oruetak gonbidatuta, Hidroeléctrica Ibérica enpresa-proiektua diseinatu zuen, eta bere gain hartu zuen haren ardura,

zuzendari gerente gisa<sup>25</sup>. Kudeatzaile bikain gisa ekarpena egin zien hainbat enpresari, honako hauei, besteak beste: Babcock & Wilcox, Compañía Madrileña de Tranvías edo Gas Madrid. Espainiako hornidura elektrikoko industriaren sektoreko aitzindaria eta liderra izan zen XX. mendeko lehen hamarkadetan.

José Orbegozo Gorostegui donostiarra (1870–1939) jatorri apalekoa zen, eta bide-ingeniaritza ikasi zuen Madril<sup>26</sup>. Ferrocarriles del Norte enpresarekin eta Balmasedako zein Santurtziko udalekin lanean hasi zen, eta 1898an bizilekua Bilbon ezarri zuen, Sociedad Electra-Hidráulica Alavesa sozietatearen zuzendari gisa aritzeko, eta Sociedad Electra Industrial Española sozietateko zuzendari ere izan zen, eta horren ur-jauziak eraiki zituen Jaénen eta Kordoban. 1906an, Sociedad General de Transportes Eléctricos sozietatea eratu zuen Eugenio Grasset, Pedro Icaza eta Horacio Echevarrietarekin batera. Enpresa hori, Bilboko ingeniarien enpresa-aurrekontuetako asko aldatu zituena, 1903an jaio zen, Bilboko hiru industriarik –Eugenio Grassetek, Fernando Celayetak eta Manuel Taramonak– Duero ibaiaren beheko zatia zaldi gainean arakatu zutenean kokaleku hidroelektrikoen bila<sup>27</sup>. Enrique eta Eugenio Grasset Echevarría anaiak (1868–1960) ingeniariak ziren; lehenengoak geltoki ederrak egin zituen burdinazko markesinekin, hala nola Iparraldeko Geltokia edo Príncipe Pío geltokia Madril, Campo Grande geltokia Valladoliden, Burgosko iparraldekoa edo Valentziako iparraldekoa. 1918an, enpresa hori Saltos del Duero zen, eta Grasset eta Icazarekin elkartuta, Orbegozok berrantolatu egin zuen, Horacio Echevarrietaren anbizioaren laguntzaz (ordurako berea zen Saltos del Ter enpresa); azken horrek Banco de Bilbao sartu zuen tartean, Duero ibaiko uren emakidak arakatzeko. Hortaz, energiaren arloko nagusitasunagatik lehian aritu ziren Juan Urrutia ingeniariaren eta Bizkaiko Bankuaren Hidroeléctrica Ibérica sozietatearekin.

Ingeniarien hurrengo belaunaldia oso ugaria izan zen: Gervasio de Artiñano (1873–1938)<sup>28</sup>; Julio de Arteche Villabaso (1878–1960)<sup>29</sup>; Ignacio de Gortázar (1881–1971); Ángel Chueca (1883–1960)<sup>30</sup>; Ramon de la Sota Aburto (1887–1978), ingeniaria Londresen; Víctor Chávarri Anduiza (1888–1970), Trianoko markesa eta ingeniaria Madril; Isidoro Delclaux (1894–1984)<sup>31</sup>, edo, geroago, Javier Arisqueta, Luis Beraza, Luis Delcaux, José Aguinaga Keller (Guadarramako trenbide elektrikoaren egilea) eta beste asko eta asko.

Juan de Echevarría Zuricalday margolariak ere (1875–1931) ingeniariak ikasi zuen Alemanian, eta gauza bera egin zuen Ricardo Gutiérrez Abascal (1883–1963) arte-kritikariak, ondoren Madrilgo Arte Modernoaren Museoko zuzendari eta Mexikoko Unibertsitatean Artearen Historiako katedradun izango zenak. Gogora dezagun, halaber, Francisco Iturrino eta Darío de Regoyos margolariak ingeniarien semeak zirela, eta Regoyosen aita arkitektoa ere bazela.

XIX. mendea errepideak eta portuak modernizatu zituzten bide-ingeniarien talde garrantzitsu batekin hasi zen, eta baten bat arkitektoa ere bazen, Juan Luis de Luzarraga Echezuria mundakarra (1818–1898), adibidez, Bizkaiko arkitekto probintziala eta errepideetako zuzendaria. Horien atzetik etorri ziren industria-ingeniari mordo bat, eta mendearen amaieran ingeniari hidroelektrikoak agertu ziren, kiribil bat eginez burdinolen Erdi Aroko munduarekin, horiek zentral elektriko bihurtuta. Baina bazen zerbait ingeniari polifazetikoen multzo edo talde hartan: oso ongi ulertzen zuten lurraldea, eta kudeaketarako ahalmen bikaina zuten. Enpresa-kapitain haiek beren negozio eta enpresen alderdi desberdinen gaineko ulermen sakona agertu zuten beti, bai barne-kudeaketaren gainekoa, baita Europatik hartutako ezagutza Espainiako testuingurura egokitzeko moduaren gainekoa ere, eta lidergoa erakutsi, eta uste osoko talde leialak sortu zituzten; horrela jardun ziren Martínez de las Rivas eta Chávarritarrak, Echevarrietarrak eta Ramón de la Sota, Urrutia edo Orbegozo. Inguruko profesionalen errespetua eta aintzatespena lortu zituzten, baina baita era guztietako politikariena ere. Baina kudeaketan gutxien aritu zirenek ere aurkitu dute beren lekua historian: Torres Quevedoren Telekinea ingeniariaren historiako mugarritzat (milestone) onartu zuen IEEEk 2006. urtean; urte berean

(2006ko uztailaren 13a), Alberto de Palacioren zubi transbordadorea (1887–93koa)<sup>32</sup> Gizadiaren Ondare izendatu zuen UNESCOk<sup>33</sup>, “Industria Iraultzako burdinazko arkitekturako lan nagusietako bat” dela adierazita.

Laburpen onena honako hauek gogoratzea da: XIX. mendeko Espainiako bi ingeniariak Euskal Herriko arkitektoen semeak zirela; meatzeen jabe ziren herritar haien semeek atzerrian egin zituztela ingeniari-tza-ikasketak (horiek ekin zieten burdinbideei, siderurgiei eta ontziolei); beste ingeniari batzuk Madrildik Bilbora etorri zirela, hiri liberala karlismotik babestera; herrietako beste bizilagun batzuk funtsezkoak izan zirela Espainiako enpresa hidroelektrikoetan, eta bi mugarri geratzen direla: Bilboko portua, Evaristo de Churruga ingeniariarena, eta Zubi Transbordadorea, Alberto de Palacio ingeniari eta arkitektoarena. Palaciok bi ofizioak betetzen zituen, arkitektoarena eta ingeniariarena. Hori bezain garrantzitsua da Bilbok Espainiako arkitekturari egindako ekarpena.

Kapitulu honen hasieran ikusi dugunez, XIX. mendearen hasierako bide-ingeniari garrantzitsuenetako bi eraikitzaile maisuen edo arkitektoen semeak ziren. Ikusi dugu, halaber, Zabalguneko plana bi bide-ingeniariaren eta arkitekto baten arteko lankidetzatik sortu zela eta tren-geltokietako asko ingeniari proiektugileen eta arkitektoen arteko lankidetzaren emaitza zirela. Aipatu ditugu Gasset Echevarría, Otaduy, Olazábal, Otamendi, Goytia edo Palacio anaiak, arkitektoa bata eta ingeniaria bestea. Azken kasu horretan, Alberto de Palacio arkitektoa eta ingeniaria zen: Madrilgo Kristalezko Jauregiaren (1887) arkitektoa izan zen, baita Atochako geltokiarena ere (1888–92), une hartan argi handiena zuen tren-ataria, 48 metroko nabe zentral gangadunarekin, 27 metroko altuera eta 152 metroko luzerarekin. Geltokiaren barnealdean nabarmentzekoak dira espazio garbiak, praktikoak, dekorazio gutxikoak; Alberto de Palaciok bere horretan aurkeztu zuen egitura metalikoa, burdina eraikuntzako material gisa, eta funtzionaltasuna zuen helburu nagusizat. Baina aipatu berri dudanez, haren proiektu garrantzitsuena Portugalete-Araetako Zubi Transbordadorea izan zen, egitura metaliko original bat, altzairuzko marko bakun bat (160 metroko luzera eta 45 metroko altuera dituen), itsasadarraren bi ertzak lotzen dituen eta Bilboko itsasadarrerako ate gisa balio duena nabigazioa eten gabe<sup>34</sup>.

Era berean, 1820ko hamarkadaren hasieran hainbat arkitekto on zeuden Bilbon, Madrilgo Arte Ederren San Fernando Akademian titulatuak, eta hiriarren garapenerako obra publiko garrantzitsuak egin zituztenak, ospitale berria, zubi eseki berria eta espetxe berria, besteak beste. Horietako bat bera ere ez zen bilbotarra:

Antonio de Echevarría (1785–1840) Larrabetzun jaio zen, eta 1824an atera zuen titulua. 1818an, Atxuriko Ospitale Zibilararen eraikuntzan lagundu zuen (zutoin gainean, Gabriel Benito de Orbegozoren diseinuarekin eta Agustín Humaran obrako zuzendari zela); 1825ean, obrako zuzendari izan zen Plaza Barriko lanetan (Silvestre Pérezen diseinua) eta Gernikako Batzar Etxekoetan (1826–33). Ospitalearen traza ez ezik, osasun publikoarekiko sentitzen zuen kezka “ilustratuaren” erakusgai zen, halaber, bainuetxeei begirako interesa, eta planoak diseinatu zituen 1831n eta 1839an El Molinar bainuetxerako (Karrantza, Bizkaia).

Antonio de Goicoechea bermeotarra (1799–1863) 1821ean titulatu zen; Bilboko lehen udal-arkitektoa izan zen, garai hartan hiribilduko maisu nagusi deitua. 1822an, Espainiako lehen zubi esekia eraiki zuen Burtzeñan, eta bost urte geroago, Bilboko zubi esekia, San Frantziskokoa, 1849an (hori da abesti herrikoian aipatzen dena). Goicoechearena zen Bilboko lehen setioaren plano topografikoa (Madrilgo Liburutegi Nazionala, 1835ekoa), eta arkitekto eta merezimenduzko akademiko gisa sinatu zuen. Bermeok arkitekto on batzuk eman zituen hurrengo hamarkadetan: Anasagasti, Arzadun, Ispizua.

Beste udal-arkitekto bat Pedro Belauzarán lekeitiarra (1810–1884) izan zen, 1836an titulatu, eta hark gauzatu zuen Estufa kalea zabaltzeko diseinua; Areatza artifizialki argiztatzeko gasezko kale-argiak asmatu zituen (1848ko urtarrilaren

18a), eta Larrinagako kartzela eraiki zuen, 1871n. Simón Ochandateguik (1818–1880) ere San Fernando Akademian eskuratu zuen arkitekto-titulua; Berangon jaio zen, eta hil zenean, bertako udaletxea eta eskolak eraikitzeke dirua utzi zuen. 1844ko erroldari esker badakigu Bilbon obrako bost maisu eta hamaika arkitekto zeudela, eta zazpi mediku eta hamalau zirujau.

Bilbon merkatari-familietan jaiotako bi udal-arkitekto ere izan ziren: Manuel Naverán Basabe (1812–1884) eta Francisco Orueta Iturrioz (1820–1876). Basabek 1835ean eskuratu zuen arkitekto-titulua, eta matematikako nahiz fisikako katedraduna zen Bizkaiko Institutuan; Arriaga Antzokitik argi elektrikoko probak egiten lehena izan zen. Francisco Orueta Iturriozen semea zen José Orueta enpresaburua eta Kurding Club elkarteko kidea, Memorias de un bilbaíno liburuaren egilea. Beste arkitekto eta idazle bat Sabino Goicoechea (1826–1900) izan zen, Antonio de Goicoechearen semea; El Nervión egunkari kontserbadorea sortu zuen, Gandarias familiak finantzatuta; Abandoko zezen-plaza (1882) eta Espainiako Bankuaren jauregitxo (1885) egin zituen. Juan Luis de Luzarraga Echezuria mundakarrak (1818–1898) 1854an lortu zuen titulua, eta Aldundiko arkitekto probintziala eta Bizkaiko errepideetako zuzendaria izan zen; sekulako lana garatu zuen<sup>35</sup>.

Lehen Karlistaldiaren ondoren, orduko enpresaburu nabarmenena izan zen Cosme Echevarrietaren garai berean, arkitekto-belaunaldi zabala sortu zen. Arkitekturaren irakaskuntzak sistema aldatu zuen. 1757tik aurrera, titulu ofiziala San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiak ematen zuen, Arkitekturako atala eta aretoa baitzeuzkan, lehengo, 1774ra arte, Madrilgo Plaza Nagusian (Casa de la Pandería zeritzonean), eta ondoren, 1847ra arte, Alcalá kaleko Goyeneche jauregi zaharrean. 1844ko erreformarekin, Arkitekturako Estudio Berezia sortu zen, eta 1857an Arkitekturako Goi Eskola bihurtu, eta Unibertsitate Zentralaren mende geratu zen. Arkitekto-belaunaldi berri horretan honako hauek nabarmendu ziren:

Atanasio de Anduiza (1823–1905), 1894an plaza Eliptikoan Víctor Chávarriren egoitza egin zuena Paul Hankar belgikar arkitektoarekin batera; Chávarri haren alaba Soledad Anduizarekin ezkondu zen, 1887an. Anduizarenak ziren Portugaleteko udaletxea (1883) eta jada aipatutako Casa Barco delakoa (1901–14), Felix Chávarrirentzat egina<sup>36</sup>.

Severino Achúcarro (1841–1910), Bilboko 1876ko Zabalgunearen plana egin zuena Alzola eta Hoffmeier kideekin batera; El Sitio elkartearen (1890) eta hiriko hainbat eta hainbat eraikinen egilea izan zen<sup>37</sup>.

Ciriaco Menchaca (1841–1906) Getxoko udal-arkitektoa izan zen, eta Bilboko Institutua egin zuen 1861etik 1863ra bitarte; zenbait indianorentzat lan egin zuen, hala nola José Olózagarentzat, eta harentzat proiektatu zuen familiabakarreko etxe bat Getxon, Etxe Arroza izenez ezaguna. Menchaca iturgin baten semea zen, eta Olózagak, arotza izaki, balioetsi egiten zuen hori. Olózaga, Bilbora aberastuta itzuli zen beste indiano bat, María Eugenia Velázquez y Objórekin ezkondu zegoen; Santo Domingokoa zen (Dominikar Errepublika), eta Kuban ezagutu zuen, gaztetan hara emigratu baitzuen, bere egoera pertsonala hobetzeko itzaropenez.

Joaquín Rucoba (1844–1919) Laredon jaio zen, baina 1883tik 1893ra bitarte Bilbon bizi izan zen, eta udaletxea eta Arriaga Antzokia eraiki zituen bertan. 1894an, Beti Jai pilotalekua eraiki zuen Madrilan.

Edesio Garamendi (1849–1899) Bilboko udal-arkitektoa izan zen 1877tik 1896ra bitarte. 1879an, Rosalía Ordeñanarekin ezkondu zen, Puebla de los Ángelesen jaioa (Mexiko) eta euskal indianoen familia bateko kidea. Garamendik egin zituen Zabalgunekeko lehen Merkaturia eta Concha Jeneralaren kaleko eskolak.



Hiribilduko merkatarien edo ofiziodunen seme ziren arkitekto horiez gainera, baziren beste batzuk noblezia landatarreko familietako kide zirenak, hala nola Luis de Landecho (1852–1941); haren amaldeko aitona Ayerbeko markesa zen, eta hark eginak ziren Hotel Ritz hotela, Madrilgo Zabálburu jauregia eta Bilboko Zabálburu jauregia, Gernikako Kaltzada egoitza eta Mundakako udaletxea. Edo Alberto de Palacio (1856–1939), jada aipatu duguna, kolonietan aberastutako Gordexolako familia bateko kidea.

Bilbok kanpoko arkitektoak ere jaso zituen, adibidez, Luis Aladrén Mendivil aragoiarra (1852–1902), Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregia eraikitza etorria (1900. urtean); harena da, halaber, Montero etxea (Errekalde zumardia, 67. zk.), 1902an eraiki zuena Jean Baptiste Darroquyekin batera.

Hortaz, arkitekturaren arloan erroldako mikroklima berbera zegoen: batzuk hirian bertan hazitako arkitektoak ziren; beste batzuk Bizkaiko herrietatik iritsi ziren; beste batzuk ahaide nagusien familietakoak ziren, eta beste batzuk Espainiako beste leku batzuetatik etorri ziren.

Horrez gainera, azpimarratzekoa da ofizioak jada bazituela zenbait arau eta eskakizun, eta Bizkaiko ia herri guztietan zeudela kalitate aparteko udal-arkitektoak, ondoko elizateetan ez ezik, baita itsasadarraren alde bietako udalerrietan eta Bizkaiko beste eremu batzuetan ere. Bilbon eta probintzian arkitekto ugari zeuden XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendean. Aipa dezakegu, adibidez, Luis Arana Goiri (1862–1951) ideologoak ere arkitektura ikasi zuela Madrilen eta Bartzelonan, eta arkitekto gisa aritu zela, bete-betean politikan sartu aurretik.

Izen garrantzitsuenen zerrenda bat jaso dut, jaiotza-dataren arabera antolatua, eta oharrean haien egindako eraikuntza garrantzitsuenetako batzuk aipatu ditut, azpimarratuz horien ia % 90 udal-arkitekto, arkitekto probintzial edo elizbarrutiko arkitekto gisa aritu zirela uneren batean. Horrek erakusten du Bilbon arkitekto onak egoteaz gain, tokiko politikariek interesa zutela, itsasadarraren bi aldeetan, hiriaren garapena irizpide profesionalarekin kontrolatzeko. Izen hauek nabarmen ditzakegu: Julio Sarazibar, Casto de Zavala, Julián Zubizarreta, José María Basterra, Enrique Epalza, Fidel Iturria, Juan María Olazábal, Mario Camiña, Alfredo Acebal, Emiliano Pagazaurtunda, Gregorio Ibarreche, Marcelino Arrupe, Federico Ugalde, Santos Zunzunegui, Leonardo Rucabado, Guillermo Elguezábal, Juan de Arancibia, Julián Apraiz, Pedro Guimón, Raimundo de Beraza, Manuel Smith, Ricardo Bastida, Victoriano Echeverría, Emilio Otaduy, Rafael Garamendi, Emiliano Amann, Diego de Basterra, Antonio de Araluce, Secundino Zuazo, Pedro Asúa, Adolfo Gil Lezama, Tomás Bilbao, Estanislao Segurola, Juan Carlos Guerra, Manuel Galíndez, Fernando Arzadun, Pedro Ispizua, Fernando Urrutia, Eugenio Aguinaga edo Luis Gana (Gernikaren berreraikuntza, 1939).

Gure hirian lan interesgarriak egin zituzten arkitektoen zerrenda luze horren parekorik ez zegoen Bartzelonan edo Madrilen, baina arkitekto horiez gainera, baziren bigarren mailako beste batzuk, obrako maisuen estilokoak, oraindik elizateetan lan egiten zutenak. Horrelakoen adibide bat zen Luis Arana Goiri arkitektoa, EAJren sortzailearen anaia eta Santiago Arana armadorearen semea<sup>38</sup>.

XIX. mendeko bigarren belaunaldiak buru izan zituen Severino Achúcarro eta Zabalguneari buruzko bere ideiak, eta harremanetan egon zen trenbideetako ingeniariekin, geltokiei, atariei eta geralekuei zegokienez; belaunaldi horren atzetik, Madrilen edo Bartzelonan ikasi zuten profesionalen multzo ugari bat agertu zen. Nahiz eta harreman profesional ona zuten haien artean eta eraikuntzaren arloko ingeniariekin (altzairuarenak lehenengo eta hormigoia-arenak ondoren), kritika irekia eta batzuetan gogorra ere izan zen, hala nola Ricardo Bastidak egin zuena 1923ko azaroan, Bizkaiko Arkitektoen eta Industria Ingeniarien Elkargoko ekitaldi-aretoan emandako hitzaldi batean. Bastidak gauzatzen ari ziren hirigintzaren egoera negargarria salatu zuen, “antolakuntzarik ezaren eta Zabalgunearen diseinu-baldintzen ondoriozkoa”, eta honako hau erantsi zuen: “funtsezko akatsa zera izan da, Alzolak, Hoffmeyerrek

eta Achúcarrok borondate ona izan arren, ez dutela jakin ikusten zer zen urbanizatzea. Landazabala hiri bilakatzera mugatu ziren, eta ez zuten hiria osotasun gisa planteatu, osotasun bat, non parte bakoitza funtzio jakin baterako sortu behar zen, baina multzo baten barruan txertatuta. [...] Auzo berriak etxe-sail bertsuak errepikatuz osatu zituzten, eta hala hiria zabaldu zuten, baina ez zuten haren barnealdea arindu, ezta bizimodua erraztu ere; laukiarekiko obsesioak handitu egin zituen, esan bezala, distantziak, eta leku askotan eraikitzea zaildu zuen, formatu hori ez zelako lursailera egokitzen. Laburbilduz, hemeretzigarren mendeko planteamenduek, interes partikularrek eta etorkizun-senik ezak egoera larri batera eraman zuten hiria bere sorreratik, eta egoera hori konpondu beharra zegoen”<sup>39</sup>.

Ingeniari batzuek asko lagundu zieten arkitektoei, adibidez, Ricardo de Arellanok (1840–1916), 1872an alkate izan zenak denbora laburrez. Monarkikoa bazen ere, Arellano liberal irekia izan zen, eta askotan eman zion aholkua Gregorio Ibarreche jeltzaleari (1864–1933), hori ere alkate izan zena. Erakusketan honetako margolanen sorleku izan zen mende-amaierako Bilbo hartan izandako ontasun hura oso ondo irudikatzen dute zortzi Arellano anaiek, eta horien artean Julio nabarmentzen da, zeina izan baitzen enbaxadorea, Ruben Darío eta beste poeta batzuen laguna, eta oso eskuzabala bere diruarekin. Oso harreman ona izan zen guztien artean: Ricardo Bastidak, katolikoa eta oso sozialista, Amado Gili esker lan egin ahal izan zuen Gerra Zibilaren ostean<sup>40</sup>.

Mendearekin batera lanean hasi zen belaunaldiko arkitektoek berdin eraiki zituzten burgesia aberastuarentzako jauregi bikainak eta etxebizitza-eraikin apartak Bilboko Zabalgunean, baita enpresentzako etxe merke arras duinak ere aldirietan. Eraikinen kalitatea oso handia zen Bilboko arkitekturan, batik bat barnealdeetan, erabilitako egurretan, espazio komunetan, berogailu-, aireztapen- eta saneamendu-sistema berrietan, bainugela eta komunetarako ur hotz eta beroko hoditerietan, argiztapen-sistemetan, sistema elektrikoetan, barne-telefonoetan eta industria modernoaren beste aplikazio batzuetan. Euskal arkitektoak ugariak izan ziren Madrilen ere XIX. mendearen amaieran<sup>41</sup>. Pertsonaia batzuk beren lan zabalarengatik nabarmentzen dira, hala nola Manuel María Smith, Arriluzeko etxe gehienen arkitektoa, baina baita Barakaldoko langile-etxeena ere, edo Ricardo Bastida (1879an jaioa, Smith bezala), Zabalguneko Alondegia egin zuena, eta Banco de Bilbaoren egoitza Madrilen, zeinaren biribilgunea margotu baitzuen Aurelio Artetak. Zenbait izen burgesia aberatsari lotuta zeuden, esaterako Federico Ugalde; bere familiarentzat eraiki zuen Hennebique sistemako hormigoi armatzuko egitura zuen Espainiako lehen eraikina, La Ceres lantegia, 1901ean, eta urte batzuk geroago, 1922an, Grandes Molinos Vascos lantegi itzela Zorrotzan; baina, era berean, Irala-Barri langile-auzoa ere eraiki zuen (1905–17), edo Bilboko Arriaga Antzokia birmoldatu zuen sute baten ostean (1916–18). Luis de Landeok, Arte Ederretan akademiko izendatuak, La originalidad en el Arte hitzaldia irakurri zuen 1905eko ekainean, eta arte modernista kritikatu zuen (“dagoeneko publikoa gogaitzen hasia da, forma zaharrak baino are gehiago”), eta eraikuntzako material berrien aplikazioa goraiatu zuen (burdina pieza xaflatu eta forjatuetan, eta hormigoi armatua). Era berean, Secundino Zuazoren moduko pertsonaiak ere baziren; Zuazok hirigintzarako ikuspegi bikaina zuen, eta Madrilen amaitu zuen, Eduardo Torrojararekin batera Recoletos pilotalekua eraikitzen 1935ean, eta, batez ere, Nuevos Ministerios gunea. Edo pertsonaia barnerakoiagoak, hala nola Fernando Arzadun, zeinak La Equitativa eraikina altxatu baitzuen Madrilen 1928an, edo Kikunbera etxea Bermeon, 1929an, bere familiarentzat, edo Bilbon itsasadarra zeharkatzen duen zubi finena, Erriberako pasabidea, obra berdingabea, 1938an; eta aipa daiteke, halaber, Fernando Urrutiaren lana, haren 1938ko proiektuan oinarrituta eraiki baitzen, Gerra Zibilaren ostean, Bilboko Arte Ederren Museoa, eta langileentzako etxebizitza eder batzuk ere egin baitzuten Gernikan, 1940an.

Gogora dezagun Bizkaiko Arkitektoen Elkarte, lehena, 1893an sortu zela, hau da, margolariak eta eskultoreak biltzen zituen 1911ko Artisten Elkarte baino askoz lehenago. Elkarteko lehen presidentea Anastasio de Anduiza izan zen, eta 1893ko abuztuan Bilboko Udalari egindako eskaera bat izenpetu zuen, Eraikuntzako Udal Ordenantzen artikulua bat aldatzeko eskatuz Elkartearen izenean. 1930ean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala eratu zen, lehen egoitza Sociedad Bilbaina elkartearen eraikinean izan zuena, eta gaurdaino gizarte hobea eraikitzeko beharrezkoa den “gizarte zibilaren” elementu oso esanguratsua izaten jarraitu du. Bilbok ingeniari eta arkitekto ugari eman zituen bi mendeetan,

eta haien obraren zati handi bat oso ongi dokumentatu zuten izen handiko historialariek. Buruz aipa ditzaket zenbait izen: Maite Paliza, Joaquín Cárcamo, José Angel Sanz Esquide, Javier Cenicacelaya, Javier González de Durana, Juanjo Olaizola, etab.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Armadako Ingeniarien Kidegoa 1711n jaio zen, Filipe V.ak Zaragozan sinatutako Errege Dekretu baten bidez (apirileko 11). 1756an, Artilleria eta Ingeniarien Errege Kidegoa eratu zen; 1762an, behin betiko bereizi ziren artilleriako atala eta ingeniariena, eta 1774an hiru adarretan banatu zituzten ingeniariak. Itsas Armadako Ingeniarien taldea 1770ean jaio zen, portuak eta ontzitegiak kontrolatzeko. 1790eko hamarkadan, beste ingeniari batzuk gehitu zitzaizkien: kosmografoak, 1796an, edo bide eta ubideetako ingeniariak, 1799an, ezaugarri zibilak zituztenak, jada. 1802an, zultzaileen eta andeatzaileen erregimentua erantsi zitzaion ingeniarien kidegoari. 1803an, Armadako Ingeniarien Kidegoaren Errege Ordenantza argitaratu zen; kidegoaren bereizgarri ziren instrukzioa eta zerbitzu on etengabeak. [itzuli]
2. Goyak irmo erretratatu zuen, ikusleei begira, zutik, militarrez jantzita eta ezpata handiarekin; eskuineko eskuan topografoaren kataloga darama, eta ezkerrekoan, bastoia eta kapela, eta kapitain jeneralaren gerrikoa darama jantzita; papar-hegalean Errusiar Inperioaren San Jorge Gurutzea bakarrik dauka. Goyak gizon zintzoaren eredutzat zeukan, bere garaikideek bezalaxe. Atzealdean, Bizkaiko paisaia menditsu bat ageri da. [itzuli]
3. José Ramón de Urrutia y de las Casas (Zalla 1739–Madril 1803) 14 urterekin sartu zen Bartzelonako Matematikaren Errege Akademia Militarrean; 1766ko apiriletik 1769ra bitarte Mexikora bidali zuten, eta Espainia Berriko iparraldean bisitatutako hogeita bat presondegiren planoak egin zituen (gaur egun Britainiar Museoa xehatuta dauden planoak); 1784an, Gaztelako Kanalaren obrak zuzendu zituen; 1788an, Balmasedako “ad Honorem” alkate izendatu zuten, eta Indietako Defentsa Batzordeko presidente; 1787tik 1791ra bitarte, Alemanian barrena bidaiatu zuen, eta Errusiako armada bat zuzendu zuen turkiarren aurka. 1797an, Armadako ingeniari nagusi izendatu zuten, eta Bizkaiko Jaurerriko aita. Artilleriako Museoko lehenengo zuzendaria izan zen. Urrutia Madrilen bizi zen, Consejos plazatxoan, bere lagun eta ahaide Simón de Aragorri Olavideren etxean, zeina baitzen Irlandako markesa eta Filipinetako Konpainiaren zuzendaria. Haren oinordeko unibertsala María Uría Alcedo iloba izan zen, Jorge de Sarachagarekin ezkondua. Goyak erretratua egin zion 1789an, eta Prado Museoa dago. Haren espedientea Artxibo Militar Orokorrean dago, eta bertan adierazten da Sebastián de la Cuadra y Larena izan zuela babesle, Villariáseko markesa. [itzuli]
4. 1799ko urriaren 28ko Errege Agindu baten bidez, Urrutia Artilleriako Errege Kidegoko komandante jeneral izendatu zuten talde teknikoetarako—Ingeniariak eta Artilleria—, berrantolaketa berriari ekiteko, eta lana Urrutia hil ondoren eman zen ezagutzera, 1803an. [itzuli]
5. Francisco Sabatini (1721–1797) italiar arkitektoa Errege Lanen maisu nagusia izan zen, Ingeniari Taldeko teniente jeneralaren mailarekin, eta Arte Ederren San Fernando Errege Akademiako ohorezko akademiko ere izan zen. Haren ondorengoa Urrutia izan zen, 1797ko abenduan izendatu baitzuten Armadako ingeniari nagusi. [itzuli]
6. Luis Bermúdez de Castro, “El capitán general don José de Urrutia: preclaro infante, ingeniero ilustre y gran polígrafo militar”, *Ejército* aldizkaria, 1944ko iraila, 56. zk., 49–50. or. Ikusi, halaber: Eric Beerman, “¿Quién era el General Urrutia que Goya retrató?”, *Revista Complutense de Historia de América*, 19. zk., Complutense arg., Madril, 1993, 195–208. or. [itzuli]
7. La Granja del Pasatiempo izeneko etxaldera erretiratu zen (Villargámar, Burgos ondoan), Elena Arcocha emaztearen jabetza batera. Emaztea jatorria Orozkon zuen Bilboko familia aberats batekoa zen. Miguel Delibes idazlearen birraitona zen. [itzuli]
8. Monasteriori buruz, ikusi: A. Albuérne eta S. Huerta, *Coulomb’s theory of arches in Spain ca. 1800: the manuscript of Joaquín Monasterio, en 6th International Conference on Arch*, hemen: Bridges, 2010. [itzuli]
9. *El ejército de la paz: Los ingenieros de caminos en la instauración del liberalismo en España (1833–1868)*, Universitat de València, Valentzia, 2015. [itzuli]

10. La École Polytechnique, Frantzia "X" ezizena jaso zuena, 1794an eratu zuen Konbentzio Nazionalak, Obra Publiko eta Militarren Eskola Nagusia izenarekin. [\[itzuli\]](#)
11. Ikusi liburuki honetako "Karlismoa" kapitulua. [\[itzuli\]](#)
12. Aingeru Zabala Uriarte, "Una inversión, estudiar en el extranjero: ingenieros españoles del siglo XIX", *Quaderns d'Història de l'Enginyeria*, XIII. lib., 2012, 287–347. or., zehazki, 301. or. [\[itzuli\]](#)
13. Horietako batzuk Bilbon lan egiten zuten gipuzkoarrak ziren, eta bertan egin zuten gora, edo Madrilera alde egin zuten: (Mariano Zuaznavar, Pablo Alzola, José Orbegozo, Vicente Machimbarrena, Ramón de Aguinaga, etab.). Vicente Machimbarrena (1865–1949) Bide Eskolako irakaslea eta zuzendaria izan zen. [\[itzuli\]](#)
14. Pedro Sampayo eta Mariano Zuaznavar, *Descripción con planos de la cueva de Atapuerca*, Timoteo Arnáiz, Burgos, 1868. [\[itzuli\]](#)
15. Ramón Adán de Yarza de la Torre Lequerica (1848–1917) jatorria Zubieta Jauregian zuen Lekeitioko antzinako leinu bateko kidea zen. Geologia eta Hobi Mineralen arloko katedraduna izan zen Madrilén, 1905ean. [\[itzuli\]](#)
16. Manuel Allende Salazar y Muñoz de Salazar (1856–1923) Gernikako leinu bateko kidea zen, eta zenbait aldiz izan zen ministro, hala nola ogasun-ministroa Maria Kristina Habsburgokoaren erreginaordealdian, eta Ministroen Kontseiluko presidentea. Era berean, Madrilgo alkatea izan zen 1900. urtean, eta Senatuko presidentea, 1919–21ean. [\[itzuli\]](#)
17. Bilboko Arte eta Ofizioen Eskola 1879an eratu zen, San Andres Eskola zaharraren lokalean (orain Euskal Museoen egoitza), eta Pablo de Alzola ingeniariak bultzatu zuen, kalitatezko gaikuntza teknikoa zuten artistak eta langileak prestatzeko asmoz. Eskolako Zuzendaritza Batzordea karguagatik bi kidek (zuzendaria eta Bizkaiko Institutukoa, Manuel Naverán) eta hamalau kide hautetsik (zazpi korporazio bakoitzeko) osatu zuten. Anselmo Guinea Marrazketako irakasle egonkorra izan zen, eta Vicente Larrea, berriz, Tailaketa eta Modelatukoa. Une hartan erosi ziren antzinako arteko eskultura onenen kopiak, eta Arte Ederren Museora pasatu zituzten (gaur egun Berreginen Museoa daude). Campuzanak zuzendu zuen zentroa, eta berrikuntza interesgarriak egin zituen: emakumeentzako tailerrak antolatu zituen 1906an; ingelesa nahitaezko hizkuntza gisa ezarri zuen 1907an; meatzeetarako kontramaisuak prestatzen hasi zen 1913an, eta, batik bat, marrazketa ofizio guztietarako oinarri gisa ezarri zuen, ez soilik arteetarako oinarri gisa; hau da, marrazketa izan zen oinarria artistentzat, baina baita kontramaisuentzat, meatzeetako perituentzat, elektrikitentzat, etab. [\[itzuli\]](#)
18. Aitak lan-kontuengatik batera eta bestera ibili behar zuenez, Leonardo Torres Quevedok (1852–1936) Concepción eta Pilar Barrenechearen etxean egin zituen hainbat denboraldi umetan, 16 urte bete zituen arte. Pilar Barrenechea Vargaseko markesa zen, eta ezkongabea, eta 1868an Leonardo gaztea izendatu zuen oinordeko bakar eta unibertsal; Leonardok Parisera alde egin zuen. Torresek Bilboko pilotalekuan aurkeztu zuen Telekine proiektua, eta bi aldiz, Abrako Itsas Klubean. Lehenengo esperimentua 1905eko azaroaren 7an egin zen, asteartea, Itsas Klubeko terrazatik. 1906ko irailaren 6an, Alfontso XIII.aren eta jende mordoaren aurrean, Telekinearen erakustaldi bat egin zuen Bilboko portuan. [\[itzuli\]](#)
19. Sociedad de Estudios y Obras de Ingeniería sozietatea. Presidentea: Valentín Gorbeña Ayarragaray; batzordekideak (ia guztiak ingeniariak): Luis Landecho Jordán de Urríes (arkitektoa), Recaredo de Uhagón Vedia, Pedro Chalbaud y Errazquin, José Orbegozo Gorostegui, Leonardo Torres Quevedo; eta idazkaria, José Luis de Goyoaga Ercario (abokatua). [\[itzuli\]](#)
20. Severino de Achúcarro Mocoeroa (1841–1910) Zabalguneko planaren arkitektoa izan zen, eta eraikin ugari egin zituen Bilbon. Haren anaia Aniceto, mediku oftalmologoa, Nicolás Achúcarro Lunden (1880–1918) aita izan zen; Nicolás Alemanian ikasitako neurologoa izan zen, Miguel de Unamunoren ikaslea eta Ramón y Cajalen laguna, eta azken horri garuneko arterioesklerosia diagnostikatu zion, eta bere buruari, aldiz, Hodgkinen gaitza, leuzemia linfositiko bat, heriotza eragin ziona 37 urterekin. Familia honetakoa zen Joaquín Achúcarro Arisqueta (1932) pianista ezaguna. [\[itzuli\]](#)
21. 1992ko abenduaren 12an eratu zen legalki jatorrizko bi enpresa elektriko haien bat-egitetik jaiotako enpresa, eta aurreko bien izenekin osatutako izena hartu zuen: Iberdrola. [\[itzuli\]](#)
22. Meatzaritza Eskola, ondoren Liejako Zientzia Eskola izango zena (Jesuiten Eskolaren antzinako eraikinetan, hiriaren bihotzean), 1836an eratu zuten. 1873an sortua zen Bruselako Unibertsitate Askearen Eskola Politeknikoa, non lau urteko ikasketak egiten ziren ingeniari ez-espezialistak prestatzek. 1890ean, Zientzia Aplikatuen Fakultate bilakatu zen, bost urteko ikasketa-planarekin, eta Meatzaritzako Ingeniaritza Zibileko eta Eraikuntzako Ingeniaritza Zibileko titulua ematen zituen. 1889–90ean bertako ikasle izan zen Francisco Iturrino margolaria. [\[itzuli\]](#)
23. Tomás de Zubiria Ybarrak (1857–1932) Liejako Ingeniaritza Eskolan ikasi zuen; XX. mendearen hasierako nabigatzaile handietako bat izan zen. Bizkaiko Labe Garaietako presidentea izan zen ia 30 urtez, eta urte berberak egin zituen beste konpainia handietako bat zuzentzen: La Sociedad Española de Construcción Naval, "La Naval" izenez ezagunagoa.

- Beste enpresa batzuk ere eratu zituen, hala nola Bizkaiko Bankua, 1901ean; Compañía Marítima del Nervión ontzi-enpresa, 1907; Sociedad Arriola, Arisqueta y Cía. sozietatea, 1920an, eta Tubos Forjados enpresa metalurgiko garrantzitsua. [\[itzuli\]](#)
24. Ramón de Aguinaga y Arrechea lesakarra (1852–1933) bide-ingeniaria zen, eta ezkondu zegoen Carolina Keller Mezquirizekin (1861–1935). Teknikari proiektugilearen lanak bitartekari, agente sustatzaile eta enpresa-kudeatzaile gisa egiten zituen lanekin lotzen zituen. 1894an, Sociedad de Aguas de Arteta sozietatea sortu eta zuzendu zuen, elektrizitatea ekoizti eta Iruñera ur edangarria bideratzeko; haren koinata, Federico Keller Mezquiriz (1868–1940), Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria izan zen (1893an amaitu zituen ikasketak), eta Burgosen bizi zen. [\[itzuli\]](#)
  25. 1901ean, Juan Urrutia meatze-ingeniaria buru zuen enpresaburu-talde batek Bizkaiko Banku sortu berriaren (hiru hilabete lehenago eratu zuten) babesa lortu zuen, Bizkaiko hiriburuan Hidroeléctrica Ibérica sozietatea eratzeko. Kapital soziala 20 milioi pezetakoa zen, eta horrek argi erakusten du itzaropen handia zutela ordurako Ebron emakidak zeuzkan proiektu hartan. [\[itzuli\]](#)
  26. 1906tik 1918ra bitarte, Orbegozok elektrizitateko enkarguak egin zituen Papelera Española eta Unión Española de Explosivos enpresentzat, Bizkaiko Labe Garaientzat, Banco de Bilbaorentzat eta hainbat trenbide-konpainientzat. Ez dugu nahasi behar Ambrosio Orbegozo Zubiriarekin (1797–1864), zenbait aldiz izana Bilboko alkate eta 1833ko setioan nabarmendu zena, San Agustin komentua babestu eta berreskuratzeko lanetan. Busturiko San Mamés zeramikalantegian parte hartu zuen. 1854an, Ybarra familiarri saldu zion Barakaldon zuen aisialdirako etxea, “Punta” izenekoa, Nuestra Señora del Carmen lantegia instalatzeko. 1857an, Bilboko Bankuko lehen zuzendari-gerentea izan zen; bankua bere bulegoan bertan kokatuta zegoen, Estufa kaleko 7. zenbakian. José Orbegozo Orbegozo pneumoniak jota hil zen, 1939ko lehen egunean, Kreuzlingeneko erietxean, Suitzan; bertan zegoen, azken urteetako tentsioak eragindako depresiotik suspertzeko. [\[itzuli\]](#)
  27. Alvaro Chapa Imaz, *La construcción de los Saltos del Duero, 1903–1970: Historia de una epopeya colectiva*. EUNSA, Iruñea, 1999. [\[itzuli\]](#)
  28. Artiñanok La arquitectura naval española (en madera). Bosquejo de sus condiciones y rasgos de su evolución idatzi zuen, 1920an argitaratua. Gerra Zibilean hil zen Madrilén, Txileko Enbaxadan babes hartuta zegoela. [\[itzuli\]](#)
  29. Julio de Arteche Villabaso (1878–1960) ingeniaria eta bankaria izan zen, eta Banco de Bilbaon txandakakoa izan ez zen lehen presidentea. Zollon jaiotako José María Olábarri Massinoren (1849–1924) suhia zen. Saltos del Duero euskal enpresa elektrikoaren hastapenetan parte hartu zuen, baita herrialdeko paper-industiaren hastapenetan ere. Francok Artecheko konde izendatu zuen 1950ean. Anaia, Antonio Arteche Villabaso (1880–1962), Gorteetako diputatu izan zen Burgosko ordezkari gisa (1905–18, liberala; 1920–23, ezker liberala); Alfontso XIII.ak Bunieleko markesaren titulua eman zion 1916an, jabetza landatar ugari bereganatu baitzituen Burgosko herri horretan, non haren aitak, José María Arteche Osante balmasedarrak (1849–1905), Bizkaiko Aldundiko presidente izandakoak (1892–1894), lur asko erosi zituen (430 hektarea ingururen titularrak), Keller Arquiaga anaiek eta Aguinaga Kellertarrek egin zuten moduan. Artechetarrek, sortzez bizkaitarrak, jabetza ugari eskuratu zituzten, bai nekazariei erosita (orduan “jabetza sakabanatua” zeritzona), bai aurretik desamortizatutako lurak erosita (bereziki Elizari). [\[itzuli\]](#)
  30. Ángel Cirilo Chueca Sáinz (1883–1960) industria-ingeniaria zen Bilbon 1903an, eta aitzindaria izan zen egitura metalikoen sorkuntzan, eta automobilgintzaren sustatzaile handia. Lehen lana Beasaingo Compañía Auxiliar de Ferrocarriles sozietatean izan zuen; bere aitaginarrebak eratu zuen, Francisco Goitiak. Haren lehen nagusia José Orueta Pérez de Nenin izan zen, Memorias de un Bilbaíno lanaren egilea, tren-bagoiak fabrikatzen zituen Sociedad Anónima Talleres de Zorroza sozietateko zuzendaria. Juan Benet idazle eta ingeniariaren lehengusu ziren Fernando Chueca Goitia arkitektoaren eta Carmelo Chueca Goitia ingeniariaren aita zen. [\[itzuli\]](#)
  31. Isidoro Delclauxek (1894–1984) Bergarako Errege Mintegian egin zuen batxilergoa, eta ondoren Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen, eta 1914an, Londresko Pittman School eskolan. Luis Delclaux Maqueel ingeniari frantsesaren biloba zen; hark instalatu zuen, 1841ean, ikatz begetalezko lehen labe garaia Santa Ana de Bolueta fabrian, burdina metalikoa ekoizteko. [\[itzuli\]](#)
  32. Alberto de Palacio y Elissague (1856–1939) arkitektoa eta ingeniaria zen, eta haren aita, Gordexolako Sandamendi auzoan jaioa, Mexikon aberastu zuen. Gurasoak gazte hil zitzaizkienez, Alberto eta haren anaia Silvestre (1855–1921), hura ere ingeniaria, Epalzarren tutoretzapean egon ziren; haiek ere indianoak ziren. Bartzelonan ikasi ostean, 1882an Parisera alde egin zuen, sakontasunez ikastera burdinaren arkitektura berria. 1887an, El Retiro parkeko Kristalezko Jauregia eraiki zuen (1887ko Filipinetako Erakusketako pabiloi-estufa), eta 1888–92an, berriz, Atochako Geltokia (Madril). Era berean, hegazkintzarekiko interesa ere izan zuen. Gerra Zibilean, Mexikoko Enbaxadan babes hartzea lortu ostean, Frantziara

- ihes egin ahal izan zuen 1937an, eta handik Bilbora itzuli zen 1939an; Areetako etxean hil zen. Bitxikeria bat: hil zenean, hilotzak txalupaz zeharkatu behar izan zuen itsasadarra Portugaleteko hilerria joateko, zubia suntsituta zegoelako. [itzuli]
33. Ikusi <http://whc.unesco.org/fr/list/1217>. [itzuli]
34. Zubiak 61 metroko burdinazko lau dorre ditu, bi itsasadarraren alde bakoitzean, eta 160 metroko luzera duen langet batek lotzen ditu itsasgoraren mailatik 45 metrora. Burdinazko piezak errematxe bidez elkartuta daude, itsasontzien estiloan. Alde bakoitzak lau euste-kable dauzka (bihurdura txandakatuko altzairu arinekoak), eta horiek zimendatze-blokeetan ainguratuta daude, dorreetako bakoitzetik 110 metroko distantziara. Ibilgailuak eta bidaiariak ontzitzo batean garraiatzen dira; ontzitzoa langetaren errailetatik “burdin-bideetan” bezala mugitzen den orga batetik zintzilik dago. Hasieran, lurrunezko motor bat erabili zen ontzitzoa mugitzeko, jatorrian burdina, egurra eta olana erabili baitziren hura eraikitzeko; gaur egun, motor elektriko bat erabiltzen da. Ikusi Kosme de Barañano, “Alberto de Palacio y el Puente Colgante”, Eusko Ikaskuntza, 1. zk., Donostia, 1982, 201–07. or.; eta “El Puente Trasmontado de Alberto de Palacio”, Centenario de Palacio (J. J. Arenasekin eta Sir Norman Fosterrekin batera), Euskal Herriko Arkitekto Teknikoen Elkargoa, 1993, 24–31. or. [itzuli]
35. Anaia zaharrenak, Manuel Antonio Luzarraga Echezuriak (1796–1855), alde egin zuen Mundakatik, eta Guayaquilen finkatu zen, merkataria eta kontsignatario gisa, eta portuko kapitain izendatu zuten 1820an. Haren langelan biltzen ziren beste euskaldun batzuekin batera (Llona, Letamendi, Olmedo, Febres-Cordero, Villamil, Urdaneta eta beste batzuk), independentistekin bat egin zuen, eta gizon itzaltsua izan zen Ekuadorreko independentzian, eta nazio horretako lehenengo bankaria. 1849an, Deskontu Bankua edo Luzárragaren Etxea sortu zuen, Ekuadorreko finantza-erakunde zaharrena. 1854an itzuli zen jaioterrira, bisitan, eta kasualitatez Cádizen hil zen, 1855ean. [itzuli]
36. Atanasio de Anduiza bermeotarrak (1823–1905) 1847an eskuratu zuen titulua, Madrilen, eta 1886-94an plaza Eliptikoko Chávarri jauregia egin zuen, Paul Hankar belgikarrarekin batera. Chávarri jauregia Daniel Escondrillas Abásolok handitu zuen [ondoko pabiloia (1901) eta eraikinaren zabaltzea (1908)]. Anduiza Alzolak zuzentzen zuen Batzorde Liberaleko kidea izan zen 1884ko apirilean. Víctor Chávarri haren alaba Sole Anduiza Goicoechearekin ezkondu zen Abandoko San Bizente elizan, 1887an. [itzuli]
37. Ikusi kapitulu honetako 20. oharra, Achúcarro familiari buruzkoa. Federico eta Enrique Borda arkitektoen osaba zen. [itzuli]
38. Luis Arana Goiri 1862ko abuztuaren 25ean jaio zen, 1872–73 altxamendu karlistarekin konprometituta zegoen familia batean, eta, ondorioz, Baionan eta Donibane Lohizunen hartu behar izan zuten babes 1873tik 1876ra bitarte. Zortzi anai-arreba ziren. Luisek Urduñako jesuiten barnetegian ikasi zuen, eta arkitekturarako prestatzeko ikasketak, aldiz, Laguardiako jesuiten eskolan (Pontevedra) egin zituen 1880an, eta ondoren Bartzelonan. Santurtzin hil zen, 1951n. Gorka Pérez de la Peña Oleaga historialariak honela laburbildu du arkitekto honen lana: “Luis de Arana arkitekto bikaina zen, Euzkadiko arkitektura garaikideko bikainenetako bat, nortasun propioarekin egindako interpretazio baten emaitza den lan-multzo apartagatik, funtsezko hiru estilotan egina: euskal estilo berria, Art Déco eta Arrazionalismoa. Formakuntza eklektiko sendoko arkitektoa zen, eta horrek aukera eman zion lan egin zuen urteetan nagusitu ziren joera estilistiko desberdinak erraz bereganatu eta bateratzeko”, Luis de Arana y Goiri: un arquitecto desconocido, 1862–1893–1951, Deia, 2014ko urtarrila. [itzuli]
39. “El problema urbanístico de Bilbao”, Ricardo Bastidak 1923ko azaroaren 17an Bizkaiko Arkitekto eta Industria Ingeniarren Elkargoko ekitaldi-aretoan emandako hitzaldia, hemen aipatua: Paloma Rodríguez-Escudero, Memoria descriptiva sobre el proyecto de ensanche de la villa de Bilbao. Amado de Lázaro. Ingeniero de CC y PP. Reproducción del texto original del año 1862, Eusko Jauriaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila, Bilbo, 1988, 120–21. or.; eta El problema urbanístico de Bilbao, conferencia de Ricardo Bastida 1923 (introducciones de Nieves Basurtoen, Eduardo Leiraren eta Darnián Queroren hitzaurreak), Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala, Bilbo, 1991, 77–95. or. [itzuli]
40. Bilboko historian ia erabat ahaztuta dago Julio Arellano (1846–1909), Casa-Arellanoko markesa 1908an eta Vienako enbaxadorea 1907an. Margarita Foxá y Calvo de la Puertarekin ezkondu zen, Casa Calvoko markesarekin, eta senar-emazteek Espainiako Gobernuari dohaintzan eman zioten Oficios kalean zuten etxea, bertan ezar zezaten Kubako Enbaxada Espainian. Habanako Arte Ederren Museoan Margaritaren erretratu bat dago, Vicente Palmaroli margolariak egina. Hil ostean ere egin zizkioten erretratuak Margaritari, Moreno Carbonerok 1905ean eta Joaquín Sorollak 1906an. Biak daude lurperatuta Parisko Père Lachaise hilerrian, eta plaka batek honela dio: “Sebastian CALVO CASA-CALVOko markesa sortzez Habanako Parisen zendu zen 1820an Margarita FOXA CALVO CASA-CALVOko markesa Erroman jaioa Parisen zendu zen 1904ko abenduaren 14an JULIO de ARELLANO Arrospide CASA ARELLANOko markesa eta CASA CALVOko alarguna Espainiako enbaxadorea Vienan Carlos III.aren Isabel

Katolikolikoaren eta Austriako Leopoldoren Gurutze Handia Frantziako Ohorezko Legioaren Komendadorea etab etab Bilbon jaio zen Madrilén zendu zen 1909ko maiatzaren 5ean”. [itzuli]

41. Honi buruz, ikusi saiakera interesgarri hau: Estíbaliz Ruiz de Azúa, *La Congregación de San Ignacio: El asociacionismo vasco en Madrid en el umbral del siglo XX*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpenak, Gasteiz, 2018, 98–117. or. [itzuli]

## Burdinbidea

Burdinbidea agertu eta zabaldu izanaren ondorioz —beste arrazoi batzuen artean—, Europako hiriek hazkunde ekonomiko handia izan zuten XIX. mendean, eta herrialdeen arteko merkataritza eta pertsonen joan-etorria nabarmen handitu zen. Burdinbidea ekonomia nazionalen eragile bihurtu zen, bai bere garapenerako behar zuten industriarengatik, bai berekin zekartzan abantailengatik. Burdinbideak Ingalaterran eta hango Iraultza Industrian izan zuten jatorria. Errail gaineko lurren-makinaren ideia (zamak garraiatzeko bagoiei esker zamari bidezko garraioa ordezkatzeko aukera emango zuena) XIX. mendearen hasieran azaldu zen lehen aldiz, Galeseko meatzeetan, eta bidaiariak garraiatzeko lehendabiziko tren-linea, Manchester eta Liverpool artekoa, 1830ean ireki zen.

Gailentzen ari zen industria-iraultzaren sinbolo bihurtuta, burdinbidea 1820ko hamarkadatik aurrera garatu zen Frantzian. Trenbideak egiteko eta geltokiak eraikitzeke lanek goitik behera eraberritu zuten Parisko mapa. Frantziako hiriburua sei tren-konpainia garrantzitsuenen sare nagusiaren erdigune bihurtu zen. 1850eko hamarkadaren erdialdera, Baionaraino, Tolosaraino, Clermont-Ferranderaino, Marseillaraino, Basilearaino edo Dunquerquearaino joan zitekeen Paristik trenez. 1830etik aurrera —1842an Frantzian trenbideak hedatzeko ezarritako Legea betez—, estatuak trenbide-lineen multzo koherente bat eman zien enpresa handiei, eta erdigunea Parisen zuten amaraun itxurako trenbide-sare bat eratu zen hala.

Bilbo aldean, eskala txikian agertu zen burdinbidea, meatzaritzari lotua. Laster ikusi zen, ordea, garraio bide berriak oso aukera onak eskaintzen zituela merkataritza-iturriak (artilea, ardoa, etab.) eta hiria elkarrekin lotzeko. Bilbok Parisko komunikazio-sistema imitatu zuen, eta hiribilduko agintariak berehala ohartu ziren trenbidea zela hiribilduaren eta bere Zabalgunearen arteko komunikabide naturala.

Bilboko burdinbideen zero linea Bilbo eta Balmaseda arteko burdinbidearen proiektua izan zen. 1831n egin zen proiektu-proposamena, hau da, munduko lehen trenbidea (Liverpool-Manchester, 46 km) inauguratu eta urtebetera. Ekimen hori Pedro Novia de Salcedok bultzatutako “Igalako Plana” delakoan sartu zen, baina, urtebete geroago, Lehen Karlistaldiarekin, bertan behera geratu zen burdinazko bidea eraikitzeke asmoa. Novia de Salcedok argi ikusi zuen ezinbestekoa zela hiribildua —Balmasedan barrena— Gaztelarekin konektatzea, Bilboko portuaren esportazioak (Gaztelako artilea eta irina) areagotu nahi baziren. Novia de Salcedo, nolabait, Friedrich List (1789–1846) alemaniar enpresari eta ekonomia-teorilariaren parekoa izan zela esan dezakegu. Izan ere, Listek aurkeztu zuen, 1833an, Alemaniako trenbide-sarearen lehen zirriborroa, artean trenbide bakar bat ere ez zegoenean. 1871. urtera arte —Reicharen sorrera arte— ez ziren martxan jarri lehen burdinbide-zerbitzu pribatuak; Bilbon, Bigarren Karlistaldira arte<sup>1</sup>.

Espainiako lehen trenbidearen historia ez zen bere lurralde penintsularrean hasi, itsasoz haraindiko kolonietan baizik. Gaur egungo Kubako errepublikan (Espainiako probintzia bat zen orduan), hain zuzen, 1837ko azaroaren 19an, Habanaren eta Bejucal-en arteko linearen inaugurazioarekin. Espainiaren orduko lurraldean eta Iberoamerika osoan eraiki zen lehen trenbidea izan zen hura; Amerikako bigarrena eta munduko laugarrena. Espainia penintsularrean, lehen trenbidea, Bartzelona eta Mataró arteko linea, 1848an ireki zen; Madril-Aranjuez linea, berriz, 1851n.

la hogeita hamar urte itxaron beharko da Bilbo burdinbideari erabat lotu baino lehen. 1854an, Espartero-O'Donnell koalizio-gobernua eratu zen, 1855eko ekainaren 5eko Burdinbideen Lege Orokorra xedatu zuten Gorte Konstituziogileak deitu zituen. Hortik sortu ziren burdinbide-konpainia berriak eta trenbide nagusiak eraikitzeko aginduak. 1857koa da Bilbo-Tutera trenbide-proiektua, Bizkaiko hainbat erakunderen, merkataritzaren sektore tradizionalekin lotutako taldeen eta euskal ekonomiaren barruko elementu aktibo berrien ekimenetik sortua. Bilbon ordura arte eratutako enpresarik handiena izan zen hura, 65 milioi pezeta harpidetu baitziren berehala. Bilboko lehen tren-geltokia eraiki zuen, Abandoko geltokia (garai hartan udalerrri independentea zen Abando), 1863ko martxoaren 1ean, Bilbo-Urduña trenbide-tartea irekitzeaz batera.

Hurrengo urtean, Norteko Konpainia sortu zen (gaztelaniaz, Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España, CCHNE), Espainiako hiriburua Frantziarekin lotzeko sortutako enpresa bat<sup>2</sup>. Lineak (633 km-ko trenbidea) Madril eta Irun lotu nahi zituen, Valladolidetik, Burgosetik eta Mirandatik barrena igarota; Bilbotik igarotzen zen ibilbide-proposamena atzera bota zen. Urte batzuk lehenago, 1845ean<sup>3</sup> Diputazioko, Udaleko eta Merkataritzako Errege Batzarreko ordezkariak Madrildik Irunerako linea eraikitzeko baimena eman zitzaion. Trenbideak Burgostik Bilbora joan behar zuen, eta Bilbotik Irunerainoko bidea kostaldeari jarraituz egin behar zuen, Deban barrena. Ibilbidea, baina, aldatu egin zen hurrengo urteetan. Lanak 1864an amaitu ziren, euskal probintzietako kapitalaz gain atzerriko diru asko ere erabilita. Bilbok bere lurraldearekin eta Espainiako gainerako lurraldeekin trenbidez lotzearen aldeko apustua egin zuen, eta, alde horretatik, garbi ikusi zuen, Lehen Karlistaldia amaitu zenetik, hainbat hobekuntza-lan egin beharko zituela, aurrera egingo bazuen: kale guztietan galtzada-harriak jarri, ibaiertz eta portu-eremu guztiak txukundu, itsasadarraren bi ertzen artean zubi gehiago eta hobeak eraiki, eta munduko gainerako herrialdeekin trenbidez lotu. Bilbok ingeniariak behar zituen, eta Bilbok ingeniari asko zituen. Hiribilduko agintariek argi zeukaten beren merkataritza- eta industria-lerroak auzoko nekazaritza-ekonomiaren eta zerbitzuen kudeaketa eraginkorren mende zeudela, bazekiten lurraldea ongi antolatu eta komunikatu beharra zegoela, eta hiriaren komunikabide naturala burdinbidea zela.

Lurrin-makinak bideak laburtzen zituen, gurdi soil batek baino askoz zama handiagoa eraman zezakeen, eta, lehen aldiz, zamariek tiratutako garraio-bideen abiadura gaintzen zuen.

Bilbon, Britainia Handian bezala, meatzeetan hasi zen erabiltzen trenak. Lurrin-makina, errailak eta bagonetak Galesen agertu ziren lehen aldiz, 1804an, Richard Trevithick-en lurrin-lokomotorra aurkeztu zenean. Ezkerraldean, 1863 eta 1877 artean, hainbat trenbide egin ziren, Desertutik, Lutxanatik edo Sestaoko hondartzatik Trianoko mendietara, Galdameseko mendietara, Errekatxora eta Cuadroko mendietara, Conchako meatzeetara eta Orconerara, denak mea garraiatzeko; Trianorako lehen trenbidea izan ezik, Aldundiak eraikia, pribatuak ziren guztiak. Bai Trianoko trenbidea (1865), bai Bilbotik Portugaleterakoa independente mantendu ziren, harik eta 1940ko urteetan RENFEk beretu zituen arte. Estatuko errentagarrienak izan ziren, nonbait, urte askoan<sup>4</sup>. Hauek dira XIX. mendearen bigarren erdialdean Bilbon martxan jarri ziren bidaiari-trenak. Dena dela, batzuk —Bilbo-Portugalete (1888) eta Bilbo-La Robla (1902), kasurako— mistoak ziren, bidaiariez gain mea ere garraiatzen zuten:

**1863.** Bizkaian trazatu zen lehen trenbidea Bilbo-Tutera (Castejon) artekoa izan zen: 1857an eman zen lanak egiteko baimena eta 1864an inauguratu zen. Konpainia arduradunak Compañía del Ferrocarril de Tudela a Bilbao izena hartu zuen, eta Bilbon sortu zuen lehen tren-geltokia, Abandoko geltokia (udalerrri independentea zen garai hartan Abanto), 1863ko martxoaren 1ean, Bilbo-Urduña arteko trenbide zatia irekitzeaz batera. Linea hori 1855eko Trenbideen Plan Orokorrean sartu zen; izan ere, Bilboko portua nazioarteko salerosketarako bigarren sukurtsaltzat hartu zen, Irunen ondoren, Errioxako eta Nafarroako ekoizpenari eta Gaztelako goi-lautadakoari (Urduña eta Miranda Ebrotik barrena) irtenbidea emateko. 1856an, Tutera-Bilbo lineak lanak hasteko onespina jaso zuen, eta Luis de Torres Vildósola eta



Enrique Alar bide-ingeniariaren esku utzi zen proiektuaren idazketa. Lineak Ebro ibaiaren ibilbideari jarraitu behar zion, Miranda de Ebron Madril-Irun linearekin bat egin arte, eta handik, Urduñan barrena, Bilboraino eta porturaino segitu. 1878an, Norteko Konpainiak erosi zuen. Hiribilduko orduko gertakari aipagarrienetako bat lokomotor britainiar berrien aurkezpen-ekitaldia eta erakusketa izan zen. 1863ko martxoaren 1ean egin zen aurkezpena, Abandoko geltokian, eta ikusmin handia piztu zuen herritarren artean. Lokomotorrek karrozerian errematxatutako xaflatan idatzita zeramaten izena: “Vizcaya”, “Rioja”, “Burgos”, “Álava”, “Bilbao”, “Logroño”<sup>5</sup>.

**1864.** Bigarren burdinbidea Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España (CCHNE) izan zen, Norteko Konpainia izenez ezaguna, 1858ko abenduaren 29an eskritura publiko bidez sortua. Konpainiak Madril eta Irun lotu nahi zituen, 633 km-ko trenbide baten bitartez, Valladolidetik, Burgostik, Mirandatik barrena igarota; Irunera Bilbotik eta Debatik barrena iristeko proiektua, berriz, bertan behera gelditu zen. Lanak zortzi urte geroago amaitu ziren, 1864an, euskal probintzietako kapitalaz gain atzerriko diru asko ere erabilita. Bigarren Karlistaldian, karlistek eraso eta sabotaje ugari egin zituzten Gipuzkoako trenbide-zatiaren aurka. Madrilgo geltokia —Estación del Norte edo Príncipe Pío deitua, Enrique Grasset Echevarriaren<sup>6</sup> diseinuaren arabera eraikia— 1882an inauguratu zen. 1877ko Trenbideen Legeak —Cánovas del Castelloren gobernuak promulgatuak— beste bultzada bat eman zion XIX. mendearen azken herenean burdinbideak izan zuen hedapenari.

**1882.** Hirugarren trenbide-linea Bilbo-Zornotza-Durango trenbidea izan zen, Bizkaiko Trenbide Zentralaren Konpainiarena (1880an sortua), Pablo de Alzola ingeniariak zuzendutako proiektu baten arabera gauzatua. Trenbidearen 20 kilometroetan zehar zeuden geltokiak Luis de Landecho arkitektoak diseinatu zituen. Atxuriko lehen geltokia (1914) Sabino Goicoechea arkitektoarena da; berria, Manuel Maria Smithena. 1888tik aurrera, Amorebieta-Gernika trenbidearekiko lotura egin zen, 1893an Sukarrietara iritsi zen, eta 1955ean, Bermeora. 1906an, Ferrocarriles Vascongados izenpean bateratu ziren lehendik trafiko konbinatua eta baterako ustiapenak zituzten hiru lineak: Bizkaiko Trenbide Zentralaren Konpainia (Bilbo-Durango), Durango-Zumarraga trenbidea (1884) eta Elgoibar-Donostia trenbidea (1891). Durango-Zumarraga trenbideak Madriletik Irunerako trenbidearekin, hots, Norteko Trenbidearekin, lotzen zuen Bilbo.

**1887.** Laugarren trenbide-linea Bilbo-Areeta-Plentzia trenbidea izan zen, Adolfo de Ibarreta ingeniariaren proiektuaren arabera gauzatua, eta Errege Familiak 1887ko uztailaren 1ean inauguratua<sup>7</sup>. 1871n, Sociedad Viuda de Máximo Aguirre e Hijos sozietateak Bilbo eta Algortako Avanzada arteko trenbidearen eraikuntza sustatu zuen; 1883an, Ezequiel Aguirrek Areetarako trenbidea ustiatzeko emakida lortu zuen, Aguirre-Coste familiak akziodun nagusi zirela. 1895–1905etik aurrera, Getxoko inguru horretako eraldaketa-prozesua hasi zen, eta bainuetxe-estazioa zena bizitegi-auzo bihurtu zen. Gero eta jende gehiago hasi zen bertan bizitzen, eta bainuetxearen eraikina Itsas Klubaren egoitza bihurtu zen. Areeta-Plentzia trenbidea 1893an hasi zen ustiatzen. 1901ean, Santander-Bilbo Burdinbide Konpainiak bereganatu zuen. Trenbide-linea horrekin batera, tranbia-linea batzuk ere ireki ziren (zaldiek tiratuta, hasieran): Bilbo-Areeta eta Bilbo-Algorta, 1876an (1897tik aurrera elektrifikatuak). Dakigunez, 1898. urtean, Bilbo-Areeta tranbia elektrikoak 1.700.000 pertsona garraiatu zituen. Lehen geltokia, 1887an, San Agustín aldean zegoen, egungo udaletxearen atzean; 1904an, Valentín Gorbeñak Alde Zaharrera hurbildu zuen geltokia, Aduanako eraikineri, eta horri esker asko handitu zen erabiltzaile kopurua: 850.000 ingurukoa 1901ean, milioi eta erdikoa 1906an.

**1888.** Bosgarren trenbide-linea Bilbo-Portugalete trenbidea izan zen. 1871n, Bilboko Erripa kaitik Portugaleterainoko trazatuaren ustiapen-emakida eskatu zuen Federico de Solaeguik. 1881ean onartu zuen emakida, proiektuaren egilea Pablo Alzola bide-ingeniaria zela. Alzolak Bilboko La Naja eta Portugaleteko La Canilla geltokiak eginak zituen ordurako, baita burdinazko bi zubi ere, Galindo eta Kadagua ibaien gainean. Tren-zerbitzua 1885ean jarri zen martxan, Deserturaino hasieran, eta Bilboraino 1888an. Portugaleterainoko trazatua (12 kilometro) ibaiaren paralelo zihuan<sup>8</sup>.

1895ean, Cantalojastik Olabeagarainoko adarra inauguratu zen —Basurtu, La Casilla eta Errekalde auzoak banatuz—, Tuterako-Bilbo linearekiko lehen lotunearen alternatiba gisa, La Najako kaiaren inguruko instalazioetan barrena. Portugaletetik Santurtziko kanpoko porturainoko linea ez zen luzatu 1925era arte. Bilbo-Santurtzi tranbia 1882tik zegoen martxan, eta 1896an elektrifikatu zen, Espainiako lehena. Madrilen 1898ko urrian agertu ziren lehen tranbia elektrikoak<sup>2</sup>.

**1890.** Seigarren trenbide-linea Kadaguako trenbidea izan zen. Lineak Zorrotzan hasi behar zuen —Bilbo-Portugalete trenbidea auzo horretan zuen geltokian—, eta auzo hori Enkarterrietako hiriburuarekin lotu, Balmasedarekin, alegia. Proiektua Victor Chavarrik, Manuel Allendesalazarrek, Enrique Arestik eta Ramon Bergék aurkeztu zuten, 1888ko maiatzean, Diputatuen Kongresuan, 58 harpidedunekin. Lineak urtean 96.000 bidaiari garraiatzea aurreikusten zuen, baina zerbitzua martxan jarri eta lau urtera, 219.504 garraiatzen zituen.

**1894.** Zazpigarren trenbide-linea Santanderetik Bilborako Trenbideen Konpainia izan zen, aurretik sortutako konpainia bat (Zallatik Solareserako Trenbide Konpainia) beste birekin (Kadaguko Konpainia eta Santandarretik Solareserako Trenbidearen Konpainia) bat egitean sortua. Bat egitearen ondorioz, konpainia berriak Santandarretik Bilborako Trenbideen Konpainia izena hartu zuen (Compañía de los Ferrocarriles de Santander a Bilbao).

**1894.** Zortzigarren trenbide-linea Bilbo-La Robla burdinbidea izan zen, Europako bide estuko trenbiderik luzeena: 335 kilometro. 20 milioi pezetako aurrekontua izan zuen. Trenbide-zati nagusia, La Robla eta Balmaseda artekoa, 1894ko abuztuaren 11n inauguratu zen, proiektua aurkeztu zenetik lau urtera; Balmasedatik Bilborako zatian Santander-Bilbo burdinbidearekin partekatzen zuen bidea. 1900. urtean, Balmaseda eta Lutzana artean, beste trenbide-adar bat eraiki zen, trenbide nagusia Bizkaiko Labe Garaiekin eta itsasadarreko kaiekin lotzeko. Leon eta Palentziako meatzeetako ikatza Bizkaiko siderurgia-industriaraino bertaraino eramatea zen haren helburua.

**1894.** Bederatzigarren trenbide-linea Bilbo-Lezama burdinbidea izan zen: Luis Torres Vildósola ingeniariak proiektatutako trenbide honek Begoñarekin eta Lezamarekin lotzen zuen hiria, eta Lutzana-Munguia trenbide-linearekin elkartzen zen Sondikan (Lutzana-Mungia burdinbideak Erandio eta Mungia herriak lotzen zituen 1893tik, eta 1894–1975 bitartean bere osotasunean funtzionatu zuen). Trenbidearen lehen 15 kilometroko zatia egiteko lanak 1891n hasi ziren, eta Mallona Galtzadarako igoeran izan zuen geltoki nagusia. 1894ko maiatzaren 2an, Lezamatik Begoñako geltokirainoko linea inauguratu zen, baina handik Galtzadarainoko tartea ia urtebete atzeratu zen, 1895eko martxoaren 30era arte, geltokiko lanetan sortu ziren zailtasunegatik, hain zuzen. 1905etik aurrera, kapera bat eraiki zen Derioko hilerri berriari zerbitzua emateko<sup>10</sup>.

Burdinbidegintzan, eztabaida teknikoa handia egon zen ingeniarien artean, trenbide-zabalera egokienaren inguruan: Adolfo Ibarreta versus Pablo Alzola, bide estuko trenbidea versus europar zabalerako trenbidea. Ibarretak nahiago zuen zabalera metriko txikiagoko trenbidea (zabalera metrikoa = 1.000 mm), meategietako eta industrietako trenak erabiltzen zutena, bi arrazoiengatik: batetik, modu naturalagoan gainditzeko dituztelako zailtasun orografikoak (malda handiko tarte laburren bidez, trazadura bihurtzeko eta zailago inguruetan); bestetik, bide zabaleko trenbideak egiteko lanak askoz garestiagoak izaten direlako (gastu handiagoa tunel eta zubi-bideetan). Bide zabaleko bi trenbide ditugu: Bilbo-Tutera eta Bilbo-Portugalete (1.672 mm), batetik, eta Trianoko meatze-trena, pixka bat estuagoa (1.650 mm), bestetik. Gainerako guztiak zabalera metrikokoak dira (1.000 mm), hau da, bide estuko trenbideak<sup>11</sup>.

Trenbideek zeinek bere amaiera-geltokia edo linea buruko geltokia behar dute, eta geltoki horiek garrantzi historiko, soziologiko eta estetiko handia dute hiribilduaren barruko hiri-konfigurazioan, dagokien funtzio tekniko soila gainditzeko duen garrantzia. Trenbidea bera eta zubiak berak bezala, Bilboko XIX. mendeko garapen industrial eta

urbanistikoaren elementu bereizgarrietako bat dira geltokiak, eta bide-ingeniariaren eta arkitektoen elkarlanaren erakusgarri, gainera.

Tren-geltokia XIX. mendeko udal eraikuntzaren asmakizun bat izan zen, Burtsaren edo Operaren eraikinak bezala. Geltoki horiek front-ends geltokiak, termini geltokiak edo amaiera-geltokiak ziren, beren embarcadère edo nasarako pasealekuarekin, trenbide-eremuarekin, eta harrera-atari handiekin. Geltokia bâtiment bat zen, tren-konpainiarekin publizitate edo ikur gisa balio zuen eraikin gotor bat. Parisek, 1837an, Gare Saint-Lazare aurkeztu zuen, Paris-Saint-Germain-en-Laye trenbidearen linea buruko geltokia, Alfred Armand arkitektoaren<sup>12</sup> eta Flachat ingeniariaren arteko elkarlanaren emaitza; 1840an, Gare Montparnasse, Paris-Versailles trenbidearen linea buruko geltokia, débarcadère edo nasa izan zuen lehena (1840), baita lehen bâtiment eraikina ere, 1859an; 1846an, Gare du Nord edo Norteko Geltokia, 1864an bâtiment batez hornitua; 1849an, la Gare de l'Est edo Ekialdeko Geltokia, François Duquesney arkitektoaren eta Sermet ingeniariaren elkarlanaren emaitza; eta 1849an, Gare de Lyon geltokia, 1900ean bâtiment batez hornitua<sup>13</sup>.

Lehen geltokia Abandoko elizateko garai hartako “Balmasedarako bidean” eraiki zen (gaur egungo Hurtado Ametzaga kalean)<sup>14</sup>. Hogei urte eskasean, Bilboko hiri-sarean bederatzita trenbide-linea eta sei geltoki gehiago eraiki ziren. Bakar bat ere ez Pariskoak adinakoa, baina irtenbide espazial interesgarrikoak denak. Arkitektura-lan horiei buruzko pertzepzio estetikoak gustu kontua da, jakina, eta gure garaikoa haietara itzultzeko bidean da dagoeneko, baina, denboran atzera begiratuta, ezin ukatu abangoardiako arkitektura-lanak izan zirela bere garaian. Croquis Parisiens lanean, honela laburbildu zuen horri buruzko bere iritzia, 1879an, Joris-Karl Huysmansek: “Egun, argi ikusten dugu literaturak eta pinturak izan duten bilakaera; arkitektura-diseinu modernoaren nondik norakoak ere susma ditzakegu. Monumentuak hor daude: Gare du Nord, Les Halles, La Villette ganadu-merkatua eta Hipodromo berria eraiki zituzten arkitekto eta ingeniariak arte-modu berri bat sortu zuten, antzinakoa bezain garaia, garaikidea goitik behera, eta erabat ezabatu zuen ia zura, lurra ematen dizkigun lehengaiak, fabriketatik eta etxeetatik burdin urtuaren boterea eta arintasuna hartzeko”<sup>15</sup>.

Abandoko eremu horretan, urte gutxitan, beste zenbait geltoki eraiki ziren (Concordia eta La Naja, bata bestearen ondoan), baita Sociedad Bilbaina elkartearen eta Burtsaren eraikin berriak ere. Han zuen hasiera Zabalguneko ardatz nagusiak, Kale Nagusiak, San Mames aldean (Miserikordia etxea, Athletic Clubeko futbol-zelaia) amaitzen zenak. Geltokien azpian, Olabeagako ainguralekua zegoen, trenbide-geltokia eta mea zamatzeko bi toki erraldoiren kai bihurtuko zena.

Bilbo, 1857an, merkataritza- eta meatze-portu handi bat izateaz gain, finantza-zentro handi bat ere bazen, Banco de Bilbao banketxearen sorlekua. Burdinak, ugaria eta kalitate onekoa baitzen, Bizkaiko industria siderurgikoaren garapena bultzatu zuen, Bilbon bertan eta inguruko eskualdean. Lehen labe garaiak 1848an inauguratu ziren, eta altzairu-ekoizpenaren hedapenaren ondorioz, 1902an Bizkaiko Labe Garaiak sortu ziren. Hiriak bere burua eraberritu nahi izan zuen: horretarako, pasealekuak eta zumardiak egin zituen, kanporantz zabaltzeko aukerak aztertu zituen, liburutegi eta ospitale hobek eraiki zituen, biltegi eta saneamendu berriak, eta trenbidea bultzatu zuen garraibide eta komunikabide nagusi gisa. XIX. mendea amaitzerako, beraz, Bilbok trenbide-sare trinkoa zuen; trenak pribatuak ziren denak, eta Bilbon zuten geltoki nagusia. Hala, itsasadarraren bi ertzak hainbat trenbide- eta tranbia-lineaz lotuta geratu ziren: Bilbo-Areeta (1887), Bilbo-Portugalete (1888), Areeta-Plentzia (1893). Bizkaiko lurraldearen gainerakoarekin ere ondo lotuta zegoen Bilbo.

— Bilbo-Durango (1882), gerora Sukarrietaraino (1893), Zumarragaraino (1889) eta Donostiaraino luzatua (1901);

- Bilbao-Balmaseda (1890), Santanderreraino (1898) eta Castro Urdialeseraino luzatua;
- Bilbo-Lezama eta Bilbo-Mungia

Baita Espainiaren gainerakoarekin ere:

- Bilbo-La Robla, León
- Bilbo-Tutera
- Bilbo-Madril

Alde horregatik, XIX. mendeko Bilbok ez zituen uneko arazoak konpondu, aurrea hartu zion etorkizunari, gerora begira eraiki zuen<sup>16</sup>.

Azkenik, gogora ekarri nahi nuke tren-konpainia horiek guztiak Bilboko ekimen pribatuaren ondorio izan zirela. Bide-ingeniariek proiektatu zituzten trazadurak, haiek konbentzitu zituzten agintariak, ahaldunak, merkatariak eta enpresario berriak trenaren onurez. Haietako batzuk, gainera, konpainia horietako akziodunak edo kudeatzaileak izan ziren. Beste batzuek ahaleginak eta bost egin zituzten geltokiak Zazpikaleen Bilbora hurreratzeko. La Najako geltokia, Concordiakoa eta Abandokoa Alzolak trenak itsasadarraren ertzeraino eramateko egindako ahaleginaren emaitza dira. Torres Vildósolak ere ahalegin berezia egin behar izan zuen, bai konposizioari, bai trazadurari dagokionez, geltokia Mallona Galtzadan sartzeko. Berdin Gobeñak, Areetako trenbidearen linea buruko geltokia San Agustin ingurutik Aduanaren eraikin zaharrera (Itxaropen kalea) hurbiltzeko.

Hildako bilbotarren gorpua tren ez eramanen ziren Derioko hilerria (1902), baita herritarrak santu guztien eguneko bisitara ere. Enpresario batzuek beren tren-bagoia zeukaten, propio eginarazia: José Martínez de las Rivasek, adibidez, JMR areto-bagoia zeukan, La Bombonera deitua, eta hartan egiten zituen bere joan-etorri pribatuak, trenbide-sarean zehar. Eta beste batzuek hileta-egunerako erabili zuten trena<sup>17</sup>. Francisco Zabálburu, adibidez, Madrilen hil zen, 1897ko urtarrilaren 2an, eta haren gorpua tren ez eramanen zuten Bilbora. Garrantzi handiko gertaera soziala izan zen hura hiriarentzat<sup>18</sup>. Victor Chávarriren gorpua —Marseillan hil zen— Bizkaiko Trenbide Zentralaren Konpainiaren tren batean iritsi zen Bilbora, 1900eko apirilaren 1ean. Atxuriko geltokitik San Nikolasera eraman zuten, eta handik Portugaletera, tranbia elektronikoan. Portugaleteko hilerria lurperatu zuten. Santiago Martínez de las Rivasen gorpua ere —bere buruaz beste egin zuen, Madrilen, 1906an— tren ez iritsi zen Bilbora<sup>19</sup>, eta Vista Alegren lurperatu zuten, non Bilbo, Madril, Sestao, Portugalete eta Getxoko enpresariak eta nabigatzaileak bildu baitziren.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1911 inguruan, adibidez, Alemaniako estatuen diru-sarren batez bestekoa burdinbide-konpainiei esker izan zen, Bizkaiko Aldundiarena Trianoko Trenbideari esker izan zen bezala. Deutsche Reichsbahn burdinbide-sare estatala ez zen 1920ra arte eratu. [itzuli]

2. 1858ko abenduaren 29ko eskritura publikoa. [itzuli]
3. 1845eko abuztuaren 16ko Errege Agindua, Euskal Kontzesioa deitua. [itzuli]
4. 1865: Trianotik Deserto-Bilborako trenbidea, meatzeetaraino bertaraino iristen zen (205.000 tona mineral garraiatzen zituen urtean). Luzera: 8 kilometro. Ingeniariak: Antonio Goicoechea eta Jose de Llano. Aldundia izan zen Trianoko trenbide-linearen emakidaduna, eta mea garraiorako erabili zuen soilik, zerbitzua martxan jarri zenetik bertatik (1865). Trenbideak Nerbioi ibaia —Nerbioi eta Galindo ibaien elkargunea— eta Ortuella lotzen zituen, Trianotik gertu. 1865–72 urteen artean, Ortuellako deposituak handitu ziren. Laurogeiko urteetan, kontratu bat sinatu zen Matamorosko Unión y Amistosa meatzeetako jabearekin, Martínez Horiez gain, Desertutik Amistosa meatzerainoko aire-tranbiak zeuden; edo Galindotik Begoña meatzerainokoak, Trianoko mendietan; besteak beste. [itzuli]
5. Tren-makinak britainiarrak ziren, Eskoziako William Fairbairn etxeokak, eta 1etik 6ra zenbakituta zeuden. Horiez gain, Ingalaterrako Beyer-Peacock etxeokak zeuden, trenbide berriak zeharkatu behar zituen herrien izenekin izendatuta. Gaur egunera arte iraun duen makina bat dago: “Izarra” de las Rivasekin, meatze horiek eta Arkotxako geltokia (Trapagaran) 2.700 metroko luzerako Hogdson aire-tranbia baten bidez lotzeko (hiru kableko tranbia). 1872: Lutxanako dorretik El Regato eta Cuadroko mendietarako trenbidea (Luchana Mining); 12 km. 1876: Sestaoko hondartzatik Galdameseko mendietarainoko trenbidea; 22 km. 1877: Lutxanatik La Orconera mendirainoko trenbidea; 9 km. Ingeniaria: Alzola. 1880: Lutxanatik Concha Meatzeetarainoko trenbidea (Franco-Belga konpainia); 7 km. [itzuli]
6. Enrique eta Eugenio Grasset Echevarría anaiak (1868–1960) ingeniariak ziren. Lehenak burdinazko markesinadun geltoki ederrak egin zituen: Madrilgo Norteko geltokia, Valladolideko Campo Grandekoa, Burgosko Nortekoa edo Valenziako Nortekoa. Norteko trenbideak, bestalde, Primo de Riveraren diktadurak trenbide-konpainiei emandako laguntza estatalen onuradun izan ziren, laguntza jaso zuten 1924ko Trenbide Estatutuaren bidez, baina laguntza horiek kolpetik eten ziren 1931n, Bigarren Errepublikaren aldarrikatzean. [itzuli]
7. Adolfo Ibarreta, *Memoria del Ferrocarril Económico de Bilbao a Las Arenas*. Casa de la Misericordia argit., Bilbo, 1882, 7. or. [itzuli]
8. Bilbo bere ezkerrearekin lotzen zuen trenbide horren garrantzia bistako da Pedro Novoren hitz hauetan: “1888an ustiatzen hasi zenetik, Bizkaiko ekonomiaren ardatz nagusietako bat izan zen trenbide hori, ibaiaren ezkerrean zeuden industrien eta merkatu nazionalaren arteko komunikazioak artikulatu baitzituen. Gainera, burdin mea Bilboko biltegietatik ontziratzeke tokietaraino eramateko lana erraztu zuen, eta ezinbesteko komunikabide bihurtu zen aipatu udalerrian bizi ziren guztientzat. Pablo de Alzola ingeniariak —proiektuaren egile eta konpainiaren zuzendari ere bazenak— adierazi zuelarik ‘Portugaleteko trenbidea —bertako biztanle-dentsitateagatik eta zeharkatzen duen eremuko bizitza-elementuengatik— hiri handietako barne eta kanpoaldeko metropoli-trenbideen antzekoa’ zela, agerikoa den errealitate bat islatu zuen, trenbideak urtez urte garraiatzen dituen merkantzien eta bidaiarien bolumenari dagokionez, baina ez hainbeste hura eraikia izan zen moduari dagokionez”, hemen: “Los ferrocarriles de Bilbao a Portugalete y Bilbao a Las Arenas en el contexto de la vertebración espacial y social de ambas márgenes de la Ría del Nervión”, *Revista de historia de Euskal Herria, Euskal Herriko Historia Aldizkaria*, 1993ko iraila, 41–91 or., 8. or. [itzuli]
9. Lehen tranbia elektrifikatuek, 1898ko urritik aurrera, bi ibilbide zituzten: Salamanca auzotik Puerta del Solera eta Puerta del Soletik Hipodromora, in “Los tranvías de Madrid, 150 años de historia”, *Vía Libre*, 2010eko urria, 83. Or. [itzuli]
10. 1890ean, Bermeoko Udalak eta Lutxana-Mungia Trenbidearen Konpainiak (ROP, 2471. eta 2472. zk., 1927) Lutxana-Mungia linea Bermeoraino luzatzeko trenbide-proiektu bat idazteko eskatu zioten Ernesto Hoffmeyer ingeniariari. Proiektu horren emakida ere bere gain hartua zuen Manuel de Lecandak, 1890eko abuztuaren 7ko Legean Gobernuari emandako ahalmenaren bidez. Proiektu horretan oinarrituta, beste bana idatzi zuten José Orbegozok eta José de Ucelay bide-ingeniariak, 1909an eta 1918an, hurrenez hurren. Linea bi etapatan eraiki zen: 1888an, Gernikaraino; eta 1893an, Sukarrietaraino. Linea —Explotación de Ferrocarriles por el Estado (EFE) erakundearen esku— luzatzeko lanak 1955ean amaitu ziren, Bermeoraino iritsita. [itzuli]
11. Espainiako legediaren arabera, 1.000 mm baino gutxiagoko trenbide-zabalera duten trenbide-linea guztiak bide estuko trenbideak dira. RENFEk bildutako eta ustiatutako burdinbide-sare nagusiaren trenbide-zabalera 1.668 mm-koa da (“zabalera iberiarra” deritzona, Subercase txostenaren argudioen arabera), abiadura handiko trenarena salbu. Tren lasterrak trenbide-zabalera estandarra erabiltzen du, hau da, nazioarteko trenbide-zabalera (1.435 mm edo 4 oin eta 8½ hazbete), Europako herrialde gehienek bezala. 1886ko Bernako Konferentzian hartu zen, hain zuzen, Stephenson zabalera nazioarteko zabalera bezala gomendatzeko erabakia. George Stephenson (1781–1848), “trenbideen aita” bezala ezagutzen den ingeniari mekanikoak, diseinatu zuen lehen trenbide modernoa (Liverpool-Manchester, 1830), baita bagoiak eta lokomotorrak ere, 1.235 mm-ko zabalera-ko trenbide baterako. [itzuli]

12. Alfred Armand (1805–1888) arkitektoak eta Eugène Flachet (1802–1873) ingeniariak Émile eta Isaac Pereire anaientzat egin zuten lan gehienbat. Anaiok trenbideen alorreko finantzariak eta enpresariak ziren, eta akzionistak Espainiako Norteko Konpainian. [\[itzuli\]](#)
13. Paradoxikoki, La Compagnie du Chemin de fer de Paris à Orléans (PO) konpainiak 1840an eraiki zuen Gare d'Orléans geltokia, quai d'Austerlitz delakoan, eta Gare d'Austerlitz izena eman zioten. Trenbide-linea hiriaren erdialderaino luzatzea erabaki zutenean, Gare d'Orsay eraiki zuten. 1900ean ireki zuten, eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren bertan behera utzi zuten; 1986az geroztik Musée d'Orsay museoaren egoitza da. [\[itzuli\]](#)
14. Ikus gaztelerazko liburukiko eranskina edo addenda: "Estaciones". [\[itzuli\]](#)
15. Huysmans, 1879: "Nous voyons clairement aujourd'hui l'évolution déterminée en littérature et en peinture; nous pouvons également deviner quelle sera la conception architecturale moderne. Les monuments sont là; les architectes et les ingénieurs, qui ont bâti la gare du Nord, les Halles, le marché aux bestiaux de la Villette et le nouvel Hippodrome, ont créé un art nouveau, aussi élevé que l'ancien, un art tout contemporain de fond en comble, supprimé presque le bois, les matériaux bruts fournis par la terre, pour emprunter aux usines et aux foyers la puissance et la légèreté de leurs fontes". [\[itzuli\]](#)
16. Trenbideez eta trenek Bilboko garapen ekonomikoan izan duten garrantziak gehiago jakin nahi izanez gero, oso gomendagarria da lan bikain hau: González Portilla, M.; Montero, M.; Garmendia, J. M.; Novo López, P. A.; Macías O., *Ferrocarriles y desarrollo del mercado en el País Vasco (1856–1914)*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpenak, Leioa, 1995. [\[itzuli\]](#)
17. Luxuzko areto-bagoi hau Madrilgo Trenbidearen Museoan dago gaur egun. 1902an Manchesterreko The Ashbury Railway Carriage & Iron Company Limited enpresak egindako bi ardatzeko bagoi bat da. Ibilgailua JMR kotxe partikular gisa matrikulatua zegoen Norteko Konpainian. [\[itzuli\]](#)
18. Francisco Zabálbururen gorpua trenez eraman zuten Bilbora, eta Asisko San Frantzisko elizako kriptan lurperatu, Bosgarren Parrokian. Ereñoako marmol beltz eta arrosaz egindako kripta bat dago han, haren arbasoen eta Carmen alabaren gorpuzkiak gordetzen dituena. Alabaren senarra Alfonso Martos Arizcun (1871–1954) Heredia Spínolako eta Tillyko kondea eta Espainiako Handia zen. Seme zaharrena, Francisco Martos y Zabálburu, Fuentesko markesa, Madrilen hil zuten, 1936ko abuztuan. [\[itzuli\]](#)
19. Beste hilondoko tren-bidaia batek, Erresuma Batuan, Eduardo VII.a errege zena izan zuen protagonista. Izan ere, 1910eko maiatzaren 20an, Londresko Paddington geltokitik Windsorrera eraman ziren haren gorpuzkiak, hango gazteluan lurperatzera. [\[itzuli\]](#)

## Burdinazko eta hormigoizko eraikuntzak – argindarra

Guiard, Durrio, Iturrino eta abarren Bilbo hark garaian gariko eraikuntza-moldeen alde egin zuen: burdinazko arkitekturaren alde XIX. mendean, eta hormigoizko armatuzko arkitekturaren alde mende-aldaketan. Bizkaiko Institutuan edo Urduñako jesuitetan elkarrekin ibili ziren eskola-lagun haiek material berrien alde egin zuten apustu denek ere, eraikuntzan jardun zutenean. Burdina esku-eskura zeukaten, gainera. Meatzaritzak eraikuntza-jarduera handia eragin zuen, beharrezko azpiegituz hornitzeko: indusketa-tunelak, kate flotatzaileak, aire-tranbiak, mea garraiatzeko bagonetak eta trenbideak, mea kargatzeko lekuak, etab.

Burdina, ondoren altzairua (geroago, hormigoizko armatua) eta haien eraikuntza-teknikak izan ziren Bilbo aldeko industrializazioaren oinarri nagusiak. Burdinaren erabilera tradizio luzea zuen Bizkaian; izan ere, ia ibai guztietan zeuden burdinolak. Enkarterri alde nabarmentzen zen horretan, mendietan burdina eta baso zabalak zituelako, eta kokapen geografiko ezin hobea zuelako, gainera, Bilboko portutik gertu, itsas bidezko esportaziorako. Mendietako egurra, ikatz bihurtuta, ezinbestekoa zen sutegeiak eta labeak berotzeko. Horregatik egiten ziren burdinolak ibaien ertzean eta zuhaitzi onetatik gertu. Burdinaren prezioa ikazkinen eta burdinola-jabeen artean erabakitzen zen.

Burdinolen lehen berriak 1497koak dira inguru horretan. XVI. mendean, garrantzi handiko aurrerabidea egin zuen industria horrek, gabiaren erabilera eta indar hidraulikoaren ezarpenari esker. Bizkaiko burdinoletako minerala Somorrostro Haranetik zetorren (1805 arte, Bizkaiko Enkarterriak osatzen zituzten hamar errepubliketako bat izan zen Somorrostro Harana), eta probintziako beste toki batzuetara banatzen zen handik<sup>1</sup>.

Somorrostro Haraneko (Abanto, Muskiz, etab.), Enkarterriko eta Balmasedako —Bizkaiko Jaurerian sortutako lehen hiribildua, 1199. urtean— gune horiek guztiak oparoak ziren errotetan eta basoetan, garrantzi handikoak, beraz, Bilboren garapenerako<sup>2</sup>. Kadaguaren arloan, ibaiak hamabost burdinola ibilarazi zituen 1840tik 1855era, kobrerako gabiak zituzten bi Balmasedan, burdinarako beste bi Zallan eta Gueñesen, baita zenbait errota ere (bi edo hiru harrikoak, eta irinerako erabiltzen zen bosteko bat). 1886an, trenbiderik ez izatearen ondorioz neurri batean, errota gutxi batzuk eta bi paper-fabrika baino ez zeuden martxan. Gordexolan, Molinar auzoan, Ibalzibar ibaiari Herrerías ibaia deitzen hasi zitzaion, bi errota eta bederatzi burdinola —ahaide nagusien dorretxeetarakoak horietako asko— ibilarazten zituelako. Sandamendi kalean zehar, Gordexolak hamabost bat jauregi ditu, itsasoz haraindi joan eta aberastuta itzuli ziren indianoek XIX. mendean eraikiak. Bada, indiano horiek berehala inbertitu zuten dirua siderurgia berrietan.

XIX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Bilbo abentura berri askotan sartu zen: trenbideak, banketxeak, eta, batez ere, meategien etengabeko ustiapenarekin lotutako jarduerak bultzatu zituen. Hiria Abandorantz zabaltzen hasi zen, zubi berriekin<sup>3</sup>. Bigarren Karlistaldiaren ondoren, Bilbok zubiak berreraiki behar izan zituen, eta kaiak eta zamalanetarako eremuak lurruntzietara egokitu. Lehen trenbideak mea-garraioa egiteko eraiki ziren, eta jarduera horrek ere itsasadarraren ertzean behar zituen zamalanetarako tokiak. Mea trenbidez eramaten zen meatzetik itsasadarrera, eta kaian deskargatu; gero, espartuzko kapazuak bete eta gabarretan uzten ziren. Gabarrak atoian eramaten ziren arradan ainguratutako itsasontzien ondoraino, eta haietatik zintziliek zeuden sareen bidez kapazuak ontzi gainera igo ondoren, sotoetan husten zituzten langileek. Aurrerago, zamalanetarako eremu berriak eraiki ziren, trenbideekin lotuta zeuden ontziratzeko kai moduko batzuk: hogeita hirutik gora itsasadarrean zehar. Haiei esker, mea zuzenean deskargatzen ahal zen itsasontzien sotoetan.

Meatze-trenbide horiek eta haietzako karga-lekuek, eta, ondoren, hiri-trenbideek —eta haiei loturiko guztia: geltokiak<sup>4</sup>, zubiak eta tunelak, edateko uraren hornidura- eta saneamendu-sarea, errepideak mantentzeko eta berriak egiteko lanak—, herri-lanetarako ingeniari eta arkitekto asko behar izatea ekartzen zuten. Egin dezagun errebaso bat Bilboko zubiekin gertatua ikusteko: batzuk Karlistaldietan suntsituta edo erdi suntsituta gelditu ziren, eta berriro eraiki behar izan ziren; horiei berririk eraikitako beste batzuk gehitu behar zaizkie, baina Gerra Zibilaren urteetan, batzuk eta besteak suntsituak izan ziren berriro<sup>5</sup>.

Zergatik sartu zen burdina eraikuntzan, eta zergatik bultzatu zen haren erabilera? Garai hartako bi eraikuntza-material oinarrizkoen aurrean, hau da, harriaren eta zuraren aurrean, burdinak aukera arkitektoniko eta posibilitate tekniko berriak eskaintzen zituen, lehenik eta behin suarekiko erresistentziagatik. Bilboko arkitektoek eta ingeniariak material hori erabili zuten egitura handien eraikuntzan: zubi berrietan eta tren geltokietan, esaterako. Burdinak zura ordezkatu zuen — arrakasta handiz ordezkatu ere— sute-arrisku handia zuten lekuetan, kandlekin edo gasarekin argizatutako antzokietan, adibidez. Arriaga Antzokiak su hartu zuen 1914an. Burdinak, zeramikarekin edo adreiluarekin batera konbinatuta, sua zabaltzea eragozten zuten egiturak sortzen zituen. Bere Mémoires lanean (3 libk., 1890–93), Paris modernoaren diseinatzaileak, Georges-Eugène Haussmann-ek<sup>6</sup>, “pentsamendu goren” bat (pensée auguste) transmititu besterik ez zuela egin adierazi zuen, bere testigantzaaren arabera “aterki handiak, besterik ez” eskatzen zituena<sup>7</sup>. Aterkiok, noski, garaiko materialez eginak behar zuten: “Burdina, burdina, burdina besterik ez!”. Horiek dira baroiak Victor Baltard arkitektoari zuzendutako hitzak, Parisko Halles proiektua zela eta: “Du fer, du fer, rien que du

fer!”. Hala, Bigarren Inperioaren lehen hilabeteetatik aurrera, Napoleon III.ak berak burdinaren arkitekturaren alde egin zuen, bultzada erabakigarria emanez material horrek izan zuen garapen apartari.

Burdina —eta hain gutziagarri ziren bere hiru ezaugarriak: gogortasuna, arintasuna eta merketasuna— presente zegoen jada Espainian egin ziren lehen bi zubi zintzilikatuetan: bata, jada desagertua, Burtzeñako zubia zen, Kadagua ibaiaren gainekoa (1822), Barakaldon; bestea, San Frantziskokoa (1825–27), Bilbon, Antonio Goicoechea arkitektoak proiektatuak biak. Burdina zen obra publiko berriaren materialik erabiliena ere: Evaristo de Churrucaren Burdinazko Kaia (1887)<sup>8</sup>, tren-geltokiak (adibiderik onena Atochako geltokia da, 1892) edo Bizkaia Zubia, Alberto de Palacio arkitekto eta ingeniariarenak azken biak.

De Palaciok burdina eta altzairua zituen materialik kutunenak bere proiektuetan. Palaciok oso aintzakotzat zituen burdinaren sendotasuna eta iraupena, zurarena edo harriarena baino askoz handiagoak. Estalkietan, burdinak euskarrien arteko tartekak handitzeko eta argiztapen naturaleko espazioak irekitzeko aukera ematen zuen, eta abantaila handia zen hori geltokietan edo fabrika eta eraikin industrialetan<sup>9</sup>. Arkitekto-ingeniariak arretaz aztertzen zituen altzairuzko habeen profilak, beharrezko ezaugarriak betetzen ote zituzten jakiteko. Forma, profila, pisua eta luzera erabakigarriak ziren eraikin-egiturak egiteko orduan, argi handia sartzen utzi behar zuten teilatuak —Atochako geltokia, kasurako—, industria-nabeak, biltegiak eta abar egiteko orduan. Haren obra garrantzitsu asko (Kristalezko Jauregia, Bizkaia zubia) errematxe-buruak erabiliz eraikiak izan ziren<sup>10</sup>, Eiffel dorrea bezala. Egitura metalikoak elkarrekin lotzeko, torlojuak erabili ohi ziren (arruntak, kalibratuak edo erresistentzia handikoak), baina, batez ere, errematxe-buruak edo larakoak<sup>11</sup>.

Zubi-eraikuntzaren mundu horrek, bai eta trenbide-geltokien eta, batez ere, linea buruko geltoki nagusien eraikuntzaren mundu horrek arkitektoen eta ingeniarien arteko harremanak estutzea ekarri zuen, lehen esan dudan bezala<sup>12</sup>, eta horrek emaitza oparoak utzi zizkigun Euskal Herrian, XIX eta XX. mende osoan. Madrilen katedra baten jabe den Teodoro Anasagasti arkitekto bermeotarrak<sup>13</sup> honela galdetu zion bere buruari, erretorikoki, Revista de Arquitectura y Construcción<sup>14</sup> aldizkarian: “Nola asma daitezke behar bezala eraikuntza industrialak? Erantzuna kategorikoa da. Ez dago zalantzarik: proiektua egiteko orduan ingeniariak eta arkitektoak elkarlanean arituta”.

Era bertsuan, Vicente Machimbarrena bide-ingeniariak —Antonio Palacios eta Joaquin Otamendi arkitektoekin eta Miguel Otamendi ingeniariarekin batera, Laurac-Bat lelopean— 1902an Bilbon zubi baten lehiaketarako aurkeztu zuen memorian, honakoa adierazi zuen proiekturako aukeratutako leloaz: “zientziak eta arteak, ingeniartzak eta arkitekturak eskutik joan behar dute artelan monumentalak sortzeko prozesu osoan, eta gure proiektuak ideia horixe jasotzen du”<sup>15</sup>.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Hona mende amaierako enpresaburu berriak nola sortu ziren erakusten duen pasadizo bat: siderurgiaren eta euskal enpresaburuaren izen handienetako bat Juan Tomás Gandarias (1870–1940) izan zen. Haren aita, Pedro Pascual (1848–1901), Arrazuako errementari baten semea, Juan Durañona Arrarte burdina-hornitzaile nagusietako baten etxera bidali zuten burdinari buruz ikastera. Pedro Pascual etxe hartako alaba batekin ezkondu zen, eta haien ondorengoak ezker aldeko burdina-meatzteen ustiatzaile garrantzitsuenetakoak izatera iritsi ziren. 1849ko apirilaren 11ko Meategien Legean, meategien estatu-tilularitasunaren konstituzio-printzipioa ezartzen da, zeina Estatuari baitagokio, eta ez Koroari, eta haren arabera enpresen



erantzukizuna da, beren jardueren ondoriozko kalteak daudenean, kalte-ordaina emateko eta konpentsazioak ordaintzeko betebeharra. 1859ko Meatzeen Legeak eta 1868ko Meatzeen Legeak garatu egin zituzten xedapen horiek. Azken horretan (1944ra arte iraun zuen), Meatzeen Oinarriak arautzen zituen Legea onartu zen. Lege horrek aldaketa garrantzitsuak egin zituen meatze-baliabideei dagokienez, emakiden esleipena sinplifikatuz, sektorea liberalizatuz eta meatze-elkarteak libreki sortzea ahalbidetuz. [itzuli]

2. Abanto eta Muskiz gudu gogorren eszenatoki izan ziren Karlismaldietan (Somorrostroko guduak), biak ala biak kokagune estrategikoak baitziren Bilbo mendean hartzeko. Meatzeak Nerbioi ibaiaren ezker aldean zeuden: Ollargan, El Morro, Miravilla, Iturrigorri, Castrejana, El Regato, Orconera, Cadegal, Triano, El Cuadro, Galdames eta Sopuerta. Burdingaia ugari ematen zuten, kalitate eta izen desberdinekoa. [itzuli]
3. Ikus gaztelarazko liburukiko eranskina edo addenda: "Puentes". [itzuli]
4. Bilboko XIX. mendeko linea buruko geltokien zerrendari dagokionez, ikus eranskina. [itzuli]
5. Bilboko XIX–XX. mendeetako zubien zerrendari dagokienez, ikus eranskina. [itzuli]
6. Georges-Eugène Haussmann (1809–1891) Sena departamenduko prefektua izan zen (1853–70). Parisen, hainbat hobekuntza-lan eginarazi zituen: bulebarrak, ur-hornidurarako sare berri bat, estolderia erraldoi bat, zubi berriak, Operaren eraikina, eta beste hainbat eraikin publiko. Gainera, hirian integratu zituen auzo periferikoak. Bilbok gauza bera egin zuen, baina eskala txikiagoan: ur-hornidurako sistema berria instalatu, Areatza eraberritu zubi berriak egin, Arriaga Antzokia eraiki, Zabalgunea (Abando, Begoña eta Deustu aldetik). [itzuli]
7. Georges-Eugène Haussmann, Mémoires (3 libk., 1890–93), Mémoires du baron Haussmann: 1853–1970 Grands travaux de Paris, Ed. Guy Durier, Paris, 1979. [itzuli]
8. Burdinazko kaia eraikitze lanak 1881ean hasi ziren, Churrucaren gidaritzapean, eta 1887an amaitu. Kaiak zortziehun metroko luzera du. Lehenengo sei ehun burdinazko armazoi bat dira, eta azkeneko berrehunak, harrizkoa. [itzuli]
9. Euskarri gisa, burdin urtuzko zutabe bat nahikoa izaten zen lehen harri-horma lodi bat behar zen lekuan, eta, gainera, zura baino askoz iraunkorragoa zen. Zabalguneko eraikin askok burdin urtuzko habeak dituzte, eta batzuek fabrikaren zigilua daramate. [itzuli]
10. Errematxe-burua metalezko egiturak edo xaflak batzeko (askotan, beroan) erabiltzen den altzairuzko elementua da. Burdin forjatuzko elementuak soldadura bidez lotzea zaila denez, material hori apaingarri edo bigarren mailako erabileretara mugatu da eraikuntzan (burdina-hesiak, burdinsareak, etab.). [itzuli]
11. Baita T profileko habeak, elkarri atxikitako xaflak (beroko eraikuntza). Hortik sortu zen arotzeria metalikoa. Bestalde, txatarra birziklatzen zuten altzairutegi gehienak altzairu korrugatua ekoizten zuten. Altzairu hori hormigoizko egiturak eta zimendatze-lanak egiteko erabiltzen zen. Erriberako arotzek egin ohi zituzten era horretako lanak. [itzuli]
12. Ikus "Bilbo, ingeniarien eta arkitektoen hiria" kapitulua. [itzuli]
13. Teodoro Anasagastik (1880–1938) 1906an amaitu zituen ikasketak, Madrilgo Arkitektura Eskolan. Handik gutxira, Bermeora itzuli zen, jaioterrira, udal arkitekto gisa lan egitera. Erromako Espainiako Akademiaren beka lortu zuen, 1910etik 1914ra. Handik itzulita hasi zuen bere jardura profesionala, Madril gehienbat. Proiektuetan katedraduna izan zen Madrilgo Arkitektura Eskolan. Aipagarria du El Carmen obra, Granadako Rodríguez Acosta Fundazioarena, eta Madril 1921–28 bitartean eginiko hainbat saltoki eta zinema, hala nola Teatro Monumental antzokia, hormigoiz egina. [itzuli]
14. "El arte de las construcciones industriales", Revista de Arquitectura y Construcción, 263, 1914ko apirila, 154. or. [itzuli]
15. Antonio Palacios Ramilo (1874–1945), Madril hiriararen arkitektoa izan zen. Hogeita hamar eraikin baino gehiago egin zituen han (Arte Ederren Zirkulua, Telekomunikazio Jauregia edo Banco Español del Río de la Plata, egungo Cervantes Institutua, etab.), eta Madrilgo metroaren lehen azpiegiturez arduratu zen. Otamendi anaien oso laguna izan zen (anaietako bat arkitektoa zen, eta ingeniaria bestea), eta elkarrekin jardun zuten hainbat proiektutan, 1917. urtera arte. Laurac-Bat taldeak irabazi zuen Donostian Urumea ibaiaren gaineko zubia eraikitze lehiaketa, 1904an. [itzuli]

## Hormigoia

XIX. mendean burdinarekin gertatu zen gauza bera gertatu zen XX. mendearen hasieran hormigoiarekin. Hormigoia hainbat eraikuntza motatan erabiltzen hasi zen, industrian, zubigintzan, trenbide-geltokietan, baina baita bestelako industria-eraikin mota batzuetan ere, hala nola alondegietan, okindegietan eta ikastetxeetan. Arkitektoen artean, Federico Ugalde, Ricardo Bastida eta Teodoro Anasagasti lehenetakoak izan ziren Espainian hormigoia erabiltzen. François Hennebique ingeniariak 1892an patentatu zuen bere formula, eta irundako gaien fabrika bat eraikitzeko erabili zuen, Lille-n, 1895ean. Patente frantsesak Bilbon ziren jada XIX. mendearen amaieran, portuko eta olatu-hormako lanak egiteko eskariak zirela eta, besteak beste<sup>1</sup>.

“Hormigoia erabiltzea enpresen eskutik sartu zen Espainian, patente edo sistema pribilegiatu bati lotuta zeuden enpresen eskutik batez ere. Enpresa horiek ekoizpen-baliabide minimo batzuk izan behar zituzten; izan ere, fabrikatu beharreko egituraren edo elementuaren proiektu teknikoa alde batera utzita, hormigoia erabiltzea obrara eramateko, kontratista txikiek eskura ez zeuzkaten baliabideak behar ziren”, adierazi du Francisco José Domouso de Albak<sup>2</sup>.

Euskal Herrian, Hennebiqueren bultzada komertzialari esker zabaldu zen teknika berria. Hennebiquek, Donostian, Miguel Salaverría ingeniaria zuen kontzesionarioa; Bilbon, Domingo Fort Barrenechea obra-maisua<sup>3</sup>; eta Asturiasen, José Eugenio Ribera, Asturiasko obra publikoen administrazioko bide-ingeniaria<sup>4</sup>. Espainiako hormigoia erabiltzeko lehen eraikuntza-enpresa modernoa azken horren eskutik etorri zen<sup>5</sup>. Riberak Bide, Ubide eta Portuko Kidegoa utzi eta J. Eugenio Ribera y Compañía sozietate mugatua sortu zuen, gero Hidrocivil izango zena, Manuel eta Luis Gomendio anaia bilbotarrekin batera. Ribera izan zen, 1899an, Hennebiqueren lehen kontzesionarioa Espainian. Riberak Bilboko Euskalduna Konpainiaren makina-etxean (1902) aplikatu zuen bere metodoa. Bilbon, Recaredo de Uhagón bide-ingeniaria, garai hartan Bilboko saneamenduaren zuzendaria zena, hormigoia erabiltzen ari zen Elorrieta (Bilbo) eta La Galea artean egindako bultzada-hodian. Uhagonen proiektua (1896–1903) Espainian egindako lehen saneamendu modernoa izan zen; berritzailea, alderdi askotan<sup>6</sup>.

Hormigoia erabiltzeko, lehenago burdinazko eraikuntzak bezala, abantaila nabarmenak zituen egiturazko portaerari dagokionez: karga handiagoak onartzen zituen, eta, material erregaitz gisa, erresistentzia-ahalmena handia zuen suteen aurrean. Baina, oroz gain, tren-geltokietako altzairuzko habeak bezala, bere funtzionaltasunagatik nabarmentzen zen: hormigoiak espazio garbiak izateko, karga handiak jasateko, eta, bereziki, azkar eraikitzeko aukera ematen zuen. Hormigoia erabiltzeko mota guztietako eraikinetan, bideetan, zubietan, presetan, tuneletan eta industria- eta saneamendu-obretan erabiltzen hasi zen. Itsasadarreko meua karga-lekuak ere, kreosotatutako zurezkoak ordura arte, hormigoiz eraikitzen hasi ziren; Olabeagako bat, kasurako. XX. mendearen hasieran, hormigoia erabiltzeko buruzko ezagutza eta esperientzia onak zeuden Bilbon, maila guztietan<sup>7</sup>.

Hona hemen adibide batzuk: La Ceres irin-fabrika (1899–1900), Abusuko zubia (1901–02), Alondegia (1906–08), Gorlizko erietxea (1910–19), eta Igeretxe bainuetxea (1913).

1. 1899ko irailtik 1900eko maiatzera bitartean, Federico Ugaldek La Ceres irin-fabrika eraiki zuen Bilbon bere familiarentzat. Eraikita dagoen orubearen forma dela, eraikinak nolabaiteko konplexutasun geometrikoa zuen, egitura aldetik, baina baita, eta ez txikiagoa, eraikuntza aldetik ere. La Ceresi buruz, hauxe idatzi du Joaquín Cárcamok: “Hormigoia erabiltzeko erabiltzen zen Espainian, baina eraikin honen industria-erabilera dela-eta tona handiko makinak eta bibrazio handiko motorrak eduki beharrek eta, batez ere, eraikuntza-sistema tradizionalak ez erabiltzeak —ezta fatxaden eta mehelinen egitura-irtenbidean ere— izaera aitzindaria ematen dio eraikinari, teknika horren garapenari dagokionez, Espainian”<sup>8</sup>.

Mende bukaera horretan Bilbon ziren hamabi irin-fabrikek aurre egin behar zieten bai kolonien galeraren ondorioei, bai Europako gobernuen neurri protekzionistei, bai eta Frantziako irinen inportazioaren hazkunderari ere. Ugaldetarrek tren-geltokietatik urrun ez zegoen La Ceres fabrika berri horrekin negozioa aurrera ateraz egin behar izan zieten aurre arazo horiei. Hormigoiz eraikitako beste fabrika aipagarri bat Harino Panadera delakoa izan zen, Mario Camiña eta Fidel Iturria arkitektoek 1902an Juan José Irala enpresariarentzat eraikitakoa, eta Hennebiqueren ordezkari gisa jarduten zuen Domingo Fort obra-maisuaren laguntza ere jaso zuena. Metodo berarekin eta urte berean, Miguel Salaverriak Ugaldetarren Errenderiako irin-fabrika eraiki zuen. Irin-fabrika horiek izan ziren Espainiako lehen hormigoilanak, baina hormigoiz armatuz egindako lehen obra dokumentatua Puigverden Lleidako depositu estali-gabea izan zen, 1893an Francesc Macià ingeniari-kapitainak (eta, geroago, politikariak) proiektatua eta eraikia.

2. Abusuko zubia Gabriel Rebollo gazteak (1871–1941) eraiki zuen<sup>9</sup>, Jose Maria Chalbaud ingeniariaren Arratiako tranbiarako. Rebollok oso hilabete gutxitan eraiki zuen zubia, negu minean. Taula kurbatuko proiektu bat zen, eraikuntza konplexukoa, horma-bularrez sendotutako sei arku kurbatu zituen: “Durangoko tranbiaren Abusuko zubia, Gabriel Rebollok 1902an eraikia, Europako profesionalen elite baten aintzatespena jaso zuen bere balio zientifikoagatik”<sup>10</sup>. Kofratuak eta zinbria handiak eraikitzeko, Rebollok erriberako arotz maisuak eta ofizialak bilatu zituen Bilbon, eta zumitzak, barrak eta uztaiak tolesten eta hormigoiz armatuzko sistema berriak aplikatzen trebatu zituen. Rebollok berak ezagutarazi zizkigun material berriaren ezaugarriak: “Kontua da Hormigo Armatua betirako dela, eta ez duela ia kontserbaziorik behar”. 1983ko uholdeak suntsitu zuen zubia.

3. 1906an, Ricardo Bastidak Udalaren enkargua jaso zuen “izpirituak” (alkoholak, pattarrak eta likoreak) gordetzeko biltegi berri bat egiteko, zalditegia eta guzti, lor-abereak bertan uzteko. Egitura hormigoiz armatuzkoa zen, 1902tik Bilbo aldean ziharduen Sestaoko Hormigoiz Armatuaren Konpainia Anonimoak egina. Alondegia ez zen izan Espainian hormigoiz armatuz egindako lehen eraikina, hainbat iturrik dioten moduan, baina egia da eraikuntza-lan horrek berebiziko bultzada eman ziola bai Sestaoko Konpainiari, bai patenteari berari<sup>11</sup>. Alondegia ordezkatu zuen 1878an Zamudioko Ateko Pisu Publikoa, alea eta isurkariak gordetzeko erabiltzen zen biltegia. XVIII. mendean, eraikin hura ale eta isurkarien Alondegia Orokorra bihurtu zen. Garrantzi handiko erakunde bat zen, inondik ere: herritarren hornidura errazten zuen, eta merkatariek salgaiak uzteko, gordetzeko eta kontserbatzeko leku bat zuten han; gainera, finantza-iturri handia zen hiriarentzat, kobratzen zituen tasengatik. Biztanleria handitzen eta likido kopurua ere handitzean (horietako batzuk, alkohola kasurako, sukoiak baitziren), Alondegia Zabalgunera eraman zen, 1884an, Barroeta Aldamar kalera<sup>12</sup>.

Gero, beste obra publiko batzuk etorriko ziren: Algortako Igeretxeko bainuetxea, Antonio de Araluze arkitektoarena; Gorlizko Itsas Sanatorio dotorea (1910–19), Mario Camiñarena; Madrillko Atocha kaleko Monumental Cinema (1923), Teodoro Anasagastiren proiektu baten arabera eraikia (RTVEko orkestraren eta abesbatzaren egoitza da gaur egun).

Eraikuntza horiek guztiek dirua zementu-fabriketan ezartzera eta beren jarduera estatu osoan zabaldu nahi izatera bultzatu zituzten euskal enpresariak. Horacio Echevarrietak, adibidez, zementugile gisa zuen esperientzia baliatuz, Bartzelonako Gran Via urbanizatzeko edo metroko 1. linea eraikitzeko lanak egin zituen.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

1. 1880tik 1887ra bitartean, Portugaleteko Burdinazko Kaia eraikitzeko, Louis Coiseau, Abel Couvreur eta Felix Allard-en enpresa frantsesak Axpeko lantegian egindako hormigoizko blokeak erabili ziren. Haiak arduratu ziren, halaber, burdinazko blokeak eta kaxa-habeak fabrikatzeko eta garraiatzeko makineriaz eta bitarteko osagarriez. Lehen aldiz baliatu zuten argindarra, Titan garabiaren bidez ehun tona arterainoko blokeak ontziratu, garraiatu eta zintzilikatzeke. Ondoren, Montevideoko (Uruguai) portua eraikitzeke lanetan ere jardun zuten. [\[itzuli\]](#)
2. Francisco José Domouso de Alba, *La patente de Joseph Monier y la empresa Lecand Macià y Ca, sociedad en comandita (1895–1904)*, Madril, 2015. [\[itzuli\]](#)
3. Domingo Fort Barrenechea (1901): *El sistema Hennebique. Construcciones en hormigón armado, por el concesionario en Vizcaya*, Sociedad Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbo, 1901. [\[itzuli\]](#)
4. José Eugenio Riberak bi liburu idatzi zituen horren gainean: *Hormigón y cemento armado: mi sistema y mis obras*, Imprenta de Ricardo Rojas, Madril, 1902; eta *Conferencia en el Ateneo sobre construcciones modernas de hormigón armado*, Hijos de J. A. García, Madril, 1903. [\[itzuli\]](#)
5. José Antonio Fernández Ordoñez, Eugenio Ribera. *Prólogo a una exposición*, Boletín de Información, COICCP, 1982, 59. zk. 20-28. or. Riberak, Estatuko ingeniari zen aldetik, Oviedoko espetxeke forjaketa egin zuen, 1898an, eta, handik gutxira, Ciañuko zubiaren hormigoizko taula eta Lllanesko ur-depositua, Hennebique sistema baliatuz. Urte batzuk geroago, Eduardo Torrojak jardun zuen Hidrocivil-en. [\[itzuli\]](#)
6. Horri dagokionez, ikus Joaquín Cárcamoren saiakera-lan bikain hau: *Bombedora de Elorrieta*, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Historikoaren Zerbitzua, Bilbo, 1996: “Uhagónek behin betiko proiektua aurkeztu zuenean, 1894. urtean, Bilbok 63.900 biztanle zituen. Aurreikuspenetan eskuzabal jokatzeka izan zen ingeniariaren asmoa, eta eguneko eta biztanleko 100 litro ur kontsumituko zituen 100.000 biztanleko hiri baterako egin zituen kalkuluak. (1903an, lanak amaitu zirenean, Bilbok, aurreikuspen guztiak gaituz, 90.200 biztanle zituen). Proiektuak sare bikoitzeko saneamendu dinamiko bat jasotzen zuen –putzu beltz guztiak kenduta–, hau da, lehendik zegoen sarea euri-uretarako gordetzea (euri-urak zuzenean itsasadarrera isuriko zituzten), eta estolderia berria eraikitzea, ur beltzak biltzeko bakarrik, beharizan errealetatik hurbileko sekzioko hodi ez-bisitagarrien bitartez”. [\[itzuli\]](#)
7. Horregatik, Alondegi berria eraikitzeke lehiaketara, 1905ean, hainbat enpresa aurkeztu ziren: Arrizabalaga, Zubinas y Cía, José Eugenio Ribera eta Sestatoko Hormigoi Armatuaren Konpainia Anonimoa, Joseph Blanc-Cavard ingeniari frantsesaren aholkularitzapean, zeina 1903ko apirilaren 21ean hil zen, Bilbon. [\[itzuli\]](#)
8. Joaquín Cárcamo eta J. Rosell, *Los orígenes del hormigón armado y su introducción en Bizkaia. La fábrica Ceres de Bilbao*. Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala, Bilbo, 1995. Fabrika Hennebique sistemarekin eraiki zen; kontzesionarioa Domingo Fort Barrenechea obra-maisua izan zen, udal arkitektoaren laguntzailea, bigarren brigadako burua, zehazki, eta Arkitekturako titularrak Julio Saracibar, Joaquín Rucoba, Edesio Garamendi eta Enrique Epalza izan ziren, hurrenez hurren. [\[itzuli\]](#)
9. Rebollo, 1896an Madrilen titulatu, Parisera joan zen berehala, eta material berri hartan espezializatu zen, Hennebiqueren Elkartean bertan. Rebollo, Ramon Grotta Palacios ingeniaria bezala, Hennebiqueren Madrilgo bulegoan aritu zen lanean. Bilbon ibili ondoren, Deniako Itsas Portuaren zuzendari izendatu zuten. Rebollok Manuel Estibáus Goizueta bide-ingeniaria zuen aitagarreba, eta Estiobaúsek, Francisco Echánove Guinea. [\[itzuli\]](#)
10. Ikus Gabriel Muñoz, “El puente-arco de San Miguel, magia en la Huesca de 1912. Monumento modernista, pionero del hormigón armado, obra del ingeniero de Caminos Gabriel Rebollo Canales”, *Revista Obras Publicas*, 3583. zk., 2017ko urtarrila. [\[itzuli\]](#)
11. Ikus I. Marcos, J. San José, J. Cuadrado, eta P. Larrinaga, “Las patentes en la introducción del hormigón armado en España: caso de estudio de la Alhóndiga de Bilbao”, *Informes de la Construcción*, 64. zk., 2014, 534. or. Sestaoko Hormigoi Armatuaren Konpainia Anonimoak “poutre-dalle” patentearekin egiten zuen lan, Joseph Blanc-Cavard frantsesaren hormigoi armatuzko eraikuntza-sistema batekin. [\[itzuli\]](#)
12. Mendearen amaieran, udal-zergari lotutako bost gordetegi zeuden: Barroeta Aldamar (1885), Uribarte (1885), Iturribide (1889), Fernández del Campo (1891), La Alberca (1899); 1907an, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea ezarri zen bertan. [\[itzuli\]](#)

## Argiztapena eta telegrafia

XVIII. mendean, olio-farolekin argizatzen ziren Bilboko kaleak, eta gantz edo argizarizko kandelekin etxe barruak, baita olio-kriseiluekin ere. Argiztapen-sistema olio-kriseiluetatik lehen gas-lanparetara aldatu zen. 1800ean, erregaitzat olio erabiltzen zuten lehen farolak instalatu ziren Areatzan, erreberberazio-farolak deituak. Erreberberazio-farolak olio-argiontzia ziren, barruan letoizko xafla batzuk zituztenak, argia islatzeko; hau da, gainazal leunduak ispilu islatzaileen lana egiten zuten, ez zuten itzalik egiten azpian, eta, aldi berean, argitasun-eremua handitzen zuten, irismenari zein intentsitateari dagokionez.

Lehen Karlistaldiaren ondoren, hiriko barne kaleetan ere era horretako farolak jarri ziren, eta 1844an, Bilboko argiteriaren gasifikaziorako lehen proposamena aztertu zen, Londres eta Parisen egin zen modu berean<sup>1</sup>. 1840tik, Bilboko Udalak garbi izan zuen segurtasun- eta prestigio-elementu bat eman behar zitzaiola hiriari: argiteria modernoa —gasa lehenik, elektrizitatea ondoren—, ez kaleetan bakarrik, baita etxe barnean ere. 1847an, Bilboko gas bidezko argiteria-sareak 245 lanpara zituen, hiriari ordura arte inoiz izan gabeko segurtasuna eta itxura ematen ziotenak. Gogora dezagun gure hiriak, Madril<sup>2</sup>, Sevillak eta Bartzelonak ez bezala, 15.000 biztanle baino ez zituela garai hartan. Bartzelonaren ondoren, Bilbo izan zen kaleetan gas bidezko argiteria ezarri zuen Espainiako bigarren hiria; gasari argi bizia edo argi filosofikoa deitzen zitzaion. Aurrerago, argiteria elektriko onena ere eduki zuen<sup>3</sup>.

Bigarren Karlistaldiaren ondoren, argi elektrikoarekiko interesa handituz joan zen. Argi elektrikoarekin egindako lehen saiakuntza “Leider” pilaren pizte publikoa izan zen, Lekeition, 1876 baino lehen. José María Murga Murgateguil —“Bizkaitar Mairua” deituak— ekarri zuen bujia, bere bidaia horietako batetik. Murgaren etxeko leiho batean piztu zen, eta ikusmin handia sortu zen herritarren artean<sup>4</sup>.

Baina hiriaren argiztapena, kaleetako garbitasuna eta zoladura bezala, edota edateko uraren zein saneamendu uren eta ur beltzen hoditeria bezala, bide-ingeniarrien lana ere bazen. Evaristo de Churruca portuko ingeniariak muntatu zuen, 1883ko urriaren 13an, Abrako portua eta itsasadarraren sarrera argitzeko eta balizatzeko lehen zentral elektriko. Churrucak 5.200 metroko tarte bat aukeratu zuen horretarako, Portugaleteko kai-muturrean eta Galindo ibai-bokalearen artean, eta 31 arku voltaiko jarri zituen, 200 metroko tartetan, eta beste lau lanpara kai-muturrean, bokalea ondo argitzatzeko. Horretaz gain, bi lanpara multzo ipini zituen Portugaleteko plazan eta Benedicta Kaiaren muturrean<sup>5</sup>. Argi-instalazio horri esker, eguneko bi itsasgoretan sartu eta atera zitezkeen ontziak. Argi-sistema martxan jarri ondoko lehen bederatzi hilabeteetan, 663 ontzi atera edo sartu ziren gaeuz itsasadarrean, eta hurrengo bost urtean, ia 7.000 ontzi.

Urtebete lehenago, 1882an, Espainiako Elektrizitate Elkarteak lurrinak eragindako sorgailu bat jarri zuen Agustindarren komentuko (gaurko udaletxeko) lurretan, Posta kalea, Areatza eta inguruko beste kale batzuk argitzeko. Baina benetako argiztapenaz hitz egiteko, 1889ra jo behar dugu; urte hartan, Valentín Gorbeña ingeniariak, Bilboko La Electra Konpainiako zuzendari gerenteak argindarra eraman zuen, aireko eta lurpeko banaketa-sare bikoitz baten bidez, bankuetara, elkarte batzuetara (El Sitio, Sociedad Bilbaina), Klub Nautikora eta Arriaga Antzoki berrira<sup>6</sup>. Gorbeñak Evaristo de Churruca-ren lekua hartu zuen Bilboko portuaren zuzendaritzan (1909–15)<sup>7</sup>. Garai hartan, hobekuntzak egin ziren ibilgu nabigagarrian eta argiterian, eta Bilbotik Areetarako errepidea trazatu zen. 1889an (abendua 3an) piztu ziren lehen aldiz Plaza Barriko lau lanparak, Areatzako bederatzi argimutil-farolak, Isabel II.aren zubiko laurak eta Geltoki kalea, Erribera eta beste zubien artean banatuta zeuden gainerakoak. 1891n, argi elektriko hornitu ziren udaletxeko eraikin berriko eskailerak. Bestalde, Víctor Chávarrik Bizkaiko Argindar Konpainia jarri zuen martxan 1897an (Alemaniako kapitalarekin), erosita zituen bi tranbiak, Santurtzikoa eta Areetakoa, elektrifikatzeko

asmoz. 1897ko otsailaren 1ean inauguratu zen Santurtziko tranbiaren linea elektrikoa, trakzio elektriko mugitu zen lehenengoa Espainian. Areetakoa eta Algortakoa, berriz, ez ziren abendura arte elektrifikatu.

XX. mendearen hasieran Bilbon asko erabili zen beste argiztapen mota bat “karburo” lanparak izan ziren, garraiobideetan, trenbideetan eta meatzaritzan oso erabiliak<sup>8</sup>. Lanpara horiek olio-kriseiluek baino hamar aldiz argi-errendimendu handiagoa zuten. Karburo horiek berehala zabaldu ziren fabriketan eta industria-ustiategietan ere; zalgurdientzako, bizikletentzako eta barkuentzako farolak egiten hasi ziren, eta merkatari asko azaldu ziren Bilbon, manufaktura horiek Espainian zehar saltzeko prest.

Elektrizitatearekin oso lotuta zegoen beste asmakizun bat telegrafoa izan zen. 1844an, Espainian telegrafia optikoari beharrezko bultzada eman zitzaionean, Europan bazeramatzen lau urte telegrafia elektrikoa erabiltzen. Telegrafia mota hori ez zen martxan jarri 1850era arte, eta, kasu batzuetan, telegrafo optikoaren instalazio berberetan ezarri zen. Iberiar penintsulako orografia zaila, beste behin ere, oztopo ia gaindiezina izan zen (aurrerago trenbidea egitean gertatu zen bezala) komunikazioetan aurrera egiteko. Telegrafo elektrikoa izan zen mezu baten irispide-abiadura giza gorputzarena gainditzea lortu zuen lehen komunikabidea. 1855ean, Telegrafoen Kidegoa sortu zen, eta Arturo de Marcoartú ingeniari bilbotarrak (1827–1904) paper garrantzitsua izan zuen bertan. Marcoartú mundu mailako ospea hartu zuen 1863an, hark idatzitako La Empresa Telegráfica Universal liburua —funtsezko lana itsaspeko telegrafiaren arloan— New Yorken argitaratu zenean<sup>9</sup>. Lehenengo zatian 1862. urtera arte ezarritako itsaspeko kable nagusien eta haien ezaugarri teknikoen errebasoa egin ondoren, Marcoartú modu kritikoan ebaluatu zituen Europa eta Amerika lotzeko proiektatuta zeuden lineak. 1869–70ean, Ingalaterra-Bilbo telefono-kablearen konexioa egiteko baimena eman zitzaion, baita Bilboko portutik Bartzelonara linea telegrafiko bat ezartzeko ere<sup>10</sup>.

Marcoartúren ustez, telekomunikazio planetarioen oinarria zen telegrafia, baita argindarra aztertzeke eta ezagutzeko indar bultzatzaile bat ere, eta “itsaspeko lineak ezartzeko enpresa unibertsal” baten aldeko apustua egiten zuen. Telegrafia izaten ari zen hedapena ikusita, Nazio Batuen gisako erakunde bat sortzea proposatu zuen. Gehiago sakondu zuen kontzeptu aurreratu horretan 1876an argitaratu zuen beste liburu batean: Internationalism<sup>11</sup>.

XIX. mendearen amaieran, Bilboko kaleetan gas-argiak zeuden oraindik, baina bai Zazpialeetako bai Zabalguneko partikular guztiek argindarra zuten eta telegrafoaren bidez komunikatzen ziren nazioartean. Kontuan hartu Madrilen aristokraziak bakarrik zeukala argi elektrikoa 1890ean, eta euskaldun batek — Murrieta— sortua<sup>12</sup>. Torres-Quevedo, Marcoartú eta beste ingeniari batzuek aurkikuntzak egiten zituzten beren bidaietan. Beste batzuk —Gorbeña eta Uhagón, kasurako— eguneroko bizitza kudeatzen eta hobetzen saiatzen ziren. Baina Urrutia eta Orbegozoren kudeaketari eta kemenari esker, argindarra txoko guztietara — industria osora batez ere— hedatu zen. 1903rako Bilboko tranbia guztiak elektrifikatuta zeuden.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Lehenengo gas-lanparak Phillipe Lebon frantziar ingeniariak asmatu zituen, 1799an. Bilboko lehiaketa Baionako Esprit Luis Latyk irabazi zuen, 1845ean, hurrengo urtean Societé pour l'éclairage au gaz de la Ville de Bilbao (Lyonen helbideratutako sozietatea) eratu zuenak. [itzuli]

2. Madrilen, argiteria 1847 arte ez zen alde guztietara zabaldu, nahiz eta 1832rako baziren gas-lanparak Puerta del Sol-en. Argi elektrikoko lehen farola 1852ko urtarrilaren 30ean instalatu zen, Jauregiko sarreran, baina ia 1882ra arte ez zen hiri-argiztapenik izan. [\[itzuli\]](#)
3. “Espainian Bilbok baino ez zituen izango 10 goritasun-arku eta 50 goritasun-lanpara argiteria publikorako, eta herri-argiteria elektriko onena zuen hiria izango zen orduan”, hemen: Joan Carles Alayo Manubens, “La electricidad en España en 1900. Actuaciones en la introducción del alumbrado eléctrico”, V Simposio Internacional de la Historia de la Electrificación, Évora, 2019ko maiatzaren 6–11, *La electricidad y la transformación de la vida urbana y social* liburukia, Bartzelona, 2019, 621–30. or. Ikus, halaber, “La luz eléctrica en Bilbao”, *La Electricidad*, 1883, 141. or. [\[itzuli\]](#)
4. Gogoratu beharra dago 1881era arte argi elektrikoa arku voltaikoaren bidez sortzen zela, baina 1879an Thomas A. Edisonek harizpi goriko lanpara aurkitu zuenetik, hura ekoizten zuen fabrikak berak banatzen zuela. [\[itzuli\]](#)
5. Horretarako, Churrucak zentral bat eraiki zuen Portugaleten, 60 zaldiko lurrin-makina baterako eta itsasadarren bi aldeetan kokatutako 40 lanpara Brush arku-argien bidez elikatzeko gai zen dinamo baterako, hemen: *Revista de Obras Públicas* (12 zk., 1885). [\[itzuli\]](#)
6. 1833–34an, Teatro de la Villa edo Tetro Viejo antzokia eraiki zuten, 1851tik aurrera gasezko argiztapena izan zuena. 1886an eraitsi zuten, eta Joaquín Rucobak Teatro Nuevo antzokia eraiki zuen, Bidebarrieta kalearekin lerroan. Antzoki berria 1890eko maiatzean inauguratu zuten, La Gioconda operaren emanaldiarekin (Amilcare Ponchiellirena, Milanen estreinatua 1876an). Argiztapen elektrikoa zuen jada. Sute batek suntsitu zuen, 1914an, eta Federico Ugaldek hartu zituen bere gain berreraikitze-lanak. 1919ko ekainean inauguratu zuten berriro, Verdiren Don Carlo operaren emanaldia eskainiz. Fatxadako lehen solairua, urte askoan, Klub Nautiko zaharraren egoitza izan zen. Klubak Mario Camiñak diseinatutako burdinurtuko balkoi korritu bat erantsi zion fatxadari. [\[itzuli\]](#)
7. José de Oruetak ingeniari horren bizitza gogorazi zuen bere Memorias liburuan: “gizon bikaina eta ingeniari ona, inondik ere, Valentín Gorbeña. Bere osaba Manolo Ayarragarayren eta beste pertsona batzuen laguntzarekin, ‘La Electra’ muntatu zuten La Concordiako lurretan: Bilboko argindar ekoizpenerako eta etxez etxeko banaketarako lehen sozietatea, oso zerbitzu ona eskaini zuena. Eta uste dut huts egiteko beldurrik gabe esan dezakedala Bilbo gas bidezko argiteria muntatu zuen Espainiako lehen herria izan zen bezala, Bilboko ‘La Electra’ argindarra ekoizteko eta etxez etxe banatzeko lehen instalazioa izan zela penintsulan”. [\[itzuli\]](#)
8. Azetilenozko lehen lanparak 1899tik aurrera hasi ziren erabiltzen Alemaniako meatzaritzan, New Diepenhock-eko meategietan zehazki, Selbeck meatzaritza-barrutian. Espainian, Enrique Alexandre Gracián meatze-ingeniariak patentatu zuen karburo-lanpara, Bartzelonan, 1899an. [\[itzuli\]](#)
9. Arturo de Marcoartú, *La Empresa Telegráfica Universal. Líneas Submarinas Telegráficas de Europa a las Américas, del Atlántico al Pacífico*, Esteban Hallet, New York, 1863. Telegrafoak garraibidearen eta komunikazioaren arteko erlazioa gainditu zuen. Ordura arte, komunikazio orenen (idatzizko zein ahozko) iriste-denbora aukeratutako garraibidearen abiaduraren arabera zen: diligentzia, orga, zaldia, etab. Telegrafoa agertu arte. Telegrafoak kolpetik ezabatu zituen giza komunikazioarentzako oztopo erabakigarri horiek, eta aldebereotasun eta bat-batekotasunezko mundu batean gintuen sartu. 1872an itsaspeko telegrafo-kable bat instalatu zen Ingalaterra eta Bilbo artean. Salvetik sartuta, eta Campo Volantin pasealekua eta Sendreja eta Itxaropen kaleak igarota, Askao kalean amaitzen zen, Posta Etxean. [\[itzuli\]](#)
10. Ikus liburuki honetako “Karlismoa” kapituluko 11. oharra. [\[itzuli\]](#)
11. Arturo de Marcoartú, *Internationalism, International Assembly to be constituted for the formation of a Code of Public International Law*, Stevens & Richardson, Printers, Londres, 1876. Markoartú askotan joan zen bidaian Ipar Amerikara eta Hego Amerikara. 1870ean, adibidez, Uruguaiako Trenbide Zentralaren eraikuntzan parte hartu zuen. [\[itzuli\]](#)
12. Cristóbal Murrietak Madrilera ekarri zuen The Electricity Supply for Spain Ltd. konpainia. 1889an Londresen sortua, Madrilgo Elektrizitate Konpainia Nagusia bihurtu zen 1890ean. Konpainiaren gerenteak, Pedro Pastor Landero Itsas Armadako tenienteak (1825–1900), baimena lortu bide publikoetako zorupean argindar-hariak sartzeko, etxe partikularrak argitarako eta berogailutarako energiak hornitzeko, baita industria-erabilera desberdinetan indar eragile gisa aplikatzeko ere. Artikulua: “La luz eléctrica en Madrid”, *La Iberia* egunkaria, 1890. [\[itzuli\]](#)

“Espazioan nire tokia aurkitzeko hura usaindu, ukitu eta ikusi behar dut nire inguruan. Zentzumenen bidez lortutako kokapenaren esperientzia horrek eraikitzen du niretzat tokiaren esperientzia, baina halabeharrez dakarzit oroimenak. Beraz, ez dago tokirik zentzumenen bidez eta oroimenen bidez bizitzerik ez badago; batzuetan atsegingarriak eta bestetan desatseginak. Nire lehenarekin zerikusia dauka, baita nire arbasoen, lagunen eta etsaien lehenarekin ere; eta horrek oihal moduko bat sortzen du, zeinak gauzek nahiz oroimenak berriro lotzen dituen zatiek soinean baitaramaten, oroimena bera berpizteko. Nire tokia munduan bermatzen duen baldintza da, nire tokia osatzen duten zatien arteko nire tokia.” Joseph Rykwert<sup>1</sup>

Bilbo eta pintura erakusketa pizgarri on bat izan liteke birus honen eta konfinamendu honen ostean. Pintore hauek ezin hobeto frogatzen dute, Bilbok orduan arrakasta izatea lortu bazuen (XIX. mendeko karlistaldien eta lau kolera-epidemien ondoren), gizarte-klaseen arteko aldeez eta ideologia politikoetako desadostasunez harago bidea elkar hartuta egin zutelako izan zela. Horri zor zaio artista handi hauek izatea.

Erakusketa hau duela 40 urte baino gehiago darabilkit buruan eta oraindik ere gordeta daukat José María de Ucelayk azaleztatutako liburuki bat non erakusketarako gidoia, edukia eta zentzua zehazten diren. 2019ko neguan Woodstocken (New York) bakartua nengoen testu hau idazten, eta XIX. mendean Bilboko hiritarrek garai hartan guztiz hilgarriak ziren izurriteei (kolera tartean) nola aurre egin behar izan zieten (itxialdiak betearaziz, berrogeialdia betetzeko guneak sortuz Galean, itsasontzietan tenperatura neurtzeko neurriak hartuz, eta abar) eta etorkizunerako hartu zituzten osasunarekin nahiz azpiegiturekin lotutako ekimen politikoekin berri irakurtzen ari nintzela, ezin imajina nezakeen 2020. urtean gainera zetorkiguna. 2019ko abenduaren 9an erakusketaren egitura in situ aztertzeraz etorri nintzenez ezin imajina nezakeen nik liburuan aztertzen dudan antzeko egoera batean sartuko ginela handik gutxira. XIX. mendeko Bilbo hartaz ikasi beharrekoa oso sinplea da: eri daudenak zaintzea eta gure jarduerekin aurrera egitea.

Joseph Rykwert arkitektura-kritikariak zera adierazten du 1963an argitaratu zuen *The idea of a town: the anthropology of urban form in Rome, Italy and the ancient world* liburuan: “Gizakia ez da soilik izatearen alde irekiaren baitan bizi, iraganaren eta orainaldiaren arteko tartean bizi da batik bat, bizidunen eta hildakoen artekoan, irekia dagoena ahaztu ezin duen lurrazpiko egoitza horri esker”. Liburu horretan Rykwertek darabilen tesiaren oinarriko premisak ez du zerikusik momentu horretako arkeologiarekin eta zera adierazten du: hiriek ez direla jendea arrazoi praktikoagatik biltzen diren tokia baizik eta sinbologia kosmiko eta erritualaren ondorioa. Bigarren edizioaren hitzaurrean Rykwertek aldarrikatzen du bere saiakeraren xedea dela “arkitektoei antza ahaztuta daukaten zeozer gogoraraztea: hiriak ez direla egin behar irtenbide arrazionala emateko ekoizpenak, banaketak, trafikoak zein higieenak planteatzen dituzten arazoak konpontzeko —ezta naturaren edo merkatuaren presioei erantzun automatikoa emateko ere—, derrigorrez kontuan hartu behar direla ere hiritarren itzaropenak eta beldurrak”. Bada lurpeko bidexka bat eraikitzaileen oroimen horretara eramaten gaituena, gure aiton-amonon garaian zabalgunek eta irrikak, merkataritza eta komunikazioak eraiki ziren horretara, historia bizi batera garamana eta hogeita zazpi koadro hauei esker bizi dezakeguna. Izan dadila denontzat erakusketa hau gozatzeko eta gogoeta egiteko bidea.

1800 inguruan jaiotako belaunaldia askotarikoa da, baina bat eginda jardun zuen, eta horrela eratu zuten gerora guk ezagutu duguna. XIX. mendeko berrogeiko hamarkada inguruan “esnatu” zen talde hura, denak ere Zazpikaleetakoak, askotarikoak ziren, esan bezala: nekazarien ondorengoak, hiriko bertako merkataria, atzerritik merkataritza soil gisa etorriak, ahaide nagusiak, lurren eta meategien jabeak, indianoak eta Madrilen karrera egindakoak. XX. mendearen



hasieran gailentzera iritsi zen Bilbo hari buruzko nire ikuskerak oinarrizko ideia bat du jatorrian: Guiard, Guinea, Regoyos, Arteta, Arrue anaiak eta belaunaldi hartako artista haiek sortzeko, ezinbestekoa izan zela alde aurretik etorkizunaren alde egiten duen hiri bat eraikitzea (bazituenak Nautika Eskola, Enpresa Ikasketen Eskola, Bizkaiko Institutu izandakoa, Zabalgunea, portua, trenbide eta trenak, Burtsa, Basurtuko Ospitalea eta abar eta abar).

Bidaiaztea beti hartu izan da ezagutzarako tresna; batik bat, itsasoan zeharreko bidaia. Bilbo itsasoan zeharreko merkatarien herria izan da, eta hori abentura handiagoa da beti, horrelako bidaia bat egiteko asmotan dabilenak bai baitaki, lehenik eta behin, zerumugako aukera urrunago dagoela, eta bigarrenik, arrakala batek bereiziko dituela bidaia aurrekoa eta ostekoa, irteera eta iritsiera, ontziratuko denaren profila eta beste lekuren batean porturatuko denarena. Urrats bat da, eta metamorfosia; arrisku bat da (hartatik babestu egin behar), eta beste salgai batekin itzultzea. Irteerako kaia eta lehorreratzekoa itsasoaren zabalak bereizten ditu, bai, eta orobat ohiturek, legeek, hizkuntzek, bizitzeko moduek. Rykwertek dioen moduan: “Lehenik eta behin, hiri bat errealitate fisikoa da: eraikin, etxe eta eraikin publikoek osatutako multzo handiagoa edo txikiagoa [...] Baina benetako hiria bideak errepide bihurtzen direnean baino ez da hasten<sup>2</sup>.

Ez da harriztekoa etorritako indianoek itsas merkatariekin enpatia izatea. Haiek ere ontziratatu baitziren aberastasun bila, beste norabait. Bihotz-erraietan badakite hasierako bulkada ez zela izan aurretik zehaztutako proiektu jakin bat, baizik eta sakon-sakoneko jakin-min batek piztutako bihozkada bat. Emigrantea Ameriketara bultzatu zuen grina haren tentsio bera sentituko zuen itsasoak zeharkatzen zituen nabigatzaileak, eta tentsio bera ere karga arriskuan jartzen zuen kontsignatarioak. Krisialdi batetik irteteko, “setio” batetik ateratzeko eta etorkizunerako aurrera jotzeko egin beharrekoaren konplexutasuna ulertzeko, begirada berezi bat behar da, egoeraz jabetzeko gogo eta egoera ulertzeko modu bat, eta Lehen Karlismaldiko bilbotar haiek bazuten. Begirada horrek esan zien garbitasuna, zorrotasuna eta diziplina behar zirela beren etorkizuneko planekin eta planoekin hiriaren bestelako marrazki bat egiteko, eta denek elkarrekin lotuta egon behar zutela etorkizunera bidea zabaltzeko. Ulertu behar zuten non zeuden eta egin nahi eta behar zutenaren benetako esanahia zein zen. Baziren artisauek eta baziren merkatariek; baratzeak eta elikagaiak ere hantxe zeuden, ondoko landetan; eta bazen antzinako dirua zeukan jendea, eta diru berri-berria zeukana, Ameriketatik ekarria. Máximo Aguirre eta beste asko ohartu ziren maila horiek guztiak lotzea zela egin beharrekoa. Ekoizteko gaitasuna hementxe zegoen: historiarekiko loturaren ideia irakatsi behar zen, besterik ez; loturaren ideia sustatu, eta erakutsi zer egiten ari ziren eta zertarako, etorkizunerantz joateko.

Zoritxarrez, 1936ko Gerra Zibilak lotura askotariko horiek guztiak etetea ekarri zuen. Baina Errepublikara arte eta Lehen Karlismalditik, Bilboren muinean bizi-bizirik izan zen aurrera egiteko asmoa eta, garrantzitsuagoa dena, eguneroko borondate praktikoa. Enpatia zuten jatorrizko familiarekiko, baina batik bat, denentzat aukera gehiagokoa izan zitekeen etorkizun zabalago bat lortzeko gaitasunarekiko. Istorio hori behin eta berriz kontatzen jarraitu beharra dago, gure Historia delako, gaitasunak hor diraelako, eta Bilbo zeharo heterogeneo hura izan zenaren adibide bizia da Pintura hau. San Anton ibaiertzean dela, portu-hiria da Bilbo, eta nazioarteko portu handi bihurtu nahian dabil XIX. mendean. Gure historia ontzioletan zeharkatuta dago, hasi Bilbo Zaharraren eta Abandoren ur-bazterretatik eta Olabeaga eta Sestaoraino. Itsasontziak, askatasunerako aukera gisa eta merkataritzarako bitarteko moduan (esportatzeko nahiz inportatzeko), grabatuta daude gure kulturaren kode genetikoaren matrizean. Hiribildu bakoitzak armarrarian daramatzen apaindurak alde batera utziz gero (iragana laburbiltzen duten irudi grafikoak dira armarriak), Bermeokoan baleontzia ageri da, Portugaletekoan hiru mastako karabela, eta mastak banderatzoz apainduak dituen ontzia Plentziakoan. Gure armarrria San Anton eliza da, bertako kaia eta bi arkuko zubia, eta azpian, ura. Zubi batek beti dakar zerbait zeharkatzea; loturak egiteko eta bilaketarako arkitektura da; bizitzako trantsizioa esan nahi du, eta horretarako ezinbestekoak dira borondatea eta erabakitasuna. Bi alde bat egitea ere bada zubi bat, eta ibaiertza, berriz (edo kai bat edo portu bat), lotune bat da, itsasontziak atrakatu eta abiatu ahal izan daitezen gune bat. Itsasontziek ez

dituzte salgaiak soilik garraiatzen (burdina, artilea eta abar); itsasontzietan gorputzak, ezagutzak eta nahiak ere badoaz. Hitz batean: aukera berriak.

Iragana berrikustek, iraganera berriro jotzeko, berariaz, egiaren geruza eta sedimentazio gehiago induskatzeko bidea ematen digu, atzerantz begiratzen dugun aldiro. Horixe da erakusketa honen asmoa; izan ere, ahalegin hori gabe, gure oroitzenak lurpean gero eta sakonago geratuz doaz apurka-apurka, inolako analisirik gabe, denboraren hondakinen pean axolarik gabe lagata. Aldi berean, aurreko pintura aztertzeko gure soa eta gure asmo onen zorrotasuna krakelatu egingo ditu iragandako denboraren joanaren eta distortsioaren pisuak. Iragana esploratzea enpatia-ariketa bat da, beste garai eta leku batean gizaki izatea zer zen jabetzeko modu bat. Oroitzea (oroimen-ariketa egitea) gizakiok dugun tresna ahalsuenetako bat da.

Horregatik, erakusketa honen asmoa ez da iragana berregitea, baizik eta berraztertzea eta geuregan berpiztea elkarrekin biltzeko eta partekatzeko nahia, kontsolamendua aurkitzea eta libre sentitzea, une batez bada ere, bilbotar haiek Karlismen egin zuten bezala. Erakusketa hau atzera begiratze bat da, gure heran-aitona-amona eta gure hiriaren irudiar buruz gehiago jakitea, historia are gehiago distorsiona dadin utzi beharrean. Asmoa ez da iragana idealizatzea, baizik eta iraganean alderdi onak bilatzea. Denborari eta ikuspegiari buruzko erakusketa bat da. Pinturan finkatuta geratu den iragan beti presenteari buruzkoa, bere-berez mintzo baita kalitate handiko pintura. Arkeologiak falta dena du ikergai, sedimentua aztertzen du, esanahia argitaratu arte, eta guk hemen, Bilboko pinturaren historia honetan, agertokia berraztertzen dugu, giza bizitzak utzitako aztarnaren bila: atzean geratu zen hura, existentziaren itzalak.

*Gela bat norberarena saiakeran (A Room of One's Own)*, Virginia Woolf idazleak gogorarazten digu idaztea, ekintza jasoa izatearen aura badu ere, ororen gainetik giza gorputz baten ekintza fisikoa dela, pertsona horri bere behar oinarrizkoetan sostengatu egin behar zaiola. Zer janik ez duen artista pobreaken mistika ere topiko faltsua da: eguna joan eta eguna etorri goseak egon den artistarik ez da sekula izan. “Batek ezin du ondo pentsatu, ondo maitatu eta ondo lo egin, ondo afaldu ez badu” (One cannot think well, love well, sleep well, if one has not dined well), dio Woolfek. Haren esanetan, liburuak ez datoz Olinpo Menditik diktatuak; aitzitik, “giza sufrimenduaren emaitza” dira, “eta osasuna, dirua, bizi garen etxea eta halako gauza txit materialei loturik datoz” (but are the work of suffering human beings, and are attached to grossly material things, like health and money and the houses we live in). Ziur asko bazekien ganbera itxi batean bahituta dagoen idazlearen ideia oso artista gutxi erdietsitako ideal bat zela. Woolfek ez zuen itxialdiko bizimodua izan, baina haren oinarrizko ideia —pribatutasun eta lasaitasun pixka bat izatea ezinbestekoa dela kalitate oneko artea sortzeko— gaurkotasan beteko premia bihurtzen ari da, web-eko kulturaren ondorioz egiazko bakartasuna gero eta urriagoa bilakatzen ari den heinean. Woolfek argi esaten digu liburu on batek (edo margolan on batzuek, gure kasuan) espazio fisiko baten oso antzeko espazio mental bat sor dezakeela: “ez esaldiak elkarren ondoan josiz, irudia zilegi bazait, esaldiak arku eta gangen moduan eraikiz baizik” (not made of sentences laid end to end, but of sentences built, if an image helps, into arcades or domes).

Atzetik aurrerantz eramaten zaituen erakusketa da erakusketa ona. Margolan hauek narratibak dira, mundu guztiak uler dezake pintura hau. Eta pintura hau ez da mintzo narratiba delako, ezpada plangintza formal bat duelako bere momentu berrian, pinturak enkargatu zituztenen nahiari lotua. Ez ziren errege-erreginak, ez konde-kondesak: herritar arruntak ziren, dirua egin zutenak, nabarmen, baina oso familia-jatorri desberdinekoak, eta jakin zuten beren garaiko artistengan fidatzen, Bizkaiko Institutu hartan ikaskide izan zituztenengan uste osoa izaten.

Egia esan, artista hauek guztiak bizitzaren jaiakortasuna ulertzeko bestelako modu batez, tolerantziaz eta aurrera egiteaz besterik ez zaizkigu ari.

Oraintxe antzera gaude, goibeltasun-garai batean, birus batek “setiatuta”. Artista haiek gai izan ziren baikortasunez lan egin eta beren burua proiektatzeko, eta guk ere baikortasun berberaz eta kemenez atera behar dugu goibeltasun eta “setio” horretatik.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. “I make my place in space when I smell, touch, see it around me. That experience of location through the senses makes my sense of place, but inevitably summons memories. So there can be no place without memory evoked and experienced through the senses—sometimes pleasurable but as often painful. It reaches back to my own past, but the past also of my forebears, my friends and enemies making a tissue which clings to things, to fragments which memory reconstructs and through which it lives anew. It is the condition which assures my place in the world, my place among the fragments which constitute my place”, hemen: Joseph Rykwert, *The Idea of a Town: The Antropology of Urban Form in Rome, Italy and the Ancient World*. University Press, Princeton, 1976, 48. or. [\[itzuli\]](#)
2. “The city is first of all a physical reality: a more or less sizeable group of building, of habitations and public building...The city begins only when paths are transformed into road”. Hemen: Joseph Rykwert, *The Idea of a Town: The Antropology of Urban Form in Rome, Italy and the Ancient World*. MIT Press, Cambridge, 1988. 23. or. [\[itzuli\]](#)

# BILBO | PINTURA

## BILBO: MERKATARITZARAKO PORTUA ETA HIRIBILDUA

Erakusketaren lehenengo areto honek XIX. mendearen amaierako Bilbo osatzen zuten pertsonaia batzuk aurkezten dizkigu, baita Parisera, eta ez Erromara, bidaiatu zuten euskal artistak ere, eta bete-betean sartzen gaitu Bilboko itsasadarrean, hiriak industrian, itsas arloan eta hirigintzan izandako garapenaren eragilea ezagut dezagun.

Alde batetik, Adolfo Guiardek 1886an Sociedad Bilbaina elkarrearentzat egindako margolanak daude. Hiru lan ikusgarri dira, eta horietan deskribatuta daude paisaia ekonomiko berria (itsasadarra Erandio parean, salgaien itsasontzi ugariarekin eta atzealdean lantegietako tximiniak ikusten direla), paisaia sozial berria (itsasora begira dagoen klub baten terrazako tertuliak eta solasaldiak) eta hiriko paisaia berria (ehiztariak Iparraldeko Geltokian, zakurrak prest dituztela kirol-jardunaldi baterako). Itsasontzi ainguratuz betetako itsasadarraren irudia alde batera utzita, beste biak Bilboko burgesiaren eszenak dira.

Bestetik, 1895ean El Escritorio elkarrearentzat egindako muralak ditugu. Horietan, Anselmo Guineak, Manuel Losadak eta Ignacio Zuloagak beren lagunak —Elkarte Filarmonikoa sortu zuten burgesak— irudikatu zituzten, pianoa jotzen edo egunsentia agurtzen Areatzako pasealekuan. Erretratu horietan merkataria musikazale haiek kulturaz eta aisialdiaz gozatzeko ageri dira, dibertsiozko eta gualdeko eszenografia batean, eta irudiotan ironiaz tratatzen dira kluba bera eta bertako kideak. Ez dira Sociedad Bilbaina elkarteko margolanak, jende gazte osatutako klub bateko eszena dibertigarriak baizik. Horiekin batera, José Arruek jende berari egindako erretratuak dauzkagu, non Espainiako erregea ageri den, Abran egindako estropada batzuetan, kirol-aisialdiko jardunaldi batean; horrelakoetan ere itsasoan lehiatzea zen pertsona haien araua.

Itsasoko mundua funtsezkoa izan da Bilboren historian: San Antoneko eta Erriberako kaietatik hasita, Abrako kanpo-portuko dike eta moila handietaraino, itsasoa oso osagai garrantzitsua zen XIX. mendeko Bilboko ekintzaile horientzat guztientzat, merkataritza itsasbide irekietan oinarritzen zelako ez ezik, baita bokazio *nautikoa* berezkoa zutelako ere.

Hiribilduko negozio komertziala portuan oinarrituta egon zen hasieratik, itsaso bidezko garraioan eta nabigazioari zein itsasbideei buruzko ezagutzan, baita *ur handitako* arrantzan ere, hau da, kostaldetik urrunekoan. Baina ogibideak itsas bokazioa izan zuen lagun. XIX. mendearen amaieran enpresaburu handi izatera iritsi zirenetako bat baino gehiago kapitainak izanak ziren minerala garraiatu eta bueltan bakailaoa edo itsasoz bestaldeko produktuak ekartzen zituzten belazko goleta haietan.

Belazko goletak eta brigantinak zaharkituta geratu ziren, eta lekua utzi zieten burdinazko kroskoa eta lurrin-makinak zeuzkaten itsasontziei. Ezkerraldeko ontzitegi txikiak merkantzia-ontziak eta gerraontziak fabrikatzen zituzten ontziola handi bilakatu ziren.

Itsasoa merkataritza-bide (eta aberastasun-iturri) gisa, aisialdirako leku gisa (bainuetxeak eta estropadak) eta bilgune sozial gisa; itsasadarra industria siderurgikorako eta ontzigintzarako eremu gisa, belatik lurrunerako aldaketaren agertoki gisa, egurrezko ontzioetatik altzairuzko ontzioletarako aldaketaren gertaleku gisa.

Lehenengo aretoko hiru margolanek itsasoak Bilboren historian izan duen garrantzia adierazten digute. Adolfo Guiarden bi lanek, *Itsasadarra Axpen (La ría en Axpe)* eta *Terrazan (En la terraza)*, 1886koak, bi-biak, itsasadarrean ainguratutako ontzien mundura garamatzate, merkataritzaren arteria nagusira, eta bainuetxe batetik ere erakusten digute itsasoaren ikuspegia, kanpo-portuan, jende ezezagunarekin. Hirugarrena, José Arrueren *Estropadak Abran (Regatas en el Abra)*, taldeko erretratu bat da —non pertsonaia guztiak identifika daitezkeen—, eta aisiazko une bat irudikatzen du: belazko ontzien estropada bat.

Hiru margolan horiek bigarren aretoko beste bostekin lotzen gaituzte: itsasoaren eta beste portu batzuen beste bertsio batzuekin eta, amaitzeko, itsaso bidezko erbesteratzearekin, Aurelio Artetaren 1937ko *Gerraren triptikoa (Tríptico de la guerra)* lanean. Aisialdirako erabilitako yate berberak erabili zituzten Gerra Zibiletik ihes egiteko.

Maeztu, Zubiaurre, Tellaechea eta Arrueren margolanek ere oso ikuspegi desberdinetatik begiratzen diote itsasoaren munduari. Maeztuk herrietan duen alderdirik epikoena erakusten digu: dolua. Itsasoko lanari eta horrek dakartzan arriskuei begirako dolua. Epikoa izan zen itsasoaren eraso 1904an, Ondarroako hainbat marinel hil baitzituen; gertaera hark oihartzun handia izan zuen orduko prentsan. *Lirika eta erlijioa (Lírica y religión)* triptikoak itsas herri txikien patu hori kontatzen du, ezaguna den arrisku etengabe hori, erromantze epikoen ildotik. Zubiaurrek pertsonaia nobelatu bat aurkezten digu, Pío Barojaren edo Joseph Conraden ipuin batetik ateratako kapitain bat.

Tellaechearen lanean, itsasoaren mundua abstraktuagoa da, nahiz eta harena ere pintura epikoa den, desagertzen ari zen mundu batez mintzo dena: brigantin eta kuterren munduaz, belazko aparailu konplexuz osatutako ontzi haiek, izen ugarikoak, piano bat tonuan jartzea bezain zailak zirenak tresnatzeko; mundu hura zen merkataritzaren eta trukearen motorra.

Tellaecheak aurrez aurre jartzen digu Erriberako kaietan lehorreratzen ziren ontzietako aparailuen lerro-multzoei irudikatzen zuten mundu orkestratu hura, non kapitaina (orkestra baten *gidaria* izango balitz bezala) ozeanoa zeharkatzera ausartzen baitzen —oihal horiek ongi tenkatuta sortzen zuten indarra baliatuz—.

Azkenik, José Arruek une historiko baten berri ematen digu *Estropadak Abran. Alfontso XIII.a Algortako itsasargian (Regatas en el Abra. Alfonso XIII en el faro de Algorta)* lanean: Abrako kirol-portuari egindako bisita eta estropada baten argazkitzat har daitekeena hamarkada liluragarri baten ikonografia bilakatu da, alde batetik, eta bestetik, hamarkada horren irakurketa bat da, gizarte-eredu baten *ikonologia*; hau da, orduko harreman sinbolikoen erradiografia.

Ongi ulertzeko itsasadarraren margolan hauek, non ageri diren bertako lan-tresnak, itsasontziak, baita bertan izaten ziren aisiazko uneak ere, komeni da Bilbok XIX. mendearen hasieran oinarrian zeuzkan elementu kulturalak berrikustea, Adolfo Guiarden eta José Arrueren margolanen ildotik:

Nautika Eskolak eta ontzi-kapitainak

Ontziolak: zurezko ontzigintzatik lurrunezko itsasontzietara

*Steam yachts* izeneko ontzietatik itsaso pareko etxe berrietara

Itsasadarra eta komunikazioak: portua eta trenbideak, zubiak, burdina, hormigoia, argiztapena eta zentral elektrikoak.

Eta José Arrueren bi *talde-erretratu*en harira, XX. mendearen hasiera, merkataritza eta industria berria garatu zuten Bilboko pertsonaia burgesak ageri direlarik:

- beren aisiaguneetan
- beren klub nautikoetan eta
- beren estropada eta itsasontzietan

Adolfo Guiard (Bilbo, 1860–1916) XIX. mendearen erdialdean Bilbon finkatu ziren merkatari frantses batzuen semea zen, Paco Durrioren antzera (Durrio saskigile baten semea zen; Guiard, optikari eta argazkilaria batena). 1878an, Guiard Parisera joan zen; 18 urte zituen, eta bi urte eskas ziren inpresionisten lehenengo erakusketa agertu zela, 1874an<sup>1</sup>. Parisen, bila zebilena aurkitu zuen. 1886aren amaieran itzuli zen Guiard Bilbora, eta Posta kaleko 23. zenbakian ezarri zuen estudioa. Juan de la Encina kritikariak honako hau idatzi zuen Guardi buruz: “Garai batean Parisen modan egon ziren joera artistikoak eta artea ekarrita, arte-forma berrien gogoia ekarri zigun. [...] Etengabe harremanetan jarri gintuen arte-ekoizpeneko gune moderno bizi eta anitzenarekin. Ordudanik, euskal artea deiturikoak arte frantses modernoaren eraginaren zigilua darama”<sup>2</sup>.

Itzuli berritan, Sociedad Bilbaina elkarteko aretoetarako margolan handi batzuk egiteko eskaera jaso zuen Guardek. Javier González de Duranaren arabera<sup>3</sup>, oraindik Plaza Barriaren kokatuta zegoen elkarteko lehendakari izendatu berri zutenak egin zion eskaera: Manuel de Ayarragarayk<sup>4</sup>. Ayarragaray bilbotar kosmopolitenetako bat zen —Pablo Alzola ingeniariak 1908an haren hilberrietan gogoratu zuenez—; Pariserako bidaiaria batean hil zen, hain zuzen ere. Atzerriko prentsaren ohiko irakurlea zen, eta Thomas Pridgin Teale britainiar medikuaren *Dangers to Health: A Pictorial Guide to Domestic Sanitary Defects* (1883) lana gaztelaniaz itzuli eta argitaratu zuen 1886an *Salud en peligro en las casas mal acondicionadas*. Artearen eta modernitatearen oso zalea zen, eta baliteke hari bururatu izana muraletan “Bilbo berria” irudikatzea: itsasadarraren Bilbo, tren-geltokia eta itsasertzeko bainuetxeena. Haren etxea, ‘Amandrerena’, 1877an eraikia, Aguirretarren bainuetxearen ondoan zegoen, Areetan.

Guardek hiru mihise handi egin zituen: *Itsasadarra Axpen* (*Larria en Axpe*), *Terrazan* (*En la terraza*) eta *Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* (*Cazadores en la Estación del Norte*). Darío de Regoyosek ez bezala, Guardek *inpresionismoaren berri* ikasi zuen Parisen, teknika gisa baino gehiago paradigma-aldaketa gisa, eta horrekin batera *japonisme* edo ekialdeko artearen eragina ere jaso zuen, enkoadraketari zegokionez. Haren estilo errealistak inpresionismoaren koloreari eta argiari zor die bere zentzua, baina konposizio asimetrikoetan ekialdeko grabatu eta estetikaren eragina nabari da<sup>5</sup>.

Guiard artista bakarti baina eragin handikoa izan zen espainiar margolarien artean. Ez zuen asko ekoitzi, baina haren margolanetako batzuek garai bat laburbiltzen dute.

Bilboko Arte Ederren Museoko lanek, *Txo* (*El cho*), 1887koa, *Uzta-garaia* (*La siega*), 1892koa, edo *Krabelin gorridun baserriar gaztea* (*La aldeanita del clavel rojo*), 1903koa, euskal inpresionismoaren margolaritzat gaitzen dute Guard, eta gure mundu landatarraren eta itsas domeinu berriaren erretratugiletzat. Ildo horretan, haren lana Bostongo Eskolako William McGregor Paxton<sup>6</sup> margolari handiaren maila berean dago.

Konpara ditzagun *Krabelin gorridun baserriar gaztea* (*La aldeanita del clavel rojo*) eta Paxtonen *Neskatxa eguzkiaren argitan* (*Child in the Sunligh*). Guardek buru gainean marmita bat eta ahoan krabelin gorri bat daramatzen neska baserriar gazte bat margotu zuen; atzealdean, andre zahar bat josten ari da, eta mantala jantzita daramaten bost haur ditu inguruan; zuhaitz batek mugatzen du konposizioa eskuinaldean eta goian. Horma baten atzean paisaia industrialak ikusten da, eta itsasadarrean ainguratutako itsasontziak, garai hartan landaren eta industriaren artean zeuden kontraesanak, eta belen masta tente ageri da, baserriar gaztearen antzera. Artistak argiaren efektuetan eta azalaren

nahiz oihalen xehetasunetan jartzen du arreta. Tonu urdineko margolan bat da, tonuarekin jolastuz kolorea nola erabil daitekeen erakusten duen lezio bat.

Neskaren gona eta alkandora, andre zaharraren jantziak eta haurren mantalak, baita zinkeko ontzia edo esneontzia ere, guztia dago urdinak eta zuria erabiliz eraikia, erliebearekin utzia. Kolore urdinak giro limurtzailea sortzen du, eta bertan eztanda egiten du ahoko krabelinaren gorriak, baita konposizioa goitik mugatzen duen zuhaitzeko hostoen berdeak ere. Neska aurrera begira dago, ikono bat izango balitz bezala, kariatide bat izango balitz bezala, eta harengan bi mundu batzen dira, landakoa eta itsasokoa. Paxtonena, albo batera begira dago, ezkerrera begira, eta eguzkitako bati heltzen die bi eskuez; oso arretatsu eta gogoetatsu ageri da. Erretratu pertsonal bat ez ezik, lasaitasunaren eta introspekzioaren erretratu bat ere eskaintzen digute bi artistek, argi lasai batek inguratuak, bi-biak. Bi neskatxek ahultasun sensual bat proiektatzen dute: neska isilak eta emakume ausartak dira aldi berean.

Guiardi buruz idatzi zuen Miguel Unamuno filosofoak, umetan haren ikaskide izandakoak Lecuonaren estudioan margotzen ikasten aritu zenean: "Guiarden pinturan ingerada nagusitzen da; haren figurak siluetak dira. Esan genezake margoziak baino gehiago marrazki argiztatuak direla haren lanak, ia denak txikiak. Lehenengo arreta handiz figura marraztu eta ondoren koloreztatzen duten horietakoa zen. Kolore arin eta gardena ematen zien. Guiarden giza irudiak naturalak dira. Esan nahi dut naturarenak direla, zuhaitz bat naturarena den moduan. Udaberriko berdetasun freskoa darien giza irudi begetatiboak dira, ahalik eta gutxien kontzentratuak. Bizitzari emandako gizonak dira, apaingarriak eta soilak, haizemailetako txinatarren antzera"<sup>7</sup>.

Sociedad Bilbaina elkartearentzat egindako muraletan, artistak Bilboko bizitzako kontraesanak irudikatu zituen, *Krabelin gorridun baserriar gaztea* margolanean ageri direnak: zamaontziak itsasadarrean, hondartza ondoko kafetegi batean eserita dauden pertsonak eta tren geltokiko giroa, oso gai tipikoa pintura inpresionistan, non nahasita ageri diren pertsonak, trenak eta kea. Burgesia berri baten (ez oligarkiaren) bizimodua eta testuingurua irudikatzen duten eszenak dira: kirolak, irteerak, tertuliak, ehiza...

*Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* konposizioan, pertsonaia bat eskuineko albotik sartzen da; ezkerrean, eserita dagoen emakume batek ixten du konposizioa. Bien artean era askotako jendea dabil: haurtzainak umeekin, elkar agurtzen ari diren bikoteak; onddo-kapela daramaten bilbotar batzuk eta horien txakurrak dira lehen planoko protagonistak. Konposizioaren benetako protagonista, hau da, *subject matter* edo gaia, geltokia bera da, bertako keak, argiak eta egitura metalikoa, zeinaren zabalera handiko arkutik begiratuta Hurtado de Amezaga kalearen goiko aldeko etxeak ikusten diren. Era berean, margolan honetan Guiardek bere konposizioetan behin eta berriro erabili zituen bi elementu ageri dira: bata, jatorria ekialdeko estetikan duena, ikuspegi goratua erabiltzea da, eta bi elementu piktoriko bereizi espazio konprimituan elkarren ondoan ezartzea; bestea, argazkigintzaren eraginaren ondorioa, errealismoa eta bat-bateko enkoadraketa erabiltzea. Konposizioaren teknikari erreparatuta, Guiarden lanak gogora dakarkigu *Europako zubia* (*Le Pont de l'Europe*), Gustave Caillebotte margolariak 1876an egindako margolana<sup>8</sup>. Parisko eszena bat da: Gare Saint-Lazare geltokiaren gaineko zubia udaberriko goiz batean. Caillebottek bi ihespuntu darabiltza: kapela luzeko gizonarena, emakumearena eta atzealdeko langilearena, zeintzuek osatzen baitute lerro bat gainerako espaloiarekin, eta zubiko altzairuzko armazoitik trenbideei begira dagoen gizonarena.

Guiarden lanean ere bi ihespuntu daude (edo abiapuntuko bi argazki desberdin): nasan dabilen jendearena, eta, kontrako noranzkoan, aurrera begira dagoen haurrak eta bizkarrez dagoen gizonak osatutakoa, txakurra laztantzen ari den gizonarenganantz doana. Guiardek oso ongi mugatzen du konposizioa geltoki amaierako markesinaren azpian, eta horren atzean agertzen uzten du trenen kea, eguzki-argiarekin kontrastean. Maisulana da konposizioari dagokionez, eta efektu emozional eta narratiboa lortzen du: pertsonaien jarreraren kontrastea, nola begiratzen dion ikusleari lehen



planoan poltsari eusten eserita ageri den emakumeak; bizkarrez dagoen ehiztariaren eta txakurren ondoan dagoen mutilaren arteko distantzia; elkarrekin hizketan ari diren taldeen arteko aurpegiera-contrasteak, jantzien konbinazioa tren-geltokiko arkitekturarekin, egurrezko bagoiekin, altzairuzko habeekin. Hori guztia narrazio bihurtzen du, une hartako konbentzio sozialei buruzko dokumentu. Lan honetan, Guiardek tren-geltokien Bilbo arkitektoniko berri hura irudikatu zuen: eremu itxi eta aldi berean ireki hura, irekia aire zabalera, baita bidaiara ere. Hori da Guiardek landutako gaia.

*Terrazan* konposizioan gauza bera gertatzen da: hondartzara, itsasora eta Galeako muinora begira dagoen espazio ireki bat da. Aldi berean, baranda handi batek itxitako eremu bat da, jateko leku bat. Lehenengo planoan zerbitzarien zerbitzurako mahai bat dago, eta urrutiagoko beste mahai batzuetan —*Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* laneko trenaren bagoien moduan— lau talde ageri dira, bazkalondoan berriketan. Konposizioak sigi-saga bat egiten du ezkererantz, geltokian bezala, nahiz eta azken horretan nasari jarraituz sortzen den ihes-lerroa linealagoa eta zuzenagoa den. Bi lanetan dago espazioen haustura hori: terrazan, lehen planoko natura hilaren, barandaren eta hondartzaren artean; geltokian, bidaiari-poltsa eta txakurren eta kanpoko argirantz galduz doazen bi bagoi-segiden artean. Taldearen berariazko dinamismoak —bazkalostean lasai eserita dauden pertsonen eta aulkien errepikapen hipnotikoaren artean— aurka egiten dio txakurrekin dagoen emakumearen bakardadeari. Goitik ateratako *veduta* bat da, itsasontzi baten zubitik behealdean ikusten den bista baten antzera; barandaren atzean, hondartza eta itsasoa daude, eta Galeako muinoak horizonte gisa balio du.

Konposizio bikaina da, estetika japoniarretik ikasitako espazio-desoreka horrekin. Era berean, oihalen xehetasuna ere antzematen da, James Tissot<sup>9</sup> margolari frantsesarengandik ikasia, seguru asko; Guiardek Parisen ezagutu ahal izan zuen, Tissot hara itzuli baitzen hamalau urte Londresen igaro ostean, non José de Murrieta<sup>10</sup> euskal bildumagileak *Tamesis ibaian, koartza bat* (*On the Thames, A Heron*) lana erosi baitzion 1872an<sup>11</sup>. Tissotek Galerie Sedelmeyer galerian erakutsi zituen bere lanak 1885ean: Parisko emakumea (*La Femme à Paris*)<sup>12</sup> izeneko sail bateko hamabost margolan handi jarri zituen ikusgai. Bai Tissot, bai Guiard Edgar Degasen lagunak izan ziren.

*Terrazan* itsasoari eta hondartzari begiratzeko modu berri baten gorespina da, burgesiak Guiard Parisen zegoen bitartean eraikitako bainuetxeek (Santurtzikoa, Portugaletekoa, Areetakoa) eskaintzen zuten begirada berri baten gorespina. Artistak ez ditu erretratatzeko bezeroak, ikuspegi nautikoa baizik, Bilboko gizarte berriak ezagutu berri zuen plazer bat, itsasoko bainuena. Guiardek sortutako irudiak ukitu britaniarra du (ongi jantzitako damatxoaren xarma ezia), eta teknika frantses berri bat darabil (inpresionismoaren kolore-pintzelkada askea); hau sortzean gogoan zituen Gustave Caillebotteren eta James Tissoten konposizioak, eta ustekabeko angeluak erabili zituen konposizioaren marko gisa (oinarritzat hartuta bere argazkiak), baita baldintza atmosferikoak ere, konposizioari anbiguotasuna eransteko edo anbiguotasun hori indartzeko.

Pentsa dezagun Tissoten *HMS 'Calcuta' ontziko galeria (Portsmouth)* [*La Galerie du HMS 'Calcutta' (Portsmouth)*]<sup>13</sup> margolanean eta ontzigaineko barandan berramututa dagoen emakumean. Gazako soineko zuri dotorea, begizte eta xingolez apaindua, kortsearen gainean gerruntze estu bat daramana eta xingola horiz apaindutako gona duena, egurrezko barandaren gainera makurtzen da, eta forja-lanaren marrazkiak edo marrazkiaren linealtasun lerromakurrak oihalen enpastearekin kontrastatzen du. Aurrez aurre daude jantzi landuak eta ontzi-zurgintzaren sendotasuna, eta atzealdean geratzen da itsas paisaia. Guiarden margolanean, eskuinaldean, barandaren ondoan, emakume dotore bat<sup>14</sup> dago galgo eder batekin —zeina burdinazko forja-lanari kontrajartzen zaion kolorean eta kurbetan—; hondartzako paisaia irekiari begira dago. Hemen ere, *Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* lanean bezala, ez dago horizonte-lerrorik konposizioaren erdialdean, eta konposizioa ez dago zentratuta; perspektiba zehar bat dago, ezkererantz, eta eskuinaldean Algortako hondartzaren paisaia daukagu, edo tren-bagoiak. Guiardek “angeluhandi” efektuarekin lan

egiten du, eta bizkortu egiten du perspektiba, zeinak xurgatzen gaituen lanaren barnealderantz, non distantziak gainidatzi egiten diren eta eskalak alboratuta dauden. Margolaneko espazioa estutu egiten da bertan sartzean, baina itsasoak, trenaren antzera, beste bidaia batera garamatza.

Hirugarren lana, *Itsasadarra Axpen* Bilboko zabalgunearen beste eszena bat da: itsasadarra merkataritzagune nagusi bihurtuta. Guiard Axpeko dartsenaren ertzean eserita dago, egungo Goioaga kalean, aurretik Iparraldeko Geltokian eseri den antzera, eta ainguratutako itsas mundu haren berri ematen digu; Serantes mendia ageri da atzealdean. Ibaizabalen nabigagarritasun-baldintzak nabarmenki hobetu ziren Elorrieta eta Axpeko itzuliak desagertuta, mineralen karga-lekuak kanalizatu eta dragatuta eta buia-instalaziodun dartsenak eraikita, kargarako txanda itzaroteko. Ez zen lehen aldia Guiardek gabarren edo ainguratutako itsasontzien zirkulazioari erreparatzen ziona, ontzi eta tresna flotatzaileen tipologiak aztertzeko, itsaso zabaleko nabigazioaren osagai guztiak aztertzeko.

Bizkaiari, ontzien mundua aldatuz zihoan Euskal Herriko industria aldatzen zelako, eta alderantziz: Euskal Herria eraldatu egin zen, itsasontziek alde batera utzi zituztelako haizezko eta urezko sustraiak, makinazko eta burdinazko sustraien mesedetan. Guiardek une hori dokumentatu zuen. Haren beste lan askotan, itsasadarrean ainguratutako belaontziak edo lurrunontziak ageri dira atzealdean; beste askotan, itsasontziak berak dira margolanaren gaia. Guiardek ikusi zuen itsasoko zirkulazioa handiagoa zela egunetik egunera, Portugaleteko barra desagertu zenetik eta itsasadar osoan gaueko argiztapena jarri zutenetik. Ikusi zuen, halaber, desagertzen ari zirela belaontzi-mota desberdinak, haien kroskoen forma espezifikoak eta haien aparailuak, eta agertzen ari zirela altzairuzko lurrunontziak. Gero eta bela gutxiago zeuzkaten ontzi horietan, tximiniak betetzen zuten funtzio ikonikoa, eta tximiniak ziren gainegituraren elementua, barne hartzen zituen motor, turbina eta galdaren ihes-hodiak; motorrak zeramatzatela eta haizearen mende egoteari utzi ziotela adierazten zuen ikurra zen.

Itsasontzien puntu agerikoena izanik, itsasontzi-enpresen estandarte gisa balio zuten, eta, horrexegatik, haietako bakoitzak bere kolore bereizgarri margotu edo bere anagramaz apaindu zituen, batzuetan metalezko uztai edo bridak erabiliz erremate gisa<sup>15</sup>.

Guiardek sortutako itsasadarraren bista honetan, ez dago gabarrarik; ezin hobeto antolatuta dauden itsasontzi ainguratuetakoa pertsonal edo eskifaien joan-etorrietarako txalupa bat baino ez dago, eta atzealdean Serantes mendia, lehen planoan ezkerrean ageri den poparen kontrapuntu gisa. Pailebot<sup>16</sup> txikiak bakarrik ditu belak, eta haren branka-haga luzeak masta eta tximinien armada korazatuarekin kontrastatzen du. Bela guztiak zabalik baina tenkatu gabe dituen belaontzi horrek mihisea erakusten du (belakien pisua, tamaina eta geometria); foke bat darama (triangelu-formakoa), eta beste foke bat ere badu, bilduta edo lotuta, baita tapiku bat ere, eta bigarren mastako tapikua, tapikugain eta guzti. Pailebot horrek bailandraren mira irudikatzen du: gogora eta orainera ekartzen dizkigu estropadako bailandrak, hamabost metrokoak, Abrako uretan 10 urte geroago agertuko zirenak, baina ez garraio gisa, baizik eta *sport* edo kirol gisa, nazioarteko lehiaketetan<sup>17</sup>.

Ezkerraldean, ontzi handi baten popa eliptiko ahalsua ageri da, eta kabrota izugarri bat du, kaian zehar itsasontzietan tiratu eta horiek amarratzeko erabiltzen zen soka lodienetako bat; eta kontrapuntu erritmiko gisa, aipatutako txalupa, ikusten ez dugun ibaiertz edo kaiari lotuta hori ere. Eta horizonte lauso baten artean —non ikusten den Serantes mendia— elkartuta daude ontzigain bakarreko burdinazko lurrunontzi helizedunak, bi mastako goleten antzera tresnatuak, popa eliptikodunak eta branka-bular zuzenekoak, horietako batzuk<sup>18</sup>; itsasontzien katalogo edo lagin bat izango balitz bezala, *Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* ehiza-txakurrekin gertatzen den moduan.

Hiru margolan horiekin, Guardek bainuetxeak eta tranbiak sortuz Abrara ireki zen Bilbo hura erakusten digu, hirigunean sei geltoki eraikiz trenari atek ireki zizkion Bilbo hura, itsasadarrean nazioarteko nabigazio zein merkataritzarako horizonte bat sortu zuen Bilbo hura. Eta kontatzeko modu berri bat erabili zuen gainera. Manet, Degas eta inpresionisten Parisen ikasitakoa zen. Guardek inpresionisten kolore- eta argi-kontzeptu berriak bereganatu zituen, baina baita grabatu eta panel japoniarren perspektibaren eta konposizioaren kontzeptuak ere.

Guardek ez zien erreparatzen eredu formalei, akademizistei eta inpresionistei haustura gisa, transmititu nahi zuen fenomeno bereizgarria (irudia) jasotzen lagunduko zioten pentsamendu organizista gisa baizik. Harentzat garrantzitsua zen hainbat eratako elementuen funtzionamendua xehetasunez aztertzea, horiek leku bat aurkitzeko edo irudi bat sortzeko.

Gramatikak baino gehiago, tonuak arduratzen zuen Guiard. Harentzat, musika ez zegoen orri batean idatzitako partituran, buruan esperimendatutako soinetan baizik. Hori dela eta, haren margolanak ez dira irudi bat *osetzen* duten pintzelkada solteak bakarrik, baizik eta oroimin bat inguratzen duten pintzelkadak.

Une hartan, bazirudien pintura (Echenaren lanarekin edo Guineak Aldundian egindakoarekin alderatuz gero) guztien eskura jarritako ikerketa historiko bat zela, eta Guiard Bilboren historia aldatzen ari zen ohiko bizimodua *enkuadratzen* hasi zen: garai berriaren funtzionamendua zehazten zuten elementuak, itsasontziak, trenak, aire freskoa... Hori zen haren eremu musikala, eta aipatutako margolanetan ez ezik, Gernikako Batzarretxerako egin zituen beirateetan ere ikus daiteke. Oraindik kontserbatzen diren sei olio-kartoiak Espainiako inpresionismoaren lan onenetako batzuk dira<sup>19</sup>. “Euskal artista ia guztiek hari zor diogu gure lanek izan dezaketen independentzia eta nortasuna”, adierazi zuen bere garaian Ignacio Zuloaga margolariak.

Guardek ez du jaso merezitako aintzatespena — Javier González de Duranak adierazi duenez<sup>20</sup> —, eta baliteke bizitzari begira zeukan jarreraren ondorioz gertatu izana hori, ez atera nahi izateagatik Bilbotik eta probintziatik, bertako txakolin, hondartza eta paduretatik, eta bizimodu lasai eta txirenea<sup>21</sup> eduki nahi izateagatik. Kidekoek estimatzen zuten Guiard; Ramón de la Sotaren babes ekonomikoa jaso zuen, eta Allendesalazararren etxean atsedean hartzen zuen, Busturiako ibarretan; bizimodu harekin, Guiard kronikagile izatera mugatu zen, Teófilo Guiard anaiaren antzera, zeina izan baitzen udal-artxibozain entzutetsua. Egungo historialari batzuen baieztapen argudiorik gabeak gorabehera<sup>22</sup>, Regoyosekin batera Guiard izan zen gure lehen inpresionista *strictu sensu*. Euskal inpresionistak aztertu eta balioesteko, alde batera utzi behar ditugu maiz erabili ohi diren arte-polaritate historikoak: akademizista vs. abangoardista, klasizista vs. erromantikoa, errealista vs. inpresionista.

Guiard eta Regoyos biak ala biak izaera nabarmeneko pertsonak izan ziren, eta ekarpena egin zioten Espainiako pinturaren historiari. Haien estiloak mundua beste modu batera ikusten lagundu zuen. Egiazkotasuna transmititu nahi izan zuten, begien aurrean zeukatena erakutsi, eta beren garaikideen eta institutuko kideen mailan egon nahi izan zuten, ekintzaile eta enpresaburuen mailan. Akademiako artistak eta historia-margolariak gainditu nahi izan zituzten, eta beren kontakizun propioa utzi nahi izan ziguten. Haien zorionerako, Bilbok, aberats berrien hiriak, eskolakide izan zituzten ekintzaile berrien hiriak, ez zituen izan Madrilak izandako mugak, eta lan horiek egiteko eskatu zieten. Guardek konposizioa eta tonua bilatu zituen, pintura frantsesaren teknika eta narratiba sentimental britainiarra nahasita, eta Regoyos, aldiz, argiaren eta tinbrearen bila aritu zen.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

1. Guiarden aita, Alphonse Guiard (1833–1885), Juliana Larraurirekin ezkondu zegoen, eta optika eta argazkigintzako denda bat izan zuen Kapelagile kalean, eta ondoren Plaza Barriko 10–11. zenbakietan; Posta kaleko 16. zenbakian bizi ziren. Guiardek Antonio Lecuonaren estudioan ikasi zuen Bilbon, eta Martí Alsinarene estudioan ere aritu zen, Bartzelonan. Parisko Pintura Erakusketa Ofizialean parte hartu zuen 1881ean eta 1884an. 1886an, Bilbora itzuli zen Julio anaiarekin, Sorbonako Unibertsitatean lizentziatua. Beste anai bat, Roberto, Sorostetxeko medikua izan zen, eta gazteena, Teófilo (1876–1946), udal-artxibozaina eta -liburuzaina. Guiarden lehenengo lanak zezenketa batzuetarako kartelak izan ziren. Haren pintura-estudioko ikasle izan ziren, besteak beste, Nicolás Viar, Óscar Rochelt eta Álvaro Alcalá Galiano. [\[itzuli\]](#)
2. Juan de la Encina, *Guiard y Regoyos*, Bilbo, 1921. [\[itzuli\]](#)
3. Javier González de Durana, *Adolfo Guiard: estudio biográfico, análisis estético, catalogación de su obra*. Bilboko Arte Ederren Museoa – Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984; liburu hau agertzearekin batera, Duranak artista honi buruzko erakusketa egiaz duin bakarraren komisario-lanak egin zituen. [\[itzuli\]](#)
4. Manuel de Ayarragaray Garbuno (1840–1908), 1843rako Larrazabal- Kareaga auzoan kobrezko galdaren lantegi bat (ondoren La Basconia izango zena) sortu zuten merkataria eta industrialarien semea, Talleres de Deusto enpresaren (1891) kide fundatzailea izan zen, eta Ekoizleen Bizkaiko Ligako zuzendaritzako kidea. Haren arreba Evarista Ricardo Gaminde y Torres-Vildósola (1835–1884) bankariarekin ezkondu zegoen, eta beste arreba Ildefonso Valentín Gorbeña ingeniariaren ama izan zen. Sociedad Bilbaina elkartearen presidentea izan zen 1886an, eta San Fernandoko Errege Akademiako urgazlea, eta Bizkaiko Monumentuen Batzordeko kidea, 1887az geroztik. Maria Kristina erreginordeak 1887an Bilbora egindako bisitaren harira antolatu ziren ekintzen batzordearen buru izan zen, eta argiztapen berria ipini zuen itsasadarrean, Portugaletetik Areatzaraino. Pablo Alzolak idatzi zituen Ayarragarayren hilberriak. [\[itzuli\]](#)
5. *La Jonque Chinoise* denda, Rivoli kaleko 220. zenbakian kokatua, Louvretik hurbil. Bertako bezeroak ziren James Tissot, Édouard Manet, Edgar Degas, James Abbott McNeill Whistler eta Sarah Bernhardt. Hain berritzailea izan zen Asiako artea, ezen Japoniako eta Txinako tradizioen arteko bereizketa lausotu egin baitzen, eta dena bildu baitzuen *ekialdeko* hitz generikoak. 1867an Parisen egindako Nazioarteko Erakusketan, Japoniako Pabiloia izan zen erakusketa ikusgarrienetako bat, eta beste edozeinek baino bisitari gehiago izan zituen. Hura izan zen Japoniak parte hartu zuen lehen Mundu Azoka. Ikusi Ucelayri buruzko nire liburua, “Japonerías” kapitulua, 137.–43. orrialdeak. Tissot margolariaren estudioa ere bere arte japoniarreko bilduma ezagunaren erakusleho izan zen, eta erreferentziatzko puntu bihurtu zen Parisen; L'Impératrice etorbideko 64. zenbakian zegoen (egungo Foch etorbidea). Manetek pantaila japoniar bat eta estampa japoniar bat erantsi zituen 1868an bere defendatzaile eta lagun Émile Zola idazleari egin zion erretratuan. Degasek pantaila japoniar bat sartu zuen 1867an Tissoti egindako erretratuaren atzealdean (Metropolitan Museum), eta Madame Camusen erretratuan (1869–70, Chester Dale bilduma, Arte Galeria Nazionala, Washington, D. C.), haizagailu bat eskuetan zeramala irudikatu zuen protagonista. [\[itzuli\]](#)
6. William McGregor Paxton (1869– 1941), Guiarden ia adinkidea, hiri inguruko janari hornitzaile baten semea zen, eta beka bati esker Cowles Art School eskolan ikasi zuen, 1878an Pariseran joan aurretik, École des Beaux- Arts (Gérômerekin) eta Académie Julian zentroetan ikastera. Bostongo Eskolako kidegoetako askoren antzera, Paxtonek bere abilezia artistikoak eta zorrozki sintonizatutako antena sozialak erabili zituen, Ingalaterra Berriko kultura-zirkuluetan gailentzeko. 1906tik 1913ra bitarte, eskolak eman zituen Boston Museum of Fine Arts School zentroan, garai hartako beste artista ezagun batzuekin batera, hala nola Edmund Tarbell eta Frank Benson. 1928an National Academy of Design akademiako kide egin zuten. Bostongo emakumeen erretratugile bikaina izan zen: xehetasun sotilez betetako barnealdeetan erretratatu zituen, eta mendearen hasierako Bostongo goi-klase berriarentzat rol femenino idealizatuak definitzen lagundu zuen. Ikusi William H. Truettner eta Roger B. Stein (ed.), *Picturing Old New England: Image and Memory*, National Museum of American Art with Yale University Press, Washington, D. C.; New Haven, Conn.; eta Londres, 1999. [\[itzuli\]](#)

7. Miguel Unamuno, “La obra de arte de Adolfo Guiard”, *Hermes. Revista del País Vasco* aldizkaria, 1918ko maiatza. Nolanahi ere, Unamunoren ustez, Guiard tokiko artista izan zen, Zuloagaren handitasunari kontrajarrita, azken horrek pintura gaztelaua berritu baitzuen, Velázquezen pintatzeko modua, zehazki. Aipatzen denez, 1876an Unamuno Lecuona margolariak Gurutze kaleko 7. zenbakiko ganbaran zuen estudioa joaten zen, eta Anselmo Guinea, Adolfo Guiard, Manuel Losada eta Gustavo Maezturerekin egoten zen bertan. Zuzenki, Guiardekin bakarrik kointziditu ahal izan zuela dio Jon Juaristik lan honetan: *Miguel de Unamuno*, Taurus Ed., Madril, 2012, 103. or. [itzuli]
8. Gustave Caillebotte, *Europako zubia (Le Pont de l'Europe, 1876*, olio-pintura mihise gainean, 125 × 181 cm, Petit Palais Musée d'art moderne, Geneva. Caillebotte margolari bikaina zen, eta Guiardekin antzekotasun batzuk zituen — ezkongabetasuna eta argazkigintzarako zaletasuna—, baina Marcel anaiari uzten zion argazkiak egiten. Caillebottek *flâneur* edo paseariaren buru gainean marratzen du ihespuntua, eta, horrexegatik, nabarmenki mugituta dago; argiak zeharka egiten du distira eskuinetik, eta zubiaren metalean islatzen da. Caillebotteren teknika inpresionista bistakoa da koloretako itzalen erabileran, hala nola txakurrak, zenbait pasearik eta zubiaren saretak proiektatzen dituzten itzal urdinetan. Litekeena da Caillebottek bi argazki erabili izana, bi norabide desberdinetan egindakoak: bata *flâneur*-aren eta espaloia-aren norabidean; bestea, zubitik beherantz begira dagoen pertsonaia-aren norabidean; ondoren lotu egin zituen, zubiaren egiturazko sareten bidez konektatuta. Geltokia Claude Monetek 1877an margotutako bera da: *Europako zubia, Saint-Lazare geltokia (Le Pont de l'Europe, Gare Saint-Lazare, 1877*, Musée Marmottan). [itzuli]
9. James Jacques-Joseph (1836–1902), Nantes portu-hirian jaioa, Frantzia. Aita oihal-sailtzailea zuen, eta amak kapelak eginez laguntzen zuen. 17 urterekin, Tissotek bazekien margolaria izan nahi zuela, eta amak helburua lortzeko babesa eman zion. Eduard Maneten eta Edgar Degasen laguna izan zen (Louis Lamotheren ikasleak, bi-biak), baita James McNeill Whistler estatubatuarrena ere; 1871n Londresera joan zen bizitzera, Frantzia eta Prusiaren arteko gerraren ostean Parisko Komuna odoltsua ezarri zenean. Guiardek antzeko ezaugarri biografikoak zituen, portu-hiri batean jaioa baitzen, tokiko burgesiaren semea eta janari gozoez zalea, baina, batez ere, gaitasun teknikoetan eta eragin estetikoetan bat egiten zuten. Tissotek oihalen xehetasun tekniko guztiak ezagutzen zituen, eta Guiardek argazkienak. [itzuli]
10. José Gabino Adolfo Murrieta del Campo (Londres 1833–Londres 1915) Santurtziko lehen markesa izan zen; Alfontso XII.ak eman zion titulua, 1877ko urriaren 1ean. Haren aita, Cristóbal Murrieta, Latinoamerikan aberastu, eta altxamenduak hastean handik alde egin baina Espainiara itzuli ez ziren euskaldun ugarietako bat izan zen; izan ere, Espainia karlistaldietan murgilduta zegoen, eta haiek Londresen, Bordelen edo Parisen finkatzea erabaki zuten. Bankuan edo lurrunaren industria berrian eta itsas trafikoa inbertitu zuten dirua. Murrietatarrek bankari gisa izan ziren ezagunak Londresen, eta trenbideetan ere inbertitu zuten Argentinan. <https://santurtzihistorianzehar.net/genealogia-de-cristobal-murrieta-mello/> [itzuli]
11. *Tamesis ibaian, koartza bat (On the Thames, A Heron, ca. 1871–72*, olio-pintura mihise gainean, 92,7 x 60,3 cm) Tissotek Londresera iritsi ostean egindako lehen margolanetako bat da, eta Ingalaterrako enkante batean saldutako lehen lana ere izan zen. 1973an, *The Heron* izenburuarekin saldu zuten Sotheby's enkante-etxean, New Yorken, eta ondoren Mineapoliseko Arte Institutuari (Minnesota, AEB) eman zioten dohaintzan. Lucy Paquetteren esanetan: “Murrietak 1873ko maiatzean saldu nahi izan zuen margolana, *Tamesis ibaian: koartza ikaratua* izenburupean, 570 ginēaren truke, baina ez zuen eroslerik aurkitu. José, ezkontuta zegoena, Wadhurst Parken bizi zen, East Sussexen, E.J. Tarver arkitektoak diseinatua 1872–75ean. Haren anaia ezkongabeek erosi zuten, Cristóbal (1839–1891) eta Adrianok (1843–1891); 1854 inguruan Kensington Palace Gardens kaleko zenbakian eraiki zuten luxuzko etxean bizi ziren [...]. José eta bere emazte argi eta burutsu Jesusa Bellido (ca. 1834–1898) Galesko printzearen zirkuluko kideak ziren, eta hainbat gonbidaturi harrera bikaina egiten zieten Londresen nahiz Sussexen, osatuta zuten pintura moderno britainiar eta kontinentaleko bilduma zabalaren erakusleihoak bi-biak. Printzeak Kanpo Gaietako Departamentua asaldatu zuen Indiarako bidaiaren aurretik eta ondoren, 1875eko martxoan Murrieta andrearekin Mentonera joan zelako Pazkoan, Mediterraneora, eta 1876ko apirilean harekin turismo egiten igaro zituelako hiru egun, izengoiti batekin ostatatuta. José ere berehala jaso zuen erregearen babesa, eta Espainiako Alfontso XII.ak, 20 urte zituela, Santurtziko lehen markes izendatu zuen 1877an. Bien bitartean, Lillie Langry izeneko Jerseyko gazte eder ezkondu batek piztu zuen printzearen interesa 1877aren erdialdetik, eta zurrumurrua zebilen Murrietatarrek maitasun-txoko bat sortu zutela Wadhursten printzearentzat eta Langryrentzat. Printzearen arretoa galdua zuten 1880. urtearen erdialderako, baina 1881ean beste hegala bat erantsi zuten

Wadhursten, hura entretenitzeko. Bi urteren buruan, bilduma baztergarritzat jo zuten. 1883an, beste margolan batzuen artean [...] Turner bat eta zenbait Alma-Tademas zeuden [...], Murrietatarrek, Argentinako burdinbideetako inbertsore handiek, porrot egin zutela adierazi zuten, Argentinak ez zituenean haien bonuak ordaindu”. <http://www.victorianweb.org/painting/tissot/zuercher2.html> [itzuli]

12. Parisera itzuli zenean, Tissot bere izen ona leheneratzen saiatu zen, *Parisko emakumea (La Femme à Paris)* izeneko eskala handiko hamabost margolaneko sail batekin; 1883tik 1885era bitarte margotu zituen. Sail horretan, modako emakume paristarra erretratatu zuen, aurreko lanetan erabilitako koloreak baino kolore distiratsagoak eta modernoagoak erabiliz. [itzuli]
13. *HMS 'Calcuta' ontziko galeria (Portsmouth)* margolana, *Ofiziala eta andreak HMS Calcuta* ontzian izenez ere ezaguna, 68,6 x 91,8 cm-ko olio- pintura bat da, 1876koa. 1877an, margolana ikusgai egon zen Londresko Grosvenor Gallery galerian, eta ondoren John Robertson Reid eskoziar margolariarena izan zen. 1936an, Samuel Courtauldek dohaintzan eman zion Londresko Tate Gallery-ri. [itzuli]
14. Badakigu Guiardek marrazki ugari egiten zituela aurretiko azterlan gisa; *Emakumea eta galgoa (La mujer del galgo)*, adibidez, *Terrazan* margolanean eskuinaldean bakartuta, txakurra ondoan duela Galeako puntari nahiz itsasoari arretaz begira dagoen pertsonaia sortzeko apunte bat da. Edonola ere, Guiardek Parisen Edgar Degasen zirkuluarekin harremanetan egon ondoren bereganatu zuen lerro sintetikodun marrazketa trebearen adibide ona da: ikusi Mikel Lertxundi Galiana, *Últimas décadas del siglo XIX–primera mitad del siglo XX: de Cézanne a Léger: colección Museo de Bellas Artes de Bilbao* [erak. kat.], Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 2009, 56.–59. or., kat. 17. [itzuli]
15. Marítima de Vizcaya ontzi- enpresak gorritz margotutaz eramatzan tximiniak, eta goiko uztaia beltza zen (Abrako Itsas Klubeko bildumako *Argi- zuloa (Lucero)* margolanean ageri den moduan); Luis de Otero ontzi-enpresak horiz margotzen zituen tximiniak, borla hori bat zeraman txapel karlista gorriarekin; Olazarri enpresak, Garteiz eta Mendialduarenak, tximinia beltza zeukan, eta kontraikur karratu urdin bat, GM inzial zuriak elkarri lotuta zituena. [itzuli]
16. “Pailebot” bat lerro beteko egurrezko ontzi bat da, gainegitura baxukoa; altuera bereko bi masta edo gehiago ditu, eta bela aurikoak, eta nagusiki kabotajerako erabiltzen da. Ontzi horien arrakasta errentagarritasun handian zetzan; izan ere, eskifai txikia eta ekipamendu gutxi behar zuten, moldakortasun handia zuten, maniobratzeko errazak ziren eta eraikitzeko merkeak. Zer motatako itsasontzia da pailebot bat? María Moliner-en *Diccionario de uso del español* hiztegiaren arabera: pailebot edo pailebote bat (“pilot’s boat” ingelesetik dator, pilotuaren ontzia) gabarik gabeko goleta bat da, karel oso baxukoa eta fina. RAEk ia gauza bera esaten du. Wikipediak argitzen du hainbat erabilera izan dituen ontzi-mota bat dela: merkataritza edo arrantzarako ontzi gisa erabili da, edo yate gisa. Bilboko munduan, merkataritzarako itsasontzi gisa bakarrik erabili ziren, zamalanetarako ontzi bizkor gisa. [itzuli]
17. “Bailandra txikia”, hau da, tapiku handiago bat eta trinketa bat dituen, batzuetan foke deitua, eta flotazioan masta esloraren % 40 baino zertxobait brankarago duena, lerroa hasten denetik brankara kalkulitzen hasita; masta poparago badago eta trinketaz gain foke bat ere jasotzen badu, kuter esaten zaio, nahiz eta gaur egun batak zein besteak foke bat baino gehiago jasotzen dituzten. Yate askok erabiltzen dute haren aparailua, estropadetarako ezaugarri hobeak dituela irizita, eta, horregatik, bailandra yatearen sinonimotzat jotzen da askotan. [itzuli]
18. “Branka-bularra”: itsasontzi baten branka osatzen duen pieza kurbatua. Guiardek itsasontziekin edo itsasadarrarekin lotuta egindako gainerako margolanak krosko-motei eta ontzi-motei buruzko behaketa zehatzak dira. [itzuli]
19. Aldundiak 1901eko maiatzaren 9an hartutako erabakiaren arabera egin ziren. Gaur egun Arte Ederren Museoan dauden sei olio-kartoieta irudikatutako gaiak honako hauek dira: historiaurrea, alderdi-gerrak, nekazaritza, itsasaldea, industria eta merkataritza. Gernikako Batzarretxerako beirate horiez gainera, Guiardek beste batzuk ere egin zituen, Rafael Picavearen jauregirako eta Isidoro Larrínaga Aburtoren txaleterako. [itzuli]
20. “Hil zenean, ez zuen aitortzarik jaso Bilbotik harago (berak ere ez zuen beste ezer nahi izan, Degasek berariaz eskainitako laguntzari ere uko egin baitzion eta, bestalde, beti uko egin baitzion bere lana Madrilen erakusteari bertakoen txaloak

lortzeko; hil zenean norbaitek esan zuen moduan, Guiardek askatasun osoz aukeratu zuen 'Atxuri eta Areatzaren arteko lurralde txikian' maitatua eta miretsia izatea), baina haren eragin pertsonala, bai arlo politikoan, bai artistikoan, baita artearen aldeko militantziarenean ere, oso nabaria izan zen haren ondorengo euskal artisten belaunaldi guztietan", idatzi zuen Duranak Guiardi buruz *Bilbao* aldizkarian, 2009ko maiatzean. [itzuli]

21. Anekdotak ugari daude Guiarden hitz egiteko moduari eta *txirene* hizkeraren erabilerari buruz, esamolde eta izkirimiri ugari erabiltzen zituen bilbotar bitxi gisa irudikatzen dutenak. Herri bateko dialektoaren eta Bilboko dialektoaren erabilera Miguel Unamunok gaztetan idatzitako "El Custión del Galabasa" sainetean ageri da (1880). "Ahoskerak edo esamoldeek soinuak aldatzen dute pertsona bat hizketan entzutean"; dialektoa "denboraren makina" bikaina da, eta ohiturak, modak eta bizimoduak begiztatzeko aukera ematen du. Gaiari buruz, ikusi Jon Juaristiren saiakera hau: *El chimbo expiatorio. La invención de la tradición bilbaina, 1876-1939*, El Tilo argitaletxea, Bilbo, 1994 eta Editorial Espasa, Madril, 1999. [itzuli]
22. Adibidez, Francisco Calvo Serraller: "Adolfo Guiard, un adelantado vasco de la modernidad pictórica", *El País*, 1984ko azaroaren 12a: "Pariseko egonaldiaren datak eta bertan izan zituen harremanak ez ezik, kontuan hartzen badugu, halaber, haren lanari behatuz ondorioztatzen dena, inpresionisten unibertsoetik oso hurbil dauden intuizioak, ezaugarriak eta eraginak antzematen dira bertan. Japoniar eragin erabakigarria, adibidez, oso nabarmena da, baina baita Degas, Whistler, Toulouse-Lautrec, Forain eta beste zenbaiten oihartzunak ere. Baina inpresionisten aurreko paisaiaren tradizio frantses handiaren oihartzunak ere baditu. Hortaz, gure herrialdeko lehen inpresionista izan zela esan dezakegu? Nire ustez, ez; aukera izan zuen horretarako, baina itzuli zenean joera hori zapuztu egin zuen inguruko presio negatiboak. [itzuli]

Adolfo Guiardek 1886an Sociedad Bilbaina elkartearen egoitzarako sortutako bistak —itsasadarrarena, tren-geltokiarena eta bainuetxearena— aztertu ostean, 1894ko beste hiru margolan landuko ditugu, Kurding Club elkarte gazte eta dibertigarriagorako egin zituztenak Anselmo Guineak, Manuel Losadak eta Ignacio Zuloagak.

Oraingoan, lanek ez dute hiria irudikatzen, klubeko kideak baizik, hiru fase desberdinetan: pianoa jotzen, egunsentian mozkor samar eta ametsezko irudipen batean. Ez da gauza makala musikazaleen talde soil batek hormak apaintzeko mural batzuk eskatu izana Paristik itzuli berri ziren lagun margolari batzuei. Oraindik gazteak ziren baina jada enpresetan sartuta zebiltzan bilbotar ezagunen irudi horiek jai herrikoi batekin aldera ditzakegu, Valentín Zubiaurren irudi batekin, elizateetako protokoloa erakusten duena: bertsolari batzuk maitasunari eta jai-giroari abesten, baina Bilboko burgesak baino askoz modu epikoagoan.

Kurding Club 1894an sortutako elkarte bat zen, El Escritorio zuena izen ofizialtzat, eta 1883an jaiotako Txoritoki izeneko gazte-elkarte bat izan zuen aurrekari. 43 bazkide izatera iritsi zen, eta ia hamabost urte iraun zuen, 1898an jesuiten eraginez desegin behar izan zuten arte<sup>1</sup>. Orduan, El Cuartito izena hartu zuten, eta Posta kaleko egoitzan musikajarduerak egitera mugatu ziren. Elkartekide gehienak Sociedad Bilbaina elkarteko bazkide ere baziren, baina ohiko bazkideak baino gazteagoak ziren, eta gehienek —aurrerago azalduko dudanez— eginkizun garrantzitsua izan zuten egun oraindik martxan dauden Bilboko musika-erakundeen eraketan, honako hauenean, besteak beste: Elkarre Filarmonikoa, Bizkaiko Musika Akademia (Kontserbatorioaren aurrekaria) edo Orkestra Sinfonikoa<sup>2</sup>.

El Escritorio elkartearen izen herrikoia Kurding izan zen, txirene dialektoan edo “Atxuriko ingelesean”, hau da, gaztelania peto-petoan. Bazkideetako batek, Juan Crisóstomo Arriaga musikagilearen iloba Emiliano de Arriagak (1844–1919)<sup>3</sup>, Kurding Club izenaren jatorria azaldu zuen: gaztelaniazko curda hitzetik zetorren, ‘mozkorra’, bazkideak maiz mozkortzen baitziren. Era berean, “kurding-car” esaten zioten gaueko ordu txikitan mozkorrak jasotzeaz arduratzen zen autoari. Elkartearen goiburua honako hau zen: “Bazkide orok nahi duena egin dezake, gainerakoak gogaitzen ez dituen bitartean”<sup>4</sup>.

Musikazaleen lagun-talde hori jada ezaguna izan zen bere garaian. Arriagak berak “mende amaierako bilbotar artisten klub” gisa aipatu zuen 1896ko *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaíno neto*, compilado por un chimbo lanean. Bestalde, 1929ko *Memorias de un bilbaíno* lanean, José de Oruetak azaldu zuen Kurding elkartearen jarduerak dibertimenduekin baino zerikusi handiagoa zutela arte ederren munduarekin, pintura-erakusketak antolatzen baitzituzten, eta batez ere musikaren munduarekin, Debussy frantsesaren edo Wagner alemanaren lanak eskaintzen baitzituzten, besteak beste. Klubeko objektuen bilduma ere aipatu zuen Oruetak, hala nola erraldoi baten burua edo “gutapertxazko bi sofak”; gutapertxa orduan modan zegoen material bat zen, eta horrekin egiten zituzten golfeko lehen pilotak (1848–1900), Guty deituak, Indiatik ekarritako erretxina horrekin fabrikatzen zituztelako. Klubaren maskota Kubatik ekarritako loro bat zen, Ubano izenekoa; klubaren ereserkiari izen hori bera jarri zioten<sup>5</sup>. Taldeak kutsu liberal argia izan zuen hasieratik, nahiz eta jende oso kontserbadorea ere biltzen zuen, hala nola jada aipatu dugun Emiliano de Arriaga<sup>6</sup>. Bilbotarrek idatzitako memoria askotan egiten zaio erreferentzia klubari, Alfredo Echavek Aureliano del Valle musikagileari buruz idatzitako oroitzapenetan, besteak beste<sup>7</sup>. Gerra Zibilaren ondoren ere jarraitu zuen klubaren oroimenak: Luis Aranguren Mexikon erbesteratutako errepublikanoak klubeko kideak aipatu zituen bere haurtzaroz mintzatzean<sup>8</sup>. Indalecio Prieto sozialistak hiriko klubak gogoratu zituen bere memorietan: Estropada Kluba, Posta



kalean kokatua; Klub Nautikoa, Arriaga Antzokian kokatuta egon aurretik Geltoki kalean kokatuta zegoena; Saguzar Kluba, Jardines kalean kokatua, edo Kurding “olgeta eta biziorako lekua”, non kartsuki gurtzen zituzten jaki eta edari onak<sup>2</sup>.

Klubeko zenbait kidek mural batzuk egin zituzten, elkartearen lokala apaintzeko. Horietako bostek iraun dute gaurdaino: Manuel Losadak margotutako hiruk, Ignacio Zuloagaren batek eta Anselmo Guinearen beste batek. Kluba desegin zenean, Bilboko Elkarrekin Filarmonikoaren esku geratu ziren margolan horiek, bat izan ezik, Manuel de Losadaren *Ihesaldia* (*La escapada*); hori bilduma pribatu batean dago.

Ignacio Zuloagak, 24 urterekin, *Egunsentia* (*Amanecer*) margotu zuen; behean eta ezkerrean ditu sinadura eta eskaintza: “Kurding-eko lagunei / I. Zuloaga”. Lan horretan, klubeko hainbat kide ageri dira, Areatzako plazan noraezean goizeko lehen orduetan. *A Short History of Drunkenness* liburuan, Mark Forsythek dio alkohola dela zibilizazioaren euskarria, eta zaila da iritzi horren aurka egotea, bereziki trago batzuk hartu ostean irakurriz gero. Badirudi Areatzako bilbotarrei F. Scott Fitzgerald idazlearen kontakizuneko gertatu zitzaiela: “first you take a drink, then the drink takes a drink, then the drink takes you”<sup>10</sup> [lehenengo trago bat hartzen duzu, ondoren tragoak berak tragoa hartzen du, orduan tragoak zu hartzen zaitu].

Eszenan bost elkartekide ageri dira: José de Orueta, Juan de Basterra, Francisco de Ygartua, Juan Carlos Gortázar eta Ricardo Gaminde. Guztiak ziren saltzaile, merkatari, indiano eta Bilboko aristokrazia landatarrak osatutako burgesia heterogeneo eta transbertsal hartako kideak<sup>11</sup>. Askoz geroago, Zuloagak bost pertsonaia hauen ondorengoi egin zizkien erretratuak, adibidez, Juan Cruz Gurtubayren biloba zen Rosario Silvari (1900–1934) 1922an eta 1934an, berriz, haren alaba Cayetana de Albari<sup>12</sup>. Izan ere, *Cayetana zaldi gainean* (*Cayetana a caballo*) Zuloagak inoiz margotutako erretratu onenetakoa da: arretaz begiratzen duen neskatoarekin haren zaldia, Tommy, irudikatzen du, bai eta neskaren aita Albako dukearen basset arrazako txakurra, Joseph izena zuena; koadroan neskatxaren peluxeak ere irudikatu zituen Zuloagak: begizta urdindun txakurtxoa, katu gorria eta Mickey Mouse, Walt Disneyk bi urte lehenago, 1928an, sortutako pertsonaia. Kuadro honetan Roy Lichtensteinek edo Andy Warholek baino hogeita hamar urte lehenago irudikatu zuen Disneyren iconoa eta Zuloagak neskatxari aldi berean formala eta adiskidetsua zen erretratu egitea lortu zuen.

Areatzan dabilzan bost gazteen irudiak marko edo leiho bat darama pintatuta eszena inguratzen, erliebean egongo balitz bezala, *trompe l'oeil* gisa. Amarru narratibo bat da, erretratutako batzuk iruditik aterata irudikatze eta pertsonaien mozkor-sentsazioa nabarmentzeko erabilia. Adar luze hosto berdedun bat gainjarrita duen zerrenda apaingarri horrek jarraipena zuen gainerako artisten margolanetan.

Manuel Losadak, Zuloaga baino bost urte zaharragoa zenak, hiru lan egin zituen: *Walkiriak* (*Las Walkirias*, sinadurarik eta datarik gabea, ca. 1894) eta *Terentzio jauna eta Txango txistularia* (*Don Terencio y Chango, El txistulari*), zeinari buruz hitz egingo dugun beste kapitulu batean; eta *Ihesaldia*, gaur egun bilduma pribatu batean dagoena<sup>13</sup>.

*Walkiriak* lanean, klubaren barnealdea dago irudikatuta, eta bi bazkide ageri dira, Juan Carlos Gortázar eta Javier Arisqueta, pianoa elkarrekin jotzen, eta eskuinaldean Enrique Borda arkitektoa musika arretaz entzuten ari da, eta Nicolás Tous ingeniaria bere baitan bilduta dago, liburu bat irakurtzen<sup>14</sup>. Eszenaren atzealdean, pianoaren gainean, lanbroaren artekin ateratzen dira walkiria batzuk, Wagnerren mitologiako pertsonaiak, eta behean ukabil batzuk daude, Wagnerren musika gaitzesten zuten elkartekideak irudikatzen dituztenak.

Hirugarren lana *Osasunaren iturria (La fuente de la salud)* edo *Ezagutzaren iturria (Fuente del Conocimiento)* izenekoa da, Anselmo Guinearena, berrogeitaka urterekin artistetan zaharrena eta Parisko era inpresionistak erabiltzen azkena<sup>15</sup>. Eskuinaldean emakume itxura hartu duen zuhaitz bat dago, eta haren aurrean belaunikatuta daude zenbait gizon ezagun. Iturri baten sorleku den zuhaitzaren gainean etzanda ageri da Angel Gorbeña, konposizioaren eskuinaldean; lau hankatan daude Javier Arisqueta eta Luis Reyes, eta horien artean belauniko Juan Urigüen; eta belauniko erretratzen eta irudiaren zerrenda apaingarritik kanpo Manuel Losada margolaria dago, bi eskuez kaliz bat jasotzen; horiek guztiek soinean daramate bazkideek izaten zuten kapa gorri bat.

Balantzaka hurbiltzen ageri da Ramón Real Asúa, alkandora galtzetatik aterata duela; urrunean, hodei zuriek eta gaueko argiak osatutako paisaia dago, eta hurbiltzen ari den pertsona-talde bat, non ageri diren beste pertsonaia ezagun batzuk, hala nola Diego Mazas eta Luis Aznar<sup>16</sup>. Margolanak zerrenda apaingarri bat du, eta, marko bat izango balitz bezala, lau ertzak inguratzen ditu; Losadaren pertsonaia bereziki, eta Real Asúarena neurri txikiagoan “atera” egiten dira markotik, Zuloagaren laneko beste pertsonaia batzuen antzera. Gaurdaino iritsi diren lanen artean onirikoa eta dibertigarriena da.

Kurding elkarteko muralak irudikapen dibertigarriak dira, margolan arin eta modernoak, jai-giroko Bilbo hartako gazte jendearen erretratuak. Mural horien xedea zen klubaren egoitza eremu berezi bihurtzea, ziri-jokoz eta batik bat ironiaz betetako espazio bat izatea.

Badakigu elkarterako lanak egin zituztela beste margolari garrantzitsu batzuek ere, hala nola Darío Regoyosek, Francisco Iturrinok, Juan Rocheltek eta Adolfo Guiardek<sup>17</sup>.

Kurding elkarteko kide horietako askok jarduera profesionalekin eta politikoekin uztartu zituzten musika arloko jarduerak. Emiliano de Arriaga, adibidez, itsas artekari interpreteta izan zen 1882az geroztik, baita hiriko alkateordea ere (1880–81), idazleaz gainera; eta José de Orueta abokatua eta Talleres de Zorroza sozietateko zuzendaria izan zen. Klubean gezurrezko dirua erabiltzen zuten barne-ordainketak egiteko: txirla bateko, txirla erdiko eta bost txirlako billeteak ziren, eta elkarteko kutxan eskuratzen zituzten eskudiruaren truke. Bilboko kleroaren zati baten presioen ondorioz, kluba 1898an desegin zen. Kideetako batzuek El Cuartito osatu zuten: Lope Alaña Errasti biolinistak, Juan Carlos de Gortázarrek eta Javier Arisquetak; “Apostoluak” ezizena jarri zieten, musika sustatzeko egin zuten ahaleginagatik.

Azken biak Bilboko oinarri musikalaren parte dira. Juan Carlos de Gortázar eta Javier Arisqueta Resurreccion Maria Azkueren eta Miguel de Unamunoren garaikideak eta lagunak ziren. Denbora libre gehien zutenak ziren, bigarrenak aita Mexikon aberastu zelako eta lehenengoak Gortázarren maiorazkoa jaso zuelako. Gortázar familiak edo leinuak beste edozein familiak baino gehiagotan bete du Jaurerriko Ahaldun nagusiaren kargua Bizkaiaren historia osoan<sup>18</sup>. Juan Carlosen aita, Manuel María de Gortazar Munibe (1824–1896), hainbat burdinbidetako akzioduna eta lurrenontzien jabea izan zen<sup>19</sup>.

Gortázarrek ez zioten utzi aberats izateari industrializazioan murgildu ez zirelako, biografia batean aipatzen den moduan<sup>20</sup>; arrazoia maiorazkoa desagertzea eta herentzia kide askoren artean banatu behar izatea izan zen<sup>21</sup>. Gortázarren heriotzak samin handia eragin zuen Bilbon<sup>22</sup>. “Juan Carlos Gortázar, benetako jauna eta inor baino adituagoa sonatetan, beti irudikatuko dudana Ezkiaren pean, eta nik, oso maite zuen honek, ‘Do-Re-Mi-Fa jauna’ ezizen sekretuaz izendatu nuena nire nerabezaroan”<sup>23</sup>, idatzi zuen urte batzuk geroago Rafael Sánchez-Mazasek.

Kurding eta El Cuartito elkarteetako kideen ekimenez, musika-erakunde hauek jaio ziren Bilbon: Kuartetoen Elkarte (1884) eta ondoren Santa Zezilia Elkarte, Bilboko Orfeoi gisa eratu zena 1886an, eta Bilboko Koral Elkarte gisa, urte bereko abuztuaren 3an, musikaren ezagutza eta hedapena sustatzeko, oro har, eta kantu koralarena, bereziki<sup>24</sup>.

Udal Musika Banda, zeinak 1895ean bere lehen kontzertua eskaini baitzuen Areatzan, José Sáinz Basaberen zuzendaritzapean. Elkarte Filarmonikoa, 1896an eratu 500 bazkiderekin, bi helburu zituen: musikaren artea bultzatzea, nazioarteko ospea zuten artistak entzuteko aukera eskainiz, eta bertako artistak suspertzea; neurri batean, Nicolás Ledesma 1852an sortutako Elkarte Filarmonikoaren oinordekoa zen<sup>25</sup>. Filarmonikaren programen bidez, Bilbora iritsi zen Europako musikatik ezezagun zena: Beethovenen sonatak, Brahmsen koartetok edo Schuberten lieder-ak. Era berean, Gortázarrek Revista Musical aldizkaria sortu zuen 1909an; Europako ideia eta programa musikak ezagutzera emateko bitartekoa izan zen.

Baina talde horretatik aipagarriena Bilboko maila musikala handitzeko interesa eta ardura agertu zutela izan zen. Bildung-aren tradizioko europar ereduak erreparatu zieten, Europako hezkuntza- eta formakuntza-ereduei, berrogeita hamar urte lehenago Máximo Aguirrek eta Bilboko ilustratuek bultzatutakoaren ildotik. Gortázarrek bidaia ugari egin zituen Julio Lazúrteguirekin (Koral Elkarteko lehendakaria) Frantzian, Austrian eta Alemanian barrena, European erabiltzen zituzten antolamendu-teknikak ezagutzeko. Musikaren irakaskuntzari eta formakuntzari garrantzia ematearen ondorioz sortu ziren, XX. mendearen hastapenetan, Bizkaiko Musika Akademia 1903an (1920an sortutako Bizkaiko Kontserbatorioaren aurrekaria) eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa 1922an, baita Arte Enpresen Elkarte ere, Filarmonikaren ahalmenetik kanpo zeuden musika-ikuskizun oso garestiak sustatzeko asmoz sortua, eta Bilboko Kontzertuen Elkarte, 1909an.

Kurding-eko jendea Bilboko zeharkakotasunaren beste adibide bat da. Ez ziren oligarkia, hori esan izan bada ere; gazte burgesen nahasketa askotariko bat zen: bertan biltzen ziren margolanak egiten zituzten artistak —zaharrena Adolfo Guiard zen (merkatarien semea)— eta horietan irudikatuta ageri zirenak, Gortázarren moduko ahaide nagusi bat, Bilbora iritsitako jende berria, hala nola Tous ingeniaria, eta indianoen semeak, hala nola Arisqueta. Apustu egin zuten Europako musika berriaren alde eta Parisen ikasi zutenen pinturaren alde.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. “Txoritoki” 1883an jaio zen, Maria Muñoz kalean, 5. solairu batean, non eskailerak pasabide batera jotzen zuen eta horren amaieran zuzenean mendira eramaten zuen zubi bat zegoen. El Escritorio elkarteak Santa Mariakalean izan zuen lehen egoitza, eta ondoren Areatza pasealekuko 6. zenbakiko solairu batean lekualdatu zen. El Cuartito, Posta kalean kokatuta egon zen. Bazkide osoak: Eduardo Aburto, Eduardo Aguirre, José Allende, Plácido Allende, Juanito Amann, Tomás Amann, Juan Anduiza, Enrique Areilza, Javier Arisqueta, Joaquín Arisqueta, Luis Astigarraga, Alberto Aznar, Eduardo Aznar, Luis Aznar, Julián Basabe, Juan Basterra, Enrique Borda, Javier Calle, Alfonso Canella, Félix Gaminde, Ricardo Gaminde, Alfredo Gorbeña, Ramón Gorbeña, Juan Carlos Gotázar, Francisco Igartua, Leopoldo Igartua, Manuel Losada, Diego Mazas, Fermín Moscoso, Manuel Murga, José Orueta, Joaquín Palacios, Francisco Puente, Ramón Real de Asúa, Luis Reyes, Emilio Saracho, Nicolás Tous, Pedro Tutor, José Urigüen, Tomás Urquijo, Emilio Vallejo, Fernando Zabálburu, Tomás Zubiría. Ohorezko bazkideak: Antonio Cabrero, Luis Gortázar, Anselmo Guinea, Francisco Iturrino, Darío Regoyos, José Sainz Basabe, Luis Zabala, Ignacio Zuloaga. [itzuli]
2. Bilbo opera maitatu duen hiria izan da beti. Gherlia, Magnanes, Mas- Porcell, Echevarría, de Vezza eta maila handiko

beste hainbat musikari eta abeslari igaro ziren Bilbotik 1856an, hiribilduak 18.000 biztanle eskas zituenean. 1858an, denboraldi luzea izan zen, apirilaren 5etik irailaren 27ra. Luciano Urizar (ikusi Addenda: Biografiak) Gayarre tenorearen lagun handia izan zen. Operarekiko zaletasun horrek bizirik jarraitu zuen XX. mendean ere. Ikusi <https://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com/2017/09/la-opera-en-bilbao-mediados-del-siglo.html?spref=tw> [itzuli]

3. Emiliano de Arriaga, *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaíno neto, compilado por un chimbo*, S. de Amorrortu-ren tipografia, Bilbo, 1896; bada hirugarren edizio bat, José Arriaga semeak bildua, Luis Michelenaren hitzaurrea daramana (Minotauro, Madril, 1960). Emiliano Arriagaren (1844–1919) erretratu eder bat gordeta dago Sociedad Bilbaina elkartearen, Alberto Arruek egina. Bilboko alkateordea izan zen (1880–1881), eta Costa Ricako Errepublikako kontsula 1883tik aurrera, eta Nikaraguako Errepublikakoa, 1908tik aurrera. 1871n Sociedad Bilbainako Zuzendaritza Batzordeko kidea izan zen, eta Bilboko Elkarte Filarmonikoko lehenengo lehendakaria, 1896az geroztik. Arriaga Cánovasen alderdiaren ordezkari izatetik Sabino Aranak sustatutako Euskal Zentroko lehendakari izatera pasatu zen 1899an. [itzuli]
4. Javier González Duranaktaldearen izenari buruz idatzi zuen, zuzen idatzi ere, “ez zitu(ela) aitortzen taldearen jardute-arlo ugariak, nahiz eta ongi adierazten zuen zer iritzi zuen haiei buruz garai hartako Bilboko gizarte kontserbadoreak”, (30. or., Javier González Durana, “Ebríos de arte y vida. El Kurding Club de Bilbao”, *Kobie. Bellas Artes* aldizkaria, 12. zk., 1998–2001, 29.–45. or.). Hori da El Escritorio edo Kurding Club elkartearen jarduerari buruz dagoen saiakera onena. [itzuli]
5. Kurding-ak era askotako objektuen bilduma bat zuen: billar-mahai bat, musika-instrumentuak, Murgaren edo Bizkaitar Mairua esaten ziotenaren arma-bilduma, Terentzio jaunaren burua, Txangoren txistua, argazkiak, marrazkiak, txilaba gorriak ezkongabeentzat eta zuriak ezkonduentzat. Klubean festa ugari egin zituzten, hala nola maiatzaren 2koa (Bilboren askapena) eta Inozoena. Emiliano de Arriagak gauza horiei buruz hitz egin zuen 1893an, *Vuelos cortos* izenburuko kontakizun-bilduman; lan horren ardatza etorkinen iritsiera masiboaren aurreko garaian bilbotar peto-petoez zeramaten bizimodua zen. Ipuin horietako pertsonaiak, hala nola Txomin Barullo, edo Terentzio jauna eta Tomasa andrea, edo Anaxu eta Frakagorri, jaien adierazpen-modu berrietan berreskuratu eta biziberritu zituzten trantsizio-garaiko Bilbon. Ikusi Emiliano Arriaga, *Vuelos cortos de un chimbo*. Ediciones El Tilo, Bilbo, 1994; eta Jon Juaristi, *El chimbo expiatorio. (La invención de la tradición bilbaína, 1876–1939)*. Ediciones El Tilo, Bilbo, 1998; J. Ignacio, Tellechea Idígoras, “Carta a Unamuno de Emiliano y José E. de Arriaga, Fermín Herrán y Carmelo de Echegaray”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXVII: 1, 1992, 51.–86. or. Eta José de Orueta, *Memorias de un bilbaíno: 1870 a 1900*, Nueva Editorial, Donostia, 1929. [itzuli]
6. Álvaro Chapa: *La vida cultural de la Villa de Bilbao 1917–1936*, Bilboko Udala, 1989. Chapak Adolfo Salazar musika-kritikari entzutetsua aipatzen du, esan baitzuen espainiar entzuleen heziketa musikala Bilboko Posta kaleko gelaxka batean hasi zela, El Cuartitón. 1928an, Bilboko Udalak “Juan Carlos Gortázar y Manso de Velasco Fundazioa” sustatu zuen, beka emateko eta bokazio musikalak babesteko, eta Jesús Arámbarri (1902–1960) maisua izan zen lehen onuraduna, Jesús María de Arozamenak *Jesús Guridi* liburuan azaltzen duenez. Egile horrek berak dio Juan Carlos de Gortázar izan zela bere garaiko musika-kritikari onena. Fundazioa indarrean egon zen gutxienez 1946ra arte. [itzuli]
7. Alfredo Echave (“Iturribidekoa”), *El Bilbao del Maestro Valle visto desde la Coral (Cuadros de la vida bilbaína)*. Editorial Vasca, Bilbo, 1920, “El Kurding-Club”, 201.–18. or.; Diego Mazasen hitzaurrea. [itzuli]
8. Luis Aranguren: “Kurding Club elkarteak bere baitan biltzen zituen intelektualak, artistak, musikariak, musikagileak, industrialariak eta merkatariek, etab.; guztiak ziren garai bateko bilbotarren semeak, kutsu liberalekoak, asmotsuak, dibertigarriak, nazioarteari begiratzen ziotenak, eta ez zioten enbarazu egiten inori, lokal barruan egiten zituztelako kontzertuak, musika-emanaldiak, banketeak eta bakanal erromatarrak; zorientasunez eta umorez jositako urtebete igaro eta gutxira, haien aurka egin zuten fraideek, pulpituetatik eta aitorlekuetatik gogor eraso eginez, eta erakunde arras atsegín hori desegitea lortu zuten”, *op. cit.*, 102. or., ikusi aipua hemen: Gonzalo Dúo, “Las memorias del racionalista Luis Aranguren, entre las trascendentes de Unamuno y las divertidas de Orueta”, *Bidebarrieta*. 19. zk., Bilbo, 2008; eta hemen: Gonzalo Dúo, *José Javier de Uribarren y Lequeitio en el siglo XIX*. Donostia, 2006, 36. or. [itzuli]

9. “Kurding eta Saguzar elkarteek helburu berberak zituzten: jatea, edatea eta hitz egitea; lehenengoan musika ere jotzen zuten, bazkideetako batzuk musikazaleak zirelako. Kurding-eko araudiak artikulua bakarra zuen, eta pandero baten larruan idatzita zegoen. Zera esaten zuen: Elkartearen lokalean elkartekide bakoitzak nahi duena egin dezake, baldin eta ez baituen gainerakoak gogaitzen”. Azken horri dagokionez, Echavek honako hau adierazi zuen: “Kurding-ak ez zuen Zuzendaritza Batzorderik. Zertarako? Bazkideetako bat, edozein, Batzorde gisa aritzen zen, eta bere gain hartzen zituen inoiz existitu ez zen araudi bateko kargu administratibo guztiak”. Hemen: Indalecio Prieto, *De mi vida. Recuerdos, estampas, siluetas, sombras*. Editorial Oasis, Mexiko, 1968, Santiago Arisnea Lecearen hitzaurrea. Era berean, Indalecio Prieto, *Pasado y futuro de Bilbao*, Gráficas Ellacuría argitaratua 1978an; 1946ko urriaren 6an, 13an eta 19an Mexikoko Colegio Madrid ikastetxean emandako hitzaldi batzuk biltzen ditu lanak, eta egileak oroitzapenak eta ilusioak nahasi zituen, Bilborako egin zituen aldaketa- proposamenetan oinarrituta. [itzuli]
10. Daniel Coenn, *F. Scott Fitzgerald: His Words* (English Edition), Kindle BookRix bertsioa, 2014. 184 aforismoko bilduma. Eta hemen: F. Scott Fitzgerald, “On Booze”, New Directions Publishing, 2011, 92. or. Esaldia ez da Scott Fitzgeraldena, Edward Rowland Sill (1841–1887) amerikar poetarena baizik, zeinak “An adage from the Orient” poema argitaratu baitzuen, 1886ko maiatzaren 25ean *The Chicago Daily Tribune* egunkariko 4. orrialdean, eta ondoren liburu honetan: *Hermione and other poems*, The Riverside Press, Cambridge, 1899, 100. or.: “At the punch bowl’s brink, / Let the thirsty think, / What they say in Japan: / First the man takes a drink, / Then the drink takes a drink, / Then the drink takes the man.” [itzuli]
11. Ricardo Gaminde Ayarragaray (1861–1917), bankaria, Ricardo Gaminderen (1835–1884) eta Evarista Ayarragarayren semea eta Francisco Luis (Pacho) Gaminde Torres-Vildósolaren (1826–1902) iloba zen; merkatari-familia bateko kidea, Mexikora joan eta dirurik gabe itzuli zen bizkaitar bananetako bat zen. Denda bat zuen Posta kalean, Au monde élégant; altzariak, moda- osagarriak eta musika saltzen zituen, eta “Paris, Londres eta Vienako goi- mailako berrikuntzak” eskaintzen zituen, ikusi Javier Viar, *Pacho Gaminde, la sombra de Sócrates*, Bilbo, 2008.

José de Orueta Pérez Nenín (1866– 1934), abokatua eta enpresaburua, Estufa kalean jaioa, Francisco Orueta arkitektoaren eta Luciana Pérez Nenínen semea; Bizkaiko Institutuan ikasi zuen, eta ondoren Zuzenbide ikasketak egin zituen Valladoliden. Bizkaiko Foru Aldundiko letratu izan zen; 1891n, Talleres de Zorroza sozietatea sortu zuen ingeniari batzuekin, eta Olabeaga auzoan ezarri zuten lantegia. Ondoren Sociedad Española de Construcciones Metálicas sozietatea eratu zuen, eta martxan jarri zuen Beasaingo bagoi-fabrika, baita labe elektrikoetan landutako altzairuen fabrika ere, Erreterian. Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea ere izan zen, eta parte hartu zuen 1930etik 1931ra bitarte Euskal Estatuaren Estatutu Orokor ereduari argi berdea eman zion Autonomia Batzordean. Bilboko Elkarte Filarmonikoaren kide eratzaileetako bat izan zen. Liburu eder bat utzi zigun: *Memorias de un bilbaíno: 1870 a 1900* (Donostia, 1929), Sociedad Bilbainaren Plaza Barriko aretoetatik idatziak diruditen memoriak. Francisco Eugenio de Ygartua Andraca (Lima 1862–Bilbo 1920) abokatua, Perun aberastutako Francisco de Ygartua Egusquizarren (Plentzia 1824– Bilbo 1900) semea. Bilbo eta Durango arteko burdinbidearen sustatzaileetako bat izan zen. Haren arreba, Matilde Ygartua Andraca (1854), ezkondua zegoen Emiliano de Arriaga Riverorekin, Arriaga musikariaren iloba-bilobarekin.

Juan de Basterra (Bilbo 1860–Bilbo 1920), enpresaburua eta bakailao- saltzailea; haren anaiak, José María de Basterra arkitektoak, ‘San Ignacio etxea’ izeneko etxe lorategiduna diseinatu zuen 1902an, Neguriko tren-geltokian kokatutako lurretan, beste ahaide batentzat: José María Basterra Ortiz. Jabetzan izan zuen Regoyosen margolan bikain bat, *Zezenak Pasaian (Taureaux à Passages)*. Margolana, 1899ko maiatzean erakutsi zutena estreinakoz Kurding Club elkartean, Bilboko Arte Ederren Museoari eman zioten dohaintzan haren ondorengoek. Juan Carlos de Gortázar (1864–1926), Manuel Maríaren (1824–1896) semea (ikusi Addenda), Ignacio Zubialdea izengoitia zerabilen musika-kritikaria. Laukote bat osatu zuen, eta hori izan zuen oinarri “kaper a biltari” bat sortzeko, irabazi-asmorik gabe Bilboko parroketan barrena jotzen zuena, hotsandiko elizkizunak girotzen; San Anton elizan edo Joan Santuen elizan, Ostiral Santuko sermoiaren ostean, Haydnen *Zazpi hitzak* jotzen. Kuartetoen Elkarte eta Elkarte Filarmonikoa sortu zituen, eta Koral Elkartearen nahiz Musika Akademiaren (Bizkaiko Musika Kontserbatorioaren aurrekaria) sorreran lagundu zuen. Irmoki babestu zuen Jesús Guridi, zeinak Madrilen *El Caserío* estreinatu zuen gau berean jaso baitzuen bere babesle handia hil egin zela jakinarazteko telegrama bat. Bestalde, Jesús Arámbarrik *In Memoriam* elegia konposatu zuen Gortázarren oroipenean, 1939ko martxoaren 9an estreinatu zena, eta Javier Arisquetaren oroipenean, aldiz,

*Dedicatoria* pieza, 1949an. Elkarte Filarmonikoan haren erretratu bat dago, Manuel Losadak margotu zuena Filarmonikak eskatuta Juan Carlos hil zenean, eta Ignacio Zuloagak Kurding Club elkarterako margolan baterako egindako bozeto bat ere bada, gaur egun jabetzat duena María Luisa de Gortázar y Díaz-Prieto. [itzuli]

12. Jacobo Fitz-James Stuart, Albako dukea, Rosario Silva Gurtubayrekin ezkondu zen Londresko Espainiako enbaxadan. Rosario San Vicente del Barco en la Embajada de España en Londres en 1920. Rosario, San Vicente del Barco markesa zen, Totó goitizenez ezagutzen zuten, Hijarko markesaren eta Rosario Gurtubayren alaba zen eta bien aldetik oinordekotza aberatsa jaso zuen. 1934an zendu zen Madrilén tuberkulosiak jota. Ikusi baita ere Addenda: Izenak. [itzuli]
13. Ikusi aipatutako Javier González Duranaren saiakera. [itzuli]
14. Javier Arisqueta Quintanaren (Bilbo 1865–1919) aita, Lino de Arisqueta Achúcarro (Balmaseda 1817–Bilbo 1877), okin-familia bateko kidea zen, eta Mexikora alde eginda aberastu zen. Begoñako elizateko Quintana Jauregiko alaba batekin ezkondu zen (ikusitako Addenda, Ángel Lino de Arisqueta Achúcarro). Javier Arisquetaren anaietako bat, Joaquín, ingeniaria zen, eta Luisa izeneko arreba Ernesto Hiffmeyer ingeniariarekin ezkondu zen. Enrique Borda Achúcarro (Bilbo 1865–Bilbo 1920), arkitektoa, Rita Amann Martínez-Rivasekin ezkondua, Federico Borda arkitektoaren anaia eta Zabalgunearen planaren egileetako bat izan zen Severino Achúcarroren iloba. Negozio-gizona izan zen, eta Banco de Vizcaya bankuaren zuzendaritza-taldean egon zen; banku horretako kontseilaria izan zen sortu zenetik. Sociedad Bilbaina elkartearen lehendakaria izan zen 1930etik 1931ra bitarte. Areetako Gizarte Etxeko lehendakaria ere izan zen, eta Bilboko Erruki Etxe Santuko kidea.

Nicolás Tous Caze (1862–1936) ingeniari mekanikoa eta enpresaburua zen, eta 1891n iritsi zen Bilbora; haren osaba zen Nicolás Tous y Mirapeix (1815–1892), 1855ean La Maquinista Terrestre y Marítima enpresa sortu zuena Bartzelonan. 1881ean Portugaleteko Burdinazko Kaia eraikitzen hasi zirenean, Evaristo de Churrua ingeniariak enpresa horri eskatu zion egitura flotatzailea eraikitzeko eta egitura bera osatuko zuten burdinak ekartzeko. Lanak 1887an amaitu ziren, eta Maria Kristina erreginak inauguratu zuen eraikuntza. Era berean, enpresa horri eskatu zion Bilboko Portuko Obren Batzordeak kontradikerrako erabili zuen 100 tonako garabi flotatzailea, pontoi metaliko baten gainean muntatuta zihoa eta popan zituena lurrun- makinak eta kontrapisua egiteko eta garabiaren inklinazioa murrizteko balio zuten ur-andelak. Nicolás Tous Caze Bilbon ezkondu zen 1893an, Anastasia Santamaríarekin. 1891n, Marinello, Tous y Compañía sozietate erregular kolektiboa eratu zuen, 500.000 pezetako kapitalarekin, eraikuntza metalikoetan eta itsasontzi-motorretan aritzeko asmoz. José Orueta Pérez de Nenín bilbotar abokatuak izendatu zuen zuzendari. 1892an, Talleres de Zorroza izena hartu zuen (oraindik itsasadarraren bazterrean dago bulegoen eta etxebizitzaren pabiloia, Hermenegildo Lozanok proiektatua). 1897an, Uribitarteko kaia Sendejako kaiarekin lotzen zuen San Agustín zubi birakaria eraiki zuten (Bilboko Udalaren ondoan). 1901ean SECM izatera pasatu ziren, Sociedad Española de Construcciones Metálicas. Leopoldo Gutiérrez Abascalek (1868–1918) honela idatzi zuen gutun batean: “Guinea Bilbon bizi da, eta bizitzeko lanean jarraitzen du. Duela gutxi margolan handi bat margotu du Kurding-erako. Mozkorren eta ‘minette’-aren ikur moduko bat. Ilargiaren argi zurbilak argizatutako zelai bat da. Aurrealdean gaztainondo bat dago, enborraren goialdean emakume baten bustoa irudikatuta duena [...] Pentsatzen dut Guineak ez zuela nahita egingo, baina lana gizartearen karikatura bikaina iruditzen zait”; aipatuta dator hemen: Javier González de Durana, “Leopoldo Gutiérrez Abascal: cumbres y simas de una fe oscura”, *Bidebarrieta* urtekaria, IV, Bilbo, 1999, 183.–91. or. [itzuli]

15. José Antonio de Urigüen Bayo (Bilbo 1847–Bilbo 1900), enpresaburua eta merkataria, Juana Mendigurenekin ezkondua; haien alaba María Urigüen Mendiguren (1880) Enrique González de Careaga y Bishop nabigatzaile eta finantza-gizonarekin ezkondu zen. Haren anaia Braulio Athleticen bazkide garrantzitsu bat izan zen. Eusebio Ramón Real de Asúa Ibarretak (Bilbo 1846–1907) Estrasburgon eta Bordelen ikasi zuen. 1877an, medikuek Errioxara lekualdatzea gomendatu zioten, osasun-arazoak tarteko, eta bertan upategi bat ireki zuen 1879an, 1882an Compañía Vinícola del Norte de España (CVNE) bihurtu zena.

Eusebio eta bere anaia Raimundo bi ahizparekin ezkondu ziren, Juliana eta María Ignacia Aranorekin; Ibarrangelun jaioak ziren, Bilbon ontzi-jabe eta kontsignatario gisa finkatutako ontzi-kapitain baten alabak. 1879an, nabigazioaren negozioan sartu ziren, eta beste zenbaitekin batera eratu zuten Línea de Vapores Serra konpainia, Bilbon eta Bartzelonan egoitza zuena, eta Compañía de Navegación La Flecha. [itzuli]

16. Diego Mazas Orbegozo (Bilbo 1867– Paris 1925): dirua aitarengandik zetorkion, Diego Ramón de Mazas

Torrerengandik (1818–1888), Santa Ana de Bolueta enpresaren sortzailea eta Zabalguneko lehenengo etxearen sustatzailea; haren ama Matilde Orbegozo Jugo (1837–1891) poeta izan zen. Bilboko Truke eta Burtsa Agenteen Elkargoko presidentea izan zen 1922tik 1925ean hil zen arte. *El obrero en la ciudad y en el campo* eta *La sociedad de Bilbao en 1877* (1918) liburuen egile, Bilboko *Hermes* aldizkariko kolaboratzailea ere izan zen. Haren anaia Joaquín (1860–1890) *El Globo* eta *El porvenir vascongado* egunkarietako erredaktorea izan zen. Aldundiak Jaurerriko artxibozain eta kronikari izendatu zuen 1889an; Antonio Truebaren ondorengoa izan zen kargu horretan. Haien iloba izan zen Rafael Sánchez Mazas, zeinak Bilboko Eskolapioetan egin baitzituen lehen mailako ikasketak (1901–06), Juan Larrearekin batera, eta ondoren Miranda Ebroko Bihotz Sakratuan ikasi baitzuen (1907–10).

Ángel Manuel de Gorbeña Ayarragaray (Bilbo 1857–Areeta 1914), enpresaburua eta bankaria, Valentín bide-ingeniariaren anaia. Luis Reyes Caldos (1868–1947), meatze-ingeniarria, Madrilen jaioa, Irene Amann Barroetarekin ezkondua. Luis Aznar Tutor (1862–1929) 1886an sartu zen Sota y Aznar konpainian; 1902an, aita hil ostean, Aznar familiaren buru bihurtu zen Sota y Aznar konpainiaren negozioetan, eta taldearen sozietate guztien zuzendari kudeatzaile izendatu zuten, hil arte, Ramón de la Sotarekin batera. Encarnaciónekin ezkondu zen (Martín de Zavala eta Encarnación de Arellanoren alaba); Laredoko diputatua izan zen, eta bertako semeorde izendatu zuten, hiriko portuaren eraberritzea martxan jartzeagatik. [itzuli]

17. *Saguzar* elkartearen, bazkideek inauteritan osatzen zuten konpartsaren estandartearen besterik ez zegoen, Guiardek margotutako estandartearen, non ero-talde bat ageri zen, ilaran eroetxeranzko bidean. El Sitio elkartearen 1875eko urriaren 1ean jaio zen ofizialki, gogoan zeudela oraindik Bizkaiko hiriburuak 1836an eta 1874an jasan zituen setioak, zeintzuen ondorioz jaso baitzuen hiribilduak garaitu gabearen titulua. Hasieran, aisialdi-talde bat izan zen, kutsu kultural eta politikokoa, Sociedad Bilbainaren eta Madrilgo Ateneoaren antzekoa, baina sorrera-garaiak zeharo baldintzatutako giro militantearekin. Lehenengo bazkideak ez ziren mugatzen beren iritziaren testigantza ematera; aitzitik, modu aktiboan esku hartzen zuten XIX. mendeko bizitza politiko iskanbilatsuan. Elkarrean 9.000 liburuki baino gehiagoko liburutegi bat izatera iritsi zen, baina tropa nazional frankistek suntsitu zuten 1937an Bilbon sartu zirenean. [itzuli]
18. Gortázar familia izan da Batzarretan presentzia handiena izan duena; gutxienez hamaika bider dago dokumentatuta: 1724–26, 1728–30, 1794–96, 1796–98, 1831–33, 1839–41, 1844–46, 1870–72, 1874–76, 1876–78 eta 1877–80. Hamar bider ageri dira Novia, Eguía, Ugarte eta Meceta leinuak. Bederatzi bider, Adán de Yarza, Allendesalazar, Basurto, Larrinaga, Loyzaga, Olaeta eta Urquijo. Zortzi aldiz bete zuten kargua Arrieta Mascarua, Landecho eta Mugártegui familiek. Ikusi Dario de Areitio, “El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya”, Bilbo, Bizkaiko Inprimategi Probintziala, 1943. [itzuli]
19. Manuel María de Gortázar Munibe (1824–1896) akzioduna eta Administrazio Kontseiluko kidea izan zen 1861ean, eta Arratiako bideko zuzendari berezia, 1858ko urtarrilaren 11n izendatua. Bizkaiko probintziako Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako Komisarioa izan zen (1879ko urriaren 18ko Errege Dekretua). Parte hartu zuen Trianoko burdinbidean, Gernikakoan, Bilbotik Durangorakoan, Elgoibartik Donostiarakoan eta Lezamakoan.

Era berean, “Unión”, “Comercio”, “Norte”, “Carmen” eta “Amberes” lurrenontzietan inbertitu zuen 1861etik 1865era bitarte. 1863an, Suteetarako Aseguruetako Mutua Sozietateko kontseilaria izan zen, eta 1864an, Banco Hipotecario Español y General de Crédito bankuaren sukurtsalekoa. 1880an, Bizkaiko aberatsenetako bat zen, jabetza landatar eta industrialei zegokienez. 1866an, Bilbon zeuzkan jabetzek 94.270 errealek kuartoko errenta ematen zioten. 1887an, infantzoi gisa zeuzkan jabetzei esker (Bedia, Lemoa, Castillo, Galdakao eta Gueñes) 27.276,5 errealek irabazi zituen (1877an, ia kopuru bera, 26.197,5 errealek). Ondoren Arriaga izena hartu zuen “Bilboko Antzoki Berriaren” hirugarren akzioduna izan zen (140 akzio 2.000tik); 1885eko martxoaren 22an eratu zuten Sozietate Anonimoa. Gerora Arriaga izango zenak 112 akziodun izan zituen, eta Casilda de Iturrizar andrea izan zen akziodun nagusia. [itzuli]

20. Manuel M<sup>a</sup> de Gortázar jaunaren (1824–1896) biografia, seguru asko Aingeru Zabalak idatzia: “Horrez gainera, inguruneak ez zion mesederik egin, erregimen berrirako aldaketak (eta karlistaldiek) lur jota utzi baitzituen Euskal Herriko lur-jabe handi ia guztiak, lurrak balioa galdu zuelako. Euskal aristokraziako familia zaharretatik ia bakar batek ere ezin izan zuen hartu Euskal Herriko iraultza industrialaren trena, “aristokrata berri” ugari sorrarazi zituena. Hainbeste jaitsi ziren landa-jabetzen errentak, ezen ez baitzuten nahikoa ematen jabetzak berak mantentzeko ere. Gortázar familiaren kasuak bereziki argi erakusten du aldaketa hura, Bizkaiko aberastasun handienetako bat izatetik (hainbat hamarkadatan handiena, seguru asko) egoera finantzario larrian egotera igaro baitziren, eta familiaren ondarearen zati handiena besterenduta

geratu baitzen” “Además, el entorno no le favoreció pues el tránsito al nuevo régimen (y las guerras carlistas) arruinaron a casi todos los grandes hacendados terratenientes en el País Vasco, al desvalorizarse enormemente la tierra. Prácticamente ninguna de las viejas familias de la aristocracia vasca se pudieron subir al tren de la revolución industrial en el País Vasco, que crearía tantos “nuevos aristócratas”. Las rentas de las propiedades rurales bajaron tanto que no daban para mantener las propiedades. El caso de la familia Gortázar es especialmente revelador de este tránsito, ya que pasa de ser una de las mayores fortunas de Vizcaya (durante décadas posiblemente la mayor) a una grave situación financiera y a la enajenación de la mayor parte del patrimonio familiar”). [\[itzuli\]](#)

21. Ikusi Maiorazkoak izeneko kapitulua liburuki honetan. [\[itzuli\]](#)
22. *El Noticiero Bilbaino* egunkariak 1928ko irailaren 25ean kontatu zuenez, hil osteko omenaldia egin zioten Guardian, eta Ángel Garavilla margolariak erretratu bat egin zion, eskolako kolonian geratu zena. *Gaceta del Norte* egunkariko beste ohar nekrologiko batek honela zioen: “Gizon ona, guztiz onbera, ezin onagoa; maitasun handia zien txikiei”. [\[itzuli\]](#)
23. Rafael Sánchez-Mazas: “Las aguas de Arbeloa y otras cuestiones (relatos)”. Editorial Samaran, Madril, 1956. [\[itzuli\]](#)
24. 1909an Kuartetoen Elkarte berria eratu zuten. Cleto de Alaña y Landa (Bilbo 1865–1939) eta Lope de Alaña y Errasti (Bilbo 1850-1926) lehengusuak ziren. [\[itzuli\]](#)
25. Elkarte Filarmonikoa 1896ko otsailaren 23an eratu zuten, 500 bazkiderekin. Emiliano de Arriaga izan zen lehenengo Zuzendaritza Batzordearen buru, eta batzordekide izan ziren, halaber, Alaña, Arisqueta eta Gortázar, Kurding Club elkarteko kideak, guzti-guztiak. Inaugurazioko kontzertuak maiatzaren 20an eta 21ean egin ziren, Bizkaiko Institutuko areto nagusian; Elkarteak lokal horretan hartu zuen egoitza, Portuko Markesaren kalean eraikina altxatu zuten arte, 1904an inauguratua. [\[itzuli\]](#)



Guiardek Sociedad Bilbaina eta Zuloagak, Guineak eta Losadak Kurding Club elkarreterako sortu zituzten margolanekin batera, José Arrueren *Estropadak Abran* (*Regatas en el Abra*) lan txiki bikaina, gouacheak eta tenperak ematen dioten fintasunarekin, garai beraren oihartzun bat da, indar ikonografiko berdinekoa; garai bateko gizartearen irudikapena da, pleistozenotik modernitatearen ametsera jauzi egin zuen gizartearena: jauzi industrializaziora, aberastasunera eta belako kirolak egitera Abran, mineralez betetako ontzien irteera-atea izaten jarraitzen zuen leku berean. Kurding-eko burges musikazaleei kontrajarrita, Valentín de Zubiaurrek musika herrikoa erretratatu zuen, ondoko elizate batean egindako bertsolarien jaia (gure juglare edo kantautoreak)<sup>1</sup>.

Arrueren margolanak enpresaburuen olgeta-une hori dokumentatzen du historiarako; agertokiaren atzealdea berdina da (merkataritzaren itsasoa, nabigazioarena, siderurgiarena). Hemen kirolari emanak daude protagonistak, ahalegin ludikoari emanak: lehiakideak jada ez dira soilik enpresaburuak; nabigatzaileak ere badira. Une horretan, adimena eta ahalegina belen gainazalean aplikatzen dituzte, eta itsasoa gainazal gisa “ulertzen”; erregea eta bere marinelak ere lehiakideak dira, gainerakoen antzera. Arrue eszeptikoak pinturretan kontaktzen zituen gertaera haiek, Manuel Torcida argazkilariak errebelatuetan edo Indalecio Prietok bere kroniketan egiten zuten moduan; eta artista jakintsuaren umorea erabiliz egiten zuen, gainera. Triptiko hori ez da karikatua bat, gure garaiaren notario-akta dibertigarri bat baizik, erromeriei buruzko margolanen antzera, dokumentu etnografiko bikainak, guztiak. Bere pintzelaren fintasunaz baliatuz, Guiardek eta Ucelayk kontatutako historia bera kontaktzen du Arruek. Alde bakarra melodia eta instrumentazioa dira, txaranga herrikoia kutsu handiagoa duena musika sinfonikoarena baino; baina egia berbera da.

Zubiaurreren *Bertsolariak* (*Bersolaris*) talde-erretratu bat da, eta bi baserritar zutik ageri dira, igandeko janzkiekin, bata abarkekin eta bestea espartin zuriekin, elkarri bertsotan beste baserritar batzuen aurrean. Mahai baten inguruan eserita daude eskua masailan jarrita duen gizon bat eta zortzi emakume (horietako lau gazteak), eta zuhaitz baten ondoan bi mutil gazte daude, pilotarien antzera jantzita, gerriko gorriarekin. Esquinean, estalki batek ixten du konposizioa; eszena biltzen du, eta, era berean, haizetik babesten du. Atzealdean, hainbat mendi-tontor ikusten dira, magaletan baserri batzuk dituztela han-hemenka.

Pertsonaien hieratikotasun berberaz tratatuta daude objektuak ere: goialdean konposizioa ixten duten sagar-multzoak, zeramika eta kobrezko pitxerrak eta lurrean tinko utzitako sagarrak; Zurbaránen natura hiletan bezala, bi mahaietan bare ageri dira, mantel zurien gainean, hainbat eratako jakiak, hala nola ogia, gazta, sagarrak eta edalontzi bat txakolin.

Margolan honetan, Zubiaurrek konposizioaren egonkortasunari esker erakartzen du ikuslea, monotonia bizantziarrari esker, zeina kontrajartzen zaion pintura modernoaren bizitasunari, Kurding-aren egoitzako mihise biziei. Bi Zubiaurre anaiak ere izan ziren Parisen, 1905ean, eta izena eman zuten Académie Julian akademian<sup>2</sup>. Baina ez zuten bat egin ez inpresionismoaren pintzelkada solteekin, ez fauvismoak ekarritako hausturarekin, ezta Aurelio Artetaren *Gerraren triptikoa* (*Tríptico de la guerra*) lanaren kubismoarekin ere. Zubiaurreren eredia James Tissot (jada aipatu dugu Guiardi lotuta) eta haren konposizio ongi egituratuak izan ziren, adibidez, *Artisten emazteak* (*The artists' wives*, 1885)<sup>3</sup>. Lan horretan, Tissotek ospakizun-bazkari bat irudikatu zuen Parisko *Le Doyen* jatetxeko terrazan; atzealdean Palais de l'Industrie jauregirako sarrera ikusten da. Bi emakume gazterekin eserita dagoen margolari batek erakartzen du ikuslearen arreta, batik bat haien begirada-jolasarengatik, ohitura- komedia bat izango balitz bezala, *conversation piece*

bat izatearekin batera. Tissotek egun distiratsu eta eguzkitsu bat proposatzen digu, arrakasta profesionala eta adiskidetasuna azpimarratzeko. Zuloagak, lagun musikarien erretratuan, egunsentiaren argia eskaintzen digu Areatzan, eta Zubiaurrek, aldiz, ilunabarreko argia.

Zubiaurrek unearen hotsandia nabarmendu zuen begiraden eta ilunabarreko argiaren bidez; Losadak pianisten bakardadea parodiatu zuen Wagnerren aurkarien ukabilen aurrean. Losadak eta Zuloagak, pintzelkada solteak erabiliz, beren lagunak eta haien mozkorrek erretratatu zituzten; Zubiaurrek, aldiz, margotzeko modu oso pentsatua erabiliz, *hieratiko bihurtu zuen* folkloreaken une bat. Zubiaurrek (mendi-tontorrean) galdutako herriaren ikono bat osatu zuen, deboziozko estanpa bat balitz bezala: herri xumearen estanpa nobletua. Zubiaurrek XX. mendearen hasieran galzorian zegoenaren naturalismo bat sortu zuen, *Eki alderako bidaia* herrixken barruan. Modernitatearen gorakadan galtzen ari zen garai horren ikonoak asko ugaritu ziren haren margolanetan. Kurding Club-eko margolanetan ez bezala, Zubiaurren *elizateetako* begirada bat daukagu, ez estiloagatik, ikuspegi hori adierazteko borondateagatik baizik. Herrixkako bizimoduaren ikuspegi zurrun eta sagaratu horretan islatu zituen Zubiaurrek bere mitologia eta nahiak<sup>4</sup>. Nahiago zuen landako munduaren gorazarre hori, egunerokoan bizi behar zuen mundu garaikideko bizimodu prosaikoaren gainetik. Hortaz, Zubiaurrek malenkonia erein zuen bere pinturan: irudizko iragan komun baten gari garbia. Horrengatik, haren lanak ez dira gaur egunera esportagarriak, eta horrengatik dio estimu gutxi haren pinturari egungo nazionalismoak.

Zubiaurrek ez zuen fotografiatu musikari gazteen mozkorra Areatzako pasealekuan; festa-une bat izoztu zuen. Ez dago dibertimendurik, José Arrueren eszenetan bezala, ezta sexualitate sorrik ere, lehenengo garaiko Artetaren pastoraletan bezala<sup>5</sup>.

*Bertsolariak* Euskal Herriko landako eszena tipiko baten friso bizantziar bat da, eta pertsonaiak paisaia bereizgarri baten gainean ebakita ageri dira; zenbaitetik sinbolizatzen jo dute paisaia hori, baina paisaia erreala da, erretratututako pertsonaiak errealak diren bezalaxe. Eta psikologiarik ere ez dago Valentín de Zubiaurren narrazio piktorikoan, nahiz eta behin eta berriz aipatu izan den espainiar aipamen guztietan, Vittorio Pica italiar kritikariaren 1911ko testu gaizki ulertu bati jarraituz. Zubiaurren margolanetan irudikatuta daudenen “aurpegi eta jarreretatik harago doan seriotasun, gogortasun eta kontzentrazio horri” erreparatuta, mendeen joanean sartzen gara, desagertzen ari zen garai baten eraginkortasun oroitarazlean<sup>6</sup>. Zubiaurren lanean ageri da, noski, malenkonia eta jada iraganekoa zen une hura dokumentatzeko nahia, *malenkoniaren arkeologia*, baina ez du ia inoiz lantzen pertsonaien psikologia pertsonaia gisa. Zubiaurren baserritarrak ez dira bereizgarriak beren psikologiarengatik —kasu honetan erretratu garbiak diren arren—, beren jarrerengatik baizik, izan pausatzean darabilten tonu indibidualagatik, izan haien keinuen oihartzunagatik<sup>7</sup>. Valentín de Zubiaurrek ez zuen izakia erretratatu; eszena batzuk eta kantu batzuk dokumentatu zituen, malenkoniaren lanbroan desagertu aurretik.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Bertsolariak bertso herrikoak bat- batean sortu eta euskaraz abesten dituzte; agudeziaz eta asmamenez sortzen dituzte bertsoak, elkarrizketa abestu batean ariko balira bezala, eta arau metriko batzuk ere betetzen dituzte. Latinoamerikako folkloreak ere badago aldaera poetiko-musikal hau, Venezuelatik Argentinara: zenbait musikari biltzea eta elkarri puntuak botatzea lautadako musika tradizionalako ohitura zaharretako bat da. Zertan datza elkarri puntuak botatzea? Bi

abeslariren arteko lehia bat da, eta ideien eztabaida batean “azken hitza” izatea da helburua. Zer lortu nahi dute? Hiztegiarekin eta errimekin duten abilezia erakustea, aurkaria hitzik gabe utzi arte. [itzuli]

2. Haien aita Valentín Zubiaurre Urionabarrenechea (Garai 1837– Madril 1914) zen, espainiar musikagilea. Bilbon hasi zuen musika- ibilbidea, haur zela abesbatzan abesten, eta organoa jotzen ikasi zuen Nicolás Ledesmarekin. 1875ean, lehenengo saria lortu zuen Madrilgo Musika Kontserbatorioko Konposizio ikasketetan. Kide osoa izan zen Arte Ederren San Fernando Errege Akademiako Musika Atalean. Erromako Arte Ederren Espainiako Akademian egoiliar izan zen, eta 1878az geroztik Madrilgo Errege Kaperako maisua. 1895ean, urte hartako udal-eroldaren arabera, Zubiaurre Cedaceros kaleko 1. zenbakiko hirugarren solairuan bizi zen (urtean 1.875 pezetako alokairua ordainduta), eta musikaria zela adierazten zuen, eta 7.000 pezetako urteko soldata zuela. Paz Aguirrezabalekin ezkondu zen (1859an jaioa, Bergaran), eta hiru seme-alaba izan zituzten: Valentín (Madrilen jaioa, 1879an; gor-mutua), Ramón (Garain jaioa, 1882an; gor-mutua) eta Pilar (Garain jaioa, 1884an; Ricardo Gutiérrez Abascal arte-kritikariarekin ezkondu zena). 1887an Madrilgo San Ignazio Kongregazioan sartu zen. Elkarte hori, neurri handi batean Madrilen bizi ziren bizkaitarren ekimenez sortua 1715ean, probintzia guztietako euskaldunen elkarte bihurtu zen 1897an. [itzuli]
3. James Tissot, *Artisten emazteak* [*The Artists' Wives*, 1885ekoa, *The Artist's Ladies* edo *Artistaren emakumeak* izenez ere ezaguna, olio-pintura mihise gainean, 146 x 101 cm, Norfolkko Chrysler Museum of Art, Virginia]. Koadroan hainbat artista eta horien emazteak daude irudikatuta, Jour du Vernissage delakoan (bernizaduraren eguna), aretoaren inaugurazio ofizialaren bezperako gauean. *Jour de vernissage* arte-erakusketa baten aurretiko ikustaldia aipatzeko erabilitako adierazpen bat da; ikustaldi hori pribatua izan zitekeen, eta irekiera formalaren aurretik egiten zen, artistek azken berniz-geruza ematen zieten margolanei; gaur egun *vernissage* esaten diogu (hitz frantsesa, jatorrian “bernizatu” esan nahi duena). Irekiera erakusketaren lekuan bertan edo inguruan egiten zen, eta hitzaldiak izaten ziren, eta batzuetan baita bazkari bat ere, artistek elkar ikusteko baliatzen baitzuten unea, edo arteari begira interesa zuten edo artearekin zerikusia zuten pertsonak ezagutzeko, baita politikari eta enpresaburu entzutetsuak ere. Erretratututakoen artean dago Auguste Rodin eskultorea (1840–1917): irudiaren erdian zutik dagoen gizon bizar marroldun eta betaurrekoduna da. [itzuli]
4. Garaiko elizateko aitaldeko etxean, Zubiaurre anaiek mural bat egin zuten egongelako goialdeko horman, Ravennako mosaiko bizantziar bat izango balitz bezala. [itzuli]
5. Beste noizbait aipatu izan dut Valentín de Zubiaurreren ikuspegia Stanley Spencer britainiarraren (1891–1959) ikuspegiaren antzekoa dela, sexualitatea kenduta, eta haren “English village allegories” direlakoan ikuspegiaren antzekoa, zeinak baitira garai industrialetan desagertutako mitologia kristauaren eta folkloreaken nahasketa bat. Ikusi Kosme de Barañano, *Valentín de Zubiaurre – Dibujos*, BBK Fundazioa, Bilbo, 1998. [itzuli]
6. “Contemplando quel non so che di solemne di severo e di concentrato che traspare dai volti e dalle pose dei piccoli proprietari...”, 334. or. hemen: Vittorio Pica, “Artisti contemporanei: Valentin e Ramon De Zubiaurre”, *Icona*, XXXIV. Lib. (1911), 203. zk., 323–40. or. [itzuli]
7. Hori nabaria da, batez ere, egilearen marrazkien bilakaeran: Valentín de Zubiaurreren heldutasuneko marrazkiak ez dira bereizgarriak erretratututakoen fisionomiagatik, baizik eta formatu txikiagatik eta izaera takigrafikoagatik, *staccato*an egindako trazuekin. 1910ean Lozoyako markesarekin ibilaldiak egin zituen Sepúlvedan eta Segovian barrena, marrazki bizkorak eta formatu txikiak egiten hasi zen. Hil artean jarraitu zuen horrelakoak egiten. [itzuli]

Bilboko hiribilduko pertsona itzaltsu ia guztiek izan dute beren erretratu —pintura-lana edo eskultura-lana—, Juan de Barroeta eta Antonio de Lecuona artistek —esate baterako— moldatuak, edo, aurrerago, Losadak (Enrique Areiltzaren erretratuak), Zuloagak (Ramón de la Sotarena) edo Artetak (Indalecio Prietorena) eginak. Batzuk irudizko erretratuak dira, hala nola Udaletxeko fatxadako bost bilbotar ospetsuren bustoak, edo Foru Aldundiko bizkaitar historikoen erretratuak, Alcalá-Galianok 1923an egindakoak; baina kutsu klasikoko erretratuak dira guztiak, generoaren tradizioan oso errotuta zegoen estiloan burutuak, eta nolabaiteko oroigarritasun solemnekoak.

José Arruek oroigarritasunetik harago doazen bi *talde-erretratu* utzi dizkigu, une jakin baten kronika bizia direnak: *Estropadak Abran* (*Regatas en el Abra*, 1908) eta *Athletic Club taldea* (*Equipo del Athletic Club*, 1915, 190–91 or.); garaiko Bilboko gizartea osatzen zuten pertsonaia horien bi talde-erretratu dira, bi une ludiko edo kirol-jarduera erakusten dituztenak: bata, Britainia Handitik ekarritako *footballa*; eta bestea, *sailinga* edo bela-estropadak, tokiko tradizioari lotuagoak, baina lehiaketa-arauak eta -moduak inportatu zituenak.

Oso margolan orijinalak dira biak: bietako bat, gainera, Bilboko futbolaren historiaren ikur bat da ia, eta bertan irudikatuta ageri diren pertsonaiak aztertuta hiribilduaren barne-historia sozialaren erradiografia bat ikusiko dugu; bestean, pertsonaiek Espainiako une hartako soziologia politikoa erakusten digute, baina baita estropadalarien jarrera ekintzaile eta lehiakorra ere. Mendeko Bilbo hartan sortutako pertsonaien erakusgarri bikaina dira bi margolanak.

1908ko abuztuan, Sporting Klubeko zuzendaritzak estropada baten margolan bat eskatu zion José Arrueri, Alfontso XIII.aren *Giralda* yatean jartzeko. Horrela sortu zen *Estropadak Abran* triptikoa, non Alfontso XIII.a Algortako kontra-moilan agertzen baita, klubeko zenbait bazkiderekin eta garaiko beste nabigatzaile batzuekin batera, atzean Serantes mendia, Galea lurmuturra eta Algortako herria dituztela<sup>1</sup>.

Ez zen hura José Arrueri eskatutako lehen itsas gaiko margolana. Aurreko urtean, Sporting Klubak oroitzapenezko lan bat eskatu zion, eta urte batzuk geroago, 1919an, Bilboko Klub Nautikoak friso bat eskatu zion, bost ataletan banatuta, Arriaga antzokiko lehen solairuan zegoen areto batean apaingarri jartzeko<sup>2</sup>.

Sociedad Bilbaina elkartearen triptikoan, *Sonderklasse* motako belaontziak dira bertan agertzen diren guztiak (horiekin irabazi zuten estropada Yohn anaiek), hiru gizoneko eskifaia dutela; aitzitik, Itsas Klubeko erretratu bikoitzean (11. irud., 179. or.) 15 metroko bailandra bat ageri da, bere brigantin-bela eta guzti. Bistan denez, pertsonaietako batzuk errepikatuta daude.

Azter ditzagun lehenik Itsas Klubeko bi pieza horiek eta haietan ageri diren pertsonaiak.

1907ko irailaren 7an, Rafael eta José María Yohn anaiek *Sonderklasse* nazioarteko estropada irabazi zuten, Abran, Enrique Careaga-ren *Princesa de Asturias* bailandra gidatuz<sup>3</sup>. Bilboko Sporting Klubek, bere aste nautikoaren barruan, “Bilbo-Castro joan-etorriko gurutzaontzi-estropada” programatu zuen 1907ko irailaren 4rako<sup>4</sup>. Garaileak “Erregearen Kopa” jasoko zuen sari gisa, Eladio Laredo arkitektoak diseinatua eta Castroko dirudunen harpidetza bidez ordaindua<sup>5</sup>.

Itsas Klubeko margolan horretako protagonistak —Yohn Zayas anaiak, estropada irabazleak— erregearen albo banatan ageri dira, José Ferrándiz Itsas Ministroaren eta Alberto Aznarren begiraden artean; atzean, kopetilun eta bakarrik, Benigno Chávarri dago, gaizki jantzia (esaten zen ez zuela inoiz probatu ura bere egoera naturalean); eta aulki batean igota, eszenaren zaindari, Enrique Careaga, erregearen maiordomoa, haren ontzien komodoroa eta finantza- gizona izan zena. Careaga bera ere Kielgo Bela Astean parte hartua zen, nabigatzaile gisa. Haien atzean, hiru pertsonako taldetxo bat dago, janzkeragatik kazetariak diruditenak: bizkarrez dagoena Indalecio Prieto da; aurpegia erdi estalita duena Manuel Torcida argazkilaria izan daiteke; eta *La Vida Marítima* aldizkariko argazkian agertzen den hirugarrena, Leopoldo Alonso, Madrilgo erreportari grafikoa. Beste irudian, murru gainean eserita dagoen marinela gain, epaimahaiko presidentearen ondoan Federico Ugalde arkitektoa ageri da, zigarreta bat eskuan eta itsasoari begira; haren atzean bizkarrez dagoena Heredia-Spínolako kondea izan daiteke, Alfonso Martos “Zabalburu” jauna, bere diskreziogatik ezaguna; edo William L. Dyer ingelesa, edota estropadako epaimahaiko beste kideren bat<sup>6</sup>. Atzean irribarrez ageri diren bi pertsonaiak Luis Ocharan eta Eduardo Ubao dira. Eta lehen planoan, beren artean hitz eginez, Borboi-Bi Siziliak etxeko bi infanteak eta Tomás Zubiría.

Algortako kontra-moilako itsasargiaren inguruan bilduta daude denak, atzean Algortako herria bera dutela<sup>7</sup>; diptikoaren beste aldean, Galea lurmuturreko itsaslabar osoa ikusten da, eta, uretan, 15-metroko ontzi bat, bere lau haize-oihalak zabaldua. Bi panelen artean, erdi moztuta ageri da itsas seinaleen nazioarteko kodearen banderak jasotzeko erabiltzen den semaforo- zutoina (globo gorria deritzona).

Pertsonaia horietako asko Sociedad Bilbaina elkartearen triptikoan ere ageri dira. 1907an irabazle izan ziren bi kirolariak lausotuta geratzen dira ia, eta *talde-erretratu* ez da jada estropadalarien erretratu bat, estropada bateko giroa erakusten duen erretratu bat baizik, Errenazimentuko pertsonaien kabalgata haietako bat (Benozzo Gozzoli-renak bezalakoak) gogorarazten diguna: kasu honetan, baina, tropelak jomuga duen aldarea eskuineko panel osoa hartzen duten sei itsasontziak dira; ezkerreko panelean, itsasargiaren horma biribilaren ondoan, Torcida argazkilaria ageri da (Florentziako margolan askotan artista irudiaren txoko batean agertzen zen bezala), bonbillak diruditen begiekin ikusleari begira.

Aldi berean, askotariko pertsonaiez osaturiko *conversation piece* baten eszena-itxitura bihurtzen du Arruek Serantes mendiaren eta Galea lurmuturraren arteko paisaia (Abra). Sei *Sonderklasse* belaontziek osatutako panel koloretsuak Algortako herria du atze-oihal gisa, etxeak portu zaharraren gaineko muinoko aldapan mailakatuta. Panel hori Paul Signacen *Portua ilusentian, Opus 236 (Saint-Tropez)* [*Le Port au soleil couchant, Opus 236 (Saint-Tropez)*] lanarekin konpara daiteke (1892an, Paristik itsasontziz bidaiatu ondoren, margotu zuen lan hau Paul Signacek)<sup>8</sup>. Margolan horren konposizioaren erdian, bi mutiloien artean angelu zuzena osatuz zabaltzen den kai batetik ikusita, arrantzarako txalupa bat agertzen da, haize- oihalak ilunabarreko brisaz beteak; eguzkia mendien atzean sartua da eta portuko ura masten, oihalen eta bokaleko dorrearen itzalen joko puntillista zoragarria da. Eguzkiak bizantziar mosaiko bat bihurtua du ur-azala. Moneti zuzendutako gutun batean azaldu zuenez, “zure lana soilik eredutzat hartuta eta gu guztiontzat ireki duzun bideari jarraituz” margotu zuen Signacek koadro hori<sup>9</sup>. Margolan sinplea da —konposizio geometriko indartsukoa—, baina pinturaren historian bere lekua izan nahi duen estilo baten irakaspen bikaina. Arrueren lanak ere sinplea dirudi lehen begiratuan.

Ikus dezagun nor den nor argazki historiko horretan, eta nola identifikatzen dituen Arruek pertsonaiak jantzien bidez, gizarte- bizitzako maila desberdinei dagozkien sinbolo gisa hartuta. Arruek hogeita hamaika pertsonaia aurkezten dizkigu, batzuk bizkarrez, baina ezagutzeko modukoak hala ere. Horietako hiru ezin ditugu identifikatu: bi kazetariak izango dira, ziur asko; eta hirugarrena, marinela bat, Joaquin Barrie-ren eskifaiako kidea. Margolana garaiko janzkeren erretratu soziologiko eta historikoa da. Ia guztiek galtza zuriak daramatzate, eta zapata beltz edo marroiak, baina

kazetariak udako kapelak daramatzate marinel- txanoen ordez. Erregeak eta haren hurbilekoek —hau da, bi infanteak, Mellado ministro ohia eta Comillaseko markes jauna— traje marroi berdina daramate, botoi-ilara bikoitzeko jaka batekin. Eta hiru militarrek, jeneralak edo almiranteak, traje urdinez jantzita daude: bik lebita eta ros txanoa daramate, eta besteak, txarolezko bisera duen txano bat. Bilboko itsas klubetako presidente guztiak, idazkariak eta presidenteorderen bat ere bertan daude. Itsas Kluben Espainiako Federazioan (1906an sortua), hiru bilbotar zeuden: Eduardo Ubaio, Enrique Careaga eta Heredia Spínola kondea; eta handik gutxira, beste bat gehitu zitzaion, José Antonio de Arana.

Erregearekin zeuden lau militarretatik hiru Bilbon izan ziren Bigarren Karlistaldian, liberalak defendatzen: Agirre, Barriere eta Pacheco; gainera, José Ferrándiz Itsas ministroa dago, Espainiako Armadaren —eta, batez ere, ontzigintzaren— eraberritzailea izan zena. Lau multzotan bana dezakegu taldea:

Informazioaren berri ematen duten kazetariak: Manuel Torcida argazkilaria, margolariaren laguna, eszenaren albo batean ageri da, Errenazimentuko artistak ageri ziren bezala, ikusleari begira.

Militarrak: Itsas Armadako ministroa, beste zenbait almirante, erregearen nabigatzaile leiala zen Joaquín Barriere fragata- kapitaina, eta marinel zahar bat.

Erregea bere gortearekin: Borboi-Bi Siziliak etxeko bi infanteak (frantsesak ziren nazionalitatez, baina Espainiako Armadan zerbitzatzen zuten), Comillaseko markesa eta Mellado ministro ohia, erregea bezala jantzita denak.

Abrako klubetako nabigatzaileak: ia guztiak galtza zuriz eta klubeko uniformeaz jantziak.

Ezkerretik eskuinera (1etik 31era zenbakituta), hauek ditugu<sup>10</sup>:

1. Manuel Torcida, argazkilaria.

2 eta 8: kazetariak izango dira ziur asko, Itsas Klubeko erretratukoak bezala, ez baitaramate marinel txanorik, udako kapela baizik, eta ez dira solasaldietan parte hartzen ari.

4 eta 6: Federico de Moyúa legegizona (Bilboko alkate izango zena) eta José María Olabarri elkarrekin hizketan. Haien atzean, kaiko murrutik gertu, elkarri begira daude...

3 eta 5: Venancio Echeverría eta Alberto Aznar, Itsas Klubeko presidentea.

7–9 eta 10: Claudio López Bru Comillaseko markesa Juan Tomás Gandariasekin eta Juan Pacheco almirantearekin solasean.

11 eta 12: marinel zahar bat erregearen yateen patroiarekin, Joaquín Barriere itsasgizon zailduarekin.

13 eta 14: Benigno Chávarri eta Luisón Arana, Athleticeko atezaina izandakoa, elkarrekin solasean.

15: Rainiero infantea (erregearekin nahastu ohi zuten).

16: Luis Salazar Bizkaiko Foru Aldundiko lehendakaria eta Rainiero infantea erregearen inguruko lagun-taldetxoari begira.

17: Patricio Aguirre, Errege Armadako jenerala, erregearen idazkari pertsonala.

19: Tomás de Zubiría, konde izendatu berria, eta Sporting Klubeko eta Itsas Klubeko presidente izandakoa.

21: Alfontso XIII.a erregea.

23: José Antonio Arana, Sporting Klubeko presidentea (Bostongo estropadetan parte hartu nahi zuen).

18 eta 20: erdi ezkutatuta dauden edo despistatuta dabilen bi pertsonaia dira, klubetako idazkariak eta itsas gaietarako abokatuak biak, Eduardo Ubao eta Pedro Laiseca.

22 eta 24: Yohn anaiak dira, nabigatzaileen elastiko zuria jantzita, gorbatarik gabe, baina *clubman* jaka urdina soinean dutela.

25–26 eta 27: solasean ari den hiruko bat osatzen dute: 25: Itsas ministroa, José Ferrándiz almirantea.

26: Plácido Allende, Itsas Klubeko presidentea.

27: Borboi-Bi Siziliak etxeko Genaro infantea, Rainieroren anaia. 28–29: Perico MacMahon eta Luis Ocharan elkarrekin solasean.

30: Enrique Careaga, ohi bezala bere kabutan, elkarrizketetan parte hartu gabe.

31: Andrés Mellado, prismatikoak hartuta eta murruren kontra jarrita, kontra-moilara edo

Ereagako hondartzara begira. Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako ministroa izan zen (1903–05), *El Imparcial* egunkariko zuzendaria, eta bela-zale handia; Biarritzen hil zen.

Ferrándiz almirantea —Marinako ministroa— eta Pacheco jenerala —Alabardarien burua— lebita itsas urdinez jantzita agertzen dira: ministroak *quepi* edo *ros* zuri bat darama buruan, eta txarratelak eta urre harizko galoiak mahukaburuetan; eta jeneralak, plater-txapela. Ferrándizen urrezko txarratelak entseina militar batekin lotzen dira besaburuan, eta hari edo lits batzuk (kaneloiak deituak) ditu handik zintzilik, bereizgarri eta apaingarri gisa aldi berean. Beste militar uniformeduna Patricio Aguirre da, Andinoko kondea: armadako jantzia, botoidun kasaka, alkandora zuria, galtza urdinak eta zapata beltzak daramatza. Gainerakoen artean, hiru motatakoak bereiz daitezke: erregea eta haren gortea; klubetako bilbotarrak; eta kanpoko langileak, hala nola argazkilaria edo kazetaria.

Erregeak, Rainiero eta Genaro infanteek, Comillasko markesak eta Melladok goitik beherako traje marroia daramate: jaka gurutzatua urrezko hiruna botoiko bi ilararekin; erregeak zorro zuriko txano bat darama, txarolezko biserarekin, alkandora zuria, gorbata, eta zapata eta galtzerdi beltzak.

Klubeko kideek oihal urdin iluneko jaka daramate, neurrira egokitua, bizkarraren beheko ertzean punta txiki bat duena, urrezko hiruna botoiko bi ilararekin; elkarrekin gurutzatutako bi aingura eta, haien gainean, errege-koroa bat dute apaingarri, eta jakakoen antzeko beste bost botoi, txikiagoak, mahukaburu bakoitzean; galtza zuriak, tolesturarekin; alkandora zuria; gorbata; batzuek txalekoa ere bai, jakaren mahukaburukoaren antzeko botoiekin; galtzerdi eta zapata beltz edo marroiak; eta plater-txapela (batzuek zorro zuri batez estalia), txarolezko biserarekin. Eta kazetariak ematen duten beste hirurak, zein bere udako kapela mota desberdinarekin.

Gure historiari buruzko hainbat topikori aurre egiteko ere balio diezagukete Arrueren bi *talde-erretratu* hauek. José Arruek bi talde-erretratu utzi dizkigu, oso orijinalak, kalitate tekniko handikoak, eta, batez ere, gure jendeari buruzko ikuspegi berezia eskaintzen digutenak. Artearen Historiako margolanik originalenetako bat ere utzi digu: San Mames zelaia. Esan dudan bezala, L. S. Lowryk Manchesterren estadioaz egindako margolana agertu arte (1949), ez dugu parekorik ikusiko. Lehenik eta behin, erretratu horiek ez direlako gure jendearen karikatura bat, bi talde-erretratu soil eta bikain baizik; Bilboko jendearen ikonografia dira, jendea aisialdian, kirola egiteko unean erakusten digutenak. Eta, gainera, kanpotik ekarritako bi kirolez ari gara: futbola eta bela, artean ingelesezko deitura zutenak, *football* eta *sailing*<sup>11</sup>.

Bi galdera sortzen zaizkigu horren harira, aurreiritzien ondorio direnak: Athleticen jokalarien erretratuan inork ez badu karikatura bat ikusten, bizitasun handiko marrazki bat baizik, zergatik ikusten da karikatura bat erregea dagoen estropada- eguneko triptiko horretan? Bigarrena, Athleticen erretratu taldearen ikono bat bada berez, zergatik kritikatzeko da beste kirola, bela? Bi kasuetan, bi erretratuen analisiak aurreiritziz beteta egon dira. Athleticen orduko jokalariei buruz esan izan da burgesia dirudunekoak zirela denak, eta hori gezurra da, aurkeztu ditudan haiei buruzko datu biografikoak errebasatuz egiazta daitekeen bezala. *Abrako estropadak* erretratuari buruz idatzi direnak aztertzen baditugu, baieztapen harrigarriak topatuko ditu, hala nola belaren kirola Neguriko oligarkiaren kirol eksklusiboa zela dioena. Hori ere gezurra da. Abrako estropadak Neguri auzoa sortu aurrekoak dira, eta Aurreiritziak: oligarkiari eskaintako atalean zehaztu dudak bezala, ezin da elitista izan hasi eta berehala 400 kide berenagatu zituen klub bat.

Athletic gizarte multzo bat izan zen, Zazpikaleetako Bilbo den bezalaxe: merkatariak, ingeniariak, zurginez, lantegi- langileak, noblezia lurjabeko kideak eta Ameriketatik itzultitako indianoek osatutako gizarte multzo bat. Horixe bera da *Abrako estropadak* triptikoko mundu izoztua ere. Arruek estropadez hitz egiten digu, erregeak Getxora egindako bisitaz, eta, aldi berean, XX. mende hasierako Bilbo horren irudi izoztua eskaintzen digu. Eta ikerketa historiko guztiek baino hobeto azaltzen digu errealitatea: ez da erregea triptikoko pertsonaia nagusia; estropada eta kirola dira gaia, eta estropadaren irabazleak, Yohn anaiak, burdindegi bateko bi saltzaile, lehertuta egindako ahaleginagatik. Une horretan ez dago klase sozialik, gizakiak gizakiaren aurka egiten duen apustua baizik.

Mendearen erdialdeko jendea itsasoaz gozaten duen jendea da jada. Cosme Echevarrieta, itsasontzi kapitaina zena, eta Jose Martinez de las Rivas, Ingalaterran ikasten ibilitakoa, itsasoan ibiliz lasaitzen ziren. Francisco Martínez de Rodas, Bilbora teniente soil gisa etorria, Ontzi-jabeen Elkartearen presidentea eta nabigatzaile bihurtu zen; inguruko dendarien eta kanpotik etorritako merkatarien seme-alaba asko ere —Yohn Zayas anaiak kasu— belara zaletu ziren. Baita elizateetako zenbait jende ere, hala nola Constantino Zabala, merkataritzaren nabigazioko kapitaina eta Agirre Lehendakariaren aitagarreba izan zena.

Francisco Monasterio ere, Sporting Klubeko presidentea izandakoa, merkatari-lanetan ibilia zen; baita Portugaleteko Bernabe Mendizabal ere, indianoen seme eta hegazkinlarien aita izan zena<sup>12</sup>. Bilboko hiru klubek jendarte osora zabaldu zuten belarako zaletasuna, eta bitartekorik ez zutenak lagundu zituzten: 1913ko abuztuan, adibidez, *Pichín* bailandra zozketatu zuten Itsas Klubean, Ingalaterrako estropadara joateko, eta Francisco Monasteriok eskuratu zuen saria<sup>13</sup>. Urte horretan bertan, irailean, honela mintzatu zen Alfontso XIII.a erregea Bela Kluben Federazio Nazionalaren



bileran: “Sportingek itsasontzi horiek eraikitzeke jarraitutako metodoari erreparatu behar diozue; izan ere, metodo horri esker, gehiegizko kostuagatik bailandrak eraikitzeke modurik ez dutenek nahiko prezio onean eskura ditzakete ontziak, yatearen zozketan parte hartzeke aukera ematen dieten akzioak erosiz”<sup>14</sup>.

Belaontzien mundu horrek Bilboko bizitza industrialaren eta komertzialaren bihotzera eramaten gaitu, lehiaketa *barruko* aisiaz duen ulerbidera:

Bilboko merkataritza hasieratik zabaldu da itsasoan zehar, ontzi-konpainiei, belaontziei eta ontziolei esker. Bestetik, belaren munduak lotura estua izan du Britainia Handiarekin eta Alemania iparraldearekin, gure merkataria eta marineletako asko hara joan baitziren ikastera XIX. mendearen hasieratik. Izan ere, estropaden mundu horrek —hain errotuta hiribilduaren itsas esentzian eta joko tradizionalen lehian, traineru-estropadetan, kasu— gure mugetatik harago zabaldu zuen gure irudia, Bilboko 1907–1914 bitarteko estropada-giro hura Europako ontzigintzaren garapen teknologiko garrantzitsuenaren erakusleho eta topaleku izan zen neurrian.

Kontra-moila berriak eta olatu-hormak (Evaristo Churrucaren belaunaldiak aurreikusi eta gauzatuak)<sup>15</sup> Abrari eman zioten baretasunak, itsasadarrean lasai nabigatzeko eta arazorik gabe porturatzeke aukera eman zuenak, bela-kirolaren eta mota guztietako estropaden, gizarte klase eta herritarren arrago gisa funtzionatu zuen. Hiru bela-klub horiek (1881, 1898 eta 1902koak), lehenago Sociedad Bilbaina (1839) eta Sociedad Filarmonica (1896) bezala —edo une hartan bertan Athletic *football* kluba (1903) eta, aurrerago, *Hermes* aldizkaria (1917) bezala—, ideologia ezberdineko jenderen biltoki izan ziren, baina helburu berak gidatuta: aisialdia bultzatzea kirolean eta kulturean.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Sociedad Bilbaina elkarteak erosi zuen triptikoa, 1980ko hasieran, eta gaur egun hango atari nagusian ikus daiteke. [itzuli]
2. 1914ko abenduaren 22an izandako sutearen ondoren, Arriaga antzokia (han zuen bere egoitza Klub Nautikoak) 1919ko ekainaren 5ean inauguratu zuten berriro, behin berrikuntza-lanak amaituta. Nautikoak friso bat eskatu zion Arrueri, areto berrirako (Iberdrola Fundazioaren Bilduman dago gaur egun). [itzuli]
3. *Thames Measurement* delakoa (*Thames Tonnage* izenez ere ezaguna) itsasontziak neurtzeko sistema bat da, Royal Thames Yacht Clubek yateentzako portu-kuotak kalkulatzeko 1855ean sortua; estropadatarako kalkulu-sistema batzuetan ere erabili zen formula. 1907tik aurrera, nazioarteko estropadak jada ez ziren itsasontzien tonajearen (edukieraren) arabera egiten, serieen arabera baizik (6, 8, 9 eta 10 metroko yateak), nazioarteko formula bati jarraituz, eta klase mugatuko yateentzat (*Sonderklasse*). [itzuli]
4. Estropada-eguna irailaren 4rako finkatu zen; azkenean, hilaren 7an egin zen. Alfontso XIII.ak Tomas Zubiriaren *Sogalinda II* ontziarekin egin zuen estropada. Agindu bezala, Castroko Eguilior kaian lehorreratu zen, milaka lagunuen aurrean. Gertaera gogoratzeko, Bilboko Sporting Klubeko zuzendaritzak bi obra eskatu zizkion José Arrueri, gaur Abrako Itsas Klubaren lokaletan, Areetan, ikusgai daudenak. Bilboko Sporting Klubak lehen Errege Kopa antolatu zuen 1905ean (ikus *Nuevo Mundo*, 1905/VIII/17). 1907an, Kantauriko Kluben Federazioak (FCC) estropaden araudiak International Yacht Racing Unionez ezarritako araudiaren arabera bateratu zituen urtean, Santander-Santoña eta Castro-Getxo arteko lehen gurutzaldi-estropadak egiten hasi ziren. 1908koan Alfontso XIII.ak berak hartu zuen parte. *El Imparcial* egunkari liberalak (Eduardo Gasset y Artimek sortua) honela eman zuen horren berri, 1907ko irailaren 8an, bere 14.538.

zenbakian: “Goizeko bederatzi eta erdietan, epaimahaia, olatu-hormaren muturrean eratu, irteera ematen hasi zaie bailandrei, bost minutuko tarteekin eta serieetan. Bailandrak lerro-lerro jarrita zeuden. Azkena abiatu denean, epaimahaia ‘Osado’ destruktoreira igo da, Itsas ministroarekin batera, Castro Urdialesera joateko. ‘Mac-Mahón’ kanoiontzian, norabide berean abiatu da Boado jenerala, erregearen laguntzaile eta Itsas Eskolako irakaslearen aita dena. Erregeak Zubiríaren Sogalinda II.arekin parte hartu du, Barrierek eta Paco Monsteriok lagunduta. Estropadalarien familiakoak ‘Leo’, ‘Rodas’, ‘Perico’ eta ‘Yaf’ atoiontzietan joan dira. Castrora iristean, lehorreratzeko tokia prestatzeko lanak amaituta zeuden, Rucabado arkitekto jaunaren zuzendaritzapean. Oholtza bat eraiki da txalupa batzuen gainean, eskailera alfonbradun zabal batek kaiarekin lotzen duena. Kaian, tenplete moduko bat eraiki da, kolore nazionalako oihalez apaindutako lau zutabek eutsita, eta lorez beteriko lorontziz inguratuta. On Alfontso datorren bailandra ‘Mac-Mahón’ ontziaren aldamenean gelditu da, eta bere maiestatea ontzi horretara igo da arropa aldatzera: estropadalaria trajearen ordez Sporting Klubeko uniforme jantzita lehorreratu da ordu laurden geroago. Autoan iritsi dura, halaber, Carlos infante jauna, Kalabriako dukea (Fernando Borboi-Bi Sizilietakoa) eta Jenaro Borboi printze jauna”. (ABC, Madril, abuztuak 13, 1907). [itzuli]

5. Eladio Laredok —Luis Ocharanen arkitektoak— diseinatutako kopa Bilboko Anduiza etxeko tailerretan egin zen, eta 1.400 pezetako balioa zuen. [itzuli]
6. Epaimahaia honela zegoen osatua: “Alberto Aznar, Federico Moyua, Sporting Klubeko presidentea, Federico Ugalde klubeko idazkaria, Fernando Zabálburu eta William Llewellyn Dyer”. Zabálburu horrek Alfonso Martos Arizcun izan behar du. Izan ere, Fernando hila zen ordurako, eta jendeak “Zabálburu” deitzen zion Martosi, Carmen Zabálbururekin ezkondu zegoelako. William Llewellyn Dyerrek burdina eta ikatza kargatzeko negozio bat zuen Bilbon, eta ospe bikaina zuen kirolari bezala. Athleticen sortzaile eta jokalarietako bat izan zen 1901 eta 1905 artean, eta Kopa birritan irabazi zuen taldean jokatu zuen. Cricket eta tenis jokalaria eta boxeolaria izan zen, eta Unión Ciclista Bilbaína sortu zuen. Eguidazu batekin ezkondua, bere ere estropadalaria handia izan zen. Haren seme Pat Dyerrek (1936) espioi-lanak egin zituen Gerra Zibilaren ondoren. Horretarako, ikus Iñaki Anasagasti eta Koldo San Sebastián, *Nuestro hombre en Bilbao: los nacionalistas vascos que espionaron para los Aliados en la Segunda Guerra Mundial y en los comienzos de la guerra fría (1939–1960)*, Los Libros de la Catarata, 2016. [itzuli]
7. Errege-familiak harrera beroa jaso zuen Castron, eta Sporting Klubak ohorezko bazkide izendatu zituen haien semeak, Asturiasko Printzea eta Jaime infante jauna. 1908ko abuztuaren 21ean, aurreko urteko irudi liluragarri berberak gertatu ziren castrotarren begien aurrean: Alfontso XIII.a *Corzo* ontzia gobernatuz sartu zen badian, baina Castro Koparen irabazlea *Ilse II* ontzia izan zen. Oturuntza handi bat antolatu zen berriro, erregearen ohoretan, Brazomarreko zuhaitzian, “Murgako baratzean”. Han hotel bat eraikitze asmoa zuen Joaquín Rucabadok, baina, azkenean, asmoa ezin izan zen gauzatu. Nazioarteko estropada *Carmen* ontziak irabazi zuen, Heredia-Spínola markesaren eta haren emazte Carmen Zabálbururen ontziak; bigarren tokian *Corzo* ontzia iritsi zen, erregeak pilotatuta, eta hirugarren tokian, Bartzelonako Wertheim-en *Ilse II* ontzia. Sporting Klubean egin zen sari-banaketarako, abuztuaren 23an, Maria Cristina ama-erregina etorri zen Donostiatik. Otordura, ama-erregina eta erregeaz gainera, hauek bildura ziren: Luis Fernando de Orléans infantea, Antonio Maura Ministroen Kontseiluko presidentea, Bilbora iritsi berria zena, eta Jose Sporting Klubeko presidente Antonio de Arana eta haren emaztea. [itzuli]
8. Paul Signac (1863–1935), *Le Port au soleil couchant, Opus 236 (Saint-Tropez)*, 1892, olio-pintura mihise gainean, 65 x 81,3 cm, Hasso Plattner bilduma, Museum Barberini, Potsdam, Berlin. Ikus, horri buruz, *Impressionists on the Water* erakusketa, Fine Arts Museum Legion of Honor, San Francisco, 2013ko ekaina, komisarioak Christopher Lloyd, Daniel Charles eta Phillip Dennis Cate zirela. [itzuli]
9. Claude Monetentz batean jarri zuen bere estudioa, Argenteuil-en bizi zela, Sena ibaian. Izan ere. 1851n inauguratutako trenbideari esker, oso gertu zeukan herria, Saint-Germain-en-Laye bezala. Lagun batzuk gonbidatu zituen Sena ibaiak han eratzen duen *bassin*-eko ur-azaleko argi-islak behatzera, errealitatearen formek argiarekin zer tankera hartzen duten eta argitan nola desegiten diren ikustera. Monetentz bere txalupatik behatzen eta aztertzen zuen fenomeno hori, ibaiko ura gainazal urdin bat bezala ez, baizik eta bertan islatzen den guztiaren multzo bat bezala ikusarazten digun kolorezko puntuzko konformazio hori. Monetentz begiratu egiten du, eta Turnerrek, berriz, imajinatu: hark ere forma kolorean desegin

nahian dihardu lanean, baina bere buruaren barrutik, nabigatzera irten gabe. [itzuli]

10. Abrako pertsona ospetsuak: garaiko prentsarik eta argazkietatik atera ditugu haien izenak. Besteak beste, *ABC*, *El Liberal*, *La Gaceta del Norte*, *El Nervión* eta *La Vanguardia* egunkarietatik eta *Blanco y Negro*, *La Hormiga de Oro*, *Mundo Gráfico*, *Novedades*, *Nuevo Mundo* eta *La Vida Marítima* aldizkarietatik.

Manuel Torcida Torre (Santander, 1864–Bilbo, 1928). Argazkilaria. Kimika eta Farmaziako ikasketak egin zituen Salamancako Unibertsitatean, eta Barandiarán y Cia. pintura eta bernizen fabrikako zuzendaria gisa etorri zen Bilbora. Lumière anaiek beren errebelatzeko paperaren ordezkaritza eman zioten Espainiarako, eta, 1893an, Laboratorios Lux ireki zuen, Bilboko Korreo kalean aurrena, eta Kale Nagusiko 20. zenbakian geroago (bai eta lantegi bat ere, hamabost langilerekin, Errekalde zumardiko 24. zenbakian). Torcidak errebelatzaileak eta finkatzaileak egiteko formula propioak asmatu zituen. Sociedad El Sitio elkarteko bazkide izan zen (165. zenbakiduna), eta Club Deportivo de Bilbao elkarteko bazkide sortzailea, non mendi-saila bultzatzen jardun zuen bereziki. Harreman estua izan zuen Arruerekin, eta koloretan argitaratu zituen haren postalak. Laboratorios Lux hura Arruek diseinatutako marrazki batekin iragartzen zen, eta Kale Nagusian zuen dendaren erakusleihoan, askotan, haren lanak egoten ziren erakusgai. Torcidak Euskal Herri osoa korritu zuen, eta argazki asko eta askotarikoak zituen bere artxiboan, hala nola Dario de Regoyosena Durangon, kalean margotzen, haurrez inguratuta. 1910eko Bruselako Erakusketa Unibertsalean, Haroko López Heredia upeltegiko standa apaintzeko egindako hamabi argazkiak ere Torcidarenak ziren. Manuel Torcidaren argazki-albumak Bizkaiko Aldundiaren Artxiboan gordetzen dira. Torcidari buruz gehiago jakiteko, ikus Javier Madariaga Atekak 1996ko apirilean *Bilbao* aldizkariaren 93. zenbakian argitaratutako artikulua.

Kazetaria izan liteke.

Venancio de Echeverría Careaga (Bilbo, 1879–Bilbo, 1943). Balmasedan jaioa, industria-munduarekin lotutako abokatu baten semea izan zen. Terminus hotelaren, Echeverría Bono upelategiaren eta Olimpia zinemaren administrazioa eraman zuen. Banco Vizcaya banketxean sartu zen 1915ean, eta Enrique Ocharani (1902–23) jarraitu zion zuzendaritzan, 1923tik 1943ra. Nabigatzaile handia izan zen, eta Ignacio Zuloagak erretratu bat egin zion. Haren belaontzia, *Amelita*, 6 metroko belaontzi bat zen.

Federico de Moyúa Salazar (1873–1939). Abokatua eta Bilboko alkatea. Haren aitak eta amaren aldeko aitona, Ramón Salazar Mazarredok, Bilboren defentsan borrokatu zuten, 1873ko abendutik aurrera, karlisten setioan. 1910ean aukeratu zuten alkate, lehen aldiz, 1913ra arte. 1924an eskuratu zuen berriro alkatetza, Primo de Riveraren diktaduran, eta diktadura amaitu arte (1930) eutsi zion karguari. Azpiegituren bultzatzaile handia izan zen, eta Bilbo modernoaren sortzaileetako bat. Alkate gisa egin zituen lorpen handien artean, hauek aipa daitezke, besteak beste: Ordunteko urtegia, Deustuko eta Udaletxeko zubi mugikorak, Erriberako Merkataria eta Areatzako Plazaren eraberritzea.

Alberto Aznar (1864–1923). Abrako Itsas Klubeko presidentea. Bizkaiko Institutuan ikasi zuen. 1893an, ingeniari industrial titulua lortu zuen, Bartzelonan. Eduardo Aznar de la Sota enpresaburuaren (1830–1902) zazpi seme-alabetan laugarrena izan zen. 1906 eta 1908 artean Sporting Klubeko presidente izan zen, eta 1910–1911 bitartean, Itsas Klubekoa. 1920an, Alfontso XIII.ak Zuiako markes izendatu zuen. Era berean, Neguriko Golf Klubeko lehen presidentea izan zen, eta hil arte mantendu zuen kargua.

José María Olabarrí Massino (Bilbo, 1849–Bilbo, 1924). Bizkaiko institutuan ikasi zuen. Zolloko Pascual Olabarrí Boluetako Santa Ana enpresaren sortzaileetako baten semea izan zen. Manuela Zubiría Ybarrarekin (1855–1921) — Zubiría kondearen arrebarekin — ezkondu zen, bi aldeko oinordetza aberatsa jaso zuena. 1894tik etxea izan zuen Campo Volantinen (Julian Zubizarreta arkitektoak diseinatua, gaur egun Bilboko Portu Autonomoaren egoitza dena), eta, 1903tik, Areetako kaian. Haren belaontzia, *Puchongui*, 7 metroko belaontzi bat zen.

Claudio López Bru (Bartzelona, 1853–Madril, 1925). Comillaseko markesa. Enpresari eta filantropo espainiarra izan zen, eta itzal handia izan zuen Bilbon. 1893an, Santanderren, Ybarra konpainiaren *Cabo Machichaco* lurrun-ontzia lehertu zenean (Galdakaoko dinamita zeraman, eta leherketak portua suntsitu eta 590 pertsona hil zituen), Comillas bertara joan zen eta erreskate-lanetan laguntzen jardun zuen. Tren bat pleitatu zuen Bartzelonatik, mediku eta suhiltzaileekin, kaltetutako pertsonen laguntzeko. Ez zuen onartu ez saririk ez omenaldirik horregatik.

Bestekazetari despistatu bat, agian.

Juan Tomás Gandarias (Portugalete, 1870–Portugalete, 1940). Bizkaiko Institutuan ikasi zuen. Gero, Madrilen, zuzenbide-ikasketak egin zituen, eta doktoretza-titulua lortu zuen, 1896an. Horacio Echevarrieta eta Paco Durrioren ikasketa-laguna izan zen. “La Piña” Batasun Liberalaren (Bizkaiko industrialari monarkiko kontserbadoreen batasun politikoa) eta Liga Monarkikoaren (1897) kide sortzailea izan zen. Amorebieta-Bermeo trenbidea egiteko lanetan parte

hartu zuen; 1888an Gernikara iritsi zen trenan, eta 1893an, Sukarrietara. Gandarias jauna Txatxarramendi uhartearen jabea zen, eta, 1896an, "Hotel Chacharramendi" bainuetxe dotorea ireki zuen bertan. Bilboko *El Nervión* egunkariaren jabea izan zen 1891 eta 1937 bitartean. Indalezio Prietoren laguna izan zen, eta uko egin zion, beste hainbatekin batera, Alfontso XIII.ak eskaini zion noblezia- tituluari.

Juan Pacheco Rodrigo (Valentzia, 1835–Madril, 1917). Alabardarien jeneral buru zela, Somorrostroko guduan parte hartu zuen, 1874an, Bilboren defentsan. Luisa Salamanca La Granjako markesa alargunarekin ezkondu zen. Erreginaordeak lekuko izendatu zuen Asturiasko printzesaren eta Karlos Borboikoa infantearen arteko ezkontzarako. Ondoren, Alabardarien jeneral buru izendatu zuten, eta erregeari lagundu zion haren bidaietan: Donostia, Bilbo, Galizia, Santander. 1903an, Pachecoko markes titulua eman zioten, eta ganberako aitoren seme izendatu zuten.

Marinel zahar bat, Barriereren laguntzailea.

Joaquín Barriere Perez (Cádiz, 1849–Madril, 1920). Itsasgizon zaildua. Erregearen irakasle izan zen, eta *Girald*a yatearen buru. 1874an, Bilboren defentsan lagundu zuen, karlistek porturako sarrera eragozteko jarritako kateak moztuz. *Nautilus* korbeta eta eskola-ontziko bigarren komandantea izan zen 1892ko abendutik 1894ko abuztura bitarteko zirkumnabigazioan; ikus Fernando Villaamil, *Viaje de circunnavegación de la corbeta Nautilus 1895*. Barrierrek erregearen hainbat yate gobernatu zituen, bai harekin berarekin, bai *Girald*aren bigarren komandantearekin (Claudio Alvargonzález), bai Enrique Careaga bilbotarrarekin.

Benigno Chávarri (1856–1933). Ingeniaria. Banco del Comercio (1891) banketxearen sortzaileetako bat izan zen, eta hango Administrazio Kontseiluan jardun zuen lanean, harik eta, 1901eko maiatzean, banketxeak Banco de Bilbaorekin bat egin zuen arte. 1914an, noblezia-titulu bat eman zioten (Chávarriko markesa titulua), bai eta onartu ere, anaia Víctorrek ez bezala. Haren *Narria* balandroa 7 metroko ontzi bat zen (*narria*, euskaraz, gurpilik gabeko gurdi moduko bat da, gauza pisuak herrestan eramateko erabiltzen zena, eta, oraindik ere, portu batzuetan, sareak edo arrainak garraiatzeko erabiltzen dena).

Luis de Arana Uriguen (1874– 1951). "Luison" deitze zioten, oso altua zelako. Oso beltzarana zen eta bibote handi bat zuen, eta oso pertsonaia deigarria zen horregatik. Alfontso XIII. are lagun pertsonala izan zen. Athletic Clubeko *goalkeeper* izan zen, eta 1902ko maiatzaren 13an egin zuen debuta, *Bizkaia* taldearekin. 1928an Amsterdameko Olinpiar Jokoetan hartu zuen parte, belaontzi-estropadetan, eta Bizkaiko Atletismo Federazioaren aitzindaria izan zen. Golfeari ere aritu zen, eta Espainiako zenbait txapelketa irabazi zituen. 1936tik 1937ra Sociedad Bilbaina elkarteko presidentea izan zen, eta Francok Itsas Merituaren Gurutze Handia eman zion.

Raniero Borboi-Bi Sizilietako infantea (Cannes, 1883–Lacombe, 1973). Italiar jatorriko militar hispano-frantses bat izan zen, Alfontso Bi Sizilietako eta Casertako kondearen eta Maria Antonia Bi Sizilietako printzesaren semea, Berorren Gorentasun tratamendua zuena. 1923an, Poloniako aristokrata batekin ezkondu zen, eta frantses herritartasuna eskuratu zuen. Alfontso XIII.aren antz handia zuen, eta, ezkondu artean, harekin batera ibili zen batera eta bestera.

Luis Salazar Zubia (1858–1936). Aldundiko lehendakaria izan zen (1907–11). Familia-lotura estua zuen Chávarritarrekin. Lope García de Salazar leinuaren ondorengoa zen, eta Portugaleteko Salazar dorretxeko jauna, baina Zazpikaleetan jaioa zen. Batxilergoa Bergaran egin ondoren (1875), zuzenbide-ikasketak egin zituen Zaragozan, eta Madrilen doktoratu zen. La Roblako trenbidearen Administrazio Kontseiluko, Portuko Lan Batzordeko eta Sociedad Bilbaina elkarteko presidentea izan zen. Liburutegi eta artxibo garrantzitsu bat eraiki zuen Portugaleteko bere dorretxean, baina, zoritxarrez, suak kiskali zuen 1934ko Iraultzan. Luis Salazar izan zen azkena Portugaleteko dorretxe horretan bizitzen.

Patricio de Aguirre y de Tejada (Ferrol, 1836–Madril, 1908). Errege Armadako jenerala eta Alfontso XIII. aren tutore izan zen. Haren ikasketa- programa prestatu (1896) eta zuzendu zuen, José Sanchés eta Castillorekin batera. Handik aurrera, erregearen idazkari pertsonala izan zen. 1902an, Andinoko konde noblezia-titulua eman zioten. Estropada hartatik hilabete gutxira hil zen, 1908ko urtarrilaren 1ean, Madrigo Errege Jauregian.

Eduardo Ubao Ycaza (1869– 1952). Portugaleten jaio zen. Zuzenbide-ikasketak egin zituen, Madrilen eta Londresen, eta nazioarteko itsas zuzenbidean espezializatu zen. Sporting Klubaren sortzaileetako bat izan zen (1889). 1904an, Londresen, Nazioarteko Federazioaren sorreran parte hartu zuen, eta federazioko kide izan zen handik hil arteko guztian. Kantauriko Klub Nautikoen Federazioko idazkaria izan zen, eta, 1906an, Espainiako Bela Federazioaren sustatzailea. 1907an, Espainiako ordezkaria izan zen Nazioarteko Bela Federazioa (International Yacht Racing Union) sortzeko ekimenean. Gizon alaia zen, baina, aldi berean, oso zorrotza: ez zuen zalantzarik izan Alfontso XIII.a deskalifikatzeko, estropada baten irteeran atzeratzeagatik, eta, 1938an, Sporting Kluba utzi zuen, erregearen erretratuaren ordez Francorena jarri zutelako. Victoria Ternero Vázquez (1880–1970) sevillarrarekin ezkondu zen, eta,

beraz, Félix Urcola Ybarra abeltzainaren koinatua izan zen. Haren anaia Enrique (1874–1961) eskultorea izan zen Madrilen.

Tomás Zubiría (1857–1932). Sporting Klubeko eta Abrako Itsas Klubeko presidentea izan zen. 1907an, Zubiríako konde izendatu zuten. 1894an, Bizkaiko Labe Garaien Kontseilura iritsi zen, eta presidente izan zen handik hil arteko guztian. Bilboko Elkarte Filarmonikoaren sortzailea izan zen (1896), eta Jesús Guridiren mezenas (Guridik, gasteiztarra jaiotzez, Bilbokoa zuen amaren aldeko familia-adar bat, Nicolás Ledesma aragoitar musikariaren ondorengoa) hark 1904an Europan zehar egindako ikasketa-bidaian. Belarekiko zaletasun handia zuen, eta Abrako Itsas Klubeko presidentea izan zen 1904tik 1906ra, eta Bilboko Sporting Errege Klubekoa 1906tik 1907ra. Itsasontziak: *Sogalinda II* (10 metro) eta *Sogalinda III* (6 metro).

Pedro Laiseca Arana (1871–1935). Itsas gaietarako abokatua. Aurora aseguru-etxearen sortzaileetako bat izan zen, Itsas Armadako diruzaina eta Bilboko Klub Nautikoko presidentea. 1900ean, Long Islanden (New York) eraikitako yate dotore bat ekarri zuen AEBetatik. Aurrena, Bordeleraino eraman zuten, bapote batean (ikus, horri buruz, 1900eko urriaren 10eko *Mundo Naval Ilustrado* aldizkaria), eta, handik Bilbora, Laisecak berak ekarri zuen gero.

Alfonso XIII.a erregea.

Yohn anaiak: José María Yohn Zayas (Bilbo, 1878) eta Rafael Yohn Zayas (Bilbo, 1882). Haien aitona, Leandro Yohn (1805–1818), 1813an iritsi zen Bilbora, Bohemiatik, (garai hartan, austrohungariar inperioaren barruan zegoen Bohemia) etorritako lagun Alemaniaren baten burdindegian lan egitera. Urigüen familiako emakume batekin ezkondu zen, eta Sociedad Bilbaina elkarteko eta Klub Nautikoko kide egin zen. Yohn familiak hainbat laguntza eman zituen hiribilduko hobekuntza proiektuetarako: 1884an, esate baterako, Nerbioi ibaiaren barran naufragoak salbatzeko estazio bat eta Portugaleten helburu bererako local bat eraikitzeko laguntza eman zuen. 1887ko irailean, Evaristo Churruca jaunaren omenaldian parte hartu zuten, diru-laguntza eskainiz. 1907ko irailaren 7an, Rafael eta Jose John anaiak Abrako *Sonderklasse* nazioarteko estropada irabazi zuten, Enrique Careagaren *Asturiasko Printzesa* bailandrearekin (Gabnoo izeneko ingeles bat izan zen eskifaiako hirugarren kidea). Alfontso XIII.a erregeak zuzenean zoriondu zituen, eta Arruek bere lagun Torcida kazetariaren argazkia baliatu zuen bere margolanerako. Yohn anaiak nabigatzaile arropatan jantzita agertzen dira oraindik argazkian (elastiko zuria, gorbatarik gabe), baina *clubman* jaka urdina daramate soinean.

José Antonio de Arana Urigüen (1872–1909). Sporting Klubeko presidentea. Bostongo *Sonderklasse* estropadetan parte hartzeko proiektuaren arima izan zen, 1906an Kiel Yacht Club eta Marbleheadeko (AEB) Eastern Yacht Club taldeek akordio bat sinatu zutenean Roosevelt Kopa irabazteko. Irene Churruca Murgarekin ezkondu zen. Sportingeko presidentea zen koadroa margotu zen garaian, baina handik gutxira hil zen. 1910ean, haren anaia Luis Aranak hartu zuen parte estropada horretan, Eduardo Astigarraga eta Juan Zavalarekin batera, *Chonta* ontziarekin. Anaiaren omenez, ontziari izena aldatu eta *Marblehead* ipini zioten.

José Ferrándiz y Niño (Sevilla, 1847–Madril, 1918). Espainiako Armadako almirantea izan zen. Estropada hori jokatu zen garaian, Itsas Armadako ministroa zen, bigarren aldiz bere bizitzan. 1898ko hondamendiaren ondoren, bera izan zen Espainiako armadaren —eta batez ere ontzi-industriaren eta merkantzia-ontziteriaren— modernizatzaile nagusia.

Plácido Allende Plágaro (Menagaray, 1861–Bilbo, 1911). Meatzetako ingeniaria eta politikaria izan zen, eta Klub Nautikoko presidentea. Politikari gisa, Gorteetako diputatua izan zen, Markinako barrutitik, 1898tik 1899ra, 1899tik 1901era eta 1901etik 1903ra; Bizkaiko senataria 1904tik 1911ra, eta Bilboko alkatea.

Genaro Borboi-Bi Sizilietakoa (Cannes, 1882– Mandelieu-la-Napoule, 1944). Italiar jatorriko militar hispano-frantsesa izan zen, Alfonso Bi Sizilietakoa printze eta Casertako kondearen eta Maria Antonia Bi Sizilietakoa printzesaren hamabi seme- alaben arteko zortzigarrena. Genarok, Carlos, Raniero eta Felipe anaiekin batera, karrera militarra egin zuen izeba Isabel Borboiko infantaren babespean, Espainiako Armadan. Estropadalari bikaina izan zen.

Pedro Mac Mahon Aguirre (1861– 1930). Itsas Klubeko presidenteordea. Perico deitzen zioten. Bilbon finkatutako merkataria irlandar baten ondorengoa zen. 1887an ezkondu zen, Sofia Jacquet Lasallerekin. Constructora Naval enpresako eta Banco de Vizcaya banketxeko kontseilaria izan zen. 1920an, MacMahoneko markes izendatu zuten. Haren alabetako bat Ramón de la Sota Aburtorekin ezkondu zen (Parabereko markesa goitizena zuen María Mestayer osaba zen Ramón de la Sota Aburto).

Luis de Ocharan Mazas (1858–1926), meatze-ingeniaria, astronomoa eta argazkilari ezaguna, Joaquín de Mazasen biloba zen, Santa Anaren sortzailea eta Zabalguneko Mazas etxearen sustatzailea; mende aldetaren Espainiako industriako pertsonaia nabarmena izan zen, eta Madrilgo Metropolitan Konpainiaren eta Banco de Vizcaya eta Banco Naviero Minerobanketxeen aholkularia, besteak beste. Castron, bere izena daraman kaia eraikitzeko agindu zuen, Bilbotik egindako joan-etorrietan bere itsasontzi partikularra bertan atrakatzeko; Glasgoven eraikitako lurren-ontzi bat

zuen. Castron zuen etxea, *Toki Eder*, 1909an eraiki zuen Eladio Laredok, eta gaztelua, neomudejar-neogotiko estiloan inspiratua, 1913 inguruan.

Enrique González de Careaga Bishop (Mazatlán, 1872–Bilbo, 1936). Nabigatzaile bikaina eta finantzaria. Alfontso XIII.a erregearen aitoren semea eta errege-familiaren itsasontzietako komodoroa izan zen, baita familiako kontuen arduraduna ere. Josefina Urigüenekin ezkondu zen. Careaga oso gizon aktiboa izan zen inbertsio eta kirol mota guztietan, eta oso diskretua. 1903 eta 1906 artean, Athletic Clubeko presidentea izan zen. Haren seme José, "Morrosco" ezizenez ezaguna, Madrilgo Estremera hegazkin-eskolan pilotu egin zen, eta behin Gerra Zibila hasita, bere anaia Alfonso *Altuna-Mendi* itsasontzi-presondegian hil zutela jakin zuenean, bere burua eskaini zion Francoren Abiazio Militarri.

Andrés Mellado (Malaga, 1846– Biarritz, 1913). Abokatu, kazetari eta politikari liberala izan zen. *El Imparcial* egunkariko zuzendaria izan zen hamar urtez, eta Espainiako Errege Akademiako kidea ("K" aulkia bete zuen), 1912tik. Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako ministroa izan zen 1903 eta 1905 artean, eta ur-kirolen eta Malaga hiria zale amorratua. Alfontso XIII.ak sarritan gonbidatzen zuen Kantauriko estropadetara, eta horregatik darama infanteen janzkera bera. Biarritzen hil zen, pneumonia sendatzera harajoana. [itzuli]

11. Erretratu horiek kazetaritza-lanetako beste karikatura batzuekin aldera ditzakegu: Siul Prallezi-ren (palindomoa) liburukoekin, esaterako: *Bilbao. Caricaturas de empresarios y personajes ilustres de Neguri*, ca. 1925, Jerez-en egindako litografia-edizioa: 28,5 x 35,5 cm-ko koadernaketa-lan batean itsatsitako 20 litografia; 57 x 35,5 cm-ko koadernaketa-lan batean itsatsitako 3 litografia; azal gogorreko koadernaketa-lana. [itzuli]
12. Bernabé Mendizábal Aldámiz- Echevarría (1870–1938). Jaiotzez Puerto Ricokoa zen. Lanbidez, jabea. Leonor Amezaga santurtziarrekin ezkondu zen, eta Santurtziko alkatea izan zen, 1914an (urtebete baino ez zuen eman karguan). 'Bellamar' etxea eraiki zuen bertan. Bi seme hegazkinlari hil zitzaizkion Gerra Zibilean. *Nena* itsasontzia (9 metro) izan zuen, gero Luis Salamancak erosiko ziona. [itzuli]
13. *La Monarquía* egunkarian, 1913/ VIII/30. [itzuli]
14. *La Vida Marítima* aldizkarian, 1913/IX/10. [itzuli]
15. Portugaleteko Burdinazko kaia Evaristo Churruca ingeniariak diseinatu zuen, nabigazioa errazteko eta istripuak eta naufragioak saihesteko. Eraikuntza-lanak 1881ean hasiziren, eta 1887an amaitu. 800 metroko luzera du. Lehenengo 600 metroak burdinazko armazoiz eginda daude, eta gainerako 200 metroak, harriz. Algortako kontra- moilan, beste itsasargi bat zegoen, 1903an piztu zena. Olatu-hormak eta kontra-moilak osatzen zuten orduan kanpoko portuaren balizamendua. [itzuli]

## ARRUE - BILBOKO ATHLETIC CLUB

José Arruek bi koadro egin zituen Bilboko Athletic futbol taldearentzat. Lehena 1913an: *San Mameseko lehen futbol zelaia* (*Primer campo de fútbol en San Mamés*). Manuel Maria Smithek proiektatutako estadio berriaren airetiko bista bat da, *veduta* bat (1913ko abuztuaren 21ean inauguratu zen estadioa, 7.000 eserleku baino gehiago zituela). Ikuspegi panoramiko horretan, jendez gainezka ageri dira harmailak, eta, alde batean, bandera handi bat haizetan. Goialdean, Antonio Goicoechea arkitektoak eginiko Miserikordia Etxea ikusten da, Espainiako Errege Amadeo I.a Savoiakoak 1872an inauguratua.

Ingelesek bertan zeuzkaten meategiak zirela eta, Bizkaitik eta Huelvatik hasi zen zabaltzen kirol berri hau Espainian zehar. Hain zuzen, Recreativo de Huelva taldea da (*Recreation Club*etik datorkio izena) Espainiako *foot-ball* klub zaharrena, 1889an sortu baitzen. Portura heldu ziren marinel ingelesek eta siderurgiako teknikariek sartu zuten Bilbon futbola, eta 1890eko hamarkadan jada jokatzeko zen. Bilbon, “Sociedad Gimnástica Zamacois” izeneko gimnasioan sortu zen lehen *foot-ball* kluba, 1898an, baina 1894tik bazen jada zaletasunik. José Zamacois (1854–1894) gimnasta eta akrobata izan zen, oso pertsona ezaguna hirian<sup>1</sup>. Hil zen urte berean, gimnasio ikusgarri bat muntatua zuen Ibañez de Bilbao kaleko behe-solairu batean. Gimnasio hori da, hain zuzen, 1912an “Club Deportivo de Bilbao” izango zenaren jatorria. 1885ean, “Club Velocipedista de Bilbao” klubaren —garaiko bizikleta zaleen kluba— antolatzaileetako bat izan zen Zamacois. Aurrerago, 1905ean, Bizkaiko Atletismo Federazioan sartu ziren bizikleta zaleak ere, Manuel Aranaz Castellanos buru zutela.

Athletic Club de foot-ball 1901eko apirilaren 5ean eratu zen legez, Kale Nagusiko 8. zenbakiko García kafetegian (Berastegi kalearen kantoian) egindako batzarrean. Lamiakoko zelaian jokatzeko zituen partidak. Bilbao Football Club, berriz, 1900ekoa zen. 1903an, bi klubek, bat egin, eta Bilboko Athletic Club sortu zuten, baita Errege Kopa sortu berria irabazi ere. Athletic Cluben lehen joko-zelaia Lamiakoko zelaia izan zen, Agirre anaien Leioako hipodromoko sailetan zegoena (1887tik, kiroldegi moduko bat zen hura). Tranbiak eta, geroago, Bilbo-Areeta trenak geldialdia egiten zuten han, baina batzuetan bakarrik. 1911n, Neguriko (Getxo) Jolasetako Zelaia erabiltzen hasi zen Athletic, baina, 1913an, futbol-zelai berri bat atondu zuten, Bilbon bertan, San Mameseko babes-etxearen ondoko lurretan (hortik izena). Futbol-zelai horren neurriak hobeto egokitzen ziren zaletuen kopurura. Gainera, garrantzi handiko berrikuntzak gehitu zitzaizkion, hala nola tribuna estali bat, bi eserleku-ilara luze tribunaren aurrean (preferentzia), eta zutik zeuden ikusleentzako eremu bat zelaiaren gainerakoan (orokorra). San Mames estadioa “Katedrala” ezizenarekin ezagutzen da futbolaren munduan; izan ere, futbol-zelaira joaten zirenak San Mamesera joaten ziren, bai, baina San Mamesko “katedralera”, ez inguruari izena ematen zion babes-etxera.

Estadio hau Pinturaren Historian dagoen bakarrenetarikoa da, eta *subject matter* bezala gainera, hau da, subjektu tematiko bezala, ez paisaiako zati edo hondoko paisaia bezala: estadioa bera da, eraikuntza bezala, zelai bezala, Arrueren margolanaren gai nagusia. Arrueren lan horren antzeko bakarra Laurence S. Lowry (1887–1976) britainiarren olio-pintura bat da, Arruerena baino ia berrogei urte geroago margotua: *Futbol partida* (*The Football Match*, 1949) Manchesterreko estadioan.

Arrueren lana bezala, *Futbol partida* ere ikuspegi panoramiko bat da, irudi txikiz josia, non ezin hobeto erakusten den futbol partida baten emozioak harrapatutako hiri baten espiritua. Robert Collsek, Leicesterreko De Montfort Unibertsitateko historialari kulturalak, azaldu duenez, “askatasun- eta kidesun-adierazpena” zen orduan kirola (*This*

*Sporting Life: Sport and Liberty in England, 1760–1960*, Oxford University Press, Oxford, 2020)<sup>2</sup>. Industria iritsi aurretik, Ingalaterrako kirol-herria azeri-ehiza zen, zaldizko gerraren herentzia bat: Inperio osoko zaldun-errejimenduek txakurrak erabiltzen zituzten ehizarako, kirol gisa. Industrializazioaren ondorioz landak eta herririk galtzen hasi ahala, ehiza eta garaiko beste denbora-pasa batzuk (boxeoa, adibidez) lege jakin batzuen arabera arautuz joan ziren (boxearen arauak Queensberryko markesak ezarri zituen). Futbolaren arauak (lege batzuek arautua ordurako, ez ohitura hutsek) 1863. urte inguruan ezarri ziren, eta horrek halako hiritartasun bat eman zion kirolari. La hiri industrial guztiek zuten futbol talde profesional bat. “Etxeko zelaia” futbolaren kontzeptu emozional indartsuenetako bat bihurtu zen.

Arrueri zor diogu, halaber, Bilboko futbol-taldearen beste koadro sinboliko eta enblematikoenetako bat: 1914ko denboraldiko jokalarien erretratua. 1915ean, klubeko zuzendaritzak taldearen (*Iparraldeko Lehoiak* deitzen zituzten) erretratu bat enkargatu zion Arrueri, 1914 eta 1915eko Errege Kopa irabazi izanaren omenaldi eta oroigarri bezala (1916an ere txapeldun atera zen)<sup>3</sup>: *Athletic Club taldea* (*Equipo del Athletic Club*). Margolana talde-erretratu bat da: hamaika jokalaria, elastiko zuri-gorriak eta galtza beltzak jantzita<sup>4</sup>; *mister*-a, William Edwin Barnes entrenatzailea; eta haren laguntzaile “nekaezina”, Manolo Ansoleaga. Guztiak —jokalaria, entrenatzailea eta laguntzailea— klubaren “argazki ofiziala” balitz bezala erretratatu agertzen dira bai beren fisonomian, bai beren nortasunean<sup>5</sup>.

Arrueren talde-erretratu horretan, ezkerretik eskuinera, hauek agertzen dira: William Edwin Barnes, entrenatzailea; Manolo Ansoleaga, entrenatzaile-laguntzailea; José María eta Ramón Belausteguigoitia anaiak; Esteban Eguía; Luis Içeta; Luis María Solaun; Cecilio Ibarreche, atezaina; Luis Hurtado; Rafael Moreno (“Pichichi”); Alfonso “Apón” González-Gorbeña; Severino Zuazo; eta Germán Echevarría (“Maneras”)<sup>6</sup>.

1916an, Athleticek berriro irabazi zuen Errege Kopa, Irunen berriz ere, baina taldeari ez zitzaion harrerarik egin, trenak jarraitzaile bat harrapatu zuelako Debako geltokian, Bilborako bidean. Ospakizunak bertan behera geratu ziren, baina, hurrengo egunean, afarria egin zen, Arana jatetxean, Atxuriko geltokian. Jack Johnson boxeolaria, pisu astunen munduko txapelduna, gonbidatu zuten festara; Ameriketako justiziatik ihes eginda, zezenketak ikustera etorria zen Bilbora. Johnsonek titulua galdua zuen hilabete lehenago, Habanan, Jess Willard (José Villar) Tafallako aita zuen boxeolari amerikarraren aurkako borrokan. Alejandro de la Sota, kirol-kazetaritzan “Sir Archibald” bezala ezaguna, ingeles hiztun bikaina zelako, Bilboko Hotel Ingalaterrara joana zen Johnsonen bila. Ramon Belausteguigoitiak hitz egin zuen talde txapeldunaren izenean. Bere lehenengo hitzak alkateari eta boxeolari ospetsuari ekitaldira agertu izanagatik eskerrak emateko izan ziren. Belausteguigoitiaren azken partida izan zen hura, Londresera joatekoa baitzen ikastera. Haren anaia Jose Maria ekonomia-ikasketak egiten ari zen Bilbon, eta Ramon, Salamancan zuzenbidea ikasi ondoren, nekazaritzan espezializatu zen. Belauste Madrilgo *El Sol* egunkariko berriemailea izan zen, 1917an, “Ramón de Goyenuri” ezizenarekin. 1925ean, Mexikoko Torreón hirian ezarri zuen bizilekua, eta hara bizitzera joan ziren haren anaia gehienak ere. Hil baino urte batzuk lehenago, Espainiara itzuli zen. 1981ean hil zen, Madril.

Arruek margolan batean betikotu zuen Athleticeko talde horretako beste pertsonaia ospetsua Rafael Mará Moreno Aranzadi da (1892–1922), “Pichichi” ezizenaz ezaguna. Morenok, bilbotarra jaiotzez, Amurriokoa zuen aita, 1896–97an Bilboko alkate izandako abokatu ezagun bat. Ama, berriz, Telesforo Aranzadi antropologiako katedradunaren arreba zen, eta Miguel Unamuno filosofoaren lehenegusina. Moreno oso baxua zen —hori zela eta, ez zuen soldadutzarik egin beharrik izan—, baina bere indar fisikoagatik baino gehiago bere adimenagatik nabarmentzen zen futbol-zelaiari, aurkariak driblatzeko eta une egokian toki egokian agertzeko gaitasunagatik. Zazpikaleetako indianoetako batek jarria zion ezizena: “pichichi” Mexikoko hegazti zangaluzer bat da, moko gorrixakoa (mutikoaren sudurra bezala), ondo abesten duena, normalean gauz ateratzen dena (jokalaria Salón Vizcayara joan zalea zen), eta ondo mugitzen dena



paduretako lokatzetan, gure jokalaria orduko ate-inguruetako basatzen bezala. “Pichichi” ezizena, beraz, ez dator “txiki” hitzetik, batzuek uste duten bezala; izen bereko txori horren hanka-joko arinean du jatorria. Moreno izan zen San Mames estadio berrian gola sartu zuen lehen jokalaria, baita Espainiako Ligako goleatzaile nagusia ere. Lau kopa irabazi ondoren erretiratu zen, eta klubaren historiako lehen jokalaria ospetsua izan zen. 1922an hil zen, sukar tifoide batzuen ondorioz. *Marca* kirol-egunkariak denboraldiko goleatzaile nagusia saritzeko 1953an sortutako sariari izena ematen dio geroztik Pichichi ezizenak<sup>7</sup>.

Athleticen argazki finko eder honetan, Arrue margolariak lizentzia batzuk hartu zituen, konposizioari dagokionez: irudikatuta dauden pertsonaien artean handiena atezaina da, eta gehien nabarmentzen dena, bere jarreragatik, Pichichi. Ibarreche, atezaina, oso altua zen (1,95 metro pasa), baina Jose Maria Belauste garaiera berekoa zen, eta txikiago agertzen da, atezainaren ezkerrean. Arruek, era berean, berez zena baino altuagoa irudikatu zuen Pichichi ospetsua, bere ezkerrean duen jokariaren (“Apon”) altuera berekoa baitzen, 1,60 metro eskasekoa. Bertako heroi bihurtuko zela aurreikusiko balu bezala, Arruek mitifikatu egin zuen Pichichi bere pinturan, eta taldeko gizonik indartsuena bezala irudikatu zuen, atezainaren ondoan.

Gainera, pintura ikoniko honetan, klubeko argazki ofizial baten eta ikono bizantziar baten artean dagoen lan honetan, ez Pichichi ez Ibarreche ez dira aurrera begira ageri, eskuinera begira baizik. Ez diote ez argazkilariari ez margolariari begiratzen, iraganeko historiari baizik. Aurelio Artetak, bere *Idilioa Sport zelaietan* (*Idilio en los campos de Sport*, 1920, pastela paper gainean, 69,5 x 49,5 cm), emazte Avelinarekin batera erretratatu zuen jokalaria, bai eta hura baino handiagoa irudikatu ere<sup>8</sup>.

Athleticeko kideak eta ikusi ditugun enpresariak, Bilboko gizartea bera bezala, jatorri ezberdinetakoak ziren: batzuk, Bilboko Zazpikalekoak (“Pichichi”); beste batzuk, Abandoko edo Begoñako elizateetakoak (Zuazo, González-Gorbeña); inguruko hiribilduetakoak ere baziren, hala nola Plentziakoak (Solaun); eta baziren Nerbioi Garaiko arabarrak ere (Belauste anaiak). Gizarte-mailari dagokionez ere jatorri desberdinekoak ziren; ez ziren denak burgesiaren seme-alabak, esan izan den bezala: Eguía, adibidez, zurgina zen; Ibarrechek Sestaoko Navalen lan egin zuen; Pichichik —Bilboko alkate baten semea— enplegatu gisa lan egiten amaitu zuen, eta abar.<sup>9</sup>

Etorkiz ez ezik, ideologiaz ere ezberdinak ziren batzuk eta besteak: batzuk Alde Zaharrekoak ziren, beste batzuk, Albiako zelaietakoak. Batzuk —Belaustetarrak eta Apon, esaterako— Urduñako jesuitetan ibili ziren. Belaustetarren anaia zaharrena, Federico Belausteguigoitia (Laudio, 1876–Durango, 1947) Sabino Aranaren eskola-laguna izan zen, eta Belauste anaia guztiak nazionalistak izan ziren, baita Solaun ere. 1922an, Germán Echevarria zen taldeko kapitaina, azaroaren 27an Jose Antonio Agirre Agirre (1904–1960) gazteak (geroago, Kongresuan diputatu eta 1936an Eusko Jaurlaritzako lehen Lehendakaria izango zen) Athleticen debuta egin zuenean.

Halaber, azpimarratu behar da kirolari horietako batzuk —Arrue margolaria bera bezala— zezenzaleak izan zirela. Batzuek nobillero gisa debutatu zuten. 1915ean, adibidez, Pichichik aurkezpen-paseoa egin zuen Bilboko Prentsa Elkartearen aldeko jaialdi batean, Jose M<sup>a</sup> Mateosekin (“Alegriás” sinatzen zuen zezenketa-kritikari bat) eta Julio Uruñuela margolariarekin batera. 1916an, Germán Echevarría “Maneras”ek Vista Alegre-n toreatu zuen. Arrueri berari ere barruraino sartu zitzaion zezenketaren harra, 1908an, Andaluziara Aste Santua eta Apirileko Feria ikustera egindako bidaia baten ondoren. Hala, 1909ko urriaren 17an, apustu bat tarteko, zezenketarien traje distiratsua jantzita atera zen jada desagertua den Indautxuko Zezen Plazan, Nemesio Mogrobejo eskultorearen lehengusuarekin batera<sup>10</sup>. Arruek nobillada batzuk gehiagotan hartu zuen parte, baina, batez ere, zezenketa- programak iragartzeko kartelak egin zituen, asko eta originalak.

Kirolen inguruko margolanak edo eskulturak edo kirolari handien irudiak eta erretratuak genero artistiko zaharrenetako bat izan arren (labar-pinturan ere ehizaldiak margotzen ziren; eta atleten eskulturak ohikoak ziren antzinako Grezian), XX. Mendean ez ditugu hainbeste aurkituko. 1937an, Antonio Berni argentinarrak<sup>11</sup> *New Chicago Athletic Club* margotu zuen, zeina New Yorkeko Arte Modernoko Museoan dago 1942tik 18. irud., 188. or.)<sup>12</sup>. Bernik, Arruerena ez bezalako estilo batekin bada ere, adiskidetasunaren eta talde-balioen gaineko uste sendo hori bera —laneko *team* baten handitasuna— azpimarratu zuen bere obran.

José Arrue gure dokumentalista handietako bat da, bai hiriarena, bai elizateena, XX. mendeko Pieter Brueghel moduko bat. Bilbon jaio zen, 1885eko irailaren 1ean. Bizkaiko Institutuan ikasi zuen, eta Antonio María de Lecuona margolariaren eskoletara ere joaten zen. 1905ean, Parisera joan zen, anaia Alberto Arruerekin batera, eta pintura-eskolak hartu zituen La Grand Chaumière akademian. 1908an, Bilbora itzultzean, kolaborazio-lanak egiten hasi zen hiriko aldizkari eta egunkarietan.

Zabalgunean estudio bat ireki zuen, Gustavo de Maeztu margolariarekin batera. 1910ean, Segunda Mendizábal Rotaache orozkoarrarekin ezkondu zen, eta Gerra Zibila amaitu zenetik aurrera Orozkon bizi izan zen, 1977an hil zen arte. 1911n, Euskal Artisten Elkartearen sorreran parte hartu zuen. 1913an, Parisera joan zen, bere familiarekin, eta han bizi izan zen Lehen Mundu Gerra hasi zen arte.

Arrue ez zen elizateetako baserri-giroaren karikaturagile soila izan, Bilboko hiriaren eta biztanleen erretratugilerik onena baizik. Haren erretratatzeko moduak *betikotu* egin zituen Athleticen edo Sportingeko arrakasta une haiek, bai kirolaren bai kirol- munduko jendearen koloretako erradiografia bat eginez. Dударik gabe, bera dugu Euskal Pinturaren garai guztietako margolaririk pertsonalenetako bat.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Ikus Javier Novo González-en azterlan bikain hau: *Los Zamacois de Bilbao, una saga de artistas*. BBK, Bilbo, 2010, 62. or. Bestalde, Madrilgo *La Ilustración Española y Americana* aldizkariaren 1875eko abenduaren 22ko aleak honela dio 397–39. orrialdeetan: “397. Orriko grabatuak, Anselmo de Guinea bilbotar pintorearen krokis baten gainean eginda dagoenak, establezimendua barrutik nolakoa den irudikatzeo ideia bat ematen digu: berritik eraikitako era horretako lehen establezimendua da Espainian”. [itzuli]
2. “An expression of liberty and belonging”. *This Sporting Life: Sport and Liberty in England, 1760–1960*, Oxford University Press, Oxford, 2020. [itzuli]
3. 1902ko udaberrian, Alfontso XIII. aren adin nagusitasuna ospatzeko, lehiaketa nazional bat jokatu zen, Koroatzearen Kopa izenekoa, Errege Koparen aitzindaria izan zena. Athletic Clubek eta Bilbao F.C. taldeak talde konbinatu bat sortu zuten, Bizcaya, bai eta kopa eskuratu ere, Bartzelona F.C. taldeari 2 eta 1 irabazita, Castellana-ko hipodromoan, Madrilen. 1914ko maiatzaren 10ean, Athleticcek 2 eta 1 irabazi zion Bartzelonako Español taldeari, Irungo Racing Klubaren zelaian, eta Espainiako txapeldun geratu zen. Athleticcek hiru Errege Kopa irabazi zituen jarraian, 1914, 1915 eta 1916. urteetan. [itzuli]
4. 1909ko Gabonetan, Athletic Madril taldeko jokalaria batek, Juan Elorduy hegaleko eskuinak, Southampton-en Bilborako itsasontzia hartu baino lehen, hiri hartako taldeak erabiltzen zituenak bezalako berrogeita hamar elastiko eskuratu zituen,

zuri-gorriak. Gero, horietako hogeita bost Bilboko taldearen egoitzan utzi zituen, eta beste erdiak Athletic Madril taldeari eraman zizkion. Ingalaterran ezin izan zuen aurkitu ordura arte erabiltzen zuten elastiko zuri-urdinaren (Blackburn Rovers taldeak oraindik ere erabiltzen duena) behar adina ale. [itzuli]

5. Ez da William Barnes (Londres, 1879–1962) Athleticen Britainia Handitik Bilbora ekarritako lehen entrenatzailea. Beste bat egon zen aurretik. Barnes hogeita hamabost urteko gazte bat zen orduan, Sheffield United, West Ham, Luton Town eta Queens Park Rangers taldeetan ibilitakoa, hegaleko gisa jokatu. Barnes Bilboko hiriaren estiloko familia batetik zetorren: aitak portuan egiten zuen lan, eta amak itsasoz haraindiko produktuak saltzen zituen janari-denda bat zuen. Enpresa siderurgiko bateko taldean hasi zen jokatzeko: Thames Ironworks F. C. Haren anaia, Alfred Barnes, politikari sozialista izan zen, eta Garraio ministro izatera iritsi zen. Manuel Ansoleaga Athletic Madrilera pasatu zen gero; taldea 1903ko apirilaren 26an jaio zen, Athletic Clubaren filial gisa: “La Sucursal” delakoa Madrilgo Sociedad Vasco-Navarra elkartearen sortu zen. Bertan, besteak beste, hauek zeuden: Manuel Allendesalazar, gero Ministro Kontseiluko buru izan zena eta Madrilgo alkate izatera iritsi zena; Raimundo Moreno Aranzadi, “Pichichi”-ren anaia nagusia; Ignacio de Gortázar, Superundako kondea; Alberto Zarraoa, bost urte geroago Athleticen presidente izango zena; Juan Murga; Juan de Zavala; Dario de Arana Urigüen, Madrilgo atezaina izandakoa; eta Enrique Goiri, diruzaina. Sociedad Vasco-Navarra elkartearen (La Cruz kaleko 25. zenbakian zuen egoitza) Pilsen garagardoa zerbitzatzeko, Bilboko zaleek estimu handitan zutena. [itzuli]
6. Cecilio Ibarreche (1892–1961): atezaina. Titularra izan zen ondorengo ondoko Kopako hiru finaletan. Ondoren, kirol-epailea izan zen, eta kirol-denda bat izan zuen. Aurrerago, tailerretako burua izan zen Sestaoko La Navalen. Luis Hurtado (1890–1950): ezker hegaleko atzelaria. Hemezortzi denboralditan aritu zen taldean, eta 83 partida ofizial jokatu zituen, errekor handia garai hartarako. Luis Maria Solaun (1893–1955): eskuin hegaleko atzelaria. Plentziakoa zen, industria-ingeniarria; Rosa Solaunek Arrueren *Erromeria Arrankundiagan (Romería en Arrankundiaga)* erosi zuen, 1922an. Luis Içeta (1890–1966): erdiko atzelaria. Taldeko kapitaina izan zen, eta, gero, hautatzaile nazionala. Esteban Eguía Hormaechea (1890–1966): erdilaria. Getxokoa zen, eta 42 partida ofizial jokatu zituen. Severino Zuazo (1893–1980): eskuin erdilaria. Ingeniarria zen, Secundino Zuazo arkitektoaren anaia. Jose Maria Belausteguigoitia (1889–1964), erdilaria, abokatua izan zen, Espainiako selekzio mitikoan parte hartu zuen Anberesko 1920ko Olinpiar Jokoetan (zilarrezko domina); Dolores Zuloagarekin (Ignacio Zuloaga margolariaren ilobarekin) ezkondu zen. Ramon Belausteguigoitia (1891–1981): eskuin hegaleko aurrelaria. Zuzenbide eta ingeniari agronomo ikasketak egin zituen, Londresen. Mexikora joan zen gero. Rafael Moreno “Pichichi” (1892–1922): ezker hegaleko aurrelaria. Jokalari azkarra eta erasokorra, Arruek bere margolanen irudikatu baino askoz txikiagoa. Oso gogor jotzen zion baloiari. Germán Echevarría (1891–1966): bigarren eskuin hegaleko aurrelaria. “Maneras” deitzen zioten, zelaian mugitzeko eta espazioak irekitzeko moduagatik. Alfonso “Apón” González Gorbeña (1890–1946): bigarren ezker hegaleko aurrelaria. Maltzurkeria eta gol sen handiko jokalaria. Oso jotzaile ona. [itzuli]
7. 1926an, Athleticen busto bat eginarazi zuen haren omenez. Geroztik, San Mames bisitatzen duen klub berri bakoitzak lore-sorta bat utzi behar du haren azpian, omenaldi gisa. Bustoa, brontzezkoa, Quintín de la Torre (1877–1966) eskultoreak egin zuen. Izan ere, oso ondo ezagutzen zuen jokalaria. [itzuli]
8. 1998ko maiatzaren 12an, Bilboko Rekalde Aretoan, *Athletic Club 1898-1998: artea katedralean* erakusketa inauguratu zen, Athleticen mendeurrena ospatzeko. Hori dela eta, Ibaiganeko egoitzako bulegoetatik atera ziren José Arrueren bi koadroak: *San Mamesko lehen futbol zelaia* (1913) eta *Athletic Club taldea* (1915), Aurelio Artetaren *Idilioa sport zelaietan* margolanaz gain. [itzuli]
9. Jon Agirianoren artikulua eder batean, esate baterako, denak etxe onekoak zirela adierazten da: “Apón taldeko gol-ehiztari oportunistak. Eguía, berriz, lapa bat: zurgin-lanean erakusten zuen arduraren berberarekin aurkariak indargabetzen zituen langile zorrotza. Etxe oneko unibertsitari gazteen talde hartan —jokalariek bi pezetako kuota ordaintzen zioten hilean klubari—, bera zen eskulangile bakarra”, *El Correo*, 2009ko apirilaren 26a. [itzuli]
10. Nobillada hau Mariano Ponce “Cocherito de Murcia” ospetsuak prestatu zuen. Ordurako utzia zion toreatzeari eta zezenketa munduko enpresari gisa jarduten zuen, Antolín Arenaza “Recajo” ahaldunaren laguntzarekin. Cocheritok antolatutako zezenketetako subalterno batzuk toreatzaile handiak izatera iritsi ziren: Castor Jaureguibeitia “Cocherito

de Bilbao” eta Rufino San Vicente “Chiquito de Begoña”, besteak beste. Zezenketa-kartelei dagokienez, Alejandro de la Sotak zioen 1850az geroztik zeudela halako kartelak. Ikus, horretarako, Alejandro de la Sotaren *Cuando Guiard llamaba “fiera” a “Lagartijo”*, Editorial Vasca, Bilbo, 1957, 26. or. Christian August Fischer bidaiari alemaniarak (1771–1829), 1797 eta 1798 urteetan Espainia bisitatu zuenean, hiribilduko pasealekuak eta erromeriak ez ezik Bilboko zezenketak ere goraiatu zituen. [\[itzuli\]](#)

11. Antonio Berni margolaria (1905–1981). Rosarion jaioa. 1936an, Buenos Aireseko Almagro auzora joan zen bizitzera bere lehen emazte Paule Cazenave eskultore frantziarrarekin eta Lily alabarekin. Bere lantegi-etxe berrian, Rivadavia-ren parean, auzoko mutilez osatutako futbol-talde hau margotu zuen, olio-pintura erraldoi batean (184,8 x 300,4 cm), *Club Atlético Nueva Chicago* izenburuarekin. [\[itzuli\]](#)
12. Margolana Lincoln Kirstein-ek erosi zuen, 1942an, AEBetako Amerika Arteko Gaietarako Bulegoko buru Nelson Rockefellerren aginduz Hego Amerikara egin zuen bidaiari batean. Bidaiak iraun zuen bost hilabeteetan, zazpi herrialde bisitatu zituen. Rockefellerrek Hego Amerikara joateko eta MoMArako artea erosteko eskatu zion Kirsteini, eta, aldi berean, Bigarren Mundu Gerran Hego Amerikako herrialdeen leialtasunak egiaztatzeko. Kirsteinek 150 artelan inguru erosi zituen bidaiari horretan, horietako batzuk bere bilduma propiorako. [\[itzuli\]](#)

## LOSADA – TRAINERUAK

Manuel Losadak (1865–1949) bi traineruen arteko estropada bat irudikatu zuen 1912an, *Arraunlariak* (*Los remeros*) margolanean.

Trainerua Kantauri itsasoko berezko ontzia da, arraunen —eta batzuetan haizearen— indarrez mugitzen dena eta kostatik gertuko arrantzarako erabiltzen zena. Ontziak —diseinu lirainekoa eta estalkirik gabekoa— branka goratua eta popa biribila ditu, itsaso horretako olatuei egokiro aurre egiteko. Garai batean, antxoia eta sardina harrapatzeko erabiltzen zen. Latinezko *tragināre*-tik (arrastatzea) dator izena.

Losadak hamabi arraunlariko traineru bat aurkezten digu; tosta bakoitzean, txopan eta brankan izan ezik, bina arraunlari daude, bata ababorretik eta bestea istriborretik arraunean<sup>1</sup>. Brankari bizkarra emanez egiten dute arraunean, hau da, txopara begira, eta patrioiak, zutik, txopatik gidatzen du ontzia, lema-arraun handiarekin (bailandren kodasta-lema baino arinagokoa). Lehen planoan, eszena osoa zeharkatzen duen traineru beltz baten presentziak dinamizatzen du konposizioa, alboko zerrenda zuri-gorriduna<sup>2</sup>. Losadak ontziaren eskuinaldean idatzia du bere sinadura, ontziaren izena balitz bezala.

Bi talde ditugu lehia, hogeitik gora traineru eta jendez beteriko hainbat txalupa begira dituztela. Atzean, Ogoño lurmuturra eta Laga hondartza ageri dira. Horrek esan nahi du hurre dugula Gernikako itsasadarra. Kolore kontraste handia dago traineruaren eta itsasoaren artean: ontziak krosko beltza eta barnealde urdin-moreak ditu, eta itsasoa, berriz, kolore berde eta urdineko pintzelkada horizontalez margotuta dago. Ogoñoko belar-mazelak, berriz, goitik beherako pintzelkada bihurri eta trinkoz osatuak daude. Ikusia dugu Losadak –Zuloaga, Durrio eta Urangarekin Parisen egindako egonaldiaren ondoren– hainbat mural margotu zituela Kurding Club-en. Inpresionismo eta sinbolismo frantsesetik igaro ondoren, XIX. mende hasierako Bilboko eszenetan (hiriaren pastelezko eta olio-pinturazko oroitzapen-lanetan) lortu zuen Losadak bere estilo berezia. Bilboko Arte Ederren Museoko lehen zuzendaria izan zen hil arte guztian.

Bakarra da aurpegia agerian duen irudia: lemazaina. Brankara begira, alkandora zuria eta txapela jantzita, bi eskuekin heltzen dio arraunari. Ontzi mota horien xehetasun guztiak zehaztasunez irudikatuta daude margolanean: tostak (arraunlariak esertzeko karel batetik besterako ohol estuak), toletak (karelean arraunari eusteko ipintzen diren ziriak), estropuak (arrauna toletari lotzeko sokazko eraztun modukoak), eta abar. Tostei eusten dauden ohol arin horiek ere irudikatu zituen Losadak margolanean, eta, halaber, arin itxurako arraun batzuk margotu zituen.

Arrantzatik bizi ziren herrixkak ziren garaietatik egon da lotuta arrauna Bilborekin, Portugaleterekin eta Santurtzirekin.

Arrantza funtsezko jarduera ekonomikoa zen XIX. mendearen erdialdean, eta trainerua, lan-tresna nagusia. Arrantza-jardueraz gain, pilotatze-lanak eta atoi-lanak ere egiten zituzten arraunlari horiek<sup>3</sup>. Traineruek itsasadarrean zehar gidatzen zituzten belaontzi handiak, gerora portuko gidariek egingo zuten lana eginez.

Atoi-lanean ere aritzen ziren, hau da, itsasontziak unama batetik tiraka atoian garraiatzen. Traineruen arteko lehia hori profesionalen arteko abiadura lehia bihurtzen zen batzuetan, hala nola arrantza-traineruak, arrantza-leku batera

edoantxo-banku batera iristeko, edo pilotatze-lanetan ziharduten traineruak, itsasontzi batera ondoratu eta hura itsasadarrean zehar gidatzeko, elkarren aurka nor baino nor hasten zirenean. Traineruen arteko lehiaketa ludikoa, estropada-jokoa, XIX. mendean hasi zen. Estropadak tentsio eta neke-aldi batetik lasaitzea eskatzen du, beste berri bati ekiteko gero. Aristotelesek honela adierazi zuen hori bere *Politikan*: “jokoak atsedena du helburu”.

Kirol-estropada batez dugun lehen berria Lehen Karlistaldia amaitu ondorengo da: 1844ko abuztuan, Donostian, Isabel II.a erreginarenekin omenez egin zen estropadaz ari gara<sup>4</sup>. Ezaguna dugu ere Bermeoko, Elantxobeko eta Mundakako bi ontziren arteko estropada, 1719an Izaro uhartearen jabetza erabakitzeke egin omen zena.

mendearen erdialdean, arrantza-herrietako (Portugaleten, Bermeo, Lekeitio) festa nagusietako ospakizunetako estropada bat sartzen zuten beren ekitaldien artean; herri bateko kofradietako edo herri desberdinetako traineru eta batelaren arteko lehiaketa bat da estropada<sup>5</sup>. Esate baterako, 1865ean, Ondarroako Arrantzaleen Kofradiak Bilboko estropadako Ohorezko Sari bakarra irabazi zuen. 1881eko abuztuan, lehen nazioarteko estropada egin zen, Abran. Bilboko Klub Nautikoak antolatu zuen, eta Portugaleten, Bilbo, Getxo eta Santurtziko udalek hartu zuten parte. Lehen aldia izan zen estropada batek inguruko herrietako jendea eta bainuetxeetako udaiarrak ere erakarri zituen. Lehiaketan, arrantza-txalupak eta arraunketa-txalupak bereizi ziren: lehenak astunagoak ziren (4 tona inguru), eta, besteak, arinagoak, pilotatze-lanetarako erabiltzen zirenak baitziren (lau arrauneko txalupak eta lemazain bat)<sup>6</sup>. 1887ko irailaren 12an, Burdinazko Kaiaren azken blokea jarri zenean, traineru-estropadak egin ziren, eta Bermeo, Zierbena, Ondarroa eta Santurtzikoek hartu zuten parte: Ondarroako traineruetako bat izan zen garaile. Hurrengo urtean, 1888ko azaroaren 21ean, olatu-hormaren lehen harria jartzeko lanen kariaz, traineru-estropadak egin ziren berriro. Era berean, Bilboko Klub Nautikoak editatu eta inprimatutako programa bat gorde da, 1894an Portugaleten egindako estropaden berri ematen duena: “Regatas à la vela y à remo” (*sic*, a letra azentuarekin).

Errege-erreginen bisitak zirela eta, traineru-estropadak ezinbestekoak bihurtu ziren Abrako festetan. 1898an, Sporting Clubek garrantziko bultzada eman zien estropada horiei, lehenago aipatu ditudan bailandra-estropada haientzat bezala traineru-estropadentzat ere lehiaketa-arauteki bat ezarriz. Bestalde, igeriketara ere sustatu zen<sup>7</sup>.

1888ko azaroan, Bermeoko bi ontzik parte hartu zuten estropadan; itsaso barean ibiltzeko bereziki eraikitako ontziak ziren, eta aurretik iritsi ziren biak; lehiaketara egokitutako arrantza-txalupen lehen berria da hori: pisu gutxiago egurrean, saiheste eta karelin finagoak, ia oholik ez ontziaren beheko barrunbean. 1916 aldera, ez lehenago, hasi ziren traineru arinagoak eta estilizatuak eraikitzen (arrantza-ontzi gehienak baporeak ziren ordurako, eta arraunak, propulsiio-elementu gisa, gainbehera hasia zuen): lehiaketarako propio diseinatutako ontziak ziren, baina arrantzako traineruaren 12 metro “klasikoak” mantendu zituzten. Era berean, arraunen luzera laburtu egin zen, eta palen azalera, berriz, handitu. Hiru dira geroztik gaur egunera arte iraun duten estropada nagusiak: Santanderreko Bandera (1856. urtekoa, gutxienez), Nerbioiko Sari Nagusia (edo Abrako Estropadak, 1865. urtetik aurrerakoa) eta Kontxako Bandera (1879. urtetik aurrerakoa).

Lanbide bat denboraren poderioz nola galtzen den eta lehiaketa eta joko (arraun-estropada) nola bihurtzen den erakusteko adibide bikaina dira traineruak. Kasu honetan, gizakiaren ahalegina ez da inork inposatua, borondatezkoa eta libreba baizik, eta bere horretan bertan, bere xedean berean bilatzen eta aurkitzen du bere betetasuna. Lanean, helburu jakin bat (premia bat asetzea) lortzeko inperatiboak ezarria dator ahalegina. Kasu horretan, geroko gozamen baten aurretiko baldintza baino ez da ahalegina. Estropada batean arraunean ari den pertsona baten eta jendea ibaiaren alde batetik bestera pasatzeko arraunean ari den txalupa-zain baten artean, edo mendian gora doan alpinista baten eta hari lagun egiten dion gidariaren artean, desberdintasun bakarra dago: batzuek arraunean egitea edo

mendian gora egitea beste helbururik ez dutela, eta besteek, berriz, bizimodua ateratzea dutela helburu. Pilota, traineruak, harri-jasotzea edo idi-probak joko hutsetik harantzago eta lan kontzeptutik honantzago dauden kirolak dira. Britainiarrek bi hitz erabiltzen dituzte, *play* (jolasa) eta *game* (araututako jokia), bereizketa hori egiteko<sup>8</sup>.

Jokoan, une batzuetan, indargabetu egiten da objektuen eta haien ondorioen “objektibotasuna”, indargabetu egiten da objektuen munduaren errealtatea, zeinak, jokitik kanpo, errealtate horri aurre egitera eta hura ezagutzera behartzen du etengabe gizakia. Euskal kirolaren mundua lan sublimatuaren mundua da, jolas itxura hartuta. Traineruetan, patroiak denborak markatzen ditu, Markinako Lehoiak idi probalekuetan bezala, eta jazz sinkopak diruditen beren oihuekin lanaren *erritmo* telurikoa antolatzen dute batak zein besteak, paladaz palada, iltzez iltze. Ez dago zalantzarik aizkora- eta idi-proba horiek eguneroko lanarekin daudela lotuta. Pilota da lehen begiratuan *game* bat bezala agertzen zaigun bakarra: zoritik sortutako eta gerora araututako joko bat. Euskal kirola lehiaketa kategoriara igotako lana da, beharraren erresuman (Karl Marxen hitzetan esateko) izena eman gabe dagoen lana, hau da, produkzio materialetik kanpo ateratakoa, *lan ez-emanorra*. Euskal kirola indarra eta, aldi berean, arrazoia da (erreflexuak eta adimen espaziala), baita fedea ere; izan ere, beren traineruetan ahituta zeutzan arraunlari erromatar haiei buruz Virgilio poetak esan zuen bezala: “Ahal dute, ahal dutela uste dutelako”.

Euskal jokia —euskal kirola bereziki— lanean oinarritzen da. Artearen eta jokoaren aurrekari gisa ez ezik, biak existitzeko aukera izateko baldintza gisa ere agertzen zaigu lana. Schillerrek, 1795eko bere *Über die ästhetische Erziehung des Menschen* (Gizakiaren hezkuntza estetikoari buruzko gutunak) lanean, hamabosgarren gutunean bereziki, instantzia ludiko eta sortzailatzat hartzen zuen artea, gizakia zatikatuta ez dagoen jardueratzat, non pertsona osoa baita sartzen eta auzitan jartzen. Gauza bera gertatzen da jokoan: “gizatiarra denean bakarrik (hitzaren zentzu osoan) jokatzen du gizakiak”. Euskal kirola jokoaren kategoria horretan sartzen da: lanaren nekea energia askapenean eraldatzen da, indar-*xahuketan*, beharraren erresuma konkistatua izan delako baieztapenean. Traineru-estropada gizaki soilen arteko lehiaketa da, beren zereginetan azkarrena nor den erakusteko borroka, lana eta beharra gaindituak izan direla, natura zibilizazio bihurtu dela erakutsi nahian ari direnen arteko norgehiagoka.

Manuel Losadak konposizio diagonal bat eratu zuen *Arraunlariak* lanean; koadro horizontal luze bat osatu zuen, Ramón Zubiaurreren *Xanti Andia* ikono bertikalaren kontrapuntutzat har daitekeena. Losadak arraunlarien esfortzu erritmikoa irudikatu zuen, lana talde-esfortzu bihurtuta. Ezin ditugu ikusi arraunlarien aurpegiak (ile beltzeko buruak baino ez ditugu bistan), baina bai sentitu haien ukabil sendoak arraun soilei (marruskaduratik babesteko galabernarik gabe) tinko helduta<sup>9</sup>; esku-posizioen eta arraunari heltzeko moduen erakusgarri bikaina da lan hau da. Galernaren aurrean zutik dagoen kapitain baten irudi literarioa ematen digu Zubiaurrek, eta Losadak, berriz, ikono bihurtzen du trainerua.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Traineru modernoak hamalau tripulatzailetarako tokia dauka: hamahiru arraunlari eta patroi bat. Arraunlariak bina laguneko sei ilaratan banatuta egoten dira, eta horiei branka aldetik muturrean doan arraunlaria gehitu behar zaie (aurrekoa), bere tostan bakarrik doana. Patroiak, txopan zutik brankara begira, ontzia gidatzen du, lemaren lanak egiten dituen arraun handi bati helduta. Egungo trainerua eserleku finkoko kirol-ontzi bat da, pisuari eta neurriei dagokienez araudi zorrotza bete behar duena. Ontzien eta arraun-palen diseinuan izan den bilakaerak erabat aldatu du traineruen arraunketa-modua edo boga. [itzuli]

2. Itsasontzietan, berebiziko garrantzia du pinturak, zurezko egitura uretatik babesteko. Itsasontziak zuraren berezko kolorez irudikatuta ageri dira hemen, baina XVIII. eta XIX. mendeetatik aurrera, zuraren tonua ilundu egin zen, itsasontziei brea eta betuna ematen hasi baitzitzairen, babesgarri gisa. Gervasio Artiñanok *La Arquitectura Naval Española* liburuan azaltzen duenez, pintura oso proportzio txikietan erabiltzen zen, betunei eta pinturei esleitutako aurrekontuek salatzen dutenez: pinturan gastatzen zena halako bost gastatzen zen betunetan. Beraz, hain pintura gutxi erabiltzen bazen, pentsa liteke apaintze lanetarako bakarrik erabiltzen zela, eta alkaternei zegokiela babes-funtzio hori. Alboko margo-zerrendak (zuri-gorria, kasu honetan) ontzi zer herritakoa edo kofradiatakoa zen identifikatzeko balio zuen. Itsasontziak margotzeko gama kromatikoa zabala izaten zen oso. [\[itzuli\]](#)
3. Ikus, lan honetan, Nautika Eskolak kapitulua. Pilotatze-txalupa horiek portuko gidarien aurrekariak dira. Abrara iristen ziren itsasontziei Portugaleteko barratik igarotzen eta itsasadarretik nabigatzen laguntzera joaten ziren txalupak ziren, eta tasa baten truke egiten zuten lan. Talaiariak itsasontziak Abrara iristen ikusi orduko, traineruak elkarrekin lehian hasten ziren, itsasontzien ondora nor lehenago iritsiko; izan ere, iristen zen lehenak lortzen zuen lana. Ontziaren abiadura eta arraunlarien trebetasuna erabakigarriak izaten ziren, beraz. [\[itzuli\]](#)
4. Erreferentzia batzuen arabera, 1852an eta 1858an estropadak izan ziren Donostian, Napoleon III.aren bisita ofizial batean. [\[itzuli\]](#)
5. Santurtzin, Avilésen bezala, uztailaren 25ean egin izan ohi dira estropadak, Karmengo jaietan. Karmengo Ama Birjinaren Itsas prozesioa (Pio X.a aita santuak hiribilduaren zaindari izendatu zuen 1907an Karmengo Ama Birjina) inguru horretan egindako betelanaren euste- dikeak mugatutako eremuaren barruan egiten zen; zati pare bat amaitu gabe zituen orduan, eta handik ateratzen ziren Abrara traineruak. [\[itzuli\]](#)
6. 1881ean, sariaren 1.000 errealak Norvegiako txalupa batentzat izan ziren; 1882an, Lekeitioko marinelek irabazi zituzten arrantzako eta arrauneko bi estropadak. [\[itzuli\]](#)
7. 1912an, Bilbon, Kirol Kluba sortu zen, hiru elkarte hauek bat eginda: Zamacois Gimnastika, Bizkaiko Atletismo Federazioa eta Gorputz Hezkuntza. Klubak urte horretan bertan antolatu zituen bere lehen Gizarte Txapelketak, Abran. Igerilari handiak ziren tartean, hala nola Ramón Lequerica, edota Raimundo Moreno, Bilboko Athleticeko jokalaririk izandako Rafael Moreno “Pichichi” ahaztezinaren anaia (Miguel Unamunoren ahaideak amaren aldetik). Ramón Lequerica 1922an hil zen, pneumoniaz, eta azpimarratzekoa da hainbat pertsona ospetsu agertu zirela segiziora, hala nola Indalecio Prieto Bilboko diputatua, Juan Tomás Gandarias biziarteko senataria, Fernando Bravo Bilboko Kirol Klubeko presidentea, edo Abrako Itsas Klubeko Luis Arana. Apur bat lehenago, martxoan, Raimundo hil zen, igerilari bikaina; sei titulu irabazi zituen, meatze-ingeniarria zen, eta La Orconera meatze-konpainian lan egiten zuen. Atletismo Federazioko presidenteordea izan zen, 1917an, eta Madrilen egon zen denboran, meatze-ingeniaritzako ikasketak egiten, Athletic Madrilen sorreran (1903/IV/26) lagundu zuen. [\[itzuli\]](#)
8. José Ortega y Gassetek adierazi zuen lanaren eta kirolaren arteko aldea ez datzala neke gutxi edo asko hartzean. Haien arteko desberdintasuna honetan datza: kirola askatasun osoz egindako ahalegina da, atsegin hutsagatik egiten den jarduera; lana, berriz, behartuta egindako ahalegina da, etekina ateratzea helburu duena: “lanean, obraren bizitasuna da ahaleginari zentzua eta balioa ematen diona, eta kirolean, berriz, bat-bateko ahaleginak duintzen du emaitza; luxuzko ahalegina da, eskubeteka ematen dena, sarien itxaropenik gabe, norberaren barru-barruko energia- mukurua bat bezala”. [\[itzuli\]](#)
9. *Galaberna*: arraunak eraman ohi du errefortzu bat, arraun-zangoa toletarekiko marruskaduratik babesteko. Arrauna toletari lotzeko, sokazko eraztun moduko bat erabiltzen da, estropu deritzona. [\[itzuli\]](#)



## ESKULTURA: DURRIO

Bigarren Karlistaldiaren ondoren, hau da, 1876tik 1936ko Gerra Zibilera arte, Bilbo hiriak izugarritzko aurrerabidea egin zuen enpresa-arlo guztietan, ikusi dugun bezala. Alde horretatik, hirian jaiotako ingeniari eta arkitekto onen kopuru handia adierazgarria da oso. Bertan, Bilboko Zazpikaleetan, urte horietan sortutako artista kopurua ere ez da txikia. Darío de Regoyos eta Adolfo Guiard ez ezik, Parisera joan ziren, ia betiko, beste batzuk ere. Jose Maria Ucelay (1903–1979) 1922an joan zen, eta tarteka baino ez zen bueltatu; 1938an, Londresera erbesteratu zen, eta 1949. urtearen amaierara arte ez zen itzuli; Euskadiko Arte Ederren zuzendaria izan zen Gerra Zibilean, eta Eresoinka dantza-taldearen sustatzaileetako bat. Ignacio Zuloaga (1870–1945) hemeretzi urterekin abiatu zen Parisera, eta han ezkondu zen, Valentine Dethomas frantziarrekin. Frantzian izan zuen arrakasta eta kultur munduan egin zituen adiskidetasunak (Rainer Maria Rilke poeta, adibidez) AEBetan izan zuten segida gero. Francisco Iturrino (1864–1924) ere ez zen gehiago bizi izan Bilbon, 1883an Liejara ingeniartzat ikastera joan zenetik; Iturrino beste inor ez bezala agerrarazi zuten XX. mendeko historiografian Evenopoelek, Picassok, Matissek, Derainek edo Balthusek. Eta orain hemen aztergai dugun margolari handia, Francisco Durrio Granier (1868–1940), 1884an joan zen Parisera, betiko joan ere<sup>1</sup>; 1923an, Frantziako Ohorezko Legioko zaldun izendatu zuten<sup>2</sup>, eta Parisen hil zen, 1940an<sup>3</sup>.

Paco Durriok lan gutxi utzi dizkigu, baina garrantzi handikoak. Hori bai, bere maisutasuna eta gizatasuna utzi dizkigu. Haren etxea eta lantegia Bilboko kontsultatu gisa funtzionatu zuten Parisera joan ziren beste artista-belaunaldientzat. Baina, oroiz gain, Artearen Historiako pertsonaia esanguratsu bat dugu Durrio: bera izan zen Paul Gauguinen sormen-sua (Gauguinek albazea izendatu zuen Durrio 1895ean) Pablo Picasso gazteari pasatu ziona (1901ean iritsi zen Parisera Picasso, eta Durriok berehala eskaini zion laguntza jenio berrizat zeukan espainiar margolari gazteari; gauza bera esan daiteke Iturrinoz ere).

Durrio frantziar jatorriko merkatari batzuen semea zen (Adolfo Guiarden gurasoak bezala). Gurasoak Erribera kalean bizi ziren eta saskigileak ziren<sup>4</sup>. 1881ean, 13 urterekin, Durrio gazteak Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan eman zuen izena. Lecuonaren estudioan ere ibili zen, eta, han, Guiard (urte batzuk zaharragoa) eta Unamuno ezagutu zituen, besteak beste. Gaztaroko urte horietan, adiskide egin zituen bi enpresa-gizon ere: Horacio Echevarrieta eta Juan Tomás Gandarias. Badakigu Madrilen Arte Ederrak ikasten jardun zuela, Ignacio Zuloaga eta Pablo Urangarekin batera, bai eta haiekin egon zela ere Parisen, 1889an. Aitzitik, Frantziako hiriburura lehen aldiz noiz joan zen, 1884an edo 1888an, ez dakigu ziur<sup>5</sup>.

Ziur dakiguna da 1894an Paul Gauguinen lagunik minenen artean zegoela, eta haren jaietan parte hartzen zuela, emakumeez eta gitarrak lagunduta. Izan ere, Durrio (Darío de Regoyos ere bai) gitarra-jotzaile ona zen, ahots eta estilo onekoa, eta era guztietako musika herrikoa jotzen zuen, baita malageñak ere. Arteari buruzko bere iritziak oso aintzat hartuak ziren inguruko artisten artean<sup>6</sup>.

Durrioren eta Gauguinen arteko adiskidetasuna arteaz zuten ikuspegi bertsuagatik sortu zen ziurrenik. Gauguinek hainbat ekarpen egin zizkion artearen munduari, artistaren begirada hegoaldeko itsasoetarantz zabalduz (beste kultura batzuetako objektuak aintzat hartuz), pintura objektuen gainean aplikatuz (eskulturaren zentzuari beste begirada bat emanez), eta zeramika eta gisako arte txikiak aintzat hartuz. Durriok eta Gauguinek Ernest Chaplet zeramikariaren estudioan ezagutu zuten elkar, ziurrenik<sup>7</sup>. Gauguinek haren zeramika-lanak agerrarazi zituen bere margolanetako

batzuetan, hala nola 1989ko *Natura hila sagarrekin, udarearekin eta zeramika-pitxerrarekin* (*Nature morte aux pommes, poire et cruche en céramique*) izenekoan.

Mende bukaerako Parisko abangoardian gehien murgildu zen euskal artista izateaz gain, Durrio XX. mendeko lehen eskultoreetako bat izan zen zeramikaren autonomia azpimarratzen eta urregintza eskultura-bokaziotzat aintzat hartzen, Antzinaroan bezala, bai piezak erakusteko moduan, bai metalak bitarteko gisa definitzeko moduan.

Durriok berehala ulertu zituen Gauguinek eskulturaren eta lan grafikoaren zentzu-aldaketaz proposatutako ideiak. Gauguinen zurezko grabatuek zurean moldatutako erliebeen espekulazio eskultorikoa islatzen dutela interpretatu zuen. Zur gainean zizelkatzera bueltatu nahi izanak, dela grabatze-lanak egiteko, dela etxea apaintzeko, dela hiru dimentsioko eskulturak egiteko, herri primitiboen arte-zentzura itzultzea zen, besteak beste polinesiarrek beren habitata apaintzeko baliatzen zituzten forma eta istorioen berrerabilpenaren zentzura itzultzea, baina, aldi berean, eskulturak etxeetan duen funtsezko paperera itzultzea ere bai; ez bakarrik espazio publikoetan, baita baserrietan ere, eguzki-sinboloekin landutako haritz habeak, esaterako. Durriok oso aintzat hartu zituen gogoeta horiek, eta bere ikonografia piktorikoa zabaltzeko erabili zuen Gauguinen grafismoa, baina baita eskultura pentsatzeko bere modua zabaltzeko ere. Gauguinek erliebeen gisa grabatu eta estanpatu zituen bere paperak, eta erliebea, hala, eskultura guztiaren esperimantazio-toki bihurtu zen, egiptoar frisoetan edo Donatelloren *sottosquadroan* bezala<sup>8</sup>. Durrioren burmuinean ere —ez dakigu, ordea, Gauguinen eraginez edo berak hala pentsatuta zeukalako— etengabe nahasten ziren, koktel-ontzi batean bezala, arte primitibo, egiptoar, afrikar, etruriar edo kolonurrekoaren ezaugarriak Errenazimentuko edo XIX. mendeko artearen ezaugarriekin.

Durriorentzat —baina baita André Derain eta Henri Matisserentzat ere—, praktika eskultorikoa artistaren bere-berezko eta barru-barruko jarduera zen. Afrikako artea erosten lehena izateaz gainera, hura modu kritikoan eta positiboan aztertzen ere lehena izan zen bera<sup>9</sup>. Baita beste zibilizazio batzuetako artearen deiari erantzuten ere, betiere mendebaldeko tradizioaren ekarpen-zentzu hori galdu gabe. Kontuak kontu, bere bizitzaren amaieran, egiptoarren eta etruriarren arteak harrapatuta geratu zen Durrio.

Gauguinen zurezko tailuetan antzeman zuen horien arrastoa, hala nola 1894ko *Oviri* izenekoan (gaur egun, Parisko Orsay Museoan). Pieza hori (arte afrikarraren edo primitiboaren forma soilekiko lotura horrekin) giltzarria eta erabakigarria da Derain-en ondorengo ikerketa plastikoak<sup>10</sup>, edo Brancusirenak eta Markovenenak<sup>11</sup>, edo 1907ko Picassoren *Avignon andereñoak* (*Demoiselles d'Avignon*) ulertzeko<sup>12</sup>.

Gauguinek bere azken bidaia egin zuenean (1895), bere lanaren albatea izendatu zuen Durrio (1894–95an, estudioa partekatu zuten, Vercingétorix kalean). Gauguinek behin betiko alde egin zuenean utzi zizkion lanez gain, geroago bidali zizkion beste batzuk ere bere ardurapean eduki zituen Durriok. Horietako bat, *Ja Orana Ritou* urmargo bikaina: Gauguin bera da bertan irudikatuta dagoena, Tahitiko bere txabolan zutik marrazten, gona marrazkidun bat jantzita, eskuinean ohea eta ezkerrean aulki bat dituela. Durriok hainbatetan eskaini zion Gauguinen lanen bere bilduma Bilboko Arte Ederren Museoari, baina ez zuen arrakastarik izan. Echevarrieta familiak (Durrioren mezenasak), berriz, bi pieza erosi zituen, 1889. urtekoak biak<sup>13</sup>: *Egun on, Gauguin jauna* (*Bonjour, Monsieur Gauguin*, gaur egun Pragako Narodny Gallery-n), eta Jacob Meijer de Haan pintore holandarraren erretratu bi: bata zur gainean (Museum of Modern Art, New York) eta bestea, tenpera teknikaz egina, *Nirvana* izenburua duena. Elkarren adiskidetasunaren oroitzapena ere nabaria da Gauguinek, Parisko geltokian Durrio agurtu eta zazpi urtera, urrutiko Marquesas uharteetan egin zuen erretratuan, non gitarra jotzen irudikatu baitzuen Durrio: *Gitarra-jotzailea* (*Le Joueur de Guitare, Portrait de Francisco Durrio*, ca. 1900). Azken hori *pendat* bat da, hau da, beste margolan batekin batera bikotea osatzen duena; kasu honetan, Fritz Schneklud biolontxelo-jotzailearen erretratu zuten bikote-laguna. Bi margolarien adiskidetasunaren

beste erakusgarri bat Durrioren beraren ikatz-marrazki erraldoi bat da; John Richardsonen arabera, biluzi baten estudio dramatiko bat zen, maori baten gisa irudikatua<sup>14</sup>.

Gauguinen begirada artistikoaren eta garrantziaren zabalkundea 1903ko udazkeneko erakusketekin hasi zen (omenaldia egin zitzaion, hil berritan, *Salon d'Automne* sortu berrian)<sup>15</sup>, eta 1906ko atzerabegirakoak eman zion segida (250 lan, Areto hartan bertan). Garai hartan garrantzia izan zuten beste erakusketa batzuen artean, aipagarriak dira, adibidez, erakusgaien artean Ingresen *Bainu Turkiarra* (*Bain turc*) izan zuena 1905an, edo Seurat eta Cézanneren atzerabegirakoak, edota Parisko galeria askotan eskultura etnografikoaren inguruan antolatutakoak. Parisko erakusketa handien mundu hori Bilbora eramaten ere saiatu zen Durrio<sup>16</sup>. Gainera, erakusketak antolatzen lagundu zien euskal margolari gazteei, eta Picasso gaztearen talentuaren jakinaren gainean ipini zuen Regoyos bera<sup>17</sup>.

Ez dago zalantzarik Durriok ez ziola buztin modelaketan eta suaren erabileran (suak pigmentuei eragiteko moduan) bakarrik lagundu Picassori; Jaime Sabartések —Picassoren lagun leiala— adierazi zuen bezala, ikuspegi artistikoa itxuratzen ere lagundu zion, estatuak egiteko artearen eta teknikaren ikuskera “multikultural” horretan bereziki. Alfred Barr izan zen lehena, 1939an, Picassoren obran Afrikako arteak izan zuten eraginaren inguruko topikoak botatzen. Picassok bere plastika Osunako erliebe hispaniarraren eta ez beste ezeren zordun zela adierazteko eskatu zion bere editoreari, Christian Zervos-i (Louvren ikusiak zituen erliebeok). Horixe bera esan zuen James Johnson Sweeneyk ere bere *Picasso and the Iberian Sculpture* lanean<sup>18</sup>; beste autore batzuek eskultura erromaniko katalanaren eragina aipatu izan dute, eta Josep Palauk, adibidez, Gosoleko Ama Birjinarena zehazki.

Baina Picasso multikulturalagoa zen eta Durrioren aholkuei jarraitu zion, ikuspegi artistiko zabala baitzuen. Durriok greziar arkitekturaren orekaren eta eredu asiriarren, egiptoarren eta, oro har, primitiboen arteko nahasketa bilatu zuen bere monumentuetan, ez bakarrik eredu afrikarrena. Gauguin eta Durrioren kategoria estetikoak Tahitiko arte primitiboaren edo egiptoar edo iberiar munduaren imitazio hutsetik harago doaz. Durrioren ustez, aberrik eta izenik gabeko estetika bat hartu behar da, leku antropologikorik gabeko estetika bat, non diskurtso guztiak baliagarriak eta elkarren osagarriak izango diren. Picassok bere gain hartu zuen ikasbide hori, eta garapena eman zion.

Durriok Parisera joandako beste eskultore espainiar batzuei ere lagundu zion (Pablo Gargallori eta Julio González, esaterako), eta harreman ona izan zuen bere garaian arrakasta izan zuten hainbat lagunekin, hala nola Zuloagarekin edo Iturrinorekin<sup>19</sup>. Goraxeago esan dudan bezala, Durriok Picasso gazteari pasatu zion, hau Parisera iritsi berritan (1900), Gauguinen pentsamendu bisualaren su sortzaile hori. Bestalde, Bateau-Lavoirreko bere apartamentua ere utzi zion.

Picassoren biografoek hiru gertakari aipatzen dituzte Durrio-Picasso harremanean:

- Sabartesekin<sup>20</sup> goizaldera arte eskulturaz hitz egiten egon ziren gaua: Gauguinen *Noa Noa* liburu argitaratu berriaz eta ozeanoko totem handiez hitz egin zuten batez ere; 1902. urtea zen<sup>21</sup>,
- 1904ko egunik gogorrenetan, Durriok jaten eman zion, ezkutuan, Picassori: ardo botila bat, sardina lata bat eta ogi bat. Elikagai horiek Picassoren estudioaren atarian agertzen omen ziren egunero, haren harridurarako. Picassoren orduko neskalagun Fernande Olivier-en *Picasso et ses amis* memoria goiztiarretan adierazten da hori<sup>22</sup>,
- Azkenik, 1905ean Picassok Durriori egin zion oparia, *Holandar ederra* (*La Belle Hollandaise*) koadroa, eskaintza eta guzti: “nire lagun maite Paco Durriori”<sup>23</sup>.

Beste argitalpen batzuetan azalduak ditut batzuek eta besteek Picasso gazteari emandako babes horren lekukotasunak<sup>24</sup>. Obra askotan agertzen dira Durriori buruzko erreferentziak. Hiru nabarmendu behar ditugu: René Puig-en *Paul Gauguin, G. de Monfreid et leurs amis*<sup>25</sup> eta Gauguin edo Picassori buruzko azken bi biografia erudituek. Hala, David Sweetman-ek honela dio Durrioz bere *Paul Gauguin. A Complete Life* liburuan: “Ordaindu gabeko agente gisa jarduteko aukeratuetakoa bat izan zen, eta haren hogeita hamar bat lan gorde zituen beretzat, horien artean, *Kristo Horia* eta artistaren amaren erretratuak. Gauguinek ez zezakeen halakorik aurreikusi, baina gizon kartsu hori izan zen egin zezakeen hauturik zuhurrena: Durriok haren lanak eskegi zituen, eta hainbat urte geroago behartasun gorriak saltzera premia arte ez zen haietatik banandu. Hori baino lehen, desagertutako Gauguinen eta artista gazteen belaunaldi berriaren arteko lokailutzat erabili zituen lanok Durriok. Belaunaldi horretakoa zen, noski, Durrioren herrikide Pablo Picasso ere, zeina Polinesia urrun hartan galdutako salbaiaren ospea betiko ahantzi ez zedin arduratu baitzen”<sup>26</sup>.

Bere aldetik, Picassoren biografoetan azkenak eta zehatzenak, John Richardsonek, zioenez, Picassok buztinezko bere lehen eskulturak (gaur egun galduak) Durrioren laguntzarekin egin zituen, haren labean, baina Fernanderekin burua landu zuenetik aurrera (1906), behin Picassok kubismorako bidea hartuta, haien bien arteko harremana hondatzen hasi zen: “Picassoren lehen zeramikak garrantzitsuak dira Gauguinekiko lotura zuzena mantentzeko, eta lotura hori gehien landu zuena Paco Durrio izan zen, Picassoren Bateau-Lavoireko estudioko aurreko maizterrak [...]. Artean ez da kontuan izan zenbateraino lagundu zioten Durrioren teknikak Picassori goitik behera aldatzen zeramikaren artea Vallauris-en, berrogei urte geroago”<sup>27</sup>.

Charles Morice kritikariak Durrio aukeratu zuenean *Le Mercure de France*ren 1905eko udako ale berezian hausnarketa batzuk egiteko, agerian geratu zen berriz ere haren garrantzia. Moricek bost galdera egin zizkion hainbat artistari, bizi ziren garaiko arte plastikoaren joeren inguruan<sup>28</sup>.

Gauguinek zer esan nahi duen galderari emandako erantzuna argia da. Durrioren ustez, “Gauguin jenioa da, eta ez dakit besterik zer erantsi hitz horri” (“Mais, Gauguin, c’est: Le Génie – et je ne sais pas de commentaire à donner à ce mot”). Baina eskultura zer den galderari emandako erantzuna erabatekoa da eta ulergaitzagoa oraingo irakurleentzat. Honela dio Durriok: “Pintura eta eskultura, arkitekturaren ahizpa gazteenak, lausotuak eta isiltasunean galduak bezala daude gure garai hauetan, ahizpa nagusiaren faltan: bere benetako esanahiaz, hau da, dekorazioaz, biluztuta ageri ohi dira. Ez dut uste artea bere burua birstortzen ari denik, nahiz eta badugun ere artista handien elite bat, nik guztiz miresten dudana. Aitzitik, arrunt bihurtzen ari dela iruditzen zait, eta margolari inpresionistei, neurri handi batean, eta Arte Ederren Eskolari, oro har, egozten diet horren errua. Bai batzuek, prozesu horren garrantzia puztuz, bai besteek, gezurrak esanez, intuizio eskaseko jendetza bat adoretu dute, artea hondatzen ari dena eta benetako artistei kalte egiten ari zaiena”.

Eta azkenik, Durrioren filosofia bisuala azken galderan dator emana: “Zure ustez, artistak dena itxaron behar du naturatik, ala bere baitan dagoen pentsamendua gauzatzeko baliabide plastikoak baino ez dizkio eskatu behar?”. Durriok bere lagun Stéphane Mallarmé poeta aipatuz erantzun zuen: “Natura, ordea, bilatu beharreko aholkua besterik ez da, zentzu batean; nik askotan errepikatzen dut Mallarméren esaldi hau, izugarri gustatzen zaidana, hitz gutxitan laburtuta aurkitzen baitut bertan dena: poeta (edo artista, gauza bera baita, ezta?) da naturari benetakotasuna ematen diona”.

Esana dut obra gutxiko artista dela Durrio. Haren obrarik onena, nire ustez, Juan Crisostomo de Arriaga (1806–1826) musikari bilbotarraren omenezko monumentua da. Bilbok duen monumenturik onenetakoa, ziur asko, XX. mendearen lehen herenean Espainian egindako eskultura publiko interesgarriena.

Monumentu hau sortzeko asmoa 1905eko martxokoa da. Urte hartan, mozio bat aurkeztu zen Udaletxean, musikariaren omenezko monumentu bat egiteko, haren jaiotzaren mendeurrena zela eta. Udalak, ideiarekin ados, proiektu-lehiaketa bat antolatu zuen, eta Durriok irabazi zuen, ez erretratu-estatua batekin, sinbolo-monumentu batekin baizik. Ez zegoen musikariaren inolako ikonografiarik, ez argazkirik, ez erretratu fidagarririk, XIX. mendeko bi erretratu margotu besterik ez, daggerrotipo faltsu batean oinarrituta moldatuak nonbait<sup>29</sup>. Durrio Parisera joan zen, bere estudiora, eta han hasi zen bere monumentuan lan egiten, astiro; gorabehera askoren ondoren<sup>30</sup>, monumentua 1993ko abuztuan inauguratu zen, eta Euskal Artisten Elkarteak egun batzuk geroago omendu zuen Durrio, Artxandako Txakoli Popular jatetxean.

Eskultura ez da musikariaren erretratu bat —ez errealista, ez irudizkoa—, baizik eta monumentu bat —hitzaren zentzu etimologikoan: izan ere, monumentu hitza latinezko *monere*-tik dator, eta pentsarazi eta gogoarazi esan nahi du—, musikaria gogorarazteko sinbolismoari begiratzen dion obra bat: egitura angeluzuzeneko urmael batetik, emakume baten brontzezko irudi bat sortzen da (Artearen Musa da, hau da, Melpomene), musikariaren heriotza goiztiarragatik infiniturantz intzirika<sup>31</sup>. Musak musikagile hilaren arima irudikatzen du, eta heriotza horrengatik bere desadostasuna azaltzeko, bere bularra jotzen du liraz, haren sokei negar eraginez: liraren sokak urezko sokak dira, eta lira, berriz, biziaren zuhaitza da. Ur-negar-musika hori zintzo-zintzo jasotzen du basamentuko maskarak —sortaldegar itxurakoa, betierekotasunaren sinboloa—, bere eskuak —meditazio jarreran hormatik sortuak— lokietan bermatuta dituela, eta ura, orain malko bihurtuta, min etsi bilakatuta, putzu batera isurtzen duela. Ekialdeko sinbologian, bi modutara agertzen da arima: uraren melodiaren bidez, eta lurrian proiektatutako irudi-itzalaren bidez.

Oinarriaren behealdeko frisoek pentagrama bat irudikatzen dute. Bost lerro horizontal horietan irarrita ageri diren musika- notak eta txori-siluetak kantua adierazpen bizia dira<sup>32</sup>. Sortaldeko hileta-ikonografian, hildakoek txori zuri saldoak (aingeruak) izaten dituzte bidelagun heriotzaz haragoko etxe beatifikora doazenean, beren txioekin bidea alaituz. Monumentuaren atzealdeko maskaroiak (maskara aztekek dirudite) gogoeta sinbolizatzen duten bi oihu dira, eta ura darie ahotik, bi inspirazio-iturriren gisa soinua ateraz. Bi sirena direla pentsa daiteke, Melpomenen alabak hain zuzen, daramatzaten hegalek direla eta. Sirenen tradizio hori —emakume hegazti gisa irudikatzen dituen, ez emakume arrain gisa— Egiptotik dator: gorputzetik bereizitako arimaren sinbolo gisa irudikatuta agertzen da han sirena. Sinbolismo hori bera izan zuten ere denbora luzez greziar hilobietan, baita Errusia ekialdeko teogonietan ere, non bi sirena baitituzte, hain zuzen: Sirin eta Alkonost. Arestian aipatu dugun Meijer de Haan margolariaren *Nirvana* erretratu horretan ere agertzen dira sirena horiek. Egia esan, Durrioren bi maskarak gogorarazten dizkigute, erretratuaren arimaren soinua balira bezala. Monumentu multzoak bi oinarri nagusi ditu: giza irudiaren oinen simetria, batetik, eta estatuak gorputzaren eta buruaren inklinazio horrekin inspiratzen duen goranzko (infiniturantzko) mugimendua, bestetik. Azkenik, urmaeleko urak bizia irudikatzen du, musikariak gorako ihesbidean bertan behera utzia zuen bitzita.

Idea gisa ulertzen ditu Durriok Arriaga eta haren musika, halako eran, non Musaren eskultura klasikoak, bere bular sutan erreztatuarekin (Errenazimentuko *gilding* teknikaren antzera), naturaren indarrak pertsonifikatzen dituzten eta espiritualtasun sortaldetarrago bat ageri duten forma oinarritzko eta eskematizatu horietara (musekin alderatuz gero, behintzat) bihurtzen du bere kantua. Arriagaren musika zeruaren eta lurraren artean dagoen ur elementu gisa dago irudikatuta monumentuan, isiltasunaren erdian hartutako atsedean gisa. Gustavo Kahn *Irudien Liburua* idatzi zuen poeta sinbolista frantziarraren hitzen oihartzuna sumatzen dugu hor: “Gure artearen helburu nagusia subjektiboa dena objektibo bihurtzea da (ideiak kanporatzea), objektiboa dena subjektu bihurtzea baino gehiago”. Bestalde, monumentu hau ez dago oso urrun Jacob Epsteinek Oscar Wilderen Pariseko hilerriko panteoia egin zuenean (1911) buruan zerabilen ideiatik: panteoia Wilderen poema bat berrinterpretatzen du, *The Sphinx*, British Museumeko zezen zaindaria asiriarrak gogorarazten dizkigun 20 tonako harrizko esfinge fantastiko baten bidez. Errege aurpegiko lehoi hegodunak gogoan, Epsteinek, gazte hegodun baten irudi erraldoi bat zizelkatu zuen, belaunak tolestuta eta besoak atzerantz luzatuta, haize kontra hegan ari balitz bezala. Gazteak egiptoar aurpegia dauka (ezpain zimurtuengatik,

burukoarengatik eta orrazkerarengatik diogu), baina kokotsa gizon azteka batena da. Era horretan moldatu zuen Durriok ere Echevarrietarren panteoiko ateko tximeleta multzoa, japoniar artean hain ohikoak diren erritmo eta harmonia musikalen balioa gogorarazten dizkiguten papar-orrazzetako eta eraztunetako gizon-emakume edo suge korapilatu haiek moldatu zituen bezala. Stéphane Mallarmék Societe d'Art Modern-eko aretoetan Lekeitioko Abaroa bankariarentzat egindako lau zeramikazko pitxerrak ikusi zituenean esan zuena esan daiteke Durrioren lan honi buruz ere: “on sent qu'ils son faits pou toujours”, hau da, betirako eginak direla sumatzen dugu.

Durriok hizkuntza propio bat berrasmatu zuen, eta ez bakarrik Musaren irudikapen horretan (gorputzaren sentsualtasunetik santutasunera, sedukzioetik lirismora, ludikotasunetik malenkoniara doan horretan). Monumentuaren zentzua bera berrasmatu zuen, Arriaga musikaria musa batekin —artistaren heriotza kantatzen eta aldi berean deitoratzen duen emakume-irudi batekin— ordezkaturik. Arkitekturazko oreka greziar-erromatar hori brontzezko irudiarekin eta beste kultura batzuei eta haien sinboloei egindako erreferentziekin nahastuz berrasmatu zuen monumentua. Eta multzo multikultural, harmoniko eta guztiz urbano horrekin asmatu ere.

[Itzulzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1980tik aurrerako nire argitalpenak: Kosme de Barañano, “Paco Durrio”, in *La Gran Enciclopedia Vasca*, XXIII. libk., 234. fasz., Bilbo, 1980; eta Javier González de Duranarekin egindako bi entseguak, “La Exposición Internacional de Pintura y Escultura en Bilbao 1919”, in *Kobie*, IV. zk., Bilbo, 1987; Kosme de Barañano y Javier González de Durana, “El escultor Francisco Durrio, Epistolario, Catálogo y Notas sobre su Vida y Obra”, in *Kobie*, V. zk., Bilbo, 1988. Ondoren, Durrio, Julio González, Manuel Hugué eta Pablo Gargalloren biografia konparatu bat argitaratu nuen: Kosme de Barañano, *Escultores y Orfebres*, Bancaixa, Valentzia, 1993. Orobat argitaratu nuen Javier González de Duranaren *Francisco Durrio (1868–1940). Sobre las huellas de Gauguin*, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 2013. Katalogo honetan, Maria Amezagak moldatutako biografia inork egindako sakonena da; 1980ko nire lehen saiakeratik egin diren lan guztien artean baliozko bakarra: Maria Amezaga, *Paco Durrio. Viviendo en París*, Urbitarte Editores, Bilbo, 2013. [itzuli]
2. *Le Figaro* egunkarian, 1923ko otsailaren 12an. [itzuli]
3. Pierre Paul Joseph Girieud (Paris, 1876 – Paris, 1948). Montmartreko margolaria. Bere memorieta, *Souvenir d'un vieux peintre*, Durriori buruzko hainbat oroitzapen utzi zizkigun ([http://edartiguelongue.free.fr/girieud\\_souv/index\\_souv.php#](http://edartiguelongue.free.fr/girieud_souv/index_souv.php#) (nom27a). Hau idatzi zuen Durrioren heriotzaren kariaz: “Garaikide gutxi dakite hori. Gaur, Picassok eta biok bakarrik ekar dezakegu gogora, nire lagun Paco Durrio gaixoa hil berria baita, eta haren estudioan maitemindu zitzaion Picasso, han entzun zuen kantari urretxindorra”. (“Peu de contemporains le savent; aujourd’hui seuls Picasso et moi pouvons nous en souvenir car mon pauvre ami Paco Durrio vient de mourir et c’est dans son atelier que Picasso reçut le coup de foudre, où entendit chanter le rossignol”). [itzuli]
4. Pierre Girieuden arabera: “Bilbon jaio zen, frantsesak zituen gurasoak. Berez, François Durrieu de Madron zuen izena. Haren aitona batailoi-buru izan zen Napoleon I.aren aginduetara, eta Ohorezko Legioaren domina zuen” (“Né à Bilbao de parents français, il se nommait en réalité François Durrieu de Madron, son grand-père avait été chef de bataillon sous Napoléon 1<sup>er</sup>, décoré de la Légion d’Honneur”). Espainian gelditu ziren edo geroago itzuli ziren ofizial haietako bat izango zen agian. Euskal Herrian gelditu zirenek, behintzat, ez zuten bazterketarik jasan. Gainera, Girieudek dioenez: “Espainiako haurtzaro aldiak espainiar peto bihurtu zuen. Hainbestearino, hau esaten baitzuen berak bere buruz: ‘Andaluziarra ere banaiz, mairua naiz, eta areago oraindik, afrikarra naiz’”. (“Cependant son enfance en Espagne en

avait fait un véritable espagnol, à tel point qu'il disait: 'Je suis même Andalou, je suis plus que cela, je suis Africain").  
[itzuli]

5. Itxura guztien arabera, Paco Durriok Pariseko bere lehen egonaldian (1884an edo 1885ean) egin zituen bere lehen urratsak zeramikaren artisautzan eta letoiaren modelaketan, Ernest Chaplet zeramikagileak (1835–1909) Blomet kalean zuen lantegian. Haren sinadura eta 1885eko data agertzen dira han moldatutako hautsontzi esmaltatu batean (Joaquín Achúcarro pianistaren bildumakoa). Lantegi horretan ezagutu zuen, hain zuzen, Durriok Gauguin (1848–1903), 1886ko urrian edo azaroan. Durriok Alphonse Mucha (1860–1939) artista eta urregilearekin ere ikasi zuen (Chez Charlotte jatetxearen kanpoaldea dekoratua zuen Muchak), eta Grande- Chaumière kaleko estudioa partekatu zuen harekin eta Gauguinekin 1893an. Ez dago zalantzarik 1888ko amaieran Parisen zegoela Durrio, eta 1889an Zuloaga eta Urangarekin zegoela. Beste autore batzuen arabera, 1892. urtean egin zuen Pariserako lehen bidaia: David Sweetman, *Paul Gauguin. A complete Life*, Hodder & Stoughton, Londres, 1995, 379. or.: "Durrio 1892an etorri zen Pariserara, Bilbotik, eskultura ikastera" ("Durrio had come to Paris from Bilbao in 1892 to study sculpture"). Oraingoz, inork ez du *Escultores y Orfebres* lanean argitaratu nuen kronologia ezeztatu dezakeen daturik aurkeztu. Durrioren eta Gauguinen arteko adiskidetasuna lehenagokoa da, eta indar berria hartu zuen Gauguin Tahititik itzuli ondoren, hau da, 1893ko abuztuaren 30etik 1895eko ekainaren 28ra bitartean Parisen igaro zituen hogeita bi hilabeteetan. Grande-Chaumièrereko 8. zenbakian zeukan estudioa Gauguinekin partekatzeaz gainera, Durrio ohiko solaskideetako bat izan zen Chez Charlotte jatetxean izaten ziren solasaldietan. Uste dugu Maria Amezagak datu gehiago eman ahalko dituela etorkizunean. [itzuli]
6. Ikus, 3. oharrean, Pierre Paul Joseph Girieudek bere *Souvenir d'un vieux peintre* lanean Durriori buruz jasotako oroitzapenak. 1901. urtean jada Durrio eta Picasso estatuak egiteko modu desberdinen inguruan hizketan jarduten zutela azaltzen du. [itzuli]
7. Ikus Kosme de Barañano, *Escultores y Orfebres, op. cit.* [itzuli]
8. Tériade editoreak *L'Intransigent* egunkarirako egindako elkarrizketa batean, honela erantzun zuen Matissek: "Gauguin matxinatu egin da. Horrexek mantendu du bera zuek *akabatuta* uzten zaituzten —horuko hitzetan esateko— giro horren erdian. Bere izaera borrokalaria eta bere gurutziltzatu egoerak sorgortasun orokorretik babestu dute. Bere buruzaletasunak eragindako zauriek ere erne mantendu dute" ("Gauguin, lui, est parti en révolté. C'est ce qui l'a tenu au milieu de cette ambiance qui vous liquéfie comme on dit là-bas. Son caractère combatif, son état de crucifié l'ont préservé de l'engourdissement général. Ses blessures d'amour-propre le tenaient en éveil"), in *Henri Matisse: Ecrits et propos sur l'Art*, Paris, 1972, 101-02 or.). [itzuli]
9. Afrikar artearekiko eta kolonaurreko artearekiko interes hori nabarmen agertzen da Girieud margolariaren bi pasarte hauetan: "Baina oraingoa, honek (Manolo Hugué) dena lapurtu zion, oheko arropa, arropa, arma eta eskultura beltzak, baita Gauguinen oihal guztiak ere, gouacheak, marrazkiak eta grabatuak, dena 500 liberaren truke salduta". ("Mais cette fois celui-ci (Manolo Hugué) le dévalisa complètement, vendant literie, vêtements, armes et sculptures nègres et même toutes les toiles de Gauguin, ses gouaches, ses dessins, ses gravures pour une somme de 500 francs"). Eta: "Pakok bi maskara txiki jaso berri zituen Mexikotik, bata alabastroan, bestea diorita beltzean, gero kopia askotan ikusi ahal izan ditugunak bezalakoak; haiei begira egon ginen hirurak, planoen soiltasuna eta sudur, bekain, ezpainen bolumenak nabarmenduz. Egun batzuk geroago, ordea, Picassoren estudioan sartzean, hor non ikusten dudana astoan, pixka bat lehenago akrobaten oihal handi bat egon zen lekuan, irudi triangeluar bat okrez, sienaz, urdinez eta berdez margotua". ("Paco venait de recevoir du Mexique deux petits masques l'un en albâtre, l'autre en diorite noire, tels qu'on en a vu depuis maints exemplaires; nous les admirions tous les trois, remarquant la sobriété des plans déterminant les volumes du nez, de l'arcade sourcilière, des lèvres etc. Or, quelques jours plus tard, en entrant dans l'atelier de Picasso, je vis sur le chevalet où peu de temps auparavant se trouvait une grande toile de saltimbanques, une figure triangulée et peinte avec des ocres, des terres de Sienne, des bleus et des verts pourris"). [itzuli]
10. Ikus nire saiakera: Kosme de Barañano, "Paul Gauguin: obra gráfica", BBK Fundazioa, Bilbo, 1999; eta Kosme de Barañano, "Redescubrir a Derain", in *André Derain*, Instituto Valenciano de Arte Moderno, Valentzia, 2002. Derain izan zen lehena Parisko Trokadero Etnografia Museoa bisitatzen (Ernest Hamyk sortu zuen museoa, 1878an) eta

lagunei gomendatzen, baita British Museuma bisitatzen ere, 1905eko udan. Vollard galeristak berriro bidali zuen Londresera 1906an. Hiru hilabete eman zituen han (urtarrilaren 29tik martxoaren amaierara arte), hiriaren hogeita hamar koadro margotu zituen (Claude Monetek urte pare bat lehenago moldatutako *vedute* ospetsuen erantzun gisa), eta Beningo brontzeen erakusketa bisitatu zuen. Ikus nire erakusketa eta katalogo hau: *Redescubrir a Derain, André Derain* (Arte Modernoaren Valentziako Institutua, Valentzia, 2002); eta *Andre Derain, The London Paintings* erakusketa (Londresko Courtauld Institute, 2006) eta erakusketa-katalogoa (saiakeragileak: Jacqueline Munck, Parisko Arte Modernoaren Museok kontserbatzailea; John House, Courtauld Institute-ko irakaslea; eta Nancy Iresson, XX. mendearen hasierako arte frantsesean espezializatua). Badakigu hogeita hamar margolan egin zirela guztira, eta horietatik hogeita bederati egon ziren ikusgai. 1901-1906 bitartean, hau da, Derainek filosofia bisualari buruzko gaiak planteatu zituenetik Gauguinen atzerabegirako handia egin zen artean, ondo finkatuta geratu ziren arte primitiboa ikuspegi berri batekin begiratzeko eta asmo eraikitzailez berrikusteko oinarriak. [\[itzuli\]](#)

11. Durrioren beste lagun bat, Vladimir Markov artista letoniarra (Waldemar Matvejs, 1877, Riga – 1914, San Petersburg), bi lan hauen egile da: *The Art of Easter Island* (San Petersburgo, 1914) eta *Iskusstvo Negrov* (*Art of the Negroes*, bera hil ondoren argitaratua, 1919an). Markov, Durrio bezala, arte primitiboa abangoardiarekin lotu zuten aitzindarietako bat izan zen, Carl Einstein-ek *Negerplastik*-en egin zuen bezala. Ikus Errusiako Estatu Museoko 2004ko urri-azaroetako erakusketa hau, *Markov. Painting, Photography, Archive Materials, Sculpture from the Easter Island and Northern Asia*, Letoniako Estatutako Arte Museoaren laguntzarekin apailatua (katalogoa errusieraz eta ingelesez). Artista honen pintura arte primitiboari buruzko bere argazki eta dokumentu gisa aurkeztu zituen. [\[itzuli\]](#)
12. Errepara diezaiogun une batez Picasso Bateau-Lavoirreko estudioan agertzen den argazkiari (ca. 1908). Argazkia 1910eko maiatzean argitaratu zen, *The Architectural Record* aldizkari amerikarrean, Frank Gelett Burgess-en (1866–1951) “The Wild Men of Paris” izenburudun artikuluan (erreportaje horretan agertzen da ere lehen aldiz *Demoiselles d’Avignon* koadroa). Argazkian, Picassoren atzean, Kaledonia Berriko eskultura batzuk ageri dira, Picassok Gauguinen atzerabegirakoa ikusi ondoren (1906) eta Burgess-en bisita jaso baino lehen (1908) erosiak: bi estatua txiki eta maskara bat. [\[itzuli\]](#)
13. Ikus Kornfeld galeriaren enkante- katalogoa, 1989ko ekaina, 31. zk. [\[itzuli\]](#)
14. *Fritz Schneklund* biolontxelo- jotzailearen erretratua (Richard Brettellek aipatua) Grand Palais-eko 1988ko katalogoan agertzen da, 314. orrialdean. Eta Durrioren beraren ikatz-marrakizi handi bat, oso handia, hemen: Peter Zegers, ibid. 314. or., 8. zk.; kat. Washington, 315. or., 9. zk.); John Richardson-en arabera, biluzi baten estudio dramatiko bat da, non maori bat balitz bezala irudikatuta agertzen baita (*Life of Picasso*, I. libk., Random House, New York, 1991, 519. or.). [\[itzuli\]](#)
15. *Salon d’Automne* (Rodin, Renoir, Roualt, Derain, Matisse eta Marquetek 1903an sortua) eta *Salon des Independants* (Redon, Seurat, Signac eta abarrek 1884an sortua) erakusketetan (urri-azaroetan lehena, martxotik maiatzera bigarrena) ematen zen ezagutzera orduko artista gazteen pintura-jarduera. Gainera, Parisen bertan, maiatzean, *Salon de Paris* delakoa antolatzen zen, Parisko Arte Ederren Akademiaren arte ofizialaren erakusketa zena eta 1880tik Société des Artistes Français elkarteak antolatuko zuena. 1863an, hainbeste obra errefusatu zituen erakusketaren epaimahaiak, ezen, Saloia demokratikoa zela frogatzeko, Napoleon III.ak *Salon des Refusés* erakusketa sortu zuen. 1890ean, Ernest Meissonier, Puvis de Chavannes, Auguste Rodin eta beste batzuek Société Nationale des Beaux-Arts sortu zuten, erakusketa propioa eta guzti: *Salon de la Société Nationale des Beaux-Arts* delakoa, artistek berek *Salon du Champs de Mars* deitua. Bestalde, Artisten Sindikatuaren 1897ko zatiketa batek *Salon d’hiver* sortu zuen, 1907an: erakusketa Gran Palais-en egin zen, abenduan (eta gerraren ondoren, Parisko Arte Modernoaren Museoan). [\[itzuli\]](#)
16. Arte modernoko erakusketak Berastegiren eskoletan, 1900, 1902 eta 1903an, abuztuan eta irailean. Gauguinen eta inpresionisten lanak Durriok ekarri zituen. 1919ko Nazioarteko Erakusketa izan zen horren guztiaren une gorena. [\[itzuli\]](#)
17. 1902ko martxoaren 1ean, Ravnigan kalearen 13an zela, Regoyosi idatzitako gutuna: “Talentu handiko mutila”. Durriok Bruselako La Libre Esthétique elkartearen erakusketetan parte hartu zuen, 1896an, 1898an eta 1902an. [\[itzuli\]](#)



18. James Johnson Sweeney, "Picasso and the Iberian Sculpture", in *Art Bulletin*, New York, 1941eko iraila, Millard Meiss zela aldizkariaren editorea. New Yorkeko Arte Modernoaren Museoko kurator eta ohorezko zuzendaria izan zen Meiss. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Italiako Monumentuak Zaharbertzako Amerikako Batzordeko buru izan zen. Sweeney izan zen Eduardo Chillidaren eskultura gehien babestu zuenetako bat. [\[itzuli\]](#)
19. Zuloagak harreman estua izan zuen, 1891 eta 1895 artean, Gauguinen taldearekin (Paco Durrio, Émile Bernard, Paul Maurice). Lehen urte horretan, bi paisaia aurkeztu zituen Le Barc de Boutteville galeriak antolatutako erakusketa batean. 1895ean, estudioa Durrio eta Gauguinekin partekatzen zuela, beste sei margolan jarri zituen erakusgai, Le Barc de Boutteville galerian bertan. [\[itzuli\]](#)
20. Britainian, Hegoaldeko Itsasoetan eta Polinesiar barna ibili arren, bada Gauguinen Antzinate Klasikorako eta Urrezko Arorako begirada bat ere, berak Puvis Chavannes-en lanetatik eta Ovidio eta Virgilioren testuetatik jaso zuena, bere gutunetan adierazten duen bezala. Gutun horietan, Giotto, Cimabue eta Fra Angelico artistak aipatzen ditu, baita Erromako antzinako monumentuen argazkiak biltzen dituela ere. [\[itzuli\]](#)
21. Zenbait pertsoniarekin topaketa garratza izan ondoren solasean emandako gau hura lanik eta dirurik gabeko gau bat izan zela azaldu zuen Jaime Sabartek: "Ravignan kaletik igota, Bateu-Lavoirren sartu ginen, Paco Durriorekin hitz egiteko. Kaleko aireak eta Durriorekin izandako elkarrizketak on egin zioten Picassori. Halako interesa erakutsi zuen Pacok egiten zuen lanarekiko, haren eskultura orduantxe ezagutu zuela pentsatu baikenuen. Gauguin, Tahiti, Nao-Nao olerkia, Charles Morice eta beste mila gauza aipatu genituen. Picassok hain sutsu parte hartu zuen elkarrizketan, bere tristuraren arrazoia ere ahaztu zuela iruditu baitzitzaigun, eta, bat-batean, elkarrizketaren beroan, ordura arte eskegitakoa azaltzen hasi zitzaigun [...]" ("Nous montons la rue Ravignan et entrons au bateau-lavoir pour parler a Paco Durrio. L'air de la rue et la conversation avec Durrio distraient Picasso. On lui voit montrer un tel interet pour ce que fait Paco qu'on s' imagine qu'il vient de decouvrir sa sculpture. On parle de Gauguin, de Tahiti, du poeme Nao-Nao, de Charles Morice, et de mille autres Choses dans ce gout-la. Picasso prend part a la conversation avec une dans teele ardeur qu'il semble meme oublier la raison de sa tristesse, et soudain, dans la chaleur de l'entretien, il se met a raconter ce qu'il ayait mis jusqu'alors, tant d'obstination a garder pour lui"), in Jaime Sabartes, *Picasso. Portraits & Souvenirs*, 1946, 90. or. [\[itzuli\]](#)
22. Fernande Olivier, *Picasso et ses amis*, Libraire Stock, Paris. Gaztelaniazko bertsioa Taurus argitaletxeak atera zuen. [\[itzuli\]](#)
23. *Holandar ederra (holandar kofiaduna)* koadroa (1905, olio, gouachea eta igeltsua kartoi gainean, 77,1 x 65,8 cm), Josep Palau i Fabrak 1.134 zenbakiarekin katalogatu zuen bere *Picasso vivo 1887-1907. Infancia y primera juventud de un demiurgo* lanean, Polígrafa arg., eta Pierre Daixek XIII. 1. zenbakiarekin bere *Picasso 1900-1906* lanean, Blume arg., Bartzelona, 1987. Margolana Brisbaneko Queensland Art Galleryn dago gaur egun. Datatua eta sinatua dago, eta eskaintza bat darama goi- ezker aldean: "A mi querido amigo Paco Durrio - Picasso - Schoor!". Picassoren *Mutila pitxerra eramaten (Muchacho portando un jarro)* (54 x 34 cm) ere Durrioren jabetzakoa izan zen. Gaur egun, Glens Falls-eko Museoan dago, New York estatuan. Mutilak zeramikazko ontzi bat darama eskuetan, bilbotarrak berak moldatutako pieza bat, ziur asko. Durriok Düsseldorfeko B. Flechtheim arte-merkatariari saldu zion margolana, 1912an (Pierre Daix, op. cit., XII. zk., eta Josep Palau, op. cit., 1.174 zk.). [\[itzuli\]](#)
24. Ikus Kosme de Barañano, *Escultores y Orfebres*, Bancaixa, Valentzia, 1993. [\[itzuli\]](#)
25. René Puig, *Paul Gauguin, G. de Monfreid et leurs amis*, La Tramontana arg., Perpinyà, 1958. [\[itzuli\]](#)
26. David Sweetman, *Paul Gauguin. A Complete Life*, Hodder & Stoughton, Londres, 1995, 408. or.: "He was one of those chosen to act as an unpaid agent and was left with about thirty of the works, among them the *Yellow Christ* and the portrait of the artist's mother. What Gauguin could not have foreseen was that the devoted little man was to be his wisest choice, for Durrio hung on his works, only parting with them years later when extreme poverty obliged him to sell to survive. Before that, he had made them the link which connected the absent Gauguin to a whole new generation

of young artists, including Durrio's fellow countryman, Pablo Picasso, who would ensure that the reputation of the lost Savage in faraway Polynesia was not entirely forgotten". [itzuli]

27. John Richardson, *A Life of Picasso. Volume I: 1881-1906*, Random House, 1991, Alianza Editorial, Madril, 1995, 456. or.: "Although virtually none of them can be traced, Picasso's early ceramics are important in providing a direct link with Gauguin, a link forged by Paco Durrio, the previous tenant of Picasso's Bateau Lavoir studio"; 457. or.: "The extent to which Durrio's techniques helped Picasso revolutionise the craft of ceramics at Vallauris forty years later has yet to be taken into account". Durriok Picassoren zeramikan (Vallaurisko garaian) izan zuen eraginari buruzko ideia horiek oro har jasota daude Durriori buruzko nire saiakeretan, liburu honetan berrikusita: *Picasso: el diálogo con la cerámica*, Bancaja Fundazioa, Valentzia, 1998; ingelesezko bertsioa: *Picasso: a Dialogue with Ceramics*, Takomako Museoa. AEB, 1998. Era berean, Richardosenek Durrioren bi pitxer daudela jasotzen du Picassoren herentziaren inbentarioan, 520. orrialdean (op. cit.). [itzuli]
28. Ikus gure saiakeran galdera eta erantzun guztiak jatorrizko hizkuntzan: "El escultor Francisco Durrio, Epistolario, Catálogo y Notas sobre su Vida y Obra", in *Kobie*, 5. zk., Bizkaiko Foru Aldundia, 1988. Hona hemen bost galdera horiek: "1. Gaur egun arteak norabide berriak hartzeko joera duela iruditzen zaizu? 2. Impresionismoa amaitu da? Berritu daiteke? 3. Whistier, Gauguin, Fantin- Latour... Zer eraman dute berekin heriotza horiek? Zer utzi digute? 4. Zer iritzi duzu Cézanneren lanaz? 5. Zer egin behar du zure ustez artistak: dena espero naturatik, edo beragan dagoen pentsamendua gauzatzeko behar dituen bitartekoak eskatu baino ez?" ("1° Avez-vous le sentiment qu'aujourd'hui l'art tende à prendre des directions nouvelles? 2° L'impressionnisme est-il fini? Peut-il se renouveler? 3° Whistier, Gauguin, Fantin-Latour ... qu'emportent ces morts? Que nous laissent-ils? 4° Quel état faites-vous de Cézanne? 5° Selon vous l'artiste doit-il tout attendre de la nature ou seulement lui demander les moyens plastiques de réaliser la pensée qui est un lui?"). [itzuli]
29. Arriagaren bi erretratuak, XIX. mendean margotuak, dagerrotipo batean oinarrituta eginak omen ziren, baina hori ezinezkoa da: Daguerren sistema 1837koa da eta Arriaga 1826an hil zen. [itzuli]
30. 7.000 pezeta ordainduko zitzaizkion zuzendaritza artistikorako eta 17.500 exekuzio materialerako. Kontratua sinatzean, 3.500 pezeta jaso zituen egindako lan teorikoagatik, eta gainerako 3.500ak, lana amaitzean emango zitzaizkion. Lanaren luzapen bat onartu zitzaion, 1909ko abenduaren 31ra arte. Hala ere, Durriok, berez, 1911ra arte luzatu zuen idulkia eta *mus*a aurkezteko epea. Jasotzeko falta zitzaizkion 3.500 pezetak eman edo ez eztabaidatu zen, eta Herriko Etxeak baietz erabaki zuen. Gero, isilaldia etorri zen, baina, geroxeago, prentsa eta artista batzuk Durriori diru gehiago emateko eskatzen hasi ziren, obra behar bezala amaitu ahal izan zezan, hura ez zelako artisa-lan huts bat. *Novedades* aldizkari donostiarra ere Durrioren alde atera zen, 1912ko uztailaren 7an. 1914an, zinegotzi- kontratista batek adierazi zuen eskultorearen jarrera ez zela bidezkoa eta Udalak harremanak eten behar zituela berarekin. Uste horren kontra altxatu ziren ahotsak gorabehera, iritzi hori nagusitu zen, azkenean. Hala ere, hurrengo urtean, alkateak Durriorengana jo zuen berriro, azalduz Udala prest zegoela harekin berriro harremanetan jartzeko. la urtebete geroago etorri zen Durrioren erantzuna: aurreko urtean jasotako tratua deitoratu zuen, eta, Kontzejuaren erabakiaren aurrean, hartutako konpromisoetatik libre geratzen zela adierazi zuen.

Bazirudien horretan amaituko zela kontua. Arriaga Museoa (Bilboko Bidebarrieta kaleko El Sitio Elkarte zaharraren eraikinean), Durrioren gutun bat gordetzen da, garai hartan Euskal Artisten Elkarteren presidente zen Guezalari zuzendua, non azaltzen duen ez zela gauza Arriagaren monumentuaren kostu orokorra kalkulatzeko. Data: 1920ko ekainaren 21a, Paris 4 Impasse Giradon. 1931n, Udalak Arriagaren omenez zerbait egin behar zela kontsideratu zuen, eta Eraikuntza Zibilen Bulegoaren gain utzi zuen erantzukizun hori: besteak beste, kokapena aldatzea eta 15.000 pezetako poltsa sortzea erabaki zen. Euskal Artisten Elkarteak berehala erantzun zuen, monumentu "anonimo" bat eraikitzeo maniobra horren aurka agertuz. Erantzun horri alkatearen beste batek jarraitu zion. 1932an, baina, udaletxeko goi-karguak aldatu ziren, udalbatza berriak berriro aztertu zuen gaia. 1932ko ekainaren 15ean, Bilbao zinegotzi jaunak Sustapen Batzordearen txosten bat irakurri zuen, aho batez onartu zena: Durriok 15.000 pezeta jasoko zituen modelatze-lana amaitzeko. Haren ikasle kutunak, Valentín Dueñas- ek, 52.784 jasoko zituen obra gauzatzeko, eta 7.000 pezeta gehiago musaren urreztatze-lana egiteko. Guztira: 74.784 pezeta. 1933ko abuztuaren 12ko eta 13ko

asteburuan, monumentuaren inaugurazio ekitaldiaren kariaz, Madrilgo Banda Republicana-k kontzertu bana eskaini zuen larunbatean eta igandean, Vega jaunak zuzenduta. Igandean, hilak 13an, Ercoreca alkateak monumentua desestali zuen, Durrio jauna eta bere emaztea, Valentín Dueñas eskultorea eta Blanche Dufaur abeslaria bertan zeudela. Prentsan, *El Liberal* egunkariak bakarrik eskaini zizkion zenbait orri eta artikuluberrira bai ekitaldiari. Gainerako egunkariak inaugurazioaren berri soilak eman zuten. Eta *Euzkadik* (bertako arte-kritikaria Crisanto de Lasterra zela, gerora Durriori buruzko liburu bat idatzi eta Bilboko Museoko zuzendaria izan zen), hori ere ez. [itzuli]

31. 1908. urtean, monumentua proiektu hutsa zela artean, Juan de la Encinak honela idatzi zuen *El Nervión* egunkarian (1908/IV/26): “Plano sutil xumeko, egiptoar tankerako idulki baten gainean, emakume baten irudi atsekabetua ageri zaigu, oinazetsu eta errebolatari aldi berean: horra sinbolo bat. Zorigaitzoko bilbotarraren musikaren arima irudikatzen du.

Buruak, zorabiozko eta harridurazko ez dakit zer batez atzeraka eroria, zerutik jasotzen bide du bere esfera kristalino eta sakonen harmonia pitagoriko aitorrezin hori. Bien bitartean, liratik, keinurik solemneenaz bularraren kontra eusten duen musika-tresna horretatik, ur-zurrusta distiratsuetan sortzen dira bata bestearen atzetik poetaren kantak. Eta efinje hermetiko (*sic*) batek —misterioz beteriko naturaren irudia, begitarte larriz bere seme- alaben kantuari adi dagoena, haren oinazetako eta errebeldiazko estrofa eta olerki dena— jasotzen ditu gero kantok” (“Sobre el pedestal de traza egipcia, de nobles y austeros planos, irrumpe en líneas dolorosas y rebeldes una desolada figura de mujer: es un símbolo; representa el alma de la música del malogrado bilbaíno. La cabeza, caída hacia atrás con un no sé qué de desmayo y estupor, parece recibir de los cielos la armonía pitagórica, inefable, de sus esferas cristalinas y profundas; mientras que de la lira, sostenida a la altura de los pechos con el más solemne de los ademanes, corren en lucientes chorros de agua los cantos desgranados del poeta. Recíbelos una esfinge hermética (*sic*) imagen de la naturaleza colmada de misterio que escucha grave el canto de sus hijos, que es su estrofa y su poema de rebeldía y dolor”). Urte batzuk geroago, 1933an, inaugurazio- ekitaldiaren kariaz, beste kritikari batek, Damián Rodak, honela deskribatu zuen monumentua, *El Liberal* egunkarian (1933/VIII/16): “Durriok granitozko ertz multzo bat irudikatu du, eta urak bere soinu ozena isurtzen du haien gainera, melodia eta motibazio lirikoak lo dautza potentzialki haietan. Harri horien gaineko poema txiki lirikoan ez dago planorik, alderik, ertzik, multzo osoa den ereserki isil hori (arrandiarik eta hantusterik gabea) harmonizatzeke zuhurtasunez apailatutako soinu bat bezala bertatik aieratzen ez denik” (“Durrio imaginó un conjunto de perfiles graníticos sobre los que el agua levanta su canción sonora, en la que duermen potencialmente melodías y motivaciones líricas. No hay plaño, faceta, perfil en el pequeño poema lírico de estas piedras que no ascienda como un sonido sabiamente dispuesto para armonizar el callado himno, nada aparatoso ni teatral, que es el conjunto todo”). [itzuli]

32. Uretatik irudira doazen bost eskailerak erlazionaturik daude Museoaren beste aldean Aureliano del Valle de Quintín de Torre maisuaren omenez eraikitako pentagramarekin. [itzuli]

## ITSASOA. TELLAECHÉ, MAEZTU, UCELAY, ARTETA

Itsasoak presentzia handia du mende-aldaketaren garaiko Bilboko pinturan. Itsasoa euskal pintura guztian ageri da ezaugarri ikonografiko gisa. Ez dago lur honetako margolaririk itsasoari aipamen egin ez dionik, baina margolari guztiak ez dira *marinistak*, hau da, ez dituzte marinak edo itsas ikuspegiak margotzen: haien lanetan itsasoaren usaina nabarmentzen da, haren boterea, merkataritzarekin eta kulturarekin duen lotura. Guiarden lanetan ikusi dugu itsasadarraren ikuspegi panoramiko hori, bizitzaren garapenaren eszena bat izango balitz bezala, lanerako eta merkataritzarako gune baten eszena bat, baita irekidurarena ere, Abandoko geltokiaren eszenaren antzera. Abran belaontzien lehiaketak ikusi ditugu Arrueren lanetan, eta traineru-estropadak, berriz, Losadarenetan.

Erakusketa ixten duen lanean, Artetaren *Gerraren triptikoan* (*Tríptico de la guerra*), jende arrunta lurrunezko motorrez hornitutako arrantza-ontzietan erbestera alde egiteko prest ageri da itsas portu txiki batean.

Guiarden Bilboko itsasadarraren eta Artetaren ihesaldiaren artean itsasoaren beste hainbat bertsio dauzkagu:

- ontzietako belak *konposizio formal* gisa Tellaechearen pinturan;
- itsaso zakarraren mehatxua eta horren ondorio hilgarriak *kontakizun epiko* gisa Maezturen lanean;
- Bermeoko portua eguneroko bizitzaren laburpen gisa, *veduta* gisa, Ucelayren margolanean; eta
- Barojaren eleberrietako itsasgizona, erretratu literario bat, *ikono* gisa, Zubiaurreren lanean.

1925eko *Itsasontziak portuan* (*Barcos en el puerto*) margolanean<sup>1</sup>, pastelaren erabileran zuen maisutasunarekin, Julián de Tellaeche (1884–1957) kode piktoriko bihurtu zuen belen gaia: propulzioaren ekuazio hori, oihalaren pisuaren eta zurruntasunaren arteko erlazioa, mihiseak maniobratzeko ematen zuen gaitasuna, masten egitura, mastekiko perpendikularrak ziren soken eta belazurrunen jokia. Belak eta aparailuak ziren Tellaechearen pinturaren *subject matter* edo gaia.

Tellaeche itsasgizona izana zen, eta lan hura utzita, Joseph Conraden eta beste batzuen itsas eleberrien itzultzaile bihurtu zen lehenengo, margolari eta ontzi-jabeen aholkulari artistiko ondoren, eta azkenik, Peruko Altxor Artistiko Nazionalaren zuzendari, Liman; Tellaeche itsasoari begira zuen ikuspegia *pentsatua* zen, sentitua baino gehiago. Joaquín de Zugazagoitia kritikariak aipatu zuen moduan, artista honen pintura zera da “itsasgizonek ordu luzez kaietan edo ontzien kareletan berमतuta daudela izaten dituzten begiespen luze eta lozorrotuen gauzatze estetiko eta kontzientea”<sup>2</sup>. Aurreko ozeano epikoaren (Zubiaurre, Arteta eta Maezturen itsasoa) eta gazteen lirismoaren (Ucelayren amets poetikoa) aurka, Tellaechearen ikuspegia pausatua da, eraikia, teknikan arretaz landua.

Noizbait gaizki kiribildu izanaren markak dituen paper baten gaineko urdin, sepia eta zurien abstrakzioa mamitu egiten da ikatz-zirizko lerroak orban horiek bereizi edo mugatzen dituenean, itsas trafikoaren konposiziozko erritmoa sortuz: buiek, aingurek, kateek, sokek eta aparailuek sortzen duten perspektibazko labirintoan porturatutako pakeboteen dentsitatea. Conraden antzera, Tellaeche uko egin zion itsas margolaria *bakarrik* izateari. Tellaechearen ahoan jar genitzake Conraden hitz hauek: “Menturatuko naiz esatera ez nautela erabat ulertzen. Esan didate itsasoko idazlea, tropikoetakoa, idazle deskribatzailea, idazle erromantikoa, eta baita errealista ere. Baina, egiaz, nire kezka guztia gauzen, gertaeren eta pertsonen balio ‘idealak’ izan dira. Hori bakarrik.

Alderdi ironikoak, desegokiak, kartsuak, sentimentalak, beren kabuz agertu dira, —mais en vérité, c'est les valeurs idéales des faits et gestes humains qui se sont imposés à mon activité artistique—. Edozein direla ere nire dohain dramatiko edo narratiboak, beti erabili izan ditut, instintiboki, helburu bakar baterako, hots, balio idealetara iristea eta horiek berregitea. Adierazpen jeneralista da, baina uste dut egia dela<sup>3</sup>.

Lan honetan bada espazialtasun bat ez dagoena perspektiban bakarrik oinarritua; aitzitik, erritmikoa da, balio kromatiko tonudunetako, eta kolorearen balio espazialean egituratuta dago. Belak eta aparailuak nahasi eta elkartu egiten dira, trazu- haustura neurtuko erlazio batean. Trazu horiek sortzen dute margolanaren egitura espaziala, horiek osatzen dute plano eta bolumenen perspektiba. Tellaechek egitura idorrak lantzen ditu, monotonoak, non itsasoak eta zeruak bat egiten duten. Saihestu egiten du ikuspegi analitiko-konstruktibo hutsa, eta keinua, erritmoa nahiz kolorea erabiltzen ditu, errealtate-zatien segida etena lortzeko. Hala, koherentziaz landutako osotasun bat egituratzen du, alderdi sensoriala eta mentala uztartuz.

Tellaechek bela-mota desberdinak gai gisa erabiltzen ditu, gainazal gisa, bertan gainjartzeko ontzien egitura adarduna: masten lerro zuzenak, belazurrunenak, ezpeletenak eta, kasu honetan, konposizioan diagonalean berresten diren hiru branka- hagarenak<sup>4</sup>. Horien parean, zenbait branka-bularren kurba zeharrek (edo brankaren ertza eratzen duen *ezproia*) eta bi poparen gailurraren kurba biribilak konposizio ia abstraktu interesgarri bat sortzen dute uretako islarekin. Eskuinetik foke-txanberga bat irteten da, bela gainean zimurtuta duela, eta ezkerrean, aldiz, kontrapuntu gisa, lau foke zabalik daramatzen beste txanberga bat dago. Tellaechek belaontzi haiek itsaso askotan utzitako aparren antzera arrastatzen du pastela: horrela lortzen ditu argiaren efektuak beletan edo itsasontzien egurrezko kroskoetan. Objektuak —hala nola aingurak edo amarratzeko sokak— erreserba gisa planteatzen ditu: jatorrizko tonalitatea duen paperak osatzen ditu, ikatz-ziri teknika edo orbanaren gaineko hutsuneak erabiliz mugatuta.

Tellaechek dentsitatea ematen dio pastelari, Philip Steer (1860–1942) britainiar margolariak 1892ko *Yateen prozesioa* (*A Procession of Yachts*) margolanean egin zuen moduan. Lan hori, Coweseko estropadan margotua, Wight uhartearen, dentsoa eta isila da, Tellaechearen lanen antzera; sokak zauriak izango balira bezala pintura-orbana ebakitzen duten marra meheak dira. Gustav Caillebotte, Georges Seurat, Paul Signac edo Steer beraren moduan, Tellaechek ere belaren zale zen.

Adinari erreparatuta, Tellaechek lurruntzien garaikoa zen, baina emozionalki lotuta zegoen belaontziekin —Zubiaurretarrak elizateetako baseritarren munduarekin lotuta zeuden bezala—: maite zuen mundu eta ofizio konplexu hura, belen erabilerarena, ongi ezkoztatutako olana gogorreko ehunena eta tentsio-sokena, isats-piano batek bere soka eta mailuekin duen egitura formala bezain ordenatua. Tellaechek desagertzen ikusi zuen sokateria irmoa —kalamu galipodun edo bikeztatuz egina, mastei eusten ziena—, eta horren ordez burdinazko alanbre eta kableak erabiltzen hasi zirela<sup>5</sup>. Tellaechek desagertzen ikusi zuen itsas hiztegi hura, masten, sokaterien, bela-lokarrien, soken, txirriken eta dibidieten jerga zehatz hura, zeina ez baitzen terminologia hutsa, baizik eta belak atzematen jakiteko lan-kode zehatz bat, ezinbestekoa belaontzi bat erabili eta aparailuak ongi doitzeko, baita norabide egokia hartzeko ere. Orduko kapitainak orkestra-*gidariak* ziren, eta kontuan hartu behar zituzten erritmoak, haizea eta belak. Hautsian joanda porturatu eta ibili heinean, eskota luzatzen zuten, eta kapitainak behar bezala doitzen zituen aparailua eta belak, haizearen eta itsasoaren baldintzak kontuan hartuta: hau da, ontziak uraren gainazalarekiko flotazio-lerroan eratu beharreko angelu egokia bilatzen zuen. Tellaechek kapitainak edertasun-angelu hori bilatu zuen konposizio eder eta horizontal honetan, non pastelak apenas ukitzen duen gainazala; Tellaechek paperaren gainean harrotzen du klariona, inoiz uniformeak ez diren orban horiekin; izan ere, arrastoa besterik ez du utzi nahi, baina konposizio ia isil bat lortuko duen arrastoa. Hala, itsasontziak aratz eta isilik ageri dira, “edertasun idealaren irudipen baten antzera, bake lasaiko amets samur bat bezain ametssezko”, Conraden hitzetan<sup>6</sup>. Hori da Tellaechek bilatzen zuena: “Jazotzen diren gertaerei

beren egiazko esanahia ematea, eta leku eta une jakin horren morala, atmosfera emozionala sortzea [...] Lurreko lanak egiten dituzten eskuak hasperen batek irauten bitartean gelditzeko, eta urrun dituzten helburuek liluratuta bizi diren gizonak inguruko formei eta koloreei, eguzkiari eta itzalei behatzera behartzeko une batez; une batez gelditu eta ingurura begiratuta hasperen eta irribarre egin dezatela, horixe da helburu zail eta iheskorra, gutxi batzuen esku baino ez dagoena. Baina batzuetan merezi dutenek eta zorionekoek ere lortzen dute hori egitea. Eta hori gertatzen denean, hortxe ageri da bizitzaren egia osoa: begirada, hasperena, irribarre eta betiereko atsedenera itzulera<sup>7</sup>.

Tellaecheren lanean, itsasoa kontakizun lasaia da, mural handi baten atal txiki baina erlazionatuak, non kontaktu gabeko abenturaren hotsera protagonistatzat ageri diren sokak, mastak eta belak. Tellaechek denbora gelditzen du bere kartoietan; Henri Bergson filosofoaren *élan vital* delakoaren atzetik dabil, portuetako itsasontzien barne-denboraren atzetik. Itsaso lasaia, mugimendu eta bidaia ugariren ondorioz higatutako egurrak pausatuta dauden portua, horixe da Julián Tellaecheren lan guztiak osatzen duen *obstinat* tematikoaren muina.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. *Itsasontziak portuan (Barcos en el puerto)*, ca. 1925, Bizkaiko Foru Aldundiaren bilduma, sinadurarik eta datarik gabea. Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía museoaren jabetzakoa den izenburu bereko beste margolan baterako proba bat zen (margolan horretarako zertxobait murriztu zuen tamaina: 98 x 280 cm-tik 70 x 200 cm-ra). Tellaechek akuafoarteetan erabili ohi den erreserben formula erabili zuen paper gaineko lan honetan; ez zuen gauza bera egin, adibidez, tamaina eta gai bertuko beste olio-pintura batean (hori ere Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n), beraz, seguru asko olio-pintura horren ondoren sortu zuen hau; zenbait aingurek ezartzen duten oreka formalak ere pentsaraz diezaguke hori. [itzuli]
2. Ikus ere “Kosme de Barañano, “El mar: repetición iconográfica en el arte de Tellaeché”, *Tellaeché*, Banco Bilbao, 1980. [itzuli]
3. Joseph Conradek Sir Sydney Colvin kritikariari (1845–1927) bidalitako gutuna, 1917ko martxoaren 1ean idatzia. Hemen: *The Letters of Robert Louis Stevenson to his Family and Friends*, 6. lib., 40. or.: “Perhaps you won’t find it presumptuous if after 22 years of work I may say that I have not been very well understood. I have been called a writer of the sea, of the tropics, a descriptive writer, a romantic writer and also a realist. But as a matter of fact all my concern has been with the ‘ideal’ values of things, events and people. That and nothing else. The humorous, the pathetic, the passionate, the sentimental aspects came in of themselves – mais en vérité c’est les valeurs idéales des faits et gestes humains qui se sont imposés à mon activité artistique. Whatever dramatic and narrative gifts I may have are always, instinctively, used with that object -to get at, to bring forth les valeurs idéales. Of course, this is a very general statement – but roughly I believe it is true”. [itzuli]
4. Branka-haga (masten edo mastadiaren giltza; gaztelaniazko hitzak, *bauprés*, alemanezko *bochspret* hitzan du jatorria: *bōch*, ‘arkua’ eta *sprēt*, ‘zutoina’) belaontzien mastetako bat da, brankatik ia horizontalean ateratzen dena, kroskoari lotuta doana eta txanberga izeneko beste masta batekin errematatuta dagoena; biek balio dute trinketa deritzon mastaren mastadia sendotzeko. Foke-txanberga branka-hagaren gainean jarrita kanporantz ateratzen den masta biribila da. [itzuli]
5. Alemanian hasi ziren sokateria horiek eraikitzen, 1865ean, baina Espainian ez ziren erabili XIX. mendearen amaierara arte; Lehen Mundu Gerra lehertzean, burdinazko eta altzairuzko alanbrea eta kablea produktu ia estrategiko bihurtu ziren, eta inportazioak zailagoak eta garestiagoak ziren. Horren ondorioz, siderurgia, trefilatuen industria eta kableen manufaktura garatu eginez Espainian, bereziki Katalunian eta Euskal Herrian. [itzuli]
6. Joseph Conrad, *The Nigger of the ‘Narcissus’: A Tale of the Forecastle (A Tale of the Sea* azpititulatua), 1897an

argitaratua, 5. kapitulua: “Izpi mamuen handitasunean, itsasontzia aratz ageri zen, edertasun idealaren irudipen baten antzera, bake lasaiko amets samur bat bezain ametsezko. Eta irudipen horretan ezer ez zen erreala, ezer ez zen desberdina, ezta solidoa ere, ontzigainak mugimendu etengabe eta isilez betetzen zituzten itzal pisutsuak izan ezik: gaua baino ilunagoak eta gizakien pentsamenduak baino egonezinagoak ziren itzalak”. [itzuli]

7. Joseph Conrad, *op. cit.*, hitzaurrea: “Fiction—if it at all aspires to be art—appeals to temperament. And in truth it must be, like painting, like music, like all art, the appeal of one temperament to all the other innumerable temperaments whose subtle and resistless power endows passing events with their true meaning, and creates the moral, the emotional atmosphere of the place and time [...] To arrest, for the space of a breath, the hands busy about the work of the earth, and compel men entranced by the sight of distant goals to glance for a moment at the surrounding vision of form and colour, of sunshine and shadows; to make them pause for a look, for a sigh, for a smile—such is the aim, difficult and evanescent, and reserved only for a very few to achieve. But sometimes, by the deserving and the fortunate, even that task is accomplished. And when it is accomplished — behold!— all the truth of life is there: a moment of vision, a sigh, a smile—and the return to an eternal rest. [itzuli]

Gustavo de Maeztu Whitney (1887–1947) euskal margolariaren *Lirika eta Erljioa* (Lírica y Religión, 1922) triptikoak Erljioa izeneko bi panel handi ditu alboetan, eta Lirika izeneko beste bat erdian<sup>1</sup>, nahiz eta bertan ez dagoen lirikotik ezer, eta ia ezer, halaber, Maezturen lanean; epikaren lirika da, hobe esanda. Ramón de Basterra poeta eta diplomazialariaren kontakizunean honela esaten zuen: “triptikoaren erdiko oihalean arraunlari abeslari batzuk daude, eta alboetako bi margolan txikiagoak otoizgileen bi teoria dira; goialdean tenplete kristauak dituzten bi muinoren hegaletan gora doaz”<sup>2</sup>.

Eskuinaldeko panelak hileta baten segizioa erakusten digu, itsaslabar baten ertzean gora eliza baterako bidean. Erdiko panelean bost itsasgizon daude irudikatuta, eskulturak izango balira bezala; txalupa txiki batean daude, batzuk zerurantz eta urrutira begira, eta bi eserita daude, eta jasota dute arrauna, beren lanaren bereizgarri loriatsua. Arraunetan datza margolanaren indar nagusia, Aurelio Artetaren pastel bikain batean bezala, edo Maezturen Itsasoko emakumeak (Las mujeres del mar) lanean bezala. Honela deskribatu zuen Basterrak: “Bihotz kartsuko zartako erritmikoak emanaz margotuta dago. Arraunketako gizon haien energia ugaria begirada magnetiko eta kantu kementsuen turrusta bilakatuta ageri da. Txalupak biziari heltzen dio, eta atzean sentitzean ozeano mehatxatzailearen arrisku gainditua, garaile ateratzen dira barkarola euskaldunak kantatzera. Ederto ñabartzen dute irudia, emakumeen ahulezia erregutzaileko espresioarekin, triptikoaren bi alboetan gorantz doazen emakume jainkozale otoizgileek. Otoitz-murmuriotz betetako bi prozesioek margolanean irudikatuta uzten dute Pirinioetako kostaldeko emozio berezi hori, ermitetako angelusetan laburbiltzen dena. Giro osasuntsua, indar-jarioa, handitasun-gogoa eta taupada dramatikoak darizkio multzo osoari. Zalantzarik gabe, triptikoa da eskola euskalduneko produktu aipagarrienetako bat”<sup>3</sup>.

Ezkerreko panelak ere kostaldera garamatza, baina, hemen, itsasoa bare dago, eta herriko jendea bidean gora doa eliza txiki baterantz eta frontoi baterantz –non jaietako partida bat jokatzeko ari diren–; aldi berean, behiak lasai-lasai bazkatzen ari dira mendi-magalean. Alboetako bi panelak kontrajarrita daude, Maezturen triptikoetan ohienez [Levanteko eskaintza (La ofrenda levantina) lanean, adibidez, gizon eta emakumeekin]: itsaso zakarra vs. itsaso barea; jai-giroa vs. hileta-segizioa, eta bietan, presbitero anekdotiko eta behatzaile bat.

Markoak, Luis Quintanillak<sup>4</sup> bozeldutako larruz eginak, bi zutabe ditu apaindutako kapitelenkin, eta horien gainean daude metopa batzuk (gizon bat eta emakume bat) eta bost baserri-eszena. Quintanillak larru bozelduzko estalki bikain bat egin zuen Euskal Artisten Elkarteko kide zen Estanislao M. <sup>a</sup> de Aguirre ‘Luno’<sup>5</sup> kritikariak Gustavo de Maezturi buruz idatzi zuen libururako.

Maezturen indarra itsas elegia hau konposatzeko erabilitako irmotasun eta sendotasun linealean datza. Egia oso bat irudikatu nahi du, baina xehetasun txikietara jaitsi gabe. Haren margolanen oinarria ikatz-marraskian dago. José Arrue ez bezala, Maeztu ez da xehetasun-zalea, wagneriarra baizik, eta trazu zurrun eta indartsua darabil, batzuetan hautsia, pertsonaien indar fisikoak eta espiritualak nabarmentzeko. Ez da 1930eko hamarkadako Artetaren marinel eta laiarrien oso desberdina, baina kolorearen zentzua, materia



piktorikoarena, hori bai, bestelakoa da. Artetaren pintura lekuko zuzena da, plano ebakiei eta lerro ezti italianizataileari esker; Maezturen pinturan, aldiz, zakartasun lineala ere nabarmentzen da, baina materiazko trazua darabil, pigmentu-karga dentsoarekin.

Maezturen azterketa zuzenena Artetak, Guezalak, Rodak, Michelenak, Sánchez-Mazasek, Alberto Arruek eta haren beste lagun batzuek egin zuten, zalantzarik gabe, 1917an Arte Ederren Museo Probintzialeko Patronatuko batzordeburuari erakundeak Calatañazoreko itsua (El ciego de Calatañazor) lana eskura zezala eskatzeko igorri zioten idatzi batean. Hauek dira Maezturen lan guztientzat balio duten ezaugarriak eta aztergai dugun triptikoak ere badituenak.

Maeztuk lotura zuen Espainiako pintura-tradizioarekin. “Tradizio horren barruan, non gauzatu zituen bere dohain miresgarriak Francisco de Goya jaunak, Gustavo de Maezturen pintzelak lekua egin dio pentsamenduari, garai honetako artista batek bizitza interpretatzeko erabili behar duen modu bereziari. Kemen arrazoituz zabalduetako ekintza-eremu horren barruan finkatu dira pixkanaka haren artearen funtsezko balioak”, idatzi zuten Maezturen lagunek.

Itxurazko sinpletasuna, plano-kontrastearekin. Tarteko planorik gabe eta eskulturazko trazu sintetikoekin; hori diseinu sendo bat da, eta nolabaiteko indar arkitektonikoa transmititzen du, eta ikuskera kementsua, oinarritzat duena olio-pintura lehor eta hazkatuzko trazu indartsu bat, batzuetan hautsia, pintzel lodiz egina, zeinak berekin dakarren nolabaiteko maskulinitasuna espresioan. Haren margolanetako pertsonaiak idiosinkrasia berezien sintesiak dira, jende langile eta sufritua, banakotasun indartsuak. José Francés kritikariak “goyismo eskultorikoa” aipatu zuen Gustavo de Maezturen pinturaz ari zela; Valle-Inclánek haren mihiseen “izaera patriarkala” aipatu zuen.

Baina, agian, Maezturen erreferenteak literaturan daude, Victor Hugok 1891n argitaratutako Les Travailleurs de la mer (Itsasoko langileak) eleberrian, zeina idatzi baitzuen 1866an Hauteville House etxean, Guernsey normandiar uhartean erbesteratuta egon zenean. Sarreran, Victor Hugok bere burua aztertzen du lerro batzuetan, eta azterketa hori Maezturi ere aplikatu dakiok: “Erlijioa, gizartea, natura; horiek dira gizakiaren hiru borroak. Hiru borroka horiek bere hiru beharrak ere badira; sinetsi beharra dago, eta hortik dator tenplua; sortu beharra dago, eta hortik dator hiria; bizi beharra dago, eta hortik datoz goldea eta itsasontzia. Baina hiru irtenbide horiek hiru gatazka dakartzate. Bizitzaren zailtasun misteriotsua hiru gatazka horietatik sortzen da. Gizakiak sineskeria gisa, aurreiritzi gisa eta elementu gisa egiten dio aurre oztopoari. Anankè edo zorigaitza hirukoitza dugu gainean: dogmen anankèa, legeen anankèa eta gauzen anankèa. 1831n, egileak lehenengoa salatu zuen Notre- Dame de Paris lanean; 1862an, bigarrena aipatu zuen, Les Misérables liburuan, eta liburu honetan hirugarrenaz ari da. Gizakia inguratzen duten hiru zorigaitzekin nahasita dago barne zorigaitza, anankè gorena, giza bihotza”<sup>6</sup>.

Maezturen margolanetan, batik bat konposizio handietan, aldi berean laneko dramatik hurbil eta urrun dagoen agertoki bat da paisaia; konposiziozko arkitektura baten parte da, neke- eta porrot-epika baten parte. Beti kolore ilunak erabiltzen ditu behealdean, astuntasuna nabarmentzeko, eta zerumuga oso altu bat margotzen du konposizioaren goiko aldean.

Konposizioaren erritmoa oso berezia da: oinarritzat ditu bertikal eta horizontal garbiak eta baliokidetasunagatikoa nolabaiteko simetria bat. Alboetako panelak zentrifugoak dira, eszenak galdu egiten

baitira urrutian, gorantz. Erdiko eszena, aldiz, malenkonian hondoratzen da, txaluparen barnealderantz, arraunak jasota dituzten bi marinel burumakurren moduan.

Maezturen itsasoa itsaso tragiko bat da, hura zeharkatzen dutenetako batzuk irensten dituen itsasoa da, gaian ez ezik, baita tratamendu kromatikoan ere. *Lirika eta Erljioa* nostalgia-, porrot-, neke- eta etsipen-adierazpen epiko bat da. Ez da Tellaecheren belen itsasoa, ezta Losadaren estropadana ere, baizik eta itsas labar eta ekaitzena, Lizarran bakartuta lehorrean hil zen pesimista baten itsasoa.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Lan hau Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuan aurkeztu zen, Gernikan, 1922an. Maeztuk 1922ko irailaren lehen egunetan amaitu zuen, Luis Quintanilla Isasik eta Martín de Zuloagak lagunduta; Quintanillak lana markoztatzen duten larru eder batzuk apaindu eta bozeldu zituen, eta Zuloaga zurgintzaz arduratu zen. Ez ditugu beste maisu horiek ahaztu behar, triptikoak osotasunari zor baitio bere edertasuna, ez soilik margolariaren hiru oihalei. Margolan honek harrera ona izan zuen hasieratik. Irailaren 10ean, Pedro Murlane Michelenak (1888– 1955), garai hartan kontu artistikoetan eragina zuen idazle famatuak, honela idatzi zuen: “oroiz gain, ospa dezagun gure pinturaren itzulera, alde batera uztea astoa eta bere anemia dibertigarria, eta berriro itzultzea horma erlijioso eta zibilera, edo ganga-formako sabai altura, alegoriek zabaltasuna eta oihartzuna izan ditzaten”, (*El Pueblo Vasco* egunkaria, 1922ko irailaren 10a). Triptikoa Bilboko publikoarentzako ikusgai jarri zuten azaroan zehar Filarmonikaren areto nagusian; ordurako *Euskal lurra*, *Lirika eta Erljioa* izenburua zuen. Handik gutxira, abenduaren 26an, “hiriaren lagun eta zaleen” talde ugari batek Bilboko Udalarari eta Aldundiari eskatu zien triptikoa erosteko harpidetza batean parte har zezatela. 1924ko urriaren 17an, Maeztuk Aldundiari laga zion triptikoa. Ikusi Kosme de Barañano, “Un triptico de Gustavo de Maeztu”, *Goya* aldizkaria, 154. zk., 1980ko urtarila; Ramón de Basterra poetaren ikuspuntuari kritika. [itzuli]
2. Basterra oker zegoen 1922ko abenduaren 27an *El Pueblo Vasco* egunkarian argitaratutako kronikan: eskuineko panelean ez da ageri prozesio erlijioso bat, une herrikoi profano bat baizik. Maezturengan ez dago lirikotik ezer, *Euzkadi* egunkariko “euskal pinturari buruzko hitzaldi” horietako batean Crisanto de Lasterrak idatzi zuenaren kontra: “margolari gisa liriko handia da –bere sorkuntza dekoratibo bikain eta ugariak erakusten dutenez–”; *Euzkadi* egunkaria, 1923ko irailaren 10a. [itzuli]
3. Basterra, 1922ko abenduaren 27ko *El Pueblo Vasco* egunkarian. [itzuli]
4. Luis Quintanilla (Santander 1893– Madril 1978), denbora batez Bilbon bizi izan zen artista. Larrua lantzeko guadameziaren teknika berrezarri zuen, eta miniaturisten irudiztatzeko artea aztertu zuen; ondoren freskoak egin zituen. Berea zen *Erredakzioa* (*La Redacción*) izeneko freskoa, Buenos Airesko *La Nación* egunkariaren pabiloia apaindu zuena 1928ko Koloniako Prentsa Erakusketan eta Álvarez del Bayoren hitzetan “buruargien arreta erakarri zuena”. Berak egin zituen, halaber, *Maitatu bakea, gorrotatu gerra* (*Ama la paz, odia la guerra*) izeneko freskoak 1939ko New Yorkeko Erakusketan Espainiak antolatu zuen pabiloirako. Lan horiek desagertuta egon ziren 1940tik 1990era arte; ikusi Christopher Gray “The ‘Lost’ Frescoes Of an Artist-Soldier”, *The New York Times*, 1990eko azaroaren 4a. Quintanillak aintzatespen handiagoa merezi du; 1912an Parisen izan zen, eta ondoren Eivissan, Afrikako iparraldean, New Yorken, Mexikon eta Woodstocken, Espainiara itzuli aurretik. [itzuli]
5. Liburu hori Biblioteca Color argitaletxearen lehen eta bakarra izan zen. Argitaletxearen sortzaileak izan ziren Gustavo de Maezturen anaia Miguel –liburua agertu eta gutxira hil zena– eta Ortiz Echagüe –Parisen bizi zena *La Nación* egunkariaren berriemaile gisa–. Liburua benetako altxorra da, eta Antonio de Guezalaren exhibris original eta fin bat dauka. [itzuli]
6. Victor Hugo, *Les Travailleurs de la mer*, 1891n argitaratua, 1866ko martxoan Hauteville-House etxean sinatutako hitzaurrea: “La religion, la société, la nature; telles sont les trois luttes de l’homme. Ces trois luttes sont en même temps ses trois

besoins ; il faut qu'il croie, de là le temple ; il faut qu'il crée, de là la cité ; il faut qu'il vive, de là la charrue et le navire. Mais ces trois solutions contiennent trois guerres. La mystérieuse difficulté de la vie sort de toutes les trois. L'homme a affaire à l'obstacle sous la forme superstition, sous la forme préjugé, et sous la forme élément. Un triple anankè règne sur nous, l'anankè des dogmes, l'anankè des lois, l'anankè des choses. Dans Notre-Dame de Paris, l'auteur a dénoncé le premier ; dans Les Misérables, il a signalé le second ; dans ce livre, il indique le troisième. À ces trois fatalités qui enveloppent l'homme, se mêle la fatalité intérieure, l'anankè suprême, le cœur humain". [itzuli]

## ITSASOA. RAMÓN DE ZUBIAURRE

Ramón de Zubiaurreren (Garai 1882–Madril 1969) margolana, *Xanti Andia “Ausarta” euskalitsasgizona* (El marino vasco Shanti Andía, el Temerario), literaturako pertsonaia baten erretratu asmatua da, Pío Baroja idazlearen (Donostia 1872–Madril 1956) *Xanti Andia* itxas-gizonaren bizitza ta kezak (1911)<sup>1</sup> eleberriko protagonistarena; idazlearen heldutasun-garaiko eleberririk hori itsasoaren munduari buruz idatzitako lehena izan zen. Erretratu asmatua da, halaber, Parisko Centre Pompidou-Musée National d’Art Moderne museoko Ondarroako arraunlari garaileak (Los remeros vencedores de Ondárroa).

Bi lan horiek ez dute erakusten Bilboko itsasadarreko ontzi-trafikoa, ezta Bermeoko portukoa ere, eta ez dira itsasoan hildakoei eskainitako elegiak; alturako pilotu edo ontzi-kapitain baten eta estropada bat irabazi duten arraunlari batzuen irudikapenak dira. Literaturako pertsonaia baten edo heroi-arketipo baten irudiak dira. Hemen, itsasoa gizakiaren markoa da.

Cosme Echevarrietaren moduko enpresa-kapitain batentzat, itsasoa zera zen “diziplina-eskola bat [...], non jaiotzen diren bertute garbienak, norberaren lurra zerbitzatzea erabaki duten jende indartsua sortzen dutenak”.

Ondarroako arraunlari garaileak lanean, artistak arraunlari batzuk aurkezten dizkigu, zutik, arraunak goian dituztela, garaipena ospatzen. Maria Kristina erreginaren bisitaren harira 1887an Abran egin zen lehen estropadako arraunlariak dira? Itsasgizon hauek gailendu zitzaizkien Santurtzi, Zierbena eta Bermeokoei? Zubiaurrek hamaika marinel margotu zituen: zortzi aurrera begira daude, beste bi alborra begira, eta beste bat margolanaren eskuinean ageri da, baina eskua bakarrik ikusten zaio, itsasoaren eta atzealdeko labarraren gainean nabarmentzen den zapi bat astintzen duen eskua. Marinel batzuek gomazko botak daramatzate jantzita; beste batzuek, espartinak. Arraunak buruz behera daude, heldulekua lurrean bermatuta eta bertikalean; ez dira endaiak ikusten, iruditik kanpo geratzen baitira. Zubiaurrek xehetasun bat erantsi zion heldulekuari, edo, hobe esanda, apaingarri bat asmatu zuen arraunlarien eskuak pausatzen diren pertika-zatian. Helduleku guztiek kolore berak dituzte, urdina eta horia, baina marrazkiak desberdinak dira.

Zubiaurrek arraunen bertikaltasunarekin egituratzen du espazioa, eta muinoen horizonte garaiarekin, baina, lan honetan, konposizioaren egitura, funtsean, koloreak ezartzen du, pigmentuen kondentsazioak eta urdinaren eta zuriaren arteko kontrasteak, okre eta laranja artekoak. Zubiaurrek infinituan galdutako begirada hotzak islatzen ditu, Duccio di Buoninsegna italiar primitiboaren santu eta apostoluen antzekoak, batzuetan errepikatuek; atzealde zuriko begiak dira, ezin hobeto eginak, eta insight bat iradokitzen dute, barne-begirada bat. Eskumutur zabaleko arraunlariek pilotarien itxura dute, pilota norabide egokian jaurtitzeko gorputza frontoiko zoruan ongi finkatu eta eskuz palari zehaztasunez ematea besoaren indarra baino garrantzitsuagoa dela badakiten pilotarien itxura. Aitzitik, olio-pintura leunki pausatzen da margolanean, partzela erritmiko sinpleetan, hala nola lurreko pabaduran edo aurpegiaren posizio desberdinetan. Erdiko figurak, ikuslearen pare-parean geratzen denak, ondoren sortu zuen Xanti Andia laneo protagonistaren alkandora laranja bera darama.

Hamar urte geroago, Zubiaurrek Barojaren eleberriko Xanti Andia pertsonaia irudikatu zuen. Itsasgizon zaildu baten erretratua da: zutik ageri da ekaitzaren erdian, belaontzi baten bizkar nagusian; eskuineko eskuaz irmoki erakusten du norabidea, eta ezkeraz, aldiz, brontzeko heldulekuari eusten dio. Konposizioak ebaki diagonal bat du —behealdeko marinel batzuek bela harrapatu nahian tenkatzen duten eskota edo soka bikoitzak eratua—, eta bi zatitan banatzen du

margolana. Goiko aldean itsasoa dago; beheko aldean, eskifaia eta ababorrera makurtu edo okertutako ontziaren bizkarra. Goiko aldean, arrocketan behea jo eta hondoratutako belaontzi baten masta ere ikusten da, baita ontziek jomuga duten portuko etxe gainezarriak ere. Marinelaren irudi irmoaren atzean, beste pilotu batek lemaren gurpilari heltzen dio gogor, jarrera deserosoan, bi eskuak gurpilaren barretan jarrita. Pertsonaiak galerna betean daude. Galerna ohiko fenomeno da Kantauri itsasoan udan, beroaren ondorioz bortizki aldatzen direnean haizearen norabidea eta abiadura. Galernak ilunabarrean gertatzen dira, tenperatura altu eta hego- haizeko goizaren ostean; hezetasuna eta presio atmosferikoa handitu egiten dira, eta ipar-mendebaldeko haize zakarrak ekaitzak lagundutako itsaski indartsuak eragiten ditu, eta arriskuak, haizearen indarragatik baino gehiago, oso bizkor biratzen eta areagotzen delako; horrek ikaragarri zailtzen du porturako sarrera.

Orban urdin eder bat sortzen duten apar nahasiko olatu urdin eta zuriak ageri dira protagonistak luzatuta duen besoaren gainean. Pertsonaia guztiek daramatzate euritik edo uretatik babesteko marinela-txanoak, baina figura nagusia arrantzale- alkandora laranja bat eta txapela jantzita tente dago, eta badirudi ekaitzak ez duela eraginik berarengan eta natura menderatzen duela bere aginte eta aginduekin. Begiek barnealderantz begiratzen dutela dirudi; begirada hori tipikoa zen bi Zubiaurre anaien pertsonaietan, gorra izanik oso adi erreparatzen baitzieten keinu bisualei; lemazainaren begiak ere nabarmentzen dira, alkandora okre- laranja azpian ikusten den kamisetaren zuriaren antzera. Beste jantzi batzuk tonu-aldaerak dira, bermiloi-karga handiagoarekin<sup>2</sup>.

Iparraldeko gure lurretako itsas langileek itsaso zabaleko lan eta zereginen zorrotasunari aurre egiten jakin izan dute, baita zeruaren grisaren eta Galiziatik Euskadira kolore-paleta berbera duten ekaitzen gogortasunari ere. Gure marinelek eta itsas zurginek kolorezko hizkuntza bat kodetu dute, portuko sartu-irtenetan elkar identifikatzeko balio izan diena, eta elkar ikusteko itsaso zabal deritzogunean, zeina funtsean baita itsaso sakona. Itsasoaren sakontasunaren eta indarraren aurka borroka egin dute arrantzaleek, kolore biziz apainduz haien ontziak, gainazal urdin ilunean banatutako irribarreak balira bezala. Erabilera horren adibide bikain bat Hondarribitik Zierbenarainoko Kantauri itsasoko portu guztietako arrantzontzien kolore ugariak dira<sup>3</sup>.

Margolanaren gainerako zatia urdinen jolasa da; marinelaren helduleku den zutoina ere urdina da, erremateak brontzezkoak izan arren. Itsasoa urdin berdexka azido eta metalikoa da, eta jantzien laranja eta gorriekin kontrastatzen du. Zubiaurrek Les Nabis taldeko margolarien pintura ezagutu zuen Parisen, baita modan zeuden ekialdeko artistena ere (Hokusai eta haren olatuak, adibidez), eta horrela sortu ahal izan zuen galerna hau distortsio grafikoei menderatutako gainazal urdin gisa, orban zuriak margotuz urdinaren gainean, non ez dagoen perspektibarik, baina bai, ordea, turbulentsia-sentsazioa. Zubiaurrek beste baliabide narratibo bat ere aurkezten digu, gainera: margolan bat margolanaren barruan, brigantin eder baten irudi okertua, eszenako itsasontzia makurtuta dagoelako. Makurdura eta lerro zehar horiekin (margolanarena eta zutoinarena norabide batean, eta hondoratzen ari den ontziaren mastarena bestean) kontrajarrita, Xanti Andia irudia nabarmentzen da: gizonaren keinuak antzinako eskultura baten pisu eta seriotasuna du (Zeus Artemision eskulturarena), margolanaren bi zatien arteko balantza da.

Ramón de Zubiaurreren Xanti Andia itsasgizona eta Arraunlariak margolanetan itsasoaren eta pertsonen idealizazioa daukagu. Hemen, itsasoa lezio bat da, eta akats guztietan ezkutatuta dagoen jakintza erakusten digu, zalantza guztietan ezkutatuta dagoen ziurtasuna. Hori guztia, galernari aurre egiteko jakintza, arriskuaren aurreko lasaitasuna, Barojaren kontakizuneko marinela zahararengan ageri da, baita estropadako heroi anonimoengan ere. Barrurantzko begirada irmo horretan, non agintea eta esperientzia, heroitasuna eta elkartasuna ezkutuan geratzen diren eta ahalmenik ere ez duten zoriari aurre egiteko.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Margolan honekin, bere ibilbide artistikoko sari garrantzitsuenetako bat irabazi zuen Zubiaurrek 1924an: lehen mailako domina Madrilgo Arte Ederren Erakusketa Nazionalan, eta lana Arte Modernoko Museoko funtsetan sartzea (egun Museo Nacional Centro de Arte Reina). Ramón de Zubiaurrek Madrilgo San Fernando Akademian ikasi zuen; ondoren urtebete egin zuen Parisen, 1905ean; egonaldiak egin zituen Herbehereetan eta Italian, eta denboraldi luzeak igaro zituen Argentinan eta Txilen. Arrakasta handia izan zuen erretratugile gisa. [\[itzuli\]](#)
2. Kolorea da artearen motibo eta materia nagusietako bat, baina bada, halaber, barnekotasunaren adierazpen grafikoa, barnekotasun kolektiboarena, kasu honetan. Natura koloretan adierazten da, baina baita giza industria osoa ere, gizakiak bere historian zehar altxatu duen guztia ere. Gizakiak pigmentuak otzandu ditu, izena jarriz ez ezik (nomenklatura berezi bat), baita ekoizpena antolatuz ere (eta horien manufaktura berezia). Haien iraunkortasuna, bateragarritasuna eta erabilerraztasuna bilatu ditu, Artearen Historia deritzogun alorrean zein egunerokoan erabiltzeko. [\[itzuli\]](#)
3. Izan baxurako ontziak, izan alturakoak, Kantauri itsasoko arrantza-unitate guztiak itsasoaren urdin sakonaren gainean ageri diren koloretako hasperenak diruditen pintura eder eta alaiz apainduta daude. Iparraldeko portu guztietan ikus daitekeen antolamendua, hau da, kolore primarioka osatutako ilarak harrizko kai zaharren barruan, memoria kolektiboan gordetako paisaia bat dira. Honako hau ez da paisaia hori fosildu nahi duen begirada nostalgiko bat, baizik eta begirada kritiko bat, gure arbasoen kolore-psikologiaren aberastasunaz ohartaraziko diguna. Gure ontzien koloreak ez du zerikusirik Karibeko kolore horiekin, edo Jakartako zuriekin, ezta Ameriketako Estatu Batuetako Maineko arrantzontzien zurruntasun kalbinistarekin ere. Ikusi Kosme de Barañano, hitzaurrea José Manuel Susperreguiri, *Colores del mar*, Bilbo, 1996. [\[itzuli\]](#)

## ITSASOA. UCELAY

*Bermeo* izeneko hormirudia José María de Ucelayren (1903–1979) gaztetasuneko lan gorena da. Bermeori buruzko margolan handi bat da, Pedro de Ispizuak eraikitako Euskal Alderdi Jeltzalearen batzokirako egina 1933an<sup>1</sup>.

Lagun jeltzaleen eskaerari erantzuteko, Ucelayk kontuan hartu zituen Sienako herritarrek 1316ko dokumentu baten bidez Palazzo Comunale jauregia dekoratuko zuten margolariei ezarritako baldintzak: “ikusteko atsegina, bihotzerako pozgarria eta guztien zentzumenentzat asegarria”. Ucelayren lanak itsas hiria sintetizatu zuen, baina ez oroitzapenetik, baizik eta une hartako orainetik.

Ez da hiriaren gaineko talaia historiko bat, egunerokotasuna bera irudikatuta baizik. Adinekoetatik haur jaioberrietara, era guztietako jendeak du bere lekua margolanean, baita sorbalda gainean kanabera handi bat daraman mutiko batek ere, zeina baita gerora ezaguna egin zen Nestor Basterretxea eskultorea. Baina lan honetan desagertu egiten da erretratu bere horretan, nahiz eta pertsonaia guztiak errealak diren eta artistarentzat paratu diren.

Arreta pertsonaiengan jartzeari utzi dio, gizarte-talde bat irudikatzeko, itsas herri bat. Egunerokotasunaren bizitasuna nonahi nabari da, jolasean ari diren haurretan, emakume saregileetan, ontziolan eta kaian lotuta dauden arrantzontzien ilaran. Erretratu indibiduala arrantzale-herriaren egiazko erretratu batean desegiten da.

Margolanak hiru konposizio-gune ditu, elkarrekin hizketan ari diren hiru pertsonaia-talderekin; horietako bakoitzean emakume bat nabarmentzen da, bizkarrez, parez pare eta saiheska. Ezkerrean, eremu ilun bat dago, arkupetua, arrantzari lotutako hainbat pertsonaia eta elementurekin. Talde hori alde batera utzita –zurgintzako ontziola baten eta ontzigintzako elementu zein kordel nautikoen lehen plano baten bitartez zatituta–, erdiko taldera igarotzen gara: emakume saregileak, zutik dagoen Venus arrantzale batekin. Kale-argi batean amaitzen den talde horretatik margolanaren eskuinaldera pasatzen gara, mutiloietara lotuta dauden arrantzontziek osatzen duten *travelling* zinematografiko moduko baten bitartez, eta atzealdean herriko etxeak ageri dira, horien artean Ertzilla dorrea, kutsu gotikoko leihoeekin.

Eskuinaldean, buruz behera dagoen txalupa batek osatutako lehen planoaren atzean, beste pertsona-talde bat dago hizketan. Puntua egiten ari den emakume bat eskaileretan behera doa: 1933ko azaroan artistarekin ezkondu zenaren erretratu da, Inés Achicarena. Atzealdeko itsasoan brigantinak eta belaontziak nabigatzen ari dira; zeruan, karioak elkarrizketan ari dira, eta iraileko hego-haizeak sortzen dituen hodei tipikoak forma ederrak hartuz hedatzen dira.

Itsasontziek, aingurek eta kale-argiek pertsonen duintasun berbera dute, eta arrantzontzi tximiniadunek armada unformatua osatzen dute, horizonteko lerroan lerratzen diren brigantin eta belaontzien askatasunarekin kontrajarrita.

Ucelayren begirada hotza eta misteriotsua da. Iraupen luzeko esposiziodun kamera baten antzera begiratzen die pertsoneri eta objektuei; Edward Westonek loreekin, kaktusekin eta beste landare batzuekin egiten zituen argazkietan bezala. Landareak edo gauzak aurkikuntza bihurtzen dira bien kasuan, eta, hortaz, gure hautemate-modua aldarazteko ahalmena lortzen dute, inguruan dauzkagun objektuen errealtatea hautemateko modua aldaraztekoa. Hemen, giza gorpuztuz ororen edertasun inperfektua errealtatearen munduko natura “hil” bihurtzen da, objektuen bizia bezain

izoztuta dagoen bizitza. Ikuspegi hori – konposizioari eta estiloari dagokienez– “objektibotasun berria” edo *Neue Sachlichkeit*<sup>2</sup> deritzonetik baino hurbilago dago *errealismo magiko*<sup>3</sup> izenda dezakegunetik.

Ucelayren margolanean nolabaiteko enigma edo misterioa dago, baina ez dakigu zerk sortzen duen: objektu indibidualak argi eta garbi definituta daude, lerro sendo eta sotilez mugatuak. Haien edertasuna eta berezitasuna eztaba daezinak dira, baita elkarren ondoan edo zertxobait kontraesankorrak diren puntu fokalekin kokatuta daudenean ere, irrealtasunezko zentzu espazial batean. Ucelayren *objektibotasun berriak* eguneroko eszena batera darama ikuslea, eta eszena hori paralizatuta dago *pinturan*, gelditasun magiko horretan.

Erta zabaltzen du konposizio panoramiko batean, eta itsas munduarekiko atsegina natura hil bihurtuta geratzen da: aldi berean nolabaiteko lasaitasuna eta misterioa darizkion *veduta* bat da. Zentzu dramatikoak objektuen antolamenduaren bidez eratzen da, objektuzko balio desberdinak elkarren ondoan jarrita. Objektuak drama bateko antzezleak dira, eta elkarrizketan dihardute, pertsonen antzera. Hori da errealismo magikoaren dialektika bisuala: objektuek beren elkarrizketan duten energiak eragiten du misterioa. Artistaren indarra konposizio-indarrean datza, bere margolanean objektu eta pertsona-talde horiek *bir-kokatzeko* ideian eta ahalmenean, “ikuspegi” pertsonal bat “ikusgai” egitean. Horrexegatik, lan honen eduki emozionala estiloa bezain konplexua da.

Ucelayk ongi menderatzen zuen geometria, eta hori dago konposizioaren oinarrian. Baliteke Ucelayren bi muturrak geometria eta samurtasuna izatea, Blaise Pascalen ildotik: “Il y a deux sortes d’esprit : l’esprit de géométrie et l’esprit de finesse.” Zehaztasuna eta harmonia dago margolaneko egituretan. Geometriak ez ditu zati abstraktutan eta ñabarduretan zatitzen formak; aitzitik, giroak eta argiak osatzen dituzten egitura saihetsezinetan eusten die. Errealitatearen ikuspegi – goitik edo behetik fokuratu– zorrotz samarra da, eta batzuetan gogora dakarkigu pikatuaren (natura hiletan) edo kontrapikatuaren (erretratuetan) teknika zinematografikoa.

Oihal batean edo kameraren enkoadraketan errealitatea ezartzeko modu hori ez zen izan estilo-figura huts bat Ucelayren lanean; ohitura bat edo pentsamolde bat izan zen. Sentitzeko eta bizitzan egoteko modu baten emaitza izan zen, pertsona zein gauzekiko ahalik eta errespetu handienarekin jardutearena. Horregatik dirudite haren herritar guztiek aristokratak; eta horixe susmatu zuen Ramón de Basterra poetak, eta *Zuberoako dantzak (Danzas Sulettinas)* lanaren harira azalduko dugu. Izakiei buruz pentsatzen zuenaren ondorioz, gizaki orori eta hark sortutako objektu orori izaera aristokratikoa aitortzearen ondorioz, Ucelayren lanean den-denak dauka bikaintasun-aire bat, noblezia-aura bat, baita kaktus bat edo loreontzi bat erretratatzeko duenean ere. Ucelayk dena nobletzen duen erretratugile gisa jarduten du beti, funtsean. John Ruskin filosofo eta kritikari ingelesak zioen zibilizazioek beren gertaeren, hitzen eta artearen liburuetan idazten dutela beren autobiografia. Liburu horietako bat bera ere ezin da ulertu besteak irakurri gabe, baina hiruretatik, azkena da fidagarriena.

Ucelayk eguneroko Bermeoren egiazko biografia utzi zigun bere muralean.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Eraikinak hainbat liskar eragin zituen eraikitze-prozesuan, eta originaltasunez ñabartu zuen Bermeo, Fernando Arzadunen 1929ko ‘Kikumbera Etxeak’ bezala. Ikusi Kosme de Barañano, “Pedro de Ispizua: el racionalismo en Vizcaya”, *Deia*, 1978ko otsailaren



11; eta Kosme de Barañano, “Una obra polémica: el batzoki de Bermeo”, *Euskadi* aldizkaria, 1979ko martxoaren 23a. [itzuli]

2. Alemanian, hainbat kritikari, hala nola Paul Westheim, Ernst Hausenstein edo Kunsthalle Mannheim museoaren zuzendari Ernst Hartlaub, neorealismoari buruz hizketan hasi ziren, fenomenologia piktoriko berri bati buruz, zeinak 1925ean egin zuen bere lehen bilkura, Mannheimeko museoan, *Neue Sachlichkeit* izenburuko erakusketa batean. Franz Roh izan zen lehena fenomeno edo mugimendu piktoriko berri haren ezaugarriak laburbiltzen: *Nach-Expressionismus*, *Magischer Realismus*, *Probleme der Neuesten Europäischen Malerei* lanean egin zuen, 1925ean argitaratua Leipzigen. Lan hori gaztelaniara itzuli zuen bi urte geroago *Revista de Occidente* argitalpenak, eta *El realismo mágico. Post-expresionismo* izenburua jarri zion. Seguru asko, Ucelayk ezagutu zuen liburu hura, eta baita erakusketa ere, bai berak, bai Antonio de Guezalak lehen eskutik ezagutu izan baitzuten Alemanian gertatzen zena. Theodor Kiefferri igorritako gutun batean (1930eko abenduaren 31koa), Georg Scholzek honela zioen: “objektibotasun berrian, gauzak berak hartzen ditugu beti abiapuntutzat. Gauzen atzean ez dago ezer” (“in der neuen Sachlichkeit sind wir immer von den Dingen ausgegangen. Hinter den Dingen war nichts”). [itzuli]

3. Adierazpide horrek, *errealismo magikoa*, 1930eko hamarkadako Parisen gure margolariaren adiskide izandako Alejo Carpentier kubatar idazlearen eleberri barrokoa definitzeko balio izan zuen. Ucelay gai zen itsasontzi baten bizkarra zabaltzeko antzezlan bateko eszena bihurtzeraino, eta, era berean, Carpentier gai zen ontziteria baten deskribapena zabaltzeko horrekin adagio musikal bat osatzeraino. [itzuli]

## ARTETA - GERRAREN TRIPTIKOA

Hiru pieza hauek, Frontea (El frente), Exodoa (El éxodo) eta Atzeraguardia (La retaguardia) [garaiko egunkarietan, aldiz, Lubakian (En la trinchera), Ebakuazioa (La evacuación) eta Bonbardaketaren ostean (Tras el bombardeo) izenburuekin aipatu zituzten], *Gerraren triptikoa* osatzen dute eta Aurelio Artetak (1879–1940) egin zituen Biarritzen. Aurelio Artetak 1936an hasitako Gerra Zibilari buruz zuen ikuspegia laburtzen dute. Epikaren kutsua baino gehiago gerraren aurkako elegiaren kutsua duen lan honetan, Artetak oinarritzat hartzen ditu bai Gustavo de Maeztuk itsasoaren hondamendiei buruz egindako konposizioa, lehenago aztertu duguna (*Lirika eta Erljioa*), baita Max Beckmannen triptikoak ere.

Artetak erbestean amaitu zuen lana, Frantzia, Mexikora alde egin baino pixka bat lehenago; Mexikon hil zen, tranbia- istripu batean. Multzo harmoniko bat da, ongi orekatua konposizioan, eta asmaketa- aberastasun bikaina erakusten duen elokuentziaz interpretatua. Figura guztiak, ongi marraztuak, forma perfektu eta erabat amaituagatik nabarmentzen dira; tonalitate gutxi-asko iluneko koloreen bidez lortutako forma da. Kolore grisaxkak, forma indartzeaz gainera, figuren inguruan espazioa sortzen laguntzen du. Bolumena pertsonaien posizio era askotara mailakatuak iradokitzen du, baita balio ñabartuek ere, izaera gehienbat lineala dutenek: Artetak Juan Gisen<sup>1</sup> kubismotik ikasi zuen koloreez eta koloretako planoez baliatzeko modu hori. Artetak ez zuen inoiz atzean utzi irudien ikusmolde laua, Italiako Trecentora egindako bidaiaren eta bere ikuspegi frantziskotar sozializatzailearen eragina, eta are gutxiago uko egin zion espresiozko lerroari zeregin garrantzitsu bat emateari.

Lan honek amaiera eman zion Artetaren aldi oso pertsonal bati, zeina hasi baitzen 1920an Londresen aurkeztutako Torpedoz erasotako marinela (Marineros torpedeados) lanarekin eta, bereziki, *Burceñako zubia* (Puente de Burceña) izenekoarekin. Artetaren paisaia hiritar horrek, 1921ean eginak, pertsonaia maskulino bat aurkezten digu; bizkarrez dago, eta zubi baten barandan edo karelean pausatuta, malenkoniaz begiratzen dio Kadagua ibaiaren uren joanari; behean, ibaiertzean, zaldun batek edaten ematen dio bere zaldi zuriari ur kutsatuetan, eta zubiaren azpitik txalupa bat ateratzen da. Atzealdean, edo konposizioaren itxiera gisa, langile-etxe gorri eta grisak daude, bolumenen kubikazio nabarmena dutenak bai beren kokapenean, baita teilatuetako angeluenean ere; ardatz bertikalean, lantegi bateko tximiniak konposizioa ebakitzen du erdian. Nolabait, Artetak buruan zerabiltzan Emile Verhaeren poetaren ideiak, zehazki “La ville” (Hiria) poemakoak (Les Campagnes hallucinées, 1893):

Burdinazko zubi gihartsuak dira, airean jaurtiak, jauzika;

[...]

Aldirien gaineko dorreak dira, Milioika teiltatu dira

Zerurantz goratzen beren angelu zuzenak: Hiri garroduna da,

[...]

## Nafta eta bikezko ibai bat.

(Ce sont des ponts musclés de fer, / Lancés, par bonds, à travers l'air; [...] / Ce sont des tours sur des faubourgs; / Ce sont des millions de toits / Dressant au ciel leurs angles droits: / C'est la ville tentaculaire, [...] / Un fleuve de naphte et de poix.)

Hori guztia arkitektura industrial batean enkoadratuta dago, zubiaren burdinazko armazoiaren erronboide-formako egituraren, altzairuzko elementuen tenkatasunean, zubiaren oholari “eusten” dioten elementuak, konposizioari eusten diotenak edo hura egituratzen dutenak. Artetak erreferentzia argia egiten dio bere lagun ingeniari eta arkitektoen burdinazko arkitektura berriari. Figura bakartia biltzeko joko formal gisa erabiltzen ditu habeak (burdina edo altzairuzko T bikoitzak), hots, X itxurako sareta bikoitzak. Burdinazko egituren lerro ahaltzu horiek margolana geometrizatu eta konposatzeko balio diote, ur gainean zintzilikatutako leku bat eraikitzeko. Burdinbideetako ingeniariari erreferentzia oso hurbil dago japoniar grabatuetako iradokizunetatik, horiek ere geometrikoki ongi definitutako egitura horizontalez beteta baitaude<sup>2</sup>. Zalantzarik gabe, Artetak, Adolfo Guiarden antzera, ikusia zuen Europako zubia, Gustave Caillebotte margolariak 1876an eginiko lana (Geneveko Petit Palais Museoan dago), non arreta ematen duten elementuak baranda eta egituretako sareta bikoitz ahaltzuak diren, txirikorden jolas formalarekin eta itzalekin<sup>3</sup>.

Artetaren margolaneko zubiak Zorrotza (Abandoko elizatea) eta Burtzeña (Barakaldoko elizatea) udal-barrutiek bat egiten duten puntuan zeharkatzen du Kadagua ibaia. Bilbo eta Santander arteko errepede nazionala hartzen zuen zubi hori 1876an eraiki zuen Adolfo Ibarreta ingeniariak (1829–1893)<sup>4</sup>, 1869an uholde batek Espainian eraikitako lehen zubi esekia suntsitu ostean (Antonio Goikoetxea bermeotar arkitektoak 1822–23an egindako proiektua<sup>5</sup>). Zubiak orduko Abandoko errepublika (gaur egungo Zorrotza) eta Burtzeña (Barakaldo) lotzen zituen. Gerra Zibilean dinamitu egin zuten (1937ko uztailaren 19ko goizaldean), eta gero, 1940an, egungoa eraiki zuten, hormigoi armatuzkoa. Baina Artetaren margolaneko zubia ez da Ibarretarena, hainbat zubiren nahasketa baizik. Kokapenari eta margolaneko zubiaren ezkerrean dauden etxebizitzetako dagokienez, baita langilea pausatuta dagoen barandari dagokionez ere, Ibarretaren zubia da<sup>6</sup>. Baina egiturak iradokitzen du Pablo Alzolarena dela<sup>7</sup>, ibaiaren ibilguan aurreraxeago dagoena, edo Irauregiko zubia, herri horren eta Kastrexanaren artean kokatua, Valentín Gorbeñak eraikia.

Ez da harrizkoa Artetaren margolan honek, lehen planoan ingeniariaren egitura hori duela, Lord Norman Foster arkitektoaren arreta erakarri izana; Bilboko Arte Ederren Museoan handitzeko proiektua aurkeztu zuenean, Artetaren margolan hau proposatu zuen bere kontzeptuaren oinarriko metafora gisa: irudiak funtsezko zubietako bat kokatzen du —iraganaren ulermenean—, etorkizuna eraiki ahal izateko. Bere proiektuan, Fosterrek 1945eko eraikinari protagonismoa eman zion berriro Arte Ederren Museorako<sup>8</sup>.

*Gerraren triptikoaren* aurretik, Artetak eginak zituen beste mural batzuk. Italiatik iritsi berritan, murala egin zuen (zeramikara eramana) Galdiz-Ormaechea panteoian, Mario Camiña arkitektoak diseinatua Getxoko hilerrian, 1909an. 1923an, Esfertzua (El Esfuerzo) izeneko mural-multzo bat sortu zuen, eta orduz geroztik irudi horrek apaintzen du Banco de Bilbaoren (gaur egun BBVA) egoitzaren alabastrozko

zutabe bikoitzeko sarrera zirkularra (ia 80 metro karratuko biribilgune bat), Madrilgo Alcalá kaleko 16. zenbakian. Puerta del Soletik Alcalá kalean gora eginez, eskuinaldeko izkinetako batean, Banco de Bilbaoren botere ekonomikoak Espainiako Bankuarekin lehiazteko gai izango zen eraikin bat sustatuko zuen<sup>9</sup>. Muralak zirkuluan kokatutako 12 pieza ditu (2 x 3 m-koak)<sup>10</sup>, eta Euskal Herria mundu landatarretik industrialera eraman zuen esfortzuaren elegia bat da (pairakortasuna, nekaezintasuna eta idealismoa). Artetak laborari eta nekazarien mundua irudikatu zuen, eta arrantzaleena, baita meatzaritzako jarduera eta ontzioletako itsas siderurgia ere. Hauek dira hamabi kapituluak: “Lan intelektuala”, “Ereilea”, “Uzta”, “Kaiko zamaketariak”, “Deskargatzaileak”, “Ontziola”, “Burdinola”, “Burdinbidea”, “Arrantzontziaren porturatzea”, “Arrantzaleak kaian”, “Meatzeak” eta “Arteak”.

Irudikapen horretan, Artetak “L’Effort” poemako ideiei jarraitu zien. Darío de Regoyosen lagun Émile Verhaereren<sup>11</sup> *La multiple splendeur* liburuko poema bat zen, eta Ramón de Basterrak itzuli zuen. Verhaerenek Espainian barrena bidaiatu zuen Regoyosekin 1888tik 1891ra bitarte, eta hainbat aldizkaritan argitaratu zituen bere iritziak, gero espainiar margolariak *España negra* (1899)<sup>12</sup> izenburupean argitaratu zituenak. *La multiple splendeur* liburuko poemek energia, ahalegina, lana, natura, etab. goresten dituzte, eta gai nagusizat dute lanarekiko miresmena eta ahaleginaren goraiipamena. Aipatu dudanez, Burtzeñako zubia margolanean ere erreferentzia egiten dio Verhaereni.

Artetak amerikar horma-pinturaren lorpenetako batzuk izan zituen gogoan Banco de Bilbaon. Adibidez, New Yorkeko Manhattan Appellate Court eraikina, 1900eko urtarrilaren 2an inauguratua, 1900. urtean James Brown Lord arkitektoak eraikia East 25th Street eta Madison Avenue kaleen arteko izkinako 35. zenbakian. AEBko Justizia Ministerioaren eraikin handiena zen, eta horma-pinturaren gailurra izan zen herrialde hartan. James Brown Lordek une hartako hamar margolari nagusiak aukeratu zituen, sarrerako kupularen azpiko biribilgunea osa zezaten, “civic responsibility” gaia kontuan hartuta. Urte batzuk geroago, 1912an, John Latenser arkitektoak Douglas Countyko auzitegia diseinatu zuen Omahan (Nebraska, 29. irud., 226. or.). Azken solairuan, kristalezko kupula baten azpiko biribilgunea inguratzen dute mihise gainean margotuta dauden zortzi olio-pinturek. AEBko Mendebalde Ertainean izandako hedapen-historia irudikatzen dute, baita Omaha hiriaren historia ere: amerikar natiboen kanpalekuak, kolono zurien iritsiera, hazkundea eta nekazaritzaren kultura, eta Missouri ibaiaren garrantzia, lautadako hiri gisa sortu zen arte. Kontakizuni zirkular bat, Artetarenen antzekoa. Jatorrian, Will Rauk margotu zituen muralak; horrek nagusiki New Yorken lan egin zuen antzoki eta elizetarako, Artetaren moduan<sup>13</sup>.

Era berean, esan daiteke Artetaren pinturak jarraitutasun irmoa izan zuela Amerikan. Adibidez, Thomas Hart Bentonek (1889–1975) lanari egindako kantuan, Amerika gaur egun (*America Today*) izenekoan, zeinak erakusten baitu estatubatuarren bizitzaren panorama zabal bat 1920ko hamarkadan zehar, AEBko hainbat eskualdetako bizimodua irudikatuta. 1929ko Depresioari erreferentziak egiten badizkio ere, Bentonek teknologia modernoan oinarritutako “aurrerabidearen” ideia berresten du, eta teknologia hori, aldi berean, eskulanaren eta lan industrialaren mende dagoela; horregatik, langileak, heroikoak Artetaren lanetan bezala, muralaren panel askotan ageri dira<sup>14</sup>. Bentonek aluminiozko xafla bat duten egurrezko moldurak sortu zituen, lan osoa markoztatzeaz gain, konposizio handi bakoitzaren barruan haustura espazial berritzaileak sortu zituztenak.

Pixka bat geroago, Diego Rivera mexikarrak kontratu bat sinatu zuen Detroit Institute of Arts museoarekin, barneko patioako hormak dekoratzeko; garai hartan, Edsel Fordek finantzatzen zuen (Ford

Motor Company konpainiaren sortzailearen semea). Riverak amaitu berri zuen mural bat Kaliforniako Arte Ederren Eskolan (gaur egun, San Frantziskoko Arte Institutua). Riverak hogeita zazpi panel osatu zituen, eta bederatzi hilabete bakarrik behar izan zituen (1932–33). Hiriko automobilgintza-sektore garrantzitsua irudikatu zuen langileen ikuspegitik, langileak baitziren industria haren benetako motorra eta gizadiak zientziari zor baitio aurrerabidea.

Muralak motorren fabrikazio-prozesua irudikatzen du, gizakiaren eta makinaren arteko harremana, eta hainbat elementu, hala nola burdin minerala sortzeko labe garaiak, piezen moldeak egiteko galdategiak, mekanizazio-eragiketak, etab. Riverak fabrikazio-prozesu osoa aurkeztu zuen iparraldeko mural handian. Ezker-eskuin, industria kimikoa margotu zuen, elkarren ondoan jarrita gerrarako gas pozoitsuak sortzen zituzten zientzialariak eta txertoak nahiz sendagaiak sortzen zituztenak. Hegoaldean, Riverak automobilen kanpoko piezen fabrikazio-prozesua irudikatu zuen, eta teknologian jarri zuen arreta, baita Coatlicue jainkosa aztekaren sorreraren historian ere <sup>15</sup>.

Artetaren muralak nekazaritza-industriaren hedapenaren eta Bilboren susperraldiaren kontakizun epikoa dira: elizatez inguratutako hiribildu izatetik hiri industrial eta finantzario izatera pasatu zen, eta bilakaera horren azken sinboloa Bankua bera zen, Madrilan erdigunean kokatua. Gregorio San Juan poetak adierazi zuenez, “ez dira lan esklaboaren epopeia, lan askatzailearena baizik. Ofizioen poliptiko horretan, itxaropenaren filosofia hautematen da, bizitzaren eta lanaren ikuskera progresista bat, energia, oparotasun eta elkartasun gisa ulertuta”<sup>16</sup>.

Gerraren triptikoa lanean, lurruntzien tximiniak garlingaren berdetik ateratzen dira, lehen Kantauri itsasoari begira mendietan kokatuta zeuden lantegien tximiniak ateratzen ziren moduan. Erdiko panelak, goitik begiratuta eginak, beste bi panelak ez bezala, gerraren izugarrikerietatik arrantzontzietan ihes egin behar duten emakume eta haurren agurra kontatzen du; laguntzen ari zaizkien marinela infanteriako kideak izango dira alboetako paneletan, lubakietan babestutako kideak edo bonbardaketen ondorioz hildakoak, bizirik ateratako txakurra gizagabetasunaren lekuko dela. Xehetasuna ezaugarri du Artetaren margotzeko moduak: ilekordadun neskatzaren burua hormaren siena okreen gainean nabarmenduta ebakitzen da, artistaren lehenengo “eva arratiarren” malenkonia berberarekin, euskal herrixketako Venus landatar haiek, artistaren lehenengo aldi ageri zirenak, aldi italianizataileagoan<sup>17</sup>. Ite horia buruaren obalora inguratzen duen hori zati bat da, argia horra bakarrik iritsiko balitz bezala.

Artetaren pinturan ohikoa denez, salbaziorako portua, konposizioa goitik ixten duena, sintesi bat da, talaia-nahasketa bat, hala nola Elantxobe eta Biarritzeko portu zaharreko kai sendoak; nahiz eta kasu honetan antz handiagoa duen Armintzaren dike-kaiarekin, mailengatik eta uretara daramaten eskaileen norabideagatik. Horietan laburbiltzen du Artetak gertatzen ari denari buruz duen ikuspegi sinple, gris baina lirikoa: gerrak erretako lurra, agurra.

Margolan honek Bilboko pinturaren garai artistiko bat ixten du; Bilbo, XIX. mendean hazitako portu-hiria, zabalgunea Abrarantz ireki zuena, eta itsasontzien nahiz portuaren bitartez merkataritza- eta aberastasun-aukerak zabaldu zituena, kaietan bilduta zegoen orduan ere, baina erbesterako bidean. Orduan amaitu zen Lehen Karlistaldiko setioaren ondorioz sortutako elkartasuna; une hartan desagertu zen etorkizun irekiko ikuspegi hura, Máximo Aguirrek eta beste merkataritza batzuek osatutako Sociedad

Bilbaina elkartearen espiritua, oinarritzat zuena Bildung-a, formakuntza humanistikoa (erantzukizunean eta tolerantzian oinarritua).

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Formalki, konposizio honek aurrekari urrunak zituen 1920an Londresen aurkeztu eta Salvador de Madariagak inoiz ahaztu ez zuen *Torpedoz erasotako marinela* lanean. Lan horretako gaia eta girotzea berriro erabili zituen *Naufragoak (Los Náufragos)* lanean, *Itsasoko gizonak* ere deitua (1932); margolan horrekin lortu zuen 1932ko Arte Ederren Erakusketa Nazionalako lehenengo domina, *Bainulariak (Bañistas)* izenekoarekin Pinturako Sari Nazionala lortu eta bi urte geroago. Lan horiek guztiak biziki estimatzen zituzten Ricardo Bastida arkitektoak eta Indalecio Prieto politikariak. [\[itzuli\]](#)
2. Egokiro, Javier González de Duranak honako hau idatzi zuen: “Hala ere, zubiari eusten dioten burdinazko habeek eraturako erronboa [...] Zentzu metaforikoan, honela interpreta liteke: industrializazioa leiho bat da, eta leiho horretan barrena ikusten dugu gaur egungo bizitza behatzailearen ikuspegitik eta gizakia bertan giltzapetuta dago, armiarma sare batean harrapatuta bezala, baina sare horrek, gertatzen ari denaren gaineko ulermena zabalduz, nolabaiteko hobekuntza existentziala eskainiz”. Javier González de Durana, *Guía Artistas Vascos, Bilbao*, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 2008. 76.–78. or. <https://apps.euskadi.eus/emsime/katalogoa/museoa-museo-de-bellas-artes-de-bilbao-/egileak-arteta-aurelio-bilbao-02-12-1879-ciudad-de-mexico-10-11-1940-/izenburua-burtzenako-zubia/objektua-pintura-/ciuVerFicha/museo-58/ninv-82/162> [\[itzuli\]](#)
3. Ikusi Guiardi buruzko kapitulua. [\[itzuli\]](#)
4. Ibarreta Bilbotik Durangorako tren- linearen proiektugilea eta eraikitzailea izan zen; 1882an hasi zen linea horren ustiapena. Alzolaren kontra, Ibarretak bide estuaren erabilgarritasunaren tesia babestu zuen. [\[itzuli\]](#)
5. Ikusi ingeniari eta arkitektoei buruzko kapitulua. [\[itzuli\]](#)
6. Miriam Alzurik (Bilboko Arte Ederren Museoko fitxan) aipatzen du zubia 1876an eraiki zuela Adolfo Ibarreta ingeniariak Burtzeñan (Barakaldo). Akats hori beste argitalpen batzuetan ere egin da: Carmen Barreiro, *El Correo*, 2018ko azaroaren 28a (Iñaki Llanori elkarrizketa) edo José Costa Más, “Ferrocarril, ciudad y territorio. Miradas desde la pintura y el grabado (1844- 1914)”, 12. or. (2012ko ekainaren 21ean jatorrizkotik artxibatutako pdf dokumentua. 2012ko urriaren 9an kontsultatua). [\[itzuli\]](#)
7. Portugaletetik Bilborako trenbideko biaduktua, Burdinazko Zubi izenekoa, Pablo Alzolak eraiki zuen, diseinatu zuen ingeniariak (eta tren-linearen jabeakidea). Linea 1888an jarri zuten martxan, eta zubiak zutik dirau oraindik. 64 metroko argia du, eta 5,40 metroko altuera duten bi habe paralelo handi ditu. Habeek T bikoitzaren itxura dute, eta sekzio errektangularreko pletinez osatutako sareta diagonal baten bitartez lotuta daude. Bi habeak San Andresen gurutzeen bitartez daude lotuta, bai goian, bai behean. Burdinazko oinarriak harlanduzko euskarri artifizialen gainean jarrita daude. Oholaren gainean, egurrezko zeharragak eta burdinbidearen errailak daude. Egituraren elementuak iltze zapalez lotuta daude. [\[itzuli\]](#)
8. 2019ko abenduaren 16ko *El Correo* egunkarian jasotako informazioa. Bilboko egungo alkate Juan María Aburtok, halaber, Artetaren margolan hau bere kuttunenetakoa bat dela adierazi du: “Historia personal batek lotzen nau Artetaren margolan honekin”, *Deia*, 2017ko otsailaren 4a eta *El Correo*, 2018ko uztailearen 1a. [\[itzuli\]](#)

9. Bastidaren eraikinari egindako kritika guztiak ez ziren positiboak izan: “Ricardo de Bastida y Bilbaok, 1918an erakundeak deitutako lehiaketa publikoa irabazi zuen arkitektoak, tenplu hilobi handi hori eskaini zigun, tradizioan eta mitoan ainguratutako gizarte baten boterearen eta delirioaren adierazpena”, Luis Segundo Arana Sastre, *ARKRIT* aldizkaria, 2014ko abenduaren 23a. Banku nagusiek egoitza ireki zuten Madrilén: Banco Español del Río de la Plata bankuak Antonio Palaciosi agindu zion Alcalá kaleko egoitza, gaur egun Cervantes Institutuaren egoitza dena; Español de Crédito bankua José Grases Rierak La Equitativa aseguru-etxearentzat (1882–91) egindako eraikinean instalatu zen 1920an, Alcalá eta Sevilla kaleen elkargunean; Crédit Lyonnais Tomás Allende bilbotar sustatzailearen eraikinean instalatu zen 1920an, Leonardo Rucabadok Canalejas plazan eraikitako eraikinean; Banco de Bilbaok lehiaketa publiko bat egin zuen 1919an, eta Ricardo Bastida garailea izanik, fatxada nagusiaren lerroak aldatuta bat proposatu zuen, makotua egiteko. Bastidak Artetari agindu zion sarrera; Quintín de Torreri, fatxadaren goiko aldeko marmolezko lau atlanteak, balaustadaren aurrekoak; Higinio Basterrari, dorreen gainean ipini ziren bi koadrigak, kale gainean hegan zituztenak zortzi zaldien hankak; eta Maumejean anaiei (Parisen, Biarritzen eta Madrilén zituzten lantegiak), beiratez apaindutako kupula. [\[itzuli\]](#)
10. Fresko horiek 2003an zaharberritu zituzten. Irudietan eguneroko jarduerak agertzen dira, hala nola nekazaritza, uzta, burdinola, trenbidea, ontziola, meatzea, zamalanak eta arrantza, baita lan intelektuala eta arteak ere. [\[itzuli\]](#)
11. Émile Verhaeren (1855–1916), *La Multiple Splendeur*, Paris, Mercure de France, 1913, 129.–31. or., lehenengo edizioa 1906an argitaratua; “El esfuerzo” poema Fernando Fortúnek (Madril 1890–14) itzuli zuen, Grupo Crepuscular taldeko poeta eta kritikari espainiarrak, 1916an, *España* aldizkariaren 98. zenbakian, eta “Los magos” poema, aldiz, Ramón de Basterrak, 1912an, *Prometeo* aldizkariaren 38. zenbakian. Aurelio Artetak bere lan-karpetan zeraman “L’Éffort” poema, eta fresko guztietan ageri dira Verhaerenen estrofetako batzuk. *Les Villes tentaculaires* (1895) liburuko lanaren heroi anonimoak, aurrerabidearen langileak, giharrei eta pertseberantziari esker gizakiaren borondatearen mende jarri dutenak, jasota daude fresko historiko honetan, zeina mintzo baita hiriaren hazkunderi buruz, beti landa-eremuaren edo elizatearen kontura gertatzen den hazkunderi buruz. [\[itzuli\]](#)
12. *España negra*, Pedro Ortega, Bartzelona, 1899. E. Verhaerenen artikulua, “Impressions d’artiste. À Dario de Regoyos”, *L’Art moderne*, 1888ko ekainaren 17a, 196.–97. or.; 1888ko uztailaren 8a, 221.–22. or.; eta 1888ko abuztuaren 5a, 250.–52. or.; “En Espagne”, *Impressions*, 1ère série, Mercure de France, Paris, 1926, 195.–226. or. Honi buruz, ikusi J. Warmoes, *Émile Verhaeren “El Flamenco español”*, Europalia, Brusela, 1985, 127.–29. or.; eta J. Marx, *Verhaeren. Biographie d’une oeuvre*, Académie Royale de Langue et de Littérature Françaises, Brusela, 1996. [\[itzuli\]](#)
13. Mural horiek Will Raurenak (1874– 1956) dira; antzoki askotan dekoratu eta margotu zituen muralak, batik bat Keith-Albee (gero RKORen parte) eta Century Circuit (A. H. Schwartz zen jabea) antzokietan, edo Suffolkeko Konderriko Antzokian (Riverhead, New York), berritzen ari direna. Elizetan eta udal-eraikinetan ere margotu zituen muralak. [\[itzuli\]](#)
14. Thomas Hart Bentonek (1889– 1975) New Yorkeko New School for Social Research erakundearentzat margotu zuen murala, West 12th Street kaleko eraikinaren hirugarren solairuko batzar-aretoa apaintzeko. 1930ean agindu zioten, eta 1931n amaitu zuen. Hamar panel dira (233,7 x 406,4 cm), tenperaz eginak igeltsuzko inprimaziodun mihise gainean, ondoren egurrean muntatuak. The New School erakundeak 1982an saldu zuen; AXA Equitable Life Insurance Company konpainiak New Yorkeko Metropolitan Museum of Art museoari eman zion murala dohaintzan, 2012ko abenduan. [\[itzuli\]](#)
15. Industriaren muralak Monumentu Nazional izendatu zituen Barne Departamentuak, 2014ko apirilaren 23an. [\[itzuli\]](#)
16. *Aurelio Arteta*, erak. kat., Banco de Bilbaoren Erakusketa Aretoa eta Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 1979, 59. or. [\[itzuli\]](#)

17. Nerea Aresti eta Miren Llona, "Las mujeres imaginadas de Aurelio Arteta", Euskal Herriko Unibertsitateak UPV021. 323 Hal56/98 proiektuaren bidez emandako babesari esker egindako komunikazioa. [[itxuli](#)]



## HERRIXKA. GUIARD, ARTETA, ITURRINO, IBARROLA

Itsasoko munduaren parean, portuak merkataritza eta kultura gisa zuen esanahiaren parean, arrantzak eta nabigazioak, itsasontziek eta ontziolek zekartenaren parean eta hiribilduaren mugak zabaltzeak esan nahi zuenaren parean landa-eremua daukagu —ondo-ondoan—: herrixkak, hiribildua inguratu eta elikatzen zuten elizateak, zelaiak eta lur landuak, Bizkaiko *lur laua* (jada azaldu duguna), harresirik gabeko udalerrri edo biztanleguneak.

Bilbo Abando, Begoña eta Deustuko elizateek inguratzen zuten; zehazki, hurbileneko auzoek: Atxurik eta Ollerietak Begoñan, San Frantziskok eta Bilbo Zaharrak Abandon eta Deustuk; 10.000 biztanle baino gehiago zeuzkaten<sup>1</sup>. Bilbok hiru elizate horiekin izandako harremana antolamendu administratibo eta juridikoaren kontrasteak markatu zuen. Bilbok lege batzuk zeuzkan (hiri-gutuna edo Gaztelako Erresumako lege orokorrak), eta elizateak, aldiz, eliz atariko kontzeju irekiak gobernatzen zituen (Foru Zuzenbideak). Baina Aldundiko errejidoreak Bilbon bizi ziren.

Azkenean, XIX. mendearen hasieratik, hiribildu-elizate harremana, edo argiago esanda, Bilbo-Bizkaia harremana, ez zen soilik izan lan- interdependentzian eta produktu-trukean oinarritutako harreman bat (zirkuitu ekonomikoa), baizik eta biztanleen eta familia-harremanen elkarrenganako fluxua. Ikusi dugunez, XIX. mendearen erdialdeko enpresaburu garrantzitsuenetako batzuk lur lautik iritsi ziren. Landako hiru biztanlegune aktibo horiek izatea —Bilboren inguruko nekazaritza-gerriko handi bat izango balira bezala— aire freskoko balbula bat izan zen.

Pentsa dezagun une hartan Berrezarkuntzaren Espainiak landatarra izaten jarraitzen zuela, eta nahiko urrun zegoela Europa garatuenetik. Manuel Azaña politikariak (1880–1940) zera esan zuen gizarte hartaz: “kontraste bortitzenak zituen; zenbait hirigunetan, bizitza-maila altua, zibilizazio garaikideko erabilera guztietara egokitua, eta kilometro gutxira, XV. mendean geldituak ziruditen herrixkak”. Frantziako Iraultzarik eta Industria Iraultzarik gabeko Espainia zen, eta biak batera existitzen ziren, Antzinako Erregimenaren “zahartasuna” eta “berritasuna”<sup>2</sup>. Bestalde, Pio Baroja idazleak (1872–1956) honela aztertu eta laburbildu zuen gizarte hura: “hiri handitik urrutiko herrixkara joatean, bizitza modernotik antzinako bizitzarako aldaketa nabaritzen da” (baina) “bi bizimoduetako ezein, ez herrixkako, ez hirikoa, ez dira garbiak eta homogeenak beren antzinasunean edo modernotasunean; hiriak eta landa-eremuak elkarrengana hurbilduz doaz, eta eragina dute bata bestearengan”<sup>3</sup>.

Urrats gutxi batzuek bereizten zituzten bi mundu horietaz ohartzen lehenak artistak berak izan ziren. Esan dezakegu hainbat urtez Bruselan eta Parisen ibili ostean Darío de Regoyos eta Adolfo Guiard etxera itzuli zirela eta dikotomia hura ikusi zutela horizonte berrien bila zebilen Bilbo industrialaren eta elizaren kanpandorreak ezarritako bizitza-eritmoa izaten jarraitzen zuten herrixka herabeen artean.

Regoyosek ondo zekien hori, bere lagun Émile Verhaeren (1855–1916) belgikar poetak jasotautzibaitzuen funtsezko hiru liburutan: *Les campagnes hallucinées* (Landazabal haluzinatuak, 1893), *Les villages illusoires* (Ametsezko herrixkak, 1895) eta *Les villes tentaculaires* (Hiri garrodunak, 1896)<sup>4</sup>.

*Les campagnes hallucinées* liburuko lehen poemak, “La plaine” (Lautada) izenburudunak, elizako bilerek markatutako herrixka emankor eta langile horien desagerpenaren berri ematen zuen, eta azaltzen zuen lan mekanikoa soroak labakitzen hasi zela eta jende hura, erlijioak markatutako “engranaje handi baten bizi-zatiak”, hirietara joaten hasi zela. Hirietan, iragana nahasi egiten zen “Avec le présent net l’avenir encore gauche”. Verhaerenek, liburu bereko “La ville” poeman, hiriaren hazkunderaz hitz egin zuen, eta beti ingurukoaren kontura hazten zela azaldu zuen. Poetarentzat, hiria izaki garroduna zen, eta, hala, *Les villes tentaculaires* liburuko “L’âme de la ville” poeman, ondoko lurak ez ezik, banakoak ere anexionatzen zituela aipatu zuen.

Elizateetako mundu hura hainbat margolanetan irudikatuta ikusiko dugu erakusketa honetan: Adolfo Guiarden 1892ko *Uzta-garaia* (*La siega*) eta Aurelio Artetaren 1913ko *Arratiako Eva* (*Eva arratiana*) lanetan, eta *fauve* kolore-kontrapuntu batekin *Landako festa* (*Fiesta en el campo*) izenekoan, ca. 1902, Francisco de Iturrinorena, Henri Matisse lagunari *hegoaldeko argia* erakutsi zion margolariarena. Guretzat Agustín Ibarrolaren *Totem* (1972–74) lanean amaitzen da, maisutasunezko ikono horretan, elizateko totem horretan.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

- 1870ean Abando eta Begoña partzialki anexionatuta (1861eko apirilko legearen babespear), handitu egin zen Bilboko biztanle-kopurua: 1877an, 32.734 biztanle izatera iritsi zen; ikusi Andere Arregui, “Una historia contigua: la presión urbana de Bilbao sobre la Anteiglesia de Abando en el siglo XIX como antesala del ensanche”, VII Encuentro Internacional de Jóvenes Investigadoras e Investigadores en Historia Contemporánea, Granadako Unibertsitatea, 2019ko irailaren 5etik 7ra. [itzuli]
- Manuel Azaña, *Causas de la guerra de España*, Juan Pablo Fusi eta Jordi Palafox, *España, 1808–1996. El Desafío de la Modernidad*, Espasa-Calpe, Madril, 1997, 170. or. [itzuli]
- Pío Baroja, “La vida tradicional”, *Obras completas*, V. liburukia, Biblioteca Nueva, Madril, 1976, 999.–1.000. or. [itzuli]
- Liburuak batera berrargitaratu zituen Mercure de France argitaletxeak (Paris, 1904). Ikusi Juan Soros, “La ciudad tentacular en dos poemas de Émile Verhaeren y una ilustración de Frans Masereel”, *Ángulo Recto. Revista de estudios sobre la ciudad como espacio plural*, 3. lib., 2. zk., 2011. urtea, 279.–91. or. [itzuli]

Adolfo Guiarden 1892ko *Uzta-garaia* lanean (239. or.)<sup>1</sup> belar gogorra eta abereentzako ohatzeak egiteko ihiak biltzen ageri dira hainbat nekazari, Gernikako itsasadarreko paduretan, Muruetako ibarraren parean, irailean, San Migel eguneko itsasgorak baino lehen. Lehen planoan, ezkerrean, gazte bat makurtuta dago, fardel bat jasotzen, eta eskuinean, pixka bat urrunago, beste bat zutik dago, sardean bermatuta atseden hartzen, esku bat aldakan jarrita. Atzealdean, konposizioaren behealdetik bi heren gorago ageri den horizontearen pean, bikote bat hizketan ari da, zutik, eta gizonak fardel bat darama sorbaldan, eta sega fardeletik zintzilik; era berean, idiek daramatzaten bi gurdi ere ageri dira, eta nekazari bat zutik horien artean. Konposiziozko triangulazioa dago langileen alkandora zurietan; horizontearen lerroari kontrajartzen zaio lehen planoko segaren kirtena, eta horrek markatzen du konposizioaren sakontasuna, fardela lortzeko makurtuta dagoen mutilaren hanka luzatuarekin orekatzeaz batera; itsasaldiak ekarritako urek ere sakontasunezko beste sigi-saga bat sortzen dute. Argia ahula baino bizia da, egunsentiko argia, lainoa oraindik erabat desegin ez denekoa. Jean-François Millet artistaren *Buruxkariak* (*Des glaneuses*, 1857) lanaren antzera, *Uzta-garaia* margolan antropologiko bat da, eta goizeko lehen orduak dokumentatzen ditu, ihintzogatik freskoak, ihiak mozteko eta idiak paduretan barrena gidatzeko lan pisutsua egiteko ordu aproposak.

1890eko hamarkadaren hasieran, Guiard Muruetako eremu horretara erretiratu zen, Gernikako itsasadarraren estuarioan<sup>2</sup>. Logela batzuk alokatu zituen Busturirako jaitsieran zegoen Casa Flores etxean<sup>3</sup>, eta parean zuela Allendesalazararren 'Gane' oinetxe handia<sup>4</sup>; bertan txakolin bikaina egiten zuen Manuelek (geroago Gobernuko presidente), Guiarden moduan *zirriborroan* hitz egiten zuenak. Halaber, bertan partekatzen zituen denbora eta pozak Guiardek Ramón de la Sotarekin; guztiak belaunaldi berekoak ziren, eta iritzi politiko desberdinetakoak.

Muruetan, monasterioko soiltasunean eta naturarekin harreman zuzenean, Guiard bakardade piktoriko gogoetsuan murgildu zen. Nekazari gazte ezezagun horiek erretratatu, denboraren etena sentiarazi nahi zuen, goizaldeko argitan eta isiltasunean, paduren zabaltasunean (Longoniren Berninako mendipeko haranaren zabaltasuna bezalakoa, Morbelliren arroz- soroen zabaltasuna bezalakoa. Pintzelaren erabileran aldaketak eginez, lehen planoko enpastetik atzealdeko pintura leunera, Guiardek espazioa egituratu edo eraiki zuen. Gainerako margolari guztien moduan, Guiardek aire zabaleko margolanak egiten zituen, baina margolan horiek sortzeko ordu luzez lan egiten zuen, halaber, Zazpikaleetako estudioan.

Guiardek hogeitik gora lan garrantzitsu egin zituen Gernikako itsasadarreko behe-ibarraren paisaiarenak, izan padurenak, izan sagarrondo loratuz betetako zelaiarenak.

Konposizioaren alderdirik interesgarriena urte batzuk lehenago Sociedad Bilbaina elkartearentzat egin zituen margolanekin alderatuz gero ikusiko dugu. Lan haietan argiro jasota zegoen Paristik ekarritako ikaskuntza, inpresionistengandik ikasitakoa: hainbat perspektibadun eszena, enkoadraketa fotografikoen eragina, japoniar pinturarekiko nolabaiteko interesa, etab. Hemen inpresionismoaren beste funtsezko

ideia bat daukagu, eta Guiardek ideia hori zabaldu zuen Espainian: aire zabalean edo *au plein air* egindako pinturaren berezko hizkuntza, argi-pintzelkada txikietan zehaztua, italiarrek *scoperta del vero* deritzotena, *plenairismoari* berezkoa zaion naturan oinarritutako margotze hori. Aire zabaleko pinturaren esanahi nagusia naturan *ikustea* da, piktorikoki bereganatzea lekuaren argia —izan Regoyosen iparraldeko argia, Iturrinoren hegoaldekoa, Segantiniaren Alpeetako argia, Cézannen Sainte-Victoire mendiko argia edo Guiarden Busturiko paduren argia—, ondoren oihal gainean *ber-egiteko*, pintzelkada ugariko diskurtsoan, egun luzez, ez *one shot* batean edo *improntu* batean. Hala, margolari horiek guztiek lurralde piktoriko berriak aurkitu zituzten beren jaioterrietan: kanadarrek elurteetan, Kanadara itzultzean; Segantininik Malojara alde egitean, Regoyosek Euskal Herrira eta Sorollak Xàbiara joatean, hurrenez hurren.

*Uzta-garaia* lanean Guiarden beste edozein lanetan baino nabariagoa da inpresionisten printzipioaren kontzentrazioa argi- intzidenteari eta fenomeno meteorologikoei dagokienez. Eszena irudikatzea baino gehiago iradokitzea helburu duten pintzelkada solteek agerian uzten dute artistak paduraren erdian astoarekin hortxe *egotearen* berehalakotasuna adieraz dezakeen estilo bat lortu nahi duela. Motiboa hutsala da; ez da ez bainuetxeko terraza, ezta Abandoko geltokia ere, baizik eta ur gaziko itsasaldietara ohituta dagoen belar gogorrez beteriko ibarrak. Baina interesgarria ez da gaia, irudikatze modua baizik, horrek egiten baitu ikusgarri irudia: artistak pintzelkada erabili eta hautematen duenaz ohartarazteko gaitasuna du, eta irudikatu ez ezik, atzeman egiten du eguneko eta laneko une jakin bat.

Parisko formakuntza-garaian jasotako estimuluei esker baino gehiago, Euskal Herrira itzulita bide propioa abiatu zuenean aurkitu zuen Guiardek egia piktoriko hori. Fenomeno bera ikusten dugu beste herrialde batzuetako beste artista batzuegan, *Uzta-garaia* margolaneko gaiaren oso antzekoekin. Hona hemen hiru adibide, bi artista italiar eta Philip Wilson Steer britainiarra.

Angelo Morbelli<sup>5</sup> italiarrak, *Laurogei zentimoren truke!* (*Per ottanta centesimi!*, 1895–97, Francesco Borgogna Museoa, Vercelli Piemonte) edo *Arroz-soroan* (*In risaia*, 1901) margolanetan, Vercelliko (Piamonte) arroz-soroen mundua erakusten digu (Guiardekin padurekin egin zuen moduan). Jendea arroza jasotzen ageri da, bizkarrez, oinak uretan sartuta dituela, eta zerua uretan islatuta baino ez da ageri. Beste italiar bat ere badugu, Emilio Longoni<sup>6</sup> lombardiarra, eta horrek ere gero eta harreman handiagoa garatu zuen naturarekin, eta lanaldi luzeak egin zituen Valtellinan, Berninako mendien oinetan; bertan, margolan ugari egin zituen *dipinti dal vero* ohiturari jarraituz, 1912ra arte luzatutako ohitura. Haren *Bi ardiren artean* lanak, edo, batik bat, *Alpeetako paisaia* [*Paessaggio alpino (Disillus)*, 1914, Galleria d'Arte Moderna, Milan] izenekoak eremu zabal batean sartzen gaituzte, *Uzta-garaia* lanak bezala, baina eremua menditarra da; nekazariak sakontasun perspektiboa ematen diote konposizioari, baita enpastearen erabilera anitzek ere, trinkoagoa ardian, haren hanketan, adibidez, eta arin eta leuna, aldiz, margolanaren amaieran irekitzen den urdinean. Guiardek eta Longonik orokortu egiten dute distantzia ertainean, gure arreta multzoaren puntu fokaletik desbideratu nahi ez balute bezala, eta puntu fokala eszenako elementu naturalista eta topografikoetako egiazko giroa erakutsi nahia da, eta ez hainbeste uzta-biltzea edo ardiak.

Horixe ikusten da, halaber, Philip Wilson Steer<sup>7</sup> britainiarraren lanetan, eta baditu beste antzekotasun batzuk ere Guiardekin. Paristik itzuli ondoren, Steerrek atsegin zuen Walberswickera (Suffolk) joatea margotzera, bilbotarrak Gernikako itsasadarrera joatea atsegin zuen moduan, hura ere estuario bat. “Wobbleswig” gisa ezaguna, eta Blyth ibaiaren estuarioan kokatua, Londrestik hurbil dagoen herri zahar hori ezaguna izan zen XIX. mendearen hasierako akuarelisten artean. Baina ondoren, 1881ean tren-

geltokia ezarri zutenetik, Muruetan jazo zen antzera, margolari gazteen talde handi samar bat iritsi zen herrira, hondartza harritsuan jartzeko beren astoak. Steer pintura berriaren dibulgatzailea ere izan zen, eta haurrak margotu zituen, Guiardek *Krabelin gorridun baserritar gaztea* edo *Txo* konposizio bikainetan egin bezala, non haurrak naturalak diren eta “haien poseak” haurren izaeraren ezagutza sakonarekin aztertuta dauden.

Badira Steerren bi lan Guiarden lanek bezala arnasten dutenak. Lehena *Zubia (The Bridge, 1887)*<sup>8</sup> izenekoa da, eta bainuetxetik ateratako bista gogorarazten digu, beste eskala batean. Bigarrena *Akituta (Tired out)* da, 1885. urtea baino lehenagokoa<sup>9</sup>, eta oso hurbil dago *Uzta-garaia* lanaren materia piktorikotik. Margolan horretan neskata bat hondartzan lo ageri da, eta ondoan zenbait tresna ditu. Zutik dauden beste haur batzuek ematen digute perspektiba, baina argiaren eta hondartzaren giroa, baita kolorearen erabilera ere, Guiardenaren oso hurbilekoa da. Steerrek nekea irudikatzen du, baina gai nagusia hondartzako argia da. Zalantzarik gabe, Parisen igarotako urteetan, Guiardek zein Steerrek ezagutu zuten Edgar Degasen *Itsas bainuak: mirabeak orraztutako neskata (Bains de Mer: Petite Fille peignée par sa bonne, ca. 1868–77, olio-pintura paperean, 46 x 81 cm, National Gallery of Art, Londres)*, eta baita Whistlerrena ere, noski, jada margotu baitzituen hondartzako eszenak St. Ivesen, 1884 aldera, eta aurkeztuak baitzituen bai Parisen, bai Londresen.

Hitz egin izan da, halaber, Guidarden izaera nagiaz<sup>10</sup>. Bizitzari begira zeukan lasaitasunaz eta estoizismoaz, eta aipatu izan da haren nagikeria profesionala, nahiz eta bera ziur eta sinetsita egon bere pintura kalitatezkoa zela eta Pinturak berritasuna irudikatzen zuela. Steerren biografia biltzen ari zela, Dugald Sutherland MacColl margolari eta idazle eskoziarrak beste artista bati idatzi zion, George Clauseni, zeina izan baitzen Steerren gaztetako laguna eta harekin sortu baitzuen New English Art Club kluba. Clausenek, 92 urteak beteta zituenak, honela erantzun zion: “Une hartan, adimen nagia baina kolorearen zentzu bikaina zuen gizon bat iruditu zitzaidan (Steer), alderdi horretan inoiz hanka sartu ez zuen gizon bat. Egun haiez geroztik, ondorioztatu dut ez zuela ‘adimen nagia’, baizik eta koloreen auzien gainean erabat kontzentratuta zegoela, gainerako ia guztia alde batera utzita. Kontzienteki ala ez, haur baten ikuspegi freskoa adierazten saiatu zen”<sup>11</sup>. Iritzi hori ezin hobeki aplikatu diezaiokegu Guiardi. Denak igaro ziren Paristik 1880ko hamarkadan, eta era askotako teknika inpresionistekin esperimentatu zuten; guztiek ikusi zituzten bai inpresionisten erakusketa, baita Manet eta Whistlerrenak ere; etxera itzultzean, guztiak hartu zituzten mespretxu kritikoz, baina guztiek lortu zuten arrakasta pixkanaka, eta hurrengo belaunaldiaren margotzeko modua aldatu zuten.

Illo horretan, Adolfo Guiarden “inpresionismoa”, hau da, laurogeiko hamarkadan Bilbon eta ondoren Espainian txertatu zituen ideiak, ez ziren izan moda igarokor bat, *pinturan pentsatzeko* modu bat baizik. 1870aren ondoren Paristik igaro ziren Espainia, Britainia Handia, Lituania, Kanada eta beste herrialde batzuetako artista horietatik ia guztiek beren herrialdeetara *inportatu* zuten diskurtso hori —aurrerago ikusiko dugunez—. Jada aipatutako Steer margolariak esan zuen, zuzen esan ere, inpresionismoa ez zela “ez inongo herrialdetakoa, ez inongo garaitakoa” (“of no country and of no period”), eta Guiarden antzera, argudiatu zuen margolari ororentzat bistakoa dela natura giroak blaitzen duela<sup>12</sup>.

*Uzta-garaia* lanean, Guiardek kutsatu gabeko paisaia bilatu zuen: ez gaurko zentzuan, baizik eta historizismoz eta Akademiak kutsatu gabea. Muruetan, Guiardek ez zuen natura hila bilatzen, naturatik bizirik dagoena baizik; harentzat, paisaia behaketa zen, ez panorama bat; Guiard enpirista ingeles bat

zen, eta xehetasunari arretaz erreparatzen zion, hala nola lasto bustiaren hezetasunaren balioari edo airearen garbitasunari. Adi erreparatzen zien argi-efektuei, baina ez Nicolas Poussinen konposizio eszeniko “eraikiarenei”, baizik eta *agertoki naturalekoei*: begi argiz begiratzen duen nekazari gaztearen araztasuna, eduki historikorik gabea. Funtsean, egunsentiaren lan honetan, Guiardek gogo-aldarteak atzeman zituen, bere gogo-aldarte, margolariaren beraren bakardadea naturan, lantegitik kanpo, arreta bere arnasketa naturalari baino eskaintzen ez ziola, eta ez Akademiaren arnasketa teorikoari.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1891n aurkeztu zenean, margolan honek Arturo Campiónen kritika eragin zuen, iruditu baitzitzaion Guiardek irudikatutako gazteek “aurpegi itsusi, gogor eta espresiorik gabea” zutela eta horrek “talka egiten du(ela) euskal arrazaren edertasunarekin; iritzi haiei aurka egin zien Nicolás Viarrek, Guiarden pinturaren eta aire zabaleko ikuspegiaren kalitatea berretsiz. Alabaina, Viar oker zebilen aipatu zuenean margolaneko nekazariak “zereginak amaitzear daude(la), eta eguzkiak, ozeanoan ezkutatuta, tonu laranja batez koloreztatzen du paisaia osoa”. Javier González de Duranak Guiardi buruz egindako doktorego-tesi bikaineko fitxan aipatzen duenez, “irudiko eguneko unea goizeko argi zilarreztatua da”. Hori ohikoa izan da Murueta eta Foruko ibar osoan: goizeko lehen orduak erabiltzea abuztu amaierako sargori-egunetan. [\[itzuli\]](#)
2. Hauek dira itsasadarreko paisaia eta bereziki padurak eta alubioizko lur emankorren behealdea irudikatuta dituzten Guiarden beste lan batzuk: *Gernikako ibarra (La vega de Guernica)*, *Paisaia itsasoarekin (Paisaje con el mar)*, *Paisaia baserritarrekin (Paisaje con aldeana)*, *Baserritarra soroko lanetan (Aldeana en las labores del campo)*, *Sagarrondo gaztea (Manzano joven)*, *Busturiko garia (El trigo de Busturia)* eta *Sagarrondo loratua (Manzano en flor)*. Artistaren margolan aztertuen, eta bere garaiko klasikoena, *Promesa (De promesa)* izenburukoa da, eta bi gizon-emakume adindu eta emakume haurdun bat irudikatzen ditu; hori ere Triñeko beheko hegalean kokatuta dago, Foruan. Muruetako paisaiaren eragin hori presente egon zen, halaber, 1894. urte osoan, eta urte horretan, Guiarden lagun Zuloaga eta Uranga paisaia hori bera finkatzen hasi ziren Bermeoko kasinorako mural handietan. [\[itzuli\]](#)
3. Udalerriko bolatoki zaharraren ondoan kokatutako Casa Flores etxean egin zioten, hain zuzen, margolariari egindako elkarrizketa bakarra; Crescencio Erquiciak egin zion, orduan *El Nervión* egunkariko zuzendaria zenak (elkarrizketa irailean argitaratu zen). Barbizonek Frantziako inpresionismoaren jatorrian izan zuen garrantzi bera izan zuen Muruetak euskal pinturan. Muruetan egin zion bisita, halaber, Anselmo Guinea margolariak, eta formakuntza Erroman jarraitu ordez Parisen jarraitzea erabaki zuen. Guiardek inpresionismoaren praktikari eutsi zion. [\[itzuli\]](#)
4. Allende-Salazar eta Sota familiei buruz, ikusi gaztelaniazko liburukiko *addenda* “Títulos y Nombres”. [\[itzuli\]](#)
5. Angelo Morbelli (1853–1919), Monferratoko margolaria, puntillismoaren ordezkari garrantzitsu eta ezagunenetakoa bat da mundu osoan, duela gutxi egindako hainbat erakusketari esker, hala nola 2008an Londresen egindakoa, *Radical Light*. Haren obra ikusgai dago Parisko Musée d’Orsay Museoa eta Bostongo Arte Ederren Museoa, besteak beste. [\[itzuli\]](#)
6. Emilio Longoni (1859–1932) Barlassinan jaio zen, Brianzan. Matteo Longoni errementariaren eta Luigia Meroni jostunaren hamabi seme- alabetan laugarrena izan zen. Lehen Hezkuntzako ikasketak egin ostean, Milanera bidali zuten lanera. Umea zela, pinturarekiko grina handia agertu zuen. 1875etik 1878ra bitarte, Brerako Akademiara joan

- zen, eta sari ugari jaso zituen bertan. Triennale di Brera erakusketaren lehen edizioan, 1891n, *Grebako hizlaria* (*L'oratore dello sciopero*) aurkeztu zuen berak, eta Giovanni Segantini, 1882an ezagutu zuenak, *Bi amak* (*Le due madri*). 1900etik 1932ra bitarte, nazioko eta nazioarteko erakusketa garrantzitsuetan parte hartu zuen. Lehen Mundu Gerraren ostean, budismora hurbildu, eta bere baitan bildu zen; bere estudioan hil zen, 1932an. [itzuli]
7. Philip Wilson Steer (1860–1942) margolari ingeles bat izan zen, Birkenheaden jaioa; Philip Steer (1810–1871) erretratugilearen semea zen. 1878an, Zerbitzu Zibilean sartzeko baldintzak zorrotzegiak zirela jakin ostean, artista izatea erabaki zuen. 18 urterekin, Gloucesterreko Arte Eskolan sartu zen, eta geroago, 1880tik 1881era, South Kensingtoneko Arte Eskolan aritu zen. Royal Academy of Art akademiak ez zuen onartu, eta 1882tik 1884ra bitarte Parisen jarraitu zuen formakuntza, Académie Julian akademian, eta ondoren École des Beaux Arts eskolan, Alexandre Cabanelen tutoretzapean. Impresionismoa Erresuma Batura eraman zuen, eta New English Art Club kluba sortu zuen. [itzuli]
8. Margolan honek (*The Bridge*, 1887, olio-pintura mihise gainean, 49,5 x 65,5 cm, Tate Britain, Londres) eraso gogorak jaso zituen kritikarien aldetik 1887an lehen aldiz aurkeztu zenean; kritikari batek arbuia egin zuen, “nahita egindako pintura-orban bat edo udako eraldi hutsa” zela argudiatuta (*either a deliberate daub or so much mere midsummer madness*). Steerrek margotzeari uzteko aukera aztertu zuen, kritika horren ondorioz. Baliteke bista Walberswickekoa izatea (Suffolk). [itzuli]
9. *Akitua* 1885a baino lehen egindako lana da, urte horretako Manchesterreko Udazkeneko Erakusketan ikusgai egon baitzen (olio-pintura oihal gainean, 61 x 76 cm, sinadura: *P. W. STEER*, Sotheby's British & Irish Art, 2014ko maiatzaren 22a, Londres). Margolan honetatik hurbil dago *Harritxoak, Walberswick* (*Knucklebones, Walberswick*, Ipswich Museum, Ipswich), hondartzako beste eszena interesgarri bat, 1889ko *London Impressionists* erakusketan erakutsia, edo *Figurak hondartzan, Walberswick* (*Figures on a beach, Walberswick*, 1888–89, Tate), itsasoak bustitako harri biribilekin, *knucklebones* edo “hatz- koskorretako hezurrak” deituak. [itzuli]
10. Ikusi liburu hau: Javier González de Durana *Adolfo Guiard*, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 1984. [itzuli]
11. Dugald Sutherland MacColl, *Life work and setting of Philip Wilson Steer*, Faber and Faber, Londres, 1945, 27. or.: “*My impression at that time was of a man with a lazy mind, but gifted with a wonderful sense of colour, he never made a mistake about that. Since those days I have come to the conclusion that it was not a 'lazy mind', but a concentration on the problems of colour, almost to the exclusion of everything else. Whether consciously or not, he tried to express the fresh vision of a child.*” [itzuli]
12. Hitzaldia Art Workers' Guide erakundearen, hemen aipatua: MacColl, *op. cit.* 57. or.: “*Is it a craze that we should recognize the fact that nature is bathed in atmosphere? Is it a fashion to treat a picture so that unity of vision may be achieved by insisting on certain parts more than others? No! It is not a fashion it is a law.*” [itzuli]

## ARTETA – ARRATIAKO EVA

*Arratiako Eva* margolan handia Artetak 1920tik aurrera Cézanne margolariaren eragina zuen angelu kubistako pinturari ekin aurretik egin zuen lan onenetako bat da. Uztaren une bat irudikatzen du Bizkaiko ingurune landatar batean: lau pertsonak eta idi-bikote batek osatzen dute muino batean enkoadratutako eszena, eta muinotik belardiz betetako mendi izurtuen segida bat ikusten da. Ezkerraldean, buruan saski bat daraman neska baserritar gazte batek harro begiratzen dio ikusleari; eskuinaldean, baserritar-bikote gazte bat ageri da. Emakumea lurrean erdi etzanda dago, eta sagar bat eskaintzen ari zaio gizonari (hortik datorkio lanari Evaren izenburua), eta gizona, zutik, lastoa jasotzeko sardearen heldulekuan bermatuta dago<sup>1</sup>. Bai ezkerreko emakumea, baita bikotea ere, kontrargian egindako argazki batetik atereak egongo balira bezala enkoadratuta daude, eta idien gurdia —belar oraindik freskoz betea— argian murgilduta dago, beste soro urrunekoago batean zutik ageri den baserritarraren antzera. Atzealdean mendi harritsu bat ikusten da, Ogoñoko haitzaren antzekoa, beraz, zelaiak Metxikasekoak edo Paresikoak izan daitezke. Muinoek, gurdian pilatutako belarrak eta zuhaitzen adaburuek hodeien kokapenean oihartzuna duten mugimendu makotuak sortzen dituzte; Ucelayk geroagoko *Zuberoako dantzak* konposizioan egindakoen antzekoak, baina hemen pintzelkada solte eta luzangekin. Ezkerreko neskak margolanari goiko aldetik eusten dion kariatide bat izango balitz bezala funtzionatzen du, eta eskuinetik zuhaitz baten adarrak ageri dira, bikotea babesteko; Artetak beste margolan batzuetan ere erabili zuen konposiziozko erretorika-mota hori<sup>2</sup>. Saskia daraman neskaren besoek suge-itxurako irudi bat osatzen dute, eta eskuineko neskaren eskuek, mutilaren besoekin batera, sakontasuneko diagonal bat sortzen dute margolanaren erdialderantz, hau da, belar-bilketarantz.

Artetaren lan bikain honetan, mendien, argiaren eta gizakien (gorputz gisa eta genero gisa) arteko jolas horretan, ikuspegi bitalista bat antzematen da, eta ez hainbeste irudikapen sinbolista bat; Friedrich Nietzscheren gizaki “berriaren” deskribapen bat da ia: *super-gizona* naturaren aurrean (José María Solturak Nietzsche irakurri eta itzultzen zuen Sociedad Bilbaina elkartean). Artetaren etapa honek Jens Ferdinand Willumsen daniarraren pintura gogorarazten digu. Pentsa dezagun haren *Mendizalea* (*Bergsteigerin*, 1912)<sup>3</sup> margolanean: Edith Wessel (1875–1966) bigarren emaztearen erretratu bat da, eta Alpeetako paisaia ikusgarri bati begira ageri da. Willumsen Johannes V. Jensen idazle Nobeldunaren irakurlea zen; Jensenek ongi aztertu zuen teknologiak gizartean eta giza aurrerabidean zeukan eragina, baina, aldi berean, Danimarkako mundu landatarrari begirako nostalgia kontatzen zuen. 1904ko *Madame d’Ora* eleberrian, Jensenek bere jaioterri zen Himmerland eskualdeko ingurune bukolikoa oroitu zuen, baita bertako biztanleen bizimodu ere, naturarekiko harmonia bikainean. Willumsenen emaztearen uste sendoa haren pose irmoan datza: belarra zapaltzen ari dela baino gehiago, belarretik irteten dela dirudi. Keinu horretan, gizadiak naturarekin duen harremana laburbildu zuen Willumsenek. Goiko aldetik, hodei batzuek ixten dute konposizioa, Artetaren lanean neskatzaren gaineko saskiak egiten duen moduan. Willumsenek bezala, Artetak, keinu horrekin — ezkerreko besoa saskia orekatzen eta eskuinekoa aldakan, kontrapuntu gisa— lurrarekiko lotura hori laburbiltzen du, neskaren begiradak adierazten digun lotura natural hori. Esku batzuen norabidean sexu-harremanen samurtasuna erakusten digu, maitasun gisa ezagutzen dugunaren hasierako loratzea. Artetak ez du sinbolismorik egiten; Artetak giza arimaren txokorik ezkutuenak goratzen ditu kokapen aparteko baina hiritik hurbil batean.



## OHARRAK

1. Artetaren emakumeei dagokienez, ikusi Nerea Aresti eta Miren Llonaren saiakera hau: “Las mujeres imaginadas de Aurelio Arteta” (UPV021.323 Hal56/98 proiektuko komunikazioa webgunean, 327. or.). Honela diote: “Eva, margolanaren eskuinaldean lehen planoan ageri den baseritarra eta Adani sagarra eskaintzen ari zaiona, eszenaren protagonista da, eguzki sortu berriak argizatutako lurrarekin batera, zeina zabaltzen baita bigarren planoan. Bibliako metaforaren gaitzespeneko esanahitik urrun, Artetak ekintza desakralizatzen du, eta artzain- eszena bat berregiten du, non Evak, atzealdean argizatuta hedatzen den euskal lurreko paradisu sekretuen jabe gisa irudikatuak, gizonari eskaintzen dion paradisu hori, sagarra ematearen ekintza sinbolikoaren bidez. Evak eta beste bi emakumek enkoadratzen dute hiruki-formako eszena, eta emakumeak lurrarekin nahiz baserriarekin izan duen identifikazioa indartzen da”. [\[itzuli\]](#)
2. Bilboko Arte Ederren Museoan dagoen 1913-15eko beste margolan batek, *Euskal emakume nekazariak fruta eta barazkiekin* (*Campesinas vascas con frutas y hortalizas*) izenekoak, adibidez, antzeko elementu batzuk ditu konposizioan: saskia daraman emakume bat irudia ixten, eskuineko neskatxaren gorputz-jarrera eta eskuinaldean goitik ageri den zuhaitza. *Azokara* (*Al mercado*) izenekoan ere, emakume batek saskia darama buruan, eta saskiak margolanaren markoa apurtzen du. [\[itzuli\]](#)
3. Jens Ferdinand Willumsen (1863– 1958), daniar margolari, eskultore, zeramikagile eta arkitektoa, talentu paregabea zuena bere garaiko Europako panorama artistikoan. Willumsenek Johannes V. Jensen daniar idazle antimetafisikoaren *The Long Journey* (1908–22) eleberrisaileko lanak irakurtzen zituen, eta Artetak, aldiz, Verhaeren poetarekiko mendekotasuna zuen. Artetak kezka handia zuen material eta teknikei begira, eta pigmentu- eta tenpera-nahasketa propioekin esperimentatu zuen, baita freskoekin eta inprimazioekin ere; Willumsenek ere arreta handia jarri zien bere lanen materialei eta laka zein bernizei. Ikusi: <http://www.smk.dk/en/explore-the-art/art-stories/stories/vis/willumsens-technique/>; Jens Ferdinand Willumsen, *Bergsteigerin*, 1912, olio-pintura mihise gainean, 210 x 170,5 cm, Statens Museum for Kunst, Kopenhage. Akwarelaz egindako estudio bat dago, 50 x 44 cm-koa: *Mendizalearentzako estudioa* (*Bjergbestigersken*), ca. 1902–04. [\[itzuli\]](#)

## ITURRINO - LANDAKO FESTA

Francisco Iturrinoren (1864–1920) margolanak ez dira figurak paisaian edo paisaia figuradunak, *gorputzen paisaiak* baizik: gizakia eta natura bat eginik, gorputzezko lorategiak. Guardiaren pinturan ez bezala, Iturrinorenean ez da lerroa begia gidatu behar duena eta ikusleak forma aurki dezala lortu behar duena; aitzitik, argiak aldatu eta sortzen ditu formak, argiak sortzen du bizitzaren mugimendua.

Paco Durriorekin batera, Iturrino da Parisen harreman gehien eta presentzia fisiko eta intelektual handiena izan zuen euskal margolaria<sup>1</sup>. Iturrinorekin erakutsi zituen bere lanak estreinazko hiri hartan Pablo Picasso gazteak, 1901eko ekainean, Ambroise Vollarden galerian. Harekin ezagutu zituen Henri Matissek, 1908an, hegoaldeko argia eta Sevillako ijitoak eta mantoiak. 1922an, harengandik jaso zuen Chaim Soutine lituaniarrak pintzelkadaren espresiozko indarkeria<sup>2</sup>. Iturrinok eragina izan zuen zenbait garaikiderengan, hala nola Zuloagarengan eta Urangarengan, baita hurrengo belaunaldiko artistengan ere, Arteta edo Guezalarengan, adibidez; pinturan beren egia bilatzen lagundu zien.

Regoyosek Espainian barrena bidaia egin zuen Verhaeren poetarekin, *Espainia beltz* hartako herri eta txokoetako tradizioaren alderdi errotiko eta ezkutuaeren bila, eta, era berean, Iturrinok, bere bidaiari, bizitzaren eta argiaren beste zentzu bat ezagutu zuen Salamancako abeltzaintza-eremuetako baserrietan lehenengo eta Andaluziako kortijoetan, ondoren. Iturrino izan zen lehena herri-jaietako oihalen eta dekoratuen *fauve* aberastasuna ikusten. Berak ez zuen Espainia beltza ikusten, ez larre haietan, ez abere-azoketara apain-apain joaten ziren emakume ijitoetan; berak bizipoza ikusten zuen. XIX. mendearen erdialdetik, abereak salerosteko azokak festa bihurtu ziren: lanerako apaintzen ziren, eta ondoren prest zeuden festarako. Emakume ijitoek ere janzten zituzten parpailaz jositako soineko luze tantodunak, mantoiak, apain-orrizia eta loreak ilean. Faralae-jantzia 1895etik aurrera finkatu zen, eta eskualde bateko jantzi izatetik flamenkoaren mundua irudikatzen igaro zen. Data horietan, Ledesman, Villavieja de Yeltesen (Salamanca), Coresesen (Zamora)<sup>3</sup> edo Sevillan abeltzaintzan jardunda atseden hartu zuten euskal industrialari batzuekin bidaiatu zuen Iturrinok. Era berean, 1904an, adibidez, denboraldi bat igaro zuen Félix Chávarriren lagun handia zen Lagartijo toreroaren ‘El Brillante’ kortijoan (Kordoban), eta 1913an, berriz, Rafael Echevarría eta Amalia Echevarrietaren ‘La Concepción’ finkan (Malagan). Bilbotarren zaletasuna zezenketekiko antzinatik dago egiaztatua, gutxienez XVIII. mendetik<sup>4</sup>.

*Landako festa* (*Fiesta en el campo*), sinadura behean eskuinean: “F. Iturrino”<sup>5</sup> konposizioak parte oso materiko eta landuak ditu, eta *fauve* parteak, solteagoak; erabat hausnartutako margolana da, eta ezin konta ahala geruza lagungarri egina dago, hasiera batean bozetoak diruditen Claude Moneten pieza horien antzera. Hamar emakumeko talde bat da; zutik daude, ia zirkuluan, festa-jantziekin, eta batzuk ikusleari begira daude. Ezkerreko ertzetik, emakume bat sartzen da kontrargian neskata batekin<sup>6</sup>; eskuinaldean, beste emakume bat dago, belarretan eserita, bizkarrez. Atzealdean herri bateko jaia ikusten da, Arrueren baserriaren margolanetan bezala: batzuk dantzan dabiltza, eta beste batzuk eserita daude, berrikeretan, etxetar zuri batzuetatik hurbil; horizonteko lerroa altu dago, eta zenbait kanpandorre eta zuhaitz ikusten dira.

Iturrinoren pinturan, naturaren trinkotasunak hitz egiten du. Pintura-pasta erdi likido erdi solidoak Andaluziako zein Salamancako herri batean festarako bildutako emakumeen mantoien urrezko parpailaren edo hari gorriminaren fintasun zetakara kontaktzen du. Festa eta herri horietan beti nagusituko da zezenketen kolorazioa, odolarena eta eguzkiarena, harearena eta heriotzarena.

Iturrinoren pinturan, pintzelkadak bozeto-itxura edo itxura soltea du parte batzuetan, eta parte horiek naturaltasun- edo suhartasun-ikur gisa funtzionatzen dute; mihisearen prestaketa zehatza dago horien oinarrian. Artistaren testura-pintzelkadek, irudikatu beharreko unea edo eraikitako unea mihisean atzemateko itxurazko bizkortasunak lan-egun asko zeuzkaten atzetik. Iturrinok kolore-erlazioak ezartzeko eta formak sortzeko erabiltzen zituen pigmentu-bainu fin eta laburrak lehorketa-ordu askoren emaitza ziren, egonaldi askoren emaitza, eta horiek bat-batekotasunaren ilusioa sortzen zuten. Han eta hemen, zati jakin batzuetan, pintura-pastak, bere likidotasun malban, lore txikiak aurkeztu, irudikatu edo sortzen ditu, edo bere testura trinkoan, erroseta handi bat sortzen du konposizioaren erdigunea markatzen duen mantoia erpinean.

Bestalde, *Eztenkariak* edo *Landako eszena* (*Los garrochistas o Escena campera*, 1912–14) eta *Zezen-probaketa landan* (*Tienta en campo abierto*, 1914) izeneko margolanak erakusten digu Iturrino indar eta erraztasun handiagoz margotuz joan zela, soluzio piktoriko oso indartsuekin eta forma sinpleak erabiliz espazio mugagabe, bakarti eta zorrotz baten lasaitasunaren barruan; pintura pertsonala egiteko “barne-beharrari” erantzuteko margotzen zuen. Bi koadro hauek neurri bertsukoak dira eta momentu berean margotu zituen seguraski Etchevarriatarrek Coresesen zuten jabegoan. Ez da hau Iturrinok antzeko eszenak margotzen zituen lehenengo aldia, betiere angelu, ikuspegi edo konposaketan aldaketa txikiak eginik. Henri Matissekin batera 1911n Sevillara egin zuen bidaian biek ere hiri horretako barrualde baten ikuspegia irudikatu zuten koadro banatan (egongela bat mahai berontzidun eta sofa batekin eta manto batzuk han zabaldua) eta, ondoren, ikuspegi bera gertuagotik ikusita margotu zuten (natura hila gisa: mahaia loreontzi bat gainean duela, sofa eta mantoia aurrez aurre). Kasu honetan Iturrinok larrean goizean goiz egin ohi den lan batean *fokatu* zuen begirada: eztenkariak zekorren oldarkortasuna probatzen aritzen dira ordu horretan metalezko muturra duen haga luze batekin akuilatuz. *Zezen-probaketa landan* koadroan hiru gizon ikusten dira zaldi gainean eta eztenkariak orban zuri-beltzak dituen zezena akuilatzen du, lau hankak kolore ilunekoak dituena, zezenketan “botinero” deritzona; jokatzeko zezenak deitura ezberdinez ezagutzen dituzte ilajearen itxuraren arabera. *Eztenkariak* edo *Landako eszena* koadroan, berriz, bi eztenkariak, haga sorbaldan, zekor eta behiez osatutako saldoa gidatzen ageri dira; aurrealdean zezen bi daude, burua beltza eta zapala eta ipurgaina zuria dutenak. Iturrinok bi plano lortzen ditu koadroan aurrekaldeko bi zezen ilunago horien orban beltzak eta atzealdeko animalia guztiz zuriak kontrajarriz. Margolariak animalien ilajearen orbanak nahiz lurraren eta belarren koloreak baliatzen ditu koadroan ezkerreko mugimendua sortzeko.

*Zezen-probaketa landan* koadroan ez dago mugimendurik, animalia eztenkada eman aurretiko momentua izoztuta dago eztenkaria, zekor lurrera bota aurretik haren oldarkortasuna probatzeko, erasotzeko joera ote duen jakiteko. Iturrinok ez du arreta zezen-saldoaren mugimenduan jarri izan nahi, baizik eta zezena eztenkariak probatu aurretik gelditu dagoen momentu horretan. Perspektiba hiru zaldien posizioari eta zaldunek kapelak buruan jarrita dauzkaten moduari esker eraikitzen du. Gurutzatutako ezten-hagek, berriz, ixa bat sortzen dute konposaketaren erdian.

Iturrinorentzat, margolan bat ezusteko leiho bat zen, eta handik bere begiradak eta bere proiektzio pikturikoaren ahalmenak bilakatutako objektu ezagunak zeuzkan mundu bat ikusten zen. Ildo horretan, Iturrinoren obrak gogora dakarkigu Paul Burlin amerikarrarena<sup>7</sup>, zeinak bere pinturarentzako fokuratzeko berri bat aurkitu baitzuen Mexiko Berriko argian (hegoaldeko beste argi bat). Hala margotu zituen hango indiar-taldeak, hala nola *Indiarren zeremoniazko dantza* (*Indian ceremonial dance*, 1916) murala: Frances M. Harris-en legatua; haren New Yorkeko etxeko egongelan egon zen zintzilik ia mende batez, eta gaur egun New Mexico Museum of Art museoan dago, Santa Fen. Urte asko igaro ostean, 1949an, artistak berak pintura ulertzeko zuen moduari buruzko testu bat idatzi zuen, eta Iturrinori aplikatu dakioke azalpena: “Nire abiapuntua diseinu-unitate batean forma eta kolorea urratsez urrats antolatzea da. Eta forma eta kolore horiek flotagailu modukoak dira espazio mugagabe batean, horiek bi dimentsioko mundu batean existiarazteaz arduratzen naizelako, ez perspektibazko mundu batean, espazio infinitu batean baizik”<sup>8</sup>.

Iturrinorena energiaz betetako pintura da: oso ongi menderatzen zuen teknika, eta oso argi zuen zer transmititu nahi zuen, irudikatu baino gehiago. Iturrinoren mundu tematikoa naturaren bizi-eztandarena da: neskatxa-taldeak, bentak, tabernak, festak. Haren lanean ez dago ez errealismo fantastikorik, ez ametsik, ez surrealismorik. Soilik natura argi betean, ez *plen-air*-ean, baizik eta eguerdiko *lumière*-ean; *kantika* bat, Jorge Guillén poetak esango zuen moduan. Iturrinorengan, haren hegoaldearen ikuspegian, ez dago argi-ilunen elkarrizketarik. Artistak borroka egin du itzalen beharrik gabe aurkezteko argia; bizitzaren optimismoa eta gorputzen berotasuna aurkitu ditu egunerokotasunaren miserian, eta kolore bilakatu du, pintura bihurtu du. Iturrinoren margolan bakoitza ez da unitate desberdin bat, baizik eta hark errealitateari begiratzeko zuen moduaren zati eboluzionatu bat. Figura bakoitza (emakumeak, ijitoak, zezen suharrak, pikadoreak, abeltzainak, eta abar) Iturrinok bere pinturan kristalizatuta mantendu nahi zuen naturaren zati bat da.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Ikusi Kosme de Barañano, “Matisse e Iturrino”, *Goya* aldizkaria, 205-6 zk., Madril, 1988 (ekaina-urria), hemen zabaldua: “Francisco de Iturrino y Henri Matisse”, *Matisse y La Alhambra*, TF Editores, Granada, 2010. Era berean, Kosme de Barañanoren beste liburu hauek: *Iturrino a la luz del Sur*, Madril, 1990; *Iturrino. Rusiñol. Jardines de España*, Fundación Bancaja, Valentzia, 1993; eta Kosme de Barañano eta Javier González de Durana, *Iturrino: obra gráfica completa*, Eusko Jaurlaritza - Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilbo, 1989. [itzuli]
2. Iturrinoren ikonografia mendeko garrantzitsuenetako bat da: *modelo* gisa balio izan zien Parisko abangoardiako artista nagusiei: Henri Evenopoel belgikarrak 1899an erretratatu zuen Pigalle aurrean (egun Ganteko Museoan); Pablo Picassok, 1901ean (egun Picasso Museoan, Parisen); Henri Harpigniesek, 1907an; Henri Matissek akuaforte bat egin zuen Iturrinoren buruarekin 1914an, eta urte berean, André Derainek olio-pintura handi bat (gaur egun Centre Pompidou zentroan), Alberto Giacomettik grabatu bat egiteko erabili zuena; Juan de Echevarría euskaldunak 1919an erretratatu zuen (gaur egun Madrilgo Sofia Erregina Arte Zentroaren Museo Nazionalen), eta Henri Anspachek 1922an, Cagnes-sur-mer herrira iritsi zenean (bertan hil zen, 1924ko ekainean). Erreferentzia literarioak ere badauzkagu, batzuk gain-gainetik eginak, hala nola Gertrude Stein amerikarrarenak, Carl Einstein alemaniarrenak edo Misia Sert frantsestuenak. Beste batzuk, sakonagoak, Miguel Unamunorenak edo Elie

Faure frantziar kritikariarenak dira; azken horrentzat, Iturrino Goyaren garaitik izandako akuaforte-egile onena izan zen. [\[itzuli\]](#)

3. Alfredo Echevarría Arriaga Concepción Bengoa González Yebrarekin ezkondu zen, Villagodioko markesarekin, zeinakazienda baitzuen Coresesen. 1892an, haien seme José Echevarría Bengoa, Villagodioko markesa, ganadutegia eratzen hasi zen, Veraguako behiekin (antzinako Errege Behitaldea, vazquetar arraza petokoa) eta Trespalacioseko hazitarako zezenekin; 1920an saldu zuten. 1934an, Alfredo eta Eduardo Echeverría Victoria de Leceak, markesaren eta Alfredo Echevarría Arriagaren bilobek, Coquillan bizi zen Francisco Sánchez salamancarraren ganadutegiaren laurdena erosi zuten, Albaserrada eta Santa Coloma jatorrikoa, San Pelayo finkarekin eta El Aguachal finkarekin, Medina de Riosecon, non bazkatzen baitziren zezenak. 1939an, Escuadrako larreetara pasatu zituzten, San Pelayotik oso hurbil, eta ganadutegi berriak “Villagodio Hermanos” izena hartu zuten. [\[itzuli\]](#)
4. 1848an, lehenengo zezen-plaza eraiki zuten Abandon, Concordiaren lurretan, non gaur kokatuta dagoen Sociedad Bilbaina elkarteak. Hurtado de Amézagako zezen-plaza, egungo Elkano eta Fernández del Campo kaleen artean kokatua, 1865ean inauguratu zuten, eta egurrez, iltze-pilaz eta burdiniaz eraiki zuten. 1870ean, Bernabé Larrínaga errepublikanoak, Toribio Martínez de Pinillos, Juan Aburto, José María Jáuregui y Torre eta José Antonio Elizalderekin batera, leku berean harrizko plaza bat eraikitzeari ekin zion, “zezenketak eta bestelako ikuskizunak” eskaintzeko; fabrikako hormak zeuzkan, bi solairuko altuera, zortzi tendidu eta horien palkoak, eta 9.000 ikuslerentzako edukiera. Enpresa 1883an desegin zen, eta Vista Alegre Zezen Plazaren Konpainiari laga zioten; konpainia horrek beste zezen-plaza bat eraiki zuen Zabalburun, 1882an. Proiektua Sabino Goicoecheak egin zuen, eta 12.394 eserleku zeuzkan; 1961ean sute batek suntsitu zuen, eta 1962an berriro inauguratu zuten, Luis de Ganaren diseinuarekin. Aurretik ere izan ziren zezenak Bilbon, San Antoneko eliz atarian, eta palko bikain bat zuen, balkoi luze ireki bat. Bertan biltzen ziren, zezenketak ikustera, alkatea, hiribilduko erregidoreak eta Bizkaiko diputatuak. Hurbileko etxeen balkoiak (Camiruaga, Mazarredo, Menchaca Sesumaga eta beste familia batzuenak) festarako apaintzen zituzten; Manuel Basasen arabera, plaza zaharrak 3.000 pertsonarentzako edukiera izan zezakeen. Indautxun ere izan zen plaza bat, 1909an, Leonardo Rucabadok eraikia eta 1929an suntsitua. 1909ko azaroaren 17an, José Arrue margolari eta marrazleak eta Nemesio Mogrobojo eskultorearen anaiak ezpata sartu zieten han Valladolideko Tertuliano Fernández ganadutegiko lau zezenkori. [\[itzuli\]](#)
5. Margolan hau Ambroise Vollarden bilduma pertsonalekoa izan zen; gero, Christian de Galearen bildumakoa (Paris); ondoren, J. Climenten bildumakoa (Bartzelona), eta P. Ugaldearen bildumakoa (Elorrio). [\[itzuli\]](#)
6. Margolanaren ezkerretatik neskatzarekin sartzten den emakumea, kontrargian eta Chaim Soutine lituaniarrak bere pinturarako hartu zuen adierazkortasun sentimentalarekin margotua, ez da ageri Iturrinok berak konposizio honetatik abiatuta estanpatu zuen koloretako grabatuan; Juan de Echevarriak Iturrinori egindako erretratuan ipini zuen grabatu hori (gaur egun Museo Nacional Reina Sofía museoan). [\[itzuli\]](#)
7. Paul Burlin (1886–1969), jaiotzean Isadore Berlin deitua, ama aleman eta aita ingelesekoa. Hasierako hezkuntza New Yorken eta Ingalaterran jaso zuen. 16 urterekin alde egin zuen etxetik, eta denbora partzialean ikasi zuen Arte Akademia Nazionalean, eta New York Art Students League eskolan, 1900dik 1912ra bitarte, non Harry Paul Burlin izena hartu zuen; 1916an, laburtu, eta Paul Burlin izenarekin geratu zen. Ilustratzaile gisa lan egin zuen *Delineator* emakume-modari buruzko aldizkarian, eta maiz joaten zen Alfred Stieglitzek Manhattanen zuen “291” izeneko arte-galeriara. Hor piztu zitzaion Picssoren arte “primitiboari” begirako interesa, eta horrek bultzatuta ikasi zuen Afrikako arte tribala eta, geroago, AEBko hego-mendebaldeko herri indigenena, geometria irmo eta kolore distiratsuekin. 1910ean bisitatu zuen lehen aldiz Mexiko Berria, eta bidaia hartan sortu zituen margolanak hurrengo urtean erakutsi zituen New Yorkeko Daniel Gallery galerian. Harrera beroa izan zuten, William Glackensek 1913ko Armory Show erakusketan parte hartzera gonbidatu zuen; artista gazteena izan zen, 26 urterekin. [\[itzuli\]](#)
8. “Truth in art is an abstract idea. You are not copying anything, you are inventing. My point of departure is a step by step organization of shape and color into a unity of design. And these shapes and colors are like floats on a

limitless space because I preoccupy myself with making them exist in a two- dimensional world — not in a world of perspective, but in an infinity of space.” Hemen: “Artist speaks: in paint, stone and words: exhibition of new paintings and sculpture”, erak. kat., The Downtown Gallery, (apirilak 5–23), New York, 1949. [[itzuli](#)]

Erakusketan ikusgai dago, halaber, Agustín Ibarrolaren lan bat, erakusketak barne hartzen duen garaitik kanpokoak: *Totem*. Baserri guztietan eta XIX. mendeko euskal nekazaritzaren tokiko historia osoan presentzia izan duten eta gaur egun herenilobek zaharberitutako baserrietako hormetan edo probintziako jatetxe askotan totemak izango balira bezala ipinita ageri diren lanabesei buruzko totem bat da.

Konposizio oso simple batean, Ibarrolak granitozko harri batean bermatutako baserri bateko egurrezko gurutzetaren gainean zintzilik jarri zituen hainbat tresna kirtendun, nekazari orok erabili beharrekoak: igitaia, aitzurra, jorraia, uzta jaso eta mugitzeko sardea. Baserri ezezagun bat da, Eduardo Chillidaren 'Zabalaga' izan liteekena. Ez dago pertsonarik, ez dago historiarik, ezta kolorerik ere ia: lanabesak baino ez, jada igarotako garai baten totem isilak<sup>1</sup>.

Hainbat eta hainbat modutan definitu izan da gizakia historian. Aristotelesek zoom politikon edo hirian bizi den animalia gisa definitu zuen; Platonek, bipedo lumagabe gisa; Tomas Akinokoak, izaki arrazional gisa, eta Unamunok, animalia sentimental gisa, arrazoitu baino gehiago, barre edo negar, maitatu edo mespretxatu egiten duen izaki gisa. Hor dugu, halaber, Benjamin Franklinen definizioa: gizakia tool making animal gisa, tresnak egiten dituen animalia gisa. Ibarrolaren lanean, lanabesak gizakiaren energia itzelaren luzapena dira, lanabesen sakralizazio moduko bat da.

Egungo antropologia filosofikoak hiru koordenatu erabiltzen ditu gizakia definitzeko: gizakia izaki historiko gisa (aditza iraganaldian, orainaldian eta geroaldian konjugatzen da ia hizkuntza guztietan); gizakia izaki sozial gisa (Robisonen pertsonaia Daniel Defoeren irudimena besterik ez da); gizakia izaki praktiko gisa, hau da, naturarengan esku hartzen duen izaki gisa, lan egitea esentziazat duen izaki gisa. "Kopetako izerdiaren truke irabaziko duzu ogia" Bibliako agindua ideologia marxistaren postulatuetako bat da. Lanaren kontzeptua filosofiak betidanik egin izan duen galderaren azpian eta horizontean dago: zer da gizakia? Gizakia lan egiten duen izaki bat da; inguruko natura aldatzen duena eta, era berean, baita bere burua ere; gizakia bere ekintzen emaitza da. Euskal artista batzuek pintzelaz edo zizelaz lehentasunezko gertaera horri buruz egindako irudikapena da erakusketa honen muina.

Euskal artean askotan irudikatu izan da lan-mundua: Adolfo Guiardek haren fresko eta olio-pinturetan baina baita landako lana edo Gernikako itsasadarraren ibarretakoa irudikatzen zuten koadroetan, edo ontziz betetako Bilboko itsasadarraren panoramikan; Aurelio Artetaren freskoetan (gizakiaren zereginen ikonografia osatua); edo Agustín Ibarrolaren muraletan, non ageri diren fabrikako lana, langileak lingote-ontzi eta mineral-bagoien artean<sup>2</sup>.

Zer izango litzateke errealitatea, gure errealitatea, giza errealitatea lanik gabe, kontuan hartuta horren bidez bermatzen dituela gizadiak bizitzeko behar dituen baldintza materialak duela

milaka urtetik hona? Georg Luckácsék erakutsi digu lanarekin bakarrik ezinbestean iristen garela gauzen kontzeptura. Izan ere, nahiz eta armiarmak badakien amaraunean harrapatu duenak jateko balioko diola, ez daki hori dela beste batzuetan irentsi ohi duen euli berbera. Edo nahiz eta oiloak badakien, beleak inguruan ikustean, txitak ohartarazi behar dituela ezkuta daitezen, horrek ez du esan nahi badakiela hegazti harrapariaren izatea ulertzen. Gizakia bakarrik iristen da gauzen kontzeptura, ezagutzaren jatorria lana baita, errealitatea eraldatzeko giza jardun gisa (zentzu orokorrean). Lanaren oinarriaren gainean, lanean eta lanaren bitartez, gizakiak bere burua sortu du ez soilik izaki pentsatzaile gisa, baizik eta, halaber, errealitatea eta artearen mundua sortzeko gai den unibertsoko izaki bakar gisa. Artea lanaren alderdi positiboa hedatzen duen eta gizakiaren sormena azpimarratzen duen jardueratzat ulertzeak aukera ematen digu haren mugak infinitura zabaltzeko, artea inongo ismo edo ideologia zehatzen atzaparretan erori gabe, azken batean.

Gizakiak bere oinarrizko indarrak berak sortutako objektu jakin batzuetan gauzatuta ikusi zituenean sortu zen artea (horrek emozio berri bat sentiarazi zion), behin lortu zuenean erabilgarritasunetik harago zihoazen objektuak sortzeko aukera eman zion behar beste ekoizpen-ahalmen. Baserriko lanabesak, lan-atsedenaldian hilda, espazio ezean zintzilik, galtzen ari den kultu baten objektu gisa ageri dira hemen. Hurbileko harraldi batean enkoadratuak, non oinarriak bi orban bertikal baino ez diren; irudi honetan galdu egiten da espazioaren testuingurua, eta lanabesek kategoria-izaera hartzen dute. Eguneroko objektu zehatzak ikono bihurtzen dira, langileak beren ezaugarri indibidualak galduta eredu ezezagun edo langilearen arketipo bihurtzen diren moduan<sup>3</sup>. Lana artearen aurretikoa izan da; haren posibletasun-izaera da, historikoki eta sozialki. Erakusketa honetan, era askotako artisten ikuspegiak irudikatuta, definituta eta mugatuta ageri da mendeko Bilboko mundua eta orduko pintura. Gure ekintzen emaitza gara.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Ikusi Kosme de Barañano, “El monólogo plástico de Agustín Ibarrola contra el poder”, *Kobie* aldizkaria (Arte Ederren saila), V. zk., Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1986, 189.–232. or. [itzuli]
2. Bilboko Arte Ederren Museoan gaiari buruzko beste irudi batzuk daude: arraste- indarra, gorputzen inklinazio dramatikoak Alberto Arrueren *Zirga* (*La sirga*) margolanean, edo lanaren etenaldia Artetaren *Laiariak* (*Los layadores*) lanean, formen eta tonuerdien kubismo lirikoarekin; lan-istripuaren patetismoa Larroquen, edo Moises de Huarteren *Palankari*- aren kirol-indarra. [itzuli]
3. Biltzarren edo frankismoari aurre egiteko bileren eszenek ere *hic et nunc* adjektibazioa galtzen dute, eta unibertsal bihurtzen dira. Artistaren buru txapeldunaren oihua oihu unibertsala da, Edvard Munchen margolanekoaren antzera, eta haren langile- buruak —giltza ingelesa izeneko tresnen forma dutenak— ez dira langile *euskaldunarenak*; edozein langile esplotaturen burua irudikatzen dute. Ibarrolaren pintura (haren ikonografia) margotua izan den lurraldetik edo mugetatik harago hedatzen da. [itzuli]



Euskal margolarien lehen belaunaldia Parisen egon zen 1878tik 1908ra bitarte; haietako batzuk, tartean Paco Durrio, bertan geratu ziren, eta bisitan baino ez ziren itzuli Bilbora, eta asko emakume atzerritarrekin ezkondu ziren, hala nola Regoyos, Durrio, Iturrino, Zuloaga, Isidoro Guinea, Nemesio Mogrobojo eta Juan Echevarría; edo Julián Tellaecheren kasuan bezala, erdi frantsesarekin. Hiru galderari erantzun behar diegu haien ondorengolana testuinguruan jartzeko:

- Zer aurkitu zuten Parisen edo Bruselan —pinturari zegokionez—? Eta zer ekarri zuten bueltan Guiardek eta Regoyosek?
- Zer da inpresionismoa? Zer da aire zabaleko pintura eta hiri industrialeko pintura berria? Aire zabaleko pintura edo keekiko interesa tren-geltokietako arkitektura berri hartan?
- Eta hirugarren hausnarketa bat inpresionismoari eta haren izaera nazioartekoari buruz.

Lehenengo galderari dagokionez, 1870eko Paris hiri asaldatua zen, bai politikoki, bai artistikoki; urte hartan Frantziak gerra deklaratu zion Prusiari, eta galdu egin zuen. Prusiar artilleriak bonbardatu egin zuen Paris, eta gosea nagusitu zen hirian; irailean, Napoleon III.ak erbestera alde egin zuen, eta III. Errepublikak ezarri zen, 1789tik egonkortasuna lortu zuen lehenengo erregimen frantsesa; izan ere 1940 urtera arte iraun zuen III. Errepublikak. Artista askok Londresera ihes egin zuten, hala nola Daubigny, Pissarrok, Tissotek edo Monetek; beste batzuk gerrara joan ziren, Manet edo Bazille, besteak beste, gerran hil zena, azken hori.

Henri Fantin-Latour margolariak garai haren erretratua utzi zigun 1870eko *Tailerra Batignollesen* (*Un atelier aux Batignolles*, olio mihisean, 204 cm × 273,5 cm, Musée d'Orsay, Paris) margolanean, baina nahiago dut margolanerako bozetoa aurkeztu beharrean, margolanaren memoria osatzen duen marrazki bikain eta konplexua aurkeztu, *a posteriori* oroitzapen gisa egindako marrazki bat, marrazki konplexua arkatz, olio eta tinta txinatarraren nahasketarengatik<sup>1</sup>.

Fantin-Latourrek lantegi baten barnealdea aurkezten digu, eta bertan tarteko adineko zortzi gizon daude, horietako bi asto baten aurrean eseriak, eta Minervaren eskultura bat ere badago. Erdian, ezkerreko eskuan paleta bat eta eskuinekoan pintzela dituela eserita, Manet alboan duen gizona erretratatzan ari da: Zacharie Astruc arte-kritikari, poeta, musikagile, margolari eta eskultorea (erretratu hori, 1866an egina, Kunsthalle Bremen dago<sup>2</sup>). Eserita dauden bi pertsona horien atzean beste sei gizon daude, denak traje ilunekin; margolariak bakarrik daramatza galtza argiak. Eszenako gelan, zoru argia kenduta, ilunak dira atzealdeko pareta eta ezkerrekoa; marko huts bat zintzilik dago atzeko horman, eta gizonetako baten burua markoztatzen du, Pierre Auguste Renoirrena. Ezkerraldean, astoaren atzean, oihal gorri batek estalitako arasa bat dago, eta margolan markoztatu bat; urrezko marko zabala bakarrik ikusten zaio.

Altzariaren gainean, harrizko figura bat (Minerva edo Atenea), lakazko ontzi ilun japoniar bat eta beste objektu bat daude. Argi artifizial batek argiztatzen du Manet; atzean, zutik, honako hauek daude: Otto

Scholderer eta aipatutako Renoir margolariak; Émile Zola idazlea, betaurrekoak eskuan hartuta<sup>3</sup>; Edmond Maître, Renoirren laguna eta mezenasa, eta Frédéric Bazille (pixka bat geroago hil zen, 1870eko gerran) eta Claude Monet margolariak, azken hori ikusleari begira, iluntasun sakonagoan.

Marrazki honek, erretratuetan definizio gutxiago duenak eta Manet margolanean murgilduta irudikatzen duenak, eta ez ikuslearengana begira, garaiko erretratu gisa irudikatzen du Maneten lagunena eta adiskideen zirkulua. Horixe aurkitu zuten euskal artistek Parisen: jantzi ilunak zeramatzen norbanako batzuk —hiribilduko merkatarien modukoak—, baina zeregin berrietan zebiltzanak, beste era batera margotzen zutenak. Haietako bakoitzak izaera eta teknika piktoriko oso desberdinak zituen, Bazilletik Renoirra, Manetetik Monetera.

Erantsi beharra dago artista haiek ez zirela biltzen Maneten estudioan, Café Guerbois kafetegian baizik, Clichy etorbidean, Parisko Batignolles barrutian; hura bilkura eta eztabaidarako lekua izan zen artista zein idazleentzat, *bohémio* zeritzeneztat. Belaunaldi berri hark Barbizoneko Eskolako artista zaharrak bisitatu zituen, Fontainebleauko basotik hurbil; haiek *au plein air* edo aire zabalean margotzea atsegin zuten, Akademiako margolari burgesekin kontrastean<sup>4</sup>. Édouard Maneten inguruan bildutako talde berri horri Batignollesko Taldea esan zioten, eta haien estilo inpresionista jada agertua zen 1868rako<sup>5</sup>.

Urte batzuk lehenago, 1863an, Napoleon III.ak Salon des Refusés irekiarazi zuen, hau da, Parisko Erakusketa Ofizialetik baztertutako artistentzako leku bat, eta Palais des Champs-Élysées jauregiko hamabi areto laga zizkien, Palais de l'Industrie jauregiaren ondoan; han egon ziren ikusgai Maneten *Gosaria belar gainean* (*Le Déjeuner sur l'Herbe*) eta Whistlerren *Zuriz jantzitako dama* (*The Little White Girl*), aurreko urtean baztertu zuena Londresko Royal Academy akademiak<sup>6</sup>. Pixka bat lehenago, 1855ean, *macchiaioli* zeritzeneztat agertu ziren Florentzian, “italiar inpresionistatzat” jo ditzakegunak, zeinak saiatzen baitziren pintzelkada askeekin modu errealistan irudikatzen inguruan zutena. Desberdintasun estilistikoak eta kulturalak zeuzkaten frantsesekin, baina baita puntu komun garrantzitsuak ere: aire zabaleko lana, argazkilaritzarekiko interesa edo estampa japoniarrarekiko miresmena<sup>7</sup>.

Inpresionismoaren lehen adierazpen ofiziala urte batzuk geroago gertatu zen: 1874an, Nadar argazkilaria estudioan erakusketa bat antolatu zuten kritikaren eta publikoaren gaitzespen orokortua jaso zuten margolari batzuek (Bazille, Cézanne, Degas, Monet, Morisot, Pissarro, Renoir, Sisley)<sup>8</sup>; haietako askok, hala nola Bazillek, Monetek, Pissarrok, Renoirrek edo Sisleyk, jada elkarrekin lan egin zuten 1866–67an. 1874aren ondoren sortu zen “inpresionismo” hitza, eta inpresionistek erabili zuten beren lana deskribatzeko 1877tik aurrera. Inpresionistek beste zentzu bat eman zioten koloreari eta margotzeko ekintzari, beste modu batera enfokatu zuten zer landu *pinturan*: artea *inpresio gisa* lotuta zegoen hautematearen eta, hortaz, esperientzia bisualaren subjektibotasunari buruzko ideia berri batekin. Margolana *une bateko egia* indibiduala izango zen munduaren ikuskeratzat ulertu behar zen. Akademian, *première pensée* adierazpidearen sinonimo gisa erabiltzen zen *inpresio* hitza, hau da, bozeto azkar eta bat-batekoa izendatzeko, amaitutako margolaneranzko urratsa. Fantin- Latourrek erretratatu zituen artista haientzat, *lehen inpresio* hori zen lortu beharreko egia, bakoitzak bere estiloarekin.

Euskaldunak Parisera edo Bruselara iritsi zirenean, hirurogei-hirurogeita hamarreko hamarkadetako plenairismoa eta inpresionismoa konplikatu egin zen: artistek adi erreparatzen zioten argazkigintzaren

erabilerari, eta ekialdeko estanpen mundura irekita zeuden. Era berean, artista horien pintura berriari buruzko hitzak eta izendapenak aldatuz joan ziren urteek aurrera egin ahala. Barbizoneko Eskolakoek *au plein air* edo aire zabaleko pintura aipatu zuten, *plein-airisme* hitza erabili zuten. Daubigny pintzelkada solte samarra defendatu zuen, *pinceau un peu lâche*, zeina, akademikoen arabera, “mal fini” edo “gaizki bukatua” baitzegoen. Nahiago izan zuen xehetasunak alde batera utzi multzoaren inpresioaren mesedetan, baina hori praktika azaleko eta faltsu bilakatu gabe. Daubigny jada margotuak zituen zenbait margolan, hala nola 1872ko *Ilargiaren irteera (Le lever de lune)* edo 1874ko *Itsasoa (La mer)*, zeinak baitziren Monetek Le Havren margotu zituen egunsentien garaikideak.

Maneten eta Batignolles auzoaren jarraitzaileei *inpresionistak* izena jarri zieten azkenean, Louis Leroyk 1974an egindako kritikaren ostean. Hurrengo belaunaldiko artista batek, Georges Seuratak, *neoinpresionismo* gisa definitu zuen bere estiloa 1886an, baina kritikak *pointillisme* izena jarri zion<sup>9</sup>. Haren lagun Paul Signacek —gehiago teorizatzen zuenak— *divisionnisme* esan zion 1899ko *D’Eugène Delacroix au néo impressionnisme* liburuan. 1889an, Félix Fénéon kritikariak *tâchisme* hitzean bildu zituen puntillismoa eta dibisionismoa. Italian, *macchiaioli* zirelakoek bide eman zioten beste belaunaldi bati: laurogeiko hamarkadaren azken urteetan, misteriozko giro mistikoago bat bilatzen zuten dibisionista deituek<sup>10</sup>. Hiru hamarkada horietan, gainera, arte sinbolista loratu zen. Bien bitartean, Europako industrializazioaren zabalkundea aurrera zihoan eta lur-eremu handiak arakatu zituzten ikatza, burdina eta eztainuaren bila, horren adibide izanik Bizkaian Ezkerraldea. Belgikan, hegoaldeko Valonia bigarren industri-eskualde garrantzitsuena zen Ingalaterra ostetik; iparraldeko eskualdeetan, berriz, antzinako eran bizi ziren Flandrian eta merkataritza-hirietan. Euskal Herrian ere, alde handia zegoen Ibaizabalaren arroaren eta beste eskualdeen artean. Testuinguru horretan sortu zen Belgikan “Les Vingt” taldea 1883ko urrian, Joris Karl Huysman-ek *À rebours* liburua argitaratu eta sei hilabetera. Sinbolismoaren eredu bihurtu zen liburuaren protagonista, Jean des Esseintes, jesulagunek hezitako landa-lurreko aitoren seme bitxia, zeinak Parisetik alde egiten duen bizimodu baztertua egiteko etxe isolatu batean. Oscar Wilde-n *Dorian Grayren Erretratua* liburuan Lord Henry Wotton-ek *À rebours* ematen dio Dorian Grayi eta horrek dakar protagonistaren gainbehera. “Les Vingt” taldea 1894. urtean desegin zen, baina hori gertatu aurretik taldeak antolatutako erakusketetara gonbidatu zituzten Regoyos, Iturrino eta Durrio.

Baina, aipatutako artista horiez guztiez gainera, Édouard Maneten arrastoari segika Parisen lanean ari ziren beste artista batzuk, hala nola Pierre Puvis de Chavannes, James M. Whistler, Gustave Caillebotte, James Tissot, Edgar Degas edo Paul Gauguin. Euskal artistak iritsi zirenean, inpresionismoa eta joera postinpresionista desberdinak batera funtzionatzen ari ziren. Paul Gauguin margolari berantiarra ere beste kultura ez-europar batzuen ikertzaile handi bihurtu zen, 1890eko hamarkadan hegoaldeko itsasoetan egin zituen egonaldi luze ezagunen bidez (Markesa uharteetan hil zen, 1903an). Gauguin —arte-ekoizpen askotarikoarekin, era askotako lan-prozesuekin eta, batik bat, praktika artistikoaren errotiko hibridotasunarekin— jarraitu beharreko heroi bilakatu zen, eta kontrako aldean zegoen Paul Cézanne, bidaiatzen ez zuen bakartia eta Proventzako bere paradisu pribatuan erretiratu zena.

Bigarren galderari dagokionez, zer den inpresionismoa, aire zabaleko pintura eta hiri industrialaren pintura berria, aipatzekoa da Claude Monet (1840–1926) *Inpresioa, eguzkiateraberria (Impression, soleil levant)* margolanak eman ziola izena “inpresionismoari”, Errenazimentuan perspektiba agertu zenetik izandako korrante edo mugimendu piktorikori erradikalenari. Monetek Le Havreko portuan margotu zuen lana, 1872an, eta independenteen lehen erakusketa hartan aurkeztu zuen, 1874an. Hori dela eta, Monet izan zen mendeko artista ezagunena. Baina ez al zuen XX. mendean igaro bizitzaren herena? Ez

al da heren horretan egina haren ekoizpen garrantzitsuenaren erdia? *Urmael nenufarduna* (*Le Bassin aux nymphéas*) margolana, lan handia koloreari eta hedadurari dagokienez, Orangerie museoa dago 1926az gozotik, eta gerra-memorial bat da. Era berean, Guiarden lagun Paco Durrio euskaldunak Lehen Mundu Gerrako heroientzat eskultura bat egiteko saria irabazi zuen, baina ez zen inoiz egin. Monet nenufarrak uretan hedatzen dira, Bilboko Arte Ederren Museoko *Juan Crisóstomo de Arriagaren monumentua* (*Monumento a Juan Crisóstomo de Arriaga*) multzoko musaren kantua urmaeleko uretan disolbatzen den antzera.

Bestalde, beste topiko bati aurre egitea komeni zaigu: inpresionismoa ez da soilik aire zabalean eta naturan egindako pintura; pintura metropolitarra ere bada (hiriko trafikoarena eta ke industrialena). Hirugarren erakusketa inpresionistan, 1877ko apirilean, Monetek *Saint-Lazare geltokia* (*La gare Saint-Lazare*)<sup>11</sup> lanaren hainbat bertsio erakutsi zituen. 1877ko urtarrilean, Monetek apartamentu bat alokatu zuen Moncey kalean, Saint-Lazare geltokitik oso hurbil. *Aire zabalean* kokatzea erabaki zuen, markesina baten azpian; ingeniarien teknika berria ziren tren-geltokiak, lurrun eta kezko makinekin, eta hori guztia lotuta zegoen aurrerabide teknikoarekin. Saint-Lazare geltokia Eugène Flachet ingeniariarena zen, eta harena zen, halaber, Cailebottek 1876an margotu zuen Europako zubia<sup>12</sup>.

Interesgarria da Jean Renoir zinema-zuzendariak, Monet lanaren izandako margolariaren semeak, bere oroitzapenetan kontatutako pasarte hau: “1877ko goiz batean, Claude Monet bere lagun Renoir esnatu, eta honela oihukatu zuen: «Aurkitu dut: Saint-Lazare geltokia!». Bere arropa onenak jantzi, eta Western Railways konpainiako zuzendariarekin hitz egitea eskatu zuen.

«Claude Monet margolaria naiz», iragarri zuen oraindik ezezaguna zen artista gazteak. «Zure geltokia margotzea erabaki dut», jarraitu zuen, eraikinari ohore handia egiten ari balitzaio bezala. «Luzaroan egin dut zalantza Gare du Nord geltokiaren eta zurearen artean», erantsi zuen lotsagabe. «Baina zureak nortasun handiagoa duela iruditzen zait». Halako segurtasunagatik harriturik, zuzendariak nahi zuen oro eman zion. «Trenak gelditu genituen; nasak hustu genituen; tren-makinak ikatzez bete genituen, Monet behar zuen kea bota zezaten. Monet tirano baten moduan instalatu zuen geltokian; hainbat egunez aritu zen bertan margotzen, bildutasun orokorraren erdian, eta azkenean dozena erdi margolan onekin alde egin zuen handik, ahots baxuz agurtzen zutela geltokiko langile guztiek, zuzendaria buru»<sup>13</sup>.

Hor ikusten dugu Moneti ez zitzaiola natura bakarrik interesatzen, baizik eta beste gauza bat: nola irudikatu eta atzeman tren- makinaren lurruna, nola transkribatu arkitekturak espazio fisikoa inbaditzen duelako sentazioa. Objektu piktorikoa zen interesatzen zitzaiola. Argi eta garbi esan zion Renoirri goiz ospetsu hartan, Jean Renoirrek kontatu zuenez: “Kritikari batek adierazi zion lainoa ez zela pinturarako gai bat. Zergatik ez beltzen arteko borroka bat tunel batean? Ulertezintasun horrek zerbait are lanbrotsuagoa margotzeko nahia piztu zion. Eta zer izan zitekeen lurruna baino lanbrotsuagoa? «Tren-makinaren keak hain dira lodiak, apenas bereiz baitaiteke beste ezer», adierazi zuen Monetek. «Xarmagarria da, benetan xarmagarria»<sup>14</sup>. Beste kontakizun batean Monet bera aipatzen da hau esaten: “Pentsatu nuen ez zela hutsala izango motibo berbera eguneko hainbat unetan aztertzea eta orduz ordu eraikinaren itxura eta kolorea hain modu nabarian aldatzen duten argiaren efektuak jasotzea»<sup>15</sup>.

Hiria, gaur egun ezagutzen dugun moduan, ez zen agertu pinturaren historian ez Lorenzettitarrekin, ez Gozzolirekin, ez Ghirlandaiorekin. Landazabalean margotzen zutenekin agertu zen, inpresionistekin. Antzinako poeta batentzat natura zena, horixe zen hiria poeta moderno batentzat — Claude Moneten *Saint-Lazare geltokia* lanaz eta Charles Baudelairez geroztik—. Inpresionismoa paseo bat zen Parisko kaleetan barrena, zehazki, Europa auzoan barrena (hori da, hori, kasualitatea, Europa auzoa izateal!), Saint-Lazare geltokiaren ondoan. Manetek, Monetek, Caillebottek eta baita Mallarmé poetak ere bertan lan egin zuten, eta bizi ere, bertan bizi izan ziren. Parisko eremu modernoena zen, trena inauguratu berri zuena. 1903an, Georg Simmel filosofoak idatzi zuen hiri handia ez dela efektu soziologikoak dituen fenomeno espazial bat, baizik eta *espazialki* eratu, ezarri edo eraikitzen den fenomeno soziologiko bat. *Inpresioa, eguzki atera berria* lanaren unean, Monet jada osatzen ari zen *Capucines bulebarra* (*Boulevard des Capucines*) margolana, Parisko hiribide baten bista dinamiko bat, non pertsonak eta zalgurdiak udazkeneko eguzkiaren argitan disolbatzen ziren. *Capucines bulebarra* Parisen *veduta* bat da, hiriko jendetzaren eszena bat, margo beltzezko marka txikien bidez osatua<sup>16</sup>, eta bidea ireki zien beste hainbat bista hiritarri: Camille Pisarroren 1893ko *Montmartre bulebarra* (*Boulevard Montmartre*) bikainetik (Ermitage, San Petersburgo) Picasso gaztearen 1901eko *Clichy bulebarra* (*Boulevard de Clichy*) lanera, estiloa eta hiria menderatu nahian.

Parisek, trenak eta industriak (eta bere eskalan Bilbok, hiriko zabalguneeekin eta meatzaritza nahiz siderurgiarako zabalguneeekin) aurrez aurre jarri zituzten bizitzeko bi sistema: naturaren erritmoena, gizakiak milaka urtez barneratua, existentzia- arau horiei jarraitu zielarik, eta sistema kontrajarria, arrazionaltasun berri bat zuena, aurrerabidea zekarrena, eta onura ekonomikoa nahiz abiadura handiagoa bilatzen zituena. Trenak paisaiarekiko begirada aldatu zuen; inpresionistak paisaiara atera ziren, eta beste begi batzuek begiratu zioten; beste era batera adierazi zuten, argiaren zentzuarekin eta, ondorioz, irudikapenarekin egin zuten moduan. Ordura arte ezezagun zen abiadurarekin, trenak pertzepzio berri bat ireki zuen, baita Guiard eta Regoyosentzat ere; abiadura horretan, natura mugitzen ari dela dirudi, eta gure begiek ere sentitzen dute abiadura, zubi batetik igaro eta haren egiturak begien aurrean lausotzen ikusten ditugunean, edo tunel batetik irteetan, edo geltoki bateko nasen artean tren-makinen lurruna desagertzen edo gorantz joaten ikustean.

Inpresionismoa naturarako itzulera zen, eta baita hiri berriarenganako estimua ere: eguzkia ateratzen zen, eta keak ere bai. Artistei natura interesatzen zitzairen, baina baita hiriaren arnasketa ere: bertako kaleak eta zubiak, tren-geltokiak eta kez betetako nasak. Guiardek hori bera egin zuen Sociedad Bilbaina elkarterako margotutako lanetako batean, eta ondoren Gernikako itsasadarreko zelaietara joan zen *Uzta-garaia* margotzera. Regoyosek ere bazuen interes bikoitz hori argi naturalaren gaiekiko eta tren-makinen lurrunekeko. Gauzen itxurak eragiten duen berehalako inpresioaren bila zebilela egin zituen hainbat lan, hala nola *Argi elektrikoa* (*Lumière électrique*, 1901), *Urumea* (*El Urumea*, 1904) edo *Kontxa gauez* (*La Concha, nocturno*, ca. 1906), non antzematen baita eguneko zein gaueko argiarekin, gasezko argi nahiz argi elektrikoarekin, elurrekin... lotutako fenomenoak atzemateko nahia. Horren adierazpen gorena eguneko une desberdinetan egindako motibo beraren irudikapenak izan ziren: *Burgosko plaza, egunez* (*Plaza de Burgos por la mañana*) eta *Burgosko plaza, ilunabarrean* (*Plaza de Burgos al atardecer*), 1906an margotuak, bi-biak. Regoyosek beste edozein margolarik baino gehiagotan margotu zituen burdinbidea eta haren zubi, biaduktu eta tunelak, gure herrialdeko paisaia desberdinetan: *Pancorboko tunela* (*Túnel de Pancorbo*, 1902), *Ormaiztegioko biaduktua* (*El viaducto de Ormaiztegui*, 1903), *Areatzako zubia* (*El Puente del Arenal*, 1910). Lan horretan, Ibaizabalekin, zubiarekin eta antzokiarekin nahasten dira —hiriaren bista batean— tranbiak, gabarrak eta zalgurdi bat; baina protagonistak trena eta bere keak dira Bilboko

ilunabarrean. Itsasontzi eta trenen mugimendua eta industriaren kea ageri dira beste margolan batzuetan ere, hala nola 1908ko *Bilboko Labe Garaiak (Altos Hornos de Bilbao)* lanean (Banco de Santander bilduma), non Areetarako errepideko lasaitasunak kontrastea egiten duen ezkerraldeko labe garaien tximinia ketsuekin.

Eta hirugarren urrats gisa, hausnarketa bat egin daiteke inpresionismoari eta haren izaera nazioartekoari buruz.

*Storie dell'impressionismo* izeneko erakusketa (Marco Goldin izan zuena komisario) Museo di Santa Caterinan egin zuten, Trevison (Italia), 2016an, eta sei atal oso adierazgarri aurkeztu zituen, pintura inpresionistaren fenomenoaren aztertzeke. Honako hauek ziren atalak: "Begirada eta isiltasuna" (*Lo sguardo e il silenzio*), edo, hobe esanda, erretratua, Ingres eta Delacroixetik Degas eta Gauguinera; "Jendea aire zabalean" (*Le figure en plein air*), Milletetik Renoirra; "Objektuen kokapena" (*La posa delle cose*) edo natura hilak, Manetetik Cézannera; "Naturarekiko desira berria" (*Il nuovo desiderio di natura*), paisaia, Corotetik Van Goghera; "Krisia" (*La crisi*), Moneten bilakaera, bere teoriak ukatuz eta abstrakziozko urratsak eginez; eta, azkenik, "Mundu berriaren ernamuinak" (*I germi del mondo nuovo*), Cézanneren muturreko urteak, Picassoren kubismoaren eta abangoardien aurrekari.

Analisirako aukera tematiko horiek argiro aplika diezazkiokegu Guardiaren eta Regoyosen pinturari. Plenairismoaren narratibak eta filosofiak euskaldunak erakarri zituen, zerbait berezia, indibiduala eta iraunkorra sortu nahian Parisen bildu ziren Europa osoko beste artista gazte guztiak erakarri zituen bezalaxe. *Au plein air* egindako pinturarekiko ez ezik, interesa zuten, halaber, eguneroko bizitzaren berehalakotasunarekiko eta naturalismoarekiko, hau da, *gauzei berei* erantzun fenomenologikoa ematea interesatzen zitzairen, eta pintura pintura gisa onartzen zuten (kolorea eta kolorea gainazalean), hots, ikusten zutenari, gaitzat aukeratutakoari eta kontatu nahi zutenari emandako erantzun zuzen gisa.

Egin dira Londresko Barbican Art Gallery galerian 1995ean egindako erakusketaren antzekoak<sup>17</sup>, hala nola *Radical Light: Italy's Divisionist Painters* izenekoak, Londresko National Gallery-n, 2008an, edo "*In einem neuen Licht: Impressionismus in Kanada*" izenekoak, Municheko Kunsthalle museoan, 2019an. Erakusketa horiek erakutsi dute mugimendu piktoriko hura Édouard Maneten arrastoari jarraika jaino, eta mundu osoan hedatu zela. Ildo horretan, inpresionismoa nazioarteko estilotzat jo dezakegu, ez baitzen Parisera mugatu; aitzitik, zabaldu egin zen Bilbora, Italiara, Lituaniara, Danimarkara, Kanadara, etab. Azken hamarkadan egindako erakusketa askok ezagutzera eman dituzte tokian tokiko margolari horiek, kalitate handikoak eta historiografian ahaztuak. Aipamena egin diezaiokegu aurretik ere aipatu dugun Angelo Morbelli italiarraren lanari, edo Marc-Aurèle de Foy Suzor-Coté, Florence Carlyle zein James Wilson Morrice kanadarren lanari (azken horrek pintura-bira bat egin zuen Iturrino eta Matisserekin Marokon, 1910ean), edo Wilhelms Purvītis letoniarraren lanari (paisaia-margolaria izan zen, eta Letoniako Arte Akademia eratu, eta bertako errektore izan zen 1919tik 1934ra bitarte).

Era berean, Frédéric Bazille<sup>18</sup>, Gustave Caillebotte<sup>19</sup>, James Tissot<sup>20</sup> eta bidegabeki ahaztutako lehen uneko beste artista frantses batzuei buruzko erakusketek argi berria egin dute haien kezka berberak izan zituzten eta haien margolanei arretaz erreparatu zieten atzerritar guztien lanean (euskaldunak, belgikarrak, kanadarrak, eskandinaviarrak, lituaniarrak, errusiarrak). Caillebotte oso presente zegoen Guardiaren eta Artetaren lanetan; bela-nabigatzaile onaz gainera, bildumagilea ere izan zen, eta hiltzean

egindako dohaintzari esker, Frantziak inpresionismoko bilduma handi bat eskuratu zuen<sup>21</sup>. James Tissoti buruzko erakusketak bere garaiko testuinguru artistiko eta sozialean kokatu zuen artistaren pintura, eta Parisen bizi ziren jatorri askotako margolariak osatzen zuten komunitatean bertan arrakasta handia izan zuten haren margolanak erakutsi zituen. Guiard edo Iturrinoren antzera Parisera hurbildu ziren artista gazte guztiak eskola berberetan ikasi zuten: Académie Julien edo Académie Colarossi. Areto berdinak eta erakusketa berdinak bisitatu zituzten, hala nola Édouard Maneten hil osteko atzera begirakoa, École des Beaux Arts eskolan egina 1884ko urtarrilean. Eta ia guztiak ikusi zuten *Moldaketa grisean eta beltzean*, 19. zk. (*Arrangement in Grey and Black No. 19*, 1871), Whistlerrek amari egindako erretratu, Frantziako gobernuak 1891n eskuratua (orain Parisko Musée d'Orsay museoan). Guiardek Degasen lagun izaten jarraitu zuen moduan, Regoyosek Whistler bisitatu zuen Londresen, 1885ean, eta Whistlerrek erretratu bat egin zion. Baina garrantzitsua ez da postulatu inpresionista haiek barneratu izana, baizik eta artista haien berezko erantzuna, gaitasun tekniko handiarekin, Guiarden eta Regoyosen kasuan bezala.

Hizkuntza inpresionistaren nazioartekotzea erakusteko modu onena Regoyosen 1912ko *Oilategia (El gallinero)*<sup>22</sup> artista gutxi gorabehera garaikideen aurretiko zein ondorengo lanekin alderatzea da, hauekin, besteak beste: Munch norvegiarraren *Sena ibaia Saint-Clouden (La Seine at Saint-Cloud*, 1890), Boccioni italiarraren *Tailerrak Porta Romanan (Officine a Porta Romana*, 1909)<sup>23</sup> eta Slevogt alemaniarraren *Havelera ematen duen jardina loreduna (Blumengarten mit Blick vom Gutshaus zur Havel*, 1912). Alderaketan ikus daiteke guztiak dutela jatorritzat Moneten 1873ko *Capucines* bulebarra.

*Sena ibaia Saint-Clouden (Seinen ved Saint-Cloud)* lanean, Munchek Sena ibaia aurkezten digu. Ertzek lerro paralelo zorrotzak osatzen dituzte, eta gainazal piktorikoa sakontasuna ematen duten koloretako zenbait plano horizontaletan zatituta dago. Lehen planoko kalea, burdina forjatuzko baranda, txalupak, ibaiko ura, beste aldeko ertza, parean hiriarri eusten dio lerro berdea. Kurba gutxi sartzen dira konposizioaren egitura linealean: zuhaitzaren enborraren itzal urdina (ia trazu bakarrekoa), haren hostoak eta adarrak, eta ibaiertzeko gabarraren linea makurra. Zeruan egindako trazu labur eta berde argiek eta itzal urdin uniformeez osatzen dute giroa, baita koloretako puntu txikien aplikazioak ere; zuhaitz bertikala, adibidez, bi modutan tantotuta dago: eremu itzaltsuak puntu edo tanto urdin eta berdez, eta eguzkiaren argia jasotzen duena, aldiz, tanto horiz eta okrez. Munch Parisko aldirietako Saint-Cloud eremuan ezarri zen, eta hainbat angelutatik eta eguneko hainbat unetan margotu zuen Sena. Urte batzuk geroago, Umberto Boccioni, Porta Romana izeneko Milango behe-azuloan instalatuta, langileen lanerako goizeko irteera berregin zuen, langileen fluxu geldoak markatutako hiriaren esnaera.

*Tailerrak Porta Romanan (Fabbrica a portaromana)* lanean, Boccioni<sup>24</sup> hiriko paisaia bat aurkezten digu, ez parez pareko irudian oinarritua, bidearen diagonal handian baizik, baina multzoan nagusi den bibrazio kromatiko bizia Munchen mihisearenaren antzekoa da; hark ere erabili zuen diagonalak *Arratsaldea Olaf Ryes plazan (Olaf Ryes plads I Oslo. Eftermiddag)* bistan (1884, olio paperean, 48 x 25,5 cm, Moderna Museet, Stockholm), 1884an margotua Osloko bere apartamentutik. Boccioniren jendea koloretako puntuak dira diagonalean edo koloretako puntu galduak landazabalean, baina margolana itzal batekin hasten da, margolanetik kanpo geratu den norbaiten itzalarrekin, behean, zutoinaren ondoan. Goizeko itzal luzeek zeharkatzen dute azuloa, baita gurdien ere, gauzak garraiatzen dituztenak *hiri garrodunera*, Bilboren antzera *zabaltzen* ari den eta elizateak edo inguruko udalerrak irensten ari den hirira; atzealdean, industria berriaren tximiniak daude.

Max Slevogt alemaniarak<sup>25</sup> ere erabili zuen diagonalak *Lorategia Neu-Cladow-en* (*Blumengarten in Neu-Cladow*). Slevogtek bere lagun Johannes Guthmann<sup>26</sup> arte-historialari eta bildumagilearen udako etxeko lorategi bistadun ederra erakusten digu, Berlinen kanpoaldean kokatuta zegoena, Havel ibaiak aintziren segida bat osatzen duen lekuan. Bide zuzenak uretara garamatza, eta bertan nabigatzen ari dira belaontzi batzuk; bidearen alde bietan arreta handiz kokatutako loreak daude, urdinak eta gorriak, eta eskuinaldean horma bat antzematen da, Regoyosen oilategian bezala.

Boccioniren itzalaren antzera, hemen pauma bakarti bat nagusitzen da eszenan, erremolatxa-landare batzuen berde ilunaren parean, margolaren behealdean. Bidearen lerro zeharrek perspektiban eraikitzen du espazio piktorikoa, baina pintzelkadetan joko da bat-batekotasunaren inpresioa sortzen duena, udarratsalde bateko edertasunarena. Etxearen jabeak esanda dakigu<sup>27</sup> Slevogtek bi ordu baino gutxiagoan margotu zuela lana, *impromptu* batean, udako bisita batean.

*Oilategia* (*El gallinero*) Regoyosen azken garaiko margolan bat da. Gaia Berlineko lorategiarena edo Senaren bistarena bezain sinplea da: oilategi bat paisaia baten barruan. Regoyosek lerro paraleloekin antolatzen du espazioa: aza landatuak, oilategiko sarea, kanpoko horma; eta atzealdean kurba leun batzuk daude, herriaren muinoarena, zintzilik dagoen arroparena eta mendi zein hodeienak. Hau da, espazio funtzionalek espazio piktorikoa *osetzen* dute: perspektiban garamatzate atzealderantz. Baina *inpresionatzen* gaituena kolorezko puntuak eta itzalen erritmoak dira: azek erritmo bat dute; oilategiko zuhaixkek beste bat, zeharragoa; lorategiko zuhaitzek beste bat, intentsitate txikiagokoa, lurteko ispilu baten antzera funtzionatu ia, eta arropa zintzilikatuek ez dute itzalik, bandera zuriak izango balira bezala ageri dira. 1928an Berlingo Akademian lanak erakutsi zituenean Slevogtek esandakoak Regoyosen pentsamendu bisuala ere laburbiltzen du: “Bergia ez da instrumentu bat, ez da ispilu bat —gure organismoko transmisio bizi bat da [...] Bilatzen ari dena ikusten du, eta ulertzen ez duena, ez du ikusten [...] Begiak irudimenez beteta ikusten du; begiak musika, erritmoa eta mozkorraldia ikusten ditu”<sup>28</sup>. Margolan hau Regoyosen bikaintasun teknikoaren adibide bat da, haren lan guztiak ezaugarritzat duen plenairismoaren adibide bat, inpresionismoaren eta neoinpresionismoaren fase guztiakin esperimentatu zuen eta margotzeko modu berri horren alde borroka egin zuen artista batena, zeinak 1901ean Manuel Losadari igorritako gutun batean honako hau aipatu zuen: “inpresionismoari eraso egitean, guri egin digute eraso, eta arteari”.

## Zer ekarpen egin zuten Regoyosek eta Guiardek?

Lehen esan dut 1870a asaldurazko urtea izan zela Frantzian, gerra deklaratu baitzion Prusiari. 1871n, Prusiako artilleriak Paris bonbardatu zuen, eta otsailean, Hirugarren Errepublika ezarri zuten, eta Napoleon III.ak erbestera alde egin behar izan zuen. Bilbon izan zuen eraginik Frantziako asaldura politikoak. Hemen, 1868ko iraileko Iraultza Loriaztua izan genuen, elementu zibileko altxamendu militar bat, Isabel II.ak tronua utzi eta erbestera alde egin behar izatea ekarri zuena, baita Seiurteko Demokratiko izeneko aldia hastea ere. 1872an, Bigarren Karlistaldia hasi zen, eta 1874ko maiatzaren 2ra arte ez zen lasaitasunik izan hirian.

Bilboko Zabalgune handia 1876tik aurrera eraiki zuten Abandoko lurretan, beraz, Bilboko egungo erdigunea garai batean anexionatutako elizate baten lur izandakoetan kokatuta dago; Abandoko gainerako lurren anexioa 1890ean gertatu zen<sup>29</sup>. Gizon handiek Zabalguneari ekin zioten, eta gure



artistak atzerrira irten ziren, beren ikuspegi plastikoa zabaltzera. Meatzaritzako enpresaburuen ondorengoek —ingeniari gisa ari zirenak Liejan, Parisen edo Liverpoolen— Bessemer prozesua ekarri zuten ezkeraldeko altzairutegietarako, eta margolari gazteek, dendari edo arkitektoen semeek, Parisera edo Bruselara alde egin zuten, eta inpresionismoa ekarri zuten. Regoyos eta Guiard Espainiako margolari inpresionistak izan ziren.

Guiard 1878an joan zen Parisera, eta han topatu zuen Edgar Degas, baina ezagutu zituen, halaber, Édouard Maneten pintura, Pierre Puvis de Chavannesen frisoak, Moneten inprobisatzeko askatasuna eta Caillebotteren edo Tissotena. 1885ean Bilbora itzuli zen, eta estudio bat ireki zuen, pintura-eskolak emateko, baina kafe- tertulietan ere eman zituen eskolak, ohikoa baitzen halakoetan.

1879an, Guiardek alde egin eta urtebetera, Regoyosek Bruselara bidaiatu zuen, Isaac Albéniz musikagilearekin eta Enrique Fernández Arbós biolinistarekin, zeintzuek sari bana jasoko zuten Bruselako Errege Kontserbatorioaren eskutik (“Sari ohoregarria” eta “Bikaintasunezko saria”, hurrenez hurren). 1882an, bat egin zuen L’Essor taldearekin (Hegaldia), 1876an sortu zuena akademizismoari aurre egiten zion artista-talde batek. 1833an, “Les Vingt” taldean sartu zen; talde horren erakusketa-aretoetik igaro ziren Monet, Caillebotte, Degas... baina baita Iturrino, Durrio eta Regoyos bera ere<sup>30</sup>. Urte berean, Regoyosek erabaki zuen uda Gipuzkoan igarotzea berriro, Pio Barojaren anfitrioi gisa, eta lurralde hura, urteek aurrera egin ahala, artistaren bizileku iraunkor bilakatu zen. Guiard geroago itzuli zen, 1894an.

Guiard eta Regoyos oso desberdinak ziren; lehenengoa hitz gutxikoa zen, eta Bilboko argota zerabilen; bigarrena hiztun bikaina zen. Regoyosek sei seme-alaba zituen; Guiard mutilzaharra zen bokazioz. Regoyosek haurrez inguratuta margotzen zuen leku guztietan; Guiardek paraje bakartiak bilatzen zituen. Regoyosek hainbat arazori aurre egin behar izan zien, hala nola seme baten heriotzari edo emaztearen erotasunari; Guiard estutasunik gabe bizi ziren anaiez inguratuta zegoen —artxibozaina, medikua, etab.— . Baina biek lortu zuten belaunaldi berriak beren inguruan biltzea, liskarrik edo inbidiarik gabe, eta laster jarri ziren harremanetan beste artista batzuekin, Paco Durrio, Francisco Iturrino, Ignacio Zuloaga, Manuel Losada eta Pablo Urangarekin, besteak beste. Guiard eta Regoyos Bilboko kultura-arloa goratzen ahalegindu ziren, eta ahalegin hori Kurding Club elkartean, Euskal Artisten Elkartean eta hainbat erakusketa kolektibotan zehaztu zen.

Inpresionismoaren ideiek, margolana gainazal piktoriko gisa ulertzeko modu anitzek, bi enbaxadore izan zituzten: Darío de Regoyos (1857–1913) eta Adolfo Guiard (1860–1916), bi nortasun indartsu, ekarpena egin ziotenak Espainiako pinturaren historiari. Haien estiloari esker, beste mundu-ikuskera bat ezarri zuten; egiazkotasun-inpresioa eman nahi izan zuten, begien aurrean zutena erakutsi; eta beren garaikideen mailan egon nahi izan zuten, institutuan adiskide izan zituzten ekintzaileen, enpresa-kapitainen eta ezkeraldeko mendietako meatze-ingeniarrien mailan.

1898an, Regoyosek, Camille Pissarro margolari eta lagunaren aholkuei jarraituz, alde batera utzi zituen Espainia Beltzeko folklorearen eta primitibismoaren gaiak, eta paisaia-pinturan zentratu zen, teknika puntillistagoarekin. Era berean, ikuspuntu zail eta ausartagoak erabili zituen: trenbide-biaduktuen bistak behealdetik, edo trenaren sarrera Pancorboko tunelean, edo *Zezenak Pasaian* (*Taureaux à Passages*), Pasai Donibaneko Santiago plazako zezenketa bat irudikatzen duena, Pasai San Pedron eta plaza baino gorago kokatuta egina.

Edo Erandioko itsasbazterrean kokatuta, panoramika handi eta eder bat egiteko: *Bilboko itsasadarra* (*La ría de Bilbao*, ca. 1910, olio-pintura mihise gainean, 49 x 209 cm, Bilboko Arte Ederren Museoa). Regoyosek meatze-mendien parean itsasadarraren bista panoramiko bat eskaintzen digu, Bilbo industrialeko itsasadarra. Bilkari japoniar moduko bat da, non margolariak Elorrietatik Erandiorako ibarraren erdian kokatu duen astoa (gaur egun, Ramón de la Sota Llano etorbidea). Ezkerrean Asua ibaiaren gaineko Lutxanako zubitik hasita (ibaiertz haietan jazo zen Lutxanako gudua 1836an), Regoyosek erribera deskribatzen digu, eta eskuinean hiru zuhaitzekin ixten du irudia, justu Portugaleteko dartsena hasiko litzatekeen tokian. Errepidean, baratzeen eta itsasadarraren artean, zenbait oinezko ageri dira, batzuk buruan saskia daramatela, eta automobilak, tranbia elektrikoa eta Erandioko ibaiertza Lutxana- Barakaldorekin lotzen duen txaluparia ere ikusten dira. *Veduta* honek Orconera (1877) eta Franco-Belga (1886) konpainietako meatze-kargategien artean kokatzen gaitu, itsasontziak estalia, lehena, eta eskuineko zuhaitzen atzean gordea, bigarrena. Itsasadarrean, Bilborantz doaz bi lurruntzi, eta Cadagua ibaiaren bokalea estaltzen dute; beste gabarra batzuk ere nabigatzen ari dira. Hori guztia Sasiburu menditik Trianoko mendietara doan panorama bikain batek ixten du.

Darío de Regoyosek ez bezala, Guiardek *inpresionismoa* ikasi zuen Parisen, teknika gisa baino gehiago paradigma-aldaketa gisa, eta horrekin batera *japonisme* edo ekialdeko artearen eragina ere jaso zuen, enkoadraketari dagokionez. Haren estilo errealistak inpresionismoaren koloreari eta argiari zor die bere zentzua, baina konposizio asimetrikoetan ekialdeko grabatu eta estetikaren eragina nabari da. Hori guztia bistakoa da Sociedad Bilbaina elkarterako egin zituen bi mural handietan: *Ehiztariak Iparraldeko Geltokian* (*Cazadores en la Estación del Norte*) eta *Terrazan* (*En la terraza*). Guardi izan zen Espainiako lehen inpresionista, baina teknikaren mende baino gehiago, inpresionismo frantses handiaren konposiziozko premisen mende egon zen haren lana. Guardi espiritu fin bat zen, eta adi erreparatzen zien euskal paisaiaren kolore-ñabardurei, zeru eta haizeenei, *Uzta-garaia* lanean bezala, baina baita beste leku batzuetakoei ere, ehiza-txakurrekin trenean bidaiatzeak eragindako tentsio-unea nabarmenduz, adibidez, *Ehiztariak Abandoko geltokian* lanean. Baina bi artisten handitasuna erakusteko, onena Regoyosen *Bilboko itsasadarra* eta Guardiaren *Itsasadarra Axpen* lanak konparatzea da: bakoitzak itsasadarrari buruzko bere inpresioa ematen digu, *bere egia* pinturan; eta bi bertsioak dira baliodunak eta apartak.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Henri Fantin Latour (1836–1904), Gustave Courbetekin lan egin zuena haren tailerrean, Maneten, Whistlerren eta Paul Verlaine nahiz Arthur Rimbaud poeten laguna izan zen; hala ere, inpresionismotik kanpo mantendu zen, Chardinen ildo intimistan. [itzuli]
2. Zacharie Astruc poetari (1833–1907) egokitzen zaio Maneten *Olympia* lanaren izenburua; izan ere, lana aurkeztu zen 1865eko erakusketaren katalogoan, izenburu hori zuen Astrucen poema batekin batera ageri zen. Ikusi Sharon Flescher, *Zacharie Astruc: Critic, Artist and Japoniste (1833–1907)*, Garland Publishing, New York, 1978. [itzuli]
3. Émile Zola nobelagile ezagunari bereziki interesatzen zitzaion Maneten pintura-estilo “naturalista”, eta

L'Évenement egunkarian idatzi zuen (1866ko maiatzaren 7a) honako hau: “markatuta dago Maneten lekua Louvren” (“Manet sera un des maîtres de demain dont la place est au Louvre [...] la place de Manet est marquée au Louvre comme celle de Courbet comme celle de tout artiste d'un tempérament original et fort”). [itzuli]

4. Barbizon herri txikiak aterpetxe bat zuen, eta jada 1830ean naturan barneratzeko aukera eskaintzen zien ehiztari eta margolariei. Charles Francois Daubigny (1817–1878) Parisen jaio eta hil zen, baina luzaroan bizi izan zen bertan, etxebizitza eta *atelier* gisa eraiki zuen gabarra berezi batean; gabarra hartan nabigatzen eta margotzen zuen, guraize-aulkia, astoa edo atril bat eta eguzkitakoa erabiliz, *au plein air*. Ez zen izan, inpresionistentzat bezala, helburu bat bere horretan edo naturarekin adiskidetzeko ekintza bat, baizik eta lehen behaketa-urrats bat, ondoren estudioan lanean jarraitzeko. David C. Thomson kritikari ingelesak 1890ean ezarri zien izena, “École de Barbizon”, zalantzagarrria da. Margolari haiek ez zuten eskola bat osatu, eta ez zuten programa bat eduki; naturaren munduak erakarri zituen, besterik gabe; basoaren, uraren eta hezetasunaren koloreekiko erakargarritasuna sentitu zuten. Beste askoren artean, Barbizonen izan ziren Théodore Rousseau eta Jean-François Millet (Barbizonen hil ziren, 1867an eta 1875ean, hurrenez hurren), eta bereziki Charles-François Daubigny, zeina baita, nire ustez, inpresionismoaren benetako aitzindaria. Barbizonen edo hango artisten inguruan girotutako lehen lan literarioetako bat Jules eta Edmond de Goncourten *Manette Salomon* eleberria (1867) izan zen. [itzuli]

5. Marrazkigile batek Maneten lana kritikatu eta karikaturizatu zuen *Journal Amusant* egunkarian, izenburu honekin: “Jesus dizipuluen artean” (“Autour du peintre vilipendé par le public s'est créé un front commun de peintres et d'écrivains le revendiquant comme un maître”). [itzuli]

6. Salon des Refusés erakusketa 1864., 1873., 1875. eta 1886. urteetan egin zen. 1867an, Parisko Erakusketak berriz baztertu zituenez, taldeko kide guztiek, Monetek izan ezik, Salon des Refusés berrezartzeko eskaera egin zuten, orduan epaimahaiko kide zen Charles-François Daubignyren babesarekin; azkenean, Erakusketan onartu zituzten 1868an. [itzuli]

7. *Macchiaioli mantxistak* dira, mantxak edo orbanak egiten dituztenak; hitz hori 1862an aplikatu zien Florentziako Caffè Michelangiolon biltzen ziren artista gazteei *La Gazzeta del Popolo* egunkariko zutabegile ezezagun batek; talde horrek Italiako pinturaren berrikuntzaren aldeko jarrera zuen, Akademiaren irakaskuntzaren aurka. [itzuli]

8. *Inpresionismo* hitzak Louis Leroy arte-kritikariak 1874ko apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitarte ikusgai izan zen artista independenteen erakusketari buruz idatzitako kronikan du jatorria, “L'Exposition des impressionnistes” (Inpresionisten erakusketa) izenburudun kronikan egindako mespretxuzko aipamenean (*Le Charivari* egunkarian argitaratua, 1874ko apirilaren 25ean). Aipamen horretan Monet *Inpresioa, eguzki atera berria* lanari egin zioten erreferentzia. Izenburuari buruz, Monetek berak honako hau esan zuen: “Katalogorako izenburu bat eskatu zidaten; egiaz, ezin zen hartu Le Havreren bistatzat, eta nik esan nuen: ‘Jarri inpresioa’” (“They asked me for a title for the catalogue, it couldn't really be taken for a view of Le Havre, and I said: ‘Put Impression.’”). Paul Smithek, *Impressionism: beneath the surface* liburuan (H. N. Abrams, New York, 1994, 19. or.), honela dio: “*Impresion, Sunrise* Monetek bat-bateko espresioaren bila egindako lana zen, baina bat-bateko espresioari buruzko ideia definitu eta historikoki zehaztuei jarraitu zien, eta bere margolana amaitu gabe zegoela edo xehetasun deskribatzailek ez zuela zioten akusazioetatik babestu nahi izan zuen, kritika haiek izenburua gorabehera jasoko bazituen ere”. [itzuli]

9. Georges Seuratekin (1859–1891) *pointillisme* edo puntillismoa agertu zen, pintzeladak baino gehiago, koloretako puntuak erabili baitzituen margolanak sortzeko, urruti samarretik begiratuta lortu nahi zituen kolore-konbinazioak sortzen zituzten puntuak. Paul Signacekin batera parte hartu zuen Société des Artistes Indépendants elkartearen (1884), inpresionistetatik bereizteko sortua; Seuratek bertan aurkeztu zuen *Igande arratsalde bat Grande Jatte uhartean* (*Un dimanche après-midi à l'Île de la Grande Jatte*) margolan handia, 1886an, inpresionisten azken erakusketan, Lafitte kaleko Maison Dorée eraikinean. Gaur egun, margolana Chicagoko Art Institute erakundearen dago, eta bertan irudikatuta ageri da jende-multzo bat Senaren ibaiertzean, denak estatiko, eta gehienak itzaletan

eta aurpegiarik gabe. Seuratek, inpresionismoari eta haren pintzelkada- eta kolore-legeei jarraituz, forma solido baina irrealen multzo bat sortu zuen: jendea ebakita geratzen da, arte toparioko heskai hotz bat balitz bezala. Urruntze sozialaren irudi bat da, eta inongo figura-taldek ez du gainerakoaren existentziaren berri: igande arratsalde bateko deskonexio sozialaren friso bat da. [itzuli]

10. Dibisionismoa (1891n jaio zen ofizialki, Milango Brera Arte Galeriako Arte Ederren Hiru Urtez Behingo Erakusketaren lehen edizioaren harira) italiarrek puntillismo frantsesaren deskonposizioaren eta kolore-erabileraren teoriari emandako erantzuna izan zen, eta horren adibide dira Longoniren *Alpeetako paisaia (ilusiorik gabe)* [*Paessagio alpino (Dissillusa)*, 1914], Morbelliren *Laurogei zentimoren truke!* (*Per ottanta centesimi!*, 1895–97) eta *Lezioa kanpoan (Lezione all'aperto)*, 1890), Segantiniren lanak eta beste artista batzuenak, non ez ditugun aurkituko elkarren ondoan jarritako puntuak, kolore pastatsuko harizpiak baizik. Emilio Longoni Italiako margolari dibisionisten lehen belaunaldiko ordezkari nabarmen bat izan zen, Giovanni Segantini, Vittore Grubicy De Dragon, Giuseppe Pellizza da Volpedo, Giovanni Sottocornola, Giuseppe Mentessi, Angelo Morbelli eta Gaetano Previatiarekin batera. [itzuli]

11. Monetek geltokiaren hamabi margolan osatu zituen, hainbat baldintza meteorologikotan eta ikuspuntu desberdinetatik. Horietako bik enkoaraketa berbera zuten, eta beste bik, zertxobait desberdina; gainerakoetan nabaria zen astoaren kokapena oso antzekoa zela. “Pentsatu nuen ez zela hutsala izango motibo berbera eguneko hainbat unetan aztertzea eta orduz ordu eraikinaren itxura eta kolorea hain modu nabarian aldatzen duten argiaren efektuak jasotzea”. Seriea osatu bitartean, Monet Argenteuil hiritik Parisera lekualdatu zen, geltokitik hurbil zegoen apartamentu batera. Aldi berean landu zituen margolan guztiak, eta batzuetan elkarren kontra jartzen zituen mihise zabalduak, oraindik heze zeudenean. Geroago, beste gai batzuei buruzko serieak egin zituen, hala nola *Metak* edo *Nenufarrak (Les Meules* eta *Les Nymphéas)*. [itzuli]

12. Margolariak Saint-Lazare geltokia irudikatu zuen, 1841–43an eraiki zuena Alfred Armand arkitektoak, eta hiri inguruko aldean Eugène Flachatek ingeniariak 1853an sortutako bi isurkiko markesina handi batez estalita zegoena. Flachatek Paris-Saint-Germain-en-Laye linea eraiki zuen 1837an. Monetek, Caillebotteren antzera, Europa izeneko barruti berria ezagutzera gonbidatzen gaitu; barrutia Haussmann baroiak ezarri zuen 1858an, eta 1860tik aurrera eraiki zuten, bide nagusi zabalekin, apartamentu-eraikinekin eta Europako zubiarekin, 1867an eraiki zutena Europako plaza zaharraren ordez. [itzuli]

13. Jean Renoir, *Pierre-Auguste Renoir, mon père*, Gallimard Collection 1292. zenbakidun folioa, Paris, 1981, 186.–87. or.: “Un matin de 1877, Claude Monet réveille son ami Renoir et s’écrit «J’ai trouvé: la gare Saint-Lazare!» Il met ses plus beaux habits et demande à être reçu par le Directeur des Chemins de fer de l’Ouest. «Je suis le peintre Claude Monet», annonce le jeune artiste encore inconnu. J’ai décidé de peindre votre gare, poursuit-il comme s’il faisait au bâtiment un grand honneur. J’ai longtemps hésité entre la gare du Nord et la vôtre, ajoute-t-il malicieusement. Mais je crois que finalement la vôtre a plus de caractère.» Du directeur bluffé par tant d’assurance, «il obtint tout ce qu’il voulut [...] On arrêta les trains, on évacua les quais, on bourra les locomotives de charbon pour leur faire cracher la fumée qui convenait à Monet. Celui-ci s’installa dans cette gare en tyran, y peignit au milieu du recueillement général pendant des journées entières, et finalement partit avec une bonne demi-douzaine de tableaux, salué bien bas par tout le personnel, directeur en tête.» [itzuli]

14. “Un critique lui avait déclaré que la brume n’était pas un sujet de tableau. Pourquoi pas un combat de nègres dans un tunnel? Cette incompréhension lui avait donné l’envie de peindre quelque chose d’encore plus brumeux.» Et quoi de plus brumeux que la vapeur? Les fumées des locomotives y sont tellement épaisses qu’on y distingue à peu près rien, explique Monet. C’est un enchantement, une véritable féerie”. [itzuli]

15. “Je me dis qu’il ne serait pas banal d’étudier à différentes heures du jour le même motif et de noter les effets de lumière qui modifieraient d’une façon si sensible, d’heure en heure, l’apparence et les colorations de l’édifice”, Sophie Monneret, *L’Impressionnisme et son époque*, Denoël, Paris, 1981. [itzuli]

16. Margolan honen bi bertsio daude: bata Moskuko Pushkin Museum-en eta bestea Kansas Cityko Nelson-Atkins Museum of Art museoan. 1874ko erakusketan, Monetek kritika gogorak jaso zituen, batik bat “paleta-urratu ulertezinen kaos” honengatik. Artistaren lagun Gustav Geffroyk idatzi zuen *Capucines* “Claude Monetaren pinturaren aurkako argudio nagusia” izan zela urte luzez. [\[itzuli\]](#)
17. *Impressionism in Britain* erakusketak inpresionismoa zer ingurune artistiko eta kulturaletan sartu zen eta mendearen hasieran britainiar pinturaren garapenean zer eragin izan zuen aztertu zuen. Monet Londresera joan zen margotzera; Sickert Parisera joan zen margotzera; kultura-truke handia izan zen. Erakusketak, komisariotzat izan zituenak Kenneth McConkey eta Anna Gruetzner Robins, 100 artista baino gehiagoren 200dik gora lan bildu zituen, honako hauenak barne: Clausen, Conder, Degas, La Thangue, Lavery, Monet, Orpen, Pissarro, Rothenstein, Roussel, Sargent, Sickert, Sisley, Steer, Whistler eta beste asko. *Impressionism in Britain*, Barbican Art Gallery (urtarrila-maiatza), Londresen; Hugh Lane Municipal Gallery of Modern Art Dublinen; Yale University Press, 1995. [\[itzuli\]](#)
18. *Frédéric Bazille (1841–1870). La jeunesse de l'impressionnisme* erakusketa (2016ko azaroaren 15etik 2017ko martxoaren 5era) Parisko Musée d'Orsay museoan. Komisarioak: Michel Hilaire, Paul Perrin eta Kimberly Jones. [\[itzuli\]](#)
19. Caillebotteri begirako interesa Anne Distelekin hasi zen: *Gustave Caillebotte, An urban impressionist*, erakusketa Parisko Musée d'Orsay eta Art Institute of Chicago museoetan, erak. kat., Abbeville Press, New York, 1995. Ondoren antolatu ziren beste erakusketa batzuk: *Über das Wasser - Gustave Caillebotte - Ein Impressionist wieder entdeckt* (ekainak 29–urriak 5, 2008) Bremengo Kunsthalle-n; *Caillebotte: l'oeil du peintre* (ekainak 28–urriak 4, 2015) National Gallery of Art Washington-en, Mary Morton komisario zela; *Caillebotte, peintre et jardinier* (martxoak 25–uztailak 3, 2016) Musée des Impressionismes de Giverny museoan; *Gustave Caillebotte. Painter and Patron of Impressionism* (maiatzak 17, 2019–irailak 15, 2019), Berlingo Alte Nationale Galerie galerian, komisario zirela R. Gleis, A. Groenewald-Schmidt, eta K. Sagner. Era berean, Caillebottek eta Monetek elkarri idatzitako gutun ugari daude; biek maite zuten lorezaintza. Caillebotte Monetaren eta Alice Raingoren ezkontza zibil eta erlijiosoaren lekuko izan zen 1892ko uztailan. [\[itzuli\]](#)
20. *James Tissot: L'ambigu modern* erakusketa (2020ko martxoak 23–uztailak 19, ekaina-irailera atzeratua), Musée d'Orsay museoan. Komisarioak: Marine Kisiel, Melissa E. Buron, Paul Perrin eta Cyrille Sciamia. [\[itzuli\]](#)
21. 1894ko martxoaren 11n, Pierre Renoir margolariak gutun bidez zera jakinarazi zion Arte Ederren Departamentuan ziharduen Henri Roujoni, Gustave Caillebottek, 1894ko otsailaren 21ean hildakoak, bere testamentu-betearazle izendatu zuela (1876ko azaroaren 3a) eta bertan adierazita zegoela Estatuari lagako ziola bere bilduma, Degas, Cézanne, Manet, Monet, Renoir, Pissarro eta Sisley margolarien hirurogeita zazpi lanez osatua. [\[itzuli\]](#)
22. Margolan hau garai hartako espainiar pinturari buruzko lan orokor nagusietako batzuetan –Benet, Gaya Nuño– erreproduzitu zenez, sarri koloretan, espainiar inpresionismoaren erreferentzia bilakatu zen. Madrilgo Arte Modernoaren Museoak eskuratu zuen, 1932ko apirilaren 23an. Asturiasen jaio bazen ere, Darío de Regoyosek (Ribadesella, Asturias, 1857–Bartzelona, 1913) lotura artistiko eta familia-harreman estua izan zituen Euskal Herriarekin. Haren aita, ingeniaria eta arkitektoa, oso lotuta egon zen Bilboko enpresekin. 1883rako Gipuzkoan zegoen, eta 1907an Bizkaira joan zen familiarekin, Durangora, eta geroago Bilbora eta Areetara, 1912ra arte. [\[itzuli\]](#)
23. Umberto Boccioni (Reggio Calabria 1882–Verona 1916) prefeturako langile baten semea zen, eta Italiako hainbat hiritan bizi izan zen: Forli, Genova, Padua eta Catania (1897). Erroman Gino Severini margolari gaztea ezagutu zuen, eta harekin batera jotzen zen Giacomo Ballaren lantegira; hark erakutsi zizkien teknika dibisionistaren sekretuak. Ondoren, futurismoaren ordezkari handietako bat izan zen, eta pieza garrantzitsuak sortu zituen eskulturaren arloan. [\[itzuli\]](#)

24. Errusiara bidaia labur bat egin ostean, 1907an, Milana itzuli zen Boccioni, eta Porta Romanatik gertu instalatu zen amarekin eta arrebarekin, hiriko kanpoalde industrialean. Periferia eta hiri-ingurunea beti izan ziren, oro har, Boccioniren lan askoren oinarria, baita Regoyosen lan askorena ere. Margolan honek hiri berri baten eraikuntza erakusten du, bere garapen eta teknologiarekin, Natalia Ginzburgen 1942ko *La strada che va in città* eleberriaren estiloan. [itzuli]

25. Max Slevogt (1868–1932), inpresionismoko margolari alemana, paisaietan espezializatua. Landshuten jaio, eta Leinsweiler-Neukastel/Pfalzen hil zen, Renaniako Palatinatuan, Rhinen ardoaren ibilbidea zeritzonean. 1900. urtean Parisera bidaiatu zuen, eta Édouard Maneten lanarekiko interesa agertu zuen; 1901ean, bat egin zuen Berlingo Sezessioarekin. Slevogtek jarrera berdingabea izan zuen Alemaniako paisaien pinturaren arloan. Max Liebermann eta Lovis Corinth margolariekin batera, inpresionismo alemanaren triunbiratuaren kideztat hartzen dute (*Dreigestirn des deutschen Impressionismus*). [itzuli]

26. Johannes Guthmann (1876–1956) kontratista dirudun baten semea zen, eta Heidelbergean egin zuen doktoregoa, 1900. urtean, “Toscanako eta Umbriako arteko paisaia-pintura Giottotik Rafaelera” gaiari buruz; ondoren, Berlingo Galeria Nazionalean lan egin zuen, Hugo von Tschudiren (1851–1911) agindupean. [itzuli]

27. Johannes Guthmannek eszenahau gogoratu zuen bere memoria-liburuan (*Schöne Welt – Wandern und Weilen mit Max Slevogt*, Weding Verlag, Berlin, 1948): “Gero, Max Slevogt margolari inpresionista jauzi batez altxatu zen; astoa, pintzelak eta margoak hartuta atean jarri zen; aitzakia bat xuxurlatu zuen, enbarazu egin ez ziezaioten, unea betikotu nahi zuelako, eta lanari ekin zion: ordubete eta hamar minutuan amaituta zuen margolana”. Ikusi Christoph Stollowsky, “Musen und Memoiren in Neu-Cladow”, *Der Tagesspiegel*, 2019ko ekainaren 16a. [itzuli]

28. Max Slevogt, erakusketa honen katalogoaren hitzaurrea: Max Slevogt, Akademie der Künste Berlin, 1928: “Das Auge ist kein Instrument, kein Spiegel — es ist eine lebendige Weiterleitung in unserem Organismus [...] Es sieht, was es sucht, und was es nicht versteht, sieht es nicht [...] Das Auge sieht voller Einbildung, sieht voll Musik, Rhythmus und Trunkenheit.” [itzuli]

29. Borboien Berrezarkuntza sistema monarkikoaren pean garatutako Espainiako etapa historiko bat izan zen, 1874. urtearen amaieratik (Arsenio Martínez Campos jeneralaren jazarraldi militarrek Espainiako Lehenengo Errepublikari amaiera eman zion) 1931ko apirilaren 14ra bitartekoa (Bigarren Errepublika aldarrikatu zen eguna), eta oinarritzat zuen 1876ko Konstituzioa. Aldi horrek ezaugarritzat izan zituen egonkortasun instituzionala eta Estatuaren eredu liberal baten eraikuntza, Industria Iraultzaren babesean sortua; 1920ko hamarkadaren amaierako krisitik aurrera gainbehera etorri zen, eta etapa hori amaituta geratu zen Gerra Zibilarekin eta Franco jeneralaren altxamenduekin. [itzuli]

30. Le Salon des XX erakusketa-aretoa Bruselan eratu zuten, 1884an, 20 artista elkartuta, Groupe des XX taldea, idazkaritzat zuena Octave Maus. Groupe des XX 1893an desegin zen, baina erakusketa-eremuak martxan jarraitu zuen Salon de la Libre Esthétique gisa. Lehen Mundu Gerrara arte iraun zuen. 1888an, adibidez, Gustave Caillebotte gonbidatu zuten, eta 1898an, Paco Durrio, zeinak 1902an Picasso gaztea gonbidatzeko aholkua egin zion Regoyosi. [itzuli]

## EUSKAL DANTZAREN IRUDIKAPENA PINTURAN

Erakusketaren azken espazioa folkloreaken ikuspegi berri batekin lotua dago, zeina, geure herrialdean, Losada, Arrue, Ucelay eta Olasagastiren zenbait eszenaren irudikapenean islatu baitzen XX. mendearen hasieran, nolabait ere folkloreakin eta lurraldearekin zerikusia zuten eszenak baitira. Artista hauek arte etnografiko gisa definitzen dugun horretara irekitzen direla da kasu honetan berrikuntza, iraganarekiko elkarrizketa beti izan baita beharrezkoa artearen historian, literaturan den bezalaxe.

XIX. mendearen amaierak diziplina berriak ere ekarri zituen Europa osoko unibertsitateetara eta museo berrietara. Sartu berriak ziren diziplinen artean daude, adibidez, paleontologia<sup>1</sup>, antropologia<sup>2</sup> eta etnologia; aldi berean, unibertsitateko ezagutza- interesak zabaldu eta ugaltu ziren, historiaurretiko folkloreraino, herrien azterketa konparatutik igaroz, izan aborigenak, izan gure arbasoak.

Folklore-azterketek (*Völkerkunde*), etnografiak edo etnologiak giza kultura eguneroko eta herrikoia iraganaz eta orainaldiaz arduratzen den kultura- eta gizarte-zientziari egiten diote erreferentzia. Alemaniako unibertsitateetan, etnologia edo azterketa kultural konparatu gisa, edo antropologia kultural edo antropologia sozial gisa, hasi ziren agertzen antzinako etnografia edo *Völkerkunde* edo folkloreaki buruzko ikasketak; izen-aldaketak, etnografiako museoen izenen beren aldaketak bezala, adierazten du folklore tradizionalaren gaineko iritziaren berrorientatze-prozesua ere<sup>3</sup>.

Arte garaikidearen jatorria, hasiera edo lehen urratsak, eta beste zibilizazio batzuetako artearen ikuspegia (edo arte primitiboarena edo herri-artearena) hasieratik bertatik joan ziren eskutik lotuak. Gogora dezagun XX. mendeko arte-historialariak ere, Alfred Barr eta MoMAko bere kanonetik hasi, eta Werner Schmalenbach eta bere Düsseldorfeko museoaino (Nordrhein Westfalen Sammlung) arte beltzaren miresle sutsuak izan zirela<sup>4</sup>. XX. mendeko artearen historiografiak, baita zoroen artea gogoan hartzeak ere<sup>5</sup>, arte beltzaren edo ozeanikoaren historiografiaren ibilbide bera izan du; zehazki ehun urte pasatxo. Bi historiografiak garaikideak dira, ikerketa-bideak, paradoxa bada ere, oso nekez izan badira ere paraleloak. XX. mendeko zientzia ia osoan gertatu den bezala, eremu autistak egin dira, nahiz eta bidearen abiapuntua batera zabaldu eta prestatu zuten museo berrien eraketarekin konprometitu ziren artista eta unibertsitateko irakasleek. Karl von Steinen mediku alemaniarra (1855-1929) dut adibidez gogoan; 1890ean Marburgoko Unibertsitateko Etnografia Katedrari uko egin eta gutun bat bidali zion Errektoretzari, museo-bilduma eskura izan gabe ezin zela irakatsi argudiatuz<sup>6</sup>. Ezin da alemaniar Espresionismoa azaldu, Ernst Ludwig Kirchnerrengandik hasi eta Max Beckmannenganaino, Dresden, Leipzig edo Berlingen etnografia-museoen presentziarik gabe<sup>7</sup>.

Lehen inpresionisten artea Ekialdeko munduak eragin zuen, batez ere japoniar estanpak eta Ekialdeko filosofia bisualak; batetik, Goncourt anaiek komentatu eta zabaldurik, eta bestetik, ezin konta ahala artistak –Milletetik Monetera, Van Goghetik Mary Cassatera– erakutsitako interesagatik eta haiek osatutako bildumei esker. Postinpresionisten eta XX. mendearen hasierako sortzaileen artea, berriz, arte primitibo, *l'art premier*, arte arkaiko, herrikoi, basati edo Europatik kanpokoaren eraginpekoa da.

XIX. mendearen amaieran antropologiako edo etnografiako museoak sortzen hasi ziren Europan, Parisen, Zurichen eta, jakina, berebat aipatu behar dira Londresko British Museum-ek edo Alemaniako museo jada aipatuek egiten zituzten erosketa garrantzitsuak. 1875ean, Dresdengo Museo Antropologikoa ireki zen, eta, urtebete geroago, Leipzigecko Etnografia Museoa; 1879an, Parisko Musée d'ethnographie du Trocadéro sortu zen, gerora lekuz aldatu eta Musée de l'Homme bihurtu zena. Etnografia gizarte-zientzia gisa sortzea eta halakotzat hartzea, eta etnografia-bitxikerien bildumak museo bihurtzea, geure artisten ezagutzan (eta begiradan) dagoen perspektiba-aldaketarekin batera gertatu ziren, haiek ere hasi baitziren, beren lankide, bizilagun eta lagunen eraginez –Bilbo txiki hartan–, historiaurreaz, hizkuntzaz eta mitologiak edo gure jaietako folkloreak interesatzen.

1833an Euskal Herrian lehen trikuharria aurkitu zenetik (Egilazkoa, Aizkomendin), ehunka haitzulo eta aztarnategi agertu dira: Baltzola, Muliña, Isturitz, Urbasako trikuharrien eremua, edota Santimamiñeko eta Ekaingo labar-pinturak. Isturitzeko haitzuloan, historiaurreko txirula-multzo garrantzitsu bat aurkitu zen, Goi Paleolitokoa (K.a. ca. 35.000–10.000 urte). Hezurak eta harrizko plakak ere aurkitu zituzten, bisonteen iruditxoekin, elur-oreinen adarrekin eta abarrekin grabatuak, gaur egun Musée d'archéologie nationale-ren bildumetan daudenak, Saint-Germain-en-Layen, Paristik gertu. 1895ean Édouard Piette arkeologoak aztertu zuen haitzulo hau, ordurako ezagunaz arren; 1860an Napoleon III.a joan zen ikustera bere emazte Eugenia de Montijorekin, eta 1893an Pierre Lotiidazlea.

Gure historiaurreari buruzko ikerketak Emmanuel Passemard-ekin<sup>8</sup> eta hark Isturitz buruz egin zituen ikerketekin hasi ziren, eta ondoren Telesforo Aranzadirekin<sup>9</sup>, Jose Miguel Barandiaranekin<sup>10</sup>, Enrique Egurenekin<sup>11</sup>. Industriaren eta kulturaren beste alorretan bezala, indusketa arkeologikoak eten egin ziren 1936an. Aranzadi, Barandiaran, Eguren eta beste irakasle batzuen landa-lanek, era berean, gure historiaren eta historiaurrearen ezagutza aldatu zuten<sup>12</sup>. Irakasle germaniar batzuk ere etorri ziren Euskal Herrira, hala nola Hugo Obermaier edo Marius Schneider<sup>13</sup>. Antropologo fisiko eta arkeologo haietako batzuk, era berean, folklorista eta etnografo bihurtu ziren, eta kultura herrikoiaz interesatu ziren. Haiek ikusi zuten Paleolitoan sortu zela artea, orduan hasi zirela gizarteak antolatzen. Ikertzaile haiei eta hasierako bultzada hari esker, heldutasun ukaezineko egoera batean dago euskal historiaurrea gaur egun; zehazki, Goi Paleolitikoari eta trikuharrien garaiari dagokienez, baita aztarnategien kopuru handiari dagokionez ere, haien kronologiari, hornigaiekin eta haien aldizkakotasunari eta kultura-ezaugarriari buruzko datu nahikoekin.

Historiaurreari buruzko ikerketa horiekin batera, lehen ikerketa serioak egin ziren folkloreaki, dantzei edo mitologiari buruz, baita hizkuntzari berari buruz ere, euskarari buruz. 1888an Aldundiak, Pablo de Alzola ingeniaria presidentea zela, euskarazko katedra bat sortu zuen Bizkaiko Institutuan<sup>14</sup>, nahiz eta fundatu zenean jadanik (1841eko apirilaren 2an eta 4an) Batzar Nagusiek euskarazko katedra bat eskatu zuten, eta Camilo de Villabaso bilbotarrak eskaera bera egin zuen berriz ere 1876an. Bizkaiko Institutuko katedra horrez gainera (1888–1937), beste bi egon ziren: bata Bilboko Maistren Eskola Normalean (1918–23) eta bestea Barakaldon (1919–26)<sup>15</sup>.

Espaniar hizkuntzaren autoritate batek, Ramón Menéndez Pidalek, adierazpen hau egin zuen Eusko Ikaskuntzan 1921ean: “Zuen herria hispaniar antzinateko erlikiarik gurgarrienaren gordailua izatearen



zoriona duzue. Beste batzuek balio artistiko handiagoa izango dute, unibertsalki miretsiagoak eta gutzituagoak izango dira, baina ez dago beste hizkuntzarik hizkuntza honen garrantzia duenik, eta honen sakoneko azterketarik gabe ezin izango dira inoiz osorik agerrarazi penintsulako zibilizazioaren oinarri eta ibilbide nagusiak, eta ezin izango da hura funtsean ulertu ere”<sup>16</sup>.

Kezka horiekin batera, aipagarriak dira orobat museoekiko eta artearen kritikarekiko harremanak. 1879an Bilboko Arte eta Lanbide Eskola ireki zenean (gerora Kontserbatorioa izango zen Bizkaiko Musika Akademia ireki eta bi urtera), hara eraman ziren Foru Aldundiko eta Kotsulatuko koadro garrantzitsuenak. 1914an Arte Ederren Museoa sortu zen Atxuriko ospitale zaharrean, eta 1924an Arte Modernoaren Museoa Santa Maria kalean<sup>17</sup>. Bitartean, 1919an, Nazioarteko Pintura Erakusketa arrakasta handikoa egin zen, Alfontso XIII.ak inauguratua, Berastegi edo Albiako Eskoletan, eta “gure herrian egin den asmo unibertsal handieneko gertakari artistikoa” zelakoan goraiatu zena<sup>18</sup>. 1927an, gainera, Bilboko Berreginen Museoa sortu zen.

1900etik aurrera egin ziren erakusketen eta zabaldu ziren erakundeen paraleloan –esate baterako, Euskal Artisten Elkartea, 1911n sortua–, arte-kritika indartsu bat sortu zen Bilbon, besteak beste Damián Roda<sup>19</sup>, Ricardo Gutiérrez Abascal<sup>20</sup>, Estanislao María de Aguirre<sup>21</sup>, Crisanto de Lasterra<sup>22</sup>, Joaquín Zuazagoitia<sup>23</sup> eta Fernando María de Milicua<sup>24</sup> bildu zituenak. Ia denak, Lasterra eta Roda izan ezik, atzerrian ikasiak ziren, eta gehienak Alemanian. Idazle batzuek kritika-lanak ere egin zituzten, Miguel Unamunok besteak beste (Guiard eta Iturrino goraiatuz esate baterako; Paco Durrioren adiskide mina izan zen) eta Tomas Meabek. Azken horri zor diogu kritikarik dibertigarrienetako bat, “Artistas, millonarios y silfos” izenekoa, non infernu artistiko bat eratzea proposatzen baitu: atea itsu zoroen talde batek eta itsu zentzudunen beste talde batek zainduko lukete. Izan ere “jakingo duzu noski artistek, tarteko izakiak izanik, leku nagusia dutela esaten dizkizudan itsu hauen artean, zeren, ikusten dutela esango balitz ere, bakarrik ikusten baitituzte ‘alferreko gauzak’, eta zentzudunak direla esango balitz ere... alferreko gauzentzat baino ez dira halakoak”<sup>25</sup>.

Arte plastikoak alde batera utzita, interes handia izan zen Bilbon, modan baino gehiago, kalitatezko oihaletan. Enrique Areilza doktoreak (Paco Durrio eskultorea erretratu-domina bat egiten ari zitzaionean) esan zuenez, “Bilbon, hauteskunde-gastuetan eta haurrak janzteko moduan baino ez dago luxua”<sup>26</sup>. XIX. mende ia osoan, Losadaren pinturan eta 1928ko Ucelayren zenbait luma-lanetan ikusten den bezala, frantses jatorriko ehunei (eta jostunei) emana bizi da Bilbo: Geroma Gutiérrez de Caviedes, lehen meatzarietako bat izan zen José Antonio Ybarraren emazteak, denda bat ireki zuen Bilbon 1800 inguruan, ikusi zuenean “atzerriko janzkera- modak sutsuki jarraitzen zirela, batez ere ingeles jatorriko oihalak eta joskera-modu frantsesak”. Arropa- eta oihal-denda hau 1837ra arte egon zen irekita, eta urte hartan Domingo Blanchard frantsesari saldu zitzaion; horrez gainera, hantxe zeuden Chanfreau, Mathurin & Cie, Domingo Blanchard, Gaston Poirier (ondoren Gaston & Daniela izango zena), baita La Parisien ere, Someran kokatua, Zamudioko Atetik sartuta. Hirurogeita hamarrek hamarkadan, Liverpoolera edo Londresera ikastera joan zirenak itzuli zirenean, eragin ingelesa hasi zen Bilbon zabaltzen: Eduardo Daura eta Hilario Egurenen denda, Sastrería Inglesa izenekoa (Benito y Benito) Done Jakue plazatxoan. Alde Zaharreko jostun asko Londresera ere joan ziren praktikak egitera, hala nola Landaluce, Lozano, Cardenaldarrak, gorago aipaturiko Mogrovejotarrak, eta, hogeiko hamarkadan jada, Forastertarrak, baita Villarejo zapataria ere, Estufa kalean 1901etik.

Jostun hauek teknika berrietan zuten interesagatik ere aitzindariak izan ziren. Bilboko lehen auto matrikuladuna Delahaye bat izan zen, 1902ko otsailaren 23an Salustiano Mogrovejo Abásolo jostunak (Nemesio Mogrobejo eskultorearen anaia nagusia zen) inskribatua<sup>27</sup>. 1913an eratu zen egoitza Kale Nagusian zeukan Bizkaiko Automobil Kluba laurogei kide pasatxorekin, eta 1930ean ehun eta hirurogeita hamar kide izatera heldu zen<sup>28</sup>. Jostunak oso lotuak egon ziren artistekin ere, eta ekoizpena trukatzeko zuten haiekin<sup>29</sup>. Jostun askok folklore-ekitaldietan parte hartu zuten, dantzarien soinekoak moztuz.

Hizkuntzaren ondoan, elizateetan ere gorde diren adierazpen hauek daude: dantzak<sup>30</sup>. Dantza da agian, denboraren eta espazioaren bidez, gizakien “izatea” ongiena islatu duen adierazpen plastikoa. Goragoko premia berri batek bultzatuta egindako giza ahalegin bat da dantza: ez libreki egina (kirola bezala), ez derrigorrez (lana bezala); borondatezko mugimenduak, berezko helburua direnak, osotasun komunikatibo gisa hartzen direnak (deitzailea, erreferentzial-sinbolikoa, adierazgarria), bai banaka, bai taldean.

Maiz berretsi da herri euskaldunaren ezaugarriak izan direla kanpoko begietan euskal hizkuntza, euskara, eta dantza, Estrabonen (K.a. I. mendea) eta Voltaireren (XVIII. mendea) aipu ospetsuetatik hasita, Serge Lifar-engandik, zeinarentzat euskaldunok dantza bere berezotasun garbienean erakusten baitugu<sup>31</sup>, eta Violet Alford-engandik igaroz, harentzat hemengo dantza erritualeko urrats batzuk balletaren jatorria bera baitira<sup>32</sup>.

Dantzak ulertu behar dira (plano teorikoaz ari naiz beti, eta ez gaur egungo agerraldi posibleez, ezta tradizioarekiko “fideltasun” mailaz ere), ez bertsio bakar batean oinarrituta, hainbat leku eta denboratan jasotako errealizazioen corpus osoan oinarrituta baizik (nahiz eta badakigun oraindik ez dela ikerketa historiko-filologiko osorik egin: inbentarioa, sailkapena, deskribapena, kronologia, erlazioa, etab.). Ezin dugu ahaztu objektu artistikoen ulergarritasuna bakar-bakarrik lortzen dela gogoan ondo hartuta objektu horiek erreferentearen egitura estra-artistikokoan betetzen duten funtzioa<sup>33</sup>.

Dantza akademikoko mugimendu batzuen izen edo termino teknikoak gure herrira ekartzen gaitu: “Pas de basque”, “saut de basque”, “grand pas de basque”. Termino horiek guztiak munduko dantzariak handien edozein metodotan agertzen dira<sup>34</sup>, izan Serge Lifarren 1955eko *Traité de la danse*; izan Agrippina Vaganovaren 1946ko *Basic principles of Classical Ballet*; edota Geneviève Guillot-en 1974ko *Grammaire de la danse classique*. Eta urrats horiek denak daude dantzari-dantza bizkaitarrean, edo Euskal Herri osoko ezpata- dantzetan<sup>35</sup>.

Euskaldunek berek, ordea, ez dute gauza handirik idatzi beren dantzatzeke eta dantza ulertzeko moduz. Manuel Larramendi jesuitak egin zituen dantzen lehen azterlanak, bere *Coreografía o descripción general de la muy noble y leal Provincia de Guipúzcoa* (1756), aita Fidel Fitak 1882an argitaratua<sup>36</sup>; geroagokoa da, baina lehenago argitaratua, Joan Ignazio Iztuetaren *Guipuzkoako Dantza*, 1824koa<sup>37</sup>, eta, 1960koa jadanik, Jose Luis Etxebarriaren *Danzas de Vizcaya*<sup>38</sup>. Ehun urte besterik ez dago bataren eta bestearen artean, eta, jakina, azterlan dezente gutxiago dago<sup>39</sup>. Alabaina, euskaldunek beren dantzez gutxi idatzi badute ere, ezin bikainagoa da gure artistek margotu dutena.

Gogoan izan behar da Eresoinka talde artistikoak egindakoa izan zela Gerra Zibilean gertatu zen arte-adierazpenik garrantzitsuena, margolariak, musikariak eta dantzariak oso ohikoak ez ziren lan batean bilduz eta arlo artistikoan profesionalak ez ziren pertsonak sartuz. Lehenik eta behin, garrantzitsua da arte plastikoak, kantua eta dantza ikuskizun bakar batean bildu zirelako, banakako jarduerak gaindituz era horretan. Eresoinkak hiru bariazio aurkeztu zituen: 120 ahotseko erakusketa korala, Gabriel de Olaizolak zuzendurik; Euskal Herriko dantzak, koreografoa Jesus Luisa Esnaola gipuzkoarra izan zuena; eta Euskal Opera, Enrique Jordá Gallastegui zuzendua. Azken honek ospe handia lortu zuen bere emanaldietan, eta munduko hainbat hiritan orkestra-zuzendaria izatera heldu zen. Taldearen lehen aurkezpena Parisen egin zen, Pleyel aretoan, 1937ko abenduaren 18an. Eresoinkak Europa korritu zuen: Paris, Brusela, Rotterdam, Haga, Amsterdam eta Londres 1938an. Hurrengo agertokiak, hala zegoen antolatua, Praga eta Viena ziren, baina bertan behera utzi behar izan ziren Alemaniak herrialde haiek okupatu ondoren. Eresoinka artista handien sorlekua izan zen; besteak beste, han hasi ziren geroago bere kabuz Frantzia arrakasta handia izango zuen Luis Mariano abeslaria, eta gerora ere bere konpainia propioa eratuko zuen Pepita Embil, Plácido Domingoren ama <sup>40</sup>.

Horrela, azken areto honetan, Bermeoko arrantzaleen portu eta hiriaren *veduta* horren aurrean, bertako jendea berrikerian ari dela begiraden bidez eta antzinako hizkuntza horretan, herri-musikaren bost une ditugu, lehen aretoko pianoan Wagner jotzen diharduten Bilboko bi burgesak irudikatzen dituen koadroaren aurrean. XIX. mendeko Bilbo zabaldu egiten da aldameneko elizateetara, eta haiekin batera bera zabaltzen da: Bilboko lurraldea Bizkaikoa da. Zentzu horretan, hemen daukagu herriko *txistulari* ofiziala, autoritatearen protokoloaren musikaria, Losadak erretratatua; hor dago halaber Artetaren kalejira alai eta integratzailea, mendi-mendian; Arrueren bi jai herrikiok –bata itsasokoa eta bestea mendikoa–; udazkenean edozein herrixkatan sagarra biltzeko unea, Olasagastiren sagar dantzarekin ospatuko dena; eta, azkenik, zaldia etxekotzeko historiaurreko erritual baten aztarrena, Ucelayren *Zuberoako dantzak (Danzas suletinas)* obran izoztua, zeinak ez baitu kontakizun etnografiko bat dokumentatzen, aitzitik, bere poesian, Ekialdeko xehetasunean eta bere kaligrafia pertsonalean sublimatzen du, koadroko irudiak kultura-erakustaldi erraldoi bat bihurtuz.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Paleontologia, geologiarekin eta biologiarekin metodoak partekatuz, Lurraren gaineko bizitzaren iragana fosilen bitartez aztertzen eta interpretatzen duen zientzia naturala da; adibidez, Emiliano Aguirre Enríquez (1925) paleontologo espainiar bat da, 1978tik erretiroa hartu zuen arte, Atapuerca mendietako aztarnategi pleistozenoen indusketak zuzendu dituena. [itzuli]
2. Antropologia gizakia modu integralean aztertzen duen zientzia da, eta aldi berean lantzen ditu animalia gisa dituen ezaugarri fisikoak eta bere kultura, zeina baita gizakiaren ezaugarri ez-biologiko bakarra; etnologiak, aldiz, objektuak lantzen ditu, pieza artistiko gisa baino areago, pieza kultural gisa, eta objektu horiek ekoitzi diren, funtzionatzen duten edo zentzua duten kultura-sistema ezagutzen laguntzen digute. [itzuli]

3. Globalizazio-prozesuek Europako mugetatik harago begiratzera behartu gaituzte. Kultura ez da ikusten geografikoki edo politikoki muga daitekeen unitate baten gisa (etnia, nazioa) edo tradizioen, balioen eta pentsamoldeen babesleku finko gisa, baizik eta, areago, etengabe aldatzen diren esanahien sistema gisa; aldaketa guztiak gorabehera, gizabanakoek orientazio-eredu tradizionalak erabiltzen dituzte beti (pentsamoldea, usadioak, tradizioa, errituala), zeinek esanahi berria hartzen baitute testuinguru sozial jakinetan. Tradizioaren eta aldaketaren arteko tentsio-eremu horretan jarduteak gogoeta sakona egitea eskatzen du norberaren ekintzen, norberaren tradizio espezializatuen (nazionalismoaren, eurozentrismoaren) erabilera kritikoaren, baita gogoeta teoriko eta metodologikoen azterketaren gainean ere. [\[itzuli\]](#)
4. Jack Flam eta Miriam Deutch-en *Primitivism and Twentieth-Century Art. A Documentary History* liburuak (2003) “traditional, indigenous arts of Africa, Oceania, and North America” direlakoan estimazioa eragin dituen iturriak aurkezten ditu, izan artistena, kritikariena, arkeologoena edo baita ere arteen *dealers*ena. Primitibotzat jo dugunaren estimazio baloratzaileren oinarritzko iturrien (*primary documents*) antologia bat da hau (Ozeania, Afrika eta Amerikako arteen azterketa), gero beste modu batean izendatu dena, arrazoi politiko-kulturalak direla medio (eta ez hainbeste arrazoi antropologikoak, historikoak edo ikonologikoak); eta, aldi berean, liburua arte modernoaren oinarri kontzeptualei egindako ekarpen bat da. Flamm-en liburua William Rubin-ek MoMA-n 1984an antolatu zuen *Primitivism and the Art of the XX Century* erakusketaren (eta katalogoaren) jarraipen bat da, baita haren ondorioena ere, nola izan ziren Matisse, Picasso eta Derainen berrikusketak. [\[itzuli\]](#)
5. Bildumak Prinzhorn-en izena du, baina dirudienez 1890 eta 1903 bitartean Heidelbergeko Ospitale Klinikoko zuzendaria izan zen Emil Kraepelin-ek egin zuen aurrenekoz pazienteen marrazkien bilduma bat. Haren ondoren, 1917 eta 1933 bitartean ospitaleko zuzendaria izan zen eta Prinzhorn kontratatu zuen Karl Wilmanns-ek Arte Patologikoaren Museo bat sortu nahi izan zuen (Museum für Pathologische Kunst). 1907an agertua zen *L'art Chez les Fous* liburua, Marcel Réjak idatzia, zeina Paul Meunier psikiatraz hautaturiko ezizena izan baitzen Parisko zoroetxeetako buruko gaixoen marrazkiak argitaratzeko. Kontsulta- liburua izan zen Paul Klee, Max Ernst eta, jakina, Dadaren kideentzat (bada gaur egun edizio bikain bat, Michel Thévoz-en hitzaurre batez hornitua, Viena, 1997). [\[itzuli\]](#)
6. Alemaniako *Völkerkunde* Etnologiako bigarren katedra, Berlingoaren ondorengoa, Marburgoko Unibertsitatean eman zitzaion, 1890ean, mediku bati: Karl von den Steinen (1855-1929). Berlingo Charité-ko psikiatra zen, eta Markesa Uharteetako arteari eta tatuajeei buruz idatzi zuen (*Die Marquesaner und ihre Kunst*). 1900ean etnologiako katedra berezi bat jaso zuen Berlingo Unibertsitatean eta Amerikako Saileko zuzendari izendatu zuten Museum für Völkerkunden. [\[itzuli\]](#)
7. Etnologoen eta artisten arteko erlazioaz, ikus nire saiakera hau: Kosme de Barañano, “African Art and Artists/Arte Africana y Artistas”, hemen: *Guimarães*, Sextante Editora, Lisboa, 2009. [\[itzuli\]](#)
8. Emmanuel Passemard-ek (Paris 1874–Nîmes 1946) Euskal Herriko Paleolito garaiko aztarnategiei buruzko tesi batekin egin zuen bere doktoretza Natur Zientzietan. Société préhistorique française eta Institut français d'anthropologie erakundeetako kidea izan zen, eta Nîmeseko Musée d'Histoire naturelle-ko kontserbadorea, zeina aberastu baitzuen Afrikako eta Ozeaniako bildumekin. Frantziaren Liberazioaren ondoren exekutatu egin zuten alemanekin kolaboratzeagatik. [\[itzuli\]](#)
9. Telesforo Aranzadi Unamuno (Bergara 1860–Bartzelona 1945), Unamunoren lehengusua, Granadako Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Mineralogia eta Zoologiako katedraduna izan zen, Bartzelonako Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Botanika Deskribatzaileko katedraduna, eta, azkenik, Bartzelonako Unibertsitateko Antropologiako lehen katedraduna, 1920tik 1931ra. [\[itzuli\]](#)
10. Jose Migel Barandiaran (Ataun, 1889–1991), apaiza, antropologoa eta arkeologoa. 1916an hasi zen historiaurrean interesatzen, *Völkerpsychologien* egilea zen Wilhelm Wundt jarraituz Leipzigoeko Unibertsitatean. Urte horretan bertan, historiaurreko bederatzi trikuharri aurkitu zituen Aralar mendietan, eta Telesforo Aranzadiri

eman zion bere aurkikuntzaren berri, hura garai hartan Bartzelonako Unibertsitateko Antropologiako katedraduna baitzen. Lankidetzaz estu bat hasi zen era horretan, Enrique Eguren engana ere hedatu zena, gure historiaurreari buruzko mota guztietako ikerketei aplikatua. 1934an *Euskalerriko leen gizona* argitaratu zuen. Gerra Zibilean erbesteratu jo zuen, eta 1953an itzuli zen. Salamancako Unibertsitateko Larramendi katedrako lehen irakasle gonbidatua izan zen, orduko errektore Antonio Tovarren eskutik. [itzuli]

11. Enrique Eguren (1888–1944) arabar arkeologo bat izan zen, Federico de Baraibarren ikaslea. Natur Zientziako ikasketak egin zituen Madrilgo Unibertsitatean. *Estado actual de la antropología y prehistoria vascas. Estudio antropológico del pueblo vasco. La prehistoria en Álava* izeneko doktore-tesia egin zuen (1913). [itzuli]

12. Espainiako unibertsitatean historiaurreari eskainitako lehen saila 1922an sortu zen, Madrilgo Complutense Unibertsitatean Gizakiaren Historia Primitiboko katedra sortu zenean Hugo Obermaier alemaniar ikertzaile eta apaizarentzat (1877–1946). Obermaierrek ospe handia izan zuen nazioartean, Kantauriko Paleolito garaiko haitzuloei eta Levanteko arteari buruz egindako lanengatik. [itzuli]

13. Marius Schneider musikologoak (Hagenau 1903–Marquartstein 1982) 1948an eta gaztelaniaz *La danza de espadas y la tarantela* argitaratu zuen, sendagintza-errituei buruzko saiakera musikologiko eta etnografikoa, ezpata-dantzari buruzko atal batekin –Sabin Guezalaren laguntzarekin–, baina hemen ez zuen inoren arretarik piztu. Schneider saiatu zen frogatzen (1979ko *El significado de la música* bere azken lanean bezala, *Rythmus* edo *Acta Musicológica* bezalako aldizkarietan argitaratutako saiakeren bilduma) ideia primitiboak hainbat kulturatan kontserbatzen eta berregiten direla, modu desberdinetan, oroz gain batzuetan antipodetako eremuetan antzera azaleratzen diren ideia metafisiko-musikalak. Schneiderrek filologia, pianoa eta konposizioa ikasi zituen Estrasburgo, Paris eta Berlingo unibertsitateetan, eta han amaitu zuen bere tesia, *Die Ars nova des 14. Jahrhunderts*, Europako eta ekialdeko polifoniaren arteko lehen ikerketa konparatiboetako bat. Curt Sachs dantzaren ikertzaile handiaren ikasle kutuna izan zen; 1932an Berlingo Arxibo Fonografikoko zuzendari izendatu zuten eta, handik gutxira, Etnografia Musikaleko Institutuarena. 1941ean, Higinio Anglés deiturik, Bartzelonako Musikologiako Espainiako Institutuko folklore-saileko zuzendari bihurtu zen, eta herri-tradizioen jatorriak aztertzen eta antzinako kosmogoniak berreraikitzen aritu zen han; Sant Cugateko klaustro erromanikoa ezagutu ondoren, Erdi Aroko arkitekturaren eta musikaren arteko harremanak aztertu zituen. Espainiako egonaldi horren emaitza da *El origen musical de los animales-símbolos en la mitología y la escultura antiguas* lana, 1946an argitaratua, zenbait kulturaren azpiegitura totemiko eta megalitikoari buruzko saiakera historiko-etnografikoa, espainiar folklorea nola iraun duten ere agertzen duena; Aita Donostiak zuzendu zuen liburuaren eskuizkribua. Liburu honetan lantzen diren klaustroen azterketa zehatzago bat, geroago, *Singende Stein* lanean (Kassel 1955) argitaratu eta beste hizkuntza batzuetara itzuli zen. Eragin handia izan zuen Juan Eduardo Cirlot-engan, eta sinboloen mundura eraman zuen. 1954an Alemaniara itzuli zen eta Koloniako Unibertsitateko Musikologia katedraren titularrak izan zen 1970 arte. Bere obrarik akademikoena *Geschichte der Mehrstimmigkeit* da (Berlin, 1934 eta 1969), polifoniaren historia. Schneiderrenak dira orobat *Oxford History of Music* eta *Encyclopédie de la Pléiade* bildumetako musika primitiboari buruzko artikulak ere. [itzuli]

14. 1887an Aureliano Galarzak, Gernikako diputatu euskalerrrikoak, euskarako katedra bat sortzea proposatu zion Aldundiari. Sei hautagai aurkeztu ziren: Luis de Iza, Pedro Alberdi, Eustaquio Medina eta Bilboko hiriaren historiako hiru pertsonaia: Resurrección María Azkue apaiza, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiri. Hiru horietan lehena izan zen irabazlea, faboritismo pertsonalaren arrazoiengatik, arrazoi politikoengatik baino gehiago. Ikus José Luis de la Granja Pascual, “¿Por qué perdió Unamuno la cátedra de Euskera en 1888?”. Azkueren ondorengo katedran, 1920an hartuta kargua, Joseba Altuna izan zen (1887–1971), Indautxun jaioa, Asociación General de Maquinistas Navales erakundeko administraria eta Kontserbatorioko musika-irakaslea. Espainiako Unibertsitateko lehen Euskarazko katedra Antonio Tovar errektoreak eskatuta sortu zen 1952an, Francoren diktadura bete-betean, Salamancako Unibertsitatean. Ikus Antonio Tovar, “La cátedra Manuel de Larramendi en la Universidad de Salamanca”, *Zumarraga* aldizkarian, 3. zk. (1954), 11–34 or. [itzuli]

15. José Javier de la Granja Pascual, “Creación y evolución de las cátedras de euskera en Vizcaya hasta

1936”, *Eusko Ikaskuntza* aldizkarian, Donostia 1994. [itzuli]

16. “Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y principales derroteros de la civilización peninsular ni podrá ser esta esencialmente comprendida”. Ramón Méndez Pidal, *Introducción al estudio de la Lingüística Vasca*, Eusko Ikaskuntza (1921), 23. or. [itzuli]

17. 1927an (apirilaren 20ko akordioa) bat egin zuten Arte Ederren Museoak eta Arte Modernoaren Museoak, Federico Moyúa alkate zela. 1940an araudi berriak onartu ziren Bilboko Arte Ederren Museoa eta Arte Modernoaren Museoarentzat, eta berberak izatera igaro ziren bi museoetako batzarretako kideak; 1945ean Zabalgunekeo eraikina inauguratu zen, Fernando Urrutiaren lan bikaina. [itzuli]

18. “El acontecimiento artístico de más vuelos universales que se ha celebrado en nuestro pueblo”. Ikus Barañano eta Durana, “La Exposición Internacional de Pintura y Escultura en Bilbao 1919”, hemen: *Kobie*, IV. zk., Bilbo 1987. [itzuli]

19. Damián Roda González (Bilbo 1882 – Bilbo 1967), José de Roda bide-ingeniariaren semea, José Clemente de Ucelayren promozio berekoa, Francok erretiratuak biak 1939an. 1896-9 urteetan Arte eta Lanbide Eskolan matriculatu zen, eta Indalecio Prieto eta Tomás Meaberen laguna izan zen. 1914an *Teatro sentimental* argitaratu zuen, hiru komedia, Aurelio Artetak diseinaturiko azalarekin. El Sitio elkarteak argitaratzen zuen *El 2 de mayo* aldizkariaren zuzendaria izan zen. *La arquitectura moderna en Bilbao* liburuaren egilea da Roda (1924an argitaratua), non bildu baitziren Manuel María Smith, Leonardo Rucabado, Pedro Guimón, Ricardo Bastida eta beste arkitekto batzuen artikulak. [itzuli]

20. Ricardo Gutiérrez Abascalek (Bilbo 1883 – Mexiko 1943) Bizkaiko Institutuan ikasi zuen eta Ingeniaritzako karrera hasi zuen Deustuko Unibertsitatean; ondoren Hanburgon jarraitu zuen ikasten. “Juan de la Encina” ezizenarekin idatzi zuen; 1906tik aurrera *El Liberal* eta 1908tik aurrera *El Nervión* egunkarietan egin zituen analisiek arte kritikari gisa zuen ospea sendotu zuten. Madrilgo Arte Modernoko Museo Nazionaleko zuzendaria izan zen 1931tik 1936ra arte. Mexikon erbesteratu zen, eta irakasle bikaina izan zen Unibertsitate Nazional Autonomoko Arkitektura Eskolan. Ricardoren anaia zaharrena, Leopoldo Gutiérrez Abascal (1868– 1918), intelektuala izan zen, Miguel Unamuno eta Jose Maria Solturaren laguna. [itzuli]

21. Estanislao María de Aguirrek (1888-1958) Bizkaiko Institutuan ikasi zuen, eta *El Liberal*, *El Nervión*, *La Tarde*, *El Norte* eta *El Coitaon* idatzi zuen, besteak beste; Euskal Artisten Elkarteko eta elkartearen *Arte Vasco* aldizkariko kide sortzailea izan zen. Nemesio Sobrevilaren *Al Hollywood madrileño* filmean (1927) aktore gisa parte hartu zuen. Hauxe zen kritikari guztien artean idazlerik onena da, eta gehiena zekiena Espainiatik kanpo gertatzen zenaz; era berean, igandeko margolaria zen, baina kalitate handikoa. Errepublikako armadan sartu zen, jadanik adinekoa zela borrokatu zen, eta zenbait urtez egon zen preso; bai Lequericak, bai Enrique Careagak, biak frankistak izan arren, ahal zuten guztia egin zuten Estanislao askatzeko. Imanol semea hizkuntzalari ezaguna izan zen, *La escritura en el mundo* (1961) lanaren egilea; eta biloba, orkestra-zuzendari ospetsua. Ikus Guillermo Aguirre Martínezen “Apuntes biográficos sobre Estanislao María de Aguirre, defensor de una estética vanguardista en el Bilbao de principios del XX” testua, 2017. [itzuli]

22. Crisanto de Lasterra (Zirauki 1889 – Bilbo 1970), 1918an Bilbora iritsi zen nafarra, *Euzkadi* egunkari nazionalistako kritikari eta karikatragilea izan zen 1919tik 1937ra, eta Jabetzaren Ganberako idazkaria erretiroa hartu zuen arte. Arte Ederretako eta Arte Modernoko museoetako zuzendaria ere izan zen 1949 eta 1974 artean. [itzuli]

23. Joaquín de Zuazagoitia (1892– 1971), Frantzia eta Alemanian ikasketak egindako farmazialaria, Bilboko Lyon D’Or kafetegiko tertuliako kidea izan zen. Tertulia hura Pedro Eguillorren inguruan bildu zen, eta han izaten ziren Ramón Basterra poeta, Pedro Moulane Michelena kazetaria, José Félix de Lequerica politikaria, Rafael

Sánchez Mazas idazlea, eta, Eguillor erail zutelarik Gerra Zibilaren hasieran, oso frankistak egin ziren beste batzuk. Bilboko alkatea izan zen 1942an. [itzuli]

24. Fernando María de Milicua Iralak [Chihuahua (Mexiko) 1900 – Madril 1977] Bizkaiko Institutuan egin zituen ikasketak, eta, ondoren, Frantzia. Bere *Poemas cortos en prosa* (Gernika 1925) hots-poesiagatik izan zen ezaguna. Parisen ezkondu zen Odette Lelong modeloarekin, Ucelay margolariaren laguna eta Lucien Lelong bitxigile ospetsuaren eta Natalie Paley printzesaren alaba bera. Odette Parisko erietxe batean sartu zuten, eta han hil zen. Alberti, Aux eta Buñuelen memorietan aipatzen da Milicua, besteak beste. [itzuli]

25. “Sabrás que los artistas, seres intermedios, ocupan un lugar preeminente entre estos ciegos que te digo, porque, aunque se diría que ven, solo ven ‘cosas inútiles’, y aunque se diría que son cuerdos... no lo son más que para esas cosas inútiles”. *El Liberal* egunkarian, urriak 24, 1910. [itzuli]

26. “En Bilbao, el lujo se reduce a los gastos electorales y a la manera de vestir a los niños”. Manuel Aznarrek argitaratzen eta zuzentzen zuen *Un siglo en la vida del Banco de Bilbao* argitalpenean aipatua, Espasa Calpe, Madril 1957. [itzuli]

27. Mogrovejo familiak ospe handiko jostundegi bat zeukan Plaza Barrian eta 1911tik aurrera Kale Nagusian, 8an. Salustiano Bilboko Club Velocipedistaren presidentea izan zen, eta Bilboko Udaleko prokuradore sindikoa eta alkateordea hainbat legealditan. Lehenago ere aurkeztu ziren triziklo motordunak Bilbon, Ignacio Urcolaren Dion Bouton izenekoak esate baterako. Ignacio Urcola Campo Volantin-en bizi zen, eta Felix Urcola ganaduzalearen anaia zen. [itzuli]

28. Honi dagokionez, ikus *La Época* astekaria (1913ko martxoak 28). Merkataritza Ganberak zuzenean parte hartu zuen Automobil Klubaren sorreran, oso adi egoten baitzen beti hiriaren irudi komertzial eta turistikoari. Bizkaiko Merkataritza Sustatzeko eta Defendatzeko Batzorde Iraunkorrak (1882an sortu zen), proiektu bat egin zuen Ganbera sortzeko, eta 1886an eratu zen, Bilboko Bizkaiko Institutuan, bigarren Merkataritza Kodea indarrean sartu ondoren (1885); Ganberaz gainera, 1910ean Bilboko Merkataritza Defentsarako eta Sustapenerako Sindikatua eratu zen, eta hiru urte geroago mila eta berrehun bazkide inguru biltzen zituen (*Gran Vida* aldizkarian, 1913ko abenduak 1). [itzuli]

29. Genaro Urrutiak eta Juan Aranoak Landalucerenean egin zituzten beren trajeak, Ucelay José María Lozanoren bezeroa eta laguna izan zen, Arteta eta Guezala Mogrovejotarren bezeroak izan ziren... Artista hauen lanak ikusgai zeuden bi dendetan. [itzuli]

30. Hau dela-eta, ikus Kosme de Barañano, “Consideraciones gnoseológicas acerca de la Danza Vasca”, *Dantzariak* aldizkarian, 23. zk., Bilbo-Baiona 1982, 27–35. or.; eta ikus berebat ondorengo ikerlanak: “Ensayos sobre Danza”, *Kobie* aldizkarian, 3. zk., 1985; “Aesthetik oder asthetische Kategorien des Tanzes”, 1989ko *Internationaler Tanzreporten*, eta “Der Raum des Tanzes” saiakera, Fred Traguth-en *Modern Dance* liburuko epilogoia, Wilhelmshaven 1989. Eresoinka taldeaz bada atal bat Ucelayren liburuan, hala nola “El grupo de baile Eresoinka” artikulua, *Muga* aldizkarian, 13. zk., 1981eko otsaila. Bilboko Olaeta familiaren lanaz, ikus “Danza en familia”, *Ballets Olaeta: Ochenta años de Ballet Vasco* lanaren hitzaurrea, Gasteiz 2010. “El espacio de la danza” izan zen nire sarrerako saioa Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen, 1988an. [itzuli]

31. Serge Lifar, *La danza*, Labor argit., Bartzelona 1966, 21. or. [itzuli]

32. Violet Alford, *Pyrenean Festivals*, Londres 1937, hemen: RIEV 1931–35, eta *Dantzariak*, 1971. [itzuli]

33. Zentzu honetan, Urbeltzeneskema goraiatu behar da, Otsagabiako dantzen *El Bobo* eta Jano erromatar jainkoaren arteko korrespondentzia erakusten duena –biaurpegikoa hori ere–, Muskildako eta Dodonako hariztien artekoa; eta osteguna, Jupiterren egun gisa. Korrelazio horiek (Caro Barojak jadanik aipatuak), filologia kontzeptualaren bidetik, hizkuntza zein dantza sakontzen lagundu dezakete metafisika ezkutatu baten ondoren, ez

baita soilik Terpsikoreren oinordekoa. [itzuli]

34. *Pas de basque* izeneko bosgarren posiziotik hasten da, *demi-pliéan*; *battement tendu devant* bat atereaz, *demi-rond de jambe par terre en tournant* egiten da, *écarté derrière*- raino; ondoren, *glissade à la seconde* bat egiten da lehen edo bosgarren posizioa, *devant*, eta bukatzeko *chassé en avant à battement tendu derrière* bat egin, edo bosgarren posizioan ixten da. *Saut de basque* izenekoan, dantzaria bosgarren posizioan jartzen da; eskuineko oina aurreratuta, *coupé* bat egiten du ezkerreko belaunarekin; bitartean ezkerreko hankak *demi-plié* bat egiten du, eskuinekoa bigarren posizioa lerratzen da, pausatzen da, eta, hanka horrexen gainean biratuz, ezkerreko hanka bigarren posizioa ateratzen da, 90 gradura, salto eginez, eskuin hankaren *passé* batekin eta itxiz bukatuz mugimendua. *Grand pas de basque* deritzana modu berean egiten da, baina, arintasunez dantzatu ordez zorua igurtziz bezala, kirol moduan egiten da, salto eginez. [itzuli]

35. Oraindik ez da egin, Sabin Egigurenen ahaleginengatik ere, gure lurraldean dauden dantzen katalogazio eta inbentariarik, ahalik eta datu sozio-historiko gehienekin alde batetik (obra, *dantza hori*, bere testuinguruan kokatuz), eta datu filologikoekin (obraren zatiak eta mugimenduak aztertuz, *dantza gisa*) bestetik. Artelan bat modu zabalean ulertu nahi duenak ezin du hartatik esperientziak balio arbitrariarik atera, oinarririk gabekorik; aitzitik, “kokatu” egin behar du (kokapen historiko egokia eman) eta “analizatu” (filologikoki eta formalki). Horrek ez du esan nahi dantza batek, artelan gisa, esanahi historiko-estilistikotik kanpo, bestelako esanahirik ez duenik. [itzuli]

36. Juan Manuel Larramendi (1690–1766), *Corografía ó descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. Obra honetan jantziak, geografia, erlijioa, dantzak, laborantza, arrantza, euskara, etab. deskribatzen ditu jesuitak; beste jesuita batek argitaratu zuen, Fidel Fitak, 1882an, Imprenta de Subirana, Bartzelona 1882. [itzuli]

37. Juan Ignacio Iztueta (1767–1845). *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia*, izeneko da (1824), zenbait dantzaren deskribapen eta sailkapen sistematikoa dela-eta, lehen lan berez folklorikoa. [itzuli]

38. Jose Luis “Txelu” Etxebarria Goyri (1925–2015), *Danzas de Vizcaya*, 1960, La Editorial Vizcaína, Bilbo 1960. [itzuli]

39. Juan Antonio Urbeltz Navarrok egina da azken bilduma eta hobereana, *Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los vascos*, Jakin argit., Bilbo 1978; hurrena, berebat Urbeltzena den *Los bailes de espadas y sus símbolos: ciénagas, insectos y moros*, Pamiela 2000; edota José María “Txema” Hornilla Sáinzenak, *Sobre el carnaval vasco: ritos, mitos y símbolos, mascaradas y totemismo (las mascaradas de Zuberoa)*, Txertoa, Donostia 1987, eta *El carnaval vasco interpretado*, Bilbo 1990; eta Karlos Sanchez Ekizaren *Txuntxuneroak: narrativas, identidades e ideologías en la historia de los txistularis*, Publicaciones de la Universitat Autònoma de Barcelona 2000. [itzuli]

40. Euskadiko Gobernua erbestera joan zenean, Manuel de la Sota y Aburto idazleak eta José María de Ucelay margolariak –Agirrerren Gobernuko Arte Ederretako zuzendari nagusia zen Ucelay garai hartan–, talde artistiko bat osatzea erabaki zuten, gogoan harturik Diaguileven eskutik Parisen izugarrizko arrakasta izan zuten ballet errusiarren emanaldiak, baita erbestera behar izan zuten pertsonak elkartzeko xedeaz ere, nahiz eta jarduera artistikoarekin zuzenean lotuta egon ez, baldin horretarako gaitasunik bazuten; hala, elkarrekin irauteaz gainera, etekinak ere eman zitzakeen ikuskizunen bat ere antolatu ahal izango zuten. [itzuli]



## LOSADA - DANBOLINTEROA

*Terentzio jauna eta Txango, txistularia* (Don Terencio y Chango, El txistulari)<sup>1</sup> Losadaren koadroak Terentzio erraldoia irudikatzen du, Bilboko jaietako kartoizko pertsonaia bat, San Anton elizako kanpandorrearen eta udaletxeko danbor-jole ofiziala zen Txango txistulariaren artean. Terentziok eta Txangok bi adarreko kapela dute buruan, Frantziako chapeau de bras (besoko kapela) izenarekin ezagutzen den motakoa, erraz tolestu daitekeena besapean eramateko. Terentziok saiheska darama kapela, konposizioaren goiko aldetik moztuta; danbolinteroak aurrez aurre darama, eta lepo eta eskumutur beltzak dauzkan kasaka gorri batez dago jantzia. Lehen planoko baranda batek eszena mugiarazten du eta perspektiba ematen dio multzoari.

XIX. mende hasierako Bilbo horretaz mintzatzen dira bi pertsonaiak: Terentzio, jaietako pertsonaia barregarriez (musulmanen aurkako Erdi Aroko oroitzapenak), eta Txango, irudikapen-figura batez (Antzinako Erregimenekoa)<sup>2</sup>. Don Terentzio kartoizko irudi bat da, erraldoi eta buruhandien tradizio herrikoian kokatzen dena, herriko jaietan ohikoa izaten dena (beste garai bateko “errege mairuen” karikatura); halako irudiek festetan eta prozesiotan desfilatzen dute, adibidez, Evorako Corpus Christian (1265) edo Iruñekoan (1276), San Fermin egunean. Irudi hauek agintariekin batera joan ohi dira, dantzan eta haurrak animatuz. Erraldoiek ikaragarritzko altuera dute, halako prestutasun-tankera bat ematen diena, eta buruhandiek (kiliki deituak), altuera txikiagokoak baitira eta neurritz kanpoko buru batekin, efektu komiko bat sortzen dute. 1654tik daude Bilboko erraldoien erreferentziak<sup>3</sup>. Kurding Clubeko kideak ziren Terentzio erraldoiaren kartoizko buruaren jabeak.

Francisco María de Arzuaga Letamendia danbolintero da “Txango” (Tolosa 1800–Bilbo 1881), eta herren egiten zuelako jarri zioten goitzen hori. 1825eko urtarrilaren 21ean “hiriko danbolintero plazarako” izendatu zuten, eta 1881eko urtarrilaren 14an hil zen arte bete zuen postu hori<sup>4</sup>. Bilbok danbolinteroak izan ditu musikari gisa ekitaldi ofizial eta sozial guztietarako, Euskal Herriko beste herri batzuek bezala. San Antongo elizako kontu-liburuetan 1536an ageri da jadanik danbolinteroari egindako ordainketaren erregistroa. Esan dezakegu Txangok Bilboren etorkizunari igarri ziola; izan ere, bere hiriko eta Begoñako elizateko danbolinteroak izateaz gainera, bere koinatua Abandokoa zen, eta bere lehengusua Deustukoa. Hau da, Arzuaga familiak, gure musikariaren gidaritzapean, bere familia eta harremanen logikarekin, antzeman zion etorkizuneko Bilboren eraketari, hiri berria behin betiko eratu zuten lau udalerririk hartuz.

Losada<sup>5</sup>, Parisen sei urte eman ondoren Bilbora itzuli zenean, bere guraso eta aitona-amonen Bilboren memorialista bihurtu zen, Zazpi Kaleetako Bilbo harena, kapela luzeko jaunak eta dama dotoreak prozesioen edo jaien errituetan murgilduta ibiltzen zirena. Losadak ondo eraikitako eraikin publikoen, zezen-jaien edo Plaza Barriko agerraldien Bilbo bat *birsortu* zuen, Venezia balitz bezala, Areatzakoa bezalako pasealekuen Bilbo bat, edo erraldoi eta buruhandiena. Pertsonaia eta une hauek ageri dira Losadaren laguna zen Emiliano Arriagaren lanetan ere, eta horietako batzuk, oraindik ere, XX. mendeko Bilboko jaien albisteetan jasotzen dira<sup>6</sup>. *La pastelería. Novela histórico-bilbainesa por un Chimbo* obran, XIX. mendeko berrogeita hamarren hamarkadako Bilboko bizitza burgesa birsortzen du Arriagak, merkatarien hiri bat, krisi sozial eta ekonomikoen tentsioak oraindik sortu ez direna<sup>7</sup>. Harena, ordea, deskribapen nobelatu eta nostalgiko bat da, Sabino Aranaren ideiak izango diren bezalakoak industria-

iraultzaren aurreko Bizkaia ia adaniko bati buruz. 12.000 biztanle eskas zituen Bilboren nostalgia burges hori sintetizatzen du Losadak, nahiz eta Parisetik itzuli zenean 40.000 pertsona baino gehiago zeuden hirian, eta zabalduz zihoan gainera.

Losadaren nostalgia honek bere gurasoen Bilbo hura XIX. mendearen aurrekoarekin bateratzen du, non guardia forala agertzen den, 1784ko irailaren 29an sortu baitzen lehen mikelate taldea (Partida Volante de Miqueletes) edo miñoiak (Cuerpo de Miñones), herritarrak lapurren eta gaizkileen aurka defendatzeko xedeaz jaiota. Ertzain horiek “kapela luze plaka horiarekin” jantzi ohi zuten soldaduen kasuan, eta plaka zuriarekin kaboak edo nagusiak zirenean, “pontxoa eta galtza urdinak”<sup>8</sup>, eta Bilbotik kanpo zeuzkaten kuartelak, hirian etxe bat alokatzea oso garestia baitzen, eta haien eginkizuna, hiria babestea baino areago, Bizkaiko bideak babestea zen; eginkizun horrengatik ordaintzen zien Jaurerriko Diruzaintza Nagusiak. *Antzinako* Bilbo horren erretratua egiteko, pastelaren teknika eta espiritu baikor bat baliatzen ditu Losadak normalean.

Interesgarria da ikustea nola Arruek, Artetak edo Ucelayk herri-dantzaren dokumentazio bat uzten diguten bitartean, Losadak txistulariaren funtzio instituzionala dokumentatzen duen, txistularia ez baita herri-musikaririk beteena, guztiz kontrakoa baizik: ordezkaritza politiko eta instituzionalaren musikaria da, eta hortik bere uniformeak. Komeni da Losadaren dokumentu historikoa berriz irakurtzea.

Errepublikaren garaira arte kasik, *danbolintero* deitu izan da gaur egun *txistulari* deitzen dugun hori; hau da, danbolinak ematen dio izena jotzaileari: *danbolintero*. Gure lehen folkloristetako bat izan den Manuel Larramendi jesuitak, 1754an idatziz, definizio hau ematen digu: “*Danbolin* izen honekin ulertzen dut txistuen eta atabala baino estuagoa eta motzagoa den danborraren multzoa, eta elkarrekin jotzen dira. Frantzia, Lapurdin eta Nafarroa Beherean, dauden danbolin edo tuntunak ez bezalakoa da, hemen flautak luzeagoak, gozoagoak eta ozenagoak baitira, eta Gipuzkoan danbor txikiak erabiltzen baitituzte, eta Lapurdin, berriz, harpa moduko bat, soka lodiekin, zeinak, makilak zaurituta, zurrunga-hots bat egiten baitute, gure danbor txikiak bezainbesteko builarik gabe”<sup>2</sup>.

Izenaren aldaketa XX. mendea jadanik sartua denean gertatu zen<sup>10</sup>, gehiago estimatzen baita orduan txistua jotzeko modua edo harekin erakusten den trebetasuna, eta danbolinteroak berak talde batean elkartzen dira; aldizkari bat ere hasi ziren kaleratzen, *Txistulari*, 1928an sortua<sup>11</sup>. Hainbat eratakoak ziren danbolinteroak edo txistulariak bete beharreko eginkizunak: alboradetan jo, Udaletxeko saioen hasieran, prozesioetan, jaiegunetako edo igandeetako dantzaldietan, zezenketen hasieran eta abarretan<sup>12</sup>. Funtzionario bat da, bere musikarekin zeremoniak antolatzen dituena. Txistulariak, bere hotsarekin, boterea, agintea irudikatzen du, eta hortik dator orobat prozesioetan agertzea. Txistularia bere atabaleroarekin joan ohi zen, eta honek gainera pregoilari-lanak egiten zituen. Egitura sozialaren jendaurreko teatralizazioan sustraituriko ogibidea zen beraz: udal-agintea solemnitare jakin batekin agertzen zen herriaren aurrera, eta danbolinteroak edo txistulariak zen haren komunikazio-burua edo bozeramailea (gaurko terminoak erabiliz), hots, botere politikoaren ikur bat<sup>13</sup>. Carmen Rodríguez Suso musikologo eta artearen historialariak saiakera bikain bat idatzi du txistularien funtzioari buruz. Bete-beteen asmatuz deskribatzen du Peru López danbolinteroak, 1560an lau urterako kontratatua, honela: “Heraldo bat izan zen, bere musikarekin Udaleko kideen desfilea eta batzarretarako deialdia iragartzen

zituena, eta bilbotarren arreta erakartzen zuen bere pregoiak irakurtzean. Hala, soinu-seinaleen sisteman sartu zen, haiek, kanpai-hotsek bezala, hiri-bizitza antolatzen baitzuten<sup>14</sup>.

Militarra da txistulariaren jatorria: ejertzitoen pifanoa da, Bilboko Hirian alkatearen mendean zegoena (aurretik azaldu dudana bezala), baita milizien kapitaina ere. Kargurako oposizioetan pifanoa menderatzea eskatzen zen, hau da, lehenago ejertzitoetan erabiltzen zen zeharkako txirula; hala, beste pertsona batek lagundu behar zion danborra joaz erritmoa markatzeko; horregatik, txistulariek etengabe eskatzen zieten dirua udalei beste atabaleroren laguntza izateko. Flauta bertikala, hiru zulo besterik ez dituen, esku bakarrarekin jo daiteke, bestea danborrerako libre utzita; hala, txistuak eratzun bat du behealdean, behatz nagia erantzat jarria, errazago eusteko. Danborra eskuineko eskuarekin jotzen da, *ziri* izeneko makila fin batekin. Bere saiakera bikainean, Carmen Rodríguez Susok dio XIX. mendean danbolinteroaren anakronismoari eusten zaiola; izan ere, nolabait ere, forua, foru-agintariak, errituak eta keinuak irudikatzen ditu —beraz, bere gizarte-identitatearen sustraia bera—, eta bere garaikideek, berriz, herri-klaseen musikari gisa idealizatzen dute. Arruek nostalgiaz begiratzen dio herrixkako festa bati, festa folklorizatuari. Losadak, ordea, “emandako jaiak” aurkezten digu, hemen ere gizartearen ordena hierarkikoa adierazten duen autoritateak ekarria eta gidatua; Terentzio erraldoiak nahiz Txango musikariak modu bisualean edo soinuaz patentatzen dute ordena hori, dibertsio gisako herri-dantza “espontaneoaren” ideia aurka. Honela amaitzen du: “Txistularia, *herrikoia* baino gehiago, *nonahiko* irudia zen, egoera askotan moldatzen zena. Zaila da egoera horiek sintetizatzea eta, gainera, dagoeneko existitzen ez diren egoerak dira. Horregatik, orain ez da ondo ulertzen txistulariaren nonahikotasun zaharraren logika<sup>15</sup>”.

Txistulariaren alderdi hori, protokoloaren eta agintearen musikari gisa, berebat agertzen da bere uniforme tipikoetan, eta protokolozko ekitaldietan hiritik kanpo egiten dituen zerbitzuetan. Txistulariaren trajea, erdaraz batzuetan *de golilla* deitua, aguaziltxoek zezenketetan erabiltzen dituzten oso antzekoa da. Txistularien, klarineroen, tinbaleroen, mazeroren eta Udal Korporazioari laguntzen dioten libreak ere garai hartako armadaren antzekoak dira. 1850eko Udalaren txosten batean adierazten zen nolakoak izan behar zuten uniforme horiek (bi klarineteren eta lau danbolintero edo atabaleroren uniformeak): kasaka gorria, oihal urdineko prakak eta txalekoa, txapela, alkandora, gorbata zuria, galtzerdiak eta zapatak; eta esaten da “oso komenigarria izango litzatekeela oihal urdinaren gainean zerrenda gorri bat jartzea, hartara, bereizgarri hori izanik, ezingo baitziren erabili zerbitzu publikoko ekitaldietan baino<sup>16</sup>”.

Denborarekin, jantzien elementuak (jaka, galtza, alkandora, txalekoa, gorbata, bi adarreko kapela, botinak eta lebita) aldatu, eta kasaka txikia, alkandora, txalekoa, polainak, alpargatak eta txapela izan ziren, eta aldaketa haiek beren konposizioak aldatzeko balio izan ziren artistei. Konpara ditzagun, adibidez, txistulariak 1928ko Arrue anaien omenaldiaren atxikimendu-kartela, zeinean danbolinteroak ageri baita kopa- kapela, txalekoa, alkandora zuria *golilla* lepokoarekin, galtzak eta zapatekin, eta José Arrueren 1927ko Donostiako Aste Nagusiko kartela: txistulariak polaina eta kasaka urdina ditu, txaleko gorria ertz zuriarekin, alkandora eta gorbata zuriak, galtzerdi gorriak eta txarol beltzezko oinetakoak brotxearekin; eta parean daukan aizkolari umilak, berriz, galtza eta alkandora zuria darama, gorbatarik gabe, gerriko gorria, txapel urdina eta abarka zuriak. Interesgarria da, halaber, gure txistularien jantzi horiek, Txangorena esate baterako, Stanley Kubrick-en *Barry Lyndon* 1975eko filmean agertzen diren musikari britainiarrek eta alemaniarrek dituztenekin alderatzea, edota U. S. Army Old Guard Fife and Drum Corps-eko musikariekin eta beren *parade* historikoekin. Argi agertzen da beraz flauta eta danbolin multzoaren unibertsaltasuna, aginte politikoaren musika adierazgarria den aldetik<sup>17</sup>.

Bestalde, *autoritas* rol horren adibide gisa, hortxe dugu Francisco de Arzuaga, Bilboko hiriko danbolinteroa, enpresaburu bilbotar batek 1848an Madrilen erreginarentzat jotzera gonbidatu zuena<sup>18</sup>. 1865ean, Espainiako erreginaren bisita zela-eta, kiosko bat eraiki zen Areatzan, Aldundiaren eta Udalaren erdibidean, eta han ere egon zen txistularia.

Baina, XIX. mendeak aurrera egin ahala, armadatik datozen musika-bandek hartuko dute botere instituzionala. Teófilo Guiard-ek gogorarazten duenez: “Miliziano Boluntario Konstituzionalistek, zeinak baitziren Bilboko bizilagunen indar armatu egonkorrak, osatu zuten, 1821eko apirilaren 9an, 21 lagunek osatutako musika-banda bat.

Hirian eratu zen lehen talde militarra izan zen seguruenik, musika-banda edo fanfarrea. Lehen erreferentzietako bat gerra amaitu ondoren topatzen dugu, 1839an, Hiriko Milizia Nazionalaren fanfarreak foruen berrespen ospetsuan parte hartu zuenean<sup>19</sup>. Karlismaldien ondorioek ere zerikusia izan zuten musika-protokoloetako aldaketekin: “Bilboko danbolinteroeren historian, Nicolás Ledesma kaperako musikarienean izan zenaren baliokidea da Txango. 1825 eta 1881 artean egon zen Txango jardunean, eta Ledesma 1830 eta 1883 artean: urte askoan, beraz, euskal gizarte garaikidearen eraketaren urte erabakigarrietan hain zuzen ere, mantendu ziren biak. Haien bizitza profesionalak, gainera, musikak agertzeko erabiltzen zituen irudikapen-moduak erabat aldatzen ari ziren uneetan garatu ziren [...]. Foruen ezeztapenak ekarri zituen administrazio-aldaketek jadanik hiltzorian zegoen eliza-kaperaren desagertzea ekarri zuten, eta orobat bizkortu zuten danbolintero zaharra bere lekutik apartatzeko prozesua ere<sup>20</sup>”. Musika-banden eta danbolinteroeren arteko alternantzia-eredu hori, musika-kaperen gainbeheraren paraleloan, mendea ondo sartua egon arte mantendu zen, batez ere dantza-leku publikoetan<sup>21</sup>.

Nolanahi ere dela, Losadak lanbide bat dokumentatzen digu: txistulari soldatapekoarena<sup>22</sup>, “funtsezkoa izan baitzen hiriko biztanleei edonolako gertaera publikoen berri emateko, komunikabide ez-idatziak batez ere bi ziren garai batean: elizetako kanpaiak eta txistuak eta danbolinak. Hiriko txistulariek era guztietako tristurak eta pozak aldarrikatu dituzte mendeetan; haien hotsak Bilboko oroimenaren parte dira<sup>23</sup>”.

Arruek, berriz, herrietako erromerietako zalaparta eta nahaste soziala dokumentatzen dizkigu. Erromeria hauek alboradarekin hasten dira, kanpaiak eta dunbek festa iragartzen eta herritarrei dei egiten diete, brontzearen hizkuntza arkaiko horrekin, otoitz egitera joan daitezten. Kanpaien soinuaren ondoren txistulariaren deia dator, goizean goiz jaikitzen den Udaleko enplegatua, eta herritarrei jaia ematen zaiela jakinarazteko jotzen duena; baita ondo pasatzera joan daitezten ere. Gure begirada historikoa, soziala eta praktikoa da, hau da, historian egin da eta gertatzen den testuinguruan txertatzen da. Günther Anders antropologo alemaniarrek dioenez, gogora ekarritako objektu baten oroimen-gaitasuna (kasu honetan, txistularien soinua edo haien funtzioa) ez dago soilik haren indarraren, distiraren edo oroimen-indarraren mende; kokatua dagoen bizi- munduaren egituraren mende ere badago<sup>24</sup>.

*Gure aitona-amonentzat, aldi berean (behin) jaio (eta hil ziren) ziren lekuan bizi izan baitziren, mundua seinale-baso bat bezalakoa izan zen, eta seinale bakoitza bizitzako egun edo ordu jakin bati zegokion. Ez zuten gogoratu beharrik izan, denak gogorarazten zien. Aurreko mendeetako fogerazioek adierazten*

digute aitona-amonak nola egoten ziren *in situ* izendatzen ez zituzten baserri haietan, baserriek ematen baitzieten izena familiei. Oraindik ere nire belaunaldiko pertsonok, herrietan, gehiago izendatzen gaituzte etxearen izenarekin familiaren abizenarekin baino. Anders-ek aipatzen duen seinale-basoa argi dago inguru osoan, nahiz eta Angelus-erako deia edo Muruetako ontziolako sirena desagertu diren, isiltasuna hausten zuten haiek langileen bazkaria markatzeko.

Txistuaren musikak lagundu die gure arbaso guztiei beren bizitza sozialeko eta jaiegunetako une garrantzitsuetan, danbolinteroek soldata ematen zieten agintari berek arautzen baitzuten bizitza hura. Txistularia, soldatapeko gisa, parrokietako nahiz kofradietako kontuetan agertzen da, udalekoetan agertzen den bezalaxe. Oroitzeko modua historiarekin batera aldatzen da, errealtatea hautemateko moduak aldatzen diren bezala. Hara hemen Arrue Almikeko edo Arrakundiagako festak edota Artetako mendiko biribilketa gogoratuz, eta hara hemen Ucelayk Zuberoako maskaradari buruz egin zuen azterketa zehatza.

Gure bizi-inguruneko seinale-baso hori gogoratzeko moduak asko dira, eta badira oroimenaren hainbat forma ere. Bada borondatezko oroimen bat, ezaguera gisa erregistratzen, eskaneatzen eta gordetzen duena, eta bada nahigabeko oroimen bat ere, adibidez, Marcel Proust-ek *Denbora galduaren bila* eleberrian aipatzen duena, Swannen bideetan magdalena batzuen usainak protagonista, bat-bateko *insight* batean, haurtzarora eta bere izebaren etxera eramaten duenean. Oilagorren zaporean, usainak garamatza eskopeten eta urtaroen pertzepzio zehatzaren haurtzaro batera; izan ere, hegaztien paseak, uztek edo santutegi kristauaren ezagutzak (Magdalenatik San Roke bitarte), ematen zigun jaien tokiaren eta unearen berri. Losadak ez digu Arzuaga musikariaren eta Terentzioren erretratu bakarrik uzten, une historiko baten akta ere uzten digu. Parrokiako elizaren dorretik zabaltzen ziren kanpaien soinuak eta txistulariaren musikak, aspaldiko mendeetatik botere publikoaren jakinarazpen soinuduna zenak, denboraren joanaren nozioa zekarzkituzten denborarena.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Hau ez da Txango agertzen den Losadaren koadro bakarra. Badago, gutxienez, pastel bat, Pablo Gorriaran bere ezin bereziko atabaleroarekin ere ageri dena, "Sorgin" izenekoa. Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegiko aretoetan bi koadro daude, *Erraldoiak herriaren pozaz inguratuak* (*Gigantes rodeados de la alegría del pueblo*) eta *Gargantúa* (80 x 356 cm bakoitza), Foru Aldundiak 2012an zaharberrituak biak. [itzuli]
2. 1896ko ekainaren 7ko *Apuntes* aldizkariaren 12. zenbakian, Anselmo Guinearen marrazki bat argitaratu zen, Bilboko erraldoi eta buruhandi berriena, maiatzaren 2ko ospakizuna zela-eta, aurretik txistularien udal-banda dutela. *Apuntes* aldizkari ilustratu bat zen, 1896ko martxoaren 22an jaiotako eta hurrengo urtean *La Revista Moderna* (139 ale, 1899ko urriaren 27an desagertu zen arte) bihurtu zena. 12. zenbaki berean, Guinearen akuarela bateko argazki batek -1875eko danbolinteroaren erretratu, bilduma partikularra- Félix de la Torreren artikulu bat ilustratzen zuen. Ikus Mikel Lertxundi Galiana, *Anselmo Guinea (1855-1906). Las ilustraciones de un chimbo*, Bilbo, 2012. [itzuli]
3. 1654koa da Bilboko erraldioen lehen erreferentzia; San Antongo Sakramentu Santuaren Kofradiaren liburuaren hasierako orrian agertzen da. Kofradiako ondasunen inbentarioan Corpus Christiren prozesioan parte

hartzen duten erraldioen lau jantzi aipatzen dira. 1896an, José Martínez de Pinillos zinegotziak irudi berriak erosteko eskaera egin zuen, Serafín Basterra eta Vicente Larrea eskultoreek egin zitzatela adieraziz. Kurding Club taldeak Don Terentzioren burua utzi zuen, totem batek bezala klubaren egoitza soziala zaintzen baitzuen, eta aldi berean Losadaren koadroak pareta apaintzen zuen. [\[itzuli\]](#)

4. Baita Urduñakoa ere, aldi berean. Pantaleón de Aguinaga da Urduñako hirian dokumentatzen den lehen udal- danbolintero, eta 1820tik 1862ra bitartean egon zen karguan. Txistulari-lanak zapatari-lanarekin bateratzen zituen. Txangoren kasuan, eta ikusirik nola kokatu zuen bere txistulari-familia ondoko elizateetan, garbi dago dinastia profesional baten aurrean gaudela (karguaren eta eremuaren kontrolarekin), Antzinako Erregimeneko lanbideetan ohikoa zena: familiako “entxufearen” logika, agintariekiko harreman jarraituak jurisdikzio- egintzetan eta gai komunetan, eta hirigune horien hurbiltasun geografikoa. [\[itzuli\]](#)

5. Manuel Losada (1865–1949) Plaza Barriko 8. zenbakian jaio zen; 1887an Bizkaiko Foru Aldundiaren beka bat jaso zuen Parisen ikasteko, lehenago beste pintore batzuk egon baitziren han, hala nola Zamacois (1861) edo Guiard (1878). 1889an Bilbora itzuli zen, baina Manuel María Gortázarren laguntzarekin Parisa itzuli zen (Guinea eta Zuloagarekin batera). Azken honekin 1891ko irailean Parisetik ekarritako lanak jarri zituen ikusgai zituen El Sition. Losada pertsonaia atsegina zen, 1911n Euskal Artisten Elkarteak kidea egin zen, Arte Ederren Museoko lehen zuzendaria izan zen 1914an, eta museoaren babeslea Gerra Zibilean. [\[itzuli\]](#)

6. Terentzio jauna eta Tomasa andrea erraldoiez gainera, Txomin Barulloren pertsonaiak edo Anatxu eta Frakagorriren prozesio-pasoak bizirik diraute gaur egungo Bilboko jaietan; beste batzuk, esate baterako Miserikordia txerria, duela gutxi desagertu dira. [\[itzuli\]](#)

7. Emiliano de Arriaga, *Vuelos cortos, intentados, emprendidos y realizados por un Chimbo*. Anales Populares Bilbaínos. Bigarren Saila, 1895, l. alea, 21–28. or. [\[itzuli\]](#)

8. Ikus Adolfo Gabriel de Urquijo, *Miqueletes, Forales y Miñones del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya*, Bilbo, 1907. [\[itzuli\]](#)

9. Manuel de Larramendi, *Corografía o descripción general de la provincial de Guipúzcoa*, Fidel Fita jesuitak argitaratua Imprenta de la Viuda e Hijos de J. Subirana izenekoan,artzelona 1882; *Corografía de Guipúzcoa. Descripción escrita en 1754* edizioari jarraitzen diot, Ekin argitaletxea, 245. or. [\[itzuli\]](#)

10. Markinako Udaleko akta bat da, 1522koa, eta hartan adierazten da ordainduko zaizkiola “sei erreal eta erdi bere danborrarekin eta txilibituarekin festak egiten ibili zen danbolinteroari”, Markinako Udal Artxiboa, Akta Liburua (1517/1531), sig. C-2, orria 274; 1522/7/29ko akta, Iñaki Irigoienek aipatua, hemen: “Tambolintero o Txistulari. Una institución en nuestro país”, *Dantzariak* aldizkarian, 48. zk., 28–40. or. Era beretan, honela dio Carmen Rodríguez Susok: “Juan de Garamendi da, zeina Luis Robledo historialariak aurkitu baitu Espainiako gorteko danbolin-jotzaile gisa, Errege-Erregina Katolikoek bilobak ziren Maria eta Katalina infanten zerbitzura. Geroago, infanten anaia Karlosen –Karlos V.a enperadorearen– zerbitzuan dokumentatua agertzen jarraitzen du Garamendik, flauta- jotzaile gisa. Alegia, argi dago danbolintero zela, bere musika-jotzaile alderditik dokumentatua”. [\[itzuli\]](#)

11. 1928an kaleratu zen *Txistulari* aldizkariaren lehen alea, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen buletina; hartan aukeztu zen *Baztan* izeneko 6/8ko martxa arinaren partitura, Lizarrako Aita Olazaránek sinatua, *biribilketa* izenarekin. [\[itzuli\]](#)

12. Zezenketaren obligaziozko eskritura batean –Bilbon 1827an sinatua dago–, Plaza Barria izango zenaren alderdian, honako hau zen baldintza bat: “Enpresaren kontura [izango dira] zezenketak eta barrikako sutarako Udalak plazan jartzea erabakitzen dituen danbolinteroak”. Bilboko Protokoloen Artxibo Historikoa, Diego de Arribalzaga notarioa, 3042. paper-sorta, 1827. urtea, abuztuak 6, 1827. [\[itzuli\]](#)

13. Ikus Carmen Rodríguez Susoren saiakera bikaina, “El anacronismo como rasgo dinámico del *txistulari*”, *Txistulari* aldizkarian, 203. zk., 2005eko urria; baita egile beraren *Los txistularis de la Villa de Bilbao* ere, B.B.K., Bilbo, 1999, 62. or. [itzuli]
14. Carmen Rodríguez Suso, *Los txistularis de la Villa de Bilbao*, B.B.K., Bilbo, 1999, 8. or. [itzuli]
15. Ibid., 62. or. [itzuli]
16. Iñaki Irigoien, *Txango. Tamborilero de la Villa de Bilbao*, Beti Jai Alai, Bilboko Udala. [itzuli]
17. Carmen Rodríguez Susori zor diot informazio bikoitz hau. [itzuli]
18. “Francisco de las Rivas jaunak, Gorteetako diputatua bera, Euskal Elkarte baten izenean eskatu du Erreginarene izenean baimena emateko Bilboko danbolinteroari Gortera joan dadin han prestatzen duten funtziora. Udalak baimena eman zuen”, hemen: Iñaki Irigoien, “Tamborileros municipales en Bilbao durante el siglo XIX”, *Bidebarrieta* aldizkarian, 25. zk., Bilbo, 2014, 85. or. [itzuli]
19. Teófilo Guiard, “*Historia de la Noble Villa de Bilbao*”, IV. alea, 427. or. [itzuli]
20. Carmen Rodríguez Suso, “El anacronismo como rasgo dinámico del *txistulari*”, *Txistulari* aldizkarian, 203. zk., 2005eko urria, 90–92. or. 1. [itzuli]
21. Iñaki Irigoien, *Txango. Tamborilero de la Villa de Bilbao*, Beti Jai Alai, Bilboko Udala, 89. or. [itzuli]
22. Xabier Egiluz eta Alexander Iribar, “Historia del txistu en Orduña”, hemen: *Txistulari*, 170. zk., 1997, 6–22. or.; baita *online* ere: <http://paginaspersonales.deusto.es/airibar/Musica/Textos/Orduña/Orduña.html>. “Interesgarria da azpimarratzea Udalak nolako garrantzi berezia ematen dien danbolinteroaren lanaren protokolo-alderdiei (batez ere zibilei, baina baita erlijiosoei ere), baita hura lanerako ia erabat libre egoteari ere (beti prest egon behar alkatearen deia erantzuteko, urtean lau egunetan izan ezik, eta egun horiek ere itundu egin behar ziren); gizarte- animatzaile eta herri-musikari gisa duen betekizunak, berriz, ez dirudi horren interesgarria, eta lotuagoa geratzen da danbolinteroaren interes pertsonalei”). [itzuli]
23. Carmen Rodríguez Suso, *Los txistularis de la Villa de Bilbao*, B.B.K., Bilbo, 1999, 5. or. [itzuli]
24. Günther Anders, *Tagebücher und Gedichte*, Munich 1985, “Post festum” atala, 1962an idatzia. [itzuli]

## ARTETA - ERROMERIA

*Erromerian 1* (*En la Romería 1*), frisoan egindako konposizio izugarri bat da, ikuslea gora begiratzera behartzen duena, eszena gertatzen den muinora. Bederatzi lagun kalejiran doaz, festa guztien hasierako dantza horretan; kalejira ezkerretatik hasten da, bikote gazte batekin –neskak txirikorda luze bat du–, eta haien atzetik emakume bat doa panderoa joaz eta gizon bat, txapela jantzita, esku-soinua joaz; ondoren, mutil gazte bat eta bi neska, bata bestearen gainean bermatuta, eta, azkenik, bi emakume hobeto jantzita, ilea aske, frisoaren beste aldera begira biak, edo, beste horma batera, frisoaren jarraipenari. Adar batzuek dinamizatzen dute konposizioa goiko bi muturretatik, eta eszena bi mailako zelai batean gertatzen da; atzean, beste muino kurbatu batzuk eta zero urdin argi bat, hodei zuriekin. Horma-irudia 1922an egin zuen Artetak, bere lagun Ricardo Bastida arkitektoak uda ematen zuen Ondarroako txaletean. Artetak Madrilgo Banco Bilbaoko sarrerako horma-irudiak margotzea nahi zuen Bastidak, bere proiektuak irabazi baitzuen lehiaketa. Artetak onartu egin zuen arkitektoaren eskabidea, eta, horma-irudiaren teknikan trebatzeko, txalet haren paretak erabiliz, fresko hau egin zuen.

Koadro asko margotu zituen Artetak erromeriei buruzkoak, batez ere bizitzaren amaieran<sup>1</sup>. Kasu honetan, Artetak kalejira bat irudikatzen du, guztiz erritmo biziko musika-lana, martxa arin bat, 6/8 konpasean idatzia normalean, eta txarangek eta akordeoi-joleek jotzen dituzte herriko jaien hasieran. *Kalejiraz* gainera, *biribilketa* eta beste izen batzuk ere ematen zaizkio.

Resurreccion Maria Azkuek ere, bere *Cancionero Popular Vasco* lanean —1918 eta 1921 artean bildutako musika- eta abesti-sorta<sup>2</sup>—, ez du *biribilketa* hitza erabiltzen, gaztelaniazko *marcha* hitza baizik. Dantza honek, Artetaren obran ikusten den bezala, herri-folklorearen erakusteko eta kanpoko jendea hartan sarrarazteko balio du; hiriko bi neska nola festan sartzen diren ikusten dugu hemen. Artetak, beheko ikuspegi horretatik, irudien monumentalatasuna indartzen du, eta, aldi berean, eszenaren begirada zatikatu bat eskaintzen du, martxa askoz luzeagoa balitz bezala. Artetak tonu lehorrak eta diluituak erabiltzen ditu, alde batetik Giottoaren frantziskotar pinturarekin eta bestetik Puvis de Chavannes sentsualtasunarekin jokaturik. Kalejiraren musikak bezala, hiriko jendea eta elizateetako jendea biltzen ditu Artetak hemen, alpargata zuriak eta oinetako onak, gona luzeak eta gona motz tolesdunak erabiltzen dituztenak.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1955. urteaz geroztik San Telmo museoko funtsetan *Euskal erromeria* (*Romería vasca*) izeneko koadro bat dago. Hura margotzen ari zela, 1940ko azaroaren 10ean Mexiko D.F.n tragikoki hil zen Arteta. Jose Manuel Ostolaza, Deban jaio eta Mexikon erbesteratutako industria-gizonaren erabakiz —Merkataritza Eskola eta Liburutegi Publiko bat sustatu zuen fundazio baten sortzailea—, museoari eman zitzaion Artetaren koadroa. Mexikon beste *Erromeria* (*Romería*) bat ere egin zuen Antonio Orberentzat. Artetak beti irudikatzen ditu dantzariak galtza zuriekin, kolorezko gerrikoarekin, galtzerdi zuriekin, alpargata zuri-



gorriekin eta, batzuetan, txintzarriak dituztela txonkatiletan. Aurelio Arteta (Bilbo 1879–Mexiko 1940) Bilboko Askao kalean jaio zen eta bere hiriko Arte eta Lanbide Eskolan hasi zituen ikasketak. Parisera joan zen 1902an, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako beka batekin. 1905ean bidaia bat egin zuen Erroma, Florentzia, Milan eta beste arte-zentro italiar batzuetan barna; italiar lanen eragina handia da Artetaren lanean, batez ere Lehen Errenazimenduko fresko-pinturena. [\[itzuli\]](#)

2. Azkueren balorazio batentzat, ikus Carmen Rodríguez Suso, “Fuentes privadas para el estudio de la música: el epistolario de Resurrección María de Azkue”, hemen: *Musiker: Cuadernos de Música*, 15. alea, 2007, 117–50, eta *Musiker: Cuadernos de Música*, 16. alea, 2008, 299–330. [\[itzuli\]](#)

## ARRUE - ERROMERIA

Lehen aretoan elkarren aurrez aurre landu ditugu José Arrueren bi koadro, *Athletic Club taldea* (*Equipo del Athletic Club*) eta *Estropadak Abran* (*Regatas en el Abra*). XX. mendearen hasierako Bilbo osatzen zuten gizartearen eta pertsonaien koloretako bi erradiografia dira, une hartako aisiaren adierazpenak ziren bi kirol-praktikatan. Azken areto honetan, Arruek landaldeko munduaz zuen ikuspegia aztertuko dugu, hau da, herriena edo elizateena, herriko jaien garaian; beste aisialdi mota bat da, erromeria eta dantza bezalako jardueren bidez islatzen dena.

Alde batetik, *Arrakundiagako erromeria* (*Romería en Arracundiaga*), 1919koa eta, bestetik, *Jai herrikoia*, 1926koa, antzeko tamaina duten bi obra, bi metrotik gorako luzera dutenak: festa bat itsasaldean eta beste bat mendialdean. *Herri-festa* muino batean gertatzen da, balkoi luzeak dituen etxe baten ondoan, Bermeoko Almike auzoan; handik, behean, herriko portua eta, atzean, Izaro uhartea eta Ogoñoko lurmuturra ikus daitezke, azken hau Lagako hondartza babesten duela. Eszena ezkerretik ixten da etxe balkoidun batekin; etxearen ondoan bolatoki bat dago, beheraxeago dorretxe bat bere ojiba-leihoarekin, eta, konposizioaren beste aldean, eskuinean, haritz lodi sendo batzuk. Zuhaitz horien azpian karpa bat dago, taberna-eginkizuna betetzen duena, eta, lehen planoan, mahai bat, zapiarekin; mahai horren aurrean, emakume bat sukaldean ari da, lurrean, bi buztinezko kazola eta kobrezko eltze handi batean. Zuhaitz eta harrizko arkitekturaren artean berrehun pertsonaiatik gora ageri dira. Batzuk hizketan, beste batzuk begira, bat zahatoki ardoa edaten eta beste batzuk, gehienak, jota bat dantzatzen, kiosko goratu soil batera igota dauden bi txistularirekin. Itsasoko eta mendiko plater gisa prestatu digu Arruek *veduta* hau, zapora-sorta berezi samar batekin: hiriaren gogortasuna, itsasoa besarkatzen duten kaiekin, eta muinoen berdea festan.

Aurrez aurre jar genitzake koadro hau eta *Erromeria Arrakundiagan* (*Romería en Arracundiaga*), azken hau mendi-mendiko platera delakoan, belardi eta muinoen berdeen sorta zabala biltzen duena<sup>1</sup>. Hemen zelai batean egiten ari den erromeria bat ikusten dugu, eta zelaitik, atzea emanda, Arrakundiagako eliza eta bere kanpandorra ikusten dira; elizaren ondoan, Elexondoko bolatoki estalia. Erromeria seguruena Uribarri auzoko zelaian gertatzen da; atzealdean mendi batzuek ixten dute konposizioa. Ganekogorta mendia da, eta etxe-multzoak Basakoetxe, Zollo eta Markioko auzoak dira. Haritzak, eskuinean, nolabait ere ezkutatu egiten du Abrisketako San Pedroko ermita izan litekeena, gure lurretako harizti paganoaren lehen tokietako bat. Jendeak, seguru asko, San Pedroren zaindariaren jaia ospatzen du Uribarriko auzo honetan. Ezkerreko etxetzarraren ondoan bolatoki ireki bat dago, eta, eskuinean, karpa bat edariekin; lehen planoan, berriz, emakume zahar bat sukaldean ari da lurrean. Erromeriaren eta Arrakundiagako herriaren artean lerratzen dira, lehenbizi, makal-ilara bat eta, ondoren, zumar-ilara bat, auzoa eta hirigunea bereizten dituztenak, Nerbioi ibaiaren ibilgua adieraziz. Hemen ere berrehun pertsona baino gehiago daude, xehetasunez landuak, pertsona bakoitzaren banakotasuna edo nortasuna islatu nahi balitz bezala. Festak alderdi asko ditu: boloetan ari direnak, edanean, janaria prestatzen dihardutenak, begira daudenak eta dantzari ari direnak. Azken horien artean ere bi talde nahasten dira, bata erdian kokatua, aureskua biribilean dantzatuz, galtza zuriz eta jaka beltzez jantzitako txistulari bati jarraituz, eta, ezkererago, jende gehienak jota dantzatzen du eskusoinu baten eta klarinete baten doinuari jarraituz.

Arruek konposizio horren zati bat errepikatu zuen *Erromeria Orozkon* (*Romería en Orozko*, 1921) lanean. Elizak, kanpandorreari erreparatua, Orozkoko San Pedro Muruetakoa dirudi. Konposizio gisa errepikatzen du, baina ez figuranteei dagokienez, bakoitzak bere nolakotasuna baitu. Beste koadro bat da, beste herri bat eta beste gizabanako batzuk, nahiz eta dantzak berberak izan.

Alde horretatik, Arrueren pinturak norbanakoez, esentzia berezietz, tradizio komun batean bizi diren izaki bakarrez hitz egiten du, baina beren leku jakinetan eta beren soinu jakinarekin. Esan dut gorago Arrue zezenketen kartelgile bikaina izan zela.

Txistularien eta musikaren kartelak ere egin zituen. Arruek badaki instrumentista bakoitza berezia dela; berezia eta bakarra da. 1927ko Donostiako Euskal Asteko kartelean —Kale Nagusiko itzalean, Koruko Andre Mariaren fatxada barrokoari irekitzen zaiola— aizkolari bat eta txistulari bat kontrajartzen dira; beren banakotasunean kontrajartzen dira, eta jakinaren gainean daude. Erretratuak ere jakinaren gainean zeuden, ez baitzuten obra haietan karikaturarik ikusi, banakotasuna baizik.

Horixe iradokitzen du Arrueren pinturak. Arrueren koadro horietan guztietan beti agertzen da txistulariaren irudia, hau da, txistua eta danbolina batera jotzen dituen musikaria, herrietako festetan dantza gidatzen zuena, eta baita hirian ere, Manuel Losadaren *Terentzio jauna eta Txango, txistularia* (*Don Terencio y Chango, El txistulari*) (278–79 or.) koadroaren analisisian azaldu dugun bezala.

Hiriko nahiz herrietako erromeriei buruzko lekukotasunak era askotakoak dira. Bizkaia 1797an bisitatu zuen atzerritar batek, Würzburgeko Unibertsitateko Christian August Fischer irakasle alemanak (1771–1829), honela dio: “Erromeria Bilbo osorako jai bat da, eta ikusleak ez dira dantzariak baino gutxiago, orokorra baita dibertsio mota horrek eragiten duen zaletasun bizia. Dantzalekua, oro har, zuhaitzien itzalean egoten da, txakolindegia batetik gertu<sup>2</sup>”.

Jai hauetan, izan patrioiaren egunekoak edo izan urteurren-jaiak, ez zen bakarrik txistuaren hotsarekin dantzan egiten, beste instrumentista batzuek ere parte hartzen zuten, Modesto Lafuente historialariak bere *Fray Gerundio* egunkariko “Capillada estrordinaria. Bilbao, 24 de Agosto de 1842” izeneko kronikan adierazten duen bezala. Hartan dantza luzeak eta dantza laburrak bereizten ditu Bilboko erromerietan. Arrueren koadroan talde bat ikusten dugu, txistuaren eta danbolinaren hotsean, dantza luzea egiten duena, *aurresku* izenekoa, eta beste alde batean, nahasiago, beste batzuek jota moduko bat dantzatzen dute<sup>3</sup>.

Urte batzuk geroago, 1880an, Juan Mañé y Flaquer katalanak —*El Oasis: viaje al país de los fueros* liburuan egiten duen gure lurren deskribapenean— txistuaren soinua gogoratzen du lorategi batean, “Eliseo zelaien moduko zerbait, non, sarrera merke samar baten truke, Bilboko eskulangileak dantzatzera joaten baitira”. Eta kontatu digu publiko jakin bat dagoela Udaleko txistulari ofizialarentzat, eta beste leku batzuetan, berriz, jende gazteenak polkak dantzatzen omen ditu orkestra moderno baten hotsean. Eta hurrengo urteetan integrista batek, Arturo Campi3n nafarrak, egingo duenaren antzeko gogoeta bat egiten du. Konklusio honetara heltzen da Mañé: “Nik ere tristeziak begiratu nien bi zelaiei, dantza exotikoak dantzatzen ziren leku jendetsu biziari eta, erabateko bakardadean, Txangok bere maisutasun ezin eztabaidatuzkoa agertzen zuen basamortuari, eta nire modu esaten nuen: ‘Hark akabatuko du hau’<sup>4</sup>”.

Sarasateren 1909ko biografia baten hitzaurrean, Campiónek hau idatzi zuen:

“Independentziaren gerran Nafarroan sartu zitzaigun Jainkoaren jotatxo hori, txiki-txiki egiten ari da gure antzinako txistuak eta atabalak, gerrako gizon-dantza kementsu eta zeremoniatsuen inspiratzaileak”<sup>5</sup>. Eta gero —*El último tamborilero de Erraondo* izeneko 1917ko narrazioan—, erabat negatiboa da herrietako dantzei buruz duen ikuspegia<sup>6</sup>.

Antzeko ikuspuntu-akatsak sumatzen ditugu funtzionario gisa diharduten egungo zenbait hizkuntzalarirengan<sup>7</sup>.

Hau da, ehun urte geroago, desitxuratze historikoa aurkitzen dugu berriro, oraingoan beste ikuspuntu batetik —ustez “ezker inkonformista” baten ikuspuntutik—, baina, funtsean, modu berean bidegabea Arrueren pinturarekin eta munduaz duen ikuspegiarekin, izan Bilbokoa, izan herri txikikoa. Mañéren iritziz, orkestrak jotako polka bat da tristea; Campiónen iritziz, jota edo arin-arina da tristea, lizuna baita, eta espainiar nazionalismoaren aliatua; egungoarentzat, berriz, arin-arina antisistema da eta aurrekoa, ostera, kapitalismoaren dantza. Ezin dira handiagoak izan aurreko oharrean aipatutako horrek testu labur batean dituen kontraesanak. Autoreak berak dioenez, “[eskusoinua] Juan Bautista Buscaren eskutik (1839–1902) iritsi zen lehen aldiz Euskadira. Piamonte italiarrean jaioa zen Busca, eta Gipuzkoara trenbideko obretan lan egitera iritsi zen —espezialistak ziren horretan piamontetarrak, Alpeetako tunelgintzan zuten esperientzia zabalagatik—, eta Zumarragan jarri zen bizitzen 1864an”. Orduan, lehenik Zumarragara iritsi bazen, Bilboko hirigunetik nola zabaltzen da? Eta nola liteke Fischer alemanak jota entzun izana 1797an jadanik? Bestalde, *biribilketa* kontradantza edo kalejira gisa ere ez du ulertzen, gaizki interpretatuz berak gomendatzen duen Ignacio Ansorenaren saiakera bikaina<sup>8</sup>.

Bidaia Fischerrek berak hain zuzen ere —lehen aipatu ditudanen aurreko lerro batzuetan—, gizonen eta emakumeen fandango bat deskribatzen du, eta ez du maleziarik ikusten, dantzaren eta musikaren funtsezko errespetua baizik bizkaitarren aldetik. Iñaki Irigoien musikologo bikainak ere esan du garai batzuetan jota ez zela lizuna, aurrekoa bera baizik<sup>9</sup>: “Begoñan ere gertatu dira horrelako dantza ‘litzun’ baten aurreko erreakzioak, Bilboko alkateak, Ramón de Arronategui jaunak, 1880ko urriaren 6an Bilboko artzapezpiku Prudencio Aguirreri idatzitako gutun batek frogatzen duenez, bigarrenaren aurreko gutun bati erantzunez. Hartan aitortzen du nola ‘aurreko batzuk dantzatu ziren, egia, Elizate honetako plaza publikoan, bertan egin zen nobilladaren ondoren’, eta erantzen du, ‘Baina nola idatzi horretan jakitera ematen den hotsa heldu zaiela auzotar prestu hauei datxezkien lotsari eta moralitasunari huts egin diotela, neure burua behartua ikusten dut zentzu honetan, okerreko asmoarekin inondik ere, berorri eman ahal izan zaion kalumniazko albistea guztiz gezurtatzera; izan ere, abagunea izan nuen, Artzipreste jauna, Udaletxeko Aretotik Plazan gertatutakoa ikusteko”.

Javier González de Duranak azpimarratu duen bezala: “José Arruek ez zituen baserritarrak hartu esentzia patriotikoen eramailetzat, ezta balio etniko aldeezinen zaindaritzat, galzorian dagoen mundu bateko zaindari larri eta solemnetzat. Ez, inola ere ez. Inolako idealismorik gabe goraiatu zuen Arruek baserriko bizimoduaren zorientasuna, eta bai, ordea, gizatasun handiz. Dantzak, erromeriak, laguntaldeak kantari, edaten, barrez..., une iheskorra bere betetasunean eta oharkabetasun-pixka batez biziz; eszena horietan, kolektibitatearen zalaparta alaiaren aurrean jasotzen du gaizkileak zigorra, eta oharkabetasun handitxo jokatzeko duenak (edatean, adibidez) ez du penarik eragiten, barre txeratsua baizik. Baserritarrek nahiko sinpleak dirudite, baina kapazak dira hiriko jauntxo prestuari lotsagorrituko

duen kolpe irribarretsu bat emateko, mendeetako jakinduria eta zuhurtasuna biltzen dituzten keinu disimulatuekin”. Zentzu berean idatzi zuen Juan Plazaolak: “Funtsean edukia interesatzen zaio José Arrueri. Gaia, José Arruerentzat, ez da inoiz aitzakia, artista askorentzat izan den bezala. Bere estiloaren elementu inspiratzaile bat da funtsean gaia Arruerentzat: euskaldunaren tipo etnikoa, adin, sexu eta konplexio desberdinetan; jokoak eta kirolak, jaiak, profanoak nahiz erlijiosoak, istorio zebreak, eta, oro har, euskal herritarren bizitza sozialari dagokion guztia; eta, batez ere, haren umore-sena piztu dezakeen guztia. Gai kostunbrista eta etnografikoarekiko interes horrek, estiloaren ikuspuntutik, formari funtsezko garrantzia ematera darama. José Arrue komikiaren aitzindaria da.

Marrazkilari eta karikaturista handia izanik, bazekien antz ematen pertsonaiaren, talde baten, jai sozial baten arimari bere arkatx zorroztzarekin. Ikus bedi, adibidez, nolako maisutasuna zuen marrazki sintetiko baten bidez baserritar atsoen jarrerak definitzeko. Gouachearen teknika egokia da forma horien definizio zehatza emateko, kolorez estaltzen baititu lineek aurrez definitutako konposizio-eremuak; horri esker, koadroari edergarri-tankera bat ematen zaio, halako erresonantzia sinbolista batekin”<sup>10</sup>.

José Arruek beti ospatu zuen txistulariaren pertsonaia bere koadroetan musikaren eta ordenaren ordezkari naturala zelakoan. Eta errespetua elkarrekikoa izan zen, txistulariek ere Arrue biziki estimatzen baitzuten. 1928ko maiatzean José eta Ramiro Arruek Argentinara bidaiatzea erabaki zutenean, Euskal Artisten Elkarteak afari bat eskaini zien, Begoñako danbolinteroek girotua, han jo baitzuten, eta jaso ziren atxikimendu guztien artean Euskal Herriko 200 txistularik bidalitako gutun bat ere izan zen<sup>11</sup>.

Bere lehen eleberrian, *Paz en la Guerra* (1897), Unamunok auresku bat deskribatzen du, eta honela laburbiltzen du erromeriaren espiritua: “Hantxe, aire zabalean, zelai berdearen gainean, eta mendi lasaien artean, bere zentzu osoa hartzen zuen dantzak; gorputz-mugimenduen ereserkia zen, erritmoaren desira primitiboa eta graziaren iturri bizia. Dantza hura, han, herri txikian, lanaren arazketa zen, kemenaren holokaustoa”. Arruek osotasun gisa hartzen du erromeria, eta benetako istorio bat balitz bezala laburbiltzen saiatzen da, espazio erreale baten barruan. Oso pintura landua da, oso eraikia eta bere baitan oso itxia, Pieter Bruegel Zaharrena eta haren baserritar flamenkoen irudikapenak izan daitezkeen bezala. Haren koadroak nekazari- kultura desagertu horren leihoak dira, XVI. mendeko antropologia fisiko eta sozialaren lekukotasun ikonografikoa. Arrueren irudi ñimiñoak ez dira inpresionistak, arrunt errealistak baizik, baina multzoa herrixkaren errealtatearen inpresio izoztua da. Ez du norbanakoa masan abandonatzen; aitzitik, erreskatatu egiten du, giza ukitu bat ematen baitio jendetza margotzean. Antropologiaren hedapen adierazgarri bat eskaintzen du: zibil ugari, batzuk banaka marraztuak; beste batzuk, ospakizun- erritualetan tartekatutako silueta eskematiko hutsak; eta hori guztia, beti batasuna eta baikortasuna adierazten duen espazio konprimitu baina partekatu batean. Arruek egiten duen herri txikiko edo elizatezko bizitzako erritualetan irudikapena —nekazaritza, baserriak, bazkari oparoak, musika, dantzak eta jokoak barne— konposizio bereziak dira, narrazio-talentuagatik eta espazio-batasunagatik, batasun horrek toki jakina gainditu eta lurraldean kokatzen baita. Erromeria-koadro horietan, aurrean duen mundua deskribatzen du Arruek, ontasunez eta bere pentsamendu bisualaren kalitatearekin. Arruek ez du soziologia merkerik egiten, Arruek *konposatu* eta deskribatu egiten du: erromeria horietan denak elkartzen dira, txistuak eta akordeoiak, gizonak eta emakumeak, haurrak eta zaharrak, agintari edangabeak eta baserritar edanak. Bat eginda, elkarrekin bizi dira denak.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Koadro hau Euskal Artisten Elkartean jarri zen ikusgai 1920an, eta Arrue senideek Argentinara eraman zuten 1928an egindako bidaiari. Ondoren Rosa Solaunek erosi zuen, zeina jatorriz eskualde horretakoa baitzen eta bere familia Amurrioko farmaziaren jabea zen. Bilboko Arte Ederren Museoak *Erroreria* bat du (olio-pintura taularen gainean, 45,5 x 56 cm), eta beheko eskuineko angeluan pintorearen profila agertzen da marraztua, ikusleari bizkarra emanez eta eszenaren zati nagusiari begira, eta, haren aurrean, Alberto anaia, olanazko karpa baten azpian eserita biak. Obra hau Laureano de Jadok, bere bildumako beste pieza baliotsu batzuekin batera, 1926an dohaintzan eman zion Arte Ederren Museoi. De Jadok 1.000 pezeta ordaindu zizkion artistari 1908an. [\[itzuli\]](#)
2. Jatorrizko testua: “Eine ‘Romeria’ ist ein Fest für ganz Bilbao, und der Zuschauer sind fast nicht weniger, als der Tänzer, weil die Leidenschaft für dieses Vergnügen allgemein ist. Der Tanzplatz ist gewöhnlich unter schattigen Bäumen in der Nähe eines Weinhauses”, hemen: Christian August Fischer, *Reise von Amsterdam über Madrid und Cadiz nach Genua in den Jahren 1797 und 1798. Nebst einem Anhang über das Reisen in Spanien*, Johann Friedrich Unger Verlag, Berlin, 1799; frantsesezko itzulp.: *Voyage en Espagne, aux années 1797 et 1798* [...], itzultz. Ch. Fr. Cramer, 2 ale., Duchesne & Leriche, Paris, 1801 (IX. urtea); ingelesezko itzulp.: Ausgabe: *Travels in Spain in 1797 and 1798*, T. N. Longman & O. Rees, Londres, 1802. Bada gaztelaniazko bertsio bat duela gutxi argitaratua: *Viaje de Ámsterdam a Génova pasando por Madrid y Cádiz en los años 1797 y 1798*, argit. Hiltrud Friederich-Stegmann, hitzaurrea Carlos Martínez Shaw, Publicaciones de la Universidad de Alicante, 2007. “Descripción de Bilbao en el verano de 1797” atalaren *Estudios Vizcaínos* aldizkariko bertsioa jarraitu dut, 7–8 zk., Bilbo, 1973. [\[itzuli\]](#)
3. *Fray Gerundio* erredaktore bakarraren egunkaria izan zen (1837–44), Modesto Lafuente historialariarena (1806–1866), Mariano José de Larrairen epigonoa, zeinak aita Islaren izen bereko eleberriarren izenburua hartu baitzuen. Lafuente kazetaritza satiro-politiko eta kostunbrista egiten zuen, jarrera ideologiko liberal eta antikapitalista batetik. Frai Jose Zulaika, Aita Donostia musikologoak heldu zion berriro Gerundioren kontakizunari 1955eko saiakera batean, “Fray Gerundio”, eta Euskalerraren Adiskideen Elkartearen Aldizkarian argitaratu zen, XI. urtea, 1955, 3–4 zk. koadernoak. [\[itzuli\]](#)
4. “Yo también miré con tristeza los dos campos, el concurrido y animado sitio donde se bailaban los bailes exóticos y el desierto en que, ante una soledad absoluta, el Chango lucía su indisputable maestría, exclamando para mis adentros: ‘Aquellos matará esto’”. Juan Mañé y Flaquer, *El Oasis: viaje al país de los fueros*, V. alea, Bartzelona, 1880, 148. or. [\[itzuli\]](#)
5. Julio Altadill, *Memorias de Sarasate*, Imprenta de Aramendía y Onsalo, Iruñea 1909, XIII. or. Arturo Campiónen gutun-hitzaurrea Iruñeatik bidalia da 1909ko maiatzaren 19an. Bere “El último tamborilero de Erraondo: la aculturación psicológica y física de Navarra” saiakera bikainean – hemen: *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 28. urtea, 67. zk., 1996, 103–14 or.–, honela laburtzen du José Javier López Antónnek Campiónen pentsamoldea: “Musikaren aldetik, sumatzen da jota elementu kaltegarria izan daitekeela Nafarroako kulturarentzat. Independentzia-gerrako unitarismo afektiboarekin batera sortu zelarik, Nafarroko lurretan girotutako musika-aldaera berria, hala dio, nazionalismo espainiarraren aliatu beldurgarria bihurtu zen. Campiónen pentsamoldean, jota gaztelaniazko afektibo eta psikologiko baten, gaztelaniazko erreala baten sinonimoa da, Nafarroaz jabetu den euskal folkloreak aurrekoa.”. [\[itzuli\]](#)

6. “El último tamborilero de Erraondo”, hemen argitaratua: *Euskariana (seigarren saila) Fantasía y Realidad (bigarren alea)*, Imprenta de García, Iruñea 1918, 145–47. or. Ipuina Iruñean sinatua dago, 1917ko urtarrilaren 5ean, eta Juan Antonio de Donostia musikologoari eskainia. Arturo Campióni (1854–1937), zeina poeta, katedraduna eta Euskaltzaindiaren lehen zuzendaria izan baitzen, 1930. urtean aitortu zioten bere ikerketa filologikoen balioa, Eusko Ikaskuntzak, Resurreccion Maria Azkuek eskatuta (1864–1951), omenaldi bat eskaini zionean. [itzuli]
7. Zenbait oker eta zehaztasun-falta nabaritu genituen Félix Mugurutzaren jarduera historiografikoan haren *Deia blogs*-eko (*El Arca de no sé*), “El arin- arin y el conflicto social en una romería de Arrue” artikuluari heldu genionean, eta, okerreaz gainera, aipatzen ez dituen egileen balizko erabilera, nola diren Hilario Olazarán eta Carmen Rodríguez Suso; “La creación del baile al suelto vasco” (2012) artikulua irakurketa gomendatzen du, José Ignacio Ansorena ikerlari, txistulari eta artistarena, eta harengandik informazioa erruz hartzen du, baina oker interpretatuz. Nolanahi ere dela, aurreiritziak dira okerrera, Estanislao Urquijori buruz idatzi dituen lerroak direla-eta. Adibidez: “Baina, era berean, koadroaren izkina batean, haren izaera marjinala are gehiago sendotuz, gazte batzuk erakusten dizkigu, ekintza zentralean liturgiatik kanpo, dantzan alaitasunez ari direnak, besoak goratuta porru bat edo arin- arin bat dantzatzuz, esku-soinuarekin, panderoarekin eta txistulari batekin.
- Beren garaiko inkonformismoaren azken ondorioa dira, ezarritako ordenaren haustura, *modernitatearen askatasuna, eta ez tradizioa*, desiratzen duten antisistemak. José Arrue maisua bezalakorik ez dago elkarrekin talka egiten duten bi mundu horiek xehetasunez –piktorikoa eta historikoa– islatzeko [...]. *Atzerritik datorren dantza hori hiritan hasi eta urrutieneko auzo bakartietara igotzen da*, eta haiek dira orain ideala, jatorrizkoa, dantza lotuaren zitalkeriaren olatuari eusten saiatzen direnak. José Arruek 1920an *Erromeria* margolana margotu zuenerako arin-arina festan integratua zegoen. Baina haren begiak, Bilboko giro hiritarrenetik sortu eta Bartzelonan, Parisen edo Italian bidaiatua baitzen, badaki bi errealitateak bereizten: tradizionala eta modernoa, iraganekoa eta etorkizunekoa”. [itzuli]
8. “Biribilketaren jatorri zuzena sei bider zortziko kontradantzan dagoen arren, dantza honetan amaitzen diren beste dantza zaharren antza du: *giga*, halaxe deitzen dio Añibarrok, eta *arreatua*, Frai Bartolomoren hitzetan. Danbolinteroek beren partituretan *kontradantza* deituko diote XX. mendearen hasiera arte. Badira beste izen batzuk ere, *kale-jira*, *kalez-kale*, *karrika dantza*... baina, azkenean, dantza bera izendatzen dute: *pasacalle* edo *biribilketa*”. . José Ignacio Ansorena Miner, “La creación del baile al suelto vasco”, hemen: *Jentilbaratz*, 14. alea, 2012, 187–219. or. [itzuli]
9. Iñaki Irigoien, “El auresku en Bilbao”, hemen: *Bidebarrieta*, 1. alea, Bilbao 1996; o en su otro ensayo “Baile al suelto en Euskal Herria: formas populares y evoluciones coreográficas”, hemen: *Jentilbaratz*, 14. zk., 2012, 15–51. or.; ikus halaber Carmen Rodríguez Suso, “El anacronismo como rasgo dinámico del txistulari”, hemen: *Txistulari*, 203 zk., 2005eko urria. [itzuli]
10. Hemen: <https://apps.euskadi.eus/emsime/catalogo/museo-museo-de-bellas-artes-de-bilbao-/autoria-arrue-jose-bilbao-01-09-1885-llodio-alava-05-04-1977-/titulo-romeria-vasca/objeto-pintura-/ciuVerFicha/museo-58/ninv-82/88>. Ikus halaber saiakera-lan bikain hau: *El Coitao. Mal llamao* –zortzi ale satiriko, eztenkari eta beligeranteak, 1908ko urtarrilaren eta maiatzaren artean argitaratuak–. *El Coitao* egunkarian parte hartu zuen José Arruek: Javier González de Durana, “*El Coitao. Mal llamao*. Periódico artístico, literario y radical de Bilbao”, hemen: *Kobie*, n. IX, 1992/93. Plazaolaren aipua <https://josearrue.org/>, Nati Arruek bikain mantentzen duen webgunetik dator. [itzuli]
11. 1928ko maiatzaren 2an, José eta Ramiro Arrue anaiak Uruguai eta Argentinan barna abiatu ziren, beren lanak eta baita Alberto eta Rikardoren beste batzuk ere eramanez. Santurtzin ontziratu ziren Sota y Aznar ontzi- enpresaren *Atxerri-mendi* ontzian, Pedro Sustacha zela kapitaina. Abiatu aurretik, Euskal Artisten

Elkarteak, Jenaro de Urrutia buru zuela, agur- bazkari bat eskaini zien lau anaiei, 1928ko apirilaren 28an, Bilbana Elkartean. 80 mahaikide baino gehiago izan ziren ekitaldian (besteak beste, Aurelio Arteta, Antonio de Guezala, Ángel Larroque, Quintín de la Torre eta Julián de Tellaechek artistak, eta Pedro Mourlane Michelena eta Joaquín Zuazagoitia idazleak). Julián de Tellaechek hitz batzuk eskaini zizkien, eta Begoñako danbolinteroek musika joaz girotu zuten afaria; atxikimendu ugari jaso zen, eta bat izan zen Euskal Herriko 200 txistularik bidalia. 1927an sortu zen Euskal Herriko Txistulari Elkartea, eta 1928an kaleratu zen aurrenekoz bi hilean behin argitaratzen zuen buletina, *Txistulari* aldizkaria. [\[itzuli\]](#)



## OLASAGASTI - SAGARDANTZA

Jesús Olasagastiren *Sagar-bilketa* horma-irudia (*Recogida de la manzana*) ez da dantza bera, baina herri-ospakizun horren aurreko unea jasotzen du. Artetarenaren antzeko espiritua erakusten du hemen artistak, Giottoen espiritu frantziskotarretik gertu dagoen pintura batekin. Haren lanak ere liluratzeko zuten Olasagasti 1926an Italiara egin zuen bidaia batez geroztik. Artetak fresko bat egin zuen Ricardo Bastidaren udako etxeko jantoki-egongelarako, non gora samar ipiniko baitzuten, eta Olasagastik, berriz, Montevideoko lagun baten jantokirako egin zuen, kontsolaren gainean jartzeko, altuera ertainean.

Euskal baserrietako udazkeneko une goren bat irudikatzen du Olasagastik, sagar biltzea<sup>1</sup>. Baserritarrek beren arreta guztia eskaintzen diote neguan lagunduko dien fruta honi, kontu handiz jaso eta biltegitzen baldin bada. Artetak ez bezala, Olasagastik erditik irekitzen du konposizioa: bikote gazte batek, kontrako norabideetan begira kide bakoitza, sagarrez betetako saski bat darama, biek heltzen diotela saskiari; bakoitza konposizioaren alde batera doa. Haien atzean, eta bien artean, bi emakume agertzen dira, besoak jasota, zumezko erretilu lau banari eutsiz; atzean, mendiek, baserriek eta zuhaitzek, beren kurbekin, konposizioa ixten dute; mendian gora beste gazte batzuk doaz, saski handiagoeekin. Interesgarria da ikustea Olasagastik nola ebakitzen duen saskia, besoak jasota dituen neskaen buruan, zeruko urdinaren eta bere buruaren atzetik kurbatzen den mendiaren artean. Genero guztiekin jokatu du Olasagastik hemen: natura hila, giza irudia, paisaia. Harmonia- multzo bat da; harmonia kromatikoak dira sagarretan (eskuineko saski bakartiarekin, kolorezko disko bat balitz bezala), tonuen harmonia (gonen, blusen eta galtzen tonu desberdinetan) eta egitura linealarena (herriaren edo baserriaren planoen arkitektura, sei zuhaitzen ugaritasun lerro-makurraren aurrez aurre). Konposizioak oso dinamika bizia du, zuhaitzen enborren bertikaltasun dantzariagatik, sagarren bi pilarengatik –kolore handikoak, enborren oinean bilduak sagarrak–. Etxeen profilak eta herri bateko elizak bermatzen dute irudi osoaren simetria ezkerretatik, eta bi isurkiko teilatua duen baserri batek eskuinaldetik, bi metarekin. Ez da dantza bat irudikatzen; aitzitik, konposizioak berak *dantzatzen* du.

Udazkenaren amaierako lan honen ondoren, sagarra bildutakoan, Euskal Herriko eta Nafarroako herri askotan festa bat eta dantza bat egiten zen, *sagar-dantza* deitua, sagarraren dantza alegia. Kontserbatzen den tipikoena Arizkungo herrikoa da, Baztanen, nahiz eta kasu honetan dantza hori inauterietan egiten duten. Lau gizonak dantzatzen dute, gerriko gorri batez lotutako alkandora eta galtza zuriz jantzita, eta koloretako paperez apaindutako txano koniko altu batekin. Oinetan alpargata klasikoak dituzte eta lepoan kolore biziko zapi bat. Eskuan sagar bana darama dantzari bakoitzak, eta dantzaldiaren amaieran ikusleei botatzen die. Sagar-dantza hainbat kantutegitan jasotzen da, Azkuerean esate baterako, baina punturik gorena Aita Donostia apaiza kaputxinoaren konposizioa da<sup>2</sup>, 1932an bere *Euskal akuarelak (Acuarelas vascas)* lanean bertsiorekin orkestratu bat egin baitzuen, urte horretan bertan Madrilen Orkestra Nazionalak estreinatu zuena<sup>3</sup>.

Sagar-dantza jatorrian gizonak dantzatzen zuten arren, euskal dantza gehientsuenak bezala, gaur egun emakumeek dantzatzen dute. Olasagastik ere gizon baino emakume gehiago aurkezten du lehen planoan; sei emakume-irudi daude eta hiru gizonetzko. Horietako bik, besoak gora jasota, dantza egiten

dutela edo erritmo bati jarraitzen diotela dirudi. Baina sagar horiek dira benetako gaia, Cézannerengandik hartuak; haien kolore gorri indartsuak kontraste bizia sortzen du berdeen eta urdinen soiltasun kromatikoarekin. Olasagastik konposizio eder bat eraikitzen du, forma soilez eta geometrizatutako bolumenez osatua, Artetaren estiloan, baina –planoen sinplifikazioarekin eta urdinen tonalitate kromatiko zabalarekin jokaturaz– *koreografia bat osatzeko* gaitasuna txertatzen du.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. Jesus Olasagasti Irigoyen (1907 – 1955), donostiarra, obra-kontratista baten semea zen, eta Donostiako Marianisten ikastetxean ikasi zuen. Ascensio Martiarena eta Julián de Tellaecheren pintura-eskolak jaso zituen. 1924an Madrilera joan zen, eta Daniel Vázquez Díazekin osatu zuen bere prestakuntza. 1926an, Italiara joan zen, eta han liluratuta geratu zen Giottoren narrazio- moduarekin, bitarteko-sinpletasun frantziskotarrarekin. 1936an, boluntario falangista gisa sartu zen matxinatuen osteetan, Sagardía Zutabeen, eta hark freskoko erretratuak pintatzera eraman zuen gerraren ondoren, Francoren erretratua besteak beste. [itzuli]
2. José Gonzalo Zulaika edo Aita Donostia (Padre Donostia) (Donostia 1886–1956) Anaia Txiki Kaputxinoen Ordenako frantziskotarra (OFM), konpositorea, musikologoa eta organo- jole espainiarra, irakaslea Lekarozen. Prestakuntza gregorianoa izan zuen, zenbait abadia beneditarretatik igaro baitzen: Silos (1909), Besalú (1915) eta Solesmes (1920aren ondoren). Konpositore gisa, ekoizpen zabala du: 11 urterekin sortutako *Diana* goiztiarretik hasita, ospetsu egin zuten *Euskal Preludioak* obraraino. Beste autore batzuk bezala, erbestean bizi izan zen 1943ra arte, orduan sartu baitzen Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenean integratua zegoen Bartzelonako Musikologia Institutu Espainiarrean, lehendabizi musikologiako sailean eta gero folklokoan. Herri-musikari buruzko sei mila fitxa osatu zituen. Ucelayk behin baino gehiagotan erretratatu zuen. [itzuli]
3. *Euskal akuarelak (Acuarelas vascas)* (1932) lanak bost pieza ditu: 1. Zuberoako herrialdea. 2. Edate-dantza. 3. Sagar-dantza. 4. Esku-dantza. 5. Zozo-dantza. 1932an estreinatu zuen Enrique Fernández Arbós (1863–1939) biolin-jole eta Orkestra Nazionaleko zuzendariak. [itzuli]

## UCELAY – ZUBEROAKO DANTZAK

*Zuberoako dantzak* (*Danzas suletinak*) koadroak<sup>1</sup> José María de Ucelayk Pio Barojaren *Guía del País Vasco* ilustratu zuen unean du jatorria<sup>2</sup>. Zuberoako dantzari-talde baten irudikapena da; Zuberoako maskarada batean parte hartzen dutenak dira. Inauterietan izaten da maskarada hori, eta hogeiki kidek baino gehiagok parte hartzen dute hartan, bi talde antagonikotan banatuta: gorriak (dotoreagoak) eta beltzak (basatiagoak).

Ucelayk antzerki- eta dantza-erritu honetako bost pertsonaia garrantzitsuenetara mugatu du antzezpena, baina kontuan hartzen ditu bi talde antagonikoak. Izan ere, talde bakoitzeko gizon-zaldia betetzen du (hurbilekoak eta urrunenekoak) koadroaren erdigunea, bi jarrera zeiharretan. Lehen planoan, taldeetako bat ageri da atsedean hartzen, objektu ugariarekin (otar itxia botilarekin, ogi biribila, perretxiko-otarra eta euskal mahai-zapiak, bi gardenia, lore batzuk eta euskal salterioa, gainean txirula eta zotz bat dutela); eta, beste aldean, musika-tresnak (alboka, txistua eta danbolina, bestelako mahai-zapi baten gainean) eta, erdian, ardo-ontzia (godalet-dantzakoa berez); artzain-txakur alemaniar bat ageri da eszenari beha; lurrean eserita dauden emakume batek eta dantzari batek begiak zuzentzen dizkiote ikusleari, eta gainerako pertsonaiek elkarri begiratzen diote. Lehen talde honen atzean beste taldea agertzen da (pertsonaia berekin) gabota dantzatzen —biribilean egiten den dantza korala—, pertsona batzuk begira daudela; lau pertsonaiek, besteak beste, mutil kozkor batek eta brusa beltza duen txistulari batek, bizkarra ematen diote ikusleari.

Oraindik ez da azterlanik egin dantza-multzo hauen azpiko metafisikaren eta pertsonaia nagusien esanahi simbolikoaren inguruan. Bereziki aipagarria da *zamaltzaina*, hau da, *dantzari-zaldia*, Europa osoa korritzen duen sinboloa: Lascaux-ko burutik eta “Calaceiteko zalditxo” deitzen zaion argimutil botibotik hasita, *hobby horse* ingeles esapideraino, zeina landu baitu artean Ernst Gombrich-ek; berebat azpimarratu behar da animalia honen hileta-sinbologia, José María Blázquez-ek kultura mediterraneo eta iberiarretan agertu duena, eta Rodney Gallop-ek Poloniako eta Greziako *zamaltzainetan*<sup>3</sup>; eta ez da ahaztu behar Lantzeko *zaldikoa*, Paleolitoko hezur-grabatu bat gogorarazten duena, Ingalaterrako kobazulo batean aurkitua, aurpegia zaldi-buru batez estalia duen gizon bat agertzen duena<sup>4</sup>.

Maskarada hau zaldia etxekotzeari buruzko jai bat da, hau da, zikiratzeari eta ondorengo ferratzeari buruzkoa. Zaldi etxekotua Brontze Aroan agertzen da, zikiratu eta ferratzeko beharren inguruko errituekin; gero, muntatzeko estiloak etorriko dira, eta, ondoren, hedeenak. Lanbide bereziak ziren zikiratzaile eta errementariak, zaldiei xuxurlatzen eta lasaitzen zekien jendea zen, ferratzeko eta zikiratzeko. Hala, errendimendu hobea eta mugimendu arraro gutxi izatea lortzen zuten. Herri askok oraindik ere jaiak dituzte erritu honen inguruan, eta horrexen antzezpena da Zuberoako maskarada, ia-ia dantza-segida bihurtua<sup>5</sup>.

Hala, Ucelayk desagertzeko zorian zegoen dantza bat finkatu zuen historiarako. Lehen planoan atsedetan dagoen taldean, ezkerretik eskuinera, honako pertsonaia hauek agertzen dira:

- *entseinaria* edo *drapeau*, bandera darama eta dantzan zehar eragiten diona; konpartsa edo erritu orokorra ezartzen du; *gathuzaina*, egurrezko guraizeak edo pantografoa izeneko tresna bat daukana;
- *txerreroa*, muturrean zaldi-isats bat duen makila bat daramana, hauspoa zabalik duen akordeoi handi baten etxean eserita;
- *kantiniersa*, emakumez jantzitako gizona, XIX. mendeko kantinera frantses baten moduan jantzia, zeinaren eginkizuna soldaduei edariak zerbitzatzea baitzen; *buhaume martxa* izeneko dantzarekin sartzen da plazan<sup>6</sup>; *zamtzaina*, dantzako pertsonaiarik ikusgarriena, gerrian zaldi moduko bat daramana.

Lehen planoan, maskarada honetan erabiltzen diren musika-tresnak: esku-soinua akordeoia, alboka, ttuntuna eta txirula, dantza honetako eta, oro har, Ipar Euskal Herriko tipikoak azken bi hauek. Era berean, bada edalontzi bat *godalet-dantza* izenekorako. Ardo-edalontziaren gainean egiten den dantza bat da, erdiko pertsonaia guztien trebetasun teknikoak probatzen duena; izan ere, dantzari bakoitzak bi oinak elkarrekin jarrita jauzi egin beharko du edalontziaren gainean, eta une batez bertan geratuko da.

Mendi kurbatuen paisaia batekin ixten da koadroa. Hodeiek erritmikoki jotzen dute mendiekin, bihurtzeko irudikapena itxiz, lehen terminoko lerro zuzen eta koadroarekiko paraleloen aurrean, nola den pertsonaia esertzen diren bankua. Atzean, Goteingo eliza dago, Zuberoan, bere kalbario motako kanpandorrearekin, zeina oso zabaldua baitago Zuberoako (Ipar Euskal Herria) eremu horretan, eta artistaren marrazki askotan agertzen da; mendiak, berriz, Durangokoak dira.

Konposizio bikaina da, koloreagatik eta lerroaren arabesko-eritmoagatik. Arratsaldeko argiarekiko kezka ohikoa da Ucelayrengan, baita bere koadroen bukaera arduratsu hori ere. Ucelayren kolore bereziak denboraren joanean zapaltzen du Zuberoako dantza, denboraz kanpoko irudi batean izozten du. Ucelayk narrazio konplexu eta bertutetsu bat eskaintzen digu: dantza baten azken erretratua da, pertsonaia batzuen bano gehiago; objektuen eta inguruko airearen urruntasunean eta metafisikan galtzen den erretratu bat da, koadro zirkularra.

Ucelayren koadroek ihes egiten dute euskal pinturak berezkoa zuen folklorismotik, eta horregatik kritikatu zuten beste artista batzuek: Ucelay ez zen euskal pintore benetakoa, ez baitzuten egutegiko baserriarrak pintatzen. Mauricio Flores Kaperotxipi pintoreak idatzi zuen kritika-mota horren adierazgarririk onena: “Ucelayren euskaldunek Euskal Herriko baserriarrez jantzitako aristokrata ingelesak dirudite. Emakumeak Albako dukesatxoak balira bezala irudikatzen ditu. Jakina, gizon-emakume hauek Ucelayk margotzen dituen bezala balira egiaz, zeinek jertziko zituen gure behiak? Zeinek moztuko luke belarra? Zeinek artoa erein?, galde liteke”<sup>7</sup>. Koadro honetako pertsonaia guztiak errealak dira, ia denak Busturiako bizilagunak, artistaren etxearen inguruko baserrietakoak, edo koadroa egiten ari zela bisitan pasatu ziren lagun batzuk<sup>8</sup>.

Galdera erretoriko eta ez oso argi horren aurrean —artista batengandik etorrira—, erantzun zuen Ucelayk 1978an: “Nik galdetzen dut nik pintatzen ditudan baserriar horiek nik asmatutako irudiak ote diren edo errealtatetik hartutako irudiak. Denak dira errealtatetik hartuak, ez dut gogoratzen modelotzat erabili ditudan pertsonen erretratu leiala ez den pinturarik egin dudarik. Adibidez, arrantzaleen bizitza gaitzat

duen horma-irudian, Bermeon dagoen horretan, irudi guztiak Bermeokoak dira, hezur eta haragizkoak. Izan aristokratak, edo, izan beste edozer, Bermeoko marinela dira, eta hain antzekoa ikusi zuten hartan beren burua, non koadro hori aurrenik egon zen areto handian, Bermeoko batzokian, mahaiak aukeratu baitzituzten pintatuta zeuden taldeen azpian esertzeko. Pentsatzen dut irudi horiek ikusten dituztenak ez direla beren irudi naturalen dotoretasunaz konturatzen, eta beren burua margotuta ikusi arte itxaron behar dutela horretaz ohartzeko. Haiek, ikusten dituzten subjektuak, koadrokoak bezain dotoreak direlako agian. Azken batean, horrek esan nahi du jende horrek ez diola behar adina begiratzen ispiluari. Eta koadro bat bizitzaren isla besterik ez denez, eta ispiluak benetako irudiak islatzen dituenek, koadro horiek ikustean, portuan baino arreta handiagoz begiratzen diete, eta espero ez zuten zerbait ikusi dutela iruditzen zaie”<sup>2</sup>. Ramón Bastera poetak bai, hark ondo interpretatu zuen Ucelayren euskaltzaletasuna, Ucelay “etnografiatik askatzea” dela adieraziz<sup>10</sup>. Ucelayk ez du kontakizun etnografiko bat dokumentatzen; oso bestela, bere poesian, Ekialdekoen moduko xehetasunean eta bere kaligrafia pertsonalean sublimatzen du, bere irudiak *erakusketa kultural* handi bat bihurtuz.

Ucelayk amarraleku baten gisa uzten digu bere pintura –bere lanak, Bermeoko horma-irudia nahiz pieza hau, *Zuberoako dantzak*–, lurraldearekiko pertenezia-sentimendua hari lotu hartan lotzeko. Bere pinturaren, paisaiaren, arkitekturaren, nekazaritzako tresnen, dantzen eta garai bateko fenomeno baten konplexutasunaren bidez, aldatzen ari den gizarte baten dimentsio askoko erradiografia bihurtzen dira.

Ucelayren koadroak ez dira ikerketa etnografikoa, ezta argazkigintza ere, *opera poetica* baizik. Hemen ez da zientzialariaren begirada dokumentatzen duena, artista-poetaren begirada baizik, barne-barnetik datorrena, begiarekin ez ezik, bihotzarekin ere erabilia. Ucelay mundu horretakoa zen, eta bazekien haren zatia zela, baita haren desagerpenaren zatia ere. Simone Weil idazleak bezala pentsatzen zuen: “La destruction du passé est peut-être le plus grand crime”.

Gainbehera horri begira dago Ucelay, baserriko noblezia benetako batetik, elizako kanpaiak antolatutako garai baten galerara. Ez da bukaerako garaia (hirurogeiko eta hirurogeita hamarrek hamarkadak izango dira bukaerako garaiak), baina bai inbentarioa egitekoa. Ez dago denborarik galtzeko, itxiera-inbentarioa baita, hiltorian dagoen mundu batena, zeina ez baitugu 98ko begiradarekin (Zuloagarena edo Zubiaurretarrena) begiratu behar, ezta sinbolismo mitiko batekin ere (Arteta), noblezia hori, berezia, estetiko dena, baserriarren duintasuna azpimarratzearen pozarekin baizik. Ucelayk ez dio aurrerabideari uko egiten; aldiz, uste du oroimen bisualean gorde behar direla eraikin zaharren eta tresnen oroitzapenak, Aita Donostiak euskarazko kantuekin eta herri-kondairekin egiten zuen bezala.

Ucelayk, iragana salbatzeko, ez du goraiatzeko hondamenera doan eta miseriaren kolorea duen guztia, baizik eta pertsonen eta bere gauzen edertasun naturala poetizatzen du, eta edertasun horrekin batera, baita eguneroko kultura ere: arrantza- aparailuak edo dantzarenak. Lehen Ucelayko poetizazio etnografikoko pintura, bere *Zuberoako dantzak* arte, memoria bat balioesten duen lekukotasuna da, existentzian ezik, narrazioan irautera bideratutako ondare baten herentzia-balioa.

[Itzultzailea: Rosetta Testu Zerbitzuak S.L. eta Guggenheim Bilbao Museoa]

## OHARRAK

1. 1956ko Veneziako Biurtekoan aurkeztu eta Madrilgo Toisón aretoan saldu zen, 1957an. Bai Bermeoko horma-irudiak, bai koadro honek, beste pintura-lan asko eragin dituzte, astokoak, eta horma-irudi honetan integratuta zeuden elementu batzuk beregainak egin dira. [\[itzuli\]](#)
2. *Guía del País Vasco*, Bartzelonako Destino argitaletxeak 1952an Pio Baroja idazle euskaldunari eskatua. Barojak, berriz, José María de Ucelay artista bizkaitarrak egiteko gidaren irudiak eskatu zion argitaletxeari. Estalki bikain honek irudimenezko paisaia bat irudikatzen du, benetako eremuz osatua (Ondarroa, Durango, Busturia, Lapurdi, etab.), eta erdian hiru pertsona ageri dira: Pío Baroja posatzen, haren iloba Julio Caro Baroja antropologoa beha eta margolaria lanean. Hiru zirriborro daude: batek behin betiko arkatzezko konposizioaren eskema zehatza du, eta beste biek –eskala desberdinetan– kolore-intonazioaren bi azterketa mota erakusten dituzte, azal konplexu eta ondo orkestratu honetarako. Esan daiteke Baroja eta Ucelay direla euskal probintziez berriro hitz egiten hasi ziren lehenak, Gerra Zibilaren ondoren eta frankismoa bete-betean zela oraindik. Ucelay Eusko Jaurlaritzako Arte Ederren zuzendaria izan zen Gerra Zibilean, eta Ingalaterran erbesteratuta egon zen 1950 arte. [\[itzuli\]](#)
3. Rodney A. Gallop, *A Book of the Basques*, Macmillan and Co., Londres, 1930; eta orobat Violet Aldorf musikologo eta folkloristarekin batera idatzitako liburuan, *The traditional dance*, Methuen Argitaletxea, Londres, 1935. [\[itzuli\]](#)
4. Lewis Mumford, *La ciudad en la historia*, I. alea, 14. or. Christian Hole-k dioenez, gure aroko VII. mendean, urtarileko kalendetan, baziren festa batzuk non gizonak, animalia-larru eta -buruz estalirik, kaleetan korrika eta saltoka ibiltzen baitziren, eta, hura deabruzkoa zela-eta, Canterburyko artzapezpikuak debekatu egin zituen. [\[itzuli\]](#)
5. Jean-Pierre Mohen eta Christiane Eluère, *The Bronze Age in Europe. Gods, Heroes and Treasures*, Thames and Hudson, Londres, 2000, 96 eta 151. or. [\[itzuli\]](#)
6. *Buhaume-martxa* izeneko dantza (jitoaren dantza, *buhame*), zaldia zikiratuko dena. Inauteriko dantza edo erakustaldi teatral hau *arribada* izenaz amaitzen da, eta hartan parte hartzen dute ikuskarian aritu diren pertsonaia guztiek, baita publikoak ere. [\[itzuli\]](#)
7. ar7. Mauricio Flores Kaperotxipi, *Arte Vasco*, Ekin argit., Buenos Aires, 1954. [\[itzuli\]](#)
8. Busturiako Altamira auzoko pertsonak dira, hala nola Amador Gorriño, Beotegiko neskak, Ines haren emaztea eta abar, eta beste koadro batzuetan Víctor Olaeta dantzaria agertzen da; apaiza Angel de Apraiz katedraduna da, Busturiako zeramikari buruzko lehen azterlanaren egilea. [\[itzuli\]](#)
9. *Egin* egunkaria, abenduak 9, 1977. [\[itzuli\]](#)
10. *El Liberal* egunkaria, urtarrilak 1, 1927. [\[itzuli\]](#)